

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Palatizazioa euskaraz

Egilea:	MIREN LOURDES OÑEDERRA OLAIZOLA
Urtea:	1987
Zuzendaria:	KOLDO MITXELENA ELISSALT
Unibertsitatea:	UPV-EHU
ISBN:	978-84-8428-267-6

Hitzaurrea


Joan dira hogei urte baino gehiago nik tesi hau Koldo Mitxelena Maisuaren gidaritzapean egin nuenetik. Gaur bertan berriro hasi beharko banu gaiaren ikerketan, ez dut uste asko aldatuko nukeenik funtsean. Izango lirateke aldaketak, noski, geroztik fonologiaren teoriak ikasi ahal izan dudanaren ondorioak. Ziurrenera kontu handiagoz, are zalantza gehiagorekin eta baieztapen biribil gutxiagorekin idatziko nuke. Hain zuzen ere fonologian sakontzeak, beste edozein jakintzatan gertatu bide den bezala, zalantza eta zuhurtasuna indartzen baititu... Baina, batez ere, ez nuke egun izango 1987a arte aldamenean eduki nuen, itzal babesle eta argi gidari, Koldo Mitxelena. Orduan banekien zer nolako pribilegioa nuen hura izatearekin tesi zuzendari. Uste nuen banekiela behintzat. Gaur, lan akademiko-intelektualaz bizimodua atera ahal izan baitut urteotan zehar, orduan baino aski eskarmentu gehiago dudala esan dezaket eta orduan baino ziurrago dakit Mitxelena handienetako bat zela. Nik hura bere azken urteetan irakasle eta zuzendari izateko zori ona izan nuen (eta dut, zoriona). Mitxelenak zuzendutako azken tesia egitasmo honi eskerrak esparru elektronikora irekitzea benetan gauza pozgarria iruditzen zait. Eskerrik asko hari eta beste horrenbeste tesia sarean jar dezadan ahalbidetu dutenei.

Miren Lourdes Oñederra Olaizola
2009

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.
FILOLOGIA ETA GEOGRAFI-HISTORIA FAKULTATEA.

Palatalizazioa euskaraz

Zuzendariaaren Oniztat Emana.

A handwritten signature in black ink, appearing to be 'Miren Lourdes Oñederra', written over a horizontal line.

Miren Lourdes Oñederra
Olaizola lizentziatuak Koldo
Mitxelena Elissalt Doktore
jaunaren zuzendaritzapean
eginiko Doktoradutza Tesia

amonari eta amamari

«Galaad'ek Yordan'go ibiak Eparain'i kendu zizkion;
ta Eparain'dik iges egitean «Igaro al dut?» iñork
zioanean, galaadetař ek ziotsatzen: «Eparaindař a al
zera?», eta «Ez» ba'zerantzuyen, Galaad'etař ek
zesayoten: «Esak *xibbolet*. Ark *sibbolet* zion;
bestela ezin oguzi bait-zun. Ordun atzeman ta
Yordan'go ibian zintzurř egiten zuten. Berř ogel ta bi
miř a eparaindař il zituten garai artan».

Ebazleak 12, 5-6 (Olabide)

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	VI
ERABILITAKO ZENBAIT HITZ.....	VIII
0. Atarikoak	1
I. Palatalizazioa	6
I.1. Bilakabidearen izenak direla eta.....	6
I.2. Palatalizazioa hizkuntzen deskribapenetan.....	8
I.3. Asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarria.....	13
II. Euskarazko palatalizazioak.....	18
II.1. Euskarazko palatalizazioaren ezagutzaz.....	18
II.2. Palatalizazioaren antzintasunaz.....	22
II.3. Palatalizazioaren fonetikaz.....	27
II.4. Palatalizazioaren beste zenbait arazoz.....	30
II.4.1. Despalatalizazioaz.....	30
II.4.2. Neutralizazioaz.....	34
II.4.3. Palatalizazioa eta aspirazioa.....	41
III. Asimilazio bustidura.....	44
III.1. Asimilaziozko hots aldaketak.....	44
III.2. Bustidura asimilazio bezala.....	46
III.3. Ahoskunearen asimilazioa.....	49
III.4. Asimilazio aurrekaria.....	50
III.5. Asimilazioaren eragilea.....	55
III.6. Aldatzen diren hotsak (hots "bustigaiak").....	60
III.7. Asimilazioaren ingurunea.....	69
III.8. Morfema mugaren garrantzia.....	72
IV. Bustidura adierazgarria.....	77
IV.1. Hizkuntzaren adierazgarritasuna.....	77
IV.2. Hots sinbolismoa edo adierazgarritasun fonetikoa.....	82
IV.3. Euskarazko bustidura adierazgarria.....	95

V. Euskarazko kontsonante palatalak.....	107
V.1. Kontsonanteon iturbideez.....	107
V.2. Kontsonante palatalen zenbait ezaugarri.....	111
V.2.1. [ɸ] sabaiko albokoa (<iɪ, lɪ>).....	113
V.2.2. [ɲ] sabaiko sudurkaria (<iɲ, ñ>).....	114
V.2.3. [d̟] sabaiko herskari ahostuna (<i(l,n)d, dd>).....	117
V.2.4. [t̟] sabaiko herskari ahoskabea (<it, tt>).....	120
V.2.5. [ʃ] frikari sabaiaurrekoa (<is, iz, x>).....	126
V.2.6. [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa (<its, itz, tx>).....	129
V.3. Kontsonante palatalen eragina.....	133
 VI. Testu azterketa: asimilazio bustiduraren erregelak.....	136
VI.0. Sarrera.....	136
VI.0.1. Asimilazioaren baldintzak.....	137
VI.0.2. Lanaren egitura.....	146
VI.1. Bizkaiera.....	148
VI.2. Gipuzkera.....	241
VI.3. Sakana.....	271
VI.4. Elkano.....	281
VI.5. Baztan.....	289
VI.6. Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari.....	296
VI.7. Zuberoa.....	300
 VII. Testu azterketa: bustidura adierazgarria.....	308
VII.0. Sarrera.....	308
VII.1. [ɸ] sabaiko albokoa.....	310
VII.2. [ɲ] sabaiko sudurkaria.....	336
VII.3. [d̟] sabaiko herskari-frikari ahostuna.....	353
VII.4. [t̟] sabaiko herskari ahoskabea.....	358
VII.5. [ʃ] frikari sabaiaurrekoa.....	363
VII.6. [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa.....	396
 VIII. Ondorioak.....	449
 BIBLIOGRAFIA.....	456

LABURDURAK •

- A aezkera(z)
 adib. adibidez
 ald. aldaera (*variante*)
 a. lg. aditz laguntzailea
 Alts. Altsasu
 Ar. Archu
 arm. armagintza (hiztegia)
 Ast. Asteasu
 AV Holmer/Abrahamson-en "Apuntes vizcaínos" (ik. bibliografia)
 Azk. Azkue-ren hiztegia: Resurrección M^a de Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, I eta II, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
 b. euskara batuan
 B bizkaiera(z)
 b.e. beste euskalkitan
 Baz. Baztan
 BE Bruno Echenique-ren itzulpenak (ik. bibliografia)
 biarn. biarnokera(z)
 BN behenafarrera(z)
 BS Larrasquet-en *Le Basque de la Basse-Soule (...)* (ik. bibliografia)
 Cat. *Le petit Catéchisme (...)* (ik. bibliografia)
 Cor. Corominas-en hiztegi etimologikoa: Joan Corominas, *Breve Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*³, Madrid: Gredos, 1973.
 CTP Canticum Trium Puerorum (ik. bibliografia)
 desp. despalatalizazioz
 Don. Donostia
 EF J.M. Barandiaran-en *Eusko Folklore* (ik. bibliografia)
 elk. hitz elkartua
 EO Izaguirre-ren "Erronkariko euskal-ondakin batzuk" (ik. bibliografia)
 Er. J.B. Agirre-ren *Eracusaldia* (ik. bibliografia)
 erg. ergatiboa
 err. erromante(z)
 Err. erronkaria(z)
 Errent. Errenteria
 erres. erreseña

• Azaltzen diren laburdura hauetako batzu ezagunak izango dira gehienentzat behintzat. Ezagun eta ezezagunen arteko muga non ezarri behar den erabakitzeko ausardiarik ezean, erabililtako guztiak zerrendatzen dira (latinezko *cf.*, *s.v.* eta kidekoak ezik). Batzuetan laburpenaren azalpena beste zenbait ohar egiteko aitzaki bezala erabili da.

eusk. euskara(z)
 FHV Mitxelena-ren *Fonética Histórica Vasca* (ik. bibliografia)
 fr. frantsesez
 G gipuzkera(z)
 gazt. gaztelera(z)
 GN goinafarrera(z)
 Gz. Gèze
 h.d. hau da (latinezko *id est*) Txandaka, *alegia* ere erabiltzen da.
 h(h). hurrengo orrialdea(k)
 ig. iguzki-aldeko (*oriental*)
 ik. ikus
 ines. inesiboa
 ing. ingelese(z)
 kat. katalane(z)
 L lapurtera(z)
 Larr. Larrasquet
 lat. latinez
 Lh. Lhande-ren hiztegia: Pierre Lhande, *Dictionnaire Basque-Français*. Paris: Gabriel Beauchesne, 1926.
 M Michelena-ren (bibliografi aipuetan)
 M^a Mol. María Moliner, *Diccionario de Uso del Español*, I eta II, Madrid: Gredos, 1983.
 Mark. Markina
 me. mendebaldeko (*occidental*)
 mozar. mozarabiarrez
 MS Marcelino Soroaren *Baratzan* (ik. bibliografia)
 N nafarrera
 oh. oharra
 onom. onomatopeia
 ort. ortografikoki
 ROL Rollo-ren *The Basque Dialect (...)* (ik. bibliografia)
 RS *Refranes y Sentencias* Alpuak FHVtik hartuak dira eta ez zuzenean jasoak.
 TE Toribio Echebarria-ren "Lexicón (...)" (ik. bibliografia)
 top. toponimo edo leku izena
 Z zuberera(z)
 zah. zahar(rean)
 Zar. zaraitzuera(z)

OHARRA: Arazo teknikoak direla eta, kapitulu bakoitzak bere ohar saila du, halaber kapitulu luzeenen azpialdi bakoitzak.

ERABILITAKO ZENBAIT HITZ •

ahoskabe sordo (ing. *voiceless*)
 ahostun sonoro (ing. *voiced*)
 ahostuntze sonorización (*voicing*)
 aldaera variante
 aldagai variable
 aurkakotasun oposición (baita ere oposaketa)
 benetazko edo berezko primitivo (≠ secundario)
 berreskurakor recuperable
 bilakabide proceso
 bilakaera evolución
 bustigaia bustidura edo palatalizazio aldaketa jasan dezakeen
 hotsa (aldaketaren *input* izan daitekeena)
 ebakin segmento (baita ere segmentu)
 emankor productivo (baita ere oparo)
 erregela bilakabideen adierazpen formala
 hizkera variedad lingüística, subdialecto
 (hortz-)hobietako alveolar
 nabaritasun evidencia (baita ere ebidentzia)
 nolakotasun timbre vocálico, cualidad
 ozen sonante (ing. *sonorant*)
 trabari obstruyente (ing. *obstruent*)
 txandakatze alternancia
 txikigarri diminutivo

• Hauetako batzu Pello Salaburu-ren lanetan ikasi ditut, nik "asmatutakoren" bat berarekin komentatu ahal izan dut, ez guztiak: hutsak neureak dira. Hemendik, esker mila.

O. ATARIKOAK

Lan honen helburua da euskarazko fonologiaren atal baten ezagutza osatzea. Atal hori palatalizazioa da; beharbada, palatalizazioak esan beharko litzateke, pluralean. Izan ere, bi dira palatalizazio edo bustiduraren barruan sartzen diren aldaketa nagusiak: asimilazioa eta bustidura semantiko edo adierazgarria.

Esan daiteke lan honetan euskarazko palatalizazioen ezaguera historikoa bilatzen dela, helmuga ez dela, alegia, sistema sinkronikoaren sailkatze soila, sinkronian azaltzen zaizkigun bustiduren nondik norakoen zentzua aurkitzea baizik. Ezaguera historikoa esatean, Mitxelena irakasleak esana dugu gogoan: «(...) el sistema de una lengua no puede ser comprendido *históricamente* sin tener en cuenta su historia (...)» (M 1964, 187). Ez du honek esan nahi ikerketa historikoa egiten denik, garbi dagoen bezala, bestelako metodo eta aztergaiak aukeratu behar bait lirateke horretarako. Besterik gabe, Pensado-ren hitzetan adierazten dugun ikuspuntua geure egiten dugula baizik:

«I would say that, paradoxically, the only way to make truly relevant, purely synchronic phonological descriptions is to take into account the behaviour of the language from the historical and cultural point of view.

Linguistic structure is a result of several different forces working together. Linguists' formalizations are worked out from a jumble of data in which regularities can be the result of authentic working processes, but also of fossilized restrictions or even mere coincidences».

(Pensado 1985b, 319-320).

Horretarako euskararen historia, kanpotikako mailebuena, e.a. erabili dira, batez ere aztertutako hitzen etimologiei zegokienean. Etimologia tesi honen alorrean bete-betean sartzen ez bada ere, beharrezkoa da askotan hitzen jatorri eta/edo historia ezagutzea zenbait jokaera fonologiko sinkronikoren arrazoiak ulertuko badugu. Neure ezagueraren eta lanaren mugengatik, formen berreraikuntza edo rekonstrukziorako besterengan oinarritzen naiz (Mitxelena-rengan batipat).

Jomuga nagusia ez da bada bustiduraren baldintza eta testuinguruen deskribapena. Esan daiteke hori egina dagoela euskarazko palatalizazioez. Ez da sistematizazioa bilatzen, gertatzen dena ulertzen lagunduko diguten bideak baizik. Horregatik, agian, lanaren saiorik nagusia da zer ez den palatalizazioa finkatzea. Bestela esanda, asimilazio bustidura benetan asimilazioaren baldintzak betetzen dituztenak esplikatze-ko bakarrik erabiltzea proposatzen da: asimilazioaren eragile eta ingurunea duten hitzetan gerta daiteke asimilazioa. Halaber azaltzen dira benetazko bustidura adierazgarriaren eta sailkapenerako etiketa huts izan daitekeenaren artean dauden bereizkuntzak.

Neurri haundi batean behintzat, lan hontan testu idatziak erabiltzen dira (askotan, bestek jasoak badira ere, ahozkoak dira). Idatzitik ahozkorako diferentziak nabarmenak dira ahoskerari dagokionean, baina hemengo helburuetarako aski da bustidura grafikoki markatzea (horregatik ezin dira erabili F. Bartolome edo Añibarro-ren testuak, palatalizazioa ez bait dute markatzen sistematikoki); gainerako ebakerarekiko aldentzeak ez zaie jaramonik

egiten. Hiztegiaren mailan ere, kontuan izatekoa da *ceteris paribus* idatzian maiz gertatzen diren hitzak maizago gertatzen direla ahozko hizkeran eta testuetan gutxitan agertzen direnak, are gutxiagotan agertzen direla ahozko hizkeran (cf. Phillips 1984, 330).

Testuak erabiltzeak, ordea, ez du esan nahi inola ere arazo fonetikoei garrantzia ukatzen zaienik. Izan ere, fonologiaren oinarri eta baldintzapen fonetikoak erabat onartzen da (cf. Iverson / Sanders 1982, 71-72). Egia da, dena dela, saioak bere mugak dituela lanaren luzeera eta egilearen ahalmenen aldetik. Horregatik, funtsesko ahalegina alor fonologikokoa izanik, fonetikaren laguntza bestek egindako lanetatik hartzen da. Ziurrenik egia da hemen ere Ladefoged-ek (1979, 219) bokalen azterketaz ari dela dioena:

«(...) it seems probable that our lack of knowledge of what we are doing when we make phonetic description is actually hampering our own work as descriptive linguists».

Horrela bada, hobetzat jo da serio ez den zerbait sartu baino, azterketa fonetikoaren sakontzea dagokionerako utzi eta behar diren datuak gure aurretik (ongi) egin dutenengandik jaso (A. Alonso, Larrasquet, Navarro Tomás, Salaburu, besteak beste).

Lehendabiziko kapituluan palatalizazioaren aurkezpen orotarikoa egiten da mota honetako bilakabideek izan ditzaketen izenak aitzaki hartuta. Beste hizkuntzetako zenbait sabaikaltze edo palatalizazio aldakuntzen zerrenda apala ematen da, batez ere alpatu izenen adibide gisa eta euskarazkoa finkatu asmoz. Euskararen barruan bustidura bilakabide bien arteko bereizkuntza azaltzen da eta amankomunean dutena aipatzen. Hain zuzen ere sabaikaltze edo palatalizazio diren neurrian bietan aurki

daitezkeenak aztertuko ditu bigarren kapituluak eta bakoitzaren ezaugarriak hirugarren eta laugarrenak sakonduko.

Bigarren eta bosgarren kapituluak elkarren osagarri edo bata bestearen jarraipen dira neurri haundi batean behintzat, haatik bitan banatu dira. Alde batetik, bigarren kapituluak palatalizazioa bilakabide edo aldakuntza fonologiko bezala aztertzen da. Bestetik, bosgarrenean, hots palatalen ezaugarriez eta iturbide ezberdinez hitz egiten da. Izan ere, azpimarratu nahi izan da zatiketa honekin euskarazko hots palatal guztiak ez direla asimilazio bustidura edo bustidura adierazgarriaren ondorio. Horretxegatik kapituluaren hurrenkera ere: bigarrena ondorengo hirugarren eta laugarren kapituluetan zabalago azaltzen diren euskarazko bustidura bilakabideen aurkezpena-edo da, bosgarrena, berriz, bustidura bilakabideek edo bestek sortutako hotsei dagokie. Jakina da, noski, bilakabideen fonetika azaltzean bilakabideok sortzen dituzten hotsen ezaugarriak ere behin baino gehiagotan agertzen direla. Halaber, hots palatalen ezagutzarako, palatalizazio aldaketek eta hotsok palatalizazio sisteman betetzen duten egitekoa ere oso garrantzizkoak dira.

Seigarren eta zazpigarren kapituluetan aztergai hartutako testuetan aurkitua aurkezten da. Seigarrenean asimilazio bustidurak hizkera bakoitzean zenbaterainoko emankortasuna duen ikusten da eta leku bakoitzean zer den palatalizazio erregelak azaltzen duena eta zeintzu diren erregela horren muga edo baldintzak. Zazpigarren kapituluak gainerako hitz bustiduradunak agertzen duten hots palatalaren arrazoia zein ote den aztertzen da, alegia, asimilazioez ezik beste nolabait sortutako hots palatalarena. Lanaren zati honetan testuetan palatalak adierazteko erabilitako grafia ezberdinen oztopoa aurkitu da noski. Asimilazio bustidurari

dagokion kapituluan gauzak bere hartan utzi dira (besterik egin denean jakinerazten da), sailkapenaren aurkezpenagatik erraz bait da ulertzen kasu bakoitzean zein hotsez ari garen. Zazpigarrenean, ordea, zerrenda hitzez hitz egina izanik, testuak nahastean grafia ere aldatu eta batzea egokiagotzat jo da zenbaitetan. Atal honetako etimologia lanaz goraxeago fonetikaz esana errepika daiteke ia. Alegia, bestek egindakoa erabiltzen da, ez bait du lan honetan lekurik, ez egilearen ahalmenean aukerarik horrelakoetan hasteak. Bestalde, deskripzioaren bide faltsuak baztertzeke jarri behar den arretaren eskema besterik ez da burutu nahi izan eta, ibilian ikasten delako ibiltzen, aurkitutako adibideen adibidezko azterketa abiatzeko saioa egin da.

Ezin dut bukatu atariko atal hau lana posible egin dutenez oroitu gabe. Nola edo hala lagundu didaten guztien zerrenda egiteko, ondoren datozen orrialde guztiak baino gehiago beharko nituzkeela uste dut. Urrutienetik hasteko, Greg Iverson, kartaz beti aldamenen izan dudanari nahi nizkioke eskerrak eman. Baita ere Ansuategui ahizpei, bere aita zen Federico-ren euskal liburu eta aldizkari bilduma eman zigutelako. Ordenadorez ateratako zenbait datu erabiltzen utzi zidan I. Sarasola-ri eta urteotan mimatu nauten Gasteizko sailkideei ere esker mila (beste horrenbeste jasan nauten senide, adiskide eta lagunari). Baina, batez ere, aitortu ezin izango nuela tesi hau inola ere burutu, Mixelena irakasleagatik izan ez balitz. Berari, idatzi duenagatik, esan dizkidanagatik, maila guztietan erakutsi didanagatik, eskola, aholku eta bultzadengatik, eskerrikasko. Matilderi ere, esker mila.

I. PALATALIZAZIOA

I.1. Bilakabidearen izenak direla eta

Palatalizazioa berez zer den esatea ez da bi lerrotan egin daitekeen gauza, besterik ez bada ere, deitura honek esanahi bat baino gehiago dituelako. Gainera, *palatalizazio* esaten zaionari *bustidura*, *bustikuntza*, *sabaikaltzea*, e.a. ere esaten zaio. *Busti-* (cf. fr. *mouillure*, gazt. *mojamiento*) sailekoak perzepzioari dagozkio oro har (Straka 1965, 125, 16. oh.). Baina Menéndez Pidal-en (1973, 107-108) erara esate baterako, artikulazioaren ikuspuntutik ere uler daiteke: bustidura, mihigaina eta aho-sabaiaren ukitzearen neurriak ematen du («la gran adherencia de la lengua al paladar» dira bere hitzak). Horregatik, Menéndez Pidal-en arauera, gazt. <ñ, ll, ch> *bustiak* dira, baina **t̪** eta **d̪** (eta gazt. zah. **š**, **ž**), ez. Rousselot-en definizioa ere artikulazioan oinarritzen da erabat. Mihia-
ren zati eta giharrez ari dela, honela dio:

«Dans la partie médiane, elle a moins de force, manquant des muscles spéciaux pour s'appliquer à cet endroit sous la voute palatine. Aussi n'y donne-t-elle pas naissance qu'à des sons plus mous qu'on appelle mouillés. Cette mollesse dans l'occlusion peut également se produire aux extrémités et amener des résultats analogues».

Rousselot 1924-1925, 276.

Roudet-entzat ere bustidura ahoskune palatal garbiak (baina ahulak) ematen du (cf. A. Alonso 1923, 63-64). Lenz-ek esan omen zuen lehendabizikoz hots bustiak ebakera ahularen emaitza direla. Badirudi, ordea, ondorengo ikerketen arauera, oker zebiltzala zenbait gauzetan eta entzumenaren aldetik soma zitekeena

fisiologiari ezarri nahi izan ziotela. Izan ere, hots bustiak ahoskatzean giharrek bustidurarik gabeetan baino tinkoago omen daude (cf. Straka 1965, 120 hh., batipat 123-124) ¹.

Alde honetatik, aipagarria da han hemenka azaltzen den kontsonante bustien beste izen bat, "bigun" (fr. *molle*) deitura, alegia (hala nola Grammont-en *Traité de Phonétique* lanean). Ohizkoa da, esate baterako errusierazko hots bustiez aritzean, hots bigunez (*soft*, ingelerazko literaturan) hitz egitea. Hiztegi sistema honetan kontsonante bustigabeak kontsonante "gogorrak" (Grammont, *consonne dure*) dira.

Bestalde, zalantzarik gabe artikulazioaren alorreko hitzak diren *sabaikaltze* eta antzekoak *palatalización* eta honen kidekoen ordain dira: eusk. (*aho-*) *sabai* = gazt. *paladar*. Baina, jatorriak jatorri, izen hauek ia sinonimotzat hartzen dira (erabat sinonimotzat, esango nuke, euskarazko erabilkera gehienetan behintzat). Hemen ere hala egingo da, lana fonologiazkoa izanik, xehetasun fonetikoak aurrerantzean errazagoak izango diren azterketa fonetikoetarako utziaz ².

Palatalizazio (*palatal*, e.a.) hautatu da inguruko hizkuntzetan ere erabiltzen delako (cf. gazt. *palatalización*, fr. *palatalisation*, ing. *palatalization*, al. *Palatalisierung*). Baita ere, bokal eta kontsonanteei ezar dakiekeen deitura delako eta, euskarazkoa bokal-kontsonante harremanen ondorio izanik, aproposa suertatzen

¹ Straka-ren arauera, batipat entzule arrotzak dira bustidura biguin edo ahultzat jotzen dutenak. Honen kontra legoke bustidurak hizkuntza askotan diminutiboak osatzeko duen erraztasunak (cf. halaber mespretxuzko adierazgarritasuna, e.a.). Jakobson-ek ("Sur la théorie des affinités phonologiques entre les langues", in Trubetzkoy 1970, 351-365) ongi azaltzen du bustidurarik gabeko hizkuntzetako hitzunek nola hartzen dituzten besteen hots palatalak (op. cit. 360-361 batipat).

² E.H.U. Euskal Filologi Sailaren fonetika laboratorioraz ari gara.

delako oso. Honek ez du esan nahi gainerako izenak erabiliko ez direnik. Esate baterako, *busti* bokalei esaten ez bazaie ere ³, egokia da aztertu nahi diren euskarazko hotsak multzo berean sartzeko. Izan ere, bustitzat hartzen dira bai sabaiko eta bai saibaiaurreko hotsak edo sabaiko eta sabaikalduak (ik., bikote hauez, beheago 11.3.) ⁴.

1.2. Palatalizazioa hizkuntzen deskribapenetan

Hasierakora itzuliaz, munduko hizkuntzen deskribapenetan *palatalizazio* hitzak jasotzen duen kontzeptu fonetiko bera ere hizkuntzatik hizkuntzara aldatu egiten dela esan behar da. Bhat-ek (1978, 50) hiru artikulaziotan banatzen ditu *palatalizazio* deitzen diren bilakabideak:

«There are in fact three diachronic processes, namely tongue fronting, tongue raising and spirantization which could occur either alone or in different combinations to produce the instances that have been denoted by the cover term, palatalization».

Honen ondoan jarri daiteke Grammont-ek eskaintzen duen (1971, 79) bustiduren sailkapena. Grammont-ek bustidurak mihi eta ahosabaiaren arteko ukitzearen hedatzetzat hartzen ditu. Ikuspuntu honetatik ere hiru bustidura mota bereiz daitezke hedatzea edo bustitze horren abiapuntuaren (h.d. delako *consonne dure* oinarritzekoaren) arauera. Igurzkaritze edo espirantizazioa ez da

³ Batzuetan badirudi bokala bera dela bustidura, «l'élément qui constitue proprement la mouillure» esaten du Gavel-ek (1920, 136).

⁴ Lenz-en definizio zabalean; ez, noski, Roudet-enean. Bustitzat hartuko dira hemen txitxikariak ere (cf. bereizkuntza Gavel 1920, 134; Larrasquet 1931, 231-232; Lafon 1952, 11).

bustiduratzat hartzen eta, mihia aurreratzeaz gain, badirudi Grammont-ek ukitzearen erdiragotzea eta atzeratzea bereizten dituela. Horrela bada, Grammont-en sailkapen hirukoitza ez dator bat Bhat-enarekin, noski, baina honek bezainbat azpimarratzen du aldatzen denaren ezaugarriek aldaketaren nolakotasunerako duten garrantzia ⁵.

Akustikaren aldetik, ahoaren irazki edo filtro funtzioa kontuan hartuta, palatalizazioa aztertzea ez da gauza sinplea. Fry-k zailtasuna azaltzeko ematen duen adibideko palatala Bhat-en bigarren multzoan (*tongue raising*) kokatzen direnetakoa da (eta hala dagokio aldakuntzaren abiapuntu den [s] hotsagatik) ⁶. Lehendabiziko bi kasuetan lehenengo eta bigarren formakinen arteko tartea haunditu egiten da. Mihia aurreratzen denean, bigarren formakinaren maiztasuna igotzen da. Mihia altxatzen denean, berriz, lehenengoarena jaisten da. Espirantizatuz edo igurzkarituz gertatzen denean palatalizazioa, kontsonantea estridente edo karrankari bilakatzen da (Bhat, 1978, 50), beraz, lekualdatutako aidearen uherdura haunditzen da.

Teoria generatibo edo sortzailean mihi aurreratzea eta altxatzea kontsonanteak goiko eta ez-atzeko ([+ *high*, - *back*]) bihurtzen dituen erregela bakarrean jaso zen hasieran bederen (Chomsky/Halle 1968). Bhat-en arauera, bi mogimenduok ez dituzte oinarritzko kontsonanteek bakarrik baldintzatzen (ezpainetako eta

⁵ Ik., hots busti bakoitzaren xehetasunak: Grammont 1971, 80 (herskari eta txistukariez), 81 (urkariez), 95 (sudurkariez).

⁶ «The filtering effects are physically very complex and depend not only on the lengths of the sections of the tract but also on the length and the cross-sectional area of the constriction and on the rate of airflow. All of these factors enter, for example, into the filtering differences between an [s] and a [ʃ] sound. In the former the noise is filtered so that only components from about 4000 Hz upwards have any considerable energy while in the latter there is energy over a wide band from about 1800 upwards». (Fry 1982, 87).

hortzetakoetan abiatutako aldakuntza [+ *high*] bihurtzea litzateke): ingurunea ere aintzakotzat hartu beharrekoa da.

Hain zuzen ere, inguruneagatik deitu ohi da *palatalizazio*. Bhat-en zatiketako hirugarren bilakabidea, igurzkaritze edo espirantizazioa ez bait da, berez, *palatalizazioa*. Alegia, ez da beste ahoskune bat palatal bihurtzen, ez eta beste ahoskune bati sabaiko artikulazio laguntzailerik (*secondary articulation*) erantsen (ik. hontaz II.3). *Palatala* dena aldakuntzaren ingurunea da.

Euskarazko palatalizazioa, fonetikaren aldetik, Bhat-en bigarren multzoan kokatzen da. Bestalde, *palatalizazio* dei daiteke aldakuntzaren ondorio diren hotsen ahoskunea palatala delako eta aldakuntzaren ingurunea ere halakoa delako (asimilazio bustiduraren kasuan)⁷. Oro har, mota honetakoak dira beste zenbait hizkuntzetako palatalizazio bilakabideak ere.

Zerrenda osoa egiteko inolako asmorik gabe, adibide gisa zenbait sabaikaltze edo palatalizazio bilakabide batzu aipa daitezke (ondorengo kapituluetan ere jasotzen dira zenbait). Esate baterako, alemanezko *ich/aut* deritzana. Aldaketa hau belareen sabaikaltze asimilazio aurrekari bezala esplika daiteke, fonologia sinkronikoaren ekonomi baldintzak eta beste alde batera utzita (ik., arazo hontaz III.4).

⁷ «(...) one can specify two different conditions in such a way that the presence of at least one of them would automatically bring a change under the above cover term [palatalization] (...) 1) the environment that induces the change must be a "palatalizing environment" (i.e. it must be a front vowel, a palatal semivowel, or a palatal or palatalized consonant), and 2) the sound that results from the change must be a palatal or must have a secondary palatal articulation». (Bhat 1978, 49).

Italianoz ere herskari belareen sabaikaltzea (eta afrikatzea) nolabaiteko bokal palatalen inguruan gertatu dela garbi dago. Egun ia erabat morfologizatu agertzen bada ere, badirudi (i, **ĩ**, **e**, **ẽ**) bokalek eragindako asimilazio atzekaria noizbait bilakabide emankor izan dela hizkuntza horretan (Dressler 1985a, 172, 174-175).

Koreanoz ere badago sabaikaltze asimilazio atzekaria: **s** palatalizatu egiten da ondoren **i** (bokal edo irristaria) datorkionean. Hizkuntza honetan badago adierazgarritasun fonetikoazko bilakabide emankorra ere, baina ez da palatalizazioaren bidez gauzatzen, bikoizte edo erreduplikazioaren bidez baizik (Iverson 1983, 199).

Antzekoa da Hyman-ek (1970, 16) Nigeriako nupearentzat proposatzen duen erregela. Nupez **s**, **z**, **ts** eta **tz** dira (i, **e**, **Σ**)-ren aurrean (h.d. asimilazio atzekaria) palatalizatzen direnak (cf. hizkuntza honetako sabaikaltzeaz Kiparsky 1973, 102 hh. ere).

Suedieraz erabateko oparotasunik lortu ez duen belareen palatalizazio atzekaria dago. Mailegu eta bestelako salbuespenak direla eta, erregela fonologiko baino, erregela morfofonologikotzat hartzea egokiagoa da Dressler-en (1985a, 231) ustez.

Hizkuntza eslabo batzuek galdu badute ere, badirudi historikoki behintzat hitz egin daitekeela eslabierazko bustidura asimilazio atzekariaz (cf., adib., Martinet 1970, 356).

Errusierazko palatalizazio sintagmatikoa **e** bokal palatalaren aurrean gertatzen da. Sabaikaltze hau ez da dagoeneko erregela erabat emankorra mailegu eta bestelako zenbait hitz multzotan ez bait da ezartzen. Kontsonante belareak, **e**-ren aurrean ez ezik, **i**-ren aurrean ere sabaikaltzen dira (cf. Houlihan/Iverson 1979, 58-59; Armond 1966, 112). Belareen palatalizazioak ere baditu

baldintza morfologikoak eta badirudi aditzean gertatzen dela batipat (Kiparsky 1968, 5-6) ⁸.

Axaleko zerrendatze azkar honetan sar daiteke poloniera edo polskerazko palatalizazio atzekaria ere. Dressler-en (1985a, 182 hh.) azalpidearen arauera (§ 7.4.2.3. batipat), pentsatzekoa da Mitxelena irakaslearen susmoa egia izan daitekeela: alegia, polskeraz ez dagoela erabateko kontsonanteen palatalizazioa, *yod* moduko baten eransketa baizik ⁹. Bestela esan, beherago ikusiko dugun artikulazio laguntzailea litzateke (ik. 11.3).

Dena dela, aipagarria da honelako "eransketak" izan ohi direla erabateko sabaikaltzeen aurre-urratsa askotan. Ezaguna da hizkuntza erromantzeen historian zehar ildo honetatik gertaturikako bilakaera: cf., esate baterako, Alarcos Llorach-ek (1974) nola azaltzen duen erromantzeen lehenengo palatalizazioa (op. cit. 232-234: **tj**, **kj**, **dj**, **gj**), edo **l** eta **n** kontsonanteen palatalizazioa (op. cit. 235). Tankera honetako aldaketa, baina indar palatalizatzailea ezker-eskubi doala (asimilazio aurrekaria, beraz) gertatzen da latinezko **kt**, **ks** taldeen ahultzearen ondorio diren **jt**, **js** taldeetan (bilakabide hau mendebaldeko erromantzeari dagokio: cf. M 1959, 118; Alarcos Llorach 1974, 242) ¹⁰.

Diakroniaren eremua utzi gabe --eta gertaera diakronikoak sinkronikoetatik erabat aparte dauden arrazolek esplikatu ditzake--

⁸ Errusierazko palatalizazio sistema aztertzean kontuan izan behar da beti edozein kontsonantek duela bere kide bigun edo palatalizatua (cf. Martinet 1970, § 4.36 eta aipatu gainerako bibliografia).

⁹ Mitxelena irakasleak zuzenean esana. Cf. polonierazko palatalizazioaz Iverson/Sanders 1982, 67 hh. ere.

¹⁰ Ik. Gorrochategui (1976, 28. oh.), Veneto-ko erromantzeko **tj** taldearen ondorioez.

tela sinesten ez dugulako-- badaude beste mota bateko sabaikal-tzeak ere: talde bikoitz edo geminatuen ondorio direnak, alegia. Gure inguruan aipatuenetakoen artean gazt. *caballo* < lat. *caballu*, gazt. *año* < lat. *anno*, e.a. bezalakoen bilakaerak ditugu (cf. lat. **ll**, **nn** > eusk. (Zar. ¹¹) **ġ**, **ŋ**: M 1967, 173). Halaber, aragoiko erroman-tzerako proposatzen den **nn** > **ñ** bilakabidea (cf. Mitxelena-ren zalantzak: M 1959, 124-125). Zenbait hizkuntza erromantzetan albokoaren palatalizazioa alboko geminatutik datorrenean edo hitz hasieran (**o** edo **u** bokalen aurrean) dagoenean betetzen dela azpimarratuz, Straka-k ebakera bustiak artikulazio indar haundi-agoz gauzatzen direla ematen du esplikazio bezala: geminatuen ebakerak, hitz hasierakoak bezala, bestelako hotsenak baino indar handiagoa eskatzen bait du (Straka 1965, 127-128).

1.3. Asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarria

Euskarazko fonologiaz ari garela, bustikuntza bi motatakoa izan daitekeela izan behar da kontuan: katea fonikoan ingurune jakin batean asimilazioz sortua edo, labur adierazteagatik, bustidura adierazgarria esaten zaiona. Azkue-k (1919) lehenengoz bereizi zituenean "palatalización asémica" eta "palatalización semántica" deitu zituen.

Ez da euskara bi motatako bustidura duen hizkuntza bakarra. Aldakuntza fonologiko bera agertzen da, esate baterako, estonioz asimilazio bezala eta bilakabide adierazgarri bezala (cf. Ariste 1982). Errusieraz, dialekto gehienetan bilakabide sintagmatiko

¹¹ Eta, oro har, goiz erromanizaturikako lurraldeetan (M 1959, 123).

bezala ezagutzen dena dialekto batzuetan hipokoristikoak osatzeko erabiltzen da (Stankiewicz 1972, 251).

Euskaraz, gauzak erabat harturik, asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarria hots klase berari ezartzen zaizkie. Aldaketaren ondorioa edo *output* deritzona ere kasu batean eta bestean berdinak direla esan daiteke, hau da, fonetikaren aldetik jazotzen den aldakuntza berdina da. Bata ala bestea gertatzeko baldintzak dira aldatzen direnak, asimilazioa katea fonikoko inguruneak sortutako bilakabide sintagmatikoa den bitartean, bustidura adierazgarria hizkuntzaren eremu semantikoari (*latu sensu*) bait dagokio.

Ikuspuntu honetatik egindako azterketak gehiegi ez diren arren, badirudi aldaketa fonetiko bera hizkuntza batean bilakabide sintagmatiko eta semantiko bezala gertatzen denean, bilakabide bien arteko harremanean arau edo joera batzuk behintzat antzematen direla. Alde batetik, aldakuntzaren berdintasun fonetikoa dela eta, bata bestea bihur daiteke. Adibidez, aldakuntza sintagmatikoak automatikotasuna edo derrigorrezkotasuna galtzea, semantiko bihurtzeko lehen urratsa izan daiteke: esate baterako, Astigarragako edo Errenderiako gipuzkeran t-ren asimilazioa erabat derrigorrezkoa ez delako, izan dezake erabilkera adierazgarria ¹². Estonioz ere bustidura asimilazioa hautazko bihurtzen denean (bi erataria ahoska daitezkeen mailebuak, adib.), adierazgarria egiten omen da (Ariste 1982, 60).

¹² Asimilazio bustidurak indarra galdu du leku eta alor guztietan (h.d., euskalki, ingurune eta input izan daitezkeen hotsei dagokienez). Esate baterako, Soroaren testuan ikusten da nola txistukariaren kontsonante aurreko asimilazio bustidura ez den erabat gertatzen (ik. 2.3.1.2/3.5/6). Bestela esan, /s/ hots segidan bustidura ez da beti jazotzen eta, hain zuzen ere, derrigorrezkoa ez den neurri horretantxe izan daiteke adierazgarria: cf., adib., *pixkor/pizkor*; bustia maitasunez edo txantxetan esaten da. Aipatzekoa da *puxka/puxka* bezalakoek izan dezaketen eragin analogikoa. Adierazgarri bihur daitezkeen asimilazioaz, ik. Oñederra 1986.

Bestalde, esan daiteke nolabait bilakabide bakoitzak bere eremua daukala hizkuntzaren hots sistemaren barruan. Joerez baino ezin bada hitz egin ere, ezin da ukatu Nichols-ek (1971, 838) azaldutako hipotesiaren garrantzia. Egile honen arauera, bilakabide fonologikoak (sintagmatikoak) eta adierazgarri edo semantikoak ez dira elkarren errepikapen izaten hizkuntzetan. Izan ere, ulertzekoa da esanahiari dagokion aldakuntza eta adierazlearen azalari dagokiona hizkuntzak nolabait berex izatea. Kezka hauxe da Azkue-ren hitzetan (1919, 461) honela adierazten dena:

«Indicó muy oportunamente el Sr. Eleizalde, en una de sus luminosas lecciones, que las palatalizaciones asémicas debieran ser rechazadas. La razón principal que me ocurre para sostener la opinión de mi docto y caro amigo es que las confundiríamos con las semánticas. «Giñon» significa «hombrecito» y, la verdad, no es ningún regalo que a uno le llamen así en vez de *gizon*».

Azkue-k ongi dio «confundiríamos» ahalezko aldian, nahasketa ez bait da gertatzen. Hain zuzen ere, *gizon* 'hombrecito' esanahiaz erabiltzen dutenek esanahi hori adierazi nahi dutenean bakarrik erabiltzen dute bustidura eta bustidura beti ahoskatzen dutenek, osteraz, ez diote esanahi berezirik ematen. Bestela esanda, bustidura automatikoa denean, ezin da adierazgarria izan eta alderantziz. Beraz, nahasketa euskalki ezberdinen artean bakarrik sor daiteke, baina, sistema fonologikoak hizkera bakoitzean egituratzen direlako, hizkera bereko formak erkatuz aztertu behar dira. Hartara, Azkue-k (op. cit.) beheraxeago esaten duena, alegia, *aixe*, *gaixo*, *gizon* bezalakoak berdín izan daitezkeela bustidura baten zein bestearen ondorio, euskara oro har harturik bakarrik onar daiteke.

Badirudi bilakabideen nolabaiteko beregaintasun honi eusteko hizkuntzak duen bide bat aldaketa jasaten duten hotsen (h.d. *input-*

aren) bereikuntza izan daitekeela. Horrela bada, honen arauera, euskalki bakoitzean hots batzu lirake bustidura adierazgarriaren *input* eta beste batzu, asimilazio bustidurarenak. Banaketa erabat betetzen ez bada ere, gauzak zehaztasun osorik gabe eman behar badira ere, egoera horretarantzako joera behintzat badagoela dirudi. Euskarazko palatalizazioaz aritu direnen artean hipotesi honetatik maila batean edo bestean hurre dauden iritziak azaltzen dira. Garbi dago, esate baterako, *t*-ren asimilazio bustidura ez duten hizkeretan *t*-ren bustikuntzak ondorio adierazgarria duela beti. Joxe Austin Arrieta-ren eskola apunte batzuetatik ateratzen dut banaketa dialektologi mailan jartzen duen aipu hau:

«Bustidura adierazkorren "etsai"rik handiena, nolabait esan, bustidura automatikoa da, eta azpimarkagarria da seinalatzea nola hain zuzen bustidura adierazkorra motelen edo ahulen dagoen euskalkietan gertatzen diren bustidura automatikorik gehienak: gipuzkeraz eta batez ere bizkaieraz»¹³.

Argia da, alde honetatik, Boas-ek chinook hizkuntzaren bilakabide fonologiko adierazgarriaz egiten duen oharra:

«So far as I am able to discover, the diminutive and augmentative consonantism of the *p* and *t* stops does not occur in Chinook; perhaps because the strengthening of these consonants in case of the dropping of a following velar [h.d. inguruneak eragindako bilakabide sintagmatikoa] consonant counteracted this tendency. When the word *tʰalē'ma* has a fortis *tʰ* in account of the dropping of the *q* in the stem *-qēL*, the same strengthening can not very well denote at the same time diminution».

Boas 1911, 645.

Badago, noski, orain arte isilpean eduki dugun hutsune bat eta Boas-en aipuan ere azaltzen ez dena, forma konkretu bati buruz ari

¹³ Nere eskerrik zintzoenak, orain baino are galduago nenbilenean, bere apunte eta itzulpenak horren esku zabal utzi zizkidan Joxe Austin-i.

bait da bera ere. Izan ere, erraz ikusten den gauza da *billddur* edo *eiñddot* era automatiko eta derrigorrezkoan egiten duenak ezin duela **d** > **g** aldaketa hizkuntza bihozkorra edo haur hizkuntzaren mailara igarotzeko erabili. Horreraino *gixon* / *gizon*-ez ari ginenean bezain garbi egon daiteke esplikazioa. Baina Nichols-en hipotesiak urrutirago --edo beste alor batera, hobeto esan-- bultzatzen ditu baldintzak: berez, sistema baten barruan, ondorio semantikoa duen aldaketa semantikoa ezin da agertu aldaketa sintagmatiko soil bezala (edota alderantziz) ¹⁴.

Esan bezala, gutxi dira ikuspuntu honetatik abiatu ikerketak eta are gutxiago euskarari buruzkoak. Halaz ere, ildo honetatik uler daiteke oraindik egiteke dagoen ikerketaren beharra aldarrikatuz, Salaburu-k (1983, 554) Baztango bustiduran egiten duen zatiketa: «/r/, /d/ eta /t/k ez dute bustidura automatikoa hartzen. Inoiz ere ez. Segmentu horiek sabaikari dira balio adierazkorra eman nahi diogunean hizketari». Zailagoa da euskalkietan zehar asimilazio bustiduran bakarrik erabiltzen diren hotsak ¹⁵. Hau, oraingoz deskripzio baieztapen baino ez bada ere, garrantzitsua izan daiteke bustidura bien arteko erlazioaren ezagutza osoagorako.

¹⁴ Cf. Iverson/Oñederra 1985 Nichols-en lanaren ondorioen azterketa sakonagorako.

¹⁵ Alor honetan entzundako gogoeta gardenena Joseba Lakarra-ri zor eta eskertzen diot. Bere Gernika inguruko euskarari (Arratzuakoa), asimilaziorik gabeko hots bustia entzun orduko (*xaxo*, *xamur*, adib.), ba omen dakite hiztuna "gipuzkoarra" dela edo umekieriatan ari dela. Honekin batera esan zidan, nola bizkaierazko testu zaharretan ere ez den (ia) bustidura adierazgarriarik aurkitzen. Cf. Salaburu 1983, 271 ere: «(...) AMADO ALONSOK ematen dizkigun adibideetan, hauek irakur daitezke (...) "pixa", "pixauntzia" (...). Nire ustez, horiek ez dira horrela esaten Baztango mintzoan, hizkera "elegante" bat egin nahi ez bada, behintzat. Hitz horiek, beste era honetara entzungo ditugu: (...) "pize", "pizuntzie" (baliteke "pixe" eta "pixuntzie" haur ttar batekin ari bagara ...)».

II. EUSKARAZKO PALATALIZAZIOAK

II.1. Euskarazko palatalizazioaren ezagutzaz

Euskaraz hots palatalak, adierazgarriak edo bestelakoak, oso maiz agertzen dira. Agian gertakortasun handi hori izan da egin zaien jaramon kaxkarraren arrazoiak. Bestalde, ordea, hots bustien eta bustikuntza bilakabide edo prozesuen oparotasuna dela eta, hizkuntzaz aritu diren gramatikari eta ikertzaileek ezin izan dute fonologiaren atal hau erabat zokoratu. Oro har, euskarazko hots sistemaz egindako lan gehienetan azaltzen da, nola edo hala, bustidura. Ugaritasuna bera, bustidura sortu duten bilakaera edo aldaketez ate, da askotan aipagaia: cf. Gavel 1920, 488, Echebarria 1965-1966, 224, Zarate 1976, 36, euskarazko bustiduraren maiztasuna aipatu duten beste askoren artean. Egia da batzuetan aipatu ere ez dela egiten. Campión-ek (1883), esate baterako, nahiz eta euskarazko arau fonetikoak hartu aztergai, bidenabar eta zeharka bakarrik ikutzen du bustidura asimilazioa, sabaiko sudurkariaren aurrean zubererazko irristari palatala desagertu egin daitekeela esateko. Bustikuntza bilakabidea bera ez du aipatu ere egiten (op. cit. 39).

Campión-en ondoan kokatu behar da Apecechea ere, Elkanoko Lizarragaren edizioari egiten dion hitzaurrea aintzakotzat hartzen bada. Apecechea-ren helburua, egia esan, ez da sailkapen edo azterketa fonologikoak egitea eta, alde horretatik, bere obena ez da besterena bezain larria. Baina ezin dira zaku berean sartu bilakabide fonologiko arras ezberdinak diren asimilazio bustidura,

bustidura adierazgarria, *yod* -en bilakaerak eta ortografiazko aldaerak (ik., bereizkuntzaotaz, II. eta V. batez ere). Erabiltzen den izenburua «cierta correspondencia o proximidad, de indudable interés fonético» bezain zabala izateak ez du nahastea zilegi bihurtzen eta erakusten ez diren altxorrez hitzegitea besterik ez da (cf. Lizarraga 1979 [1803], 26).

Gehienetan, bustiduraz aurkitzen diren iritziak ortografiaren kezkak sortuak izaten dira ikertzaile zaharrengan behintzat. XVII. mendean aurkitzen da jadanik bustikuntzaren lekukotasuna. Axular-ek (1910 [1643], 436) hots palatalen idazkera bikoitza aldarrikatzen du eta bustidura adierazgarria azaltzen duten hitzak ematen adibide legez. Oihenart-ek (1936 [1657], 208) latinezko alfabetoan euskarazko hotsak adierazteko falta diren ikurrak azalduz diminutiboetako zenbait hots aipatzen ditu (D,L,N,S,T). Ortografiaz eta balio txikigarriaz arduratzen da. Halaber, hots bustien zenbait ezaugarri fonetiko ematen du. Ezaugarriok, Mitxelena-k adierazi bezala (FHV 279, 2. oh.), hots irauliei dagozkie.

XVIII. mendearen hasieran Urte-k (1900 [1712 ?], 8-12) zenbait hotsen ezaugarri bezala palataltasuna ematen du lapurterazko grafiak definitzean. Gehienetan, Sara eta Donibane Lohitzun-eko ebakerez (idazkerez, dio berak) ari dela esaten du. Gainerako lekuetan ez omen dago ebakera bustirik (berak «liquefaction» esaten diona): cf. II.4.1. lapurtera eta beste euskalki batzuetako despalatalizazioaz.

XIX. mendean ere, grafiei buruzko kezkak dira oraindik nagusi. Añibarro-k bere gramatikan <x, g, ss> grafien bidez adierazten den [j] sabaiaurrekoaren adibideak ematen ditu (cf. M 1978, 396). Ehun

bat urte lehenago Larramendi-k (1984 [1729], 338) [j] ebakera <x> grafia «no guturalmente, sino à la Latina, ò estrangera» ahoskatzea dela esatean erabilitako hitz berberak ia erabiltzen ditu Añibarro-k. Larramendi-k ez zituen berezi asimilazio bustidura sintagmatikoa eta bestelakoa, baina palatala adierazten duten grafien esplikazio eta adibideetan ikusten da kontsonante bustien eta i bokalaren arteko zerikusi fonetikoa argi somatzen zuela. Aipatu txistukari sabaiaurrekoaren adibide bezala *orixe*, *alaxe* ematen ditu eta azaltzen «que se inclina à la pronunciación de *orisie*, *aliasie*». Beste hainbeste egiten du [t̪] palatalaren grafiaz ari dela (loc. cit.). Ebakera azaltzeko ondoren i bat idazteaz gainera, ematen dituen adibide guztiak asimilazio bustidurak dira, guztiak *ditu*-ren paradigma aldaerak, baina Larramendi-k ez bide zuen horretaz pentsatu eta ongi ikusten da asimilazio bustiduraren ezagutza falta, esaten bait du: «(...) la **t**, además de la regular pronunciación, tiene otra diversa; siguiendose la **u**: y es media entre la que tiene la **t** y la **j** consonante (...)» (loc. cit.).

XIX. mendeko lekuko garrantzitsua dugu Astarloa ere. Astarloa-k, grafiak aitzakitzat harturik eta beti "letrez" ari bada ere, hots bustiek euskaraz duten balio adierazgarria azaltzen du (Astarloa 1883, 252-253, 254). Mogel bustidura adierazgarriaren jakinaren gainean zegoela egiztatzeko, ez dago *Peru Abarka* irakurri besterik (cf., besteak beste, IV.3. hasierako aipua).

Bonaparte-k Echenique-ri igorritako gutunetan ere ikusten da bustiduraren isladatze grafikoarekiko kezka eta ardura: cf., adib., Urquijo 1910, 266, 273.

Azkue da bustidura gaur ezagutzen dugun modura lehenengo sailkatu zuena. XIX. mendeko bukaeran --*Euska! Izkindeaz* sari

bilakabidean funtsezko den i-ren eragina eta hots bustigaien klasea garbi jasotzen dituen arren, oraindik ez da erabat bereizten bustidura hau adierazgarritik. Adibide berberak ematen dira baterako eta besterako; nolabait esan, adierazgarritasuna asimilazioaren ondorio bezala azaltzen da. Benetazko bustidura adierazgarriaren adibidea Donostia aldekotzat ematen du --eta hala bide da, ziurrenik-- eta arbuiatu egiten du, gainera: «Euskaraak ez dau zolia izateko adobakirik bear» (Azkue 1891, 19-20) ¹.

Nahikoa aldatua aurkitzen dugu Azkue-ren iritzia Eusko Ikaskuntza-ren lehendabiziko biltzarrean (1918.ean). Bustidura mota biak argi eta garbi bereizi eta salkatzen ditu, bustidura adierazgarriaren balioa azpimarkatzen duelarik:

«Dos clases de palatalizaciones. - Las hay semánticas (es decir, dotadas de significación) y asémicas, sin significación alguna. Como semánticas, denotan, por cierto muy lindamente, el diminutivo temático (...).»

Azkue 1919, 461.

Gavel-ek Azkue-ren esplikazioa hartzen du oinarri, baina, oraingo ikuspegitik, ez daterkigu Azkue bezain sistematiko bere sailkapenean eta are gutxiago asimilazioaren baldintzak azaltzean (cf. Gavel 1920, 164). Egia da Gavel-en helburu nagusia historikoa dela eta bustiduraren jatorriaz ari dela batipat. Uhlenbeck-ek ere ez dio ematen palatalizazioari, berez, mende honetan espero zitekeen garrantzia. Gainera, *halliko* (cf. *hari*) bezalakoak esplikatzeko, ikusten da asimilazioa ez den bustidura ez duela aintzakotzat hartzen (Uhlenbeck 1910, 78).

¹Dirudienez, Azkue-k ezagutzen zuena ez zetorren bat bustidura adierazgarriaz berak ematen duen definizioarekin. Bustidurak mintzoa «bigunago, samurrago eta maitegarriago[ak]» bihurtzen duela esan ondoren, adierazten du berak «asarrezko itzetan bere» entzun dituela. Hau ulertzen da, batetik, ematen dituen adibideak asimilaziozkoak direla kontuan hartuta. Bestetik, J. Lakarra-ren aierua dakarkigu berriz ere gogora: bizkaieraz bustidura adierazgarriak ez duela funtzionaltzen, alegia (ik. I.3. 15. oh.).

esplikatzean, ikusten da asimilazioa ez den bustidura ez duela aintzakotzat hartzen (Uhlenbeck 1910, 78).

II.2. Palatalizazioaren antzinatasunaz

Atal honetan, besterik gabe, euskaraz mota bateko edo besteko hots busti eta busti gabeen arteko aurkakotasunaren eta txandakatzeen antzinatasuna zenbaterainokoa den jakiteko kontuan izan daitezkeen zenbait puntu aipatzen dira. Gai honen azterketa sakonago batean bereizi beharko lirateke bustidura mota biak, izan ere, bi eratako bilakabide fonologikoak izanik beren historiek ere ezaugarri eta aztarna diferenteak bait dituzte. Oraingoz nahiko dugu garbi dagoena jasotzearekin. Asimilaziozkoa ez den bustidura, *lato sensu* bustidura adierazgarria, euskalki guztietan aurkitzen da. Besterik ez bada ere, horretxegatik, asimilaziozko bilakabide sintagmatikoa baino zaharragoaren itxura du. Asimilaziozkoaren orde, oster, despalatalizazioa ere aurkitzen da zenbait mintzotan (BN, L, Aezkeraz eta Burundako G) ²:

«(...) las variedades vascas pueden dividirse en dos grupos, según hayan despalatalizado en mayor o menor grado o bien hayan aumentado la frecuencia de las antiguas consonantes mojadas (expresivas o en préstamos) con alguna palatalización regular, condicionada por el contexto».

M 1967, 173 [azpimarratua, gurea].

Ez da gauza erraza aldakuntza fonologikoen antzinatasuna jakitea, batez ere literaturaren aldetik euskara bezain gazteak

² Honek ez du esan nahi, berez, noizpait asimilazioa euskalki guztiek izan ez dutenik. Ik., II.4.1: despalatalizazioa erregela iraulketa izan daiteke; gainera, despalatalizazioa duten euskalkietan ere despalatalizazioa ozenei bakarrik dagokie funtsean.

Zeharka atera behar dira tankera honetako berriak: idazki zaharretan aurki daitezkeen arrastoak, egungo palatalizazioaren fonologia nahasia, euskalkietan zehar duen hedadura, hizkuntzaren fonologian beste bilakabideekiko daukan lekua, e.a. izan daitezke aldakuntza baten antzintasuna ezagutzeko bide. Euskara baino historia ezagunagoa duten hizkuntzetan ere zalantzak sortzen zaizkie fonologiariei (ik. Dressler 1985, 179 ital. k, g --> tʃ, dʒ bilakabidearen salbuespenez).

Euskarazko bustiduraren berri Erdi Aroko erromantzeetan aurki daiteke. Errioxako dokumentuetan *eita*, *egga* [etʃa] --*aita*--, *eigiga* -- *aitita*-- (Echenique 1984, 66) agertzen dira. Erro bera du *Mio Cid* poemako *Miecha* (*mi aita*: Echenique 1984, 75) tratamenduak ere ³. Adibide hauek asimilazio bustidura edo bustidura adierazgarriaren fruitu izan daitezke, ezin bait da ziur esan *aita* bustidura adierazgarriak sortutako ebakeraren despalatalizazioa den ala *a(i)lta*, *a(i)ltxa* bezalakoak asimilazioaren ondorio diren (ik. VII.4.217. **attuna**).

Datu zehatzik ez badago ere, badirudi gehienek ustetan euskarazko bustidura asimilazioa bilakabide zaharra dela. Honela pentsatzeko zenbaitek duten arrazoia salbuespenetatik dator. Holmer/Abrahamson 1968 lanetik, esate baterako, atera daiteke asimilazioak dagoeneko indarra galdu duela:

«La palatalización de consonantes remonta a una época temprana de la evolución de la lengua vasca (...) la palatalización no ocurre normalmente en casos donde una l

³ Cf. M 1964, 84: *Eita*, *Aita*, *Echa* ere.

se ha desarrollado secundariamente, en época más reciente, por ejemplo por contracción (...)».

(op. cit. 105. or.) 4.

Izan ere, hots aldakuntzak, euskaraz bustidurak duena bezain egoera nahasia dutenean, oso bilakabide zaharrak izan ohi dira. Izan ere, pentsatzekoa da, bilakabide fonologiko bat bete-betean dagoenean, gertatzeko behar dituen baldintzak nabarmenak izango direla, sistematikoa izango dela aldaketa ⁵. Gero etorriko dira beste erregelen interferentziak, kanpotikako formak (ik. **bakallaua** -ren komentarioak, VII.1.15.), e.a. Ez da, alegia, Eibar-en jaso dena gertatuko: **Itxari** goitizen bezala bakarrik gelditzen da, bestela **eitzarixa** esaten omen da (TE 216); **elixia** -ren ondoan **elizia** ere esaten da (TE 218). Egia osoa esatekotan, lehenengo adibidea bustidura adierazgarria ere izan daiteke (ik. beherago izen propioen garrantzia bustidura mota horrekiko); bigarren pareak adierazten du asimilazioa ez dela derrigorrezkoa kasu horretan. Inoiz derrigorrezkoa izan bada, honelako adibideak bilakabidearen ahultzea erakusten dute.

Euskarazko asimilazio bustidura gramatikan sartu nahi bada, euskararen fonologian kokatu nahi bada nolabait, egungo egoera ez zaigu garden agertzen. Garbi dago euskalki guztietan zenbait muga ezarri behar direla, bustidura asimilazioak dituen salbuespen guztiak hizkuntzaren barruan onartuko baditugu eta ezin da

⁴ Holmer-darrentzat *sekundarioa* da «un fonema en evolución o uno que se establecido en ciertos dialectos nada más». Ematen dituen adibideetan, bai asimilatuetan eta bai salbuespenetan morfema muga dago i eta hots bustigaiaren artean (105. or.ko oharra). Dena den, bustidurarik eza i horren mailak ala morfema etenak (cf. **-ta** vs. **-ttu**) esplikatuz, garbi dagoena da kate zaharragoetan ez dagoen mugaren bat azaltzen dela berriagoetan.

⁵ Hasiera hasieran geroago izan dezakeen hedadura ez badu ere, garbi egongo da zein egoera fonologikotan gertatzen den hots aldaketa.

besterik egin gramatika ez-normatiboetan bederen. Mugaok, gainera, ez dira berdinak euskalki guztietan, ez eta maila berekoak. Batzuetan baldintza morfologikoak ere kontuan izan behar dira (ik. beherago III.8. morfema mugaren garrantziaz), beste batzuetan nahikoa da ingurune fonetikoaren baldintzak jasotzea (agian, oraindik, zenbait bizkaieratan edo hemen aztertzen den Ataungo euskaran).

Hortaz gain, fonologiazko teoria ainitz daudenez, ikuspuntu bat baino gehiagotik uler daiteke hizkera bakoitzaren egoera. Eskola beraren barruan ere irtenbide ezberdinak izan ditzake arazo batek: generatibisten jarreratik, adibidez, bustidura mugatzeko modu bat Kiparsky-ren (1968) ingurune eratorrien baldintza izan daiteke (cf. II.4.2), baina *rule inversion* delakoa ere egoera bera gramatikan formalki jasotzeko tresna izan daiteke (cf. II.4.1).

Egungo erregularitasun ezaren ondoan oso kontuan hartzekoa da euskarazko bustidura euskalki guztietan gertatutako gauza dela, beraz euskalkien arteko zatiketak ez zeukan oraindik gerora iritsi duen maila ⁶. Hau ere bilakabidea zahartzat hartzearen aldeko arrazoia da, zalantzarik gabe:

⁶ Hemen asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarria nahasten dira. Asimilazio bustidura euskalki guztietan gertatua da, despalatalizazioa *rule inversion* edo erregela iraulketatzat hartzen badugu esaeraren zentzu historikoan.

«No podemos sino hacer conjeturas acerca de la antigüedad de la oposición sistemática de los fonemas palatalizados a los fonemas no mojados. Su carácter común a todos los dialectos, que ha sido capaz de sobrevivir a diversos cambios fonéticos que alteraban profundamente las condiciones de la oposición, habla en contra de que se trate de hechos recientes. En teoría, parece que el contraste hubo de ser más fuerte y más sistemático antes de que se desarrollaran en algunos dialectos variantes palatalizadas sin valor expresivo en ciertos contextos, y sobre todo antes de la introducción en préstamos de abundantes sonidos mojados».

FHV 201.

Bilakabide baten adina jakiteko beste bide bat hizkuntzaren zenbait bilakabiderekiko egoera ikustean datza. Honela aldakuntzaren adin erlatiboa ateratzen da (baita ere aldakuntzak sortutako aurkakotasun edo oposaketaren indarra edo ahulezia: cf. $j/\acute{s}$ eta $s/\acute{s}$ iraupenaren aldetik, FHV 201). Mitxelena-k dioten bezala (FHV 196-197), garbi dago $u > \acute{u}$ gertatu zenean, asimilazio bustidura emankorra zela $[V(\text{goiko bokal palatala}) nV]$ katean, lat. edo err. *cuna* > *Z khü'ña* bait da. Hauxe da euskalkietan zehar zabalduen dagoen asimilazio bustidura, inV taldekoa ($< \acute{i} V$). Ziurrenik, asimilazio hau euskalki guztietan gertatu zen garai batean --bustidura mota hau ertz bietako euskalkietan jazotzen da-- eta honela esplika daiteke egun Baztango euskaran sudurkaria ingurune honetan bustitzen ez bada ere, forma zaharretako inV taldeetan sudurkaria palatala izatea. Halaber, bizkaierazko mendebaldean *miña* 'la lengua' (cf. *mihi*), baina *mina* 'el dolor' esatea (FHV, 199-200).

Mitxelena-ren testu berean esaten da nola beranduagokoa den bokalerdiaren ondorengo ozenen asimilazioa ⁷ eta azkena, 1 silabagilearen ondorengo ozenena (alegia, Baztango euskaran, adib., orain gertatzen ez dena). Gero eta berriagoa izan bilakabidea, mugatuagoa euskalkietan zehar duen hedadura (ik. FHV, 198-199). Hara hor trabarien bustidura berriagotzat jotzeko arrazoi izan daitekeena ⁸. Beherago (VI.) aztertzen da hizkeraz hizkera asimilazioak ingurune bakoitzean duen oparotasuna.

II.3. Palatalizazioaren fonetikaz

Hots bustien artean, *palatal* eta *palatalizatuak* (*sabaiko* eta *sabaikalduak*) bereizi ohi dira. Egia da batzuetan bata zein bestea berdin erabiltzen direla egon daitekeen eduki aldeari jaramon handirik egin gabe. Lan honetan ere ez gara bereizkuntza horretaz gehiegi kezkatzen, ez bait du ezinbesteko garrantzirik hemen aztertzen den gaiarekiko:

«Elle [palatal eta palatalizatuen arteko bereizkuntza] est facile à préciser pour la série antérieure: entre t', d', n' et t, d, n, elle est là où la pointe de la langue quitte la voûte palatine et s'infléchit derrière les incisives inférieures (...). Les différences entre les non-palatales, les palatalisées et les palatales sont importantes et doivent

⁷ Bustidura gertaerazten duen bokalerdiaren desagertzeak izan dezake zerikusirik hitz batzuen bilakaera fonologikoan o > u aldaketarekin (cf. FHV § 2.7. eta FHV 471: *zuri* vs. *Dech. coin*).

⁸ Ozenen bustidurarekiko oparotasuna aintzakotzat hartu beharko litzateke fonologian oraindik definizio sendo eta beregainaren zain dagoen "ozentasunaren" ezagutzarako (cf. Kawasaki/Ohala 1984, 122).

être soigneusement notées dans les transcriptions phonétiques; leur valeur phonologique importe peu, elles sont révélatrices au point de vue de l'évolution».

Straka 1965, 126.

Hemen dagokigun azterketa fonologikoan, edozein tankeratako (artikulazio nagusi edo laguntzailez berdin) palatal eta palatal ez direnen arteko bereizkuntza aldebikoa da axola duena. Bereizkuntza hirukoitzarekiko kezkak, esate baterako, errusierazko palatalizazioa aztertzean sortzen dira, errusieraz palatalak ere "palatalizatu" egin daitezkeelako, nolabait esan. Dunatov-en (1963) ustez, errusierazko palatalek ere beren kide "biguin" edo palatalizatua izan dezakete, hiru ahoskune bereiz daitezkeelako palatalen artean. Schmalstieg-ek (1964) tasun ezaugarrien bidez jasotzen du Dunatov-en ahoskune palatalaren azpizatiketa. Guri dagokigun arazoa gertuagotik ikuitzen du R. C. de Armond-en proposamenak. Bere ustez artikulatzaileen eta ahoskuneen sailkapenak berex edukiez gero, izenekin sorturiko nahasteak konponduko lirateke. Errusieraz aritu diren zenbaiten iritzia eztabaidatu ondoren, hau dio ondorio gisa:

«The feature of palatality indicates that an articulator is making contact with some part of the palate, whereas palatalization is the simultaneous co-articulation of the centre of the tongue making contact with the palate and another articulator making contact with another point of articulation».

Armond 1966, 113.

Honen arauera eta fonetikalariek euskarazko hots bustiez egindako deskribapenak arretaz aztertzen badira (cf. V.2), esan behar da palatalizatuetatik palataletarainoko maila guztiak aurki daitezkeela euskarazko bustikuntzan. Kontuan izan behar da *sensu stricto* palatalizatua oinarrizko ahoskunetik erabat palatalera

iritsi aurreko edozein ebakera izan daitekeela eta ingurune linguistiko edo bestelakoak esplika ditzakeela horrelakoak (cf. V.2. Navarro Tomás-ek leku berean jasotako **ɟ** ezberdinak, esate baterako)⁹. Halaz ere, bustidura adierazgarriaz edo asimilazioz-koaz ari garela, *palatalizazio* hitza erabiltzen da batzuetan. Horren arrazoia ez da fonetikoa fonologikoa baizik: sail bustia bustidurarik gabeko sail nagusiaren aldaketa, bilakabide baten emaitza delako erabil daiteke *palatalizazio* deitura.

Oinarritzko sail nagusia, aldaketa jasaten duena, euskaraz hortzetako eta hortz hobietako fonemek osatzen dute oro har. Hain zuzen ere palatalizatze ahalmen honek klase bezala bereizten ditu gainerako ahoskuneetatik (cf. III.6).

Kontsonante palatalizatu eta palatalen arteko bereizkuntza sarritan artikulazio laguntzailearen (*secondary articulation*) arazoarekin lotuta egoten da. Artikulazio laguntzailea zer den, Ladefoged (1975, 207) fonetikariaren hitzetan esanda: «(...) an articulation with a lesser degree of closure occurring at the same time as another (primary) articulation». Euskarazko hots bustiez dagokigunerako, nahikoa dugu Salaburu-k aurkitua bere hartan aldatzea honera:

«(...) benetazko sabaikariak dira hauek eta ez ingelesez eta beste hizkuntzetan agertzen diren kontsonante

⁹ Cf. Straka 1965, 125: «Toutes les consonnes linguales peuvent apparaître sous cet aspect [palatalizatuak], et sur le plan évolutif, ces nuances représentent indiscutablement des stades intermédiaires par lesquels les consonnes non-palatales sont passées avant de devenir des palatales véritables». Batzuetan, euskaraz dialektologi arazoa izan daitekeela ematen du (cf. Dressler 1985a, 348 *basis of articulation* delakoaz: hau alda daiteke hizkeratik hizkerara). Larrasquet-ek (1932, 173) dioten bezala, belaunaldien artean ere egon daitezke diferentziak.

palatalizatuak, hots, artikulazio laguntzailea gaineratuz ebakitzen diren soinuak»¹⁰.

II.4. Palatalizazioaren beste zenbait arazoz

II.4.1. Despalatalizazioaz

Jakina da asimilazio bustidura ez dela euskalki guztietan gertatzen. Izan ere badira bustiduraren ordezt desbustidura edo despalatalizazioa duten euskalkiak. Lapurteraz eta behenafarreraz batipat (baita Sakanako G eta Aezkoako BN ere: ik. VI.3. eta VI.6.) kontsonante bustiak i eta kontsonantearen kide bustidurarik gabea bihurtzen dira: C [+pal.] --> i C [-pal.]

Despalatalizazioaren ondorioz, asimilazioak bustitzen ez dituenak eta "desasimilazioak" hausten dituen palatalen ondorioak erabat berdintzen dira: bestelako (h.d., datu sinkronikoekin bakarrik) daturik gabe, ezinezkoa da Alts. *Berjinian* (b. *Birjinaren*) bezalako formetan despalatalizazioa egon den ala ez den inoiz palatalizaziorik gertatu erabakitzea. Bestela esanda, lat. *-in-* gordetzen duen ala inoiz bustidura asimilazioz palatalizatuaren despalatalizazioa dugun¹¹. Lan honetan "despalatalizatutzat" hartzen dira despalatalizatu egiten duten euskalkietatik kanpo

¹⁰ Pello Salaburu-k E.H.U.ko Indoeuropar eta Euskal Filologi Sailean 1983. ean aurkezturikako tesiaren 503. orrialdetik. Ladefoged-en aipua ere berak ematen du. Kontuan izan behar da, dena den, Ladefoged-entzat, txistukariak sabaiaurreko bihurtzea (s>ʃ) artikulazio laguntzailea litzatekeela (cf. loc. cit.). Cf. Grammont 1971, 79: bereizkuntzaren xehetasun fonetikoak zaharkituxak badira ere, funtsean «la consonne dure suivie de y» bezala era garbi eta errazean definitzen duena hemen artikulazio laguntzaile esaten zaion berori da.

¹¹ Forma honen eztabaida adibide soil bezala ematen da, hitzaren historiaz egon litezkeen benetazko datuak inola ere kontuan hartu gabe. Bera, ez da, beharbada, adibiderik egokienaz.

inoiz, guk dakigula, i-rik izan ez dutenak. Gainerako euskalkietan ere i dutenak edo izan dutenez esango da ez dutela bustidura bilakabidea jasaten (cf. VI. batipat).

Despalatalizazioa aintzakotzat hartu behar da gainerako euskalkien bustidura aztertzean ere, despalatalizazioa duten euskalkietako hitz batzuen aldaerak nahasgarri izan bait daitezke rekonstrukzio edo berreraiketa lanetan. Horrela, *oilo* eta *teila* bezalakoetan agertzen den i hori asimilazioaren eragiletzat hartu izan du batek baino gehiagok eta aldaera bustiak, asimilazioa bustiduratzat (ik. hitzon iruzkinak VII.1.86. eta 100. ean).

Euskaraz despalatalizazio erregela duten euskalkiek ozenak despalatalizatzen dituzte. Baina badago euskaraz trabarien despalatalizaziorik ere (datu diakronikoak behintzat badaude: ik. *leze* > *lexe* > *leize*, FHV 159 eta 7. oh.). Mitxelenak (FHV 195) ez du ukatzen ozen ez direnen despalatalizazioa:

«(...) en distintas zonas o épocas, una consonante mojada puede resolverse en i más consonante no palatal. Las dificultades son especialmente graves en lo que se refiere a las dos consonantes que ahora estudiamos [l eta n]».

Aztertutako testuen arauera, badirudi despalatalizazioak salbuespenak izan ditzakeela: cf. Alts. *subandilla*, *giñanin*, *kantsa-kántsaiñik*, adib. Bustidura duten formaok bertan ez dagoen asimilazioak ezin izan ditu sortu, noski, baina despalatalizazioak ere ez ditu harrapatu. Honek esan nahi izango luke despalatalizazioa indarra galtzen ari dela eta ez dela erregela fonologiko automatiko edo derrigorrezkoa; beste esan, salbuespenak dituela. Guzti hau, despalatalizazioak ñ eta l' bakarrik harrapatzen dituela kontu eginaz, bestela adibide gehiago ere badaude: *txintxilixkan*, *zittubein*, *aitxurrak*. Baina kontuan izan behar da, idazkera kontua

ere izan daitekeela. Oso interesgarria da, alde honetatik, Bakaikoakoa den Aita F. Ondarra-k (1965, 405) Berriochoa-ri zuzentzen dion notazioa (Berriochoa-k Garbizu-gandik jasoa ziurrenera):

«< *murillu* (45). Cerrojo> [Berriochoa-rena]. Se dice *murri/lu*, pues en Bac. no hay *ll* ni *ñ*, y es <una barra de hierro que se mete en la madera o en el hierro>.

Izango luke, beharbada, zer esanik Izagirre-ren idazkera dela eta. Guzti hauek, noski, lan honi gainezka egiten dioten ikerketen eske geratzen dira. Hemen arazoen nondik norakoak aurkeztu nahi dira.

Ez dago adostasunik despalatalizazio bilakabidearen antzintasunaz. Honi buruzko iritzien artean, asko ez badira ere (eta ia beti zeharkakoak), danetarik aurkitzen da. Badirudi, esate baterako, Gavel bilakabidea zahartzat hartzearen aldekoa dela. Bere ustez, bustidura agertzen duten formek adierazten dute despalatalizazioak indarra galdu ondoren sartu direla hizkuntzan (Gavel 1920, 512). Mitxelena-k, despalatalizazioaren ezaugarriez ari dela (FHV 195-196), esaten du nola lapurteraz, behenafarreraz eta zaraitzueraz oso mailebu berriak bakarrik diren salbuespen (cf. *boteila*, *bainu*, *oilo*, *k(h)einu*, *zein(h)atu*, e.a.), ez da, beraz, aspaldi desagertutako (edo ahuldutako) bilakabidea. Txillardegi-ren ustez fenomeno berritzaile har daiteke despalatalizazioa (cf. Euskaltzaindia 1979b, 639). Ez da pisu handiko arrazoirik ematen alde bateko edo besteko usteak oinarritzeko. Lekukotasunei begira, honelako zalantzei dagokienerako gertuegi dauzkagula ikusten da. Esate baterako, Urte-rena (cf. goragoko II.1) XVIII. mendearen hasierakoa baino ez da.

Badu edo izan dezake despalatalizazioak beste esanahi bat ere. Asimilazio bustidura aurkitzen den euskalkietan ere hitz egin

daiteke despalatalizazioaz. Horrelakoetan, despalatalizazioa euskalki batzuen palatalizazioarekiko egoera jasotzeko lanabes teoriko bezala ulertu behar da. Erregela iraulketa-ren (*rule inversion*) ikuspuntutik egindako azterketa hau *(h)illa*, *(h)illabete*, *era(n)s-kiña*, e.a., baina *kilometro*, *motxila*, *alusinatu*, *pistina*, e.a. esaten duten hiztunen euskarari legokioke, noski (cf. Don. *pilla* vs. *pila*, Erreterria *makiña* vs. *makina* ere). Ez da, bada, hizkeraren baldintza fonetiko bezala gertatzen den despalatalizazioa, ez bait da edozein palatal despalatalizatzen; besterik gabe, palatalizazio erregelaren mugak jasotzeko teoriaren bide bat baizik ¹².

Honek ez du esan nahi, noski, despalatalizazioa duten euskalkietakoa erregela iraulketa ez denik berez (edo, hobe, historikoki). Ikerketa gehiago beharko litzateke, ordea, horrelakoez pentsatzen hasi orduko. Jarrera teoriko honetatik egindako ikerketa izan beharko luke, gainera (cf. Vennemann 1972). Haintzakotzat izan behar da bilakabide fonologikoen tipologia eta despalatalizazioa erregela iraulketatzat hartzeak lekarkeena. Halaber, fonetikaren aldetik bata bestea bihurtzeko leudekeen arrazoiak, e.a.¹³.

Normalean palatalizazioa duten euskalkietan ere hitz batzu "despalatalizatuta" agertzen dira. Horrelakoetan kontsonanteak bustidura galdu du, baina ez da i-rik sortzen: ez da gorago aipatu despalatalizazio erregela ezartzen, ez da elementu berririk

¹² Cf. ildo honetatik egindako saio makala: "Arau baten azalpide bi", *Symbolae Ludovico Mitxelena*, Vitoria, 1985 (893-897).

¹³ «Rule inversion (...) may destroy process matching. It is commonly maintained that a P[honological] R[ule] necessarily changes into a M[orpho] PR (or A[ll]oM[orphic]R) by a rule inversion. However if the result of the rule inversion is a rule which perfectly corresponds to a universal phonological process type, this needs not be true». (Dressler 1985a, 63). Ik. Straka 1965, 135, baldintza fonetikoaren azterketaren adibide bezala (zehaztasunen egiantzekotasuna alde batera utzirik orain).

eransten bustiduraren ordeztu edo kontsonante bustiduraduna zatituaz. Besterik gabe: «(...) se habrá sentido la palatalización como signo de diminutivo que en cuanto tal podía ser omitido» (FHV 196). Ik., esate baterako, *akullu* eta *zizallu*-ren iruzkinak (VII.1.2. eta 109.).

Nahiz eta askotan esanahia aldatu ez, despalatalizazioa bilakabide adierazgarria ere izan daiteke. Badirudi hau bestela baino garbiago agertzen dela, despalatalizazioaren oinarri edo *input* bustidura adierazgarriaren ondorio edo *output* denean. Ikus, honetaz, IV.2. atala.

II.4.2. Neutralizazioak

Azterketa fonologikoa egitean aintzakotzat hartu behar direnen artean, bustidurarekin lotua agertzen den beste arazoa neutralizazioarena da: alde batetik, bustidura neutralizazio bilakabidea den eta, bestetik, bustidura bilakabidearen nondik norakoak aztertzean azaltzen diren neutralizazioak.

Lehenengo galderari baiezko erantzuna eman behar zaio. Neutralizagarri ala alofoniko izatea erregela fonologikoen ezaugarri izaten da, gramatikaren alor fonologikoaren egituraketari bait dagokio. Aldaketa adierazgarri edo semantikoak definizioz ezin dira alofoniko izan, aldakuntza adierazgarri baten ondorio direnen nortasun fonologikoa finkatzea gauza erraza ez bada ere ¹⁴. Garbi dago *samur* / *xamur* pareko aurkakotasuna ez dela *arto* / *ardo*

¹⁴ Neutralizagarri/alofoniko bide estrukturalistetan barrena hartu eta erabili zen bereizkuntza tradizionalaren arauera erabiltzen da hemen.

parean agertzen denaren mailakoa eta bigarrena dela erabat fonema mailako aurkakotasuna (ik. IV.3. hiztegia eta bereizkuntza adierazgarriez). Halaber, ordea, lehenengo pareko bustidura ez da erregela fonologiko soil baten bidez azaltzen den ezaugarri alofonikoa, ezin bait da testuinguraren arauera justifikatu. Nolabait alor fonologikoari eta semantikoari dagokion aldaketa dugu bustidura adierazgarria: ondorio semantiko eta fonetikoak izanik, esanahiaren eraginpean jazotako aldakuntza da.

Bustidura adierazgarriaren alor semantikoa alde batera uzterik balego, bustikuntza adierazgarria hots aldaketa bilakabidea den aldetik (h.d. hots batzuk beste bihurtzen dituen aldetik) esan liteke aldaketa neutralizagarria dela ¹⁵. Bestela esan, aldakuntza-
ren arrazoi semantikoa gramatikaren alor fonologikoan jasota, bustidura adierazgarriak (zentzu sinkroniko edota diakronikoan) sortutako hots palatalak eratorritzat hartzerik balego ere, baditu euskarak bestelako hots palatalak (ik. V.1). Beraz, ezin da esan euskarazko hots palatal guztiak erregelaz eratorriak direnik, zalantzarik gabe hizkuntzaren fonema paradigmak daudenak ere badaude eta horiekin "berdindu" edo neutralizatuko lirateke bustidura bien ondorioak.

Neutralizazioaz asko eta ikuspuntu askotatik hitz egin da fonologiaren historia zehar. Ez da lan hau egon diren iritzi eta definizioen erkatze eta eztabaidetan sartzeko lekua. Besterik gabe, neutralizazioaren zentzurik oinarritzeko eta zabalduena hartu da eta bustiduraren ezauguera sakontzeko balio duen neurrian aztertzen.

¹⁵ Cf. Salaburu-ren (1984, 118 hh.) "Hizketa adierazkorraren arauak": honelakoan ezaugarri fonetiko eta formalizapenak.

Funtsean, adierazi den bezala, neutralizazioa gertatzen da aldakuntza fonologiko baten ondorioz fonema baten aldaera dena beste fonema batenarekin berdintzen denean fonetikoki (adib., eusk. *edan* 'beber' eta *eran* 'a modo de' biak [eran] ahoskatzen direnean). Fonemaren definizio garbirik ez duen eskola generatibistaren ikuspegitik zailagoa da neutralizazioaren definizio sinplea ematea, baina esan daiteke azterketa ezagunenetako neutralizazio kontzeptua ez dagoela aipatutik urruti. Euskarazko asimilazio bustiduraren egoera dela eta, badu interesik teoria honen barruan Kiparsky-k (1968) finkaturikako neutralizazioaren ezaugarri batek. Kiparsky-ren arauera, neutralizazio erregelak ingurune eratorrietan bakarrik gertatzen dira modu oparo eta emankorrean (h.d. aldaerak sortuaz). Beraz, esan bezala euskarazko bustidura neutralizazio erregela bada, ingurune eratorrietan gertatuko da: morfema mugan zehar, i sekundarioaren ondoren, mailebuetan. Guzti hau hizkuntza zehatzetan aztertzea eta neurtzea garrantzitsua da teorien froga bezala ere. Horregatik, aintzakotzat hartu da Kiparsky-ren baldintza hau ondorengo azterketak egitean (ik. VI. eta VIII.).

Neutralizazio erregelen emankortasuna ingurune eratorrietan bakarrik gauzatzen dela esatea, fenomeno fonologikoen sailkapen sinkronikoa osatzeko bide bat da. Horregatik, aldaketa fonologiko batek salbuespenik ez badu (h.d. automatikoa bada), ingurune eratorrietan bakarrik jazotzen den bilakabide fonologikoak pareko morfema egitura erregela bat (h.d. oinarrizko kateen egitura fonetiko baldintzatzen duena) behar du hizkuntzaren gramatikan. Esate baterako, sanskritozko ahoskabetze asimilazioa, neutralizazio erregela izanik, morfema mugan zehar eta gainerako ingurune eratorrietan gertatzen da: baina ez dago salbuespenik morfema

barrenean ere, morfemak ahoskabetze erregela bezalakoxea den baldintza baten arauera egituratzen bait dira (cf. Dressler 1985a, 78). Sarritan, morfema egituraren baldintzaok (*morpheme structure rules*) hizkuntzaren historian inoiz oparo izandako aldaketa fonologikoen ordain dira ¹⁶.

Bustiduraren inguruan agertzen diren eta bustidura bilakabidean eragina izan dezaketen neutralizazioen atalera igaroaz, batzuetan bustikuntza sortzen duen bokalerdia desagertu egin daitekeela gogoratu behar da. Izan ere, kenketa bilakabideak neutralizaziozkoen artean sar daitezke (Dressler 1985a, 118, 132-133) ¹⁷. Aurkezpen fonikoaren azterketa ez da zailtzen bi fonema nahasten direlako, baizik bilakabiderik gertatu den ilundu dezakeelako (eta, beraz, aurkezpen fonologiko edo oinarritzkoaren ezaguera unibokoa eragotzi). Gogoeta hau ezaguna egiten zaio ikerketa fonologikoan dabilenari: erraza da, euskaraz forma palataldun ezezagun baten aurrean ez jakitea desagertutako *i* bati zor zaion bustidura ala beste nolabait sortua den. Halaber *oilo*, *tella*, *bañu* < *oilo*, *teila*, *bainu* bezalako analisiek edo *andereino* bezalako idazkerek garbi adierazten dute hiztunarengan ere *i* bokalerdiaren desagertzeak eraikitako eredu neutralizazioa.

¹⁶ Stampe-ren Fonologia Naturalaren arauera (cf. Dressler eta eskaintzen duen bibliografia), baldintza hauek hizkuntzaren bilakabide paradigmatisak dira eta ez dira, berez, sintagmatikoen beste alde bat baizik. Diakronia eta sinkroniaren arteko hesia ez da erabatekoa.

¹⁷ Normalean desagertze hau bustidura gertatu ondoren jazotzen da eta, Dressler-i (1985a, 202) jarraiki, «j-deletion or j-fusion» erabil genitzake. Dena dela, garbi dago katea fonikoan elementu bat gutxiago dagoela aldaketaren ondorio bezala. Kontsonante palatal edo palatalizatuaren ondoko *j*-ren kenketa ezaguna da beste hizkuntzetan ere (cf., ing., Phillips 1984, 324-325).

Neutralizazioen sailean, aipatu beharrekoa da euskarazko asimilazio bustiduraren muga edo salbuesen iturri bat: palatalizazioa eta palatalizaziorik gabearen arteko aurkakotasuna neutralizatu egin daiteke hain zuzen ere palatalizazioa sortu ohi duenaren ondoren, i-ren ondoren (FHV 200: *bilatu*) Honelako neutralizazioak nahikoa arruntak dira azalean kontraesana badirudi ere. Esate baterako, populukazko sudurkariaren palatalizazioa ere desagertu egin daiteke bi i-ren artean (Foster/Foster 1948, 7); badirudi euskarazkoak ere ingurune horretan desagertzeko joera agertzen duela eta beharbada horregatik aurkitzen dira *ibili* edo *sinistu* bestela asimilazio oparoa duten hizkeretan (cf. VI.1.1. *sinistu*, *txilibrizkau*, *txilixu*; VI.1.4. *ilinchia*, *milika*; VI.2.3. *familia*, *pamili*; e.a.). Tankera honetako neutralizazio edo kontraste galtzeetan hots katearen perzepziozko ezaugarriak oso kontuan hartzekoak dira; garbi dago ozenen [+/-bustidura] kontrastea bi i-ren artean beste edozein bokalen aurrean baino gutxiago nabaritzen dela.

Atal hau bukatu aurretik, badago aipatu beharreko beste bilakabide neutralizagarri bat ere. Euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, ozenak kontsonante aurrean daudenean kontsonante horren ahoskunea hartzen dute. Kontsonante aurreko ozenen artean ez dago, bada, ahoskune aurkakotasun edo oposaketarik ¹⁸. Bilakabide honen ondorioa gehienetan neutralizagarria da, baina belareen aurrean sortzen den aldaera ezin da beste fonema batekin nahastu (euskaraz ez dago ozen belarerik fonema mailan) eta, horregatik, esan daiteke ahoskune asimilazio erregela hau zatika

¹⁸ Estrukturalisten eskutik sortutako artxifonemaren ahoskunea kasuan kasuko kontsonante eragileak baldintzatzen du.

dela neutralizagarri (cf. Dressler 1985a, 131) ¹⁹. Baina bustidurari bagagozkio, axola duena da ahoskunearen asimilazio bilakabide hau oztopo izan daitekeela hortz-hobietako ozenei ezartzen zaien asimilazio bustidurarako. Adibidez, *eingo* edo *ingo* bezalako kateen ebakera arruntean sudurkariak hurrengo belarearen ahoskunea hartzea du (eta orduan ezin da hortz-hobietakoen asimilazio bustidura gertatu). Bestela, i bokal edo bokalerdiaren eraginez bustitzen bada sudurkaria, ez da ondorengo kontsonantearekiko ahoskune asimilaziorik gertatzen. Bigarrena lehenengoa baino askoz gutxiagotan aurkitzen da (ik. III.7. kontsonante aurreko bustiduraz).

Aipatuez gainera, bokalen arteko zenbait aldaketa ere aurkakotasun fonologikoen neutralizaziotzat har daitezke. Euskarazko hitzen bilakaerari begira, ikusten da, alde batetik, denbora^{va} zehar ez aldatzeko joera indartsua dela; bestalde, ordea, inguruko kontsonanteen eraginez erraz aldatzen dela bokalen nolakotasuna batez ere hitz luzeetan (cf. FHV 50). Hemen dagokiguna bustidura izanik, i-ren gora-beherak dira axola dutenak. Dena dela, arazo honek zeharkako garrantzia bakarrik du lan honetan; formaren baten esplikazioan bokal aldaketa aurkitzen denean, azalduko da ahalik eta zehazkien. Orain, zerrenda modura, txandakatze edo alternantzia nagusienak zeintzu diren bakarrik adieraziko da.

¹⁹ Ułaszyn edo Twaddell-en garaietatik jasota zegoen aldaketa bakar baten ondorioen aniztasunarena. Halaz ere, honelako arazo bategatik kendu zuen Halle-k fonema mailako aurkezpena gramatikaren alor fonologikotik (1959.an argitaratu bere errusierazko lanean). Honek garrantzizko ondorioak izan zituen eta ditu generatibisten fonologi teorian.

Diakronia eta euskalkiak zehar, ikusten da nola i eta e bata bestearen ordeztu daitezkeen batzuetan (cf., kanpotikakoen egokitzea izan daitekeenerako, *niska*: Echenique 1984, 40). Badirudi bokal bion arteko aurkakotasuna batipat silaba azkeneko i eta r-ren aurrean ahuldu zela; joera e-ren aldeko omen zen, baina egun i ere aurkitzen da (cf. *bildur*, *beldur*; FHV 63). Silaba azkeneko sudurkariaren eragina, berriz, itxiaren aldekoa da (FHV 66-67: § 2.6). Batzuetan bokala ixten duen sudurkaria ez da silaba azkenekoa: cf. *Z ha(r)íña*, *khatíña*, e.a. (FHV 304).

Kontsonante palatalek ere itxitzen dute aurreko bokala: *itxura* (cf. gazt. *hechura*), GN *itxe* (cf. b.e. *etxe*), B *gexto* (<*gaixto* < *gaizto*), e.a. Bokalen aldaketa honek uste okerrak sor ditzake asimilazio bustidura datu historikoak kontuan hartu gabe aztertzen bada. Txistukari batek ere eragin berdina izan dezake, beharbada inoiz ahoskera palatala izan duelako: cf. *pesu* > *pisu* (FHV 67-68: § 2.7).

Bokal itxienek besteak ixteko indarra izan dezakete, eragina ezker-eskubi edo alderantziz doalarik. Bokal ireikiena (a) aurreko bokal itxi baten eraginez itxi daiteke. Sinkronikoki honen paraleloa armonia bokalikoa duten euskalkietan aurkitzen da (cf. B *urune*, *bardiñe*, e.a.). Bestalde, bokal itxi baten eraginez, beranduago datorren erdiko bokala itxi daiteke: e > i, o > u (cf. FHV 63-64).

Hitz hasierako epentesietan ere agertzen da batzuetan i, ohizkoena den e-ren ordeztu: cf. *ispillu*, *izkiña*, *izpiritu*, *izkutu* (eta *ezkutu*), e.a. (FHV 66).

Palatalen arteko txandakatzeaz (i / e) gain, itxien arteko permutazioak ere badaude (i / u: FHV 47, 60, 73-75). Adibideak han hemenka sakabanaturik agertzen badira ere, esan daiteke hitz hasieran bizkaieraz u-ren aldeko joera ikusten dela beste

euskalkietako i-ren ondoan. Honelako bereizkuntzek, noski, izan dezakete zerikusirik asimilazio bustidurarekin *ille/ulle* bezalako pareetan. Holmer/Abrahamson-en (1968, 102-103), pare horretan bustidurak adierazten du i zaharragoa dela u baino. Dena dela, egileek dioten bezala, *ulle* bezalakoak ere entzuten dira. Izan ere, gauzak ez dira horren sinple izaten alor honetan, mota askotakoak izan bait daitezke aldaketen eragileak (cf. FHV 74-75: bokal bien lehenengotasuna justifika daiteke).

II.4.3. Palatalizazioa eta aspirazioa

Palatalizazioa eta aspirazioaren arteko harremana bi ikuspuntutatik iker daiteke. Batetik, bata bestearen ezarpenerako izan dezakeen garrantzia hartu behar da aintzakotzat. Bestetik, bai hasperena agertzeak eta bai bustidurak hitzaren azentuaren aldetik baldintzapen bera edo antzekoa salatzen dutela ematen du ²⁰.

Hasperena gorde duten euskalkietako zenbait formen arauera, badirudi bustidura gertatzeak eragotzi egin duela zenbait herskari ahoskaberaren ("aspiragairen") hasperena. Mitxelena-k adierazten duen bezala, Dechepare-rengan, Liçarraga-rengan edo Z aurkitzen diren *t̪t̪ipi*, *t̪xipi*, *g̪utti*, *g̪ütti*, eta abarretako ebakera palatalizatuak esplikatu dezake aspirazio bilakabideen arauera espero izango genuena ez gertatzea. Jakina da hitzok beste euskalkietan ere ebakera bustiduraduna agertzen dutela eta

²⁰ Cf. Kontsonanteen ahoskuntze aurrekaria eta azentuaz (Larrasquet 1932, 181-182). Daturik ezean, gauza handirik ezin bada esan ere, pentsatzekoa da azentuak bustidura erraztu egingo duela (cf. palatalizazioa eta artikulazio indarraz esanak: 1.2). Beharbada, hortxe bilatu behar da zenbait mintzotako salbuespen itxura duten formen arrazoiak.

esanahiarengatik bustidura adierazgarria jasateko aproposeneta-koak direla (cf. VII). Honekin lotzen da *aita* eta *maite* hitzetan hasperena ez agertzea. Holmer-en arauera, forma hauetako hortzetako herskaria bustidura adierazgarritz palatalizatua ebakitzen zen eta despalatalizazioz sortu da *-it-* segida (cf. M 1951, 543).

Hasperena eta bustikuntzaren azentuarekiko hartuemanak ez da zuzena. Oraingoz, palatalizazioaren historiaren une zehatz batera jotzen dugu. Egokiagoa izan daiteke eztabaida honetan aspirazioaz eta palatalizazioaz aritu beharrean, hasperenaz eta sudurkari (palatal)ez aritzea: hain zuzen ere, silaba zenbakiaren arauera hasperena edo sudurkari bustia agertzean datza kakoa. Ez da, gauzak estu eta mekanikoki hartuta, katean zegoen segmentu bat aspiratu edo palatalizatzea: eransketa erregela genduke aldaketa baino areago.

Ziurrenik, guzti hau ez dagokio palatalizazioari berez, galdu eta berragertzen den sudurkariari baizik. Hemen alpatzen da, sudurkari hori palatala izaten delako *i*-ren ondoren agertzen denean eta kenketa/eransketa historiko hauek badutelako zerikusirik zenbait euskalkitako bustiduraren distribuzioarekin. Palatalen artean eransketa bilakabidea sudurkariari dagokio, sudurkariak izan direlako era erregular eta emankorrean galdu direnak bokal artean. Euskalki guztietan gertatu den bilakabide hau zaharra da, noski. Iraultzen duen aldakuntza --sudurkariak berriro agertzea, alegia-- ere euskalki guztietan gertatu dela esan daiteke. Badirudi sudurkari eransketa hau gertatu zenean, erabat emankor zela sudurkariaren asimilazio bustidura, esan bezala, berriro agertzen den sudurkaria *i*-ren ondoren dagoenean, sudurkaria bustia bait da.

Sudurkari bustia eransten duen erregela ez da berdina euskalki guztietan eta hementxe egon daiteke bilakabidearen azentuarekiko lokera. Esan daiteke, hemen dagokiguna ahalik eta azkarren azaltzeko, G eta GN silaba zenbakia erregelaren ingurunea finkatzean kontuan izan behar den baldintza dela. Sudurkari bustia lehenengo eta bigarren silabaren artean agertzen da, baina ez bigarren silabatik aurrera: cf. B *kamiño* / G *kami(y)o* (cf. gazt. *camino*), Errent. *giñar* vs. *amagiarreba* (cf. B *amagiñarreba*), B *kristiñau* / G *kristau*, e.a. ²¹. Silaba zenbakiaren aldetik dagoen muga hasperenak beste zenbait euskalkitan duena da, Mitxelena irakasleak dion bezala (FHV 546) ²².

Arazo honek bustikuntza aldaketaren ezagutzarekin izan dezakeen zerikusia Baztango mintzoaren asimilazio bustidura aztertzean nabarmentzen da. Bertako euskaran asimilazio bustidura bokalerdiaren (h.d. diptongoaren bigarren elementu den j-ren) ondoren bakarrik da emankor. Baina bada, halaz ere, i bokal silabagilearen ondoren sudurkariaren bustidura agertzen duen hitz multzo bat (ik. VI.5.1.1.2) ²³. Hitzok galdu eta berragertutako sudurkaria dute lehenengo eta bigarren silabaren artean. Bigarren silabatik aurrera, sudurkari hori ez da agertzen. Galdu eta erantsitako sudurkari hori baino beranduagokoa bada delako i+n segida, ez da bustidurarik agertzen.

²¹ B *premiña* / G *premi(y)a* (cf. gazt. zah. *premia*), B *tximiño* / G *tximu* (cf. gazt. *simio*) bezalakoetan ere banaketa bera aurkitzen da, sudurkariaren jatorria bestelakoa bada ere.

²² Salbuespen bezala aipatzen duen *erregiña* azaltzeko ba ote du zerikusirik latinezko azentuaren lekuak (kontsonanteen ahostuntzea ere bokal tonikoen ondoren da indartsuen: Larrasquet, loc. cit.).

²³ Bustidura asimilazioa hedatuagoa zeneko *estratoa*?

III. ASIMILAZIO BUSTIDURA

III.1. Asimilaziozko hots aldaketak

Palatalizazio asemikoak ahoskune edo artikulazio puntuaren asimilazio bilakabideak izaten dira funtsean. Euskarazko bustidura asimilazioa gertatzen denean elementu ez-kontsonantariaren palataltasunak ondorengo kontsonantean irauten du (cf. I. atala) ¹. Kate fonikoko elementu baten artikulazioak beste elementu baten ahoskeran duen eraginean oinarritzen direlako, asimilazio eta disimilazio aldaketak indukziozko edo koartikulaziozko aldakuntzak direla esaten da. Hau da, hotsa ingurunearen eraginez, katea fonikoan aurretik edo/eta ondoren daukanagatik, aldatzen da.

Asimilazioz jazotako aldakuntzetan hots batek inguruko beste baten antza (haundiagoa) hartzen du. Dressler-en (1985b, 33) teoria naturalaren arauera, asimilazioari esker fonemek ebakera kateatuaren behar eta zailtasun fisiologikoei erantzuten diete (fonemak paradigma mailan dituen ezaugarriak disimilazio bilakabidez finkatzen dira) ².

¹ Palatalizazio deitzen diren txistukaritzeak ere asimilazioak dira, bete-betean ahoskune-arenak ez badira ere: «(...) [sibilant] is an assimilation to the tongue shape of the vowel. High front vowels are typically articulated with a groove in the center of the tongue, i.e. with the center down and the edges up against the lateral teeth. The presence of such a groove is the distinguishing property of sibilants, whereby the air stream is channeled against the upper edge of the lower incisors». (Wang 1969, 22, 22. oh.).

² «Since this is also a function of postlexical processes, we can predict that both sets of processes will coincide largely within the phonology of any language». Gogoratu teori honen arauera bilakabide (*process*) eta erregelak (*rule*) diferenteak direla, lehenengoak direlarik bete betean fonologiazkoak (besteak morfologi edota hiztegiaren alorrean sartzen dira).

Asimilazioa da ebakeraren baldintza fonetikoaren eragina garbierak isladatzen duen aldaketa fonologikoa. Dena dela, honek ez du esan nahi baldintza fonetikoak aski direnik asimilazioa azaltzeko. Gauzak horrela izanez gero, Phillips-ek (1984, 322) dio hizkuntza baten dialektu guztiak aldakuntza berberak izango lituztekeela egoera berdinetan. Bere ustez, baldintza fonetikoak beharrezkoak dira, baina ez nahikoak asimilazioa azaltzerakoan. Phillips-ek ez du kontuan hartzen dialektuen artean asimilazioa baldintzatzen duten zenbait bereizkuntza fonetiko egon daitezkeela, esate baterako azentuaren egoera edo gertatzen diren gainerako bilakabideen zerrenda diferentea izan daitekeela dialektu batetik bestera. Beraz, Phillips-ek dioena erabat harturik egia bada ere, ezin da ahaztu baldintza fonetikoak mota eta maila askotakoak izan daitezkeela (cf. beheago asimilazio eta disimilazioaren inguruan Rousselot eta Straka-rengandik jasotakoak). Halaber kontuan izan behar da bilakabide fonologikoak aldatu egiten direla denbora zehar: baldintza fonetikoak ilundu egiten dira, beste eraginaren indarra haunditzen delarik (gogora bustiduraren aintzinasunaz II. atalean esanak eta ik. VI.eko sarreraren baldintza fonetiko eta gainerakoez).

Aldakuntza eragin dezaketen baldintzen ugaritasuna kontuan hartuta, erraz ulertzen da indukziozko aldakuntzak erabat erregularrak ez izatea gehienetan (cf. M 1972, 21, sudurkarien disimilazioaz). Euskarazko asimilazio bustiduraren kasuan muga eta baldintzak hizkeratik hizkerara alda daitezke. Alde honetatik, nabarmenena palatalizazioaren ordean despalatalizazioa duten euskalkiena da (L, BN eta, jasotakoaren artean, VI.3. Altsasukoa eta VI.6.1. A). VI. atalean azaltzen da, zein izan daitekeen aztertutako euskara bakoitzaren asimilazioak dituen muga eta ezaugarriak.

Hizkera bakoitzeko bilakabideen arteko erkatzea errazteko, atal bakoitzaren izenburuan, generatibistek zabaldutako erregela formatua erabiltzen da (ik. VI. atalaren sarrera). Euskarazko bustidura asimilazioaren erregularitasuna erabatekoa ez bada ere, oraindik posible da tasun bereizgarrien bidez aldakuntza adieraztea ³ eta erregelaz baliatzeak aldakuntzaren norabide edo direkzioa jasotzeko aukera ematen digu. Alternantzien bidez adieraziko bagenu aldakuntza, ez genuke aukera hori izango: /**ɕ**/ aurkezpenean ez dela agertzen, alegia, zein den abiapuntua eta zein aldakuntzaren ondorioa. Hau, noski, mesedegarria izan liteke hitz baten aldaeren artean oinarritzkoa zein den ez dakigunean (cf. VII. **illoba** / **lioba** / **lloba**, e.a.).

III.2. Bustidura asimilazio bezala

Euskarazko palatalizazioa asimilazio aurrekaria edo iraunkorra (*progresiva* edo *persistente*) dugu. Esaldi bakarrean adieraztekotan, bokal(erdi) palatal goiko edo itxienak ondorengo kontsonanteari bere ahoskune edo artikulazio puntua "kutsatzen" diola esan daiteke: bokalaren artikulatzaileek (mihi-gaina eta ahosabaia) iraun egiten dute hurrengo kontsonantea ahoskatzean, kontsonantearen ahoskunea aldatuz.

Esan bezala, bustidura asimilazioa ez da beti erregularra, izan ere, batzuetan ez da gertatzen erregelaren arauera espero genukeen. Adibidez, asimilaziorako ingurunea eskaintzen duen hitzean

³ Erregela morfonologikoak eta alomorfiko-morfologikoak fonemen bidez adieraztea egokiagoa omen da erregularitasun maila dela eta (Dressler 1985, 67; baina, cf. 13. or.). Cf. III.6. tasun bereizgarri sistemaren zenbait hutsunez.

beste hots palatalen bat egoteak zaildu egiten du bustidura, behintzat maizago aurkitzen dira asimilaziorik gabeko kasuak egoera horretan bestela baino (cf. 2.2.1.2/3.5/6 txistu). Lauaxeta-k *li^ɛijak* eta *niñi-barnan* idaztea ulertzeko, kontuan hartu behar da euskaraz bi silabatan, elkarren ondoan, batean n (edo l) eta bestean ñ (edo ɲ) ez esateko joera dagoela ⁴.

Guzti honek hasperenaren mugak dakarzkigu gogora. Euskal fonologiak eskaintzen digu hitz bakarrean hasperen biren kontrako debekua, Grassmann-en legea eskuratzeko beharrik gabe (cf. FHV 211 hh.) ⁵. Bide honetatik interpreta daiteke, Allen-en (1957, 121-122) ustez, grekozko hots ezpainkarien segiden aurkako joera eta, baita ere ziurraski, e-ren eraginez gertatzen den palatalizazioa i-ren eraginez ez gertatzea ezpainbelare ahostun edo aspiratuei: cf. **βίος, ὄφις** vs. **τε, τίς, ἀδελφός, θείνω** (Allen 1957, 114). III.5.ean arituko gara asimilazioaren eragileaz. Euskarazko bustiduraren kasuan badirudi elementu bustigaia ikuitzen duen (eta asimilazioaren eragile ohi den) i bera izan daitekeela asimilazioaren kontrako beste palatal hori:

«En *bilatu* por *billatu* la antigua palatalización (...) parece haberse perdido detrás de i, como ha sucedido en mer. sul. sal. *mila* 'mil' < lat. *miliā* a.nav. Elcano *milla*. En otras palabras, se diría que la oposición l/l' tendía a neutralizarse tras i con realización palatal o no palatal».

(FHV 200).

Mitxelena-k *neutralizazio* hitza erabiltzen du eta Allen ere ez da agertzen Solmsen eta bestek *disimilazioan* oinarritutako espli-

⁴ K. Mixelena, "Euskal Testuak", Gasteiz 1984.go apirilak 10. Kontuan izan behar da, noski, Arana-ren ortografiaren eragina Lauaxeta-rengan.

⁵ Badu bustidurak hasperenaren antza silaba zenbakiaren mugen aldetik ere, cf. FHV 546-547 edo II.4.3.

kazioaren alde (op. cit. 130-131), honelako egoeretan gertatzen denari *artxifonema* --h.d. neutralizatu aurkakotasunaren ordeko-- esaten diolarik (op. cit. 122). Bustidura gertatzearen aurkako indarrari *disimilazio* deitzekotan, hitza bere zentzurik zabalenean hartu behar da. Datuak falta zaizkigu, esate baterako, salbuespenak Rousselot-en (1924-1925, 985) definizioaren arauera uler daitezkeen jakiteko: «La dissimilation n'est au fond que l'affaiblissement d'une articulation sous l'influence d'une articulation semblable plus forte». Honen arauera, asimilazioa gertatu da eta gero galdu egin da, hitz bereko beste palatala indartsuagoa delako. Jakin badakigu asimilazioaren fruitu den hots bustia artikulazio-indar haundiagoz ahoskatzen dela ⁶ bustidurarik gabea baino, baina datu ugari eta zehatzagoak beharko genituzke hitz osoaren fonetikaz honelakoak baieztatzeko (azentuaz, esate baterako; cf. Rousselot 1924-1925, 986).

Ez gaitu bide honetatik aldentzen Straka-ren (1965, 128-129) esplikazioak ere. Rousselot-en definizioan galdu egiten dena (artikulazioaren ahultzearen bidez), Straka-ren arauera ez da gertatzen (indar faltaz):

«Une palatale peut naître sous le seul effet d'un renforcement articulatoire, tandis que la présence seule d'une voyelle palatale ou d'un *yod* ne suffit pas. Dans ce dernier cas il faut encore qu'une certaine énergie articulatoire de la consonne s'ajoute à l'attraction assimilatrice de l'articulation subséquente [asimilazio atzekariaz ari da]; si l'énergie manque, la palatalisation n'a pas lieu, et en revanche, elle progresse d'autant plus vite que l'énergie est plus grande».

Oso kontuan hartzekoa da hau, azterketa fonetikoan zain gelditzen den hipotesia besterik ez bada ere. Honela uler daitezke

⁶ Cf. Dressler 1985, 49: [t] vs. [tʃ].

Rousselot-engandik jasotako indar erlatiboarena eta hitzaren azentuaren garrantziarena. Gainera, artikulazio indarra berez aldakuntza fonetikoa gertaerazteko nahikoa dela egia bada, bustidura adierazgarriaren ataleko zenbait forma esplikatu litezke.

Zalantzarik gabe gertatzen dena da kontrastea galtzeko joera dagoela, hain zuzen ere askotan kontrastea gertaerazi duenaren ondoren, i-ren ondoren: nolabait ere aldakuntza gertaerazi duena agerian dagoenean. Ez dira datuak gehiegi bortxatu behar Schane-k (1971) proposatutako bidetik sartzeko. Izan ere, palatalizazioak indarra galtzen du (*neutralizatu* egiten da, nahi bada) azaleko aurkezpenean kontraste berririk sortu ez duenean, palatalizazioa azal erazi duena desagertu ez denean, elementu eragile eta eraginak modu erredundantean elkarren ondoan irauten dutenean (hara nondik *disimilaziotzat* hartzeko aukera). Ez dago hemen lekurik Schane-n proposamen eta kritikek fonologiaren teoriarekiko duten garrantzia aztertzeko, benetan interesgarriak badira ere; baina argi ikusten da Mitxelena-k euskarazko asimilazioaz eta Allen-ek grekoazko esanei erraz egokitzen zaiela Schane-n interpretazioa ⁷.

III.3. Ahoscunearen asimilazioa

Esan bezala, euskarazko asimilazio bustidura gertatzen denean, bokal(erdia)ren ahoskunea da ondorengo kontsonantearen

⁷ Hain zuzen ere, Allen-en azalpidean aurki daiteke Schane-k berriro ere fonologiaren teorian sartu nahi duen maila fonologikoaren balioa: «(...) before a fully palatal vowel (i) palatalization of a preceding labiovelar would not be expected; the 'half-palatal' (mid front) vowel Σ on the other hand would be sufficiently palatal to palatalize the preceding consonant, without qualifying phonologically as a carrier of palatality» (Allen 1957, 122).

ebakera zehar irauten duena. Beraz, oinarrizko aurkezpenean (edo maila fonologikoan, nahi bada) hortzetako edo hortz-hobietakoak diren kontsonanteak, asimilazioaren ondorioz, sabaikaldu egiten dira. Oinarrizko hotsaren (*input*) nolakotasunaren arauera, ebakera sabaiaurrekoa --txistukariena-- edo sabaikoa izango da (ik. III.6. erregelaren *input* izan daitezkeen hots bustigalez eta V. aldakuntzaren ondorioen ezaugarriez).

Bokalek eta kontsonanteek dituzten ezaugarri fonetikoak ezberdinak badira ere, azterketa fonologikoa egiteko orduan egokia gertatzen da oso ahoskunea jasotzen duten tasunak sail berekoak izatea bai bokalentzat eta bai kontsonanteentzat. Honela, hemen aztertzen den aldakuntza bezalako asimilazioak errazago adieraz eta esplika daitezke:

«We can write rules which have much more explanatory power if we consider vowels such as *i* to be similar to postalveolar (palatoalveolar) sounds (...)».

Ladefoged 1971, 42.

Asimilazio bustiduraren ondorio diren hotsak oinarri dituzten bustigalekin erkatzen badira, batzuetan ikusten da aldatu dena ez dela ahoskune edo artikulazio puntua bakarrik. Oinarrizko aldakuntza soil, erregularretik urrutien daudenak ez dira asimilazioak izaten (dardarkariaren bustidura edo $\text{ɛ} > \text{tʃ}$). Berezienak izanagatik ez dira bakarrak eta asimilazio bustiduran ere gerta daiteke ahoskuneaz gain artikulazio modua ere aldatzea esate baterako (ik. V. atala bustiduraren simetriadik ezaz).

III.4. Asimilazio aurrekaria

«Los casos de asimilación progresiva entre segmentos adyacentes son menos comunes que los de asimilación regresiva».

Contreras/Lleó 1982, 43.

Badago zer esanik bilakabide hau aurrekaria dela eta. Azken urteotako fonologiazko literaturan irakur daitekeenaren arauera dirudienez, honelako aldakuntzak gehienetan atzekariak (*regresivos*) izaten dira, asimilazio eragina eskubi-ezker ezartzen da, alegia ⁸. Izan ere, hori omen da asimilazioen norabide ohizkoena, baina ez da, inola ere bakarra. Gavel-ek (1920, 327-329), esate baterako, euskarazko zenbait kontsonanteren ahoskabetze asimilazio aurrekariak azaltzen ditu; Trask-ek (1985, 887) ere aipatzen ditu asimilazio aldaketa aurrekariak euskaraz; Ladefoged-ek (1975, 92) frantsesezko ahots asimilazio aurrekaria inglesezko gehienak ez bezalakoa dela azpimarkatzen du. Zerrenda luzea egin daiteke.

Halaz ere, Bhat-ek (1978) munduko hizkuntza askotan palatalizazioa fonetikaren aldetik izan daitekeena aztertzean, *ondorengo* bokalek zenbait kontsonantetan izan dezaketen eraginaz hitzegiten du batipat (lk. adib. 50. or.). Gauza bera esan daiteke Dressler-ek (1985a passim) ere. Wang-ek (1969, 22, 22. oh.) garbiago esaten du gehienetan asimilazioak, maiz elkarrekin gertatzen diren palatalizazio edota txistukaritzea barne, aurrekariak direla. Straka-k (1965, 126-127) ez du asimilazio atzekariez besterik hitzegiten, eta hori erromantzeetako palatalizazioez ari dela; jakina da hizkuntza horien artean aurki daitezkeela asimilazio bustidura aurrekariak, nabarmenenetakoa Brasileko

⁸ *Aurrekari* esaten zaio bustigalaren aurreko elementuak eragiten duelako, beraz *perseveratory assimilation* (*iraunkorra*) ere deitzen dena eta ez honen osagarri den *anticipatory assimilation* (ondorengoaren ezaugarria hartzen duena, *atzekaria*, alegia).

portugesezkoa izanik (cf. *tenho*, adib.). Euskarazko bustiduraren norabideaz, Holmer/ Abrahamson-en 1968 lanean azpimarkatzen da euskarazkoa --hizkuntza zeltiko batzuetakoarekin batera-- hizkuntza europar gehienetakoa ez bezalakoa dela (AV 1968, 104).

Zuzenean lan honen alorrekoa ez bada ere, aipatzekoa da adituek ez diotela oraindik arrazoirik aurkitu koartikulazioaren simetria falta honi:

«As far as we know there is no explanation for this at present. It will have to be accepted as a given. We believe the ultimate explanation for it will be found in details of how speech is encoded neurologically».

Kawasaki/Ohala 1984, 117.

Euskarazko asimilazio bustidura ez da, haatik, aurrekaria den bakarra. Eslabieraz ere ba omen zegoen «a progressive palatalization of velars in the environment after a high front vowel and before a low vowel» Darden-en (1970, 460) arauera, hirugarren palatalizazioa deritzona hain zuzen (cf. III.7. euskarazkoaren esku-biko inguruneaz) ⁹. Malgatxez ere belareak eta /h/ i-ren ondoren palatalizatzen omen dira ¹⁰. Popolukazko palatalizazioa berdín izan daiteke aurrekaria edo atzekaria (Foster/ Foster 1948, 7). Bestalde atzekari bezala sailkatzen diren zenbait palatalizaziotan bustigaiaren ezkerreko bokala (ere) palatala izatea asimilazioaren baldintza izan daiteke; adib., hala da irlandesezko ezpainkari eta bizkarkarien kasuan, baina ez apikarienean (Martinet 1970, 205).

⁹ Gehienetan eslabierazko palatalizazioa atzekaria zen (Martinet 1970, 367).

¹⁰ Dahlo (1952)-gandik Hurch-ek (1985, 74) jasoa.

Aurrekaritzat har daitezkeen artean ezagunenetakoa dugu Alemanezko belareen palatalizazioa, baina Dressler-ek (1985a, 74) ez du palatalizazio bezala azaltzen, despalatalizazio bezala baizik:

$$\zeta \rightarrow x / [V_{\text{-front}}] \text{ —}$$

Eta haxe da, hain zuzen ere, fonologiaren bereizgarri nagusi-enetakoa, egia fonetikoaren interpretazioa dela eta fonologiaren bidez egin daitezkeen baieztapenak erabiltzen den teoriaren oinarrien arauera ulertu behar direla. Zehazki eskuartean daukagun erregela honen erlatibotasuna garbi ikusten da Iverson-en hitzetan:

«The standard German [ç]/[x] distribution (...) is a bit funny in several ways, but is also generally progressive. One wants to derive the *ich* allophone from an *ach*-type phoneme, i.e. $x \rightarrow \zeta$ / ... , but the facts are these:

[ç] after front vowel, and after l and r (e.g. *durch* 'through') and word-initially (e.g. *China*).

[x] after back vowel.

Obviously, the easier rule to write is:

$$\zeta \rightarrow x / [V_{\text{+back}}] \text{ —}$$

This is allophonic (but see W. Leopold's article in Joos' *Readings in Linguistics*), so one posits the phoneme /ç/ instead of /x/, which is uncomfortable because there are plenty of other velar phonemes (k, g, maybe ŋ) but not other real palatal ones in the true consonant system. So some people say /x/ is the phoneme instead with such a rule:

$$x \rightarrow \zeta / [\text{#}, [V_{\text{-back}}], [+cons, +son]] \text{ —}$$

While this is progressive, note that it also is allophonic (unlike Basque) and restricted to one sound (unlike Basque).

It also would earn a failing grade in Phonological Analysis [generatibisten ikuspuntutik, noski].

Anyway, Basque palatalization as morphophonemic, general progressive palatalization remains unusual, if not unique (...)»¹¹.

Aipua luzetxo joan bada ere, merezi du ongi ikusten bait da aztergai fonetiko beraz nola fonologia anitz egin daitekeen. Euskararekiko erkatzea ere jasotzea egokitzat jo da. Honek ez du esan nahi analisisa besterik gabe onartzen denik, badago zer eztabaidatu, baina horrelako ezbaiek hemen dagokigunetik gehiegitxo urrutiratuko gintuzke.

Ilido honi jarraiki, esan behar da askotan, palatalizazio aurrekarien bakantasunaz ari direnek sinkronia eta diakroniaren arteko erabateko etena egiten dutela (cf. gazt. zah. *fecho* < *feito*, esate baterako: ik. 1.2. erromantzeetako palatalizazio aurrekarietaz). Baina garbi dago gaur diakronian kokatzen dugun aldakuntza (gertatua) noizpait sinkronikoa izan dela, hau da, denboraren punturen batean bilakabide emankorra izan dela. Hau kortesiazko agurraz arazotik hanka egitea besterik ez da: barka bekizkit, bada, esaera eta beldurra.

Bestalde, euskarak ere ezagutu du bustidura asimilazio atzekaria. Bizkaiko leku izenetan badago honelako bilakabideen arrastorik, batzuetan benetazko palatalizaziorik gabe txistukaritzearen bidez gauzatzen delarik (cf. I. atala). Halaber, Err. *xek* (Zar. *ziék*, b.e. *zuek*), *xaurien* 'de vosotros mismos' (M 1954, 148). Tanpera honetako asimilazioak ematen dio aukera Schuchardt-i

¹¹ 1983.go azaroak 14an Gregory K. Iverson-k idatzitako eskutitzetik.

eusk. *zaldi* < iber. *thieldones* etimologia proposatzeko. Hemen axola duena ez da etimologiaren egiantza --ez handiegia, bestalde: cf. FHV 562, §18.11 horretaz--, fonologiaren aldetik ontzat jotzen duena baizik: «C'est une mouillure causée par [j] qu'il faut sans doute voir à l'origine du *z-* de *zaldi*(...)» (Martinet 1970, 382) ¹².

Ozenen artean ere badago bustidura atzekariaren ondoriorik euskalki ezberdinetan, hala nola Legazpiko gipuzkeran (*ñauk*, *ñabillek*, *ñoak*), erronkarieran (adib., Bidangozen *ñaur*, *ñore*), Oñatiko bizkaieran (*ballako*, *ñoiak*). Esate baterako, *iloba* hitzaren aldaera bustiduradunak (cf. VII.) *il-* edo *lj-* hots segidetatik uler daitezke (cf. FHV 196-197) ¹³.

III.5. Asimilazioaren eragilea

Bustidura asimilazioa bokalaren eraginaz gertatzen dela esatean, *bokal* hitza zentzu zabalean hartu behar da, euskaraz bustidura asimilazioa i bokalak edo j irristariak (h.d. diptongoaren bigarren zati den bokalerdiak) sor bait dezakete. Chomsky/Halle-ren (1968) tasun sisteman [-kontsonantari] diren hotsak, alegia.

¹² Ekialdeko euskalkietan aurki daitekeen *-antia* > Z, Err. *-antxa* bilakaera erromantzeztzat hartu behar da: cf. Err. *akabantxa*, *esperantxa*, Z *espa(r)antxa*, e.a. (FHV 287).

¹³ Izaguirre-k (1971, 70) Oñatiko Araoz auzoan jasotako **letañaak** ere gazt. *letania* kontuan hartuta esplikatzeko tentaldian eror badaiteke ere, kontuan hartu behar dira *-ina* segida duela ere agertzen dela hitz hau euskal literaturan (ik. VII.2.163.). Cf. **bañuan** (op. cit. 33), b.e. *banian* ere.

Martinet-en hitzetan (1951, 92), goiko bokal palatal silabagile eta ez-silabagileak ¹⁴.

Ez da, ordea berdina i eta j-ren indar eragilea. Hizkera batzuetan bokalerdiaren ondorioz bakarrik gerta daiteke asimilazioa (ik. VI.5. Baztango euskara, adib.). Oparoagoa da, nolabait esan, bokalerdiak eragindako bustidura.

Izan ere, irristariaren ondorengo asimilazioa bakarrik duten hizkerek maila batez areagotzen dute euskarak hizkuntza bezala palatalizazioari ezartzen dion muga. Tankera honetako palatalizazio bilakabidea duten zenbait hizkuntzetan aldakuntza edozein bokal palatalen eraginez sor daiteke, polskeraz, esate baterako ¹⁵. Euskarazko bokal palatalak i eta e direnez, bustidura asimilazioaren bertsio zabalenean e-ren eraginez ere palatalizatuko lirateke kontsonante bustigaiak, baina ez da hala gertatzen. Euskarazko sabaiko bokal fonema bietatik itxienak bakarrik busti dezake ondorengo kontsonantea.

Garbi dago palatalen artean i eta j itxiagoak direla eta honek baduela zerikusirik indar bustitzailearekin. Hontaz hitzegiten dutenek batera jartzen dituzte sarrien itxidura eta palataltasun maila. Dressler-ek itxidura maila artikulazio laguntzailearen baldintza bezala bakarrik aipatzen du (Dressler 1985a, 50), bestelako palatalizazioa eragilearen palataltasun mailak haundiagotzen duela esanez.

¹⁴ Hemen ez dugu erabiliko Palmer-en (1975, 85, 27. oh.) beretzuntza. Berak *yodización* esaten dio irristariaren eraginari (sortzen duen aldaketa fonetiko bera bada ere).

¹⁵ Polskeraz i eta j goikoek eragindako erregela eta e-k eragindakoaren arteko maila diferentziaz, ik. Dressler 1985, 213.

Hemen *j* bokalerdia *i* baino palatalagoa dela, edo *i* goikoa erdiko *e* baino palatalagoa dela esatean, beren indar eragilea haundiagoa dela esan nahi da. Bestela esan, *j*-ren ondoren *i*-ren ondoren baino maizago jazotzen dela asimilazioa eta *e*-ren ondoren, inoiz ez ¹⁶. Azterketa fonetiko zehatzik gabe, ezin bait da besterik ziurtatu. Badirudi, dena dela, bustiduraren abiapuntua hortz edo hobietakoa denean (eta ez belarea) hots eragilearen palataaltasuna itxidura edo goitasun mailarekin dagoela zuzenean lotua (eta ez ahoan aurrerago ahoskatzearekin, aldakuntzak atzeratzea dakarren aldetik) ¹⁷.

Bustidura gertaerazten duen *i* ez-kontsonantaria sekundarioa ere izan daiteke: cf. AV *oi¹ik* < *oetik*, adib. Edota eragilea eta bustigaiak osaturikako hurrenkera izan daiteke sekundarioa: cf. *be(i)tu* < *begiratu*. Elkar ikuitzea zaharragoa edo berriagoa izan daiteke (cf. bustiduraren aintzinatasunaz II.2.) eta morfema muga zehar gerta daiteke (cf. morfema mugaren garrantziaz beheago III.8). Aipatu adibideen eztabaida zehatzagoa lanaren VI. atalean aurki daiteke (1.2.1.1.4. eta bertako ∞. oharra).

Ikusitakoa bezala beste bokal baten aldaera direnez gain, bestela sortutako *i* sekundarioak ere badaude euskaraz. Esate baterako, maiz agertzen dira *i*-ren epentesiak dei genitzakeenak

¹⁶ Kurioso da honen ondoan gorago Allen-engandik jasotako (III.2) grekoaren kasua: hain zuzen ere, *i*-ren indar palatalizatzailea haundiagoa delako berez, ematen du aipatu esplikazioa. Armenioz ere *e*-ren aurreko palatalizazioa ez omen da *i*-ren aurrean jazotzen (Allen 1957, 122). Cf., bestalde, Drage 1967b, 121: batez ere, Bogóroditskiy-rengandik jaso —[*ɛ*]ren indar palatalizatzailea adinakoa behar du izan [i]renak, bere ustez—.

¹⁷ Esan bezala (I.1.), fonetikari dagokionean belareen palatalizazioa eta hortz edo hobietakoen palatalizazioa ez dira gauza bera. Fonologiaren aldetik ordea, sarri batzen dira biak zenbait ezaugarri funtsezko amankomunean dituztelako. Palmer (1975, 85-86) berak, aitzinatzearen definizioa emanda, adibideen artean hobietakoen atzeratzeak ematen ditu (ing. *idiot*, adib.).

txistukari gehi herskari multzoen aurrean: *aizken/azken; laister, laxter/laster* (FHV 159). Bestelako kontsonante multzoen aurrean: *ailperrik/alperrik* (FHV 159); *aingeru, aingira, maindire, maingu, saindu* (M 1974, 192), Axular *ailltchatu* ¹⁸. Honelako i-k sor dezake bustidura (*laxter*) eta bustidurak ere sor dezake honelako i bat ¹⁹. Honela azaltzen ditu Straka-k (1965, 141) fr. *poin(g), sein(g)*, hego ital. *puynu, liynu*, e.a.

«On sait qu'au passage d'une articulation à une autre, les organes de la parole, notamment la langue, traversent une série de positions intermédiaires. Entre une voyelle et une consonne palatale ou palatalisée, la langue passe nécessairement, entre autres positions, par celle de *y* (Rousselot, *Principes*, p. 616). Ces faits apparaissent clairement sur les tracés kymographiques et oscillographiques ainsi que sur les radiofilms».

(op. cit. 145).

Normalean oso azkar igarotzen da mihia egoera batetik bestera: «le passage tout entier entre deux articulations ne dure généralement pas plus de 3 centièmes de seconde». *Yod*-ari ehuneko bat dagokio. Zerbaitegatik motelago ahoskatzen bada, entzun egin daiteke eta belaunaldi berriek ikasi agian, Strakaren esplikazioaren arauera. Honelakoek zaildu egiten dute asimilazio bustiduraren azterketa, j+Cy hurrenkeren arrazoiak bi bidetakoak izan bait daitezke: edo kontsonantea i-ren eraginaren fruitu da edo palatalak sortu du ezkerretara dagerkion i-a.

¹⁸ Honen kontrakoa den kenketa bilakabideak kontsonante palataliza-ezinen aurrean gertatzeko joera dute (FHV 487). Salbuespen lirakeke, noski, bizkaierazko *-ain, -uin, -ail* segidetako diptongoen murrizteak: maiz honelako kenkek asimilazioari ingurunea hausten diote (*bleeding*).

¹⁹ Erregularitasun nahiak eraman bide du Gavel *aingeru*-ren kasuan ere kontsonantearen palataltasunaren eragina ikustera. Ik. nola azaltzen duen *aingeru < angelus* despalatalizazio moduko zerbaiten bidez (Gavel 1920, 508).

Begibistakoa da, bestalde, kontsonante palatal baten aurreko irristari palatala zaila dela entzuten, berdin da kontsonantearen bustidura irristariak sortua izana edo kontsonantearen bustidurak irristaria (edo ez bata eta ez bestea). Bestela esan eta dagokigunari atzekiaz, normala da palatalizazioarekin asimilazioaren iturburu den irristaria desagertzea. Holmer/Abrahamson-ek diotenez zaila da bizkaleraz bereiztea bokala eta kontsonante palatalaren artean irristaririk dagoen ala ez: cf. *o(i)ʔik* = *oetik*, *lo(i)ʔen* = *lo (eg)iten*, e.a. (AV 1968, § 6.12). Navarro Tomás-ek (1923, 51) Gernikako euskara aztertzean dioenez, palatalak ez du beti erabat irensten irristaria ²⁰. Alde honetatik interesgarria da *aita*, *maite* edo *aitzaki* hitzen historia euskaraz, izan ere erraz bait da diptongoaren bigarren elementu den *j* irristaria herskariaren bustidura adierazgarritik sortua izatea.

Irristariaren desagertzea diptongoek (eta bokal segidek, oro har) agertzen duten murrizteko joeraren barruan koka daiteke. Bizkaieraz kontsonante palatalak irristaria irenstean lortzen dena --*nax*, *ax*-- ekialdeko euskaretan bestela gauzatzen da --*niz*, Err. *naz*-- (M 1964, 35). Joera honen ondoan kontrakoa dirudiena ere aurkitzen da euskaraz, diptongoak sortzekoa, alegia, despalatalizazioaren bidez gertatzen dena esate baterako --*teila* < *tella*--. Ez dagokigu hemen honetan luzaroago aritzea, baina bego esana, hizkuntzaren joera eta bilakabide fonologikoak flinkatzea elkarren artean lotutako korapilozko sarea askatzea dela ikusteko. Elkarren kontrakoak diruditen joerak hizkuntza eta hizkera beraren baitan aurkitzea ere ez da harritzekoa, aintzakotzat hartzen badira

²⁰ Navarro Tomás-ek aipatzen dituen adibideen artean kontsonante palatala epentesiari zor diotenak ere badaude (*erroilʔe*, cf. V. atala hontaz).

fonologiak azpiegituragatik eta historiagatik gramatikaren eta hizkuntza osoaren gainerako mailekin dituen harremanak ²¹.

Metatesia ere izan daiteke hurrenkera sekundarioen iturburu eta metatesiaz aldatutako i-a asimilazioen eragile. Latinetikako maileguetan aurki daitezke metatesien ondorioak ²². Honela azal daitezke, beharbada: *e/e(i)xa* < lat. *ecclesia*, *kerexa* (cf. lat. vg. *ceresia*) Mitxelenaren arauera (FHV 178), j irristaria lekualdatzen denean, ohizkoena bokalerdi izaten jarraitzea da (cf. *baizen*, B *baxen/bezain*); ez omen da agertzen joera hau **-one* > *-oi* > *-io* bilakaeraren ondorio direnetan.

III.6. Aldatzen diren hotsak ("hots bustigaiak") ²³

Bustidurak aldatzen dituen hotsak, bestela esan bustidura erregelaren *input* izan daitezkeenak edo euskaraz busti daitezkeen hotsak, hortzetako eta hortz-hobietakoak dira ahoskuneari dagokionean. Oro har, ozen eta trabariak asimila daitezke: t eta d herskarien artean, s eta **ʃ** igurzkariak, ts eta **tʃ** afrikatuak, eta n, l ozenak. V. atalean emango da hots hauen eta dagozkien ondorioen fonetikaz zehaztasun gehiago.

²¹ Cf., esate baterako, Dressler 1985, 219: Trubetzkoy-ri jarraiki Jakobson-ek gramatikaren maila ezberdinen eta fonemaren arteko hartuemanak, e.a. esana.

²² Cf. M 1972, 19: *duo oppida* > **doppida* > **dopia* > *Doipa*.

²³ Oro har, SPE-ko sisteman koroari sailekoak dira euskaraz bustitzen direnak, baina izen horrek fonetikoki definitzen duena ez dago garbi eta, gainera, "bustigai" izenaz dardarkarien arazoa konpontzen da.

Alde honetatik ez dago diferentziarik asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarriaren artean. Bai, ordea, batak eta besteak hizkera bakoitzaren barruan aldaeraz ditzaketen hots multzoen partiketan. Nolabait esan, hizkera bakoitzean bustigai diren hotsak bien artean banatzen direla dirudi (cf. I.3).

Asimilaziorako duten erraztasunaren aldetik mailak daude hots bustigaien klasea osatzen dutenen artean ²⁴. Dirudienez, bilakabide fonologikoak klase bati ezartzen zaizkionean ez dira beti indar berdinez ezartzen klase horretako partaide guztientzat eta jerarkia moduko bat osatzen duten azpi-klaseak edo bereiz daitezke. Honelako ezberdintasunez aritzean, Dressler-ek (1985a, 65) *rich-get-richer* baldintza aipatzen du. Donegan-ek bataiatutako baldintza honen arauera, indartsuago diren hotsak izaten dira lehenengo gogortuko dituenak indartze bilakabide batek, adibidez²⁵. Beraz, hots "bustikorrenak" izango dira lehenengo bustiko dituenak asimilazio bustidurak. Euskarazko asimilazio bustidura dela eta, erraztasun haundiena duten hotsak ozenak dira. Alegia, ozenen asimilazio bustidura da maizen eta erregularitasun osoagoz jazotzen dena, baita ere euskalkiak zehar hedatuen dagoena (cf. honetaz II. atalean aintzinasunaz esana). Trabarien asimilazioa gutxiagotan gertatzen da eta salbuespen gehiago izaten ditu ²⁶.

²⁴ *Klase* zentzu fonologiko estuan erabiltzen da, h.d. tasun bereizgarrien bidez defini daitezkeelako eta danok elkarrekin bilakabide baten *input* behintzat izan daitezkeelako osatzen dute hortzetako eta hobietakoak *klase* bat euskal fonologiaren barruan.

²⁵ Patricia Donegan. *On the Natural Phonology of Vowels*. Diss. The Ohio State University 1978 (*Working Papers in Linguistics*, 23).

²⁶ Lehenengotasun hauetan euskara bat dator gainerako hizkuntzetako palatalizazio joerekin (cf. Straka 1965, 132 eta 131, txistukarien berezitasunez). Euskarazko hots bustigaien bildumak ahostun eta ahoskabeen oparotasun diferentziak neurtzeko aukera haundirik ematen ez badu ere, badirudi honetan euskara zenbait hizkuntzen kontra lihoakeela (cf. d/t).

Trabari txistukariak dira alde honetatik zailtasun gehien eskaintzen dutenak. Izan ere, zaila da txistukarien asimilazioarekin zer gertatzen den esatea Erreterian bezala *bakotxa* (cf. Donostia *bakoitza*) *aitzakia*-ren ondoan aurkitzen bada, esate baterako ²⁷. Aztertutako euskalkietan ere zaila da eredu garbi batez finkatzea txistukarien bustidura (ik. VI. eta VII. atalak).

Zenbaiten lanetan ez dira aipatu ere egiten txistukariak busti daitezkeen hotsen artean. Esate baterako, Gavel-en arauera (1920, 481), l, n eta d, t bakarrik dira hots bustigaiak (ik. beheago k).

Txistukarien artean badirudi bizkarkaria eta apikaria ez daudela beti maila berean. Badirudi asimilazioa oparoagoa dela txistukari apikarien kasuan bizkarkarienean baino. Ataun-en, adibidez, badago ahoskune bion artean diferentziazirik bustiduraren oparotasuna dela eta: cf. § 2.2.1.1.5. *abixau*, *bixigu*, *ixilik*, *ixuri*, *txixe*; § 2.2.1.1.6. *bizi*, *elizakôk*, *gizâjôa*, e.a. Ez da, ordea erraza gauzak zehazki esatea, datuak ez bait dira erabat garbiak. Jakina da gainera fonemaok maiz agertzen direla bata bestearen ordeztuak hizkuntzaren forma zaharretan ere (M 1972, 17). Bestalde, egungo egoerak ez du nahasketaren erreztasuna deuseztatzen, zalantzarik gabe esan daiteke ahoskune bien arteko neutralizazioa gero eta gehiago ari dela hedatzen euskalkiak zehar.

Euskarazko bustiduraz aritu diren autoreengan zeharka bakarrik atera daitezke honi buruzko iritziak. Navarro Tomás-ek (1923, 52) bizkarkaria *ere* bustitzen zutela esaten du bere

²⁷ Mixelena irakasleak, zuzenean. Kontuan izatekoa da, izan dezakeen garrantzia neurtzea oraingoz ezinezkoa bazait ere, *aitzakia* despalatalizazioaren ondorio dela eta *bakotxa*, berriz, asimilazio bustidurarena. Bustiduratik kanpora ere, txistukarien fonologia ez da gauza sinplea (cf. hitz hasierako distribuzioa, adib.).

Gernikako informatzaileez eta [s] apikaria [j]-tik gertuago jartzen du: «Ya queda dicho que en la s de O. y P. [informatzaileak] había siempre algo de palatalización» (loc. cit., cf. haatik 1925, 616). Euskaratik kanpo, Nadeau-k (1979, 406, 48. oh.), esate baterako, txistukari apikariaren palatalizazio aurrekaria ia ezinezkotzat jotzen du artikulazio arrazoiengatik, okzitanozko txistukarien errekonstrukzioaz ari denean: «(...) la palatalisation de la sifflante suivante, qui exige la langue tirée contre les gencives inférieures et le dos de de langue convexe».

Ahoscune biotako afrikatuei begiratuta, ordea, ikusten da asimilazio ez diren arrazoi garbirik gabeko afrikatu bustiak (ik. FHV 192) beti afrikatu apikariaren ordeztzen direla, inoiz ez afrikatu bizkarkariaren ordeztzen. Honen esanahia izan daiteke nola-baiteko lotura handiagoa dagoela apikari eta sabaiaurrekoaren artean (apikaria bustiduratik gertuago dagoela: errazago bustitzen dela, alegia) bizkarkari eta sabaiaurrekoaren artean baino. Ataungo asimilazioaren datuak ere honen alde leudeke, zerbaiten alde egotekotan (cf., adib., § 2.2.1.1.7. eta § 2.2.1.1.8).

Ataungo datuen arauera, esan daiteke txistukari apikariak busti direla, baina bizkarkariak ezetz. Nere gaurko Donostiako bustidurari buruzko inpresioa ere horixe da (*ixil*, *pixu* 'piso', baina *gizon*, *izu*, e.a.). Dena dela, ezin da esan txistukari apikariaren asimilazioa bilakabide oparo eta emankorra denik. Oso zaila da emankortasun hori frogatuko luketeen adibideak aurkitzea. Izan ere, oso hitz eta morfema elkarketa gutxitan dago *i(t)s* segida. Egoera modu egokiagoan adieraziko luke *i* ____ (V) ingurunean txistukari hobietako bizkarkariak eta sabaiaurrekoak bakarrik agertzen direla esateak. Esplikazio honek Altsasukoa ere jasoko luke (ik.

3.1.1.1.5/6) eta, dirudienez, Baztangoa ere bai (5.1.1.1.5/6, 5.1.2/3).

Afrikatuen asimilazioak muga gogorrak ditu. Bokalerdiak busti dezake, baina hitz azkenean. Ik. 4.1.2.1.7/8: **bacóchac**, **bacóchai**. Hitz honen aldaera batean (**bacóch**) afrikatua hitz azkenean dago eta hortik zabaldu bide da bustidura bokalaurreko formetara (FHV 192).

Ez dago garbi i silabagilearen asimilazioa, tʃ bustia ager daiteke hitz batzuetan eta bustidura sistema diferenteak dituzten hizkeretan (cf. *itxusi*, *itxasq* e.a. FHV 192). Adibide garbiak aurkitzea zaila da eta, azaltzen direnean, inoiz oparoago eta erregularragoa izandako bilakabidearen ondorio lexikalizatuak dirudite (cf. 1.1.1.1.7. **urtsua**, **berritxua** /**egarritsua**).

Hortzetako herskari ahoskabearen bustidura sistematikoagoa da. Asimilazio bustidura ozenei bakarrik gertatzen ez zaien hizkeretan gerta daiteke fonema honen asimilazioa. Asimilazioari zor ez zaionean, **ʃ** beti adierazgarri dela esan daiteke, ezin bait da inola ere hots mailegatua izan. Hau dela eta, badirudi hots honen balio semantikoa mailegatuak ere izan daitezkeenena baino garbiago dagoela euskaldunengan eta asimilazioak sorturikako **ʃ** bera ere erraz gerta daitekeela adierazgarri (konnotazio mailan bederen) ²⁸.

²⁸ Cf. hizkeren elkar-ikuitzean hontaz aurki daitekeenari buruz, Oñederra 1986.

/d/-ren asimilazioak besteek ez duten baldintza bete behar du ingurunearen aldetik: bizkaieraz bederen, **i** eta bustigaiaren artean **i** edo **n** kontsonateetako bat egon behar da. Badu honek zerikusirik, agian, palatalizazioa indartze bilakabidea izatearekin (cf. I.1). Izan ere, **i** edo **n**-ren ondorengo [d] hots indartsuagoa da bokalarteko [d̪] igurzkaria baino eta abiapuntu aproposagoa gerta daiteke bustikuntzarako. Perzepzioaren aldetik ere etekin handiagoa atera bide zaio herskariaren bustikuntzari karrankari ez den frikari batenari baino.

Ingurune honetan, **il** edo **in**-ren ondoren alegia, /t/-ren asimilazioa ere gerta daiteke, baita ere ziurrenik afrikatuen asimilazioa: cf. AV § 8.3. **éindde** (*eginda*), **iltteko**, **zintxa** (cf. gazt. *cinta*), AV § 8.4. **intxon** (*egin eutson*). Honelakoetan tarteko ozena ere palatala izaten da, noski.

Badira bereizkuntzak **in** eta **il** segiden ondorengo bilakabideen artean. Normalean, **d** bustitzen denean **il** segidaren ondoren, suntsitu egiten da (**billur** 2.2.1.1.3 eta 2.2.1.2/3.1). Baina ez, **in** segidaren ondoren (**indder**). Kontuan izatekoa da albokoa jarraikorra dela eta sudurkaria, berriz, ez. Izan lezake zerikusirik ahoskeraren fisiologiarekin, sudurkaria ebakitzeko erabilitako aide presioarekin, e.a., baina luzeegi litzateke bidea eta hemen dagokigunerako hipotesi hutsetan geratuko litzateke. Dena dela, badirudi talde murriztea inoiz zabalagoa izan dela eta sudurkariz osatutako kontsonante segidetan ere jazo dela (ik. VII.2.148. **iñurri**)²⁹.

²⁹ Cf. M 1959, 124 *il(h)un* < iber. *ildun* (?). Gavel-ek (1920, 411) *bilur* jasotzen du Uhlenbeck-engandik, bustidura falta arazo ortografikoa izan daiteke. Dagokigunerako, garrantzitsuago izan daiteke M 1974, 208: ozen + herskari --> ozen bihurtzeko joeraz (*balin/baldin, komeni/konbeni*). Murriztearen ondoan kontrako indartze (eransketa) bilakabideak ere badaudela izan behar da kontuan Alts. **giñanin** / **gindanién**, **baindo**, **zulraindo** eta Baz. *soindu* (VII.2.191.) bezalakoak aztertzean.

Batez ere goi-nafarreraz eta gipuzkeraz, gerta omen daiteke bustidura, d zuzenean l-ren ondoren dagoenean ere. Baina bokal arteko bustidura azaltzeko beti gelditzen da kenketa eta eransketaren bidez esplikatzeko aukera (*fidatu > fiatu > fiyatu*). Aieru honek zentzurik izango badu, luze eta sakonago aztertu beharko litzateke honelako ahoskerak hialoa hausten duen epentesia emankorra den lekuetan gertatzen den ³⁰.

Gavel-ek (1920, 481) ohar batean k bustia ere ager daitekeela esaten du. Jakina da, noski, belareak zertxobait aitzineratzen direla bokal palatal baten aurrean ahoskatzen direnean euskaraz ere. Baina, AV 1968 lanean esaten den lege (94. or.), ez du honek garrantzi fonematikorik. Izan ere, entzuleak bereizten ez duen aldaera alofoniko apala besterik ez bait da gertatzen. Ez du, bada, merezi Corum-ek (1972, 30) ematen dion garrantzia: ezin da inola ere hemen aztertzen ari garen bustidura asimilazioaren maila berean jarri (cf. II. atala bustidurak dakarren neutralizazioaz, e.a.).

Baina Gavel-ek aipatzen duen k-ren palatalizazioa beste bat da. Bestek ere aritu izan dira k-ren bustiduraz. Honelakoen oinarri ez da izaten asimilazio bustidura bustidura adierazgarriaren ondorio izan daitezkeen zenbait bikote baizik ³¹: *konkor/ttonttor*, e.a. Bikoteok bustidura adierazgarritzat hartuz gero, zabaldu egin behar da busti daitezkeen klasea eta tasunen bidez jasotzea behintzat zailagoa gertatuko litzateke. Hau ezin da, ordea, lanerako debeku izan, aukeratu dugun bidetik ez bait da teoria datuak

³⁰ Belare ahostunaren palatalizazioaz, ik. V.2.3. (g-ren ezaugarriak).

³¹ Ez dago garbi non kokatu beharko litzatekeen AV 1968, 94.ean jasotako [ik'en]/[iɣ'en] (*egiten*)/parea.

moldatzen dituen izan behar, azaltzen dituen baizik. Beraz, datuen aldetik *konkor/ttonttor* bustidura adierazgarritzat hartzeko nahikoa arrazoi izango bagenu, tasun sistemaren berregokitzea proposatu beharko litzateke euskarazko bustidura dela eta (cf., dena den, *tontor* ere) ³².

Bestalde, oraingo egoerari begiratuta asimilazio bustidura eta bustidura adierazgarria, oro har eta eragileak eragile, aldakuntza bera dela esan badaiteke ere (h.d. *input* eta *output* berdinak), ez da pentsatu behar derrigorrez beti hala izan denik. Beharbada, ez dira beti hots berauek izan palatalizatu direnak (cf. FHV 181) edo ez dute bustidura bilakabide biek ezarpen eremu bera izan. Agian bustidura adierazgarriak besteak harrapatu ez dituenak aldatu ditu inoiz (belareak, esate baterako?; ik. beheago dardarkariarena ere). Ez da, gainera egungo datuetatik atera behar ikusteko gauzak ez direla gertatu goraxeago marrazturiko eskeman bezain xuxen (ik. V. atala bustiduraren simetriarik ezaz: cf. *labur* > *t/labur*, adib.).

Bustidura adierazgarriaren eremu zabalagoarenarekin egon daiteke lotua dardarkariaren egoera ere. Asimilazio bustidura ez zaie ezartzen dardarkariei inon, erregela batek jaso lezakeen modu erregularrean behintzat. Ezin da esan dardakarien bustidura adierazgarria bilakabide emankorra denik ere. Haatik, badaude dardarkarien bustidura adierazgarriaren ondoriotzat har daitezkeen pareak euskaraz, hala nola: FHV 330 *béllō* < *bero*, *hólli* < *hori*, *hü'llan* < *hurran*; Baztan *Urbello* (top.), *belylo* < *bero*, *momollo* <

³² Fonologiazko unibertsalen atzetik dabiltzanek haxe eskatzen dute: proposaturikako tasun eta sistemak benetazko hizkuntzen azterketen arauera frogatzea eta aldatzea. *Koroari* tasuna hemen ez dagozkigun arrazoiengatik ere behin baino gehiagotan jarri izan da zalantzan.

mamurru ³³. Guztion ballo adierazgarria hizkera bakoitzaren barruan neurtu beharko da, noski (ik. IV. atala adierazgarritasunaren baldintzez).

Dardarkariak asimilazio bustiduratik kanporatu beharrak aipatu tasun bereizgarri sistemari zailtasun berri bat gehitzen dio. [+koroari] tasuna erabiliaz idatzi nahi bada bustidura bilakabidea adierazten duen erregela konplexuagotu egin behar da, nola edo hala dardarkariak erregelatik ate geratuko badira. Bestalde, hau ez da euskararen fonologiaren bitxikeria. Gainerako hizkuntzetan ere ikusten da dardarkariak ez direla erraz batzen palataltasunarekin (cf. FHV 487 *u* > *ü* bilakabideaz eta bertako I. oh. aditz anglosajoiaren *rj* hurrenkeraz). Dardarkaria busti badaiteke ere, ez da beste ozenak bezain erraz bustitzen eta I-aren bustidura askoz ere ohizkoagoa da urkarien artean (cf. Rousselot 1924-1925, 918). Euskaraz dardarkariaren bustiduraren ondorioa ez da dardarkari palatalizatua. Goragoko adibideetan ikusten da alboko palatala izaten dela gehienetan dardarkariaren kide palatala. Strakarengandik (1965, 131) hartu dira honetarako egon daitezkeen fonetikazko arrazoiak ³⁴:

«(...) une application plus intime de la langue contre la voûte empêche la production des battements, et d'autre part, le maintien de l'état de contraction du lingual supérieur, nécessaire pour conserver à la pointe, durant l'articulation, sa forme caractéristique de ressort produisant des battements, s'oppose semble-t-il, à une plus grande élévation de la langue. Toutefois, l'*r* peut subir la palatalisation (par exemple en russe), mais elle ne dépasse pas le degré d'une palatalisée; si

³³ Pello Salaburu, "Baztango Euskalkiaz", E.H.U. ean aurkezturikako tesia 1983, 506. or. E.H.U.-k lau urtetara egindako edizioa (cf. Salaburu 1984) baino lehenagoko aipuak direlako ematen hemen erreferentzia. Ziurrenik, *be/y/o* belaunaldi berrien *ç* --> *y* aldaketaren ondorioa da.

³⁴ Parisko frantsesean eta *patois* delakoan ere soinu bustigaien jerarkian dardarkaria da azken dagoena: Straka 1965, 130.

la pointe s'infléchissait, le caractère de vibrante de l'r disparaîtrait automatiquement».

Garbi dago, bada, euskarazko hots bustigaien multzoan bereizkuntzak egin behar direla bustiduraren emankortasunari dagokionean. Laburbilduz, esan daiteke ozenen bustidura dela emankorrena eta trabariena, eskasena. Trabarien artean, txistukariak dira egoera nahasiena agertzen dutenak. Badirudi, gainera, bustidura adierazgarrian hots bustigaien eremua zabalagoa dela asimilazio bustiduran baino. Oro har, ez dago ezer gainerako hizkuntzetan somatzen diren joera funtsezkoenen kontrakoa.

III.7. Asimilazioaren ingurunea

Asimilazioaren eragileaz esanak esanda, eskubiko ingurune edo testuingurua aztertzea gelditzen da, kate fonikoan aldatzen den hotsaren eskubitara edo ondoren dagoena, alegia. Oro har, asimilazio bustidura ingurune guztietan jazo daiteke: bokal aurrean, kontsonante aurrean eta hitz azkenean. Dena dela, ingurune guztien emankortasuna ez da inola ere berdina eta bokal aurrekoa gainerakoak baino askoz ingurune oparoagoa da asimilaziorako. Asimilazioa ingurune bakar batean gertatzekotan, bokalaurrean gertatuko da zalantzarik gabe. Honekiko salbuespena txistukarien asimilazioan aurkitzen da. Bizkaieraz ezik, txistukarien bustidura maizago gertatzen da kontsonante aurrean bokal aurrean baino ³⁵. Gavel-ek

³⁵ Honen ondoan, nomalagoa da i txistukaria kontsonante aurrean daukaten aldaerak dituzten hitzetan agertzea (Ø --> i / ____ sC). Ez du hau kontraesaten *berez-* adjetiboan eta *bereiz-*, *berex-* aditzean erabiltzeko joerak (ik. Sarasola 1985, batipat, 939).

(1920, 164) dionez, honek izan lezake zerikusirik Miarritzeko gaskoierarekin, hizkera honetan kontsonante aurreko txistukariak txitxikari bihurtu bait dira. Antzekoa da portugesezko (Brasil) kontsonante aurreko txistukariena ere.

Txistukarien bereizitasunak alde batera utzita, badirudi nolabait, hitz azkeneko eta kontsonante aurreko bustidura asimilazioa beti dela bokalaurrekoaren hedatzea edo. Esate baterako, Agirre Asteasukoaren euskaran hitz azkenean edo kontsonante aurrean albokoen asimilazioa posible bada ere, oso zaila da amilduaz (2.1.1.2/3.1) bezalako hitz batean gertatzea: izan ere amil erroa oso gutxitan gertatuko bait da bokalaurrean euskaraz (amil-eraz teco hitz elkartua da testuan agertzen dena, 2.1.1.1.1). Zailtasuna areagotu egiten da erro barreneko iIC hurrenkeratan (adib., **bildots**).

Proposa daitekeena da asimilazio erregela bokalaurretik gainerako ingurunetara hedatzen dela, baina lexikoki hedatzen dela³⁶. Bestela esan, hitzaren oinarritzko aldaera lexikoren batean bokal aurrean agertzen diren fonema bustigaiak dira (batipat?, lehendabizi?) gainerako inguruneetan ere busti daitezkeenak: cf. 2.1.1.2/3.1. **badabill** , **eztabill** (*dabillen*, *ibilli*); **ill**, **illico** (*illa*); **isill**, **isillmandatu** (*isilla*); **mutill** (*mutilla*); **perill** (*perilla*); **umill** (*umilla*) Honek ez du esan nahi hitz hauetan bakarrik azalduko denik asimilazioa bokal aurretik ate. Besterik gabe, testu azterketan aurkitutako alternantzia batean oinarriturikako susmoa azaldu nahi izan da.

³⁶ Afrikatuetan honelako hedatze lexikoa hitz azkenetik bokalaurrera zabaltzen da (cf. FHV 192: *bakotx*, *bakotxa*).

Dena dela, gauza hauetaz taxuz hitzegiteko testuen hustuketa erabatekoa egin beharko litzateke. Adibidez, esandakoez gain (baina oinarri eskasagoz), Agirre-ren testuan badirudi zailagoa dela bustidura kontsonante aurrean gertatzea hitz azkenean baino. Izan ere, hitz azkenean bustiduraz agertzen diren zenbait hitz (*deseguiñ*), gabe agertzen dira kontsonante asurrean (*deseguiñ-go*). Baina ez da den-dena jaso eta egon daitezke **deseguiñgo* bezalakoak, adib. Horregatik hemen, geroagoko lan monografikoei bideak edo galderak behintzat ireikitzeko asmo apalean, susmo eta joerez bakarrik hitz egiten da.

Ozenen asimilazioa dela eta, badago aipatu beharreko euskal fonologiaren ezaugarri bat (eta ez euskal fonologiarena bakarrik). Badu fonologia honek bilakabide bat honela adieraz daitekeena: trabari aurreko ozenak trabariaren artikulazio puntu edo ahoskunea hartzen du (cf. II.4.2). Honelako edo tankera honetako asimilazio erregelak beste zenbait hizkuntzetan ere gertatu ohi dira eta gehienetan erregela aski korapilotsuak izaten dira (oro har, euskarazkoa gaztelerazkoa bera da, cf. FHV 299).

Esan daiteke asimilazio honek batzuetan asimilazio bustidura eragotzi egiten duela (cf. *mingaiñ*, *txingarrak*, *zintzilika* § 2.2.1.2/3.2), besteetan, berriz, ez (cf. *eiñda*, baina *jn[x]* / *jn[k]* / *jn[b]* § 2.2.2.2/3.2).

Perzepzioaren aldetik ere arrazoizkoa dirudi silaba hasiera (h.d. bokal aurrean) bustidura bestela baino emankorragoa izatea. Egin diren azterketen arauera (cf. Kawasaki/Ohala 1984, 118) -- eta intuizio hutsez ere erraz sinesten da --, badirudi kontsonanteen ahoskuneen bereizkuntza asko iluntzen dela egoera inplosiboetan. Zalantzarik gabe, arlo honetan oraindik azterketa gutxiegi egin

bada ere, entzun ahal diren diferentziak eta ebaki ahal direnak oso estu lotuta daude hizkuntzen fonologietan (cf. II.4.2).

III.8. Morfema mugaren garrantzia

Asimilaziorik ez duten euskalkiak (oro har, L eta BN, cf. VI.3. eta VI.6.1. ere) alde batera utzita, esan daiteke hizkera batzuetan bestetan baino mugatuagoa dela bustidura. Ingurune fonetikoaren bidez muga daiteke bilakabidea (cf. III.7). Baina ez da beti nahikoa ingurune fonetiko aproposa asimilazioa gertatzeko: zenbaitetan, asimilazioa egongo bada, delako hots segidak egitura morfologiko jakin bat beharko du izan. Horregatik, asimilazio bustiduraren azterketa morfologiaren alorrean (morfofonologiarenean) ere egitea nahitaezko kontua da.

Luzaro ari gintezke baldintza morfologikoek fonologian duten eraginaz, edo morfologia eta fonologiaren arteko hartuemanaz, baina ez dago hemen horretarako lekurik ³⁷. Euskarazko bustidura dela eta, ikusten da asimilazioa ez dela gertatzen morfema muga batzuetan ³⁸. Morfologiaren aldetik muga zorrotzenak dituzten euskalkietan (h.d. bustidura bilakabidea morfologizatuen dutenetan), asimilazioa morfema barrenean bakarrik aurkituko da.

³⁷ Teori sortzaileetan erregelaren formulazioan sartzen diren muga ikurren bidez (#, +, =, \$, ##) jasotzen da bilakabide fonologikoaren eremua zein den, beste batzuek erregelaren maila (fonologikoa/morfofonologikoa) aldeztatik finkatzea aukeratu dute (cf. Dressler 1985, 37; 80, 73. oh. eta passim: morfonologia estrukturalistak erakutsiak eta gai hontaz bibliografia aberatsa).

³⁸ Dagokigunean hala bada ere, badaude morfema mugan bakarrik gertatu bide diren aldakuntza fonologikoak. Halakoxeak (edo mailleguz eratorriak) izan behar dute, Kiparsky-ren (1968) arabera, neutralizazio erregela deitzen dituenak. Ik. II.4.2.

Honelako zerbait esan daiteke i silabagilearen ondorengo busti-
duraz Baztango euskalkian (VI.5) ³⁹. 122

Inolako mugarik gabearen adibide izan daiteke, esate baterako, ingleseko sudurkari asimilazioa: morfema barrenean *timber* dugu (baina ' *tinber* inoiz ez) eta, hizketa azkarrean, *ten pounds* --> *te[mp]ounds* esaten da (Dressler 1985a, 77). Euskarazkoen busti-
duren artean, bizkaierazkoa legoke egoera honetatik gertuen.

Ez da, noski, euskarazkoa morfema egiturak baldintzatzen duen palatalizazio bilakabide bakarra. Esate baterako, eslabieraz kontsonante palatalek ondorengo bokalaren ahoskunean eragiten zuten aitzineratzea ez zen gertatzen kontsonatea eta bokalaren artean morfema muga bazegoen (Darden 1970, 460-461). Batzuetan ezin da morfema mugen artean erabateko zatiketa egin, errusierazko palatalizazio edo biguintzeak (*softening*) erakusten du nola mugaren barne-lokera morfologikoak aldakuntza fonologikoa baldintzatzen duen (ik. Drage 1967, 135-136: gainera, baldintzaren indarra ez da berdina hots segida guztientzat eta hitz osoko hots biguinen kopuruak ere badu garrantzia).

Alor honetan, morfema egitura oso lotuta dago analogiarekin. Eslabierazko kasuan, garbi dago morfema hasieran dagoen bokala berreskura egin daitekeela: palatalez amaitzen den morfema baten ondoren ez dagoenean, oinarritzko bokalaz ahoskatuko dela eta aldakuntzarik gabeko gertaeraok, nahikoak izanez gero, aldakuntzaren kontrako eredu analogikoa izan daitezkeela. Analogia, dena dela, alde bietara joka dezakeen indarra da. Aldakuntza duten

³⁹ Kontuan izan behar da beti orain morfema bakartzat hartzen dena ez dela beharbada beti hala izan (cf. Holmer 1950, 404 eta 406: *iñes* < * *i+nes*, e.a.; M 1964, 100: *e+zer*). 123

agerraldiek, nahikoa indar izanda, ebakera berria beste inguru-netara ere zabal dezakete.

Euskaraz ezin da egin bustidura eragozten duten morfema mugen zerrenda. Gehienera, joerez hitz egin daiteke, bustidura zailtzen duten elementuez, alegia. Morfema muga egotea berez da eragozle, baina ez dira berdinak morfema guztiak, ez eta hots bustigai guztietan mugak duen eragina. Mugaren aintzinasunak ere badu garrantzirik, gero eta berriagoa izan muga zehar osatzen den hots segida, ahulagoa bait da asimilazioaren indarra (ik. FHV 185-186: t-ren asimilazioan elementuon eraginaren adibideak eta AV 1968-tik bilakabidearen aintzinasunaz II. atalean jaso).

Are gehiago, ez da berdina morfema muga beraren garrantzia euskara guztietan. Erreterian, esate baterako, **tokitan** esaten da beti **lekutan** bezalaxe, nahiz eta morfema barrenean /t/-ren bustidura erregularra izan ⁴⁰. Ataun-en, berriz, morfema muga hau ez da eragozpen asimilazioa gertatzeko: 2.2.1.1.4.1. **illargittan**, **itturrittan**. Zalantzarik gabe, indartsuagoa da Ataun-en asimilazio bustidura Erreterian baino. Esan daiteke gainerako euskalki gehienetan gogorren suertatzen diren morfema mugak zehar ere Ataungo euskalkian asimilazioa gerta daitekeela: **abi+ttu**, **begi+ttati**, **eki+tten**, **gefi+tti**, e.a.; baita ere, lexema muga zehar, **puntati** ~~#~~**tta** (*puntati(k)-eta*), bigarren zatia enklitikoa delarik noski. Bi eratara idatzirik agertzen dira gehienak, bustidura hautazkotzat har daiteke alegia, baina ez morfema barrenean derrigorrezkoagoa delako: **itu** ~~f~~**i+tti** adibidearen arauera, badirudi

⁴⁰ K. Mitxelena-k zuzenean esan.

morfema muga zehar morfema barrenean baino indartsuagoa izan daitekeela bustidura (cf. 2.2.1.1.4.1) ⁴¹.

Beste hizkuntzetan ere ez omen da erraza morfema mugen artean erabateko kategoriak finkatzea. Ikusten da, hori bai, zenbait morfema muga besteak baino bortitzaagoak direla, nolabait esan. Baina ezin da goitik beherako zatiketarik egin. Denbora zehar, gainera, zabaldu edo murriztu egin daiteke bilakabidea eragozten duten morfema mugen kopurua. Esate baterako, Dressler-en (1985a, 76) ustez: «In the process of morphologization, Grassmann's law in Vedic was first given up across suffix boundaries (Schindler 1976), presumably before inflectional suffixes».

Esan daiteke euskara gertuago dagoela errusieraz jasotakotik eslabierazko adibidean azaltzen zaigun egoeratik baino. Badirudi lotura mailak bereizi behar direla morfemen artean eta, gainera, maila hauek ere aldakorrak direla hitzaren erroaren arauera, hizketa moduaren arauera, e.a. Ezaugarri prosodikoak ere garrantzitsu izan daitezke, azentua jaso dezaketen atzizkiak asimilazioa eragozteko joera dutenen artean bait daude ⁴². Baldintza guzti hauek euskalkitik euskalkira nola aldatzen diren lanaren VI. atalean ikusiko da azterturikako hizkeretako erregelaren mugak bilatzean.

⁴¹ J.M. Barandiaran-ek Ataun-en jasoa gertuago dago orain bizkaieraz aurkitzen denetik (Oñati **mendittik**, Gernika **baserritarra**, **jarritta**, e.a.) ataundarrek esaten dutenetik baino (**jarrita**, **baserritarra**; baina **itturritik**, morfema barrenekaren eraginagatik agian). Cf. aztertu testuetan ere bizkaierazkoak (1.1.1.1.4.ko morf. mugako adibideak)

⁴² Azentua hitz zatien arteko loturaren ikerketarako baliabide baliotsua da (Cf. FHV 403: Z eta Err.ko erro eta atzizkiak). Cf., bustiduraz, Holmer/Abrahamson 1968,118: *-dun*, *-garren*, *-laratzizkiek* bere azentua izan dezakete. Halaz ere **biskeilt** **larra** bustiduraz ahoskatuak jasotzen du, baina beste euskalki batzuetan muga honek asimilazioa eragozten du. Cf. *-garren* atzizkiaren muga zehar nola ez dagoen **a** --> **e** egiten duen bokal harmoniarik (FHV 64, 8. oh.). Eta *-laratzizkiaren* azentuaz, cf. FHV 420 ere: Aquitaniako inskripzioetan ez da inoiz *-ll-* azaltzen, baina bai *-lh-*; bokal harmoniarik ere ez dago.

Baldintza morfologiko eta analogikoez gain, badira fonologiazkoak (h.d. kate fonikoaren ezaugarri fonetiko prosodiko edo segmentalak) ez diren beste batzu ere (ik. VI. ataleko sarrera). Garbi dago, gero eta baldintza gehiago, mugatuagoa dela asimilazioaren emankortasuna eta gertuago dagoela bilakabide fonologiko bezala agortzetik. Morfema muga zehar osatzen den ingurunea berriagoa izateak asimilazioa ahultzen badu, bilakabidearen "zahartzaroaren" seinaleztat jo daiteke. Berez, bilakabide batek edozein baldintza morfologiko duenetik, ireikirik dauka morfologizazioaren bidea. Berriz ere arituko gara hontaz, lan osoari dagozkion ondorioak ateratzear.

IV. BUSTIDURA ADIERAZGARRIA

«Onelacoac dira zacur andiac, *zaunc zaunc* lodi eguiten due: berriz chiquiac, *chaunc, chaunc*. Ala bada, chacur andiac gatic esaten da zacurra, chiquiac gatic, chacurra».

Moguel, *Peru Abarca*.

IV.1. Hizkuntzaren adierazgarritasuna

Adierazle eta edukiaren arteko hartuemana bi mailatan banatua dagoela esan daiteke Sapir-i (1929, 61) jarraiki. Bata hizkuntzaren oinarri den forma eta esanahiaren arteko lokera arbitrarioan gauzatzen da (*referential symbolism*) Hauxe da hizkuntza giza-komunikaziorako tresna izateko gai egiten duena, hain zuzen ere, forma jakin batek esanahi jakin bat izatea hizkuntza ezagutzen dutenentzat.

Bestalde, hizkuntzaren bidez oinarritzko erreferentziak gain beste zenbait eduki ere adierazten da. Esan daiteke, Martin-ek (1962) koreanozko zenbait hots aldaketa adierazgarri aztertzean esaten duen bezala, esanahi kontrastea batzuetan konnotazio mailan ezartzen dela. Horrelakoak *expressive symbolism* izenpean sartzen ditu Sapir-ek (loc. cit.). Hemen hizkuntzaren adierazgarritasuna esango zaio komunikazioaren atal honetatik hizkuntzalari-tzak aztertzen duenari. Hizkuntzaren barruan eta hizkuntzak zehar erreferentzi mailakoa baino askoz bakanagoa eta mugatuagoa den adierazpen mota hau E. Stankiewicz-ek "Problems of emotive language" lanean finkatzen du.

«Currents of emotion surround verbal discourse and penetrate all kinds of human and animal activity. (...) the linguist cannot but restrict his inquiry to those forms of

emotive expression which are both of symbolic and verbal nature».

Stankiewicz 1972, 239.

Adieraztea (eduki erreferentzial soilak edo adierazgarriak, berdin) ez da hizketaren bidez bakarrik egin daitekeen gauza: nolabait esan, mintzaera adierazteko moduetako bat besterik ez da, gizakion artean nagusiena bada ere. Baina orain dagokigun azterketa fonologikoa da eta fonologia, hizkuntzalaritzaren atal bat izanik, hizkuntzaren adierazgarritasunaz edo adierazgarritasun linguistikoaz arduratzen da. Stankiewicz-ek (1972, 240) esaten du adierazgarritasunaren alderdi linguistikoa (*emotive plane*) ez-linguistikotik (*emotional plane*) bereizten duena ikur edo sinbolo arbitrarioen erabilkera dela; ikurrok aldeztu aurretik hizkuntzaren arautegian finkatuak daude. Adierazgarritasun ez-linguistikoan, berriz, sortzen dituen testuinguruarekin erabat lotuak dauden adierazbideak erabiltzen dira (ahoskatu edo ahoskagabeak: keinuak, karraisiak, isiltasuna, imintzioa, e.a.); honakook ez dira hizkuntzaren gramatikaren elementuak, mezuarenak baizik ¹.

Adierazgarritasun deitu dugun hau ez da berdin agertzen hizkuntzaren alor guztietan. Hiztegiari dagokionean, hitz batzuk besteak baino adierazgarriagoak dira, aproposagoak erreferentzi esanahi soilak baino gehiago adierazteko alegia. Honelako hitzen multzoak ez dira berdinak izaten hizkuntza guztietan. Mespretxua adierazteko zenbait hizkuntzetan animalien izenak (cf. eusk. *asto*,

¹ Honekin, adierazgarritasunaren alderdi biak *parole* bezala sailkatzen dituzten estrukturalistei aurre egiten die: «(...) the expressive resources of the message must be distinguished from the expressive devices of the code, even if these do interact both synchronically and diachronically» (Stankiewicz 1972, 242).

zerri, e.a.), landareenak (cf. eusk. *aza-lora*) edo gorputz atalenak erabiltzen dira zentzu metaforikoan; errusieraz eta polskeraz, berriz, jantzi edo musika tresnen izenak ere erabil daitezke horretarako (Stankiewicz 1972, 243) ².

Bestalde, normalena da funtzio gramatikal batzuetan besteetan baino sarriago gertatzea adierazgarritasun mota hau. Adibidez, euskarazko bustidura izen eta adjetiboetan aditzean baino askoz oparoagoa da. Sapir-ek (1915) azaltzen dituen nootkazko bilakabide adierazgarriak, berriz, aditzaren eratorpen morfologiko eta fonetikoan azaltzen dira. Morfologiaren aldetik ere, badirudi bereizkuntzak daudela eta Ultan-ek (1978) aztertzen dituen neurri-adierazgarritasun fonetikoak gehiagotan azaltzen direla hitzaren erroan atzizkietan baino (izenean izanik oparoen: op. cit. 529).

Jakina da hizkuntza osatzen duten alderdi ugariak askotan elkarrekin nahastuta dihardutela. Horregatik, ez da harritzekoa adierazgarritasun fonetikoak duten hizkuntzetan erabilkera metaforikoa izan ohi duten hitzek fonologi mailan ere aldaketa adierazgarrietarako joera agertzea (cf. VII. ataleko sailkapena euskarazko bustidura adierazgarriari dagokionean): cf. grekozko **πτέρνυμαι** 'estornudar' eta **πτύω** 'escupir' hitzetako **πτ-** taldeaz, M [1972a] 1985, 250 eta 252.

Interesgarria litzateke oso euskaraz ere honelako azterketak burutzea, bai hiztegiaren mailan eta bai hizkuntzak hemen dagokigun adierazgarritasuna dela eta izan ditzakeen gainerako

² Cf. halaber sukaldeko ontzien izenak, e.a.: (*lonta*) *lapiko*, *kirten* (hau landareena izan daiteke).

baliabideez. Stankiewicz-ek (1972, 255-256) zenbait hizkuntzatarako baliabideak aurkezten ditu. Morfologian, esate baterako, eratorpen adierazgarria deritzona dago hizkuntza batzuetan: hizkuntza eslaboetako haurrekiko hizkuntzan eta infinitiboetan, Nootkazko haurrekiko hizkuntzan, e.a. Hizkuntza hauetan atzizki edo erdizki baten bidez adierazten da hiztuna haur batekin ari dela edo, Nootkaz behintzat, entzulea edo mintzoaren gai dena ohi baino txikiagoa dela (Sapir 1915, 181) ³. Nootkazko erabilkera hau ongi dator hizkera adierazgarrian oso gertu azaltzen diren balio biren adibide bezala; hain zuzen ere, haurrekiko hizkuntzan maitasunekoia izan daitekeen adierazpena, mespretxuzko bihurtzen da helduekin erabiltzen bada (cf. maila fonologikoan, eusk. G *gixon*, *bixi*, e.a.).

Stankiewicz-en arauera (1972, 256) eratorpen sistema pobrea duten hizkuntzetako baliabidea dena, izen propioak laburtzea alegia, euskaraz ere aurkitzen da. Izan ere, adierazgarri gerta daiteke *Maria*-ren ordez *Mari* esatea (M 1978, 392), esate baterako ⁴.

Euskarak erabiltzen duen beste baliabide adierazgarria hitz erroaren errepikapena da, batzuetan aldaketaren batez (*ikusimakusi*, *antzar-mantzar*) edo gabe (*haundi-haundiak*, *zikin-zikinak*). Egitura berau *yiddish* hizkuntzan ere ba omen dago, hizkuntza

³ Eusk. hitanozko aditz jokoa bera ere hemen koka genezake. Ik. A. Ros (1986, 26 eta passim): berak bilakabide fonologikoaren morfologizaziozat hartzen du.

⁴ Hitz elkartuetan *Mari* da aldaera ohizkoena eta, beraz, adierazgarritasun berezirik gabea. Hizkuntza indoeuropear ugaritan egiten dira hipokoristikoak izen propioa laburtu eta kontsonantea geminatuz (Grammont [1933?] 1971, 382).

eslaboetatik (errusieratik batipat) hartua --hauek turkieratik jaso zutelarik ⁵--.

Orain artekoen gainera, hizkuntza adierazgarri(ago) bihurtzen dute forma eta ahoskera arrotzen erabiltzeak (*sound foreignism*)⁶, metaforek (askotan hots sinbolismoa ere agertzen duten hitzetan), erregistro aldaketek (haurrekiko hizkuntza erabiltzeak bihozkortasunez jutzen du mezua, adib.), azentuaren leku aldatzeak, eta abarrek. Badago adierazgarritasunaren gauzatze guztion artean bat, euskarazko bustidura adierazgarria dela eta, polikiago aztertzea merezi duena: fonema adierazgarriarena (Stankiewicz 1972, 250). Badirudi tasun edo ezaugarri adierazgarrien erabilkera baino hedatuago dagoela hizkuntzak zehar (ezagunago dela, behinik behin). Aintzakotzat hartu beharko litzateke hau euskarazko bustiduraren azterketan, batez ere zenbait /tʃ/-ren esplikazioa bilatzerakoan: cf. *Cherran*, *Chordoño*, edo *Chomin*, oraindik ere izen propioak hipokoristiko bihurtzeko bizirik dirauen bilakabidearen adibide bezala (M/Irigaray 1955, 423) ⁷. Honela uler daiteke garai bateko m- hitz hasierakoaren adierazgarritasuna ere (FHV 275-276 eta 538-539) eta, beharbada, f hotsarena ere bai (FHV 166).

⁵ Mitxelena irakaslearen arabera, turkierarekin batera jarri behar dira georgiera eta armenioa ere (zuzenean esana).

⁶ Honelakoak hots sinbolismoaren jatorri izan daitezke (cf. Sapir 1915, 188) nootkazko **g** edo paiutezko **č**. Barneratu gabeko mailebuak hitz adierazgarriekin batera ibiltzen dira batzuetan fonologiaren gorabeheretan (FHV 538-539): cf. *alua!* esaerako albokoaren ezaugarri fonetiko arrotzez, FHV 550.

⁷ Hots honen bidez gauzatzen den adierazgarritasunaz jabetzeko interesgarria da Valle Lersundik (1933, 179) diona: «En la citada lista de los parroquianos de la iglesia de S. Pedro, encontramos varios cientos de nombres en que figura la letra Ch, y todos ellos son de criados o de hijos de vecinos. En los hijos algunas veces los primeros de la lista aparecen sin la letra Ch y sin diminutivo alguno, debido, sin duda, a que eran mayores. En los criados la mayoría de las veces la tienen, y esto no ha de extrañarnos si recordamos la costumbre, que aún subsiste en casi todos los pueblos de esta provincia, de tener para el servicio muchachos muy jóvenes, a menudo, casi niños». Cf. FHV 189: *Chariaco* (María), *Charin(go)* (Marina), *Chartin*, *Machin* (Martín).

Baliabide adierazgarriok, morfologikoak, fonologikoak edo bestelakoak, batzen dituen ezaugarri bat dute: forma adierazgarriak dagokion oinarrizkoak baino gertakortasun txikiagoa izaten du. Maiztasunak, Nadeau-k (1979, 402) erakusleez esaten duen bezala, aberastasun semantikoaren kontra jokutzen du: gero eta sarriago erabili adierazlea apalagoa izango da esanahiaren aldetik (cf. Hockett 1956, 204 ere).

IV.2. Hots sinbolismoa edo adierazgarritasun fonetikoa

Hizkuntzaren adierazgarritasuna deitu duguna hotsen eremuan ere aurkitzen da zenbait hizkuntzatan. Bestela esan, berez hizkuntzaren elementu bereizgarriak (*distintivos*) direnen bidez gauza daiteke sinbolismo adierazgarria. Esan daiteke hizkuntzaren artikulazio bikoitza hautsi egiten dela bilakabide fonologiko adierazgarrien bidez. Maila honetan adierazgarritasuna hotsen trukatzea dela medio lortzen da --ez hitz edo morfemez baliatuz-- eta delako aldaketa fonetiko batek halako zentzua ematen dio mezuari. Adierazten den esanahia ez da lexema eta morfemen --edota tasun bereizgarrien aurkakotasunaren-- bidez adierazten denaren sailekoa, IV.1.lean "adierazgarri" bezala definitu dena baizik (Sapir-ek fonemen *feeling-tone* zeritzon): eusk *zoro/(t)xoro* esanahi diferentzia adierazgarritasunari dagokio, *erro/ero* parekoa, berriz, erreferentzi esanahi objetiboari. Ezaugarri fonetikoek sinbolo edo ikur balioa dutenean hots sinbolismo edo adierazgarritasun fonetikoa dagoela esaten da (adib., palataeltasuna txikitasunarekin identifikatzen bada, edo errepikapena enfasiarekin, bokal berdintasuna bihozkortasunarekin, e.a.).

Fonetikaren aldetik gertatzen dena, noski, hizkuntza bakoitzak duen fonema sistemak baldintzatzen du hein batean behintzat. Beraz, oinarri diferenteak eragindako zehaztasun fonetikoak alde batera utzita, ikusten da hizkuntza batzuek eta besteek hots sinbolismorako erabilitako hots trukatzeko eta aldakuntzak uste baino berdina goak direla askotan. Honela, Haas-ek (1970, 87) erakusten du nola yurok eta wiyot hizkuntzetako $l > r$ aldakuntza karok hizkuntzan $r > n$ aldakuntzaren bidez gauzatzen den. Izan ere, karokez ez dago /l/-rik, ezin da, beraz, albokoa oinarri duen bilakabiderik gertatu.

Gehienetan honela erabilirik agertzen diren hots aldakuntzak ahoskuneari dagozkion palatalizazio, aspirazio edo glotatzeko izaten dira «(...) invested not with distinctive, but with emotive functions» (Stankiewicz 1972, 249). Ultan-en (1978, 525) arabera, diminuziozko hots sinbolismoa tasun fonologiko markatuen bidez gauzatzen da. Nichols-ek ondo erakusten du honen arrazoa zein izan daitekeen eta, gainera, markatua ez dela beti adierazgarria zehazten du (cf. Nichols 1971, 833 edo beheago IV.3.ean hontaz jasoa). Dena dela, ez da beti ahoskunea aldatzen dena. Boas-ek (1911) aztertuturikako Chinook eta Kathlamet indioen zenbait hizkuntzatan badirudi igurzkaritze eta afrikatzearen bidez gauzatzen dela hots sinbolismoa. Sapir-ek (1911, 638) aztertuturikako wishram dialektuan (chinook familiakoa) ere ahoskuneaz gainera, artikulazio modua alda daiteke aumentatiboak eta diminutiboak hots sinbolismoz sortzeko. Georgieraz afrikatzea dakarren artikulazio moduaren aldaketa jazotzen da diminutiboetan (Nichols 1971, 831, 6. oh.)⁸.

⁸ Afrikatzea ez da, ordea, maiz gertatzen den gauza (Mitxelena irakasleak zuzenean esana).

Errusieraz izen propioetan palatalizazio adierazgarria gerta daiteke. Hizkuntza honetan, euskaraz bezala, bustidura bilakabide sintagmatikoa ere bada (cf. III. atala). Errusierazko izen propioekin gertatzen dena Chileko espainierazko izen propio adierazgarri edo hipokoristikoetan azaltzen denarekin erkatzen du Stankiewicz-ek (1972, 256). Zenbait izen propioen lehenengo kontsonantearen ordez [tʃ] agertzeak (*Sofia* > *Chofa*, *Julia* > *Chula*) bihozkortasunez jazten omen du mezua. Haatik, hau gertuago legoke gorago aipatutako fonema adierazgarriaren erabilkeratik, hots sinbolismo-tik baino (cf. IV.1). Aipatu bezala, euskaraz ere (G, B euskalkietan) honelako zerbait gertatzen da; Ameriketako hizkuntzekiko antza ez da ordea inolako ondorio sendorik ateratzeko adinakoa, Mitxelenak Leo Spitzer-i erantzunez dioenaren arauera (FHV 189, 23. oh.).

Pekinen hitz egiten zen mantxuz jazotzen zen bokal aldaketa ahoskune aldaketatzat har daiteke, goiko aldaketa bietako batean sartzekotan: badirudi bokalen palataeltasunak femeninoa adierazten zuela eta belaretasunak, berriz, maskulinoa (Sinor 1952, 394). Hizkuntza honetan ez zegoen, bestela, jenero bereizkuntzarik. Autoreak berak hipotesi modura ematen duen interpretazio hau egia bada, hots aldaketa honek funtzio erabat gramatikala betetzen badu (cf. *ama*'père' / *eme*'mère', *haha*'homme' / *hehe*'femme'), bilakabide morfonologikoa dela esan beharko da eta, berez, adierazgarritasun fonetikotik ate gelditzen dela ⁹. Euskarazko hitanoan sudurkari-fem. / belare-mask. kontrastea ikuspuntu honetatik azter daiteke.

Koreanoz, besteak beste, kontsonante hasperendun eta hasperenik gabeen arteko kontrastearen bidez gertatzen da zenbait aditz lagunetako adierazgarritasun fonetikoa (Martin 1962). Hemen ez

⁹ Hizkuntza honetan /p, b, t, d, k, g, q, g'/ kontsonanteek aldaera palatalizatu bana dute.

dugu, bada, ahoskune edo artikulazio moduaren aldaketa, kontsonanteari dagokion ahoskabetasunaren luzatze erlatiboa baizik ¹⁰.

Crawford-ek (1970) aztertzen duen cocopazko haur hizkuntzan --haurrek eta beren amek erabiltzen dutenean-- gertatzen dena da kontsonante zerrenda sistematikoki murriztu egiten dela. Aldaketa hau ere hots sinbolismotzat har daiteke esanahiaren aldetik dituen ondorioengatik. Fonetikoki jazotzen dena ez da ahoskune baten eransketa edo ordezkatzeko soilak, baina ikusten da aldaketaren ardatza ahoskunea dela, aldatzen diren kontsonanteek gehienetan artikulazio modua gordetzen bait dute eta ahoskunea ahalik eta gehien aurreratzen.

Gorago aipatu karok, wiyot eta yurok hizkuntzetan ozen baten ordezkari beste bat gertatzeak dakar hots sinbolismoa. Euskaraz aldaketaren oinarria dardarkaria denean ere, albokoa da aldaera adierazgarrietan agertzen dena gehienetan (cf. III.6). Egia da, alboko bustia dela agertzen dena eta, horregatik, *bero/bello* bezalako pareak besterik gabe bustiduratzat hartzen dira adierazgarritasun fonetikoaren bilakabideen sailkapenean.

Hizkuntza bakoitzean honela elkartutako aldakuntzak, dena dela, esanahiaren aldetik duten berdintasunean oinarritzen dira aldakuntza fonetikoarenean baino areago. Esanahia da aldakuntza fonetikoa azaltzen duena sinkronikoki eta diakronikoki (ik., esate baterako, Straka 1965, 31: norbegiera zah. *skr*-> *sk*/- bilakaeraren esplikazioa). Era honetako komentarioak euskarazko bustidura adierazgarriaz ere egin dira. Mitxelena-k esaten du nola, ezaugarri fonetikoaren arauera, *ʃ* eta *tʃ* gertu dauden euskaraz oso palatal diren **ś** eta **tś**-tik. Bustiak batzen dituenak (eta gainerakoetatik bereiz-

¹⁰ Ladefoged-en (1975, 43) definizio azkar baten arauera.

ten) esanahia da, «un común valor expresivo» (M 1967, 167). Euskararen fonologian hots bustien klasea finkatzean badago, gainera, beste arrazoi bat ere: "bustiak" deitzen diren hotsak dira asimilazio bustiduraren ondorio izan daitezkeenak. Ondorio edo *output* delakoan bat datoz oro har bustidura biak. Estonieraz ere --bustidura adierazgarria eta asimilaziozkoa aurkitzen dira-- beste hainbeste gertatzen da ¹¹.

Adierazgarritasun fonetikoa onomatopeiarekin konparatu izan da sarritan. Ultan-entzat (1978, 529), onomatopeia litzateke noiz-behinka gerta daitezkeen hots sinbolismoa. Corominas-en bereizkuntzak, berriz, Stankiewicz-en *emotive plane* eta *emotional plane* dakarzkigu gogora (cf. IV.1). Onomatopeiak bigarrenari legozkioke lehenengo aroan (lexikalizatu aurretik):

«Las *palabras de creación expresiva* son parecidas a las *onomatopeyas*, pero hay cierta diferencia: la onomatopeya imita directamente un sonido real (como *cacarear* o *pito* o *gago*), mientras que las creaciones expresivas, aun siendo, como aquellas, una invención elemental del idioma, y careciendo de etimología como aquellas, no imitan un sonido pero sugieren directamente una idea por el valor psicológico de sus vocales o consonantes (...)».

Cor., 12, 1. oh.

Hots sinbolismoa edo adierazgarritasun fonetikoa ez da edonon erraztasun berdinez gertatzen. Gorago (IV.1) esan da badaudela hizkuntzetan erabilkera metaforikoari besteak baino errazago egokitzen zaizkion hitzak eta maiz jazotzen dela hain zuzen ere hitz horiek adierazgarritasun fonetikoa gauzatzeko joera ere azal-

¹¹ Ariste 1982, 58: palatalizazioaren oinarri izan daitezkeen aldetik ere (l, n, s, t) badu antzarik euskarazko bustidurekin (cf. III.6).

tzea. Hitz adierazgarri dei genitzakeen hitzokin batera ibiltzen dira zenbaitetan onomatopeiazko hitzak ere hizkuntzaren gora-beheretan. Adierazgarritasun fonetikoak hiztegiaren azpi-ataletan duen gertakortasuna neurtzean sarri ikusten da hitz adierazgarriak eta onomatopeiazkoak ez dabiltzala elkarrengandik urruti. Izan ere, hitz hauek eta, oro har, diminutibo edo txikigarri guztiak leku bereizia izan ohi dute hizkuntzen gramatiketan eta gramatikaren alor ezberdinetan ikus daiteke bereizitasun hori ¹². Txekoz fonologiaren mailan azaltzen da: hipokoristikoetan ez da gertatzen kontsonante palatalen ondorengo *a* > *e* aldakuntza. Alemanezko diminutiboetan, berriz, jenero marka da neutralizatzen dena, atzizki txikigarri osatu hitzak neutroak izan ohi direlarik oro har (cf. Stankiewicz 1972, 258).

Haurrekiko hizkera ere oparoa izaten da hots sinbolismoetan, batez ere maitasuna edo txikitasuna adierazten duten sinbolismoetan noski ¹³. Hizketa mota hau, zalantzarik gabe hizkera bihozkorra izateko aproposenetakoa da. Polskerazko eratorpen adierazgarrian ikusten da baliabide adierazgarriak nola ager daitezkeen elkarrekin. Atzizki adierazgarriak izen propio laburtuetan (cf. IV.2. *Mari, Maria* -ren aldaera adierazgarriaz) eta haurrekiko hizkeran gertatzen dira. Atzizkiotan frikari eta afrikatu sabaiaurrekoak gertatzen dira. Gainera, nola polskeraz erro azkeneko kontsonantearen palatalizazio adierazgarria haur hizkeraren ezaugarria den, busti-

¹² «A coincidence of phonological and morphological naturalness [=universality] can occur only in cases of iconicity, i.e., iconic images (e.g., in onomatopoeia/expression of diminution by means of vowel raising/fronting and palatalisation); otherwise the relationship of morphology and phonology is arbitrary by definition (...)» (Dressler 1985a, 58). Hemen ikonikotasuna eta unibertsaltasunaren artean gorpil zoroaren arriskua dago. Cf. M 1964, 164 (*Illuratu, Illuratu*, e.a.) ere.

¹³ Baina cf. Haas 1970, 92: sioux indioen dakota hizkuntzan amentatiboak sortzeko erabiltzen den hots aldaketa (*ʒi* 'it is yellow' > *ʒʰi* 'it is brown') maitasunezko eta haurrekiko hizkeran ere erabiltzen da.

dura azaltzen da eratorpen adierazgarriaren marka nagusi bezala (Stankiewicz 1972, 256). Ez da txantxetakoa euskarazko atzizki diminutiboek kontsonante palatalak izatea gehienetan (cf. VII. atala: *-txo*, *-ño*, *-ñi*, e.a.). Ez da beti hala izaten (*-to*, *-ko*) garbi dago funtzioa atzizkiak betetzen duela eta bustidura lagungarri dela (Gavel 1920, 482).

Euskaraz hots sinbolismorik nagusia bustidura adierazgarria da, baina ez da bakarra. Aurki daiteke besterik, bustidura bezain sistematiko eta hedatua ez bada ere. Ematen du, esate baterako, egon dela amentatiboak sortu dituen afrikatze bilakabidea: cf. Lezo-n jasotako *mutilzar* 'solterón' eta *mutiltzar* 'chicarrón' (Berriochoa 1962, 45) ¹⁴. Pentsa daiteke hitz elkartuon bigarren zatiak ez direla hitz beraren aldaera eta afrikatu/frikari kontrastea ez dela bilakabide fonologiko adierazgarriaren fruitu hitzaren aurkezpen lexikoen ezaugarria baizik. Sinkronikoki eta batez ere hitz elkartu bezala dituzten esanahiei begira, erraz onar daiteke hitz bien beregaintasuna, baina historikoki *zar/tzar* formek osaturikako pareta adierazgarritasunak lotzen duela dirudi (cf. Azkue 1919, 471) ¹⁵. Bestalde, ez dago isolatua euskararen barruan. Sistematikoa ez bada ere, aurkitzen dira frikari/afrikatu pareak: cf. *guraso*, *buraso* vs. *guratso*, *buratso* (FHV 286) ¹⁶; *na^hasa* 'flojo, poltrón' > *na^hatsa* 'flojazo' (Azkue 1919, 471);

¹⁴ "Aumentatibo" deitura */ato sensu* ulertu behar da, kontrakoetan "diminutibo" erabili ohi den bezalaxe. Askotan amentatibo izenpean mespretxuzko adieraziak ere sartzen dira. Cf. zentzu honetan FHV 180, 1. oharrean Velta Rûke-Dravina-rengandik jasoa.

¹⁵ Sinkronikoki ere, cf. Amado Alonso 1923, 64: *zaarra* 'viejo' / *tzarra* 'perverso'.

¹⁶ Adibide honetako frik./afrik. aldaketak ez dakar esanahi aldakuntza ezagunik.

aixalzaarra 'zorro viejo', *aixaltzaarra* 'zorro grande' (Izaguirre 1971, 45). Ez dirudi gainera gauza berria denik (cf. FHV 286).

Ekialdeko euskaretan eta hasierako txistukarietan batipat aurkitzen da afrikatze adierazgarriaren arrastotzat har daitekeena. Arrasto esan behar da, ez bait dira bilakabide bizi oparoak eskatuko lituzkeen aurkakotasunak azaltzen. Dauzkagun adibideak euskalki gehienetan igurzkariz hasten diren hitzen aldaera afrikatudunak dira: Err. (M 1954, 144) *tzuntzur*, *tzintzurri* (cf. *zintzur*, e.a.), *tzintz* (cf. *zintz*), *tzirtzil* (cf. *zirtzil*), e.a.; Zar. (M 1967, 166) *tzimur* (cf. *zimur*), *tzintzurri*, *tzitzor*, e.a. Mitxelena-k hitzotako afrikatua adierazgarritzat jotzean, adierazgarritasunaren ezau-garri garrantzitsu bat dakarkigu gogora, alegia, oso gutxitan gertatzen dela hizkera hauetan txistukari (ez txitxikari) afrikatua hitz hasieran. Aipatu da gorago (IV.1) ere erabilkeraren maiztasuna adierazgarritasunaren kontra jokatzeko duela. Nolanahi ere den, ez dago garbi esanahiaren aldetik afrikatzeak eransten duena zer den. Beharbada, Mitxelena-k (M 1954, 144) «tz y ts pueden darse en posición inicial en un corto número de voces, al parecer con valor expresivo» esaten duenean, «de origen expresivo» ipini daiteke «con valor expresivo» jartzen duen lekuan. Izan ere, badirudi akitanierarekin zerikusirik izan dezakeela frikari eta afrikatuen banaketa honek (cf. FHV 288). Ikus IV.3.ean Lafon-i buruzko antzeko iruzkina adierazgarritasunaren kontraste beharra dela eta.

Badago adierazgarritasun fonetikoan koka daitekeen augmentatiboak sortzeko beste bide bat ere: beherago (IV.3) aztertzen den palatalizazioaren osagarri eta ondorio den despalatalizazioa. Hontaz aritu direnek ez dute beti modu sistematikoan eta osorik

jaso aldakuntza. Askotan beste zer baiten esplikazioan, bidenabar, jaso izan da. Esate baterako, hitz hasierako afrikatuez aritzean ia ezinezkoa da aumentatiboen gaia ez ukitzea, ingurune horretako hortz-hobietako afrikatuak, esan bezala, hitz adierazgarrietan bakarrik gertatzen bait dira euskaraz (M 1951, 582). Besteak beste, Gavel-ek, hitz hasierako afrikatu sabaiaurrekoaren lekuan agertzen direnez ari dela, aipatzen du palatalizazio eta despalatalizazio adierazgarrien arteko hartuemana (ik., igurzkariez ere, op. cit. 169):

«Dans les dialectes qui admettent normalement le groupe *tʃ* à l'initiale, il peut arriver que l'on change l'*tʃ* de ce phonème en *z* pour former un augmentatif car si dans les mots qui ont normalement un *z* on change cette sifflante en chuintante pour former des diminutifs, le procédé inverse sert à former des augmentatifs».

Gavel 1920, 152.

Gavel-en adibideak dira *tʃakhür(r)* > aum. *tzakhür(r)* eta *tʃar(r)* > aum. *tzar(r)*. Lehengoak erakusten du garbi aski nola bilakabide honen oinarri dena (despalatalizazio erregelaren *input*, alegia) bustidura adierazgarriaren ondorioa izan daitekeen (h.d. palatalizazioaren *output*)¹⁷. Garbi dago esanahiaren aldetik palatalak txikitasunaren adierazletzat jotzeak baduela zerikusirik despalatalizazioa aumentatiboak sortzeko aldakuntza izatearekin.

Beste batzuetan despalatalizazioaren oinarri den adierazle bustiduraduna ez da palatalizazio adierazgarriaren fruitu, maileguz edo bestela azaltzen dena baizik (cf. *akullu* > *akulu*, *jeus* > *deus*, *josta* > *dosta*, *jeitzi* > *deitzi*, *injuria* > *induria*, *laxatu* > *lazatu*, e.a.: cf. FHV 184, 196, 519). Horrelakoetan bustidura adierazgarriak eraiki-

¹⁷ Cf. *Oxarra* antroponimoaren eta L BN *ozar* 'perro'-ren jatorria *xa(h)ar*-en aumentatibo bezala azaltzeko posibilitateaz, M 1964, 95.

tako ereduarekiko analogia izaten da aldakuntzaren ardatza (cf., adib., *eder* > *e[d]er*, *labur* > [*ɛ*]*labur*). Despalatalizazio honek, bustiduraren izaera markatua azpimarratzen du. Beharbada horrexegatik, gehienetan despalatalizazioaren ondorioa ez da esanahiaren aldetik amentatiboa izaten, forma arrunt markagabea baizik. Askotan ez dago esanahi bereizkuntzarik ere bilakabidearen oinarri bustia eta ondorio bustigabearen artean ¹⁸.

Esan daiteke, beraz, palatalizazio adierazgarria oinarritzat hartzen ez duen despalatalizazioa ez dela adierazgarri hots sinbolismoaren zentzuan. Ez da harritzekoa diminitiboa izan denaren ezaugarri semantikoak inoiz bikote adierazgarri batean (h.d. hots sinbolismoan) erabili ez denarenak baino zehatzagoak eta sendoagoak izatea (dena den, cf. II. atala despalatalizazioaz). Badirudi oinarria hipokoristikoa ez denean, despalatalizazioaren ondorioz i+ kontsonante ez-bustia agertzeko joera haundiagoa dela (FHV 195-196: *boteila*, *oilo*) ¹⁹. Beharbada, honakook asimilazio bustidura hartzen dute eredu (cf. *atxakia* > *aitzakia* vs. *bakotx* < *bakoitz*: FHV 184).

Palatalizazioa eta despalatalizazioaren arteko erlazioa dela eta, badago zeresanik berriz ere hotsen gertakortasun edo hizkuntzan duten maiztasunaz. Cf. IV.1.lean Nadeau-rengandik jaso eta puntu honetan bertan ekialdeko euskaretako zenbait afrikaturen maiztasunaz Mitxelena-rengandik jaso. Izan ere, fonema bustia oso maiz erabiltzen bada, errazagoa da bustidurak hasieran ematen

¹⁸ Cf. *laxo* 'flojo' / *lazo* 'flojo (en sentido moral)'. Ez da berez "amentatiboa", bestelako konnotazioa duen adierazgarritasun fonetikoa baizik. Cf., diminitiboen (bustien) konnotazio mesedegarriez, Gavel 1920, 448-449: *eder/eger*.

¹⁹ Hemen koka genezake Azkue-k (1931, 392) erronkarierazkotzat dakarren *erraizo*: ziurrenik, *erraxo* (< errom. *rayo*) entzunda, Azkue berak asmatutako forma (FHV 184, 8. oh.). i-ren eransketaz, cf., dena dela, *akulu*, *zizelu*, e.a. bezalakoak (ik. II.4.1).

zior nolakotasun markatua galtzea eta hiztunak forma arrunt eta oinarritzat hartzea (cf. M 1954, 140, FHV 180-181). Orduan, Dressler-en (1985b, 44) hitzetan « (...) a diachronic improvement of indexicality corresponding to progressive diachronic de-
iconisation (which we also find with onomatopoetic words and diminutives due to sound change)» gertatu denean, forma bustiduraduna prest dago despalatalizazio bilakabidearen oinarri izateko²⁰. Mitxelena-k (M [1972a] 1985, 247) ongi azaltzen du honelako bilakaeretan araua zein izaten den: ingurune batean gutxitan gertatzen da halako fonema edo fonema multzoa --> ingurune honetan balio adierazgarria --> erabilkera hedatu (eta adierazgarritasuna ahuldu: FHV 181).

Aurrera jo baino lehen merezi du aipatzeak hots sinbolismo oparoen artean euskaraz sor daitezkeen koerlazio edo kontraste sorta alde anitzekoak. Adibide bezala ez lirateke makalak Azkue-k (1919, 471) dakarzkigun *enasa* 'sucio, desaseado' / *enãsãdesaseadito* / *enatsa* 'sucio'; hurrenkera berean, *nařasa* / *nařaãsa* / *nařatsa*. Amado Alonso-k (1923, 64) ere jasotzen du afrikatze eta (des)palatalizazioaren elkar laguntzaz eraikitako adibide saila: cf. *gizon zařa* 'el hombre viejo' / *gizon tzařa* 'el hombre perverso' / *gizon txarã* 'el hombre de mal genio' / *gizon xarã* 'el viejecito', e.a.

Aurki daitezke han hemenka, nonbaiten sartzekotan, hots sinbolismoaren atalean sartu beharko liratekeen bilakabide gehiago ere. Adibidez, Gavel-ek (1920, 106) azaltzen duen bokal aldaketa:

²⁰ Cf. goragoko 10. oh. [Dressler 1985a, 58].

ikhusi > *ukhusi*, *itsusi* > *utsusi*, *bero* > *bo~lo*, e.a. ²¹. Honelako aldaketak haurren eta hurrekiko hizkeretan azaltzen omen dira Zuberoan behintzat. Bilakabide honen ezaugarriak Gavel berak esplikatzen ditu, hizkuntza askotan haur hizkerak azaltzen duen bikoizteko joeratzat hartuta. Zalantzarik gabe bokal armonia deitzen diren asimilazioetakoa da eta azken adibidean kontsonantearen bustidura adierazgarria ere gertatzeak indartu egiten du hitzon nortasun adierazgarria ²².

Beste zenbait aldaera fonetiko ere adierazgarritasunean oinarrituta azaltzen ditu Gavel-ek: cf. *zunkur(r)* / *kunkur(r)*, *konkor(r)* / *tontor(r)*, *zaldo*, *saldo* / *talda*, *talde*, e.a. (Gavel 1920, 157-158). Aldaera hauek [ɰ] tarteko palatalaren bidez lotzearen aukera aztertzen du *kipula* / *tipula* pareaz azaltzean (op. cit. 374) eta latinezko belareen palatalizazio asimilazioarekin erkatzean (op. cit. 393-394). Alde batetik, adibideak gutxi eta sakabanatuak direlako eta, bestetik, adierazgarritasunak esanahiak edozein azterketetari ematen dion laxotasuna duelako, zaila da honelako esplikazioen egiantzekotasuna neurtzea (cf. op. cit. 354-355, hitanoaren sudurkaria belaretik esplikatzen duen hipotesi ausarta). Gavel-en ondorengoek ez dute alternantzia hauetaz ezer berririk esan.

Mitxelena-k ere egiten du zenbait bilakaera diakroniko bilakabide adierazgarri bezala azaltzeko proposamena. Esate baterako, bikoizte edo jeminazio batzu bustiduraren kideko bilakabide adi-

²¹ Ez omen dira Zuberoako hizkera normalean entzuten ez *ukhusi* eta ez *bollo* (Mitxelena irakasleak zuzenean esana).

²² Bokal armonia bilakabide adierazgarritzat hartzea zilegi bada. Badirudi horrelakoen ondorio izan daitekeela: «Vowel harmony, at least in languages such as Turkish, Hungarian, and Finnish, seems to be a (lexically and morphologically restricted) remnant of a P[honological] R[ule] of child language» (Dressler 1985, 341).

erazgarriak izan daitezke jatorriz; cf.: *mukurru* < lat. *cumulu* (M 1974, 198, 75. oh.). Galdu ez ziren zenbait hitz hasierako herskari ere hitz adierazgarrietan gorde omen ziren (FHV 255). Txistukaritu egin diren hitz hasierako herskari batzuk, berriz, [tʃ]-ren bidez gauzatutako bustidura adierazgarritzat har daitezke (FHV 257) -- cf. txistukaritzeak diren palatalizazioez 1.2.--. Ahoskabetzea ere bilakabide adierazgarria izan daiteke noizbait (FHV 267, 11. oh.: *ip(h)ar* / *ibar*; FHV 176: *atzapar* < (h)atʃ + (h)amar-?-), edo ahos-
tuntzea ez gertatu izana beste batzuetan (FHV 361; 412, 9.oh.). Halaber, txistukariz hasitako *susmo*, *zezi*, *zizain* bezalako hitzek bokalez hasitako aldaerak dituztenean, kenketaren ondoan txistukaria hitz adierazgarriak osatzeko bikoiztu ere egin daitekeela aintzakotzat hartu behar da (FHV 292).

Salaburu-k ere azaltzen du orain artekoetan ez dagoen aldaketa adierazgarria. Pentsatzekoa da palatalizazioarekin zerikusia baduela eta hau ere nolabaiteko alderantzizkatzea dela: «"Yinkoa" hitzari balio adierazkorra eman nahi diogunean, fenomeno modernoan izan badaiteke ere, "Kinkua" esaten da» (Salaburu 1983, 547).

Dena dela, honelako azalpideak beti izango dira erabilkor eta eztabaidagarri, gorago Gavel-ez ari ginela esan dena eta Mitxelena-ren hitzetan ezin hobeto adierazten denagatik:

«El concepto de expresividad tiene el grave inconveniente de estar mal definido y, lo que es peor, de ser difícilmente definible. Desde el punto de vista del contenido, la intervención del afán expresivo se puede sospechar en ciertos campos semánticos con más verosimilitud que en otros, pero sin que nunca se puedan fijar fronteras precisas. Formalmente se recurre a él para explicar los hechos que no se ajustan a los esquemas regulares establecidos y por consiguiente queda definido como expresivo lo que se aparta más o menos de ellos, lo cual es una especie de círculo vicioso. Pero se trata de un hecho real, de una fuerza que uno

mismo esta viendo (...) y de la que por tanto no se puede prescindir en la consideración teórica».

FHV 273-274.

IV.3. Euskarazko bustidura adierazgarria

Palatalizazioa adierazgarritasun fonetikoazko bilakabide bezala munduko hizkuntza ugartan aurkitzen da, askotan elkarrengandik, historia edota geografiagatik, oso urruti dauden hizkuntzetan (cf. Uhlenbeck 1909b, 15) ²³. Ez dago ziur esaterik zerk egiten duen palataaltasuna adierazgarri, zergatik hots palatalak mezua adierazgarri bihurtzeko balio duten hizkuntza askotan. Garbi dago, esate baterako, badagoela loturarik palataaltasuna eta funtsean txikitasunaren eremuan koka daitekeenaren artean ²⁴. Ultan-ek (1978, 528) bokalen palataltasuna txikitasunarekin edo/eta femeninoarekin batzen duten hizkuntza anitz jasotzen ditu (cf. IV.2. Pekineko mantxu hizkeraz ere) ²⁵. Baina honelako kezkak garbien agertu dituzten ikerlariak ere ez dute lokera objetiborik aurkitu esanahia eta esanahi hori adierazteko erabiltzen diren ezaugarri fonetikoaren artean. Ikerlari

²³ Interesgarria da oso gai hontaz Roman Jakobson-en "Sur la théorie des affinités (...)" (ik. gorago I., 1. oh.). Batzuetan geografiak erlazio genetikoek baino indar handiagoa izan dezake (errusieraren ondoko hizkuntzen bustidura kontrasteaz, op. cit. 364).

²⁴ Cf. palataaltasuna eta txikitasuna batzen dutenez bibliografia luzea: Dressler 1985a, 364, 89. oh.

²⁵ Beste zenbait forma/eduki erlazioz, ik. op. cit. 551 hh. Ultan-en lanean (136 hizkuntza jasotzen ditu) ameriketako indioen hizkuntzetan gertatzen dira batipat kontsonante aldaketak. Esan behar da euskaraz ematen dituen datuak ez direla egokiegia eta inola ere ez osoak (Zamarripa-ren gramatika bakarrik izan du iturri dirudienez). Hizkuntza eslaboen kontsonanteetako aldaketak ere ez dira behar bezala jasotzen.

batzuen arauera, gainera, badirudi ezaugarri fonetikoen balio psikologikoak, nolabait esan, ez direla unibertsalak. Esate baterako, koreanoz bokal irekiak ez dira handitasunarekin erlazionatzen, ez eta itxiak txikitasunarekin (Martin 1962, 177) Langdon-ek (1971, 171), adibidez, aldarrikatzen duen bezala. Sapir-ek ([1929] 1949) proposatu zuen bokalak ahoskatzean ahoguneak duen neurriak izan zezakeela zerikusirik entzulearengan zuten ondorio psikologikoarekin. Sapir-ek berak aitortu zuen, dena dela, subjektiboa dela hein haundi batean bokal mota bakoitzari ematen zaion balioa (hizkuntzarekin batera ikasi diren elkarketetan ezik, horiek hiztun talde osoarenak bait dira). Halaber, Aoki-ren (1962, 177) arauera sahapti hizkuntz familian *ʃ/*s parean bigarrena da diminutiboetan azaltzen dena. Dakotaz ere x > ʃ > s (haundiagotik txikiagorako hurrenkeran) aldaketaren bigarren urratsak erakusten du nola txikiagoa ez den beti palatalagoa (Nichols 1971, 830) ²⁶. Aintzakotzat hartzekoa da italiano ere palatalizazio erregela betetzen ez duten hitz multzoetarikako bat diminutiboek osatua dela (Dressler 1985a, 179).

Sapir-ek (1915) mitologiaren hizkera errituala aipatzen du zenbait adierazgarritasun fonetikoren jatorri posible bezala. Bustidura dela eta, garbi ikusten da --eta indioen erritualak baino gertuago daukagu-- onomatopelazko erabilkerek izan dezaketen garrantzia hots edo ezaugarri fonetiko bati delako adierazgarritasuna atxekitzeko orduan. Errepara, esate baterako Azkue-k (1919, 457) aipatzen duen *kaʃk* (...) 'tocar una cosa ligeramente,

²⁶ Ezaugarri fonetiko eta semantikoen arteko loturaren objetibotasuna frogatzea (ia) ezinezkoa bada ere, ildo honetatik oso urrutira iritsi direnak badira. Ik., adib., Langdon-i (1971, 173, 30. oh.) Dell Hymes-ek esana: «(...) the use of glottalization for diminutive symbolism has to do with the punctual occlusion and release of its articulation, with concomitant connotation of "preciseness, specificity" and consequently "smallness"».

suavemente, dulcemente': onomatopeiaren edukia zein hurre dagoen bustidura adierazgarriaren funtsezko esanahitik.

Beste batzuetan, eragin sintagmatikoek sortutako hots aldakuntza adierazgarri bihur daiteke eragin horien indarra desagertzen denean hizkuntzaren bilakaera dela eta (aldakuntza bat hautazko bihurtu ahala, esanahia bereizteko erabil daiteke). Hashimoto-ren (1970) artikuluan ikusten da nola automatiko (beraz, asemiko) ziren zenbait bukaera palatal adierazgarri bihurtu diran txinoz, palatalizazioa ahultzean forma palataldunaren ondoan palatalik gabeak sortu direlako. Forma bien artean bereizkuntza estilistikoa sortu da: forma bustia hizkera ikasiaren ezaugarri da eta bustidurarik gabea, berriz, hizkera arduragabearena (Hashimoto 1970, 343).

Esan da bustikuntza ez dela adierazgarritasun fonetiko deritzonaren bilakabide bakarra. Garbi ikusten dena da, aldaketa fonetiko bat, adierazgarria izango bada, halako egoera bereizia behar duela izan hizkuntzaren fonologian. Halaz ere, eta kontraesana badirudi ere, ez da euskaraz bakarrik gertatzen aldaketa fonetiko bera bilakabide adierazgarri eta bilakabide automatiko (asemiko) bezala erabiltzea (cf. I.3. atala euskarazko bustidura biez). Nichols-ek (1972) ongi erakusten duen bezala hizkuntzek ez diote marka jakin bati halako balio semantikoa ematen, markadun eta markagabearen arteko kontrasteari berari baizik. Kontrasterako erabiltzen duen tasuna hizkuntzak bere ahalmen fonetikoetatik ateratzen du, bilatuaz, gainera, eraikitzen den esanahi kontrastearen nolakotasunagatik, pareta osatzen duten hotsak nahikoa diferente balia nahikoa berdina izatea:

«Consonant identity, and thus morpheme identity, is maintained in shifted words, in that shifts among the major consonant types are virtually unattested: in general the normal and the affective phoneme both belong to the same abstract consonant type, and either one may be a subtype of the other».

Nichols 1971, 833.

Argi eta garbi, palatalizazioak betetzen ditu baldintza horiek, asko bait dira bilakabide adierazgarri bezala erabiltzen duten hizkuntzak. Hego-ekialdeko *yiddish* delakoan /l/ eta hortzetako kontsonanteen palatalizazioa mespretxua adierazteko erabiltzen da. Ameriketako huichol hizkuntzan zenbait kontsonanteren palatalizazioa (/t, c, n/ > /t', c', n'/), beste aldakuntza batzuekin batera, hurrekiko eta hurren hizkera, kantuak eta hizkera bihozkorraren ezaugarri da ²⁷. Polskeraz hurrekiko hizkeran erro azkeneko kontsonantea palatalizatu egiten da. Errusieraz ere badago bustidura adierazgarria, izen propioetan batipat (hipokoristikoak sortzen ditu). Leku batzuetan, Stankiewicz-ek (1972, 248) dioenez, inguruko hizkuntzetan ezaugarri bereizgarria dena mailebatzetik sortu omen da bustiduraren erabilkera adierazgarria (cf. IV.1. hots arrotzen adierazgarritasuna). Euskarazko bustidurak izaera biak ditu: hots palatalak asimilazioz sortuak, edo mailegatuak edo/eta adierazgarriak izan daitezke.

Gure artean gutxi eta zehaztasun handirik gabe hitz egin da bustidura adierazgarriaz. Sarritan, asimilazio bustiduratzat hartu ezinak sartzeko zakua izan dela esan daiteke. Batzuetan

²⁷ Informazio hau Stankiewicz-engandik (1972, 249-250) dago aterea. Esan behar da ematen dituen euskarazko datuak ez direla egokiegia (itzulpenak ere oker daude askotan).

esanahiaren aldetik funtzio adierazgarriak betetzen ez duten formak adierazgarritzat jotzen dira, bakarrik bustidura asimilazio bezala azaltzeko beharko litzatekeen i-rik agertzen ez delako. Ezin da ahaztu, ordea, euskarazko hots palatalak ez direla beti asimilazio bustidura edo bustidura adierazgarriaren fruitu (ik. V. atala bestelako jatorrietako palatalez).

Asimilazio bustidura, azaleko aurkezpenean gauzatzen den bilakabide sintagmatikoa izanik, esanahiarekin nahasten den bustidura adierazgarria baino garbiago azaltzen da. Honek ez du esan nahi, ordea, adierazgarriak ez direnen sailkapena erabat sinplea denik eta egin dira alde horretatik ere zenbait huts (hala nola, Moutard 1976, 13, *ladrillua* euskarazko asimilazio bustidura aurrekaritzat hartzea, e.a.).

Bustidura adierazgarria zaharra dela dirudi. Izan ere, euskalki guztietan azaltzeak, pare bizietan edo bestelako arrastoetan, bilakabide zahartzat hartzera bultzatzen gaitu, are gehiago agertzen duen sistematikotasuna dela eta ²⁸. Egungo egoerari begiratuta, bustidura adierazgarria noizbait izan bide dena baino murriztuagoa agertzen zaigula ematen du (M 1954, 140). Bilakabide zaharren sailkapen eta azterketa berri eta oparoena baino nahasiagoa izaten da. Salbuespenak ugaritu ahala, laxotu egiten dira delako aldakuntza alternantzien esplikazio bezala erabiltzeko irizpideak (cf. II.2).

Gainera, Mitxelena irakasleak FHV-ren sarreran (21. or.) aitortzen duen bezala, bilakabide adierazgarriak esanahiarekin duten loturak haunditu egiten du honelako aldakuntzen inguruko nahastea:

²⁸ Honekin Mitxelenak aurre egiten dio Jungemann-en iritzia (M 1959, 125).

«(...) habría acaso que justificar el frecuente recurso a lo "expresivo", a que en una u otra forma suele acudir en obras de este género. La acción ocasional del significado sobre los elementos de la segunda articulación lingüística (...) es un hecho ampliamente probado, pero es imposible marcar sus límites, como pasa siempre que en nuestras consideraciones interviene esa magnitud reacia a toda delimitación precisa que es el sentido».

Hots sinbolismoz adierazten den esanahia ez da gehienetan beste zenbait maila semantikotako esanahia bezain erraz finkatzen: Grammont-ek hots sinbolismoaren adierazpideari "*impressive*" esaten omen zion (Lafon 1958, 95). Ikusi da IV.1.lean zer nolako edukiak azaltzen dituzten hizkuntzaren bilakabide adierazgarriek; bustidura adierazgarriaren bidez adierazten dena hizkera bihozkoraren, txikigarri eta hipokoristikoen alorrean, finkatzen da. Sailkapena areago zailtzen du guzti honekin datorren beste gauza batek: hiztunak adierazgarritasuna lortzeko berariaz erabiltzen duen baliabidea izanik, ez dagoela esaterik aldezturik bustidura adierazgarria noiz gertatuko den. Hain zuzen ere, horrexegatik --eta ez da oparotasun kontua-- gertatzen da Langdon-ek yuma hizkuntzei buruzko hots sinbolismoez esaten duena, alegia, hizkuntzaren deskribapen sinkronikoan sartzeko adina oparotasun eta sistematikotasun agertzen dutela, baina «not to the point where it is possible to predict whether a specific form obtained by the application of the rules will actually occur» (Langdon 1971, 153).

Gauzak estu lotzekotan, badago zalantzarik gabeko baldintza bat, hizkuntzaren elementu adierazgarriek bete behar dutena. B adierazgarria izango bada IV.2.-n finkaturikako zentzuan, nahitaezkoa da A oinarritzkoaren aldaera izatea. Hain zuzen ere, adierazgarritasuna, adierazgarri ez den, oinarritzko eta "neutroa" den zerbaiten arauera definitzen balt da. Bustidura adierazgarria, beste edozein bilakabide sinboliko edo adierazgarri bezala, pare

kontua da. Bustiduraren bidez osatzen diren bikoteetan gertatzen da adierazgarritasun deitu dugun hori. Honek esan nahi du, noski, *xexen* bezalako forma bustiduradun bat adierazgarritzat hartuko badugu, hiztun beraren hizkeran forma berori egon behar dela bustidurarik gabe eta esanahi neutroz (*zezen*) Bestalde, hiztunak beti *txakur*, *txekor* eta *txerri* esaten badu, inoiz *zakur*, *zekor* eta *zerri* esan gabe, bustidura hori ezin da adierazgarritzat hartu ²⁹. Gauza bera esan daiteke Err. *bello* edo *l'ñabar*, *hólli*, *hü'llan*, *xú(r)i* formez ere (cf. FHV 182-183); baina ez Moutard-ek (1976, 43-44) dakartzan Amikuzeko pareez: *llabur* (*labur*), *llodia* (*lodia*) «avec une nuance de tendresse (...)», *llanhua* «brouillard léger et ténu» (*lanhua* «brouillard») ³⁰. Baldintza hau askotan ahaztu izan da eta ez bakarrik euskarazko bustiduraz hitz egiten denean. Ariste-k (1982, 59-60) estoniotik ematen dituen adibide askok ez dute bustidura adierazgarria isladatzen adierazgarri izandakoaren lexikalizazioa baizik: cf. aldaerarik gabeko *kron'u*, *ku'l'ka*, *lod'u* e.a. vs. *külm*/*kül'm* --bigarrena bihozkorra--. Gogoan izan behar da, halaber, «valeur diminutive ou affective», Lafon-ek bustiduraz bakarrik aurki daitezkeen hitzez ari denean erabiltzen badu, ezin dela ulertu hemen bustidura adierazgarriaren esanahia definitu den zentzuan. Halako esanahia dutenen bustiduraren jatorriaz bakarrik esan dezake hori (cf. Lafon 1958, 95-96).

²⁹ Esango nuke haxe dela egungo Donostiako euskaran gertatzen dena behintzat. Bustidurarik gabeko formak erabiltzen dituztenek (gehienetan ikastola baino lehenagoko belaunaldietakoek) aimentatibo bezala erabiltzen dituzte. Astigarragako hiztun baten arauera, *zerri* pertsonen dagokie eta animalia (beti) *txerri* da, haxe bera beste hizkera batzuetan ere gertatzen da.

³⁰ Honen antzeko zerrenda egiten du Echaide-k (1966, 519) Orio-ko euskaraz, baina ez ditu kide bustidurarik gabeak ematen. *Xirimiri* diminutibo bezala ematen du. Donostian esan daiteke ia forma bakarra dela orain bertako erdalduen artean ere. Egileak «intencional» deritzo honi eta jator kutsua izateko egiten omen da. Esanahia lexikalizazioa errazten duenetakoa da zalantzarik gabe.

Batzuetan forma bat adierazgarritzat hartzean, kontrastearen ordeztu, adierazgarritasunaren beste ezaugarri nagusi bat izaten da irizpide, maiztasunarena. Esate baterako *llabur*, *lláphar*, *llapĩ*, *llepei*; *ñábar*, *ñabo*, *ñáphür*, eta abarren bustidura adierazgarria (izan) dela ia zalantzarik gabe esan daiteke. Izan ere, euskarazko hitzen egitura fonetikoa dela eta, oso gutxitan aurkitzen delako *ɸ* edo *ñ*-rik hitz hasieran (FHV 195). Horregatik esaten du Mitxelena-k zubererazko testu zaharretako *Gneli* ([ŋ]) formak jatorri adierazgarria salatzen duela (FHV 520-521).

Euskarazko bustidurak dakarren aldakuntza semantikoa mutur biren artean dago. Esate baterako, *zori* eta *(t)xori* hiztegiaren bi sarrera direla esan daiteke, *patu* eta *egazti* bezalaxe adibidez. Bestela esanda, hitzon arteko erlazioa etimologikoa da besterik gabe (cf. Martin 1962, 178). Aldiz, *neska* eta *nexka*-ren arteko aldea txikiagoa da; nolabait, oinarritzko hitz beraren aldaera bezala ulertzen dira. Funtsezko esanahia bera da, izan ere: gizaki eme eta gaztea, labur esateagatik. Bien arteko diferentzia adin eta neurrian dago.

Berez, ezin da esan *(t)xori/zori* bezalako pareetan bustidura adierazgarria dagoenik, berlexikalizazioa gertatu da eta bustidura lehenengo hitzaren aurkezpen lexiko oinarritzkoaren ezaugarria da. Hiztunak ez du bere kide bustidurarik gabearen aldaeratzat jotzen. Bustidura adierazgarrian, *sensu stricto*, hitzaren erreferentzi esanahia ez da aldatzen. Stankiewicz-ek (1972, 247-248), Jakobson, Fant eta Halle-ri jarraiki, dioten bezala:

«These features [adierazgarriak] do not (...) serve to differentiate meanings, but express attitudes of the speaker, leaving intact the cognitive meaning of words or morphemes».

Badaude euskaraz definizio honen barruan sar daitezkeen pareak: cf. *jattorra* / *jatorra*, *xamur* / *samur*, *xuxen* / *zuzen*, e.a. Bikoteok osatzen dituzten hitzen arteko diferentzia hiztunaren entzulearekiko jarreraren dago eta ez hizketaren erreferentzi edukian.

Euskarazko bustiduraren bidez osatutako pareak hots sinbolismo garbitik berlexikalizaziorainokoak izan daitezke; lehen aipatu *nexka* / *neska* adibidea bera ere *xamur* / *samur* baino gertuago dago berlexikalizaziotik (cf. VII. ataleko sailkapena). Aldaera bustiduraduna atzizki osaturikako *neskato* bezalako diminutiboen sinonimotzat har badaiteke, bustikuntza bilakabide morfofonemikoa litzateke Stankiewicz-en (1972, 253) sailkapenean, bustiduraren bidez aldaketa gramatikala markatzen bait da. Azkue-k (1919, 471) irizpide formalen arauera bereizten zituen, alde batetik *leyes temáticas* deitzen zituenak (*enasa* > *enaša* / *enatsa*) eta, bestetik, *leyes morfológicas* (*kokolo+tzar*^f).

Guzti hau kontuan hartuta, agian esan daiteke (oso kontuz neurtu beharko litzateke) adierazgarritasun fonetiko garbia, Grammont-ek *impressive* deitzen zuen esanahiaren gehitzea noizbehinkako bustiduraz gertatzen dela. Alegia, bustidurarako aproposenak diren alor semantikoetako hitzak direla berlexikalizaziora errazen iristen direnak (*txiki*, *gutxi*, *pitxia*, e.a.). Bestalde, bustidura testuinguru edota egoera bereziki adierazgarrietan bakarrik jasotzen dutenak lirateke adierazgarritasun fonetiko oparo eta biziaren erakusleak. Honelakoek beti dute bustidurarik gabeko oinarritzko aldaera hiztun beraren hikuntzan eta, esanahi-

aren aldetik, hizkuntzaren adierazgarritasuna esan diogunean sartzen dira bete-betean (bihozkortasuna, edo Grammont-en *impressivedelako* esanahia, edo Sapir-en *feeling-tone* hura). Garbi ikusten da bereizkuntza hau Lafon-en pasarte batean. Lehendabizi, *ézür* 'os' eta *éxür* 'petit os' itzulpenaren bidez bereizten ditu. Gero, *zumát* 'combien' eta *zumátt* -en arteko diferentzia honela azaltzen du: «La mouillure a donné à la phrase [*zumátt jan zimio?*] une nuance ironique et comique qui est intraduisible en français» (Lafon 1958, 95). *Neska/nexka* edo *ezur/exur* bezalako pare morfonologikoak hots sinbolismotik lexikalizaziorako bidearen erdian leudeke.

Ultan-ek (1978, 529) hots sinbolismoaren bidez eraikitzen den kontrastearen indarra formaren ikuspuntutik neurtzen du eta hiru maila bereizten: agerikoa (*overt*), erdi agerikoa (*semi-overt*) eta izkutua (*covert*). Ageriko hots sinbolismoan kontraste semantikoa hots aldaketaren bidez bakarrik azaltzen da (adib., eusk. *samur* / *xamur*, edo wishram *ikʔɬ* 'nose' / *ikʔɬ* 'little nose' --belarea glotatuz--). Erdi-agerikoan, eratorpen morfologiko edo beste bilakabideren batekin batera gertatzen da delako hots aldaketa. Adibide bezala karok hizkuntzako *súruvara* 'hole' / *súnuvanaɬ* 'little hole' ematen du. Beharbada, hemen koka daiteke euskarazko atzizki diminutiboak kontsonante palatalez osatuak egotea. Azkenik, izkutuko hots sinbolismoa hautazko aldakuntza bezala gertatzen da bestelako bilakabide adierazgarriak gertatzen direnean.

Nichols-ek (1971, 828) eskaintzen duen sailkapenak aldakuntzaren adinari begiratzen dio. Hiru motatako hots sinbolismoak bereizten ditu: emankorrak, emankor ez direnak baina lexikoki gorde direnak eta aztarna isolatuak.

Sailkapenak era batera edo bestera egin, bereizkuntzak ikuspuntu batetik edo bestetik finkatu, garbi gelditzen da datuak banan bana aztertzean ezin direla eredu sinple baten arauera banatu. Ongi ikusten da Langdon-en (1971) lanean, batez ere ipai hizkuntzari dagokion zatian (151-157) hizkuntzaren fonema sistemak eta beste zenbait bilakabidek zer eragin duten hots sinbolismo osatutako pareetan.

Ezin da bustidura adierazgarriari buruzko atala bukatu aditzaren eremuko adierazgarritasun fonetikoaz hitz pare bat esan gabe. Euskarazko bustidura adierazgarria batipat izen eta adjetiboei dagokien arren, bustidura adierazgarriaren barruan aztertu behar da zenbait lekutako euskararen xukako aditz-jokoa ere. Fonetikoki zalantzarik gabe bustiduraren sailekoa izateaz gainera (s > ʃ), erabilkeraren eta esanahiaren aldetik ere betetzen ditu hots sinbolismo bezala definituriko bilakabideen baldintzak. Alberdi-k (1986, 434) honela jasotzen ditu aditz-joko honek hizkeratik hizkerara dituen diferentziak:

«Xukako aditz-joko alokutiboa --BONAPARTE-ren informazioaren arauera-- bakarrik (BNor)-en (Amikuze-ko barietatean izan ezik, eta Lapurdiko barietatea barne) eta (Zar)-en agertzen da; Arberou [Arberoa]-ko barietatean absolutoa da nagusi, baina erabiltzen dute xukako aditz-joko alokutiboa hurrekin, neskatoekin eta maila bereko andrezkoen artean; hurrekin eta maila berekoekin Garazi-n, Zaraitzu-n, Lehuntze-n, Mugerre-n eta Urketa-n; bakarrik hurrekin eta neskatoekin Hiriburu-n; neskatoekin, (mutikoekin), behezagoko andrezkoekin, maila bereko andrezkoekin (bakanka gizonezkoen artean) Beskoitze-n. Zukako [sic] aditz-joko ez alokutiboa (*xira*, *duxu*, ...) erabiltzen da inguruko euskalkietan hurrekin hitz egiteko (...)).»

Ikusten da, beraz, xukakoaren erabilkera zukakoarena baino mugatuagoa izan daitekeela alokutiboen artean eta esan da IV.1. ean, hain zuzen ere, horixe dela baliabide adierazgarrien ezaugarrietako bat. Gavel-en arauera (1920, 146), bustiduraren bidez «on constitue une conjugaison familière intermédiaire entre la forme de politesse et le tutoiement». Honek, berriz ere esan, zukako eta xukakoa biak erabiltzen dituzten hizkeretarako balio du noski. Ekialdeko euskalkiez kanpo, bustidura mota hau hurrekiko hizkeran dago zabalduen ³¹.

Oro har, esan daiteke, euskarazko forma alokutiboak absolutoak baino markatuago (adierazgarriago) direla; baina hori ez dagokio hots sinbolismoari, morfologi mailako bilakabide adierazgarriei baizik (cf. IV.1).

³¹ Ik. Azkue 1927, 289, aezkerazko xuketaz.

V. EUSKARAZKO KONTSONANTE PALATALAK

V.1. Kontsonanteon iturbideez

Han hemenka idatzi eta esanetan hala badirudi ere, ezin dira sartu euskarazko hots palatal guztiak aipatutako bi multzoetan; ez dago Mitxelena-ren erronkarierazko hots palatalen sailkapena ikusi besterik (ik. *j*-rena, M 1954, 148, edo *ɲ*-rena, op. cit., 149). Esan bezala adierazgarritzat hartzen dira zenbait bustidura, asimilazio ez direla garbi dagoelako bakarrik. Asimilazio ez dena asimilazio-tzat hartzea ere posible da, baina nahasketa gutxiagotan sor daiteke (cf. IV.3). Asimilazio bustidura, eragilea bistan egon ohi delako, errazago ezagutzen bada ere, batzuetan elementu engainatzaileak daude: diptongoaren irristari palatala desagertu egin daiteke bustiduraren ondoren (cf. *ma(j)lla*), edo azalean asimilazio ingurune diruditenak gertatu (cf. *bakilla*, *itxura*). Euskarazko hots palatal asko kanpotikakoak dira ¹. Hain zuzen ere, bustidura adierazgarriaz eta asimilazio bustiduraz gainerako palatal gehienak kanpotik sartuak dira. Horregatik eta lan honen berezko aztergaia diren bustidura biekiko sortzen diren nahasteak direla eta, merezi du mailebuez hitz bi esatea.

Latina eta hizkuntza erromantzeen historia ezagunak eskaintzen diguten oinarri sendoa eskertzekoa da bai euskarazko bustidura bilakabideen froga bezala (cf. *birjiña* vs. lat. *virgine-*, *dotriña* vs. lat. *doctrina-*, e.a.), bai kanpotik sartu direnen lekuko bezala (cf.

¹ Cf. frantsesko «fausses palatalisations» direlakoak (Straka 1965, 138 hh.).

detxema, mañu, e.a.)². Euskarazko palatalak esplikatzen dituzten latin edo erromantzezko bilakaerak aztergaitzat hartutako testuetan azaltzen diren palatalak azaltzeko behar diren neurrian zehaztuko dira (Ik. VII. batipat: adib., VII.1.2. *akullu* < **l*/*). Interesgarria izan daiteke, hala ere, mailebuak direla-eta aintzakotzat hartu behar diren zenbait gauza³.

Latin eta erromantzeen bilakaera diakronikoa ezagutzen dugulako, posible zaigu batzuetan mailebuen antzinatasuna jakitea --euskal fonologiaren beste ezaugarri asko eta askoren artean-- (cf. *detxema* vs. *dekuma* zaharragoa, edo lat. *k*, *g* e. *i* eta *k*, *t* *j* taldeen ondorioak: M 1972, 11; M 1974, 200). Egia da batzuetan gauzak ez direla agertzen nahi bezain garbi eta, euskarazko bilakaeren barne historia ezagunagoa balitz, ondorio sendoagoak aterako liratekeela: adib., lat. *kt* taldearen ordain bezala *jt* agertzen denean zalantzazkoa izan daiteke noraino iristen den hizkuntza baten eta bestearen eragina (M 1972, 11). Gainera, latina edota hizkuntza erromantzeekiko harremanak etengabeak izan dira mende luzeetan zehar. Lekukotasun eta dokumentaziorik eza kontuan hartzen bada, erraz ulertzen da barne irizpide semantiko eta formalak bakarrik dauzkagula mailebuen sarrera garaia ezagutzeko eta gauzak ez direla beti sinpleak izaten:

² Jakina den legez, latinez ia palatalik ez bazegoen ere, «(...) on assiste, au moment de la naissance des langues romanes, à une véritable éclosion de consonnes palatales». (Straka 1965, 118).

³ Mailebuen balioa azpimarratzen du Mitxelena-k esaten duenean «(...) sólo dos capas o estratos del léxico vasco se someten con fruto a una investigación acerca de su origen. Tenemos, de una parte, los significantes complejos (...). De la otra, es posible identificar una parte de todo aquello que la lengua ha ido tomando de las vecinas en el curso de los dos últimos milenios más o menos: se trata naturalmente de términos y morfemas que en cuanto a su procedencia inmediata, la única que nos interesa aquí son de origen latino-románico» (M 1964, 93-94).

«Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento».

M 1974, 185-186.

Baina aipatu dokumentazio faltagatik, ez da beti erraza jakiten noiz edo noizdanik diren emankor euskarazko bilakabide fonologikoak. Horrela, batzuetan ezin izaten da arrazoi posibleen artean bakarra aukeratu: aldaera belaredun eta txistukaridunak dituzten *zima/(t)xima/kima* bezalako hitzetan, ez dago garbi aldaerak bustidura adierazgarriren baten ondorio diren ala erromantzezko palatalizazio sintagmatikoarenak (cf. FHV 296).

Hemen dagokigunaz adibide zehatz bat ematearren, aipa daiteke nola latinetikako mailebuen bidez nabarmentzen den euskararen despalatalizazio joera bat, alegia, oinarritzko palatalak eratorritzat hartuz bustidurarik gabeko aldaerak sortzen dituen (cf. II.4.2. eta IV.2.). Horrela esplikatzen da, esate baterako, ig. *deus*, lat. *genus*-etik sortutako *jeus*-en oinarritua (cf. M 1974, 195 garai ezberdineko mailebutzat hartzeko aukeraz); era berean aztertu behar dira *lazatu*, *induria*, e.a. (cf. FHV 184, 519). Despalatalizazio hau ez da mailebuetan bakarrik gertatzen, noski (cf. *deitzi*, *deutsi*, e.a.), baina mailebuek jatorri ezezaguneko hitzek eskaintzen ez duten ziurtasuna dakarkigute bilakaeraren norabidea finkatzeko orduan (ik. IV.2).

Mailebuen jatorri ezaguna dela eta, euskalkien arteko zenbait bereizkuntza ere azpimarratzen dira (cf. *liñu*, *liho*, *ligu*, e.a.: M 1974, 197-198). Halaber, jatorri bereko eta arrazoi garbirik gabeko aldaeren irregulartasuna nondik norakoa den finkatzeko bidea izan daitezke mailebuak. Badakigu, esate baterako, *soñu* (desp. > *soinu*) eta *mirakullu* hitzetako bustidura zerbaitegatik euskaraz sortua dela (cf. lat. *sonu-*, *miraculu-*) eta ez dagoela, gainera, asimilazioz azaltzerik ⁴.

Mailebuz sartutakoez gain, badira asimilazioz edo arrazoi adierazgarrien bidez azaltzen ez diren beste batzuk ere. Ez dira ahaztu behar epentesi edo eransketaz sortutako kontsonante palatalak (cf. G *mendiya*, *biyotza*, B *mendixa*, e.a.). Badaude katea fonikoko beste palatalen baten iraupenaren (*perseveración*) ordaintzat har daitezkeenak ere (cf. M 1978, 402: «-vaño ... ñok»). Baita ere, noski, ondorengo kontsonante palatalak sabaikaltzen dituen ozenak ere (cf. Navarro Tomás 1925, 628 edo Holmer / Abrahamson 1968, 96, e.a.) ⁵. Azken honek, agertzen duen erabateko automatikotasunagatik, ez du zailtasunik eskaintzen sailkapen fonologikoaren orduan. Badaude aipatuez gainera ageriko arrazoirik gabeak (cf. *intxaur*). Guztiok bustidura adierazgarria edo asimilaziozkoa finkatu eta mugatzeko baliagarri izan daitezkeen heinean bakarrik izango dira kontuan hemen.

⁴ Adibideotan bustidura adierazgarria dela pentsatzea zaila bada ere, garbi dago euskarazko bustiduraren gertakortasunak ilundu egin duela zenbaitetan hitzen historia (cf. M 1974, 198).

⁵ Cf., halaber, gazt. *an[t]o*, *cin[t]o*, esate baterako.

V.2. Kontsonante palatalen zenbait ezaugarri

V.2.0. Atal honetan euskaraz gertatzen diren hots palatalen zenbait ezaugarri sinkroniko eta diakroniko, fonetiko eta bestelako, nahi dira azaldu hotsez hots. Fonetikaren aldetik, bestek egindako azterketen ondorioak, hemen dagokigun fonologiazko ikerketa argitzen duten neurrian, jasotzen dira ⁶. Badaude diferentziak hots busti batetik bestera, baina denak elkartzen dituen da maila bateko edo besteko palataaltasuna, hain zuzen ere, palataaltasun hori agertzen ez duen hots sailaren menpeko bihurtzen dituen. Hauxe da, batez ere, bustiduraz aritzean kontuan izan dena. Azkue-ren (1919, 460) definizioak daukan egiantzekotasun eskasak egiztatzen du ez zitzaiela jaramon handirik egiten xehetasun fonetikoei: «Es un fenómeno o grupo de fenómenos, éste de la palatalización, producido por la lengua al tocar con su centro el velo del paladar (...)» [azpimarratua, gurea]. Eta, egia esan, zenbait bereizkuntza fonetiko ez dira garrantzizkoak hizkuntzaren fonologia aztertzeke, esate baterako sabaiko eta sabaiaurrekoen arteko diferentzia. Ladefoged-en (1971, 39-40) iritzia hitzez hitz aldatuta:

«(...) it is often hard to decide whether a given sound should be classified as a palatoalveolar or a palatal. In fact, it seems probable that no language distinguishes between sounds simply by one being a palatal and the other a palatoalveolar. All the languages which use these two articulatory positions (...) either have affricates in the one position and stops in the other, or in some other way supplement the contrasts in place of articulation. We may have no justification for attempting to distinguish between these two categories».

⁶ Euskal Filologi Sailak aurki izango duen laboratorio fonetikoak alor hau osatuko duten ikerketak egiteko aukera pare gabea emango digu zalantzarik gabe.

Azken buruan, hots hauen jokabide fonologikoa da elkartzen dituen eta hizkuntzaren sistemaren barruan azpisail bezala definitzen dituen. Bestela esanda, guztietan dagoela bakoitzaren kide bustigabearekiko gutxieneko bereizkuntza. Gutxieneko bereizkuntza horren zenbait xehetasun fonetiko aldatu egiten dira hizkera batetik bestera, belaunalditik belaunaldira, hiztun batetik bestera (cf. ondorengo deskribapenak). Halaz ere, bustiduraren kontraste eta aurkakotasunak ez dira galtzen aipatu gutxienekoari eusten zaion bitartean. Esate baterako, hots bustien artikulatzaileen elkar ukitzea haundia dela esaten denean, gakoa ez datza neurri absoluto edo erabatekoan, dagokion oinarritzko hotsarena baino haundiagoa izatean baizik:

«(...) la surface sur laquelle la langue s'appuie contre le palais est toujours sensiblement plus grande pour une palatale (...) que pour une consonne non palatale, antérieure ou postérieure, qui lui est comparable(...)».

Straka 1965, 120 [azpimarratua, gurea].

Sistemaren egituraketa nola antolatzen den ikusteko, beraz, garrantzizkoa da bustikuntza egon denean hots palatal bakoitza zein hotsi dagokion. Izan ere, ez da beti jazotzen hots palatal bakoitza oinarritzko hots bakarraren ordain izatea. Ikusiko den bezala, batzuetan hots palatal bera izan daiteke zenbaiten palatalizazioaren fruitu (adib., $r, \mathfrak{r} > \mathfrak{r}$). Aldiz, badago bustidura era diferentetan gauza dezakeenik ere (adib., $t > \mathfrak{t}, \mathfrak{t}\mathfrak{f}$).

V.2.1.- [ɸ] sabaiko albokoa (<il, ll>)

Ikuspuntu guztietatik (cf. I.1) hots bustia: artikulatzaileen arteko ukitzea zabala delako eta indar handiz ebakitzen delako (cf. Larrasquet 1932, 161). Navarro Tomás-en (1925, 630) arauera: «La **ɸ** o **ll**, es, como en español, dorsopalatal lateral sonora. La adherencia del dorso de la lengua contra el cielo de la boca deja en el paladar artificial una extensa huella, análoga a la de los sonidos **t**, **d**, **n**».

Hortz hobietako alboko eta sudurkariak izan ohi dira kontsonanteen artean errazen palatalizatu edo sabaikaltzen direnak era bateko edo besteko asimilazioen arauera (Straka 1965, 128). Ez da honelakorik gertatzen, noski, palatalizazio bilakabidea beste ahoskune bati badagokio (belareei, adibidez) edo ozenak bustigaien klasetik kanpo badaude. Euskaraz palatalizazioa hortz hobietako kontsonanteei ezartzen zaie eta, Straka-k esan bezalaxe, ozen sudurkari eta albokoarena da oparoen.

Erromantzezko alboko palatalaren ondorioa ere izan daiteke dena dela euskarazkoaren jatorria (***lj**, **k'l** edo beste: ik. VII.1.). Latinezko alboko geminatuaren ondorio erregularra euskaraz **l** sinple hortz-hobietakoa bada ere (cf. *gela* < *cella*, *palatu* < *uallatum*: FHV 320), aurki daiteke [ɸ] palatala goiz erromanizaturikako lurraldeetan batez ere (FHV 322, 550).

Alboko palatala frikari palatalaren indartzearen ordaina ere izan daitekeela dirudi. Horrela azaltzen ditu Mitxelena-k (FHV 176, 16. oh.) G (Oihartzun) *ereillero* (< *erein*), B *seillaste* 'semana sin

fiesta' (cf. *señaste*) eta VII.1.29.ean jasotzen den **erdolla** (cf. 94. **sendagalla** ere).

V.2.2.- [ŋ] sabaiko sudurkaria (<in, ñ>)

Gehienen ustez, hots hau erabat palatala da. Larrasquet-en arauera, gazteleraz ñ edo frantsesez gn idazten dena bezalakoxea da (Larrasquet 1931, 231). Navarro Tomás-en (1925, 629) ikerketa fonetikoen ondorioz ere: «El sonido **ŋ** escrito **n** o **ñ**, se produce con amplia adherencia dorsopalatal. La huella de esta adherencia en el paladar artificial es muy semejante a la de **t̪**, **ɖ**».

Sudurkarien bustikuntza asemikoa dela eta, badago zeresanik hizkuntzaren beste zenbait bilakabide fonologikoz. Kontuan hartu behar da, esate baterako, kontsonante aurreko sudurkarien ahoskunea hurrengo kontsonanteak baldintzatzen duela eta batzuetan honek bustidura asimilazioaren kontra jotzen duela (ik., hontaz, goragoko III.7. eta II.4.2.).

Hurrengo kontsonantearekiko asimilazioak batzuetan asimilazioa eragotzi (Kiparsky-ren *bleeding*) dezakeen bitartean, badago gertatzeko aukera eman (*feeding*) diezaiokeen bilakabidea: kontsonante sudurkariak hitz berean beste sudurkari bat sortzea. Honela azaltzen dira *premiña* edo *tximino* (Deba *tximiño*) hitzetako bigarren sudurkariak, esate baterako (FHV 305).

Bokalarteko sudurkaria desagertzeak ere badu zerikusirik asimilazio bustiduraren nondik norakoekin. Euskalki guztietan

gertatu bide den bilakabide zahar hau erabat emankorra eta automatikoa izan zen garai batean, baina iritsi zitzaien nonbait etena eta zenbait kasutan galdutako kontsonante sudurkariak berriro agertu ziren bokaletan utzitako arrasto sudurkaria osorik suntsitu aurretik (cf. FHV 303-304). Mitxelena-k azaltzen duen bezala i-ren ondorena izan zen sudurkaria berragertu zen ingurunetako bat (loc. cit.). Ingurune honetan ber-sortzen den sudurkaria palatala izateak esan nahi du garai hartan sudurkarien asimilazio bustidura bilakabide fonologiko oparoa zela ingurune horretan behintzat, hizkuntzan sortzen diren hots kate berriak ere baldintzatzen bait ditu. Badirudi n-aren berragertzeak izan zuela zerikusirik silaba zenbakiarekin, beharbada azentuarekin, eta honek esplikatu lezake agian mendebaldeko eta ekialderagoko euskaren arteko diferentzia. Alegia, bizkaieraz ia edozein silabetan sor daitekeela sudurkaria, ekialderago berriz lehendabiziko eta bigarren silaben artean aurkitzen dela gehien bat delako sudurkaria. Salbuespenak daude, noski, eta gipuzkeraz batipat era guztietako formak daude (cf. G *kamio*, *kamiño*; Err. *burruiña*).

Zaila da zalantzarik gabeko esplikazioak ematea, baina arazoa aipatu behintzat egin behar da. Hain zuzen ere honen inguruan egon daiteke Baztango euskaraz bokalaren ondoren ere bustita azaltzen diren sudurkari horien azalpidea (cf. VI.5.). Aipatzekoa da, bide batez, Baztango **ɲ** horren iraupenak Straka-k Roudet eta Rousselot-engandik jasotzen duen ideia egiztatzen duela: **ɲ** hots egonkorra dela oso (Straka 1965, 148). Kasu honetan, Baztango bokalerdiaren ondorengo asimilazio erregela ilundu egiten duela esan daiteke,

Kiparsky-ren opakotasuna oinarri hartuta, asimilazioak sortzen ez dituen kate "asimilatuak" gordeaz ⁷.

Era askotan azaltzen dira sudurkari bustiaren egonkortasunaren ondorio izan daitezkeenak. Azterketa sakon eta zintzoa egin aurretik ezin da ezer ziurtzat eman, baina ateak ireikitzen ari garen honetan aipatu behintzat egin behar da beste datu bat. Hau ere bustiduntzarekin topo egiten duten bilakabide-etako batetik datorkigu: *i*-ren ondorengo bustiduraren neutralizaziotik (cf., adib., M 1967, 174 edo II.4.2.). Badirudi normalean ematen diren adibideak albokoarenak direla. Lan honetan jasoak ere halakoak dira (cf., dena den, *sinistu*, *ipini*, e.a.). Sendoagoa da, beraz, neutralizagaitzagoa sudurkariaren asimilazioa? Baietz ematen du eta, entzumenaren aldetik --inpresio maila hutsean-- erraz onartzen da: askoz errazago bereizten da *iñi/ini* kontrastea, *iii/iii* baino, bigarren silabatik aurrera batez ere.

Hots bustien adierazgarritasuna dela eta, ozenez **!** hotsaz esaten denaren kontrakoa esan behar da: indar adierazgarri txikiena dutenak dira. Ziurraski badu honekin zerikusirik ozenak izateak bustidura asemikoan oparoen direnak. Baina, beharbada, gauzak ez dira beti honela izan. Izan ere, badirudi hiztegiko zenbait ale zaharretan agertzen den *-n(h)-/-in(h)-/-ñ-* txandakatzea sudurkariaren bustidura adierazgarriren baten fruitu izan daitekeela (FHV 307: *soñu*, *laño*, e.a.) ⁸. Goraxeago aipatu sudurkari palatalaren egonkortasunak esplikatu lezake, sortu zuten arrazoi adierazgarriak galduta ere, bustidurak irautea hitzotan.

⁷ Despalatalizazioa duten euskalkiek ez dute, noski, hau deuseztatzen. Palatalen desagertzeak ez du frogatzen sudurkariaren besteekiko ahulezia.

⁸ Bokal artean desagertzen ez den sudurkariaren ari gara, noski. Txandakatzearen zehaztasunak ez dira hemen ematen, besterik gabe egon daitezkeen interferentziak aipatu nahi direlako.

V.2.3.- [ɖ] sabaiko herskari ahostuna (<i(l,n)d, dd>) ⁹

Hots hau herskari palatal ahostuna dugu. Zenbait ingurunetan (bokal artean) igurzkari izaten da, kontrako arrazoirik ez badago (arrazoi adierazgarriren bat, alegia). Bizkaieraz **i** eta kontsonante bustigai baten ondoren afrikatzeraino iritsi daiteke (FHV 190); ezin da ahaztu ozenek bestetan ere izan dezaketen indar afrikatzailea. Navarro Tomás-en (1923, 55) arauera:

«Sin duda, en el sonido vasco la proporción entre la parte oclusiva y la fricativa era menos fija y regular que en la **j** española. Mis transcripciones vacilaron con frecuencia entre esta **j** y una variante **ɖ** más oclusiva que africada».

Ahoscuneari dagokionean, ez dirudi beti palatal garbia denik. Larrasquet-en hitzetan zubererazko **ɖ** «palato-dentale sonore mouillée» da (Larrasquet 1932, 164). Aldiz, Navarro Tomás-ek Gernikan jasotzen dituenen artean bi tankeratakoak bereizten ditu. Informatzaille batena bestearena baino palatalagoa (ahoa barrurago ahoskatua) eta afrikatuagoa da. Bereizkuntza ez omen da honen kide ahoskabearen kasuan bezain nabaria (ik. beheraxeago **ɖ**). Gipuzkeraz aurkitzen dituen aldaera ugari guztiek omen dituzte honako ezaugarriok: mihi muturrak beheko hortzak ikutzen ditu, mihi bizkarra borobilduaz ahosabairantz igotzen da eta timbre bigun edo leuna dute (Navarro Tomás 1925, 623). Oihenart-ek ere, *Amandi* hitza adibide daukalarik, azpimarkatzen du hortzak artikulatzaille direla **d** bustiaren ebakeran (Oihenart 1936 [1657], 209). Rollo-rentzat (1925, 3) ingeleraz "I bind you" esatean **d**

⁹ Jakina da **d**-ren kide bustia frikari ere izan daitekeela, aldaera frikaria alofonotzat hartzen delako erabiltzen da batipat *hetskari* deitura sailkapen eta zerrendetan.

palatalizatu egiten bada gertatzen den berbera da (afrikatzera iritsi daitekeen herskari ahostun palatala).

Hots honen transkripziorako euskaraz erabiltzen diren ikurrak **d** izaten dute oinarri. Izan ere euskaraz hots hau sarri oinarritzko **d** baten bustidura adierazgarri edo asimilatua izaten da (cf. *bil[d]ur/ bildur*, *in[d]er/ inder*, *an[d]ereder* 'comadreja' / *andere eder*)¹⁰. Adibideak gutxi izan arren, badirudi belare ahostunen aldaera bustia ere izan daitekeela. Horrela azaldu izan dira behintzat zenbait forma, bustidurak erregularki aldatzen duen klasetik kanpo badaude ere (cf. III.6). Gavel-ek (1920, 415), esate baterako *iñurri*-ren bustidura **d** edo **g**-ren bustidura dela eta esplikatzen du (cf. *txindurri*, *txingurri*).

Hemen kokatzen dira *iyo* 'subir', 'moler' (< *igo*), *iyortzi* (< *igortzi*) -- *fiyatu* '(con)fiado' (< *fidatu*), *giyatu* 'guiado' (< *gidatu*) bezalakoekin batera-- (cf. FHV 190). Bokalarteko kenketa eta eransketarenak **g** belarearentzat eta **d** hortzetakoarentzat berdin balio du, noski (cf. III.6. **d**-ren bokal arteko bustiduraz). Izan ere askotan dabilta batera euskal fonologian **d** eta **g**.

Jakina den bezala, hots hau, **i** eta beste bokal baten arteko epentesiaren ondorio ere izan daiteke gipuzkeraz (cf. *biyotza*, *kamiyua*, *mendiya*). Hitz erroaren eta mugatzailearen artean gertatu ohi delako, maiztasun handiko bilakabidea da. Zalantzarik gabe, egungo euskaran ere emankortasun handikoa den erregela dugu. Epentesi edo eransketaren ondorio den hots hau igurzkaria izan ohi da, baina herskari edo afrikatu ere izatera iristen omen da **i**-z

¹⁰ Asimilazio atzekaritzat har daitekeena ere (cf. III.4) gertatzen da aditz joko alokutiboan herskari palatal ahostuna sortuz: *diagok* > *yagok*, e.a. (cf. Azkue 1919, 471).

amaitutako diptongo eta bokalaren artean sortzen denean (cf. Navarro Tomás 1925, 600, 623-624: cf. *beiya*, *jaiya*) ¹¹. Sail honetan sartu behar da zubereraz bokal artean agertzen den **j** delakoa (ik. V.2.5. Err. **j** den honetaz).

Bustidura adierazgarriaren eremuan (**i**-k sortu ez duen neurrian adierazgarri), **r**-ren aldaera ere izan daitekeela dirudi (FHV 556: *ura* > *udda*). Hemen ere, belarearen kasuan bezala, kontuan izan behar da bokal arteko **r** bakunak eta bokal arteko **d**-k zenbait ezaugarri amankomunean dauzkatela eta maiz gerta daitezkeela bata bestearen ordeztuz (cf. *edo/ero*, *edan/eran*, e.a.). Nahaste honek izan dezake zerikusirik **r** > **dd** aldaketan.

Yod izenpean sar genitzakeenen fruitu ere izan ohi da zenbaitetan, baina horrelakoetan ez dira **d**-ren kideak erabiltzen transkripziorako. Hala nola, hitz hasierako *yoanedo* *joan*, *yabe* *edo* *jabe*. Baita ere, oraintsu aipatu epentesia: G *mendiya*, *ogiya*, *biyotza*, e.a., eta, oro har GN eta G-ko bokal arteko **i**-ren ahoskera: «muy aproximadamente la del cast. **y** entre vocales en Castilla la Vieja» (FHV 175).

Jatorriaren bikoiztasunak eta grafikoki isladatzeko moduak bultzatzen bide dute bat baino gehiago hots diferentziak bilatzera ez dauden lekuan. Adib., Azkue-k (1919, 458) **d** sabaikaldu edo palatalizatua eta «la **y** llamada griega bereizten ez dutenez hitz egiten du. Halaber, *yoan* eta *~doaren* arteko alde eskasa aipatzen du (op. cit. 463). Era berean, Gavel-ek ere **nj** eta **nā** -ren artean diferentzia (txikia) dagoela edierazten du (Gavel 1920, 415). Bestela azaltzen dituzte gauzak Holmer/Abrahamson-ek (1968, 94-

¹¹ Ikuspuntu sinkronikotik hartzen da bilakabide hau epentesi edo eransketatzat. Bilakabideen tipologian, hizkera arduragabeen ugaritu egiten direnetarikoa dugu eta "berezko" **i**-ren ondoren bakarrik gertatzen direnetarikoa, baina hau beste lan baterako gai litzateke.

95), fonetikaren aldetik transkripzio biek hots bera jasotzen dutela erabat garbi esaten ez badute ere.

V.2.4.- [t̪] sabaiko herskari ahoskabea (<it, tt>)

Amado Alonso-ren (1923, 64) ustez t̪-ren distribuzio edo banaketa euskal hizkuntzalaritzaren punturik interesgarrienetakoa litzateke. Navarro Tomás-ek ere ikerketa honekin euskara hobeto ezagutu eta gazteleraren fonetikaren zenbait alor ilun aztertu ahal izango zirela dio (Navarro Tomás 1921, 40). Izan ere, besteekin erkatuta, gutxi erabiltzen den hotsa dela esan daiteke. Bestalde, ordea, erabilkera konplexua du oso eta asko idatzi daiteke edo idatzi beharko litzateke euskalki eta hizkera bakoitzean duen balioaz. Honelako gauzak, noski, maiztasunarekin zerikusi haundia izaten dute, gertakortasunaren pisua ez bait da makala hizkuntzaren eredu fonologikoa egituratzeko orduan.

Fonetikaren aldetik hots hau sabaiko herskari ahoskabetzat hartu ohi da. Baina aldakorra azaltzen da oso lehenengo ezaugarri biei dagokienean. Alde batetik eta aztertu dutenek diotenaren arauera, kontsonante honen palataeltasun maila ez da beti eta leku guztietan berdina. Bestetik, nabarmena da hots honen afrikatzeko joera eta erraztasuna (cf. Navarro Tomás 1925, 624-625).

Navarro Tomás-ek (1923, 54) Gernikan bi motatako t̪ bereizten ditu ahoskunea dela eta:

«La articulación de P. [informatzailea] fue mediopalatal; la de O. postpalatal; ambas, por supuesto,

dorsales, sordas, mojas. La articulación de P. sugería aún el timbre de una **t**; la de O. hacía pensar más bien en una **k**. En uno y otro había vacilación en cuanto al carácter más o menos africado del sonido, influyendo mucho en este punto el esmero o la fuerza de la articulación».

Gipuzkerazko ahoskera aztertzen ari dela, Lesakar batengan aurkitzen du **t**-tik gertuen dagoen **t̪**. Are gehiago, lesakarraren **t̪** hori ez omen zen berez palatala: «pronunciaba dicha **t̪** con la parte más anterior del dorso de la lengua contra los dientes y los alvéolos» (Navarro Tomás 1925, 625) ¹². Tolosan, berriz, nahiz eta ahoskune nagusia lesakarrarena bera izan, hersketa aho sabairantz hedatzen da. Tolosako **t̪**-ren afrikatzeko joera Lesakakoarena baino nabarmenagoa omen zen. Alkiza-ko **t̪** gainerakoekin erkatzean ere adierazten du nola hots honek palataltasun handiagoarekin batera afrikatzeko joera bortitzagoa agertzen duen. Halaber, Amado Alonso-k (1923, 63-64) azterketa fonetiko zehatz baten ondoren, adierazten du nola Baztango **t̪** «es, más bien, una **t** predorso-alveolar» eta ez den beste zenbait lekutan bezala afrikatzen. Merezki du azterketaren puntu honetaz erreparatzeak, baduelako garrantzirik **t̪** eta **t̪ʃ**-ren arteko erlazioa ulertzeko.

Ez da euskaraz bakarrik gertatzen herskari palatala afrikatu bihurtzeko joera. Straka-ren (1965, 134) arauera, hizkuntza erromaniko eta eslaboetan jasotzen dira tankera honetako aldaketak (cf. polskeraz Dressler 1985a, 192 hh). Beste hainbeste esan daiteke Rollo-k fonetikaren aldetik euskarazkoarekin parekatzen duen ingelerazko **t** palatalizatuaz ("I bet you": Rollo 1925, 3). Ez da harritzekoa, gainera, hizkuntza guztiek

¹² Cf. afrikatuaren palataltasun garbirik (txitxikaritasunik) ezaz, Navarro Tomás 1921, 39. Baita ere, hotzetatik aho sabairainoko ahoskunearen etengabetasunaz, loc. cit. 40.

amankomunean dituzten baldintza fonetikoekin estu lotuta dagoen fenomenoa dela kontuan izanez gero:

«The palatal stops in many languages tend to be more affricated than the others, perhaps because of the mechanical difficulty of quickly withdrawing the front of the tongue, which often contacts a large area of the roof of the mouth in the formation of these stops».

Ladefoged 1971, 41.

Garbi ikusten da hemen ahoskeraren mekanikak zer eragin izan dezakeen bilakabide fonologikoen nondik-norakoetan. Badirudi mihi bizkar eta aho sabaiaaren artean "errazagoa" dela afrikatua ebakitzea herskaria ebakitzea baino, nolabait esan. Artikulatzailen nolakotasuna aintzakotzat hartzen bada, ulertzen da hersketa garbia egitea mihi muturra erabiltzen denean baino zailagoa izatea, esate baterako. Izan ere hersketaren laxaketa bait da artikulazio modu herskaria afrikatutik bereizten duena: herskarietan bapateko eta erabatekoa dena, afrikatuetan luzatu eta mailakatua jazotzen da, itxitik ireikira igurtziaren bitartez igaroaz. Garbi dago mihi bizkarra muturra baino baldarragoa dela eta sabaikarien ahoskeran beste zenbait hotsenean baino zabalagoa dela artikulatzaileen elkar ikuitzea. Aho sabaiaaren nolakotasunak ere badu garrantzia herskari palatalen afrikatzeko joera honetan, Straka-k (1965, 133-134) azaltzen duen bezala.

Kontua da hiztunak ahalegin haundiagoa egin behar duela aho sabaian hersketa garbia ahoskatzeko eta errazagoa gertatzen zaiola ebakera afrikatzea (neurri handi edo txikiagoan). Hortik, beharbada, Navarro Tomás-ek Tolosa-ko euskaraz dioena, alegia, **t̪ / t̪ʃ** aldaeren artean bigarrena hautatzea hiztun ez ikasien artean eta batipat hizkera lasaian gertatzen dela. Bestalde, akustikaren ikuspuntutik, Nichols-ek gogora erazten digu afrikatzeak entzun-

garriago bihurtzen dituela kontsonantearen maiztasunak (ik. V.2.6. ere). Wiyot hizkuntzak etekina ateratzen dio bereizkuntza honi eta afrikatuz kontsonanteen adierazgarritasuna areagotzen du (Nichols 1971, 830) ¹³.

Badago gainera oso garrantzizkoa den beste laguntza bat **t̪** afrikatzeko orduan: gazteleraren eragina. Gazteleraz, beste zenbait hizkuntzetan gertatu ohi den bezala, ez dago herskari palatalik, baina bai afrikatua ¹⁴. Ez da hau lekuri aproposena gaztelera eta euskararen arteko hartuemanen historia eta egoeraz aritzeko. Orain dagokigunerako, nahikoa da arras ezaguna dena eta inork zalantzan jarriko ez lukeena, alegia, gazteleraren eredu fonologikoak hein batean behintzat euskaldunaren ahoskera baldintzatzen duela. Ez da txantxetakoa bizkaieraz egotea hedatuen herskari palatal ahoskabearen afrikatzea ¹⁵.

Azkue-k salatu zuen **t̪** -ren afrikatzea Bizkaiko zenbait lekutan jadanik 1918.ean (cf. Azkue 1919, 463, 2. oh.). Berak zioenez, oraindik aldaketa leku gutxitan gertatzen zen bustidura asemikoari zegokionean. Mitxelena-k adierazten duen legez (FHV 186-187), batez ere bizkaiera hitz egiten den lekuetako aldaketa izanik, [t̪] gordetzen duten euskalkietan ere beste euskalkitako [t̪] edo [t]-ren ordeztu [t̪] erabiltzen da hitz batzuetan (cf. *txiki*, *gutxi*, *-txo*, e.a. ik.

¹³ Dressler-en (1985a, 171-172 hh) aldaketa fonologikoen sailkapenean, herskariak sabaiko afrikatu bihurtzea bi urratseko bilakabidea da. Izan ere *input* eta *output*-aren arteko distantzia handiegia da bilakabide sinple batek jasotzeko. Afrikatzea ez da *backgrounding* aldaketa, palatalizazioa bai. Esan genezake afrikatzea bilkabide paradigmaticoa dela, bestea berriz, sintagmaticoa.

¹⁴ Ik. VII.4.217. **attuna**: agian, erromantzeak izan du inoiz herskaria.

¹⁵ Edo Moutard-en ikerketen arabera (Moutard 1976, 12-13) Andoainen Urnietan baino galduagoa egotea herskaria afrikatuaren alde. Aipagarria da aurkitzen duen herskari bakarra bustidura asemikoa izatea (*dllu*). Azkue-k bustidura honetaz esanarekin bat bait dator (cf. ondorengo lerrokada).

VII.). Ez omen da erraza horrelakoetan afrikatua ala herskaria den oinarritzkoa erabakitzea. Dena dela, badirudi erdararen eragina eta fonetikazko baldintzak herskaria oinarritzkotzat hartzearen alde leudekeela.

Holmer/Abrahamson-ek (1968, 95) gazteleraren eraginari atxekitzen diote erabat euskarazko $\text{t} > \text{tj}$ aldaketa. Beraiek jasotako ahoskeretan herskaria eta afrikatuaren arteko zerbait entzun omen daiteke zenbaitetan (afrikatu txistukarien bustikuntzaren ordain bezala ere ager daitekeena, gainera). Beraz, elebidunengan aldaketak itxi gabeko bilakabideen ezaugarriak eskaintzen zituen. Izan ere, euskararen kasuan, elebidunen ebakera izan daiteke fonetikoki ereinda dagoen aldakuntza honen baratza.

Euskalkiak aztertu eta hots honetaz zerbait esaten dutenak, bat datoz hotsaren maiztasun eskasean. Gainera, ia beti, t esanahiarekin erlazionatzen dute, erlazioaz zehaztasun handirik ematen ez bada ere. Amado Alonso-k, Baztango euskaraz ari dela, onomatopeia bat (*tapa tapa*), izen propio bihozkorrak (*Antoni, Vitor*), atzizki diminutiboak eta zenbait hitz adierazgarri aipatzen ditu. *Gizon tarra/talla*-ren kasuan eskaintzen du oinarritzko forma (*gizon zarra*) eta esanahi aldaketa. Baina hots hau agertzea bera, pare batean ez bada ere (ik. IV.3. adierazgarritasunaren baldintzez), oso erraz suertatzen da adierazgarri.

Esan ohi da t dela hotsik adierazgarriena euskaraz eta ez da hau uste hutsa. Alde batetik, gainerako palatalek baino iturbide mugatuagoa du. Ezin da hots hau mailebuz sartua izan, aspalditik behintzat, inguruko erdaretan ez bait da honelako hotsik. Epentesiak edo bestelako bilakabideek ere ez dute hots hau sortzen

euskaraz. Beraz, **t̪** agertzen denean, beti eman daiteke ia ziurtzat bustidura adierazgarria edo asimilaziozkoa gertatu direla. Esan den bezala (IV.3), sarri bustidura adierazgarritzat hartutakoak ez dute izen hori merezi. Haatik, **t̪**-ren agerraldiak beste hots bustienak baino askoz gutxiago izanik, askoz garbiago ikusten da hotsa hiztegiaren azpi-atal adierazgarrian gertatzen dela ¹⁶.

Beharbada, sailkapenak estu lotu nahi izanez gero, egokiagoa litzateke, bustidurarik gabeko parerik erabiltzen ez denean behintzat, "fonema" adierazgarriaz hitz egitea bilakabide fonologiko adierazgarriaz aritu beharrean. Afrikatu sabaiaurrekoarena bezalaxe (ik. beheragoko V.2.6. zatia), hots honen erabilkera hau bustiduraren balio adierazgarriarekin dago lotua. Agian esan liteke, gehiegizko ausardiarik gabe, bustiduraren balio adierazgarritik datorkiola hain zuzen ere ahoskerari ematen dion kolore semantikoa erabat bustiduraren barruan funtzionatzen ez duenean ere. Euskarazko "fonema" adierazgarrien jatorria errazago susma daiteke, nootkazko kantu eta erritualetako beste zenbaitena baino (cf. Stankiewicz 1972, 250). Badirudi honelako "fonemak" askotan inguruko hizkuntzetatik hartuak izaten direla (cf. Sapir 1915). Stankiewicz-ek *sound foreignism* delakoaren balio adierazgarriaz hitz egiten du, baina sailkapenean ez du "fonema" adierazgarriarenarekin batzen ¹⁷.

t̪ ez da beti eta bakarrik **t**-ren kide bustia. Beste zenbait fonemen bustiduraren emaitza ere izan daiteke. Honexegatik azal

¹⁶ Ez da, noski, kobeliarrez hitz bakarrean (*d'ablik* 'devil') gertatzen den **ɣ** bezain mugatua (Stankiewicz 1972, 251).

¹⁷ *Fonema* hitza komatxo artean idaztea Stankiewicz-engandik jaso da. Honelakoetan ez da gauza segurua hots palatalak fonema diren ala ez (aztertzea luzeegia litzateke hemen sartzeko).

dezake Gavel-ek zenbait hitz elkartutako **d, g > t** aldaketa **t** tartekotzat proposatuz (gauzak hemen agertu baino korapilotuagoak dira, noski: cf Gavel 1920, 455, oh.).

V.2.5.- [ʃ] frikari sabaiaurrekoa (<is, iz, x>)

Hots hau eta bere kide afrikatua ([tʃ]) sabaiaurrekotzat hartzen dira euskarazko ahoskuneen orotariko sailkapenean. Honetan eta gauzak erabat harturik, euskarazko hots palatalak Ladefoged-en eskemari egokitzen zaizkio. Maila bateko edo besteko txistukaritasuna dutenak dira sabaiaurreko, besteak sabaikoak direlarik ¹⁸. Dena dela gauzak honela esatea ez da egia osoa ematea. Hizkera bakoitzeko ahoskuneak banan bana aztertzean, ikusten da, orain artekoetan bezalaxe, badagoela bereizkuntzarik txitxikarien artean ere. Berririo nabarmentzen da ahoa mutur batetik bestera etenik gabeko ahoskunea dela, ez dagoela hesi zorrotzik sailkapen fonologikoak egiteko behar ditugun puntuen artean.

Baztango euskaran, bizkaieraz ez bezala, Amado Alonso-ren arauera, erabat palatala da (eta ez palatalizatua: cf. II.3.):

«No se trata de un matiz más palatal de la s que acabamos de describir [apikaria], sino de una articulación bastante diferente (...) fricativa, cuya mayor estrechez es de unos 4 mm. en el principio de los alvéolos; las cuerdas vocales abiertas; la punta de la lengua se apoya contra las encías y nacimiento de los dientes inferiores (...). Al oído, como al análisis presenta gran semejanza con la **ch** francesa, y se diferencia claramente de la **š** o **x** del vasco

¹⁸ Bereizkuntza hau jasotzekotan, txistukaritasuna sailkapen fonologikoaren tasun bezala onartu behar da. Badirudi euskarazko hots txistukarien jokaera eta ezaugarri fonologikoak kontuan izanda, hala izan behar duela (cf., entzumenaren tasunen erabilkeraz fonologian, Ladefoged 1971, 58).

vizcaino, que es una fuerte y extensa palatalización de la s apical»

A. Alonso 1923, 60.

Halaber, badago desberdintasunik zubererazkoa eta lapurtera edo behenafarrerazkoaren artean. Gavel-en (1920,159) arauera behintzat, zubererazkoak «a fait un pas, très court d'ailleurs, pour se rapprocher de l's» (ik., honen alde, Navarro Tomás 1925, 615-616 ere). Aitzinerago ahoskatzen da, beraz. Baina azterketa fonetiko osoagoek diotenez, erabat leku berean ahoskatzen badira ere, tankera honetako bi txistukari bereiz daitezke: Ladefoged-ek ingelerazko *sip* eta *ship* hitzen lehenengo hotsak erkatu zituenean, aurkitu zuen hiztun askok oso antzeko lekuetan abakitzen zituztela. Bereizkuntza nagusia ez zegoen, beraz, ahoskunean, baizik eta «(...) [was always associated with a wider articulatory channel and more doming (as opposed to hollowing) of the fore part of the tongue» (cf. Ladefoged 1971, 48-49). Navarro Tomás-en (1925, 616) arauera gertatzen da euskaraz ere Ladefoged-ek ingeleraz aurkitutakoa eta, honek ingelerazkoaz azaltzen duen legez, euskarazko [horretan nahitaezkoa gertatzen da «la estrechez dorsoalveolar» (Navarro Tomás-ek Grammont-engandik jasotzen duen ezaugarria).

Laburbilduz, esan behar da ohizko sailkapena, ahoskune eta tradiziozko artikulazio moduen arauera egiten dena, askotan ez dela egokia hizkuntzaren fonologian gertatzen diren aurkakotasunak isladatzeko. Hau aintzakotzat hartu behar da maiz, lan honetan bertan, maila fonologiko eta fonetikoaren artean gertatzen diren zenbait desoreka ulertuko eta konponduko badira. Egungo fonetika hasi da era honetako kezkak bereganatzen nolabait. Aipaturikako arazo fonologikoarekin lotua dago entzuleak berdintzat har

ditzakeen ahoskera ezberdinena, adibidez (cf. esate baterako, palatal ez den *t* -z, Navarro Tomás 1921, 38-39) ¹⁹.

Mitxelena irakasleak behin baino gehiagotan aipatzen duen bezala, benetan harrigarria gertatzen da *ʃ*-ren egonkortasuna euskaraz (cf., adib., FHV 170). Inon baino nabarmenagoa da hau erdararen modura *ʃ* > *x* bilakaera bete duten euskalkietan (G, batipat), aldaketa erregularra izan arren, *ʃ* ez delako erabat galdu (esan daiteke egiteko adierazgarria duenean gorde dela) ²⁰. Gainera, aldaketa hori alde batera utzita ere, badago nahikoa arrazoi sabaiaurreko hots hauen iraunkortasunaz harritzeko. Izan ere, Mitxelena-k (FHV 279, 2. oh.) Joos-en iritzia jasoaz azaltzen duen bezala, /s, *ʃ*, *ʒ*/ bezain gertu dauden hiru fonema bereiztea ez da gauza arrunta hizkuntzen sistema fonologikoen artean. Zalantzarik gabe, arrazoi bustikuntzaren nortasun fonologikoan bilatu behar da, alegia, bustikuntza sintagmatiko edo adierazgarrien ondorioekin batzen direla hots sabaiaurrekoak euskaraz ²¹.

¹⁹ Cf. Nolan 1983, 3: «(...) whilst phonetics, as a branch of linguistics, has been concerned traditionally with the realization of the abstract linguistic code, and has (with a few exceptions) seen differences between the speech of members of the same language community as noise to be abstracted away from obtaining its true data, interest in differences between speakers is now increasing: that objectively different acoustic signals from two speakers can be normalised by a hearer and perceived as the same, and that individuals may use different articulatory strategies to produce equivalent auditory effects (...) may necessitate revision in phonetic theories».

²⁰ G (eta GN)-tik kanpo ere aurkitzen da txitxikariaren belaretzea: cf. Txorierrri *ana/x/e*, *o/x/lu*, *pu/x/eta*, *ele/x/ta*, e.a. (FHV 177).

²¹ Joos-ek polskerazko palatalizazio fonemikoa eta sanskritozko palatal sail beregaina aipatzen omen ditu (loc. cit.). Euskarazko sabaikoen sendotasuna azpimarratzen du hiru ahoskuneen murriztearen norabideak, hortz-hobietako sailen artean gertatzen baita nahastea (*ʃ* < s > / s < z >).

Maiztasunaren aldetik ez da berdina euskalki guztietan. Gertakortasun handiagoa du, esate baterako, zaraitzueraz gipuzkeraz baino. Izan ere, zaraitzueraz, gipuzkeraz ez bezala, *j-ren ondorioa $\int$ izaten da eta, gainera, xuketako formak erabiltzen dira (ik. IV.3. eta VII.3.). $\int$ hotsaren maiztasuna beren hizkeraren ezaugarritzat jotzen dute zaraitzuerazko hiztunek (ik. M 1967, 166). Erronkarieraz (eta aezkeraz ere bai, baina irregularragoa da) ere *j-ren ondorioa $\int$ txitxikari ahoskabea da (ik. M 1954, 148; 1967, 171-172). Zubereraz txitxikari honen ahoskera ahostuna izan ohi da hitz hasieran; hitz barreneko bokal artean, berriz, j frikari(/irristari) ahostun ez-txitxikaria aurkitzen da (M 1964, 49-50); bereizkuntza hau gipuzkera eta bizkaieraren artean ere jazotzen da (Gipuzkoako eta Markinako B j > $\int$): cf. G *berriya*, B *barrixa*, e.a. Txitxikari ahostuna afrikatua ebakitzen da mendebaldeko bizkaieraz (cf. FHV 168-169 *j-en euskalkietako ordainez).

V.2.6.- [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa (<its, itz, tx>)

Euskaraz oso maiz gertatzen den hotsa.

Frantzia aldeko euskalkietan Espainia aldekoetako [tʃ] batzuren ordez [ʃ] aurkitzen da. Menéndez Pidal-en (1962, 32) iritzian, honek izan lezake zerikusirik gaztelerak (eta biarnokerak) [tʃ] izatearekin eta Aragoiko eta Nafarroako erromantzeek, berriz, ez izatearekin.

Navarro Tomás-en (1921, 39) arauera afrikatu txitxikaria dugu, gaztelerazkoa bezalaxe (ez ordea **t** -ren afrikazioaren ondorio dena). Erabat palatala da, beraz, eta inola ere ez hortzetakoa. Amado Alonso-k (1923, 60) Baztangoaz esaten du, gaztelerazkoaren tankerakoa dela baina zertxobait aitzineratua:

«(...) la punta no pende hacia los dientes inferiores, como en la *ch* española de *mucho, hecho*, y, dentro del vasco, en la guipuzcoana de *etxea*, sino que se apoya en su cara interna, lo que ocasiona una posición algo más avanzada de la articulación (...) el dorso lingual se eleva contra el paladar alto, con el cual forma una ancha fricación. Esta tendencia a hacer dorsal la articulación, no se nota en el español correcto».

Gipuzkerazkoa palatalagoa litzateke, beraz. Amado Alonso (1923, 62) berak dakar honekin lotua egon daitekeena. Alegia, afrikatu apikaria ere gipuzkeraz Baztangoa baino "bustiagoa" dela, funtsean ahoskunea bera bada ere. Kontuan izan behar da zenbaitetan, baldintzak erabat garbi ez egon arren, apikaria sabaiaurrekoaren oinarritzko aldaera dela (cf. *itxaso, itxu, itxusi/itsaso, itsu, itsusi*)

Navarro Tomás-ek (1925, 621) afrikatuaren osagai biak bereizten ditu ahoskuneari dagokionean:

«La oclusión de la **ʃ** termina al despegarse de los alvéolos la parte anterior de la lengua, pero la estrechez formada entre el dorso y el prepaladar no cesa en ese mismo punto, sino que continúa durante unas centésimas de segundo, lo cual hace que la articulación de la **ʃ**, no obstante haber empezado como alveolar oclusiva, termine propiamente como fricativa palatal (...)».

Gainera, Navarro Tomás-ek adierazten du nola hersketa maila eta ahoskunea aldatu egin daitezkeen hizkeraren abiadura, indarra eta enfasiaren arauera (loc. cit.).

Oso maiz gertatzen den hots bati dagokionaren arauera, [tʃ]-ren nortasun fonologikoa ez da sinplea. Palatalizazioaren ondorio izan daiteke, baina ez beti. Nabaria da, mailebuetan ezik, hots hau sekundarioa dela gehienetan behintzat --paradigma eratorrietakoa dela, alegia--, ia beti bait dago alternantziaren arrastoren bat gutxienez. Baina alternantzien baldintza edo arrazoiak ez daude kasu guztietan asimilazio bustidura edo bustidura adierazgarrian bezain finkatuak.

Esate baterako ez dago esaterik zergatik azaltzen den hortz hobietako afrikatuen ordeztu hitz batzuetan: *etxe*, *itxi*, *etxi* 'dejar', *jatxi* (FHV, 192). Halaber, maiz eta errazegi asimilaziotzat hartu ohi diren *itxaso*, *itxusi*, eta abarretan, [tʃ] hotsaren agertzea ez dago garbi ikuspuntu sinkronikotik bederen. Historiaren aldetik azalean gauzak errazago badirudite ere, ezin da ziurtzat eman besterik gabe asimilazioak direnik. Frogarik ez dagoen bitartean, hipotesi modura bakarrik esan daiteke inoiz gertaturikako asimilazioaren ondorio direla, batez ere kontuan hartzen bada afrikatuen asimilazio bustidura ez dela inon guztiz emankorra (cf. III.6. edota VII.6.).

Aipatu da (IV.1) tʃ-ren bestelako erabilkera adierazgarria, "fonema" adierazgarriarena. Ea zalantzarik gabe euskarazko tʃ-ren kasuan bustiduraren balio adierazgarriarekin lotua badago ere, ez da erabat gauza bera. Fonema adierazgarria deitzen zaio adierazgarritasun berezia lortzeko erabiltzen denari. Nolabait esan, ez da oinarritzko hots baten ezaugarriaren bat aldatzea, hots bat hotsaren truke erabiltzea baizik. (cf. *Cherran/Herran*, *Chordoño/Ordoño*, e.a.).

Gorago hitzegin da t hotsaren honelako erabilkeraz. Izan ere, ez da harritzekoa fonetika eta fonologian elkarrengandik hurre

agertzen diren hots biok erabilkera semantikoan erlazonaturik egotea. Hipotesi eta aierutan ur handiegitan sartzeko beldurrez bada ere, pentsa daiteke, afrikatua herskariaren emaitza fonetiko den neurrian, esanahiarekiko lotura hau ere herskaritik jasotako heredentzia ez ote den. Dena dela, esan behar da, euskarazko palatalok ez dutela Stankiewicz-en "fonema" adierazgarrien ezaugarri bat, alegia erabilkera adierazgarria bakarrik izatea hizkuntzaren barruan. Izan ere **t** bakarrik, asimilazio bustiduraz sortzen ez den euskalkietan, izan daiteke horrelakoa (eta honek ere fonema adierazgarriarena indartzen du).

Sabaiaurreko afrikatua askotan **t**-ren bustidura izaten da (Bizkai aldeko euskalkietan batipat). Badu honek zerikusirik hots palatalen nolakotasun fonetikoekin eta honek dakarren hots sistemen egituraketarekin. Izan ere, hots ez-jarraikorren artean (hetskari eta afrikatuen artean, alegia) sabaiko ahoskunean ebakitako hots bakarra izatekotan, afrikatua izateko joera agertzen omen dute hizkuntza gehienek. Arazo bera beste modu batera ikusita, jakina da herskari eta afrikatuen artean afrikatuak direla markatuenak: gutxien gertatzen direnak edo, Jakobson-en inplikazio arauetara jarraiki, gertatzen direnean besteak (hetskariak) suposatzen dituztenak. Palatalen sailean, ordea, herskaria da markatua eta afrikatua, berriz, ez-markatua. Alegia, normalena da hots ez-jarraikor palatalak afrikatuak izatea. Errazagoa da nonbait sabaiko ahoskunean afrikatua ebakitzea herskaria baino. Hau, noski, mihiaren zatien mogikortasunarekin lotua dago, baina ez dagokigu orain hortan sartzea (ik. V.2.4.). Nahikoa zaigu jakitea afrikatuak herskariak baino artikulazio indar txikiagoa eskatzen duela eta perzepzioa ere hobetu egiten duela (cf. Dressler 1985a, 51) ²².

²² Cf. I.1.1. hots bustien artikulazio indar handiagaz.

Gaztelarren eraginaz gain, honek azal lezake zenbait euskaratako **t > tʃ** aldaketa. Cf. V.2.4. ere puntu honetaz.

V.3. Kontsonante palatalen eragina

Kontsonante palatalek zenbait aldaketa eragin ditzakete katea fonikoko inguruko hotsetan. Hau, noski, kontsonanteon ezaugarri fonetikoaren ondorio izanik, ez da euskaraz bakarrik gertatzen. Esate baterako, eslabieraz kontsonante palatalek ondorengo bokala palatalizatzen dute. Aldaketa hau, besteak beste, aurreko **i**-ren eraginez palatal bihurtu diren kontsonanteek (cf. III.4.) gerta erazten dute. Garbi dago palatalizazioaren azterketak honelakoak kontuan izan behar dituela eta, gero eta hobeto ezagutu jazo daitezkeen interferentziak, sendoagoak izango direla palatalizazioari buruzko ondorioak. Euskaraz gertatu edota gertatzen direnak behar bezain aztertu eta sailkatuak ez badaude ere, gutxienez gogoan izan beharko lirateke kontsonante palatalen inguruan maiz gertatzen diren zenbait aldaketa. Honek ez du esan nahi, besterik gabe, kontsonante palatalak hartu behar direnik aldaketa horien arrazoitzat.

Esate baterako, badirudi, diakronian behintzat, kontsonante palatalek inguruko (batipat katean ezkerretara agertzen diren) bokal eta diptongoak ixteko eta sabaikaltzeko joera dutela: ik., adib., FHV 104, **ai** < **ei**. Salaburu-ren (1983, 242) azterketa sinkronikoen arauera ere: «Kontsonante sabaikarien inguruko bokalek sabaikaltzeko joera dute (...). Aurreraketa eta hersketa hau, "a"-ren kasuan batez ere, nabarmena da».

Honelako aldaketak gertatzeak askotxo iluntzen du euskarazko asimilazio bustiduraren historia. Hala da, esate baterako, **i** ezkerreko segmentuaren ixte eta sabaikaltze edo palatalizazioaren ondorioa **i** izan daitekeenean, euskarazko asimilazio bustiduraren nondik norakoak kontuan izanda (h.d. palatal asko ezkerreko **i** batek sortuak direla)

Errazagoak dira gauzak hersketaren ordeiz ireikitzea jazotzen denean eta badirudi hala izan dela batzuetan */einu/* (< lat. */īnea*, cf. FHV 23) bezalako arauera. Ixteko joera asimilazioaren bidetik lihoakeen bitartean, honelakoak disimilazio edo indartze bilakabideen artean kokatu beharko lirateke. Dena dela, datu asko behar izango genituzke hemendik zentzuz abiatzeko. Adibideak gutxi dira eta arrazoi izan daitezkeenak asko: adib. **ei** (*/einu/*, [i:] edo [ii] segidaren bereizkuntza bezala ere uler daiteke edo sudurkari inplosiboaren eragin bezala (FHV 115); esplikaziook ez dira erabat elkarren kontrakoak, noski.

Hemen aipatu behar dira, azalpide sakonak aurkitzeko inolako asmorik gabe, kontsonante palatal edo ezpainkarien inguruan **i/u** txandakatzeak. Xehetasunetan sartu gabe, kontsonante eta bokal hauen ezaugarri fonetikoak aintzakotzat hartuta, garbi ikusten da berriz ere asimilazio eta disimilazio joerak izan daitezkeela aldaeren arrazoi: cf. *puxika*, *puxiga* vs. *bixika*, *bixiga* (< lat. *vessica*) edo, alderantziz, *korpitz* (cf. lat. *corpus*), *akullu*, e.a. (cf. M 1974, 189).

Hitzegin da kontsonante sabaikarien aurreko **j**-ren desagertzeaz (III.5.). Honekin lotua egon daiteke batipat goinafarreraz aurkitzen den hitz hasierako eta palatal aurreko bokalaren desagertzea (cf. FHV 511).

Honelako kasuetan beti dago, froga sendoagorik ez dagoen bitartean, halabehar hutsa izan daitekeela pentsatzeko aukera. Horrelako susmo eta zalantzak osasungarri zaizkio oso azterketa fonologikoari, ezagutza sakonagoa datuen kopuru eta fidagarritasunaren eskutik bait dator beti. Eta hemen gogoratu behar dugu berriz ere lanaren sarreran esandakoaz, alegia, irizpide diakroniko-en ikerketa mesedegarria izateaz gain beharrezkoa ere izan daitekeela zenbait uste (sinkroniko) egiztatzeko orduan (cf., besteak beste, Dressler-en italianoazko palatalizazioaren azterketa: Dressler 1985a, 172, 174-176).

VI. ASIMILAZIO BUSTIDURA

0. Sarrera

0.0. Asimilazio bustiduraren nondik norakoak arakatu asmoz, zenbait euskalki eta azpi euskalki edo hizkera (*variety*)¹ hartu dira aztergai. Bibliografian ikus daiteke lan honetarako aukeratu diren testuen zerrenda, bestela esan, lanaren korpusa 2. Alde batetik euskalki desberdinen lekuko izan zitezkeenak bilatu dira. Horrela, ateratzen diren ondorioak hizkuntza osoari buruzko hipotesi bezala aurkeztea arrazoizkoagoa bait da leku bakarreko datuekin arituko bagina baino. Bestalde, aukeratu diren euskarak ez dira ezagunenak bustiduraren ezaugarriari dagokienean. Hain zuzen ere, lan hau datuak jasotzea eta sailkatzea den neurrian behintzat, ezaguna dena osatzea ere bilatzen da.

Hizkera bakoitzeko asimilazio bustidura sailkatzerakoan erregela formatua erabiliko da laburpen modura. Hortara, kasu bakoitzean asimilazioa zein baldintzetan betetzen den ikusi eta besteekin errazago erkatu ahal izango da. Generatibisten eredua bere hartan hartzen da:

¹ Kontzeptu horien definizioa ez da lan honen alorrean sartzen.

² Lanaren helburua, heln batean behintzat, sailkapen fonologikoa izanik, nahi izan zen aukeratutako testuak ahalik eta gehien ahoskera jasotzen dutenak izatea. Gainera, orain egiten den ahozko euskararen azterketarako oinarri izan zedin, bilatu zen zaharregiak ez izatea.

A ----> B / C ____ D

A: aldaketaren abiapuntua (*input*).

B: aldaketaren ondorioa (*output*).

C: aldatzen denaren ezkerrean dagoena kate fonikoan (dago-kigun bilakabidearen kasuan, aldakuntzaren eragilea).

D: aldatzen denaren eskubian dagoena kate fonikoan.

C eta D dira aldaketaren ingurunea adierazten dutenak.

Erregelak ateratzeko erabili diren formak, noski, asimilazioa gertatzeko behar izaten den hots hurrenkera edo katea agertzen dutenak dira. Bestela esan, i hotsaren ondoren kontsonante bustigalren bat (hauxe da asimilaziorako ingurune edo testuingurua) eskaintzen duten formak aztertu dira ³.

0.1. Asimilazioaren baldintzak

Kontsonante horrek bustidurarekiko hartzen duen bidea, busti edo ez busti alegia, hots katearen zenbait ezaugarriak baldintza dezakete. Baldintzaok elkarrekin lotuta daude berez. Kontutan izan behar da, esate baterako, abiadura estiloak baldintza dezakeela eta azkar hitz egiteak morfema mugaren garrantzia txikitzen duela; baldintza lexikoek, bestalde, analogiaren indarra alda dezaketela (hitzen maiztasuna, arrotasuna); e.a. Dena dela, baldintza mota bakoitzak asimilazioarekiko duen garrantzia hobeto ikusi ahal izateko multzokatu egin dira. Aldakuntza fonologikoak egoerarik oparoenean ere ez ohi dira baldintza mota bakarraren arauera

³ Kontsonante "bustigaiak" (*palatalizables*) dira bustidura erregelaren input izan daitezkeenak, bestela esan: palatalizazio bilakabidea jasan dezaketenak (cf. III.6).

gertatu. Gero eta zaharrago, gero eta urrutiago baldintza fonetiko bakarkakoetatik.

Drage-k (1967), errusierazko palatalizazioaren baldintzak bilatzean egiten duen sailkapena izango dugu hemen gidari 4. Sei ezaugarri mota bereizten ditu berak: fonetikoak, analogiazkoak, prosodikoak, morfologiazkoak, hiztegizkoak eta estilistikoak (azken biak dira indar gutxien dutenak). Baldintza prosodikoek segmentalek baino indar txikiagoa dutela ikusi delako, banandu bide dira. Hemen azentu baldintza prosodikoak gainerako baldintza fonetikoekin batera ipini dira, ez bait dugu berez aztertzeke modurik.

0.1.1. Kate fonikoaren baldintza fonetikoak (funtsean fisiologikoak) izaten dira asimilazioak gertatzearen arrazoi nagusia. Drage-ek aztertzen duenean ere ezaugarri fonetikoak omen dira errusierazko palatalizazio atzekariaren distribuzio edo banaketa gehien baldintzatzen dutenak.

Euskarazko bustidura edo palatalizazioaren deskripzio eta sailkapenak ere baldintza fonetikoetan oinarritzen dira gehienbat. Hau da, zein testuingurutan gertatzen den, zein hotsi gertatzen zaion, zein hotsek gertaerazten duen esan ohi da. Hemen ere, testuetako datuak aurkeztean, hots katearen ezaugarri fonetikoak izan dira ardatz nagusi. Alde batetik hots bustigaia hitz barruan ala

⁴ Dressler-ek (1985) erregela eta bilakabideak sailkatzen ditu baldintzatzen dituzten elementuen arauera. Baina eredu hori erabiltzeak lan honen eremutik kanpo gelditzen diren esplikazioak eskatuko lituzke. Berriz ere esan, Stampe-ren teoria naturalaren arauera, *bilakabide* deitzen direnak baldintza fonetikoak dituztela funtsean. Gainerakoak erregelak dira.

hitz azkenean dagoen ikusi da ⁵. Zatiketa horren arauera moldatu dira datuak, lehenengo hots ozenek (l,n) eta ondoren trabariak (d, t, s [ś], z [s], ts [tś], tz [ts]) testuinguru bakoitzean duten jokabidea ikusiaz (ik. gorago -III.6- bustidurarako erraztasuna dela eta hots hauen arteko mailaketa).

Hitz barrua bokal aurre eta kontsonante aurreko testuinguru-etan azpi-zatitu da. Esan daiteke, beraz, hiru testuinguru aztertu direla (cf. beheago, 0.1.3., baldintza morfologikoak): bokalaurrea (___ V) eta kontsonante aurrea (___ C), hitz barrenean, eta hitz azkena (___ #); gehienetan eta ez euskarazko asimilazio bustiduran bakarrik, kontsonante aurrea eta hitz azkena batera dabilta. Hori, eskubiko testuinguruari dagokionean. Ezkerrekoari begira, beste bereizkuntza bat egin behar dugu: alde batetik, i bokalaren ondorena (i ___) eta, bestetik, i bokalerdiaarena (j ___). Hortaz, gorago aipatutako hiru testuinguruak sei bihurtzen dira.

Ezaugarri prosodikoen artean azentua eta abiadura agertzen dira Drage-ren lanean. Abiadura baldintza estilistikoen barruan aztertzea egokiagoa izan daiteke (cf. 0.1.5.), izan ere erabiltzen den hizkera mailak edo erregistroak baldintzatzen bait du neurri handian (hiztunen arteko berezko diferentziak alde batera utziaz orain). Bestalde, abiadurak badu eraginik baldintza morfologikoetan (0.1.3.) ere, jakina den legez, hizketa azkarrean gutxitu egiten bait da morfema mugaren garrantzia ⁶.

⁵ Asimilaziorako testuinguruaren artean ez dago berez hitz hasierarik, bustidura asimilazioa i-ren ondoren gertatzen bait da (aurrekaria da, alegia): ezin daiteke egon hots bustigairik hitz hasieran. Testuinguru hau i galduaren ondorio izan daitezkeen hitz hasierako palatalak eztabaidatzeko bakarrik izango da kontuan (Err. *ñardetsi* 'respondido', *ñor* 'alguien', e.a.).

⁶ Dressler-ek (1985, 86-87) erregela fonoestilistikoel (ezaugarri estilistikoak baldintzatzen dituztenei, alegia) ezartzen die funtzio hau.

Azentuaren egungo egoera ilunegia da ondorio garbiak ateratzeko, nahiz eta zenbaitetan azentua garrantzitsu izan daitekeenaren susmoa somatu ⁷. Gehienez ere, hizki edo morfemen arteko lotura mailan izan dezakeen eragina islada daiteke lan honetan (ik. gorago II.4.3, azentuaz eta III.8, morfema mugaz). Azentu markak ez dira agertzen aztertutako testu guztietan. Agertzen direnean egileek idatzi bezala jasotzen dira (ik. VI.1.2. Holmer/Abrahamson 1968, 1969; VI.3. Izagirre 1967; VI.4. Lizarraga 1979 [1803]; VI.6.3. Izagirre 1959, 1961).

Talde fonikoak finkatzeko, testuen gainean aritzean, norberaren hizkerak eragin handia izaten du. Halaz ere, bustidurak berririk jasotzen badu (espero ez zenean, talde fonikoa edo hizkera maila ezberdina salatuz), jaso egin da.

0.1.2. Hizkuntzalaritzaren historia zehar asko idatzi da analogiak fonologian duen garrantziaz. Neogramatikoen kezka nagusietarikoa izan zen hots arau eta analogiaren artean sor daitekeen aurkakotasuna. Izan ere batzuetan analogiak azal ditzake salbuespen diruditenak. Lan honetan horrelakorik dagoenean, forma bakoitzaz aritzerakoan aipatzen da eredia zein izan daitekeen (cf. adib. 1.2. kontsonante aurreko bustiduraz). Analogiak aldakuntza

⁷ Cf. Baztanen (3.1.1.1.2) silabagilearen ondoren ere ozen palatala duten formak, Zuberokoak, e.a. Datuak gutxiegi badira ere, beharbada, bustidura hauen distribuzio edo banaketak baluke zerikusirik hasperenaren distribuzioarekin. Cf., dena dela, Dressler 1985, 171: «In the universal hierarchies of palatalization and of palatal affrication stress plays no role (...)».

fonologikoa eragozten badu, bilakabidearen ahultzearen seinaleztat hartu ohi da ⁸.

Analogiaren eragina ez da berdina hitz guztientzat. Esate baterako, indartsuagoa izaten da maiz erabiltzen diren hitzetan. Halaber, eragin handiagoa du deklinabide paradigmak hitz eratorri-en alorrean baino. Hau azaltzerakoan, Dressler-ek (1985, 325) gramatikaren maila ezberdinen arteko erlazioa azpimarratzen du:

«(...) analogy of morphemes presupposes semantic transparency and (...) semiotic function is to enhance corresponding morphotactic transparency, thus increasing diagrammaticity» ⁹.

0.1.3. Ezaugarri morfologikoak ere garrantzizkoak izan dira bustiduraren deskribapenerako. Baldintza morfologikoen eragina neurtzeko, morfema muga asimilazioaren testuinguruan sartzen den ikusi da. Bi kasu bereizten dira: (a) morfema muga i eta busti daltekeen hotsaren artean dagoenekoa eta (b) busti daltekeen hotsa eta ondorengoaren artean dagoenekoa (ondorengoa ere erregelaren testuinguruan beharrezkoa delarik). Euskarazko palatalizazioan kasu gehienak (b) taldekoak dira ¹⁰.

⁸ «(...) analogy (...) is not to be expected from phonologically very natural P[honological] R[ule]s». (Dressler 1985, 210). Motibazio edo baldintzapen fonetikoa indartsu denean, zailagoa da bestelako hitzen eraginez aldatzea.

⁹ *Diagrammaticity*: aldakuntza fonologikoa marka morfologikoa denean (Dressler 1985, 327). Cf. guzti honek erregelen ezarketarekin duen zerikusiaz, op. cit. 84, 324-325 (erregela morfofonologikoak hitz eratorpenean luke oparotasun haundiagoa) eta 333.

¹⁰ (a) eta (b) biak lirateke fonologia sortzailean ingurune edo testuinguru eratorria (*derived environment*) esaten zaiona. Ik. Kiparsky (1976).

Aintzakotzat hartu behar den beste bereizkuntza morfologikoa *partes de la oración* izenaz ezagutu izan dena da. Erregela fonologiko baten oparotasuna desberdina izan daiteke aditz eta izenetan, esate baterako. Dressler-ek (1985, 335) alemanezko *umlaut* eta italianoazko palatalizazio erregela bat alpatzen ditu. Euskarazko bustidurari dagokionean, badirudi honelako bereizkuntzak bustidura adierazgarriaren kasuan direla nabarmenago asimilazio bustiduran baino (ik. IV.2).

0.1.4. «(...) not only the phonetic conditions of a word and its morphological structure are important for the presence or absence of assimilative softness, but also whether the word belongs to one stratum or other of the vocabulary, and also the fate of individual words».

Drage (1967, 125: Avanesov 1958-tik hartua).

Hiztegiaren eragina edo baldintza lexikoak ere ikusi dira. Komentatzen den hitzaren ezaugarri lexikoak forma bakoitzaz esandakoan sartzen dira (cf. 2.1.1.1.2: *doctrina*, *examina*, e.a.). Hitzen maiztasuna ezin da, noski, honelako lan batean erabat neurtu, nahiz eta bilakabide fonologikoen gertakortasunarekiko garrantzi haundikoa izan. Batez ere aztertzen den asimilazioa bezalakoak izaten dira maizen gertatzen diren hitzetan gehiago ezartzen direnak, beren izakera fonetikoagatik --hontan bat datoz kenketa eta multzo murrizteak ere-- eta estilistikoagatik (cf. Phillips 1984, 322).

Aldakuntza fonologikoak direla eta, izen propioak bereizi behar izaten dira hiztegian maiz aski. Ikusiko den bezala, euskarazko bustidurak ere eskaintzen ditu izen propioak sail bereizitzat

hartzeko adina ezaugarri. Saila delarik atal horretan bustidura mota
blen artean hesi zorrotza ezartzea.

Onomatopeia hitzak ere bereizi ohi dira erregela fonologikoen
baldintza lexikoak aztertzean. Euskarazko bustidurak adierazgarri-
tasunarekin dituen harremanak direla eta, hitzon berezitasuna
areagotu besterik ez da egiten (cf. IV.2. ere).

Kanpotikako eta (itxuraz behintzat) bertako direnen arteko
muga ere hiztegi mailan jasotzen da gramatikaren barruan.
Bereizkuntza hau oso garrantzizko izan daiteke fonologia eta
morfologiaren arteko bidegurutzean: askotan egokitze morfologikoa
gertatu arte ez da gertatzen egokitze fonologikoa, esate baterako.
Honen beste alderdia ongi ikusten da euskaraz morfema barrenean
ere asimilaziorik ez duten maileguetan). Zalantzarik gabe, morfema
barreneko asimilazioa derrigorrezkoa duen euskalki batean,
maileguaren sarrera garaia eta bustiduraren lexikalizazioarekin
daude lotuta honelako gauzak. Gainera, maileguen artean ere
nabarmena da, noski, ez direla berdin hizkera maila batekoak eta
bestekoak, bilakabide fonologikoen ezarketa dela eta (ik. 0.1.5.
baldintza estilistikoez). Hau errusierazko palatalizazioan bezalaxe
(Dressler 1985, 95) ikusten da euskarazkoan ere ¹¹.

Esan bezala, Drage-en lanean baldintza lexiko eta estilistikoak
dira pisu gutxien dutenak. Drage ez dator bat Akademiak
(*Akademiya nauk SSSR*) dioenarekin ere: bere azterketaren arauera,

¹¹ Batzuetan maileguetan bertako formetan baino zabalagoa dirudi bilakabide baten
ezarketak, baina kontuan izan behar da beti jatorria zelan den: ital. *porcello* hitzean palatala
gertatzen da, ez delako italiararen barrenean eratorritako diminutiboa, osorik latinetik
(*porcellus*) hartua baizik (cf. Dressler 1985, 178). Cf. VII. kapituluaren agertzen direnak ere.

palatalizazioa hitz ikasietan ere gertatzen da, elkarriketa arrunteko gertakortasunarekiko alde haundirik gabe (136 or.).

0.1.5. Baldintza estilistikoez ere antzeko zerbait esan behar da. Kasu bakoitzean aztertzen den testuaren nolakotasuna izan behar da kontuan. Dena dela, lanaren egituraketatik, batzuetan bakarrik ikus daiteke euskalki bera maila estilistiko ezberdinetan. Soroaren gipuzkera eta Agirreren dira alde horretatik erkatzeko aukera ematen digutenak. Halaz ere, bi testu horien artean estiloa baino areagoko bereizkuntzak daude. Hartara, baldintza hau apal eta kontuz neurtu behar da ¹².

Ezaugarri estilistikoek baldintzatzen dituzten aldakuntza fonologikoak hautazkoak izaten dira noski, hizkuntza erabat hartuta (baldintza morfologiko edo fonetiko soilen arauera derrigorrezkoa den bilakabidea ezin da aldatu estiloaren arauera). Baina gerta daiteke aldakuntzak hizkera maila edo estilo batetik bestera hedatzea hizkuntzaren historia zehar, bilakabide fonologiko askoren hasiera aldakuntza fonoestilistikoetan dagoela uste da. Horretarako baldintza soziologiko edo psiko-soziologikoak bestelako aldakuntzetan baino garrantzi haundiagoa izaten dute (Dressler 1985, 143).

Erabili den aurreiritzia, gehienetan bai izkutuan eta bai azalean egon ohi dena da. Tesi honekin zerikusirik duten lanetarako

¹² Cf. "Hizkuntzen fonologia", *Euskera* 1986, 2 (351-359). Euskaraz zailagoa da beste zenbait hizkuntzetan baino honelako konparaketak egiteko aukera izatea, cf. P. Salaburu-k (1984, 149-151) nola Harris-ek zerrendatzen dituenetatik estilo bakarra aurkitzen duen bere aztergaian.

↓
aurreiritzia

datu bilketetan ¹³ ere ikusi da bustidura gertatzea edo ez gertatzea hiztunak darabilen erregistroarekin lotua egon daitekeela. Datu asko jaso behar da oraindik, baina esan daiteke bustidurarako joera handiagoa dela hizkera arduragabekoan. Lehenago aipatu abiadurara itzuliaz, badirudi erregistro zainduek arduragabeek baino hizkera motelagoa agertzen dutela. Beraz, bustidura gehiago egongo da hizkera azkarrean geldiagoan baino. Hau asimilazioaren mekanikarekin eta bustiduraren balio estilistikoarekin erlazionatzen da. Errusieraz ere,

«(...) in those cases where variation is possible, in the full style a tendency towards the preservation of hard consonants is usually manifested, whereas in the conventional style there is a tendency to softness».

Drage (1967, 136).

Guzti hontatik ateratzen den hipotesia da bustidura asimilazio gutxiago aurkituko dela hizkera zainduan hizkera lauan baino. Gainera, honelako azterketetan aurkitutakoaren arauera, badirudi aldakuntzak gertatzen direnean ere maila ezberdinetan gerta daitezkeela: hizkera arduragabekoan neutralizazioak ohizkoagoak dira hizkera zainduan baino, honetan aldakuntza alofono alorrean gelditzeko joera dagoelarik. Guri hemen dagokigun bustiduraren kasuan, honen adibidea $t \rightarrow t / tʃ$ aldakuntzetan bila liteke (bustidura adierazgarriak t fonema bihurtzen duen ala ez ahaztuz), baina garbi dago erdararen eraginak nahastu egiten dituela euskarazko t eta $tʃ$ aldaera fonoestilistikoak diren neurtzeko beharko

¹³ Cf. Oñederra 1986.

genituzkeen datuak. Dena den, esan bezala, testu aukera ez dago antolatuta euskalki bereko estilo desberdinak erkatu ahal izateko.

Testuak beste era batera aukeratzea ere ez litzateke, ordea nahikoa izango. Hizkuntzalaritza ikuspuntu honetatik egin nahi duenak, oraindik soziologi ikerketak taxutu ez dituen zenbait datu behar ditu (cf. Dressler/Wodak 1982, 352). Tankera horretako ikerkuntza irekirik gelditzen da, hemen (helburu nagusia bestelakoa izanik) atea zabaldu besterik ez da egiten. Era berean eta zalantzarik gabe, etorkizunari zabalik geratzen zaion bidea da alor honetan telebista eta irratiaren ereduek duten eragina pisatzea.

0.2. Lanaren egitura

Testuz testu aurkezten dira azterketaren emaitzak, datuen sailkapena goian aipatu baldintza fonetiko (0.1.1.) eta morfologikoetan (0.1.3.) oinarriturik. Testuak aurkezteko erabili den hurrenkera eta zatiketa irizpide geografikoetan oinarritu da irizpide fonologiko garbietan baino areago. Ez dira, beraz, euskalkiak erregelaren berdintasun edo diferentziaren arauera sailkatu. Izan ere, badirudi errazagoa izaten dela euskara eta euskalkien ikuspegi osoa izatea lekuan lekukoa ematen bada. Hartara, bizkaieratik hasi eta Zuberoan bukatutzen da, gipuzkera eta Nafarroako zenbait hizkera bidean ikusiaz. Gipuzkeraren barruan Nafarroakoa (Sakanakoa, alegia) bereizi egiten da, palatalizazioaren ordeztasunak despalatalizazioa gertatzen bait da. Egia da Nafarroako ekialdekoenak (aezkera, zaraitzuera eta erronkariera) multzo batean ematen direla, nahiz eta tartean palatalizatu eta despalatalizatu egiten dutenak egon.

Besteak beste (luzeegi litzateke honerako euskalkien arteko bereizkuntzak aztertzen eta erkatzen hastea), hirurok aztertzeko erabilitako testuak ia batera datozkigu eta horixe izan da, hain zuzen ere, euskalkien aurkezpena moldatzerakoan erabilitako beste irizpidea.

Nabarmena da hasierako testuetan geroagokoetan baino xehetasun handiagoz ematen direla esplikazio eta azterketak. Irakurketa arintzeko asmoarekin, lanaren metodoa eta ikuspuntua berberak izan direnez lehenengotik azkenera, behar ez zirenak ez dira errepikatu eta hasierakoaren arauera ondorengoetan suposa daitezkeenak laburtu egin dira hein batean behintzat. Lehenengo atala hurrengo "hitzaurrea" ere badela esan daiteke. Azken aldeko euskalkien azterketan (VI.6. eta VI.7. batez ere) ikuspuntua ere aldatu egiten da ia. Ez da aurkezten testu bakoitzaren sistema: guztien artean osatzen dutena bilatzen da. Honen arrazoiak datuen urritasuna eta euskalkien ezagutza txikiagoan datza.

Azkenik, esan behar da hemen eta hurrengo atalean (VII.) beltzazkaz agertzen diren formak zuzenean iturri bezala erabilitako testuetatik atereak direla. Gehienetan testuan azaltzen diren bezalaxe jaso dira, agertzen duten deklinabide atzizki eta abarrekin. Arrazoiaren bategatik bukaera moztu egin bada, gidoi edo marratxo bat ipintzen da adibidearen amaieran. Testuetan aurkituako grafia ezberdinak zeri dagozkion sailkapenak adierazten du kasu bakoitzean.

1. Bizkaiera

1.0. Lehenengo atalean bizkaiera aztertzen da. Eibarko eta Markinako testu bana hautatu dira: T. Echebarria-ren hiztegia (hemendik aurrera, TE) eta J.A. Moguel-en Peru Abarka (hemendik aurrera, PA). Halaber, Holmer-darren "Apuntes Vizcainos" eta Rollo-ren *The Basque Dialect of Marquina* ere aztertu dira ¹.

1.1. T. Echebarria: "Lexicón del euskera dialectal de Eibar"

T. Echebarriaren lan mardul honetatik ateratakoak multzo bitan banatu dira. Gorago esan bezala (0.1.1.) bokalaren eragina eta bokalardiarena bereizteko saioa egin da asimilazioaren ikerketa honetan. Hartara, eskubiko testuinguruaren hiru aukerak (berririo esan: bokalaurrea, kontsonante aurrea eta hitz azkena) ezkerreko testuinguru bakoitzarentzat errepikatuko dira.

1.1.1. i ____.

Goiko bokal (beraz, silabagile) sabaiko edo palatalaren eragina erakusten duten formak bilatu dira fonema bustigai guztientzat. Fonema bakoitzari buruzko ondorioak dagozkion adibide zerrenden ondoren ematen dira. Testuinguru bakoitzean agertzen diren adibide multzo guztiak aztertuta mintzo bakoitzari buruzko ondorioak ateratzen dira.

¹ T. Echebarriak *Olerki* -n eta *Eusko Gogoan* -n argitaratu zituen poemak ere arakatu dira. Baita ere Zamarripa-ren *Firi-firi...* izenburupean argitaratu ipuiak. Erreferentziak, bibliografian.

1.1.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

1.1.1.1.1. l / i ____ V.

i bokalaren ondoren eta bokal aurrean aurkitzen den l fonemaren jokabidearen adibideak bilatzean azaleko egitura bakarrik hartzen bada kontuan, honelako formak aurkitzen dira 2: abilla, agillandua, aguazilla, bakillaua, biribilla, eltxo-pillia, eskillarak, espillua, ibilli, langillien, milla, millagro, Txikillana.

Zerrenda honetako hitzak polikiago aztertzeak merezi du. Alde batetik, bustidura asimilazioaren emankortasuna isladatzen dute. Bestetik, hemen asimilazioaren berri ematean, adibideak aukeratzeko erabilitako irizpideez hitzegiteko beta ematen digute: azalean i ɛ V hots segida agertzen dutelako hautatu dira, itxuraz behintzat euskarazko bustidura asimilazio aurrekariaren ondorio izan daitezkeelako, alegia. Baina batzuetan, bestela badirudi ere, hitzaren historiak edo aldaerek erakusten dute nola bustidurak beste arrazoren bat duen (ik. bakillaua, eskillarak eta espillua-ren komentarioak).

abilla. - Euskaraz forma hau erabiltzen duen hiztun elebidunak gazteleraz honen ondoan, eta esanahi berberarekin, *hábil*/([áβil]) dauka. Gazteleraz hortz-hobietakoa den l euskaraz sabaian ahoska-

² Hemen eta adibide zerrenda guztietan muestra nahikoa eman nahi izan da. Ez dira testuan agertzen diren guztiak zerrendatu, ahalik eta testuinguru desberdin gehieneko adibideak bilatu badira ere. Era berean, aurkezpena astunegia suerta ez dadin, ez da zehazten forma bakoitza nondik atera den (nahi lukeenarentzat jasoa dagoen arren). Autoreak sarrerak maiuskulaz ematen ditu osorik. Hemen ez dira bereizten hiztegiko sarreretan agertzen direnak adibideetan agertzen direnetatik. Lerrokada barruan lehenengoa maiuskulaz idazten da puntuazioak hala eskatzen duenean. Berak adibideetan maiuskulaz idazten dituenak agertu bezala jasotzen dira.

tzea hizkuntz arteko nabaritasun edo ebidentzia ona da bustidura asimilazioaren alde. **Abilla**, *hābi* formarekin erkatuz zalantzarik gabe ikusten da euskaraz bustidura gertatzen dela. Ondorioetan itzuliko gara gai honetara.

agillandua .- Hitz hau ere mailebua dugu. Aurrekoan ez bezala, gazteleraz agertzen duen hots hurrenkera hautsi eta aldatu egin da, alboko eta sudurkariaren arteko metatesiaz (cf. gazt. *aguinaldo*). Metatesiaz gain, garbi dago bustidura asimilazioa ere gertatu dela. Ezin da datu gehiagorik gabe, bi bilakabideon arteko ordena finkatu, metatesian bustiduraren jokabidea beregaina izan bait daiteke (cf., adib., FHV 201: *sellania*, segmentu edo ebakinen metatesia; *senallia*, bustiduraren metatesia) ³.

aguazilla .- Honi buruz **abilla** formaz esan dena esan daiteke.

bakillaua .- Hitz honen azken jatorria ezaguna ez bada ere, badirudi alboko palatala euskaraz sartu aurretik bazuela (Cor. s.v. *bacalao*). Hemen ez da euskarazko bustidura asimilaziorik gertatu. Hitz honi dagokion iruzkina, VII. kapituluari aurkitzen da (VII.1.15.).

biribilla .- Hau, testu bereko **biribildu** -rekin erkatuta (cf. 1.1.1.2.1), bokal aurreko bustiduraren nabaritasuna dugu. Aurreko **bakillaua** eta **agillandua** hizkuntz arteko nabaritasuna baziren, hemen hizkuntza barruan daukagu bustidura asimilazioaren emankortasunaren lekukoa.

³ Cf. Menéndez Pidal 1962, 29: *agillando* < *aguilando* (gazt. forma arrunta, *aguinaldo*-ren metatesia). Beraz, metatesia gazteleraz gertatua da.

eltxo-pillia .- Hemen hitz elkartu honen bigarren zatiaz ari gara, noski. Forma honetan ere **abilla**-ren kasuan esaten genuena esan dezakegu, mailebua izanik, jatorrizko hizkuntzan ez zuen bustidura agertzen bait zaigu euskaraz. Alde horretatik, hau ere bustidura asimilazioa gertatu denaren nabaritasuna genuke. Hain zuzen ere, hitzak hemen daukan zentzua da gazt. *pila*-ren zentzuetako batetik gertuen dagoena. TEn 'enjambre (de mosquitos)' itzulpena ematen da: cf. gazt. *pila*, *montón*, *rimero* (ik. Cor. s.v. *pila* II). Baina eusk. *pila* 'asko'-ren sinonimo bezala erabiltzen bada, ahulagoa da hiztun elebidunarengan gaztelerazko eta euskarazko formen arteko parekotasuna, nahiz eta gazt. *pila*-k ere baduen hizkeraren arruntean zentzu eratorri hori. *Asko* esateko, *mucho*, *cantidad*, e.a. daude gazteleraz, *pila* erregistro mugatuagoan gelditzen delarik.

eskillarak .- Gorago, **bakillaua** formaz hitz egitean, esan ditugunak errepika daitezke funtsean (ik. VII.1.30.).

espillua .- Lehenago **bakillaua** formaz esandakoa eta **eskillarak** -en kasuan errepikatua esan daiteke hemen oro har (ik. VII.1.32.).

ibilli .- Forma hau ezin da erkatu hiztunak ezagutzen duen erdarazko beste batekin. Ez dago hizkuntz arteko daturik asimilazioaren alde. Baina, ikusiko den bezala (1.1.1.2.1) bestelako testuinguruetan hautazkoa izan daiteke albokoaren bustidura hitz honetan (cf. **ibiltzen** , **ibiltzen**). Horregatik, esan daiteke **ibilli** -ren azpian datzan hortz-hobietako albokoa (I) berreskura daitekeela eta **ibilli** formak bustidura asimilazioaren emankortasuna

adierazten duela. Honelako nabaritasunari hizkuntz barrenekoa edo intralinguistikoa esaten zaio; **abilla** bezalakoek eskaintzen digutenari, berriz, hizkuntz artekoa edo interlinguistikoa.

langillien .- Hau ere ezin dugu erkatu erdarazko kide ez-palatal batekin. Forma hau bustidura asimilazioaren adibidetzat hartuko badugu, hizkuntzaren barruan bilatu beharko dira txandakatzeak. Lehen, **biribilla** eta **ibilli**-ren kasuan albokoa kontsonante aurrean palatalizatu gabe ere ager zitekeela ikustean, asimilazioaren emankortasuna egiztatzen zen. Orain berriz, ezin zaio **langillien** -en bustita agertzen den albokoari ondorengo testuingurua aldatu. Gehienez ere, deklinabidearen arauera bokalaren nolakotasuna aldatuko da (*langile*, e.a.), baina aztergai dugun albokoa beti egongo da bokal aurrean, horixe bait da morfemaren egitura. Lana zehar ikusiko den bezala, i-ren ondorengo ozenak automatikoki bustitzen dira bokal aurrean euskalki honen palatalizazio sisteman. Halaz ere, alda daiteke testuingurua alboko horren bustiduran asimilazioa ari den (dinamikoa den, bizirik irauten duen) ikusteko modu egokian. Kasu honetan aztertzen den ebakin edo segmentoa, l, morfema mugaren ondoren dago. Hitz honen egitura morfemikoa *lan + gi + le + en* litzateke mailarik azalekoenean. Beraz, bustidura asimilazioa morfema muga zehar gertatzen da, bustidura eragiten duen ebakina mugaren ezkerretara dagoelarik. Honen arauera, ezkerreko ingurunea da alda dakiokeena. i-ren ondorengo albokoan bustidura gertatu dela egiztatzeko, - (/)/e atzizkia i-z amaitzen ez den katea bati lotuta aurkitu beharko genuke. Orduan -/e formaz bustidurarik gabe, alegia) agertzen bada, dudarik gabe esan daiteke **langillien** -en agertzen den bustidura asimilazio aurrekariari zor zaiola (cf. *eskale*, *erosle*, adib.).

milla.– Hau mailebu erromanikoa dugu (cf. FHV 200). Pentsa daiteke hiztun elebidunek gaztelerazko *mil*-ekin batuko edo identifikatuko dutela nahiz eta etimologiaren aldetik diferentea izan. Hau hala den neurrian bakarrik baieztatu dezakegu euskaraz bustidura asimilazio aurrekaria ari dela. Hau da, *hābil* zela eta, **abilla**-z esandakoa errepika daiteke hemen ere. Halaz ere, izan daiteke forma honetan dagoen bustidura ez izatea jatorriz euskarazko palatalizazio aurrekariaren ondorio, hizkuntza erromanikotik gertatu den palatalizazioarena baizik (cf. gazt. *milla*, hau ere, eusk. **milla** bezala, < lat. *milia*). Cf. VII.1.75.

millagro .– mailebu garbia eta euskaraz gertatu den bustidura asimilazio aurrekaria isladatzen duen forma da. Latinezko *miraculum*-etik baino errazago ulertzen da honen gaztelerazko eratorritik, *milagro*-tik. Badira euskaraz *miraculum*-etik zuzenago datozenak ere: *mirakune*, *mirakulu*, *mirakullu*, *mi(r)aküllü* (cf. FHV183). **Millagro** -n gaztelerazko katea batere aldatu gabe agertzen zaigu, euskarak eransten dion gauza bakarra albokoaren bustidura da. Euskalki honetan ez dago inolako eragozpenik bilakabide hori honela esplikatzeke, esan bezala bokal aurreko *i* palatalizatu egiten bait da ezkerreko *i*-ren eraginaz.

Txikillana .– Izen propio honen erdal ordaintzat *Chiclana* ematen da TEn 4. Euskarazkoa, gaztelerazkotik badator, pentsa daiteke epentesi bat gertatu dela. Euskarazko joera ezaguna da kanpotikako herskari+ozen kontsonante taldeak ez onartzekoa. Taldeok deusezteko bide bat bokal anaptikoa tartekatzea da eta

⁴ *Chiclana* edo *Txikillana* Aquilino Amuategi sozialista omen zen (argibide hau J. San Martín-i zor diot).

hori izan daiteke, hain zuzen ere, hemen **kl** multzoari gertatua.

Alfabetikoki zerrendatutako adibide horiez esandakoaren arauera, sailkapen bat proposa daiteke, bustiduraz eskaintzen duten nabaritasun edo ebidentzia dela eta, hiru multzo bereizten bait dira.

a) Euskaratik kanpo ere ezagutzen ditu hiztunak baina bustidurarik gabe: **abilla**, **agillandua**, **aguazilla**, **millagro**, **pillia**, **Txikillana** (?). Gramatikagileak hau asimilazioaren frogatzat erabil dezake. Honek ez du esan nahi hiztunak aukera jakinaren gainean egiten duenik beti.

«(...) el sentimiento de las correspondencias fonéticas entre dos lenguas existe, aunque no sea por lo general claro y distinto, en todo sujeto bilingüe».

M 1964, 107.

b) Agertzen den kontsonante sabaiko edo palatala ez da, berez, **i** batek eragindako asimilazio aurrekariaren ondorio: **bakillaua**, **eskillarak**, **espillua**. Honelako formetan bustiduraren eragile dirudien **i** hori (azalean eta orain, sinkronikoki, sasi-eragile genuke) beste bokalen baten aldaketaren ondorio da. Jakina da euskarazko fonologian kontsonante palatalak izan dezaketela zerikusirik bokalen nolakotasun aldaketarekin. Sabaiko kontsonante baten aurrean dagoen bokala ixtea bilakabide erregularra da (ik. FHV § 2.7. edo gorago V.3.). Honelakoak asimilazio ereduaren indarraren lekukotzat har daitezke.

c) Forma hauek euskalkiaren barruan eskaintzen dituzte aldaerak, bustidura morfema muga zehar gertatzen bada eta testu-

inguruak baldintzatzen badu. **Biribilla**, **ibilli**, eta **langillien** formek bustidura bizirik isladatuko badute, aldaera bustigabeekin erkatu ahal izan beharko dira (**biribildu**, **ibiltzen**, **es kale**, adib.).

Baldintza morfologikoei dagokienez, orain arte ikusiaren arauera, esan daiteke ez dutela eraginik asimilazioaren emankortasunean. Berdin gertatzen da asimilazio bustidura i ____ V ingurune fonetikoan morfema barruan (**millagro**) edo morfema muga zehar (**abill-a**, **langi-llien**).

Gutxiago badira ere, badaude ingurune honetan l-aren bustidurarik agertzen ez duten formak: **arrilandua**, **bili-bili**, **txilixo**. Batetik, gutxiago izanik zentzu onez esan daiteke salbuespenak direla. Bestetik, esplikatuiko dituen hipotesiren bat ere proposa daiteke: esplikazioak saiatu eta onartuez gero, formak ez lirateke salbuespen, bestelako bilakabide baizik.

arrilandua .- Forma honen hitz elkartu egitura garbi ageri da azalean. Esanahiaren aldetik ere ('piedra sillar') ez dago eragozpenik (*h*)**arri** eta **landua**-z osatua dagoela pentsatzeko. Bi osagai lexikoak beren nortasun beregaina gordetzen dute asimilazioa galarazteko neurrian behintzat. Nolabait esateko, palatalizazioari dagokion fonologi mailan, forma honek hitz muga gordetzen du bere baitan (**arri ## landua**). Baldintza analogikoez ere hitz egin daiteke. Hitzunak *lan*, *landu(a)*, e.a. erabiltzen ditu zalantzarik gabe. Ikuspuntu morfologikoa eta analogikoa elkarren osagarri dira puntu honetan. Kontuan izan behar den beste gauza bat da gerta daitekeela hitz hau herriak ez erabiltzea (eta, bi hitz beregainez baliatuta, autoreak asmatua izatea).

bili-bili.– Hizkuntzen hiztegieta honelako hitz adierazgarriak ⁵ gainerakoen arau eta erregela fonologikoetatik kanpo geratzen dira maiz. Honen ondoan *kili-kili*, *bilin-bolo*, *binbilin-bonbolo* eta beste asko jarriko genituzke. Dena dela, hitz hau haur hizkuntzari dagokiola esaten zaigu ('pato'), ez da ordea ezer berezirik aipatzen **bilikumia** edo **bilixa** bezalako adierazgarritasunaz (cf. IV.2).

txilixo.– Baita ere: **txilibit(u)a**, **Txilibitton**, goitizena, **txilibrizkau**, **txiliña**. Forma guzti hauetan, albokoa bi i-ren artean aurkitzen da. Badirudi hitzaren barrenean beste ebakin palatala (bokał edo kontsonante) egotea bustidura gertatzeko eragozpen izan daitekeela. Dudarik gabe, era honetara edo bestera, asimilazio bustidura mugatu egin da. Dirudienez, neutralizazioa ⁶ eta lexikalizazioak dira mugatze horren ardatz (cf. II.4.2.).

Esanahiari eta ahaideei begiratuta, badirudi (Gavel 1920, 447–448) **txiliña**-ren jatorria *tilin* (cf. *tilin-tilin*, *dilindan*, *tilinga*, e.a.) forma adierazgarria izan daitekeela. Ikus, hontaz, goragoko **bili-bili**.

Baina **txilixua** 'grito' eta **txilixua eiñ** 'gritar, chillar' dira TEn. Formaren jatorriaz ari garelarik, gehien interesatzen zaiguna gazt. *chillar* hori da. Ez dago garbi err. **tsisciare* batetik zenbait

⁵ Gauza hauetarako, onomatopeiak ere hitz adierazgarri deitu diegunekin batera sailka daitezke (Corominas-ek palabras de creación expresiva esaten die). Cf. III. atala ere.

⁶ Cf. FHV 200: «(...) se diría que la oposición I/I' tendía a neutralizarse tras i con realización palatal o no palatal». Hitzaren barruko beste palatalarena egoera honetara iristeko bide bat litzateke. Cf. FHV 174: *bilatu*, *ilargi*, *ilun*, e.a.

erromantzetarako bidean alboko palatal edo ez-palatal bezala agertzen denaren bilakaera: **chislar* > port. *chirlar*, gall. arag. *chilar*, e.a. (cf. Cor., s.v. *chillar*). Datorrenetik datorrela, **txilixo** -k adierazten du asimilazio bustidura ez zaiola ezarri *i*-ren ondorengo albokoari (beharbada, kanpotikako **ç** despalatalizatu egin da aipatu neutralizazioaz).

1.1.1.1.2. *n* / *i* ____ *V*

i bokalaren ondoren eta bokal aurrean aurkitzen den *n* fonemaren jokabidearen adibidetzat: **abozíñaua**, **aundiña**, **biña**, **biñatu**, **domiñia**, **eziñik**, **iñok**, **iñoiz**, **ipiñi**, **ipiñitta**, **makiñadi**, **makiñak**, **nausiña**, **siñaletzat**, **siñalia**, **sorgiñak**, **zeregiñak**. Adibide hauei albokoarenentzat proposatutako sailkapena (ik. 1.1.1.1.1) ezar dakieke.

a) Euskaratik kanpo hiztunak bustidurarik gabe ezagutzen dituenen artean, **abozíñaua**, **makiñadi** eta **makiñak** daude.

abozíñaua .- TEn, 'especial' («(...) quizás del carácter especial del cañón abocinado, hecho para disparar a boca de jarro como el clásico trabuco»). Benetan jatorria gazt. *abocinado* bada, asimilazio bustiduraren indarraren adibide diakronikoa dugu. Zaila da jakiten hiztunak noiz arte lotu dituen **abozíñaua** 'especial' eta *abocinado*, inoiz lotu baditu. Izan ere, esanahia askotxo aldendu da.

Beste bietan, berriz, lotura nabarmenagoa da. Hiztunak **makiñadi** 'maquinaria' eta **makiña(k)** 'máquina(s)' bustiduraz ebakitzen dituenean euskaraz, bustidurak asimilazioaren lekukotasuna ematen du. Bi hizkuntzen arteko harremana ezin da horren

zuzen asimilazioaren froga bizitzat hartu, **makiña** bat kopuru handia ('mucho(s)/-a(s)') adierazteko erabiltzen bada ⁷.

b) Agertzen den sudurkari sabaiko edo palatala ez da, berez, i batek eragindako asimilazio aurrekariaren ondorio **siñaletzat**, **siñalia** formetan (cf. Eibar *sellania*, FHV 201). Eibarko elebidunak erabiltzen duen erdaran ere [ŋ] agertzen da lat. *gn* taldearen ondorio (gazt. *seña*, *señal*, *señalar*, e.a., lat. *signa*). Ikus gorago 1.1.1.1.1.(b), kontsonante palatalak bokalaren nolakotasunean duen eraginaz. Ik. VII.2.188.

c) Gainerako formetan, gehienetan morfema muga dago bustirik agertzen den soinuaren eskubi edo ezkerretara. Posible da, beraz, testuingurua aldatzea bustiduraren emankortasuna txandakatze fonetikoetan ikusteko. Albokoaren kasuarekiko ezberdintasun garrantzitsu bat markatu behar da, dena dela. Badirudi i bokalaren eraginaz sudurkariak kontsonante aurrean ere busti daitezkeela (cf. 1.1.1.2 eta 1.1.1.3). Hartara, **eziñ-ik**, **ipiñ-i**, **sorgiñ-ak**, **zeregiñ-ak** egitura morfologikoak ez dira egokiak, ez bait dute kontrasterik eskainiko. Morfema muga bustitako soinuaren aurrean dagoenean, berriz (**aundi-ña**, **bi-ña**, **bi-ñatu**, **i-ñok**, **i-ñoiz**, **nausi-ña**), egin daiteke ingurunea aldatzeko froga. Sudurkariaren aurrean i agertzen ez denean, sudurkaria hortz-hobietakoa bada, garbi dago **iña** hurrenkeretan asimilazioa gertatu dela eta hala da, noski, Eibarko euskaran.

⁷ Mitxelena irakaslearen arauera, Errenterian *makiña* da kopurua adierazten duena eta *makina* 'máquina'-ren ordaina. Bustidurarik ezak mailegu berriagoa dela adieraziko luke eta, hizkuntzan sartu denerako, asimilazioak indarra galdu duela. Errenteriatik urruti ez dagoen Astigarragan *makiña* 'máquina' eta *ma* [x] *iña* 'mucho-a(s)' dira.

Jasotako bi superlatiboek bustiduraz ematen duten informazioen artean beste bilakabide fonologiko baten interferentziarena dugu. Hyman-ek (1970, 22) dio mailebuak bereganatzean hizkuntzaren fonologia ez dela maila bakar batean adierazten:

«The "psychological reality" of the properties postulated in a given phonology is demonstrated in two ways in lexicalization: first, certain morpheme structure conditions and phonological rules are shown to be productive in the process, second, certain rules are shown to interfere with the exact rendering of foreign material».

Zenbait euskalkitan erabat erregularra den bokal multzo murriztea (ie > i) bustidura baino lehenago gertatu bide da. Formen bilakabide historikoari begiratuta, murriztea gertatzen denean bustidurak bizirik dirau edo murriztearen ondoren jazotzen da. Fonologiaren moldaketa sinkronikoa antolatzean, erregelen ordenaz hitzegiten dute generatibistek. Bokal murriztea lehendabizi eta bustidura ondoren ezarri behar zaizkie /aundiena/ eta /nagusiena/ kateei. Bokal murrizterik gabe ez dago bustidurarako ingurune aproposik. Erregela bati esker beste bat gerta daitekeenean, bien artean "bazkatze" (*feeding*) ordena dagoela esan ohi da (cf. Kiparsky 1968). Nahikoa da, beraz, bokal murrizterik ez gertatzea bustidura hori i-ren eraginagatik gertatu den ala superlatibo atzizkian lexikalizaturik dagoen jakiteko (cf. *polit-ena*, *luze-ena*, e.a.).

Besteak i gabeko *no(r)k* eta *noiz* bezalakoekin erkatzea nahikoa da asimilazioaren emankortasuna ikusteko. Azken finean forma hauek badute zerikusirik (b) taldekoekin (cf. FHV 66-7: *e-nor*, *inor*).

Distributiboak, *bi* numeralaren paradigmakoak, baditu nahikoa

kontraste eta ebidentzia edo nabaritasun: **biña** vs. **ban**, **biñan** vs. **banan** **banan**, edo **biñatu** vs. **banatu**, e.a.

Lexikalizazioaren ildotik esplika daitezke, morfema muga eskubitara izanik, kontrasterik ez duten formak. Baita ere, **domiña** -ren kasuan bezala, hots bustia morfema barruan dagoelako beste testuinguru batean agertzerik ez dutenak. Nahiz eta hurrengo bokala *i* izan, bustia agertzen den sudurkaria lexikalizazioaren bidetik esplikatu behar da. Itzulpena 'medalla' da eta jatorrizko hitzarekiko lotura nahikoa etenda dauka (cf. gazt. *nómina*: Arbelaiz 1978, s.v. *domiña, domiñu*) **abozíñaua**-ren kasua areagotua litzateke.

Azalean behintzat salbuespen itxura dutenak ere badira: **benediktinuak**, **doministikun**, **etzinaldixa**, **Rasputine'n** (sic)⁸, **sinis(tu)**, **Txomin'enian**.

Lehenengo biak kanpotikakoak direla garbi dago. Gainera, noizbait bederen, elizari loturiko hitz ikasiak bide ziren. Gauza bera pentsa daiteke **Rasputine'n** formaz. Kulturazko hitzak, erabilkera mugatuagoagatik eta jatorriaren eredua hurreagotik somatzen delako, gainerako formen eredu fonologikoetatik kanpo gera daitezke. Forma hauek *phonological import* izenburupean jarriko lituzke Hyman-ek (1970, 7): «(...) cases where the borrowing language has in violation of its native phonology, adopted new sounds or sequences(...)».

Albokoaz ari ginela, **arrilandua** -rentzat proposatutako

⁸ Frantsesen idazkera jasoaz nonbait.

esplikazioa eskaini daiteke **etzinaldixa** 'siesta' azaltzean. Ez dira gauzak gehiegi korapilatu behar hitz honen osagaiak *etzin*⁹ eta *aldixa* direla ikusteko. Hemen ere hitzak neurri batean beregain mantentzen ditu hiztunak asimilazioa eragozten duen hitz muga formaren barrenean gordeaz. Aipatu da gorago sudurkaria bokal aurrean ez badago ere, busti daitekeela asimilazioz testu honetan (cf. 1.1.1.2.2. eta 1.1.1.3.2.). Halaz ere eta forma honen esplikazioa baldintza morfologikoan badatza, **etzinaldixa** -k adierazten du hitz mugaren aurreko bustidura ahulagoa dela hitz barrenekoa baino. Beraz, baldintza morfologikoak analogiaren ikuspuntutik osatuaz, **etzin**-en eredu bustigabea har daiteke arrazoitzat **etzinaldixa** -ren palatalizazio eza esplikatzeko.

Txomin'enian esplikatzeko ere egoera morfologikora jo beharko dugu. Hiztunak **Txomin** hitzaren autonomia gordetzen du, 'en casa de Domingo' esateko deklinatzen duenean.

Arazo latzena **sinistu** esplikatzekoa da. Azalean behintzat ez dago arrazoirik bustidurarik eza justifikatuko duenik. Berriz ere **txilixo** gogora genezake (ik. 1.1.1.1.1.). Berriz ere han proposatutako esplikazioa erabil genezake, hitz barruan beste ebakin palatala egoteak eragotzi egiten duelka palatalizazioa, alegia (cf. II.4.2. bi 1-ren arteko neutralizazioaz)¹⁰.

⁹ Azken buruan, **etzin** *etzan* da. Alternantzia hau (a/i) ez da harritzekoa euskal fonologian (FHV 59).

¹⁰ **Sinistu** -k salbuespen multzoa mallegu bezala sailkatzeko bidea ixten digu. **Sinistu** -ren jatorriaz euskaratik atera gabe egin bait daiteke atzera (cf. *zin* 'juramento'). **Domifia**, adib., berehala lotu behar da erromantzearekin (cf. gazt. *nómina*).

1.1.1.1.3. **d / i** (l, n) ____ V.

Ikusi da (III.6) euskal palatalizazioaz hitz egitean **d** fonemaren jokabidea berezia dela asimilazioari dagokionean. Asimilatzekotan, **i** eta asimila daitekeen ozen baten ondoren (ozen bustigai baten ondoren) egon behar du bizkaieraz ¹¹.

Testu honen datuen arauera, **d** ez da asimilazioz bustitzen **i** silabagilearen eraginpean: **azpil(l)duria**, **il(l)dakuak**, e.a. Morfema muga tartean ez badago ere, berdina da emaitza: **bildurra**, **bildotsa**, **indarra**.

1.1.1.1.4.1. **t / i** ____ V ¹².

Bokalaurrean eta **i** silabagilearen eraginez **t** fonema palatalizatu egiten denean, [t̺] (tt) edo [tʃ] (tx) izan daiteke ondorioa, testuak adierazten duenez (ik. V.2.4. eta V.2.6). Ikusiko den bezala, hitz bera ager daiteke bi moduetara idatzia (**Bittor**, **Bitxor**). Hots bata ala bestea aukeratzea hautazkotzat jotzen da hemen. Baldintza estilistikoen garrantzia neurtzeko nahikoa datu ez dago. Egileak sarreran dioenez, [t̺] aldaera ikasia da, [tʃ] berriz arduragabea (cf. Echebarria 1965-1966, 8-9). Esan daiteke egungo Eibarko ebakeran ez dela [t̺]rik entzuten.

¹¹ Goi-naftereraz eta gipuzkeraz **idV** eta **igV** kateetan gerta daiteke asimilazio bustidura (FHV 190). Cf. III.6.

¹² Beheraxeago datozen **pintturia** / **pintxuria** bezalakoek **in** ____ V testuingurua ere (1.1.1.1.4.2.) aintzakotzat hartzea beharrezkoa egin dute hemen eta beheragoko zenbait testutan.

Halaber, hitz bera ager daitekeelako bustiduraz eta bustidurarik gabe, *t* fonemaren bustidura hautazkoa dela aterako dugu ondorio. Baina, ondorioak ondorio, goragoko sailkapena (cf. 1.1.1.1.1. eta 1.1.1.1.2.) itV kateari ezarri zaio asimilazio diruditenak sailkatzeko asmoz:

a) Euskarak palatalizatu bide dituen mailebuen adibide lirateke: *abittaziñua*, *akolixua*, *Bittor/Bitxor*, *Bittorixa/Vitxorixako*, *bizitxatzeko*, *ermittako* (/ermintxia: ik. 1.1.1.1.4.2.), *gittarria*, *Hospittalerako*, *Melitxon*, *Pepitxua* (?). Adibide guztiok ia zuzenean gogora erazten dituzte esanahi berbereko gaztelerazko kide bustiduragabeak (cf. gazt. *habitación*, *acólito*, *Víctor*, *Vitoria*, *visitar*, *ermita*, *guitarra*, *hospital*). TEn *Pepitxua* era berean idazten da gaztelerazko itzulpenean ere. Sailkapenaren hobe beharrez, *Pepito* edo antzekoren baten euskal ordaintzat hartzera ausartu gara (*Melitxon* gazt. *Melitón*-en euskaratzetzat hartzen den bezala). Ez da ahaztu behar, ordea, atzizki diminutiboa gogora erazten duela bukareako -*txu* horren itxurak.

Aski litzateke hemen esatea adibide hauek mailebuei euskaraz gertatutako palatalizazioaren berri ematen dutela. Baina, gainera, TEn *Bittor* sarrerapean adibidetzat ematen duen esaldiak garrantzi handikoa izan daitekeen informazioa dakarkigu. Honela dio: «Bitor aundixa eta Bitxor txikixa, bixak montadoriak, eta Elgeta kalia». Dirudienez, eta nabarmenenetik hasteko, [tʃ] ebakerak badu zerikusirik esanahiarekin. Hain zuzen ere, adibidean palataldun agertzen dena da txikiagoaren zentzua duena. Pentsa liteke *Bitor* inprenta hutsa dela, *Bittor* sarrerari bait dagokio adibide hau ¹³.

¹³ Ik. beheago nola *Bittorixa* sarrerapean *Bitorixa* ere agertzen den.

Orduan, ezberdintasun semantikoa [t̺] eta [t̺̃]ren artean legoke, baina honek ez du egiantzekotasun handirik bustiduraz dakigunaren arauera. Zentzuzkoagoa da, tt grafia soiltzat hartzea.

Berriz ere, bide honetatik aurrera egiteko, datu gehiago eta zehatzagoak behar direla esan behar da. Dena dela, pentsatzekoa da t fonemaren asimilazio bustidura bi bustidura sistemen arteko muga egon daitekeela. Bestela esanda, t bustitzen denean, nahiz eta bustiduraren lehenengo arrazola asimilazioa izan, aldaketa semantikoa gerta daitekeela¹⁴. **Bitxor** formak zentzuarekin zerikusirik duelako VII. atalean ere jasotzen da. Baina, dudarik gabe, asimilazio aurrekariaren ereduari bete betean jarraitzen zaio gazt. *Victor* izen proploaren Eibarko ordaina¹⁵. Sail honetako adibideez, oraingoz, agertzen diren beste zenbait aldaera ematea bakarrik gelditzen da: **Bitorixa**, **ermitarik**. Inprenta hutsak izan daitezke, goragoko **Bitor** formaz apuntatu den bezalaxe. Baina, posible da t fonemaren asimilazioa hautazkoa (eta ez "automatiko" edo derrigorrezkoa) izatea.

b) Sail honetarako adibiderik ez dago, noski. Inguruko hizkuntzetan ez dago [t̺] hotsa/ ezin da, beraz, hots hori dakarren maileburik sartu euskarari. Esan ohi da /t̺/ dela fonemarik adierazgarriena: asimilazioak sortzen ez badu, adierazgarria bakarrik izan daiteke, ez du beste jatorririk. Gainera, asimilazio

¹⁴ Cf. Oñederra 1986.

¹⁵ -kt- taldea t bihurtuz murriztea erabat erregularra izan da euskararen fonologian (Ik. FHV 347-348 eta Txillardegi 1980, 330 hh): *erretole jauna*, e.a. Orain *aktore*, *doktoradulza*, e.a. entzuten dira.

ere ez da, esate baterako, ozenetan bezain emankor.

c) Morfema barruan eta, horregatik, ingurune alternantziarik gabeak: **Azittaiñ** (top.), **iturri/Itxurritxok** (izen prop.), **itxo** ('ahogarse'), **itxogiñez** ('de goteras'). Hauen testuinguruak ezin dira aldatu **itV** katean asimilazioa jazotzen den ikusteko. Hori bai, hitz berauek bustidurarik gabe ere agertzen dira zenbaitetan: **Azitaiñ**, **iturri/Iturritxo**. Adibidez, **iturri** sarrera guztiotan agertzen da bustidurarik gabe: **iturri**, **iturri-bidia**, **iturrixa**, **iturritsua**. Ez dirudi palatalizazio eza inprenta hutsa denik. Hemen ere, (a) zatian bezala, **t** fonemaren asimilazio bustidura hautazkoa dela ateratzen da ondorio: baldintza fonetikoak berdinak izanik, palatalizatua eta palatalizatu gabe agertzen da ¹⁶.

Aurrekoen egoera berean daude, testuingurua aldatzeari buruz, muga morfologikoren bat **t** fonemaren ondoren daukatenak. Sudurkaria bezala (cf. 1.1.1.1.2.), **t** bokalaurrean ez dagoenean ere busti daiteke asimilazioz (**politt**, e.a.: cf. 1.1.1.2.4. eta 1.1.1.3.4.). Horregatik ez du balio **t**-ren ondorengoa aldatzeak **itV** katean asimilazioaren emankortasuna neurtzeko honelako hitzetan: **dittue**, **politta**. Hemen ere aurkitzen dira forma bustidurarik gabeak (**ditu**, adib.).

Haatik, muga **i** eta **t**-ren artean dagoenean, are gehiago **i** ez denaren ondoren erantsi daitezkeen atzizkiez osaturiko hitzak direnean, neur daiteke **it** hurrenkeran asimilazioa gertatzen den.

¹⁶ Badaude beti bustidurarik gabe agertzen direnak ere: **eskriturak**, **itandu**, **-ita** (top.), e.a. Datu gehiago behar da hau erabat ziurtatzeko. Baldintza estilistikoak ere aztertu beharko lirateke, gainera. Egia bada inoiz ez direla bustitzen eta beste arrazoirik ez dagoela, lexikalizazioaren bidetik jo beharko genuke.

Aurretik esan behar da, hauetan ere i-ren ondoren tt/tx eta t soila aurkitzen direla. Nahiz eta nabarmen izan gehienetan bustidura gertatu dela, ez da erabat automatikoa (hautazkoa bide da orain artekoetan ikusi den legez). Atzizki hauetxek i ez denaren ondoren daudenean, beti t soilez hasten dira. Horra hor asimilazioa gertatu denaren froga. Katea i+tu denean: **arrittu** (eta **arritutzia**), **aurkittu** (eta **aurkitu**), **baltzittuta**, **geldittu** (eta **gelditu**), **gorritxutako**, **jakitturixian** (eta **jakituna**), **aundituta**, **orritutta**. Katea i+ta denean: **argitta(ra)kua**, **argittasuna** (eta **argitasuna**)¹⁷, **azittarakua** (eta **azitako**), **baserrittarra** (eta **baserritarra**), **begittan** / **begitxan**, **begitxandu**, **belarritxak**, **bittan**, **bittartian** (eta **bitartian**), **bizittasuna** (eta **bizitasuna**), **egittarra** 'partidario de la verdad' (eta **egitarra**), **eretxitta**, **itxitta**, **erositta**, **jausitta** (eta **jausitako** gehiagotan), **txikittako**. Katea i+ti ere izan daiteke: **betitxik** 'por abajo', **erdittik**, **pagadittik**.

1.1.1.1.4.2. t / i (l, n) ____ V.

Hau da, t in hurrenkeraren ondoren datorrenean eta ez zuzenean i-ren ondoren (ez dago l-ren ondorengo adibiderik). Aztertzen ari garen testuan egoera hontan ere gerta daiteke t fonemaren asimilazio bustidura dirudiena: **erremintxa**, **pintturan** / **pintxuria** (eta **pintura**, **pintau**), **pintxanuak**, **tanbolintterua** (?). Testuinguru hau d fonemearen asimilaziorako eman ohi da normalean. Jasotako adibideetan, gaztelerazko baliokidea horren gertu ez balego (cf. *herramienta, pintar, pintura, pintada*), ez

¹⁷ Bustidurarik gabea Ebanjelioaren zati bat aipatzen duenean agertzen da. Adibide bat ez da nahikoa, inola ere, estiloari buruzko aierutan hasteko, baina balegoke zer aztertu ildo horretatik.

litzateke sortuko ebakera palatal horiek justifikatzeko beharra. Hemen adibide hauek (a) taldekotzat hartuko ditugu (ik. 1.1.1.1.1.): hiztunak gazteleraz palatalizaziorik gabe ezagutzen ditu. Egia da batzuetan aldaketa ez dela *t*-ren bustidura bakarrik, hala nola daukagun **erremintxak** forman bokal multzo murriztea (cf. 1.1.1.1.2. **aundiña** eta **nausiña**). Gero eta diferentzia gehiago egon palatalizazioaz gain, zailagoa izango da hiztunarentzat euskarazko forma erdarazkoarekin identifikatzea.

Aipagarria da 'ermita' esan nahi duen hitzaren **ermintxia** aldaera. Azalean testuingurua **int** delako, azaltzen dugu zati honetan. Dena den, *t*-ren bustidura **ermittako** formarena bezala esplika daiteke (cf. 1.1.1.1.4.1.) eta sudurkariaren eransketa beranduagoko bilakabidetzat hartu. Bilakabide fonologietako (*process phonology*) erregela hurrenkeran *n* eransketa bustidura asimilazioaren ondoren letorke. Argi dago, noski, **ermita**-ren historia ezaguna izanik (ik. Cor, s.v. *vermo*), **ermintxia** -n agertzen den *n* hori sekundarioa dela. Ez dago, gainera, eragozpenik sabaikalduaren edo oraindik sabaikaldu gabearen aurrean agertzeko, bestelako baldintzak betetzen badira. Hori bai, sudurkaria inplosi-boa izanik, ondorengo kontsonantearen ahoskunea izango du (II.4.2.). Eztabaidatzen ari garen formetan grafikoki markatua ez egon arren, palatala bide da. Eransketa edo epentesia FHVn (305) *propagación progresiva de nasalidad* deitzen denean sar daiteke, *m* hartzen dugularik sudurkaritasuna hedatzen duen elementutzat. Ikus FHV-ko (305) adibideak:

«(...) hay casos de propagación progresiva de nasalidad (...) en los cuales aparece una *n* secundaria en posición final y *n* o *ñ* en interior de palabra: lab. *jakintsun* 'sabio' de *jakintsu*, vizc. *zentzun* 'juicio' de *zentzu*, *mamin* 'carne,

parte blanda' de *mami*, *premiña* 'necesidad' de *premia*, *tximino(i)* (lab. *ximino*) 'simio', etc.».

1.1.1.1.5. **š** / i ____ V.

Hau da, zer gertatzen den txistukari apikaria i silabagilearen ondoren dagoenean atzetik bokala duela. Bizkaierari dagokionez eta testutik ateratako datuen arauera, guztiz erregularra da bustidura jazotzea. Horretarako adibiderik garbiena (a) taldeko (ik. 1.1.1.1.1.) *lixua* 'liso, sencillo, llano' (*lixotasuna*, *lixotu*, e.a.) forma izan daiteke. Haatik *lixibera* 'lavandera' eta *lixibia* 'colada' VII. kapitulurako utzi ditugu ¹⁸. Dena den, *lixo*-ko bustidura adierazgarria ere izan daiteke (cf. VII.5.249. *axal*).

Zaila da *ixo* formaren sailkapena. *ilxool* eta *ixo* agertzen dira 22. orrialdeko adibide bitan. Dagokion sarreran, berriz, *ilso!* (350. or.) agertzen da eta esplikazioa: «Interj. con que se manda parar al asno». *ilxool* («interj. con que manda parar el boyero», 358.or.) sarrerak adierazten du asimilazioa nahikoa hedatu dela, hautazkoa izan badaiteke ere. Izan ere, ez dirudi oso egiantzekoa idiak bustiduradunaz geldieraztea eta astoa, berriz, apikaria duen formaz. gazteleraz ezagutzen dugun *so*-rekin zerikusirik badu forma honek, hasierako bokala azaldu beharko genuke (cf., dena dela, VII.6.729. *txo!*). *Ixu-eguna* 'Sábado Santo' *su-barri eguna*-ren sinonimo omen da. Hemen ere *ixu su*-tik azaldu behar den ala *ixotu* 'encender'ekin lotua dagoen ikusi beharko litzateke (cf. *ixua* 'tizón': su berria etxeetara eramateko erabilia, hain zuzen).

¹⁸ Azkuek *lisiba* du hiztegiko sarrera, s-dun forma (*lisibare*) Baztanerako bakarrik ematen duelarik (ik., dena dela, 1.4.1.1.5. *lisiba*). Lhande-k *lisiba* 'lessive' dakar eta mailebu bezala markatzen du.

Euskara honetan, *ixo* (edo *igo*) 'subir' ¹⁹ ere izan daiteke eta *ixo(tu)* 'encender'. Bada gainera euskaraz palatalizazioaren aldetik bilakabide antzekoa izan dezakeena testuan agertzen ez bada ere, *ixo* isilerazteko erabili ohi dena, alegia. Guzti hauek, nolanahi ere, indar analogiko haundiko eredua osatzen dute; */i/so* azaltzeko bide bat, beraz, analogia (eta katea erabat ereduari egokitzeko bokalaren epentesia) izan daiteke. Sailkapen hirukoitzean (ik. 1.1.1.1.1.) (b) taldekoa litzateke: *so* > *xo* > *ixo*. Baina hau ere, oraingoz, aleru urruna besterik ez da.

Bada beste forma bat besterik gabe sailka ezin daitekeena: *bixigu* 'besugò'. Bigarren i horrek (ik. FHV 78 u > i aldaketaz) lehenengoa itxi duenaren ustea ez dago erabat desbideratua ²⁰. Kontuan hartu behar da, salbuespenak baditu ere, honako arau hau betetzen dela:

«En palabras de más de dos sílabas, en la práctica en trisílabos, a y o de la primera sílaba se cierran en i y u, cuando la vocal de la siguiente tiene uno de estos dos timbres».

FHV 64.

Beraz, *bixigu* arau horren ondorio bada, (a) taldekoa (ik. 1.1.1.1.1.) litzateke. Egia da hiztunak gazteleraz ezagutzen duen *besugo* eta *bixigu*-ren artean diferentzia ez dela bustidura

¹⁹ Cf. G *igo*, *iyo* 'subir': ez ote da gertatu frikari bihurtutako bokalarteko kontsonantearen kenketa eta gero palatalaren eransketa (cf. *mendiya*, *-ixa*, e.a.)? Ik. III.6.

²⁰ Dena dela, cf. gazt. zah. *bisajo* (Cor. s.v. *besugo*) ere.

bakarrik, $u > i$ bilakabidearen interferentzia ere nabarmentzen da mailebuan (eta beharrezkoa da asimilazioarentzako testuingurua sor dadin). Ik., **erremintxak** (1.1.1.1.4.2.) eta **aundiña**, **nausiña** (1.1.1.1.2.) aztertzean, bilakabideen interferentziez esandakoak. Kontuan izan behar da, dena den, ingurune honetan txistukaria asimilatzen ez duten euskalkietan ere bustiduraz gertatzen dela hitz hau. Txistukari sabaiaurrekoak bestelako jatorririk ere izan dezake, beraz.

Txistukarien asimilazio bustidurak ez du (b) taldeko formarik eskaintzen **t** fonemaren kasuan bezala, ezin da **j** duen formarik mailebatu (Eibarko hiztun elebidunaren gaztelera da axola duena). Egungo gaztekerak ez du hots hori.

c) Talde honetako formak badira, noski. Gainera, forma berbera bustiduraz eta bustidurarik gabe azaltzeak bustidura hautazkoa dela salatu eta bilakabidearen lekukotasuna ematen du: **ixiltzen**, **ixildu**, **ixiltziak**, baina **isillen**. Alternantziarik eskaintzen ez duten formen artean: **ixotu** 'encender', **ixua** 'tizón', e.a. Honelakoetan ezin da, besterik gabe, asimilazioa egon dela baieztatu (cf. VII).

1.1.1.1.6. s / i ____V.

Hau da, palatalizatzeko testuinguru hontan txistukari bizkarkari edo dorsala agertzen denean ²¹. 1.1.1.1.1. puntuan

²¹ Txistukariak bereiztean testuko grafiak errespetatzen dira. Biskarkaritzat hartzen da testuan **z** dena, nahiz eta ebakeraren aldetik txistukari igurzkaria apikaria izan Eibarren (bizkaierazko txistukari neutralizazioa: frikari biak apikari ebakitzen dira eta afrikatuak, bizkarkari).

proposatutako sailkapena ezarrita, honako hau dugu:

a) Bizkarkariari dagozkion adibideak multzokatzean, ez gara mailebuez kezkatuko. Testuaren garaiko hiztun elebidunak erdaraz (gazteleraz, Eibarren) erabil ditzakeen txistukariak apikariaren bidez mailebatuko bait ditu mailebatzekotan. Zaharretatik *eliza* (cf. lat. *ecclesiam*) hitzari dagozkion aldaerak gordetzen dira. Urrutiegi daude dagoeneko, latinezko jatorri bera izan arren, gazt. *iglesia* eta testuko *elixia* asimilazioaren frogatzat erabiltzeko ²².

b) Goragoko txistukarien (1.1.1.1.5.) (b) taldeaz esan bezala, ezin da egun $\int$ -rik mailebatu.

c) Orain arte aztertutako trabarien asimilazioaz ikusi den bezalaxe, txistukari bizkarkariarena hautazkotzat hartu behar da. Hiztegia zehar forma bera bustiduraz eta bustidurarik gabe ager daiteke. Badira era batera ala bestera bakarrik azaltzen direnak ere, baina inolako sistemarik gabe (kontuan izan behar da, testu mugatu batez ari garenez, halabehar hutsa izan daitekeela). Bestalde, forma bat bustiduraz eta bustidurarik gabe idazten denean, ez da nabaritzen inolako zentzu aldaketarik (cf., ordea, **Bitxor** 1.1.1.1.4.1.). Aurrekoekiko berrikuntza haundirik ez dagoenez, adibide zerrenda eman baino ez da egiten hemen. Esan behar da, txistukari apikariaren kasuan ez bezala, gehiago direla palatalizatu gabeak palatalizatuak baino:

²² **Gitarra**, **bixigu**, **elixia** : hirurak dira erdaraz bustidurarik gabe eta euskaraz bustiduraz ebakitzen diren hitzak, baina mailakatze bat ezarri daiteke hiruren artean. Lehenengoa da hiztunak erdaraz erabiltzen duenetik gertuen dagoena formaz eta zentzuz (**abozinaua** -n distantzia zentzuaren aldetik zegoen). Horregatik, bustiduraren emankortasun biziaren aldeko froga ezin hobea da. Hitzaren aldaeren artean (*elexa/ eliza*), **elixiak** ekialdeko bokalismoa duela esan behar da (M1974, 190-192).

abizena .- Baina **apellidua** omen da forma herrikoa (cf. 0.4. hiztegi baldintzak).

barrizalia .- Hemen hitzaren bi osagaien arteko muga garrantzitsua izan daiteke (cf. **arrilandua** 1.1.1.1.1., **etzinaldixa** 1.1.1.1.2., baina **egittarra** , e.a. 1.1.1.1.4.).

bizar .

bizi , **bizixegaz** .- Baita ere: bixixenak.

bizitxatzeko .- Hitz honen arauera, emankorragoa da t-ren asimilazioa [s] txistukariarena baino; ezin da ahaztu, dena den, herskariarena morfema muga zehar gertatzen dela (cf. 11.4.2).

eliz-ataixa , **elizatik** , **Elizia** .- Baita ere: **elixako** , **Elixara** , **Elixia** . «Alterna con Elizia» dio berak s.v. **Elixia** .

gizajo , **gizajuan** , **gizon** .- Baita ere **andra-gixon** (eta **andra-gizonak**) 'matrimonio': ez dirudi esanahiaren aldetik ezer aldatzen duenik bustidurak ²³. Asimilazioa hautazkoa dela esan beharko da.

ixan .- Gehien gehienetan, ordea, izan.

lixardi .- Hitzez hitz hau irakurtzen da: «Fresnedo. patron.

²³ «Auzoko andra-gixon gaztiak, ume bat besuetan artzera urten dabe dotore dotore» (TE, 160: s.v. *besuetan artu*).

Lejardi y *Lizardi* ». Bestela, *lixarra*, e.a. Horren arauera, asimilazioa izen arrunta denean gertatzen da.

lizuna, *lizundu*, *lizunkerixia*, e.a. Beti asimilaziorik gabeak.

1.1.1.1.7. **tś** / i ____ V.

Silabagilearen ondorengo afrikatu apikariaren asimilazioa hautazkoa dela edo lexikalizaturik dagoela esan behar da. Alegia, hitz (lexema) bakoitzean modu batera agertuko dela (**itś** V edo **itʃ** V) palatalizazioaren emankortasuna agortu egin dela adieraziaz. Bustidura agertzen denean, noizpait gertatutako asimilazioaren aztarrena izan daiteke. Bi erataria idatzirik jaso den hiztegi elementu bakarra *-tsu* atzizkia da. Hain zuzen ere, atzizkia izanik eta atzizkiaren lehenengo hotsa bustigala, ezkerreko testuingurua alda dakioke. Bustidura hitzaren erroa i-z amaitzen denean bakarrik gertatzen da (cf. *jakintsua*, *urtsua*), beraz garbi geratzen da asimilazioarena. Baina ez da beti gertatzen: *barritxua*, baina *egarritsua*, *egitsua*. Lehenengo hitza arruntagoa eta erabiliagoa bide da. Normala da asimilazioak, hautazkoak direnean, gehiago gertatzea eguneroko hizkeran hizkera zainduagoan baino (ik. 15. oharra eta sarrerako 0.5). Bestalde, *barritxua*-ko bustidura adierazgarria izan daiteke beste zenbait euskalkitan bezala.

Jasotako adibideak honakook dira: *itxasua*, *itxua*, *itxuzkixa* ('escoba de fabricación casera'). Hirugarrena bereziagoa da, baina beste biak oso hedatuak daude euskalkiak zehar eta asimilazio bustidura sistema diferenteak dituztenetan ere maiz ebakitzen dira bustiduraz hitz horiek:

«Esporádicamente se encuentra **č** por 'c' en esa posición tras i silábica en hablas muy diversas: *itxaso* 'mar', *itxu* 'ciego', *itxusi* 'feo'».

FHV 192.

Bego **itś** V hurrenkeran asimilazioaren emankortasun ezaren adibidetzat **bitsa** sarrerapean ematen den esaldia: «**itxas** baztar guztia zan **bitsa**» [beltxazka gurea].

Aztertutako forma guztiok (c) taldekoak lirateke 1.1.1.1.1. eta ondorengoetan erabilitako sailkapenari jarraiki. Hutsik agertzen da (a) taldea, ezin bait da **tś** hotsa gazteleraz gertatu. Bada, ordea (b) taldean sar daitekeen forma: **itxura**. Gazt. *hechura* kontuan hartuta, erraza da e > i bokalaren egokitzea bezala ikustea (cf. Gavel 1920, 39). Dena dela, kontsonante palatalaren eraginaz gain, ondorengo silabako bokal itxiaren eraginaz ere pentsatu behar da (ik. FHV 64 eta 1.1.1.1.5.: **bixigu**).

Bustidura adierazgarriaren atalerako (VII.∞) gelditzen dira **itxitta** ('cerrado', cf. **itxi**/**utxi** 'dejado' ere), **gitxi**, e.a., euskalki bakarraren datoekin, eta azalean, asimilazio **itxura** badute ere. Hontaz gehixeago, 1.3.1.1.7/8. puntuan.

1.1.1.1.8. ts / i ____ V.

Afrikatu bizkarkariaren kasuak ez dakar lehengoarekiko berrrikuntza haundirik. Izatekotan, are noizpehinkakoagoa dirudiela **tʃ** ts-ren ordeaz agertzea:

aritxa, aritxalia ('bellota': *aritz* + *ale*, beraz).- Baita ere **aritza**. Hau, noski, bokalerdiaren asimilazio indartsuagoaren arrasto lexikalizatua izan daiteke (cf. *areitz*).

eritxi, iritxi, iritxixa.- Baina eretxixa ere bai. Azkeneko-aren arauera, badirudi euskalki hontan hitz hau **tx** hotsez ([tʃ]) ebakitzen dela aurretik dagoen bokal aintzakotzat hartu gabe. Baina, antza denez (FHV 106), afrikatuaren aurreko bokala hemen ere *e/* diptongotik dator (cf. *eleiza, eliza, elixa*: M 1974, 190-192). Hortaz, **eretxixak** diptongoak sortutako asimilazio erregularra erakusten du. Galnerako formek ekialderagoko bokalismoa (G *eritzi, iritzi*) izan arren, bustidura ere jasan dute.

itxuli.

Itxari.- Goitizena da eta **eitzarixa** omen du jatorria. lehenengo bokalaren bilakaera goraxeagoko **eritxi, iritxi**-rekin pareka daiteke (cf. *eiza* vs. *ihizi*).

Itxain, itxaropenia. - Hitza zaharra da eta ez dago garbi nola dagoen osatua (Ik. Arbelaiz 1978, s.v. *itxadon* eta FHV 482). Hitzaren barruan egoteagatik eta ez morfema mugaren ondoan, ez dago kontrastatzeko aukerarik. Nolabait esanda, **aritxa/aritza** bikoiztasunaren gardentasunetik beste muturrean aurkitzen da. Orain aztertzen ari garen forma honek beste euskalkitan ere ez dauzka bustidurari dagokionean ezer argi dezaketen aldaerak (beti bustiduraz ahoskatzen da: Ik. VII.6.491. **etxagon**).

Gainerakoan, benetan nabarmenduko litzatekeen formetan, testuingurua aldatzeko aukera ematen dutenetan, alegia, ez da bustidurarik agertzen. Adibidez, *-tzen* atzizkia ez da inoiz bustitzen (**baltzitzia**, **bizitzia**, **zuritzia**). Beraz, ezin da esan afrikatuen bustidura asimilazio sistematikoa (bizia) ikusten denik. Oso kontuan hartzekoa da kasu hauetan morfema muga dagoela i eta afrikatu bustigaiaren artean.

1.1.1.2. Kontsonante aurrea (/ ____ C).

1.1.1.2.1. i / i ____ C.

Kontsonante aurrea erabat harturik gertatzen denari begiratuta, ikusten da bustidura ez dela beti agertzen. Testuinguru berean forma palatalizatua eta forma palataliza gabea ager daitezke. Hau azaltzeko modu bat izango litzateke palatalizazioa hautazkotzat jotzea. Bestalde bokal aurreko palatalizazioaren eragin analogikoa areagotu egiten da testu idatzian (kontsonante aurrean ahoskatzen ez diren bustidurak ere markatuz).

Kontsonante aurrean honako forma hauek agertzen dute bustidura: **illdakuak**, **illgo**, **illtzen**, **illtzia**, **ill zanian** (talde foniko berean ahoskatzen badira hitz biak), e.a.; **ibillgarri**, **ibilltzen**, **ibilltzia**. Hauetatik kanpo, ez da bustidurarik adierazten testuinguru honetan. Aintzakotzat hartu behar dira, forma palataldun hauek aztertzean, *ibili* [iβi̯ɛi] eta *hila* [i̯ɛa]. Hauek dira aztertzen ari garen formen paradigmetakako elementu ohizkoenetakoak, hizketan sarrien gertatzen direnetakoak. Erraz ulertzen da, euskalki honetan l-aren palatalizazioa bokal aurrean erregularra izanik (ik. 1.1.1.1.1.), bi forma horiek izan dezaketen

eragin analogikoa.

Hala ere, badira /b/ eta /h/ hitzen familia lexikokoak ere bustidurarik agertzen ez dutenen artean: **abildadia**, **biltzia**, **biribildu**, **biribiltzen**, **ibiltari**, **ibiltzen**, **ildakuak**, **iltzeko**, **ixildu**. Hauen arauera, ez dirudi **abilla**, **biribilla**, **ibilli**, **illa** eta **ixilla** bezalako enagin analogikoa erabatekoa denik. Esan bezala, kontsonante aurreko palatalizazioa hautazkotzat hartuta jaso daiteke gertatzen dena. Hori egiaztatzeko, ikerketaren hurrengo urrats batean aztertu beharko litzateke forma hauek normalizat hartzen diren hitzunen artean bustiduraz ebakita ere. Orain arte ikusi dena da l-aren ondorengo kontsonanteak bustidura asimilazio-ari traba egin dakiokeela.

1.1.1.2.2. n / i ____ C.

Albokoaren kasuan bezala, i silabagilearen ondorengo n kontsonante aurrean bustita eta busti gabe agertzen da: **alegiñzallia**, (eta **aleginzallia**), **ariñdu**, **biargiñzalia**, **burdiñbidia**, **eziñdakua**, **miñdu**, **sorgiñkerixia**. Zaila da bustidurarik agertzen ez dutenekiko bereizkuntza sistematikoren bat aurkitzea, cf.: **arrauzinka**, **berinkatuakin**, **birrindu**, **etzindu**, **findu** (cf. **ariñdu**, **miñdu**), **burugintzia**, **minberia**, **minsorra**. Baldintza fonetikoek ez dute balio, testuinguru berdinetan gerta bait daiteke sabaiko ñ edo hortz hobietako n (edo, ondorengo kontsonantearen arauera, [m], [ŋ] edo [n]: cf. II.4.2, III.7).

Baldintza morfologikoei begiratuta, bustidura agertzen dutenak beti daude morfema mugaren ezkerretara, hau da, morfema

baten azken hotsa dira. Bustidura agertzen ez dutenak ere egoera berean daude, **berinkatuakin** kenduta. Dударik gabe ez dugu nahikō inolako ondoriorik ateratzeko. Albokoaz esan duguna errepikatuz: kontsonante aurrean n-aren asimilazioa gertatzen bada, hautazkoa da (ik. 1.1.1.2.1., analogiaz eta testu idatziaz esana).

1.1.1.2.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean.

1.1.1.2.4. Ez dago **t**-rik kontsonante aurrean sandhiz ez bada. - *dun* atzizkiaz eratorritako forma bat agertzen da: **polittduna** (cf. 1.1.1.3.4.).

1.1.1.2.5. **ś** / i ____ C.

Txistukari apikaria i-ren ondoren eta kontsonante aurrean gertatzen denean, ez da palatalizaturik agertzen testuan: **arriskua** ('riesgo'), **eristia** (cf. *eritxi*, *iritxi*), **kisketa**, **tristuria**.

1.1.1.2.6. **s** / i ____ C.

Jatorrizko txistukari bizkarkariaren jokabidea apikariarena bezalakoxea da: **ariztixa**, **baltzizkia**, **barriztia**, **begizkua**, **eliztarra** (*eliz-bidia*, *eliz-deixak*, cf. *elixia*, 1.1.1.1.6.), **pizkat**²⁴, **txipriztiñen**.

1.1.1.2.7. eta 1.1.1.2.8. Ez dago i-ren ondorengo afrikaturik kontsonante aurrean. Kasu bereziren bat salbu, testuinguru honetan

²⁴ **Pizkat** : hitz hau gehienetan bustidura adierazgarriaren ondorio bezala bustiduraz ebakitzen da euskalki askotan. Estiloaren aldetik ere hitz arrunta denez, bustidura biak errazten dituenetakoa da.

afrikatuak igurzkari bihurtzen dira (cf. **ariztixa** / **aritz**).

1.1.1.3. Hitz azkena (/ ____ #).

1.1.1.3.0. Hitz azkeneko solnuei gertatua aztertzeko adibideak aukeratzean, talde fonikoaren bukaera izan zitezen bilatu da. Esaldi amaieran edo nolabaiteko etena adierazten duen puntuazio marka ondoren dutenak hartu dira. Horrelakoen ezean, hurrengo hitzarekin lotuko ez zirenaren itxura zutenak ere izan dira kontuan. Gogoratu **ill zanian**, adibidez, kontsonante aurrekoen artean (/ ____ C: 1.1.1.2.1.) sartu dela.

1.1.1.3.1. **i** / **i** ____ #.

Albokoa hitz azkenean badago **i** silabagilearen ondoren, batipat palatalizatua agertzen da:

ba'darabill .- «Orrua ta abarra ba'darabill behintzat bedorrek» (s.v. *abarra*). Baita ere, komek markatzen duten etenaren aurrean: **ba'nabill** , **ez'nabill** .

ill .- «Ze sasoitakua da gaur ill dana».

pill-pill .- Onomatopeiatzat har daiteke, baina *pill-pil* esaten da beste euskalkietan eta inguruko gaztelaraz. Onomatopeiak ez du azaltzen bustidura, gainera.

Dena den, hitz bera bi eratara azal daiteke testuingurua funtsean berdina delarik (cf. **mutill zarrari**, baina **mutil gazte**).

Kontsonante aurrean bezala, hitz azkeneko l-aren bustidura hautazkoa dela aterako da ondorio.

1.1.1.3.2. n / i ____ #.

Oso indartsua da n bustitzeko joera hitz azkenean ere: *ekiñ*, *eziñ*, *Juakiñ*, *Kataliñ*, *miñ*, *Permiñ*, *potiñ*, *zeregiñ*. Ez dago ia salbuespenik. Bustidurarik gabe agertzen da *etzin* 'acostarse, echarse' (cf. 1.1.1.1.2. *etzinaldixa*) ²⁵; baita ere *malluakin* (*urunakin*, e.a.), *Matxin*, e.a.

1.1.1.3.3. Ez dago d-rik hitz azkenean.

1.1.1.3.4. t / i ____ #.

Normalean bustiduraren markaz agertzen da testuinguru honetan t (*darabitt*, *politt*), baina bada bi eratara agertzen denik ere (ez *dakitt*/ez *dakit*). Gogoratu bustidura hau, hitz eratorketa dela eta kontsonante aurrean suertatzen denean ere ez bide dela galtzen: *polittiduna*. Lehenago ere hitz egin da bokal aurreko aldaerak (hau da, *politta*) izan dezakeen eragin analogikoaz.

1.1.1.3.5/6/7/8. Ez da agertzen txistukari palatalizaturik hitz azkenean. Ezin da, ordea, esan palatalizazio ezaren froga denik ere. Ez dago ia i+txistukariz amaitzen den hitzik testuan, hizkuntzaren hiztegian ere erlatiboki gutxi dira horrela amaitutako morfemak

²⁵ Euskaraz *elzan*, *elzin* aldaerak dira; *elzin* forma ez da berria RSen eta Micoletarengan agertzen da (ik. Michelena 1977b, 81 n. 16). Landuchiok ere i bokalaz idazten du (*essin* 'acostarse'). Zaharra delarik are nabarmenago gertatzen da bustidurarik eza (bokalaurrean ere ez da gertatzen: baina cf. 1.1.1.1.2. *etzinaldixa*).

(hau da, hitzen osagai diren morfema eta lexemak, bestela esanda). Honelako bustidura arraroa litzateke euskaraz, dena dela.

Kontsonante aurea aztertzean, ikusi da joera ezezkoa dela. Gehienetan, eta ez euskaraz bakarrik, kontsonante aurreko jokaera fonologikoa hitz azkenekoa bezalakoa izaten da (cf. ahoskabetze erregelak, e.a.).

1.1.2. j ____ .

1.1.2.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

1.1.2.1.1. l / j ____ V.

Bokalerdi palatalaren ondorengo l erregulariki bustitzen da bokal aurrean testuak isladatzen duenaren arauera: **aintzallia** , **bedinkazallia** , **billazallia** , **eskallua** , **malluakin** , **zalla** .

Palatalizazioaz gain, bokalerdiaren kenketa agertzen dute forma hauek. Jakina da bokalerdiaren kenketa bustidura baino beranduago gertatzen dela (kentzen den bokala bait da bustidura gertaerazten duena). Emandakoen antzekoak dirudite **arrapatzallia** eta **bedinkazallia** formek. Bi azkenotan ez da agertzen diptongorik, baina ezta bustidurarik ere. Forma hauek azaltzeko atzizkiaren aldaera biak izan behar dira kontuan: *-za/e*, alde batetik, eta eki-alderagoko *-(t)zall/e*, bestetik. Ikusten denez, batzuetan (*-tzallia*) biak nahasten dira.

Salbuespen garbiagoa litzateke **sermoilari** hitza. Gainerako adibideekiko duen diferentzi bakarra egitura morfologikoan datza. Asimilazioa eragiten duen *i* eta asimila zitekeen *l*-aren artean morfema muga dago, palatalizazioa agertzen duten formetan ez bezala. Bokalerdiaren ondorengo egoerak, beraz, bokal ondoan ikusitakoaren kontrakoa dirudi (cf. 1.1.1.1.1. **txilix**o /**langill**ien).

Bustidura jasan duten formetan ere bokalerdia ez da beti galtzen: **fraille** , **sailla** ²⁶. Oraingoz hautazkotzat hartuko dugu, baina badago zer esanik bustiduraren adinaz, hizketaren abiaduraz eta estiloaz, e.a., bokalerdiaren kenketa dela eta.

Forma bustiduradunen sailkapen honetan bokalerdia desagertzeak dakarren ondorio nagusia da azaleko egitura aldatzen dela. Agirian behintzat ez dago arrazoirik asimilazioa hartzeko bustiduraren arrazoitzat: Kiparsky-ren erara esanda, erregela "opakoagoa" bihurtzen da, gardentasuna galtzen du. Hitzaren historira edo/eta beste euskalkietara jo behar da askotan, azpian datzan bokalerdia berreskuratuko bada. Are gehiago, zerrendatuak bezalakoetan, hots palatala morfema barrenean suertatzen denean: **eskallua** , **malluakin** , -(t)zallia. Adibidez, **eskallua** 'pez de nuestros ríos' *eskaillo* bezala ere agertzen da (Azkue 27: *eskai~~ll~~o*). Era berean, **mallu**- aldaeraren ondoan *mailu* dago ekialdeko euskalkietan ²⁸.

²⁶ Erdal jatorriak eragina izan dezake autorearengan **fraille** -ren kasuan.

²⁷ Azkue-ren grafia ez da erabat fidatzekoa palatale dagokienez. Ik. hontaz **óilu** adibidearen eztabaidan esaten dena (3.1.2.1.1, 3. oh.).

²⁸ Ekialdean despalatalizazioa ere gertatzen da. Hitzaren historiari begira (cf. lat. *malleu*), pentsa liteke latinezko alboko geminatuaren ondorio daitekeela alboko palatala (cf. lat. *pullus* , eusk. *ollo*). Ziurraski, hitz hau Aragoiko erromantzearen bidez sartu da euskarari (Michelena 1964, 110; Menéndez Pidal 1962, 28).

Alderantziz, **mallubi** 'fresa' ez da sartu zerrenda hontan, **mailubie*z delako gertatzen (cf. *margiua*, *maurgia*, *maulubia*, *marrubia*, e.a.). Dirudenez, alboko sabaikoa dardarkariaren aldaera adierazgarria da (ik. VII.1.73.).

1.1.2.1.2. n / j — V.

Salbuespenik gabe gertatzen da bustidura sudurkaria bokalardi palatalaren ondoren eta bokal aurrean dagoenean. Bokalerdia desagertzea hautazkotzat hartuko dugu hemen ere bestelako baldintzak neurtzerik ez dugunez (abiadura, estiloa, e.a., alegia): **afan-usaiñak** ('ostentositades'), **añako** (cf. **ainbat**), **baño** 29, **eiña** (*egin* aditzaren partizipio mugatua), **ipoiñak** eta **ipoñak**, **loñia** ('pez de nuestros ríos'; cf. Azkue: *loina*, *loira*), **soñekua**.

Hemen ere (cf. 1.1.2.1.1. **eskallua**, **malluakin**, **mallubi**) zaila da batzuetan asimilazioa denentz jakitea bokalerdia agertzen ez denean. Adibidez, pentsa zitekeen **bizi-mañan** 'en el sistema de vida' eta **mañak** 'lanto infantil(...)' ere **jnV** zerrendakoak zirela (Azkue: *maina*, *maiña*). Baina gazt. *maña* hitzarekin zerikusirik badu euskarazkoak (eta beren funtsezko esanahiak ez dabilta elkarrengandik urruti), palatala erromantzezko asimilazio atzekariak esplika dezake (cf. Cor. s.v. *maña* -- < **manj'a*--). Ik. VII.2.166.

29 Hitz honetan agertzen den palatalaren bilakabidea ez da erraz ulertzen. Ik. FHV 200: Dech. *bano* ; Leiz. *baino* ; GN, G *baño* , e.a. VII. ean ere jasotzen da.

Nolanahi ere, arazo hauek adierazten dutena da asimilazio bustidura lexikalizatu egin dela hitz barrenean eta, euskalki konparaketa edo etimologia ezagunik gabe, ezinezkoa dela asimilazioa egon den jakitea edo palatala beste zerbaitek esplikatzeko duen.

1.1.2.1.3. **d / j** (l, n) — V.

Ez dago ia testuinguru hau eskaintzen duen formarik. Gertatzen diren gutxietan (adib., **aindu**) ez da palatalizaziorik gertatzen.

1.1.2.1.4. **t / j** — V.

Bokalerdi palatalaren ondoren eta bokal aurrean **t** bustita agertzen da. Salbuespenak gutxi dira. Ez da zailegia agertzen direnak azpisailkatzea. Alde batetik, **kanpaitorreko**, **kanpaitorrian** hitz elkartu bezala azal daitezke. Forma hauek asimilazioa eragozten duen hitz muga gordetzen dute bere baitan (cf. 1.1.1.1.1. **arrilandua**, 1.1.1.1.2. **etzinaldixa**). Beste alde batetik, adib., **Kaitano** dago. Hitz hau izen propio mailebatua da. Normala da izen propioak sail berezia osatzea hizkuntzaren barruan mailebuen asimilazio edo barneratzea dela eta, baina adibide bakarra ez da nahiko ondorio sendoak ateratzeko. Garbi dagoena da izen arrunt sinpleetan ez dagoela ia salbuespenik.

Asimilazioa gertatzen denean, ondorioa **tt** [t̪] idazten da gehienetan, baina afrikatua ere badago zenbaitetan (**tx** [tʃ]): **aitta** (eta **aita**), **Aitta-guria**, **aittaittari**, **atxitxa**, **aittatu**, **aitxatu** (eta **aitatutzia**)³⁰, **deittian** (subj. iragangaitzaren 3. pl.),

³⁰ Ik., hitz multzo hontaz, II.2. eta II.4.3., edota VII.4. **attuna**: bustidura adierazgarria izan

koittau (eta **koitau**), **maitte** (eta **maite**, **maitia**), **zaittez** (eta, aditz konjugatuen artean, **zaitue** ere bai).

Baldintza morfologikoak aldatuta ere, berdin gertatzen da asimilazioa. Morfema muga dagoenean **t** eta bokalerdiaren artean (adib., **t** atzizkiaren lehenengo elementua denean): **afaittara**, **afaittarako** (eta **afaitarako**), **afaitxan**, **baltta**, **bazkaittarako** (eta **bazkaitarako**), **bizkaittarrak**, **Goi'ttar**, **naltta**, **nasaittasun** ³¹; **eitteen**, **baleitxeke**; **ataititik** (balna **orregaitik**); **aittu** 'oído' eta 'entendido' (eta **aitu**, **aituta**) ³², **amaittu**, **beittu** (cf. *begiratu*), **geittu**, **loittu**, e.a.

Forma bera bustiduraz edo bustidurarik gabe agertzen denez, hautazkotzat hartuko dugu asimilazioa. Testuaren nolakotasunagatik zaila da neurtzen bustidurak, agertzen denean, ondorio estilistikorik edo duen. Garbi dago, noski, oparoa dela oso eta gehienetan gertatu egiten dela. Hautazko izatea galtzen hasi denaren seinale izan daiteke. Ez da ahaztu behar gainera testu idatziaz ari garela.

1.1.2.1.5. eta 1.1.2.1.6. **ś,s / j** — V.

Txistukarien kasuan ere gerta bide daiteke asimilazio bustidura. Autorearen argibide baten arauera, badirudi batzuetan daiteke **it** segidaren iturbidea.

³¹ Hitz konposatuetan ez dela gertatzen egia bada, konposatu eta eratorrien arteko muga bilatzean kontuan hartu beharko litzateke asimilazioa dagoen ala ez

³² Adibideetan bustidurarik gabe agertzen da batzuetan. Bustidurarik gabe agertzen denean, beti bigarren zentzua du.

behintzat ohizkoagoa dela gertatzea ez gertatzea baino: **aixia** «Variante generalizada de **aizia**» dela dio. Beste zenbait adibide lirateke: **goixago** 'más temprano' (baina **goizeko** 'dela mañana'), **keixa** 'cereza' (cf. lat. *ceresea*), **keixu** 'cerezo' ³³; ezezkoen artean, **(nai) deizunerako**.

Txistukari apikariaren adibideak ere gutxi eta zalantzazkoak dira. Jaso den adibide bat **gaixua** da: jakina da hitz hau txistukariak asimilatzen ez dituzten euskalkietan ere bustiduraz agertzen dela askotan, esanahiagatik erraz sartzen bait da bustidura adierazgarriaren alorrean.

aixerixia, **aixelko** formak aipagarriak dira. Kontuan izan behar da bizkaieraz eta gipuzkeraz *azeria* aurki daitekeela, ez **i** eta ez bustidurarik ez duen aldaera, alegia (cf. 1.1.2.1.1. **-(t)zaille** / **-zale**). Erantsia ere izan daiteke **i** hori (cf. VII.5.252. **axeri**).

1.1.2.1.7. eta 1.1.2.1.8. **ts**, **ts** / **j** — V.

Bokalerdiaren ondoren eta bokal aurrean afrikatuak bustita edo busti gabe ager daitezke. Orain arteko ereduari jarraiki, hautazkotzat hartzen da beraz asimilazioa. Gehienetan bokalerdia suntsitu egiten da (ik. hontaz 1.1.2.1.1.): **atxa** (eta **aitza**, aldaerak direla dio autoreak, ez dirudi esanahi diferentziarik dagoenik), **atxartian**, **atxekixa**, **atxurka**, **atxurra** (cf. b.e. *(h)aitzur*); **bakoitxa** (eta **bakoitza**), **bat'kotxa**, **bakotxari**, **bikotxa**; **gaitza** 'enfermedad' eta 'problema' (lehenengo esanahiarekin : **biregatxa**

³³ Latinezko hitza euskaratzean *yvd* (< *-ev*) horren metatesirik gertatu ez bada, ezin da esan bustidura asimilazio aurrekaria gertatu denik. Cf. 1.1.2.1.2. **-mañan**, **mañak**.

'mal de dedo', **birigatxa** 'tuberculosis'), **gatxa** 'difícil' (aurrekoaren bigarren esanahiarekin lotua?), **gatxizen** 'nombre deshonroso'. Badira aldaera palataldunik eskaintzen ez dutenak ere: **aitzen**, **deitzia**. Forma hauetan, afrikatua atzizkiaren lehenengo elementua da. Izan daiteke, **t**-ren kasuan ez bezala, morfema mugak (edo morfema muga honek) afrikatuen asimilazioa eragozteko. Dena dela ez ditugu adibide nahikoak ondorioak ateratzeko. Bego aztertu beharko litzatekeen posibilitate bezala, nahiz eta ziurrenik "beranduegi" ibili horretarako: izan ere afrikatu palatal gehienak lexikalizatuak dirudite.

1.1.2.2. Kontsonante aurrea (/ ____ C).

1.1.2.2.1. **l** / **j** ____ C.

Oso forma gutxik eskaintzen du **j**IC hots hurrenkera: **sailitxo** (asimilazio aurrekaririk gabe, afrikatuaren eraginak ere sortuko luke albokoaren sabalkaltzea), **saili bat**. Ebakeraren arauera, hitz azkenean egon daiteke albokoa bigarren adibidean. Adibide kopurua txikiegia da testuinguru hontan asimilazioa hautazkoa den ala ez esateko. Bokalondoko **l**-aren asimilazioa hautazkoa da testuinguru hontan (cf. 1.1.1.2.1.).

1.1.2.2.2. **n** / **j** ____ C.

Gehienetan sudurkaria asimilatu egiten da bokalerdiaren eraginez kontsonante aurrean ere. Halaz ere, aurkitzen dira busti gabeko formak, sarritan bustiduraz agertzen direnen aldaera (libre?) gisa. Asimilazioa kontsonante aurrean gertatzen denean, ez da suntsitzen bokalerdia: **beñ batean** (talde foniko bakartzat

hartuta), **eiñda**, **eiño**, **edozeiñbeste**, **erozeiñtzuek** (eta **erozeintzuk**), **igoñgarrixa**, **oiñguak** (etea **oiño**), **oiñtsuan**.

Guzti hauetan lehenengo osagaia oso erabilia den hitz beregaina da. Maiz agertzen da sudurkaria kontsonante aurea ez diren testuinguruetan (cf. testuan bertan: **beiñ**, **eiña**, **eiñ**, **igoña**, **oña**, e.a.). Beste gertaera horien eragina kontuan hartzekoa da, batez ere bokalaurrearena ³⁴, bokalaurrean bait da oparoen asimilazioa.

Badira inoiz asimilaturiko aldaerarik ez dutenak: **ainbat** (eta **anbat**), **ainbeste**, **aindu** ³⁵ (cf. **igoñdu**), **aintzen**, **aintzakotzat**, **itxaintziakin**, e.a. Forma hauek ez dute **n** bokalaurrean daukan aldaerarik. Izatekotan, **ainbat** eta **ainbeste** formetan **aña**, **añako**, eta abarren eragin analogikoak funtzionatu beharko luke. Palatalizazioa paradigma analogiak esplikatuko balu, honek adieraziko luke hiltunarentzat **ainbaten** lehenengo zatiak ez duela zerikusirik **aña** edo **añako**-rekin. Baina **apainduta/apaiñ** pareak frogatzen du analogia ez dela nahiko kontsonante aurreko asimilazioa edo asimilaziorik eza esplikatzeko (cf. III.7. bokalaurrearen oparotasun haundiagoaz).

1.1.2.2.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean.

1.1.2.2.4. Ez dago **t**-rik kontsonante aurrean.

1.1.2.2.5. eta 1.1.2.2.6. **ś**, **s** / **j** ____ C.

³⁴ Deklinatzen direnak, bokala edo bokalez hasia den atzizkia gehitzen zaienean. Besteak askotan lotzen zaizkio bokalez hasitako hitzei (cf. *bein ere ez*, e.a.).

³⁵ **aiñdu** "Giz-izakera biak" poeman agertzen da.

Grafiaren arauera, testuinguru honetan agertzen diren txistukariak bizkarkariak dira eta ez dira palatalizatzen: **aizkidatu**, **aizkidia** (cf. b. *adiskidea*); **aizkolarixa**; **gaizto** (cf. **gaitx-**, **gatx-**).

1.1.2.2.7. eta 1.1.2.2.8. **tś**, **ts** / **j** — C.

Testuinguru hontan, bokalerdiaren ondoren eta kontsonante aurrean, agertzen den afrikatua (*h*)**aitz** hitza konposatuen lehenengo osagai denakoa da: **atxbizkarra**, **atxburua**, **atxgaña**, **atxgorrixa**, **atxpeketan**. Palatalizazioak izan dezake esplikazioaren bat baldintza analogikoen bidetik: cf. **atxa** (baita ere **aitza**), **atxartian** (cf. III.7).

Gehienetan igurzkari bihurtuta azaltzen dira afrikatuak kontsonante aurrean euskaraz (testuan bertan, **aizkolarixa**, e.a.).

1.1.2.3. Hitz azkena (/ — #).

1.1.2.3.1. **l** / **j** — #.

Testuan **saill** agertzen da. Izan ere gutxitan dago euskaraz honelako hots segida hitz azkenean.

1.1.2.3.2. **n** / **j** — #.

Hitz azkenean ere bustitzen da **n** bokalerdi palatalaren ondoren, baina ez beti: **aĩñ**, **añañ** («arek añañ» 'tan bien como aquél'; baita ere **añan**); **Azitaĩñ** (top.); **atezain** (cf. **atezaiña**); **beĩñ**, **beñipein** (cf. **beñipeñian**); **itxain**; **deiñ** (*dadin*); **zaiñ**;

zeiñ. Garbi dagoena da bokal aurrean oparoagoa dela asimilazio bilakabidea: cf. **atezain/atezaiña**, **beñipein/beñipeñian** (cf. III.7).

1.1.2.3.3. Ez dago **d**-rik hitz azkenean.

1.1.2.3.4. **t / j** — **#**.

Agertzen den adibidearen arauera gertatzen da asimilazioa **jt#** segidan: **zerbaitt**. Dena den, hitz honen gertaera askotan **t** bokalaurrean dago eta testuinguru oparoago hori izan daitekeen eredu analogikoa ez da ahaztu behar (cf. III.7).

1.1.2.3.5. eta 1.1.2.3.6. **ś, s / j** — **#**.

Testuinguru hau betetzen duen hitza izen propioa da, ez du bustidurarik: **Afraís**.

1.1.2.3.6. eta 1.1.2.3.8. **tṣ, ts / j** — **#**.

Bi eratara agertzen da adibidea: **galtx, galtz** (cf. 1.1.2.1.8.).

LABURPEN/ONDORIOAK:

OZENAK ia salbuespenik gabe asimilatzen dira bokal aurrean, bai bokalaren eta bai bokalardiaren eraginez. Batzuetan morfema mugak ingurunerik oparoenean ere bustidura geldieraz dezakeela dirudi (cf. **sermoilari**).

TRABARIEN asimilazioak salbuespen ugariak ditu bokalaren ondoren, baina oso emankorra da bokalardiaren ondoren.

Kontsonante aurrean eta hitz azkenean asimilazioa hautazkotzat hartu behar dela dirudi. Zalantzarik gabe, ingurune honetan ere OZENen bustikuntza askoz sarriago jazotzen da TRABARIena baino; OZENen artean oparoagoa da sudurkariarena.

TXISTUKARIAK busti daitezke bokalaurrean (**ixan, gixon**), baina ezin da esan automatikoa denik.

1.2. N. Holmer eta V. Abrahamson de Holmer: "Apuntes Vizcainos"

1.2.0. Batez ere Bermeoko euskararen datuak ematen zaizkigu, herri hontan jaso bait ziren batipat. Getxo eta Mundakan ere ibili omen ziren. Informatzaileen artean, Fruiz, Arrieta, Larrauri eta Dimakoak ere baziren. Kasuren batean, informatzailearen jatorria dela eta, palatalizazioarekiko diferentziarik baldin badago, esan egingo da zein herritatik atera den (cf., adib., **ulle**). Lanaren egileek ez dute zehazten Getxon edo Bermeon aurkitutako informatzaile kanpotarrek zenbat denbora eman zuten beren jaioterrietatik kanpo. Zerrendan ez da agertzen Mundakan jasotako datuen berri, bai, ordea, Getxon bilduriko Mundakar baten datuak.

Gorago (1.1.) Eibarko datuak aurkeztu diren bezalaxe azaltzen dira testu honetakoak ere. Bokai palatalaren (1.2.1.) eta bokalerdiaren ondoren (1.2.2.), eskubiko testuiguruaren arauera (— V, — C, — #), hots bustigaien jokabidea ikusi da.

"Apuntes Vizcainos" (hemendik aurrera AV) laneko testuak bi erataria agertzen dira. Batzuetan autoreek *transcripción fonética* esaten diotenean eta, bestetan, *transcripción semifonética* delakoan. Lehenengoan, kontsonante bustiak ondoan edo gainean azentua ipiniaz idazten dituzte. Bigarrenean, berriz, ortografikoki markatzen direnean bezala (funtsean, asimilatuak ez diren bustiak euskara batuan idazten diren bezala) idazten dituzte. Gainera, transkripzio erdi-fonetikoaren ondoan itzulpena ematen da eta transkripzio fonetikoaren ondoan transkripzio ortografikoa (azken hontan ez da palatalizazioa markatzen). Hemen, konparazioak

errazteko, sistema bakarra erabiltzea erabaki da eta, sinpleagoa delakoan, bigarrena (*transkripcción semifonética*) hautatu da. Beraz, egileek transkripzio fonetikoaz ematen dituztenak bigarren sistemara itzuli dira. Transkripzio fonetikoan apostrofoa erabiltzen da hitz azentua transkribatzeko. Transkripzio fonetikotik bestera itzultzean, utzi egin da azentu marka (baina ez bokalaren ondoan, gainean baizik).

1.2.1.1 ____.

Goiko bokal (beraz, silabagile) sabaieko edo palatalaren eragina erakusten duten formak bilatu dira fonema bustigai guztientzat. Fonema bakoitzari buruzko ondorioak dagozkion adibide zerrenden ondoren ematen dira. Testuinguru bakoitzaren sistematizazioa, osatzen duten adibide multzo guztiak aztertzeke saioa egin da.

1.2.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

1.2.1.1.1. **i** / **i** ____ V.

Gutxitan agertzen da albokoa palatalizatu gabe **i**-ren ondoren eta bokal aurrean: **automobillien**, **bille**, **billoxik**, **dabíllen**, **ibílll** (eta **ibíll**, behin baino gehiagotan), **illén** (cf. *(h)ll* 'morir'), **ixil-ixillik**, **makillándo** ('aguinaldo?'), **Madríllera**, **mílle**, **mutílle** (baina **mutílagun** 'compañero'), **neskátíllek**, **perníllak** ('jamones', cf. gazt. *pernil*). Palatalizatuko aldaerarik ere ez dutenak: **bíjilleu** (part., cf. gazt. *vigilar*), **míllagro**, **zílla** (*zirela*).

Adibide hauetan agertzen diren (a) taldeko (ik. 1.1.1.1.1.)

mailebuak bitan zatitzen dira. Batzuetan, gazteleraz [il] ahoskatzen duena euskaraz [iɛ] ebakitzen du hiztunak: **automobillien** (cf. gazt. *automóvil*), **pernillak**. Azkenaren erdal ordaina *jamones* litzateke, etimologiak etimologi; beraz euskarazko asimilazioaren nabaritasuna baino gehiago, palatalizazio lexikalizatuaren adibide litzateke (**bille** edo **billoxik** bezalaxe). Besteetan, beranduago mailegatu direlako edo euskaratzea ahulagoa izan delako, bustidura asimilazioa ez da gertatu ¹: **bijileu**, **milagro**. Bigarrena eliz hitza da eta gertatu ohi da horrelako hitzak hizkera idatzitik gertuago ibiltzea. Cf., nolanahi ere, Eibarko testuko (TE) **millagro** (1.1.1.1.1.).

Uste bezala, **makillándo** 'aguinaldo' bada, Eibarko **agillando** forman ikusitako metatesia gertatu da (agian gazteleraz) eta, metatesiaren ondorioz, **i**-ren ondoren suertatu den **l** busti egin da. Forma hau ere (a) taldean sailka daiteke (cf. 1.1.1.1.1.), nahiz eta gaztelerazko ordainaren forma Eibarko testukoa baino are desberdinagoa izan. Lehen **pernillak** eztabaidatzean agertu denaren bidetik, esan behar da gutxienez zalantzazkoa dela hiztunak hitzok euskaraz erabiltzean erdarazko jatorriekin identifikatzea. Baina diakronikoki behintzat asimilazio bustiduraren frogatzat har daitezke.

Madríllera forman hitzak euskaratzean hartu duen hots egituran asimilazio bustidura gertatu dela ikusten da.

Badira bi eratako aldaerak eskaintzen dituzten hitzak.

¹ Generatibisten gramatiketan forma hauek salbuespen bezala diakritikoz markaturik datoz hiztegitik.

Palatalizazioa hautazkoa dela adieraz lezake **ibilli/ibili** pareak, edo batzuetan izan daitekeela bederen (ik. II.4.2., ingurune honetako neutralizazioaz). Egia da baldintza prosodikoak aldatu egiten direla batetik bestera, baina ikusi da adibide zerrendan baldintza prosodiko diferentetako formetan berdin gerta daitekeela bustidura edo bustidurarik eza. Zentzuzkoagoa izan daiteke baldintza morfologikoez hitz egitea. Hain zuzen ere, mailebuak kenduta, asimilaziorik eza agertzen duten formetan muga morfologikoek garrantzia izan dezakete: **ixil-ixillik** [azpimarratua, gurea] eta **mutilagun** (**mutil-lagun** transkripzio erdi-fonetikoan) adibideetan **ilV** katea hitz muga zehar osatzen da (hitz muga du kateak bere baitan, alegia).

Hitz elkartuetan debekua dena, gainerako katea eratorrietan (morfema elkarketetan sortzen direnetan, adib.) ere oztopo izan daiteke asimilazioa gertatzeko. Noski, **ibil-**, **ixil-**, **mutil-** bokalaurrea ez denean ere ager daitezke. Beren paradigmaketako beste aldaera horien eragina neurtzeko, cf. beharago euskara hontan **iIC** (1.2.1.2.) eta **il#** (1.2.1.3.) kateetan zer gertatzen den.

Bestela eratorritako katea da **zila** adibidekoa. Baldintza prosodiko eta estilistikoak direla medio, aditz laguntzailearen bigarren silaba galdu egin da **alcésila** (*altza zirela*) esaldian. Bokala eta albokoaren alkar ikuitzea egonkorra (*estable*) ez delako uler daiteke asimilaziorik eza.

1.2.1.1.2. **n / i** ____ V.

Salbuespenak badaude ere, hitz gehienak asimilazioa egon dela adierazten dute (berdin morfema barrenean edo morfema muga

zihar): **Baléntiñek** (baita ere, ipui berean **Balentínek**), **bíñe** (cf. **bána**), **demiñuak** («Por *demonioak* », dio ohar batek), **imiñi**, **kamiñotik**, **mariñero**, **óndiño**, **San Martiñeko**, **sardiñie**, **selemiñe**, **usiñe** . Garbi dago mailebu izatea ez dela, berez, asimilazioarentzako oztopo. Zerrendan agertzen diren kanpotikako hitzek, bustidura asimilazioari dagokionean, hizkuntzak nola bereganatu dituen erakusten dute: **kamiño-**, **mariñero**, **selemiñe**, e.a. Hitz hauek (a) taldekoak lirateke gorago (1.1.1.1.1.) proposatutako sailkapenean (cf. gazt. *camino, marinero, celemín*) 2.

Salbuespenen artean asko izen propioak dira: **Inazio**, **Polinar**, **Urrúfina** (eta **Urufínak**). Izen propio izatea, dena dela, ez da erabteko debekua. Ezin da, besterik gabe, salbuespen hauek erregular egingo lituzkeen baldintza lexikoa proposatu. Ikusi da izen propioei ere gerta dakiekeela asimilazioa: **Baléntiñek** (bustidurarik gabe ere agertzen da), **San Martiñeko** (zubi baten izena).

Beste bi salbuespen gaztelerazko azentua gordetzen duten mailebuak dira: **pínue** ('el pino'), **sínera** ('al cine'). Asimilaziorik eza bat letorke jatorrizko azentuari eustearekin, hizkuntzak barneratu ez dituenaren (edo beste hitz batzuek baino gutxiago barneratu dituenaren) seinale izan daitezke biak.

Bada beste hitz bat espero zitekeen lekuan bustidurarik agertzen ez duena: **báginien**, transkripzio erdi-fonetikoan **baginean** dena (edo **baginanean**, autoreen oharraren arauera). Esaldia «deskuidaten **báginien**» da, *deskuidatzen baginen* ('si nos

² **kamiño** bezalakoan sudurkariak badago zeresanik beste euskalkiak kontuan hartuta (II.4.3: cf. 5.1.1.1.2).

descuidábamos'), alegia. Bustigaien artean agertzen den aditz jokatu bakarra denez, ezin da gauza haundirik esan oraingoz forma honen asimilaziorik ezaz. Beste askotan bezala (**ibili**, **sinistu**) bi **i**-ren artean dago asimilatu ez den kontsonante bustigaia (ik. II.4.2). Goragoko mailebuekin bezala, hemen ere galdera ireikirik gelditzen da.

1.2.1.1.3. **d / i** (**l, n**) — V.

Esan da lanaren lehengo zatian (III.6) euskaraz **d** asimilatze-kotan, bustitzen duen **i** eta **d**-ren artean **n** eta **l** beharrezko direla. AV-ko datuen arauera, gertatzen da asimilazioa morfema barrenean, morfema muga zehar eta hitz ortografiko muga zehar: **billur** (cf. **bildurrez**, trankripzio erdi-fonetikoan), **trankillu** (*trankillu*), **mín ddakot**. Azkena da tarteko kontsonante ozena azaltzen duen bakarra, kontsonante hori albokoa denean asimilazio osoa gertatu da: ozena ez da bestearen antzekoa (palatala) bakarrik egin, berdina izateraino iritsi eta urtu egin da. Bi hotsak gorde direnean (**mín ddakot**) ozena bustia da, noski; trankripzioa errazteagatik uzten omen dute bustidura markarik gabe testuan (ik. AV 1968, 104 §8.1.)³.

Kasu hauetan **i**-ren eragina ondorengo bi segmentuek jasaten dute. Ez da, ordea, beti gertatzen.

Baldintza fonetiko eta morfologiko berak izan arren, bustidurarik gabekorik ere agertzen da: **agindu**, **ixildu** (cf. **trankillu**), **egiñdien** (cf. **mín ddakot**). Pentsa zitekeen hizkera kontua zela, baina **agindu** eta **trankillu** informatzaile bakarraren datuetan

³ Cf., halaz ere, **ermiñtxurik** (§ 22.4, 194.or.).

daude biak (Fruizkoa da informatzailea).

1.2.1.1.4.1. **t / i** — V.

Hortzetako herskari ahoskabea bustita agertzen da **i** silabagilearen ondoren eta bokal aurrean, salbuespen gutxi batzuk salbu. Ondoko adibideek erakusten duten bezala, bustidura morfema barrenean edo morfema muga zehar jazotzen da: **begíttu/begítxu** (eta **zatíttute**), **birritxen** (eta **sarritxen**), **bisittetan**, **bitxartien**, **bustúritarrak**, **depositxátzeko**, **erròmerítxik** (eta **errítxik**), **imíttén** (cf. *imini*), **ittúrri/itxúrri**, **itxo**, **zórtzitxerdiyak**, **yakitteko**, **yesarritte/jesarritxe** (informatzailearen kartan **yesarrite**).

Adibideotan agertzen den beste datua da **t**-ren bustiduraren ondorioa herskaria edo afrikatua izan daitekeela. Ez da erraza esatea bata zein bestea zergatik gertatzen diren. Holmer/Abrahamson (1968, 95) beralek diotenez, erraz gertatzen da **t** ren ordez afrikatua ahoskatzea edo bi hotsen arteko zerbait, bestela. Bere ustez gazteleraren eragina garrantzizkoa da (cf. V.2.4, V.2.6). Transkripzioan gerta daiteke biak agertzea testu bereko forma bakarra adierazteko (**begíttu/begítxu**, **ittúrri/itxúrri**). Pentsa liteke inguru geografiko bakoitzak bere joera izan dezakeela, baina helburu horrekin jasotako datu kopuru gutxieneko edo minimoa behar genuke.

Alde horretatik garbixeagoak dirudite palatalizazioa eta palatalizaziorik ezaren arteko bereizkuntzak. Holmer/Abrahamson beralek erkatzen dituzte herriak palatalizazioaren indarra dela-eta.

«La tendencia a la palatalización ocurre más o menos pronunciada según los dialectos (...) en Guecho la palatalización parece -como en Dima (...)- menos desarrollada».

(AV 1968, 105-106).

Mundakako adibideetan ere beste leku batzuetakoetan baino salbuespen gehiago daude: **egiten** (Getxon ere, eragilea bokalerdi bihurtuta: **eiten**), **itxita** ('cerrado', cf. Fruiz: **itxitxe** 'dejado'). Getxoko ipuietan, **eukiteko** agertzen da. Dena dela, oso kontuan hartzekoa da Dima, Fruiz eta, noski, Getxoko informatzaileen datuak Getxon jaso zirela (eta ez dakigula informatzaile horiek noizdanik bizi ziren Getxon).

Bermeon bildutako testuetan ere bada salbuespenik: **atítan**, **Bitorrek**, **imiñitu**, **txikitoak**. Lehenengoan (**atítan**) gertatu diren beste aldaketa fonologikoen eragina izan daiteke bustidurarik ezaren arrazoiak; bokal multzo murriztea eta nolakotasun aldaketa behar dira forma horretako **it** hots segida esplikatzeko (cf. *ateetan*). *Contacto secundario* delakoak izan dezake, beraz, zerikusirik salbuespen honekin. Dena den, ez du beti bustidura eragotzi (**begíttu/begítxu**, cf. *begiratu*), gehienetan hala gertatzen bada ere ⁴. Holmer/Abrahamson-ek diote (AV 1968 § 8.7. eta 8.9.) analogiak ere esplika ditzakeela salbuespen batzuk (cf., dena dela, **birritxen**, **sarritxen**).

⁴ *Derived context* generatibisten hizkuntzan, beste erregela batzuk gertatu bait dira (eta, gainera kasu hontan, morfema muga dagoelako). Ik., gai hauen inguruan, FHV 185-186: «En algunas hablas, al parecer sólo en territorio español, **t** se palataliza detrás de **i** (...). No se produce por lo general cuando el contacto es reciente (*beitu* < *beiratu* < *begiratu* 'mirado') o cuando **it** se halla en el límite de dos morfemas (*polita*, *pollita* 'lo bonito', *bitarte* 'espacio intermedio', que alguna vez suena *bittarte*, etc.)». Cf. II.4.2. neutralizazioaz.

Bitorrek formaz izen propioa dela esan daiteke. Palatalizaziorik eza bat dator gorago esandakoarekin (1.2.1.1.2.), baina ez TE_n aurkitutakoarekin (cf. 1.1.1.1.4.1.: **Bittor**, **Bitxor**).

Hirugarren forma, **imiñitu** 'poner', zalantzazko bezala ematen dute egileek. Ez dago garbi nola dagoen osatuta forma, baina ez dirudi --zentzuaren arauera-- beste zerbaiten kontrakzio edo laburdura denik. Beraz, asimilazioarekiko salbuespentzat hartu behar da.

Azkenik, badirudi **txikitoak** beste mailebu batzuek baino barneratze edo integrazio maila txikiagoa adierazten duela (cf. **bisittetan**, **depositxátzeko**).

1.2.1.1.4.2. **t** / **i** {**l**, **n**} ____ V.

Bere kide ahostuna bezala, **t** ere busti daiteke testuinguru honetan: **iltteko**, **pintxetan** (ort. **pintetan**; testu berean, **pintoréruek**), **ermintxurik** (gazt. *ermita*, partitibo atzizkiaz; cf. TE 1.1.1.1.4. **ermintxia**)⁵, **zíntta/zíntxa** (gazt. *cinta*).

1.2.1.1.5. **ś** / **i** ____ V.

Txistukari apikariaz adierazten da etimologikoki apikari dena, testuotan ortografikoki **s** dena, alegia. Guztira, forma apikaridunak bizkarkaridunak baino gutxiago dira. Palatalizaturik bi agertzen dira: **abisaten**, **ixeldu** (*isildu*), **písu** (baina **pixetan** --G *pisatzen*--).

⁵ Bukaerako **-u** hori ez da erraz esplikatzen.

1.2.1.1.6. **s / i** — V.

Gehienetan bustiduraz agertzen da txistukaria **i** silabagilearen ondoren eta bokal aurrean, berdin morfema muga zehar. Zaila da dauden salbuespenak esplikatzeari: **etórrizan** (baina **ibili xen**), **bizi** (baina **bixímoduari**), **izenen** (baina **ixen**), **elizara** (baina **elixera** ere bai), **gizón(a)** (baina **gixón(a)**, **gixónak**, **gixómbat**). Ez da bada erabat automatikoa ingurune honetan txistukarien asimilazioa. Baina joera, dudarik gabe, indartsua da: **bixímoduari**, **ekarrixuz** (*ekarri egizuz*), **ixen** (**ixenzalako**, **ixeteko**), **ixena**, **ixeteko** ('para izar', cf. 1.1.1.1.5. **ixo?**), **palixie** (cf. gazt. *paliza*).

1.2.1.1.7. **ts** / i — V.

Jatorriz afrikatu apikaria dena ⁶ beti palatalizaturik gertatzen da **i**-ren ondoren eta bokal aurrean: **itxita** ('cerrado', cf. 1.3.1.1.7/8.), **itxosuen** ('en el mar'), **iritxiko**. Gutxiegi dira adibideok, bustidura derrigorrezkoa dela esateko. Gainera, hiru hitz hauek maiz gertatzen dira palatalizaturik afrikatuak asimilatzen ez dituzten euskalkietan ere (ik. 1.1.1.1.7. edo FHV 192).

Hain da ilun batzuetan honelakoen egoera, non, beste euskalkietako laguntzarik ezean, diakroniara jo behar den. Bizkaiera zaharrean */ts/* agertzen da (baina cf. *etse/etxe* ere).

⁶ Fonetikoki txistukari afrikatuak bizkarkariak dira bizkaieraz. Neutralizatu egin da aurkakotasuna. Frikarien kasuan neutralizazioa gauzatzen duena apikaria da (ik. 46. oharra). Fonologikoki, bustidurari dagokionean, ez dirudi aurkakotasuna galtzeak ezer aldatzen duenik, bi ahoskuntako txistukariak jokabide berdintsua bait dute bustidurarekiko. Azkuek garai batean grafikoki bereizi nahi izan zituen (ik. Azkue 1891, 14), baina gerora alde batera utzi zuen bereizkuntza (Laka 1985, 223).

1.2.1.1.8.1. **ts / i** ____ V.

Gutxi dira ingurune honi dagozkion adibideak, baina guztiak palatalizaturik agertzen dira. Hori bai, palatalizazioaren ondorioa afrikatua edo igurzkaria izan daitekeela dirudi: **deritxon** (ort. **deritzon**)/**derixon**, **ixartu** (ort. **itzartu**).

1.2.1.1.8.2. **ts / i {l, n}** ____ V.

Afrikatua eta **i**-ren artean palataliza daitezkeen hotsak daudenean ere, gertatzen da asimilazioa: **ibiltxen** 'andaba' (?; cf. **ibillixen** 'anduvo'), **imintxettuzen** (ort. **imin zaituzan**). Ez da oso garbi ikusten forma hauen oinarria zein den; igurzkaria bada, arazorik gabe azaltzen da afrikazioa kontsonante ozenaren ondoren. Bada beste **ibiltxen** bat orain-aldiko partizipioa izan behar duena («sorgiñak ibiltxen dirielā (zirielā?)»).

Testuinguru honetako afrikatuen palatalizazioa ez da derrigorrezkoa (cf. **dabiltzezan**, adib.). Ik. 1.2.2.1.8.2.

1.2.1.2. Kontsonante aurrea (/ ____ C).

Ortografikoki hitz azkenean dauden asko, hurrengo hitza kontsonantez hasten delarik, hemen sartu beharko lirateke ziurraski. Baina hurrengo hitzarekin talde foniko bakarra osatzen duten jakitea zailagoa da testu idatzietan ahozko hizkuntzan baino. Hemen egileen idazkera bera izango da irizpidea, batera idatziak talde bakartzat hartuko direlarik ⁷. Dena den, hitz azkena eta

kontsonante aurrea bat datoz oro har asimilazio bustidurari dagokionean.

1.2.1.2.1. **i** / **i** ____ C.

Ez dirudi kontsonante aurrean **i** silabagileak albokoa bustitzen duenik. Sabaieko kontsonanteen aurrean albokoa ere sabaiekoa edo palatala da, nahiz eta transkripzioan ez agertu bustiduraren markarik (cf. 1.2.1.1.3. eta 1.2.1.1.4.2.). Bestelako kontsonanteen aurreko ozenak ez dira beti bustitzen eta markatu egiten da (**egiñdien**). Albokoari dagozkion adibideak bustidurarik gabe agertzen dira: **dabiltzezan**, **ixildu**, (cf. **ixil-ixillik**). Adibideak gutxi dira, dena dela, ondorio sendorik ateratzeko.

1.2.1.2.2. **n** / **i** ____ C.

Argi dago joera ezezkoa dela. Kasu bakar batean agertzen da bustirik **i** silabagilearen ondorengo sudurkaria kontsonante baten aurrean (**egiñdien**) eta baldintza fonetikoez gain, analogiaren indarra oso aintzakotzat hartzekoa da forma horretan (*egin* oinarria maiz gertatu bide da ingurune oparoagoa den bokalaurrean). Edo, hurrengo kontsonantea palatalizatu egin daitezkeenetakoa izatea ere garrantzizkoa izan daiteke. Kontsonante belareen aurrean hau aurkitzen da: **aríñarinka** (eta **arin-arinka**), **bardingo**, **berinkasiñua**.

⁷ Adibidez, *izenzalako*, *egiñdien*, e.a. Batzuetan zaila da besterik gabe egileen idazkera onartzea (*aríñarinka*, baina *arin-arinke*, esate baterako, gertaera berari dagozkio). Gertatzen da berezirik idatzita dauden artean ere bilakabide fonologikoak gertatzea (*bizkéi ltarra*, adibidez), honelakoak talde bakartzat hartu dira. Transkripzio fonetikoetako azentu markak ere aintzakotzat hartu dira.

1.2.1.2.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean.

1.2.1.2.4. Ez da gertatzen **t**-rik kontsonante aurrean testu honetan.

1.2.1.2.5. **ś** / **i** ____ C.

Adibide gutxi egon arren, esan daiteke jatorrizko txistukari apikariak ez direla bustita agertzen **i** silabagilearen ondoren eta kontsonante aurrean: **isterra**, **mistoen**. Egileek esaten dute **jt** taldea ez dutela inon aurkitu (AV 105).

1.2.1.2.6. **s** / **i** ____ C.

Txistukari bizkarkari bezala transkribatzen dena (ik. 7. oh.) bi erataraz azaltzen da iren ondoren eta kontsonantearen aurrean: **bixkortute**, baina **bizkéitarra**. Palatalizatuaz gain, **bizkortute* gerta baldi badaiteke, testuinguru asimilazio bustidura hautazkoa da. Baina, **bixkortute** beti bustiduraz gertatzen bada eta **bizkéitarra**, berriz, beti txistukari albeolarez, bustidura lexikalizatu egin dela izango litzateke esplikazioa. Bustidura agertzean, esanahia nolabait aldatzen bada (cf. 1.1.1.1.4.1. **Bittor**), asimilazio bustidura (izandakoa?) gabe, bustidura adierazgarria da esku artean daukaguna.

1.2.1.2.7. eta 1.2.1.2.8. Ez dago afrikaturik kontsonante aurrean. Ez da aurkitu igurzkari bihurtutakoen adibiderik ere.

1.2.1.3. Hitz azkena (/ ____ **#**).

Ez daude adibide asko, baina daudenak bat datoz kontsonante aurrearekin.

1.2.1.3.1. **l / l** ____ **#**.

Ortografikoki hitz azkena denean ez da bustidurarik gertatzen, ez eta hitz elkartu baten lehenengo osagaiaren azkena denean ere: **ixil-ixillik**, **mutil**. Cf. TEko hitz elkartuak (**arrilandua**, **etzinaldixa**, **kanpaitorreko**, e.a.).

1.2.1.3.2. **n / i** ____ **#**.

Sudurkaria ere ez da bustitzen hitz azkenean agertzen denean: **agin**, **arin**, **arin-arinka** (baina, cf. **aríñarinka**), **blárrin**, **dezín** (*eta ezin*), **imin**, **jakín**. Forma bakarra agertzen da bustiduraz, hain zuzen ere kontsonante aurrean palatalizatuta agertzen den bakarra (cf. 1.2.1.2.2.): **egíñ**. Esaldiaren egituragatik (**egíñ**-en ondoren menpeko perpaus kausala hasten da) eta agertzen diren azentu marken arauera, ez dirudi hurrengo hitzarekin talde fonikoa osatzen duenik: «ezeuen jakín zér egíñ ixénzalako beran andrié (...)». Arrazoiak ez badago baldintza fonetikoetan, analogiaz pentsatu beharko da forma hau esplikatzen.

1.2.1.3.3. Ez dago **d**-rik hitz amaieran.

1.2.1.3.4. Ez da gertatzen **t**-rik hitz amaieran.

1.2.1.3.5., 1.2.1.3.6., 1.2.1.3.7. eta 1.2.1.3.8. Ez dago

txistukaririk hitz azkenean.

1.2.2. j —

Diptongo ondorengo asimilazio bustidura oro har **i** silabagilearen ondorengoa baino oparoagoa izaten da.

1.2.2.1. Bokalaurrea (/ — V).

1.2.2.1.1. **i** / **j** — V.

Forma gutxik agertzen dute albokoa ingurune honetan eta agertzen dutenak eztabaidagarriak dira: **gallié** (ort. **gailea** § 21.3), **málluaz** (ort. **mailu(ag)az**, **mailuaz** § 21.3), **telletako** (ort. **teilatako** § 21.27). Ematen diren transkripzio ortografikoekin erkatuta, asimilazio aurrekaritzat har daitezke forma hauek. Baina, bakoitzaren historiari begiratuta, gauzak ez daude horren garbi. Azken biak (**mallu-**, **tella-**) Aragoiko erromantzea bitarteko dela iritsi omen zaizkio euskarari (Michelena 1964, 110). Alboko bustia ez zaio zor bustidura asimilazio aurrekariari, erromantzez gertatutako **il** taldearen bilakabideari baizik (cf. **malluakin** 1.1.2.1.1.). Denboraren laguntzaz jatorria ahaztu bada eta bustidura hori **i** baten asimilazioak sortutakoekin nahastu bada ere (despalatalizatu egiten duten euskalkiek **il** bihurtu dituzte honelakoak, noski), beste gauzabat da. Ikus VII.1. ⁸.

Lehenengo adibidea (**gallié**) bizkaieraz bakarrik gertatzen da zentzu horrekin (Azkue, s.v. *gaiŕa* 'pala o paleta de anzuelo'). Ingu-rune honetan asimilazioa automatikoa dela esan daiteke, eta oso

⁸ Euskara batuaren ortografiak atzera egiten du honetan erregularitasunaren izenean.

Despalatalizazioa justifikazio garrantzitsua izan daiteke. Dena dela, hiztunak **mallu-**, **tella-**, e.a. **i**-ren asimilazioak sortutakoekin nahastea asimilazioaren indarra azpimarratzen duen zerbait litzateke.

zaila gertatzen da bustidura hori asimilazio aurrekariak sortu duen ala ez jakitea. Bestelako esanahiak adierazteko hitz hau erabiltzen duten euskalkietatik ere ez da laguntza haundirik ateratzen.

Beraz, ingurune hontaz ezin da asko esan aztergai ditugun testuetan oinarrituta. Kanpotikako alboko palatalak bereganatu egin ditu hizkuntzak bere hartan gordeaz (ez ditu, despalatalizazioa duten euskalkien antzera, beste eredu bati jarraiki aldatu, alegia).

1.2.2.1.2. n / j ____ V.

Sudurkaria busti egiten da i-z amaitutako diptongoaren ondoren, bokalaren aurrean dagoenean. Bokalerdia suntsitu egiten da kasu guztietan: hitzaren historia ezaguna ez denean eta beste euskalkietan aldaerarik agertzen ez bada, nekeza izan daiteke oinarritzko forma zein den jakitea. Bestela esanda, batzuetan zalantzazkoa da bustidura sortu duen bokalerdirik egon den ere (ikusten ari bait gara bustidura beste zenbait bidetatik sortua ere izan daitekeela).

Bustidura morfema barrenean eta morfema muga zehat gertatu da, mailebu eta mailebu ez direnetan: **arrañe** (cf. B zah. *arrai* < *-ani, FHV 142-144), **baña** (eta **baia**; cf. FHV 200: n-rik gabeko formak ekialdeko euskalkietan eta B zah., ik. VII.2.126. ere), **baño** (ik. VII.2.128.), **erañotz** (oharrean **ereinotz**), **gáñekoa** (*antzekoa*⁹), **ipúñe** (G *ipui*), **medikuñe** (ort. **medikuagaina**, ik. 11. oharra), **og(u)éñe** (sic., ort. **ogeina**, cf. **bána**), **oñéz** (cf. *oin*),

⁹ Cf. **arbola ganean** 'encima del árbol'; asimilazio bustidura, berriz: **areñe** (ort. **aregaina**) 'a él', **eurekañe** (ort. **eurakaina**) 'a ellos', **neuréñe** 'a mí' (AV 1968, 125).

soñetik (cf. *soin*), **trañérue** (cf. gazt. *trainera*).

1.2.2.1.3. **d / j** {l, n} — V.

Egin aditza oinarri duten formak dira **in**-ren ondorengo **d**-ren bustiduraren lekuko: **endde** (ort. **eginda**), **enddente** (ort. **egin dau eta**), **enddeutzela** (ort. **egin eutsala**), **enddot** (**enjot**) (ort. **egin dot**), **eñuzak** (ort. **egin dozak**).

1.2.2.1.4. **t / j** — V.

la salbuespenik gabe bustitzen da **t** bokalerdiaren ondoren bokal aurrean: Bokalerdia ez da beti galtzen eta, aldaketaren ondorio bezala, **t**-ren ordezt **tt** [t̪] edo **tx** [tʃ] gertatzen dira. Bustidura morfema barrenean eta morfema muga zehar gertatzen da: **aitxe** (eta **aite**), **aitxeri/atxeri**, **attek** (baita ere **aiteak**); **bizkéi ttarra**; **deitxu**, **deutxuzan** (ort. **deitu eutsan**: beharbada, **tx** ez da **tren** palatalizazioa soilik); **erétten/ereitxen** (baina testu berean **ereiteko**), **eskeitxe** (ort. **eskegita**); **etten** (ort. **egiten**)/**etxen**, **etxeko**; **letxikela** (ort. **leitekeala**); **loitxu**; **oixik** 'de la cama' (eta **zergaitxik**, **zítxik**, baina **sinplea-gaitik**); **sartu ttuzen** (ort. **sartu eituzan**)/-**ttuezan**/ **egin txuzen**; **zeitxut**; **zeittuzen** (ort. **zeutxuzan** sic.).

Gertatzen da leku bereko informatzaile bik hitz bera bustiduraz eta bustidurarik gabe ematea (cf. **ereitxen**, **ereiteko**). Ez dago, beraz, gauzak alde horretatik esplikatzetik. Bestalde, **ebaiten** esaten duen hiztun berak **aitxeri** ebakitzen du (bigarren adierazgarria izan daiteke). Baldintza morfologikoei dagokienean, nahikoa da **ebaiten** eta **etten/etxen** erkatzea bide horretatik ere

esplikaziorik ez dagoela ikusteko. Besterik ezean, oparoa bada ere, **t**-ren bustidura hautazkotzat hartu beharko da ingurune honetan. Bustidura hautazkoa izateaz gainera, egon daitezke bereizkuntza lexikoak (besteak beste, erabilkera maiztasunarekin lotuta). Baina bide horretatik aurrera egiteko hiztegiaren azterketa sendoa beharko litzateke.

1.2.2.1.5. **ś** / **j** — V.

Adibideak gutxi badira ere, ikusten da bustidura gertatzen dela. Bokalerdia suntsitu egin daiteke, horretarako arrazoi berezirik ikusten ez delarik: **geixotu**, **gexotu**; **maixue**. Ez dago bustidurarik gabeko adibiderik.

1.2.2.1.6. **s** / **j** — V.

Jatorriz bizkarkari denaren bustidurak (ik. 46. oharra) adibide gehixeago eskaintzen ditu: **aixe** (baina **aizerik**, **aizié**); **atzeratuxu** (ort. **-egizu**); **goixerako**, **goixien** (**goisien** informatazaileak berak idatzia). Bokalerdia suntsitu egin daiteke.

Bustidurarik gabe agertzen da adibide batean: **eleiza**, baina cf. baldintza fonetiko berak bete ditzakeen **eleix ondora** (cf. TE 1.1.1.1.6. **elixa**).

1.2.2.1.7. Bokalerdiaren ondoren ez dago afrikatu apikariaren adibiderik.

1.2.2.1.8.1. **ts** / **j** ____ V.

Afrikatua, salbuespenik gabe, bustita agertzen da bokalerdiaren ondoren bokal aurrean: **atxá** (ort. **aitza**), **atxure** (sic. cf. G, e.a. **aitzurra**); **bakótxa**. Kasu guztietan suntsitu egin da bokalerdia.

1.2.2.1.8.2. **ts** / **jñ** ____ V.

Oinarrizko forman **j** eta afrikatuaren artean **n** dagoenean ere busti daiteke afrikatua. [tʃ] eta [tʃ̺] hotsak nahasten direnaren seinale da ¹⁰ batzuetan palatalizazio honen ondorio bezala **tt** [tʃ̺] azaltzea: **attiñe**, **atxiñe** (ort. **aintziña**), **barrurantxa** (ort. **barruraintza**), **berantxa** (ort. **beraintza**), e.a. Bustidura hau ez da automatikoa edo morfema barrenean bakarrik gertatzen da: **eintzén**, **eintzon**, e.a. (baina **intton**).

1.2.2.2. Kontsonante aurrea (/ ____ C).

1.2.1.1.1. Ez da agertzen albokorik bokalerdiaren ondoren eta kontsonante aurrean.

¹⁰ AV 1968, 95: «A veces (...) se oye más bien un sonido intermedio entre **t'** y **c'** [**t̺**], el cual también puede tomar el lugar de **tx** primitivo (o el de los **tz** y **ts** palatalizados (...)).»

1.2.2.2.2. **n / j** — C.

Bokalerdiak ez du palatalizatzen sudurkaria ondorengo hotsa kontsonantea bada: **ainbéste**; **eingo**, **eintzon** (beste ingurunetan *egin*-en paradigmakoak ia salbuespenik gabe bustitzen dira, cf. 1.2.1.2.2.).

1.2.2.2.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean.1.2.2.2.4. Ez dago **t**-rik kontsonante aurrean.1.2.2.2.5. **ś** / **j** — C.

Forma bakarra agertzen da ingurue honen adibide eta ez du palatalizazio markarik: **máistria** (cf. 1.2.2.1.5. **maixue**).

1.2.2.2.6. **s** / **j** — C.

Txistukari bizkarkari bezala agertzen dena ere ez da bustitzen kontsonante aurrean: **áiste**, **aistía** (edo **aistiá**).

1.2.2.2.7. eta 1.2.2.2.8. Ez dago afrikaturik kontsonante aurrean.

1.2.2.3. Hitz azkena (/ — **#**).

Bokalerdiaren ondoren eta hitz azkenean sudurkariaren adibideak bakarrik daude.

1.2.2.1.8.1. **ts** / **j** ____ V.

Afrikatua, salbuespenik gabe, bustita agertzen da bokalerdiaren ondoren bokal aurrean: **atxá** (ort. **aitza**), **atxure** (sic. cf. G, e.a. **aitzurra**); **bakótxa**. Kasu guztietan suntsitu egin da bokalerdia.

1.2.2.1.8.2. **ts** / **jn** ____ V.

Oinarrizko forman **j** eta afrikatuaren artean **n** dagoenean ere busti daiteke afrikatua. [tʃ] eta [tʃ] hotsak nahasten direnaren seinale da ¹⁰ batzuetan palatalizazio honen ondorio bezala **tt** [tʃ] azaltzea: **attiñe**, **atxiñe** (ort. **aintziña**), **barrurantxa** (ort. **barruraintza**), **berantxa** (ort. **beraintza**), e.a. Bustidura hau ez da automatikoa edo morfema barrenean bakarrik gertatzen da: **eintzén**, **eintzon**, e.a. (baina **intton**).

1.2.2.2. Kontsonante aurrea (/ ____ C).

1.2.1.1.1. Ez da agertzen albokorik bokalerdiaren ondoren eta kontsonante aurrean.

¹⁰ AV 1968, 95: «A veces (...) se oye más bien un sonido intermedio entre **t'** y **c'** [**tʃ**], el cual también puede tomar el lugar de **tx** primitivo (o el de los **tz** y **ts** palatalizados (...))».

1.2.2.2. **n / j** ____ C.

Bokalerdiak ez du palatalizatzen sudurkaria ondorengo hotsa kontsonantea bada: **ainbéste**; **eingo**, **eintzon** (beste ingurunetan *egin*-en paradigmakoak ia salbuespenik gabe bustitzen dira, cf. 1.2.1.2.2.).

1.2.2.2.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean.1.2.2.2.4. Ez dago **t**-rik kontsonante aurrean.1.2.2.2.5. **ś** / **j** ____ C.

Forma bakarra agertzen da ingurne honen adibide eta ez du palatalizazio markarik: **máistria** (cf. 1.2.2.1.5. **maixue**).

1.2.2.2.6. **s** / **j** ____ C.

Txistukari bizkarkari bezala agertzen dena ere ez da bustitzen kontsonante aurrean: **áiste**, **aistía** (edo **aistiá**).

1.2.2.2.7. eta 1.2.2.2.8. Ez dago afrikaturik kontsonante aurrean.

1.2.2.3. Hitz azkena (/ ____ #).

Bokalerdiaren ondoren eta hitz azkenean sudurkariaren adibideak bakarrik daude.

1.2.2.3.2. **n / j** — **#**.

Agertzen diren formak honako hauek dira: **ein** (ort. **egin**), **oñ** eta **oin** (ort. **orain**). Kontsonante aurreko adibideetan (1.2.2.2.2.) ez zegoen bustidurarik. Hemen behin gertatzen da, garrantzizkoa izan daiteke hurrengo hitzaren lehenengo hotsa bokala izatea: «**oñ** amár urté» baina baita ere, «oin ez dozu». Beharbada, garrantzitsuagoa da «orain amar urte» esaera fixua (*frase hecha* diote Holmer /Abrahamson-ek) izatea. Kasu horietan (cf. **zortzi tt'erdijak**, AV 1968, 105), hitz bakoitzak bere azentua badu ere, gerta omen daiteke asimilazioa.

Informatzaileen jatorriaren arauera ere ezin daiteke sailkapenik egin: adib., **oñ** (ort. **orain**) agertzen den testuan daude **ainbeste** eta **ein**. Baldintza estilistiko eta prosodikoak aztertu ezinik, fonetikoei begira, hitz batzuetan behintzat hautazko bustidura dagoela esango dugu.

LABURPEN/ONDORIOAK:

OZENen asimilazioa oparoa da bokal aurrean. Gertatzen dira salbuespenak, baina beste euskalkietan ere aurkitzen diren azpisailetakook dirudite (hitz elkartuak, elkartze berriak, bustidura neutralizazioak). Kontsonante aurrean eta hitz azkenean joera bustikuntzaren kontrakoa da.

TRABARlen artean, HERSKARI ahostuna morfema barrnean eta morfema muga zehar asimilatzen da (**billur**, **trankillu**), baina badirudi morfema muga oztopo ere izan daitekeela (**ixildu**). Gauza bera esan daiteke herskari ahoskabeaz. Salbuespenen aldetik, esan behar da gehienetan katea eratorriak direla (morfema muga, elkartze berriak, bokal sekundarioak). TXISTUKARIak asimilatzeko joera ere indartsua da, salbuespenak izan arren. Afrikatu bustiak agertzen dira gehienbat palatalizazio ingurunean. Trabarien bustidura **in**, **il** segiden ondoren ere gerta daiteke.

Salbuespenak beti dira ugariago bokalaren ondoren bokalerdiaren ondoren baino.

1.3. W. Rollo: The Basque Dialect of Marquina

1.3.0. Lan honetatik testuak (liburuaren hirugarren zatia) eta hiztegia (laugarren zatia) hartu dira aztergai. Egileak fonetikari dagokion atalean esaten dituenak ere kontuan izan dira. Datuen aurkezpena 1.1. eta 1.2. zatietan bezalaxe egiten da.

1.3.1. **i** ____.

Eskubiko ingurunea aldatuaz, **i** silabagilearen eragina hots bustigai bakoitzarengan zein den jaso nahi izan da.

1.3.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

1.3.1.1.1. **i** / **i** ____ V.

Bokalaurrean badago, **i** baten ondorengo **i** bustita agertzen da, kasu batean ezik: **gill-gill** (ik. 1.1.1.1.1.1. **bill-bill** eta "onomatopeiez" esana). Morfema barrenean eta morfema mugan zehar berdin betetzen da asimilazioa: **billetu**, **billos**, **billostu**; **ebilli** (eta **ibilli**), **erabilli**; **espillu**; **gorapillo**, **gorapillotu** (eta **korapillotu**); **illin**¹; **illun**, **illundu**; **neskatilla**; **ongille**; **perrokarrillik**; **pillo**, **pillotu**; **surrumillo**. Ikusten da mailebuak ere harrapatzen dituela palatalizazioak: **perrokarrillik** (cf. gazt. *ferrocarri*); **pillo**, **pillotu** (cf. 1.1.1.1.1. **eltxo-pillia**). Baina gertatzen da agertzen den palatala ez izatea **i**-k eragindako asimilazioaren ondorio. Honela, **espillu** forman dagoen alboko palatala erromantzez **k'** taldeak izan duen bilakabide bezala azaltzen da (ik. VII).

1.3.1.1.2. **n / i** ____ V.

Sudurkaria ere bustita agertzen da testuinguru honetan. Baldintza morfologikoen eraginik ez da nabaritzen; berdin gertatzen da, alegia, jatorrizko (*primitive*) **InV** kateetan edo **InV**, morfema elkarketaz (**i+ñon**) eta bestela (**Mugartegiñekue**, **lamiñie**), eratorria (*derived environment*) denean. mailebuek ere salbuespenik gabe jasaten dute asimilazio bilakabidea.

Besteak beste, agertzen dira: **dotriña** (cf. gazt. *doctrina*); **eskiñi**; **grrñak** (eta **glrrñak** ?); **lñausi**; **lñon**; **kristiñau** (<* - *fau*, ik. FHV 153 (f) B-ko forma hontaz); **lamiñie** (cf. lat., *G lamia*: epentesiagatik da testuinguru eratorria); **Mugartegiñekua** (< *Mugartegirenekua*: kenketa batez erakarri da **in** hurrenkera forma honetan); **ondiño**; **Santapiñe** (gazt. *Santa Eufemia*); **siñeste**, **siñestu**, **siñeskera**.

Salbuespen bakarra **ipini** dugu. TEn **sinistu** (1.1.1.1.2.) agertzen zen. Han azaldutakoak joeratzat hartu behar dira eta ez erabateko arautzat: hemengo **siñiskera** berak erakusten du ozena busti daitekeela bi bokal berdinen artean ere.

Atal honetan sartu behar da **ariñ aringe** aditz lagunaren forma, nahiz eta **in** hitz ortografikoaren muga egon. Ia zalantzarik gabe esan daiteke bokalaurrean dagoelako bustitzen dela sudurkaria (ortografikoki bi hitz izan arren, talde foniko bezala ahoskatzen direlako, alegia). Cf., bestela, **arin**, **arindu** eta **ariñ aringe** beraren bigarren zatia.

1.3.1.1.3. **d / i** (l, n) — V.

Lehenago esan den bezala (III.6), **d** asimilazioz bustiko bada, **l** edo **n** behar da **d** eta asimilazioa gerta eraziko duen **i**-ren artean¹. Rollo-k jasotako datuen arauera, **d** palatalizatu egiten da **il** eta **in** hots segiden ondoren bokalaurrean: **aspil[̃]ura**; **bil[̃]u**; **billur** (asimilazio osoa, cf. 1.2.1.1.3.), **billurtu** (eta **bildurrtu**); **ixil[̃]u**; **a(g)in[̃]u**², **alegin[̃]u**, **arin[̃]u**, **astin[̃]u**, **atsegin[̃]u**, **bardin[̃]u**, e.a.; **in[̃]er**, **in[̃]ertu**, **in[̃]ertsu** (baita ere **inger**, **ingerrtu** eta **inderrtsuas**: hautazko bustidura?).

Esan beharra dago **i** bokala eta **d** trabariaren arteko **l**, **n** ozenak ere palatalizatu egiten bide direla. AVen ere markatu gabe agertzen zen ozenaren bustidura (erabat automatikoa zelako: 1.2.1.1.3.).

¹ Rollok ez du honelakorik aipatzen bere fonetikazko atalean. Izan ere, zuzenean bokalaren ondoren palatalizatutako formak ematen ditu: **orri[̃]u**, **orri[̃]ute**. Beste askotan, ordea, ez dago bustidurarik: **baskide**, **segiduen**, **sider**, e.a. Merezi du hemen Azkueren (1925, 565) kritika jasotzeak: «Supone que **d** permuta con **̃** por influencia de una **i** precedente. Para eso es preciso que entre la **i** y la **d** medie una de estas dos consonantes: **n**, **l**. De *ikusi* y de *ekar[̃]i* o de cualquier otro verbo terminado en **i** no hace el pueblo *ikusi[̃]ot* y *ekar[̃]i[̃]ot* por *ikusi[̃]ot* lo he visto y *ekar[̃]i[̃]ot* lo he traído. En cambio de *egin*, *ezin*, *yakin* e *il* salen en labios de muchos bizkainos, incluso marquineses, *eiñ[̃]ot* lo he hecho, *ezin[̃]ot* no he podido, *yakin* (*jakin*, *dxaki[̃]n*) *̃au* lo ha sabido ... e *il[̃]au* le ha matado. Pero las locuciones *eun bi[̃]er*, *mille bi[̃]err* que da el autor [Rollo] no son marquinesas ni de ninguna otra comarca como tampoco *orri[̃]u* (...) en el vocabulario (...) trae también *orri[̃]u*, que nadie dice, por *orridu* ». Rollo (1926, 622) beraren erantzunetik: «La explicación de formas como *ikusi[̃]ot* es muy interesante; pero en una morfología como «The Basque Dialect» no entran tales explicaciones, solamente el lenguaje como se oye hoy». Haatik, bere datuak argi birekin argi egin behar zaien horietakoak dira. Kontuan hartu behar da Rollo-ren informatzaile asko S. Arana-ren segitzaileak zirela eta haren normatibismoak kutsaturik zeudela. Cf., fonologiatik kanpo, *nai gura*-ren ordez erabiltzea, adib.

² Bokalaritako **g** ahoskatzen ez denean, bokalendi ondoko bustidura da gertatzen dena (/j___V).

Azkeneko adibideak agertzen duen alternantzia (**ind-/ing-**) euskaraz behin baino gehiagotan jasotzen denetakoa da. Cf., adib., G **txindurri/txingurri**³.

Bustidura morfema barruan (**in[̃]er**) eta morfema muga zehar (**astin+[̃]u**) gerta daiteke.

1.3.1.1.4.1. **t / i** ____ V.

Bokalaren eraginez bustia agertzen da beti **t** bokalaurrean dagoenean, berdin morfema mugan edo morfema barrenean. Bustiduraren ondorioa afrikatzeraino iritsi daiteke: **ari[̃]u** (**argi[̃]u**, **arri[̃]u**, e.a.); **aspitxik** (**Donosti[̃]ik**, **mendi[̃]ik**); **bi[̃]arte** (eta **bitxarte**); **di[̃]u**; **egi[̃]en**; **i[̃]aundu**; **i[̃]o** (eta **itxo**); **itxogin**; **jaki[̃]un**; **kitxu**, **kitxutu** (G *kitatu*); **politxe**, **poli[̃]o-pol[̃]i[̃]o**; **sarritxen**; **si[̃]el**, **si[̃]eldu**.

1.3.1.1.4.2. **t / i {l, n}** ____ V.

Rollo-k ere (cf. 1.1.1.1.4.2. eta 1.2.1.1.4.2.) jasotzen ditu **il** eta **in**-ren ondorengo **t**-ren palatalizazioak. Zuzenean bokalaren ondoan dagoenean bezala, bustiduraren ondorioa herskaria **̃** [t̃] edo afrikatua **tx** [tʃ] izan daiteke: **ibil[̃]alditxu**; **illin[̃]i**, **illin[̃]ixe**; **San Jasintxona** (gazt. *San Jacinto*).

Tartean agertzen diren kontsonante ozenak (**l**, **n**) bustiak bide dira (cf. 1.2.1.1.3.).

³ Gavel-en (1920, 415) arauera, **g**, **d** ----> **d** (**d'**) «pour produire un effet de diminutif» gertatu omen da.

1.3.1.1.5. eta 1.3.1.1.6. **ś, s / i** — V.

Atal hontan sartzen dira bai txistukari apikaria eta bai bizkarkaria, bizkalerari dagokion bezala, Rollok ez bait ditu bereizten bere transkripzioan. Bere hitzetan: «In Marquina (...) hardly any difference is made between these two sounds» (ROL. 6).

Bustidura asimilazioaren aurrean ez du pisurik bereizkuntzak. Jokabide bera dute bizkarkaritik datozenek eta apikariek: gehien gehienetan ez dira palatalizatzen. Bustidura agertzen duten formak ere jatorri bietakoak dira: **ixil**, **ixil̃u**, **ixillik** (cf. *isilik*); **ixentausan** (*izendatu zan*); **elixa**. Bestela: **biserr**; **bisits**, **bisi**; **gisajo**, **gisaragixa**, **gison**; **gisen**, **gisendu**; **isan**; **isen**, **isenta** (eta **ixentausan**); **isera**; **iserrdĩu**; **isok**; **isuri**; **isurr**.

1.3.1.1.7/8. **tś, ts / i** — V.

Afrikatu apikaria eta bizkarkaria ere, frikariak bezala, batera azaltzen dira, Rollo-k ez bait ditu bereizten bere transkripzioan (ez bait dira bereizten bizkaleraz).

Adibideen artean bustiduradunak eta bustidura gabeak aurkitzen dira. Bustidura agertzen duten gehienak apikari batetik datoz, baina bada bestelakorik ere. Ezin da, beraz, ondorio sendorik atera. Jakina da euskalkiak zehar badirela hitz batzuk **i**-ren ondorengo afrikatua palatalizatua dutenak (FHV 192). Nolabait esan daiteke euskalki bakoitzaren hiztegian azpi-atal bat osatzen dutela (noizbait oparoagoa eta erregularragoa zen palatalizazioaren

arrasto?): **itxaso**; **itxi** ('cerrado': ek. *ertxi*, B zah. *itsi*); **itxisi**⁴**uela** ('... dejado': G *utzi*, B zah. *etxi*); **itxu**; **itxusi**; **jaditxi** (cf. B *jaretsi*, *jaritsi*). Ez da erraza palatala zergatik agertzen den esatea. Bi **i⁺xi** horietan dirudi garbien ez dela hemen aztertzen den asimilazioa izan lehenengo arrazoa. Lehenengoa (cf. *ertxi*, *etxi*) *estu* -rekin erlazionatzen bada (FHV 362-363, 563), badirudi **e-** dela zaharrena hasierako bokal bezala. Nahiz eta bizkaiera zaharrea *itsi* aurkitu, **e-**z hasten diren formetan ere bustidura agertzeak (*echi*, FHV 67) ilundu egiten du palatalizazio horren arrazoa. Bestela esan, ez dirudi asimilazioa egon denik. Bigarren **itxi** (G *utzi*) horretan euskalkiak zehar palatalaren ordeztatu (alternantzian) gertatzen dena bizkarkaria da eta ez apikaria (*eutzi*, *iutzi*, *eitzi*, *utzi*, e.a.). Ikus, formaotaz, VII.6. 518. eta 519.

Morfema mugan gertatzen delako, alternantzia eskaintzen duena **barritxu** da (cf., adib., **itseltsu**). Baina honek asimilazioaren eskaintzen duen lekukotasuna nahikoa ahula da, cf. **alaitsu**⁴: asimilazioa badago, hautazkoa da. Bestela, **-tsu/-txu** lexikalizaturikako alomorfoak direla esan behar da (erabiltzen den elementu lexikoaren arauera aukeratzen dela atzizkiaren forma, alegia).

Bustidurarik gabe agertzen diren formak: **itsain**; **itsarr**, **itsarritu**; **itsel**, **itseltsu**; **itsul**, **itsuli**; **litsakela**; **baltsitsen**.

1.3.1.2. eta 1.3.1.3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

Oraingo honetan batera azaldu dira bi testuinguruok, alde

⁴ Egia da ingurunea aldatu egiten dela, baina bokalerdi ondoa, izatekotan, oparoagoa izaten da. **Barritxu**-ko bustidura adierazgarria izan daiteke (cf. *barritsu* / *barritxu* txikigarria).

batetik kontsonante aurreko adibideak nahiko ez direlako, eta, bestetik, hots bustigaien jokabidea berdina delako kontsonante aurrean eta hitz amaieran. Autoreak bere fonetikazko sarreran esaten duen bezala (ROL. 8), bokalaurrean gertatzen da bustidura asimilazioa: «between two vowels of which the first is **i**». Aipatzekoa da, mugatzailea ez bada ere, kendu egiten dela hitz azkeneko **-a** (**-e** askotan) hiztegiko sarreretan: **mil**, baina testuan **mille**. Ez ditu txistukariak aipatzen asimilazioaz ari denean, ez eta **il**, **in** ondoko hortzetako herskarien bustidura ere.

1.3.1.2/3.1. **i** / **i** ____ (C, #).

Hurrengo kontsonantea **il** katearen ondoren bustitzen denetakoa bada bakarrik bustitzen da albokoa (**ibil** **al** **ditxu**). Bustidura hori ez da grafikoki isladatzen (cf. 1.3.1.1.3.). Bestela, ez dago bustidurarik: **garagarri**, **ikubi**, **il**, **ixil**, **maskil**, **moroki**, **mutil** (**gazti**).

1.3.1.2/3.2. **n** / **i** ____ (C, #).

Elkarrizketan gertatzen da batzuetan bustidura, sudurkaria hitz azkenean badago ere: **aitxiñ**! (*aizan!* -?-), **jakiñ**, **euk eukiñ**, **Manukiñ** (**ezkondu**). Bestela, ez dago bustidurarik: **agints**, **astin**, **arin**, **atsegin**, **egin**, **ekin**, **minberatu**, **mingots**, **sintso**. Gertatzen direnak elkarrizketan gertatzeak (batipat hika ari direlarik) baldintza estilistikoek beren eragina badutela pentsa erazten du.

1.3.1.2/3.3. Ez da gertatzen **d**-rik kontsonante aurrean edo hitz azkenean.

1.3.1.2/3.4. **t / i** ____ (C, #).

Adibide bakarra dago: **ĩ ipit**. Garbi dago bokalaurrean dela emankor bustidura asimilazioa (cf. **ĩ ipiĩ u**).

1.3.1.2/3.5. eta 1.2.1.2/3.6. **ś, s / i** ____ (C, #).

Gorago (1.3.1.1.5.) eman dira txistukari biak batera aurkezteko arrazoiak.

Kasu bakar batean dago sabaiaurrekoa **i** eta kontsonantearen aurrean: **mixkau** 'licked'. Hitz hau azaltzeko asimilazioa ez da ezinbestekoa, bustidura adierazgarria ere izan bait daiteke. Hau pentsaerazteko ez da esanahia arrazoirik indartsuena, bustidurarik ezaren erregularitasuna baizik: **be(g)istau**; **bis** (sic) 'life'; **biskortu**; **bistu**; **elis**, **elildeixak**, **eliske**; **errdis-errdis**; **ispi**.

1.3.1.2/3.7. eta 1.3.1.2/3.8. Ez dago testuan afrikaturik ingurune honetan.

1.3.2. **j** ____.

Diptongoaren ondorengo bustidura oro har **i** silabagilearen ondorengoa baino oparoagoa izaten da. Rollo-ren datuek ez dute joera hori gezurtatzen.

1.3.2.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

1.3.2.1.1. **l** / **j** ____ V.

Testuinguru honetan albokoa palatalizatu egiten da eta bokal-erdia suntsitu: **malla**; **salatzalle**. Salbuespena: **naileukela**; forma honetan baldintza morfologikoak diferenteak dira. Dirudienez, **nai##leukela** kateako hitz mugak bustidura eragozten du, hitz biak talde foniko bakarrean ahoskatzen badira ere. **Mallo**, **mallotu** VII.eraiko uzten dira (ik. VII.1.72).

1.3.2.1.2. **n** / **j** ____ V.

Sudurkaria ere palatalizatu egiten da. Bokalerdia suntsitu egiten da gehienetan. Ez dago daturik albokoa palatalizatzen ez den egoera morfologikoan sudurkariari zer gertatzen zaion ikusteko. Besteak beste agertzen direnak: **bañe**; **baño** (cf. 1.2.2.1.2: ik. VII. ere); **gañ arrtu** (cf. **gain**), **gañera**, **gañeko**; **kodoña**; **noraiño**; **sañen**. Pentsa daiteke **kodoña** formaren palatala mailebatua dela (cf. gazt. *guadaña*). Azkuek dakarren *kodaiña* eta kidekoak (b) taldekoak (ik. 1.1.1.1.1.) lirateke, alegia, beren forma asimilazio ereduari egokitu diotenetakoak, **ñ** asimilazioak sortu ez badu ere (cf. Cor.: *guadaña* < **watani*)⁵. Ik. VII.2.156.

1.3.2.1.3. **d** / **jn** ____ V.

Adibide guztiak, morfema muga zehar behintzat, palatalizazioa gertatzen dela adierazten dute: **apainñu**, **einñe**, **esainñu**,

⁵ Gogoratu, gainera, Azkue ez dela oso fidatzekoa palatalen transkripzioan.

lirainñ u.

1.3.2.1.4. **t** / **j** — V.

Dirudienez, salbuespenik gabe palatalizatzen da **t** ingurune honetan. Bustidura herskariaren bitartez gauzatzen da gehienetan eta bokalerdia ez da suntsitzen: **aiñ a**, **aiñ e**, **aiñ amak**, e.a.; **aiñ u**, **aitxu**; **baiñ a**, **baiñ e**; **deiñ u**; **estaiñ esela**; **geiñ u**; **goiñ u**; **itxañ e**; **maiñ e**; **oiñ ura**; **orraiñ o**; **segaiñ ik**. Ikusten denez, berdin gertatzen da bustidura morfema barruan edo morfema muga zehar.

1.3.2.1.5. eta 1.3.2.1.6. **ś**, **s** / **j** — V.

Esan bezala, autoreak ez ditu bereizten bizkaieraz berdindu diren txistukari bizkarkari eta apikariak.

Badirudi bokalerdiak eragindako asimilazioa bokalak eragindakoa baino oparoagoa dela: **axe** (baita ere **aise**), **axebolada**, **axetu**; **Eleixa**, **Eleixan**; **gaixo**, **gaixotu**; **goxien**. Baina ez da beti gertatzen: **deisela**, **keisa** 'shadow', **noisien bein**, **Oisen** (top.). Batzuetan hitz bera bi eratara agertzen da (**aise/axe**). Salbuespenak ez dira nahiko ezer esateko, baina beharbada kontuan izan beharko lirateke hitzen historia (**keisa** < *keriza*, cf. **keixa** *ceresea* 1.1.2.1.5.) eta analogia (**noisien bein**/ *nois*: hitz azkeneko asimilazioa mugatuagoa da).

1.3.2.1.7. eta 1.3.2.1.8. **tś**, **ts** / **j** — V.

Azaltzen diren adibideen arauera esan daiteke, bokalerdia eta afrikatuaren artean morfema muga ez badago gertatzen dela asimilazioa: **Atxondo** 'district of Marquina, near the rocks' (cf. **aitz** 'rock'); **atxurr**, **atxurrtu**; **gatxak**. Muga dagoenean, berriz, ez: **alaitsu**, **aitseko** ('ulertzeko'). Dena den, gutxiegi dira ~~forma~~ok eta egindako zatiketa halabehar hutsa gerta liteke. Gainera, **aitxiñ!** (1.3.1.3.2., gogoratu estiloaz esana) azaltzen da.

1.3.2.2. eta 1.3.2.3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ — C, #).

Bokalaren ondorengoak (cf. 1.3.1.2/3.) bezala, hemen ere testuinguru biak batera aurkizten dira.

1.3.2.2/3.1. **i** / **j** — {C, #}.

Oso gutxitan agertzen da albokoa testuinguru honetan. Ez dago bustidurarik: **sail** (<*zail*/), **sail/sal** (<*sail*/). Bokalerdia ez agertzeak ez du heman bustidura asimilazioarekin zerikusirik. Jakina da bizkaieraz **ai>a** monoptongazioa gertatu dela zenbaitetan hurrengo kontsonantearen palatalizaziorik gabe. Oparoagoa izan da **-ain>-an**. Mitxelenak (FHV 103) **-ail>-al** kasu bakar batean ezagutzen dela dio, hain zuzen ere gure bi adibideetatik lehenengoan ⁶. Hemen bestela agertzen da.

⁶ Esanahien artean badago diferentziarik, testuinguruaren arauera ia kontrako izan baldin badaitezke ere (cf. Michelena *zail* 'correoso' / Rollo *zail* 'supple, lithe').

1.3.2.2/3.2. **n** / **j** — [C, #].

Esan daiteke ez dela bustitzen ia inoiz sudurkaria testuinguru honetan: **ain**; **apain**; **bedeinkatu**; **bein** (baita ere **beñ**, hurrengo hitza bokalez hasten den batean); **ein**, **einsien**; **gain**, **gainbegiratu**; **oinka**. Salbuespen garbi bakarra **oñ** (*orain*) da, egia da hurrengo hitza bokalez hasten dela, baina testuan behintzat etena markatzen da bien artean: «Oñ, esata noye (...)». Gainerakoan, orain arte egin den bezala, asimilatu egiten den leherkariaren aurreko sudurkariak (**einñe**) bustitzat hartzen dira ⁷.

1.3.2.2/3.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean edo hitz azkenean.

1.3.2.2/3.4. **t** / **j** — [C, #].

Adibideak gutxi dira. Halaz ere, ingurune honetan bustiduraren aurkako joera dagoela dirudi: **ait** (**aits** 'oak tree'ren ordeztu maiz entzuten den aldaera omen); **gobait**; **zerrbait**: hain zuzen ere, hurrengo bokalez hasten denean «zerrbait aguretu» esaldian.

⁷ Gainera, Navarro Tomás-ek (1925, 628), Gipuzkoako ahoskera aztertzean dioa: «Ante las palatales **č**, **t**, **g**, etc., la **n** se palataliza adoptando la forma dorsal (...). Para que la asimilación tenga lugar se necesita que la nasal y la consonante se pronuncien naturalmente enlazadas sin hacer pausa o detención entre ellas. La pronunciación lenta, silabeada o reflexivamente literal hace que la **n**, cualquiera que sea el fonema inmediato, vacile entre las formas intermedias de asimilación incompleta o bien mantenga íntegramente su propia articulación prealveolar (...)». Aztertzen ari garen kasuetan ezkerretik eta eskubitik dator, beraz, palatalizatze eragina (**j** — **g**). Ik. II.4.2. sudurkariaren neutralizazioaz.

1.3.2.2/3.5. eta 1.3.2.2/3.6. **ś, s / j** — [C, #].

Jatorriz bizkarkari denaren adibideak bakarrik agertzen dira eta gutxi. Palatalizazioa azaltzen duen kasu bakarrean bokalerdia suntsitu egiten da: **Eleiskisun** (cf. **Eleixa, Eleixan**), **gox** (baita ere **gois**).

1.3.2.2/3.7. eta 1.3.2.2/3.8. **tś, ts / j** — [C, #].

Kontsonante aurrean egonagatik, afrikatuak ez dira beti frikari bihurtzen. Gertatzen da bustidura testuinguru honetan, baina ez beti. Hitz batzuetan lexikalizatuta dagoela dirudi (hiztegi mailan egiten dela aukera, alegia): **aits** (*aritz*); **atx** (*aitz*), **atxmendi**, **atxpe** (top. **Axmendi**); **bakotx**; **gaits** 'bad, wicked'. Azkenekoa hiztunak lehengo **gatzak** (adj.) 'difficult'-ekin lotuko balu, lexikalizazioaren kontrako argudioa litzateke.

LABURPEN/ONDORIOAK:

Bonaparte-ren arauera ekialdeko bizkaiera dugun honetan OZENen asimilazioa erabatekoa dela esan daiteke bokal aurrean.

TRABARI HERSKARIak bustitzen dira bokal aurrean. TXISTUKARI bustiak agertzen dira bokalaurrean, baina gutxienak dira. AFRIKATUen artean, beharbada, jatorriz apikari direnak dute bustita agertzeko joera handiagoa. Bokalerdi ondoa bokal ondoa baino oparoagoa da. Morfema muga oztopo izan daiteke bokalerdi ondoan ere.

Kontsonante aurrean eta hitz azkenean esan daiteke ez dagoela asimilazio bilakabiderik. OZENak berak ere ez dira palatalizatzen, nahiz eta bokalerdi ondoan egon. TRABARIen artean, afrikatu sabaiaurrekoak gertatzen dira kontsonante aurrean, baina lexikalizatuak dira, ziurrenik.

1.4. J. J. Moguel: *Peru Abarca*

1.4.0. Hemen aztertzen den liburua (PA hemendik aurrera) lehengoa (1.3.) baino zaharragoa da ehun bat urtez: 1881.ean inprimatu bazen ere, 1800 inguruan idatzi zuen Moguel-ek. Egilea Markinakoa izanik ¹, Rollo-k eskaintzen dituen datuak zaharragoekin erkatzeko aukera bikaina ematen digu. Halaz ere, eta larogei bat urtez eskuz idatzirik ibili zelako hain zuzen, grafiari dagokionean argi birekin argi egin behar zaion testua dugu (ik. FHV 561).

Asimilazio bustiduraren emankortasuna adierazten duten datuak goragoko testuetakoak aurkeztu diren bezala eskaintzen dira. Liburuan azaltzen dira hiztun gipuzkoar bat eta Baigorriko beste bat; horiek esandakoa ez da aintzakotzat hartzen ekialdeko bizkaieraren azterketa honetarako.

1.4.1. **i** ____

1.4.1.1. Bokalaurrea (____ V).

Oro har, asimilazio bustidurarentzako ingurunerik oparoena da euskaraz. Bizkaieraren bereizgarri da txistukariak ere testuinguru honetan bustitzeko joera. Testu hau erabat harturik, badirudi hots ozenen alorrean dela emankor asimilazio bustidura.

¹ Nahiz eta Eibarren jaioa izan, oso gazte (11 urte?) joan zen Markinara bizitzera. PAren bizkaieraz eta idazkeraren fonetizismoaz, ik. Urgell 1985 (batez ere 69-72) eta Villasante 1979, 203-214. Hemen liburu osoa hartzen da aintzakotzat, 1881ean agertu zen bezala alegia: *Peru Abarca* bera eta ondorengo elkarriketa, itzulpen eta hiztegiak.

1.4.1.1.1. **i / i** — V.

Bustidura da gehien gehienetan gertatzen dena (**billatuten**, **erabili**, **ibili**, **milla** --?: ik. 1.1.1.1.1.--, e.a.). Erregularitasuna ia erabatekoa delako, dira aipagarriago salbuespenak. Hona hemen bustidura markarik gabe agertzen diren albokoak, nahiz eta goiko bokai palatalaren ondoren eta bokalaurrean egon:

aguacila.- Pentsa daiteke mailebua delako (cf. gazt. *aguacil*) ez zaiola ezarri bustidura, nolabait hizkuntzak ez du maila horretaraino barneratu. Proposaturiko sailkapenaren arauera, (a) taldekoa litzateke hitz hau (ik. 1.1.1.1.1.: hiztunak gazteleraz bustidurarik gabe erabiltzen du). Baina asimilazioaren aldeko froga izan beharrenean, erregalaren mugatzat hartu behar da datu hau (cf. TE **aguazilla**). Ezin da esan, ordea, PAn mailebuak bustitzen ez direnik: cf. **gabillaiac/gabilaia**, gazt. *gavilán*². Aztertzen ari garen honetan morfema muga dago bustidurarako testuinguruan (**aguacil+a**).

ilaco (*hi beزالako*).- Behin eta berriz ari gara errepikatzen **i**-ren ondoren gertatzen dela bustiduraren neutralizazioa, alde batera edo bestera (FHV 200). Bestela esanda eta De Rijk-en hitzak erabiliaz, **i**-ren ondoren estuagoa da bustidura erregela. Forma honetan baldintza morfologikoak kontuan hartzekoak dira. Hain

² Bustiduraz agertzen da, Peruk euskarazko azalpen etimologikoa ematen duenean.

Bustidurarik gabe, hiztegi moduko batean, Itzulpenarekin batera hitzaren euskarazko jatorria gazteleraz errepikatzen duenean Abadeak: «*Gabillaia* da osoz *ega-billaia*, dabilletako *egaa*, *billatu*, aratu, ta aztertuten (...)». PA 180. «*Gabilaia* Gavilán Vuela buscando: el buscador de noche». PA 182.

zuzen ere, morfema muga dago **i** eta albokoaren artean (**i+lako**). Bustiduraren oztopo izan dena bilatzean, analogia ere ezin da ahaztu: cf. *(h)alako*, *(h)onelako*, *zelako*, eta abarren eredua.

ilinchia.- Moguel-ek ematen duen itzulpena 'carbón mal cocido' da, horixe da Azkue-k hiztegian, s.v. *ilint̃a*, ematen duena ere. Baina badira euskaraz antzeko formak 'tizón' itzuli ohi direnak eta bustidura ager daitezkeenak: *(h)ilindi*, *ilinti*, *ileti*, *itxendi*, e.a. (Azkuek bakoitzari bere sarrera ematen die). Erdarazko esanahiak bat direla esan daiteke. Euskarazko formak ere elkarrekin lotu daitezke palatalizazioaren bidez (FHV 190 eta 520). **Ilinchiak** erakusten du bustidura ez dela derrigorrezkoa eta **i**-ren ondorengo neutralizazioa ez dela palatalaren alde gertatu kasu honetan (FHV 200). Bustidurarik ezaren arrazoiak bilatzean, gogoratu behar da orain arteko zenbait azterketetan antzemandakoa, hitz berean beste palatalen bat egotea eragozpen izan daitekeela bustidurarentzako. **Ilinchian** bi dira ondorengo hots palatalak, **i** bokala eta **ch** [tʃ] kontsonantea (cf. II.4.2.).

milika, **milika** ('melindroso', izen bezala ere erabiltzen da). Forma hau ere **i**-ren ondorengo neutralizaziotzat jo daiteke. **Ilinchia**-ren kasuan bezalaxe, albokoa bustidura eragin ohi duen **i** eta tinbre edo nolakotasun berdineko beste bokal baten artean dago. Beraz, hitz bereko beste palatalaren eragozpena ere aipa daiteke ez bustitzearen arrazoi posibleen artean. Bestalde, esanahiari begira, pentsatzekoa da hiztunak hitz hau adierazgarriekin batera gordetzea (cf. **bili-bili** 1.1.1.1.1.). Jakina da honelako hitzek maiz osatzen dutela hiztegiaren zati berezi bat gainerako hitzen bilakabide fonologikoetatik kanpo geratzen dena.

1.4.1.1.2. **n / i** — V.

Esan daiteke ingurune honetan sudurkaria bustitzea erregularra dela: **baciña**; **burdiñatuten** --eskuizkribuan ez zaio bustidura marka igartzen--, **burdiña** --eskuizkribuan **burdinia**-- (baita ere **burdina**, **burdiniaz**, e.a.); **icatzguiñac**, e.a.. Halaz ere, asko eta asko dira bilakabide hori azaltzen ez duten adibideak, are gehiago eskuizkribuan testu inprimatuan baino. Mitxelena-ren (1978-79, 212-213) ustez, sudurkariaren bustidura ez markatze hau asimilazioaren automatikotasunaren seinale izan daiteke. Izan ere, harrigarria litzateke, egungo ahoskera ikusita eta euskarazko bustidura asimilazioaren nolakotasuna kontuan izanda, **inV** segidan honenbeste salbuespen egotea (izan ere ingurune emankorrena bait da normalean). Aintzakotzat hartzekoa da Rollo-ren arauera (cf. 1.3.1.1.2.) Markinan ia beti gertatzen dela asimilazioa **inV** ingurunean (**ipini** da jaso den salbuespen bakarra).

Hauetako batzuk hiztunak gazteleraz ere ezagutu zitzakeen hitz mailebatuak dira: **capuchino** (cf. gazt. *capuchino*), **doctrina** (cf. gazt. *doctrina*), **esaminau** (cf. gazt. *examinar*), **lina**, **lino** (cf. gazt. *lino*), **makina** bat 'asko' (cf. gazt. *máquina*³), **sardina** (cf. gazt. *sardina*), **vinagriac** (cf. gazt. *vinagre*).

Bada bizkaieraz **inV** hots segida duen beste hitz multzo bat. Bokal arteko sudurkari hori ez da euskalki guztietan agertzen (cf. FHV 305; II.4.3). Jatorriz lotuta dauden forma erromantzeetan ere ez dago **i**-ren ondoren sudurkaririk:

³ Cf. 1.1.1.1.2. **makiña** eta bertako oharra.

chacolina (cf. beste euskalkietako *txakolia*)- Jatorrizko forma **n**-duna bada, suntsitu eta bokalaren sudurkaritasuna erabat galdu aurretik berriro agertu bada, **ñ** bustia litzateke **chacolina** forman espero zitekeena. Hain zuzen ere, **i**-ren ondorena sudurkariaren berreskuratze hau gertatzen den inguruneetariko bat da. Gehienetan, ordea, despalatalizaziorik ez duten euskalkietan, sabaikoa izan ohi da ingurune horretan (berr)agertzen den sudurkaria (cf. II.4.3). Beraz, hemen ere neutralizazioaz pentsatu beharko da. Beharbada, hitz hasierako **ch** sabaikoa izan daiteke sudurkariaren bustidura ezaren arrazoia, baina beharbada, besterik gabe, ez da markatu bustidura. Bustikuntzaz honi buruzkoa errepika daiteke ondorengoetan.

chimino (cf. lat. *simius*, gazt. *simio*, GN *tximio*, e.a.).- Mitxelenari jarraiki (FHV 305), esan daiteke forma honetan sudurkaritasuna (**m**) hitzean zehar hedatu dela eta ez dela noizpait galdutako sudurkaria berreskuratzen ⁴.

christinau, cristinau (<^{*} *-fau* ; cf. 1.3.1.1.2. **kristiñau**).

dino (cf. G *dio*).- Forma honetan (eta paradigma bereko gainerakoetan: **dinozu, dinue**, e.a.) ez dago beste batzuetan bezain garbi (**tximino** < *simius*, **premina** < *premia*) eransketa gertatu den, ez bait dakigu jatorria zein den.

⁴ Gavel-en (1920, 272) arauera, bokalartean galdu eta berreskuratutako sudurkariak izan dezakete eragina: «(...) la chute de certaines **n** intervocaliques a amené pour quelques suffixes d'origine roman à une dualité de formes, les unes sans **n**, les autres avec **n**, le suffixe *-oe* par exemple pouvant coexister avec une variante *-one*. Il semble que de même le suffixe espagnol *-ino* ait eu en basque une variante *-io*. Mais cette dualité de formes a pu déterminer, par fausse analogie, la création d'un type *-ino* dans de mots où seule l'existence d'un type par *-io* pouvait se justifier étymologiquement».

premina/premiña (cf. gazt. zah. *premia*: cf. II.4.3.).

Gazteleraz *-(c)ión* bukaera bihurtu denaren ordainak formaok eskaintzen dizkigu: **beguitacinoren bat**, **burutacino**, **causínua**⁵, **confusinoe**⁶, **conversacino**, **declarac inolac**, **esesinoe** ('excepción'), **esplicacinuak**, **inclinacino**, **inquisicinoera**, **oracino**, **parcacinua**, **salacinuaren**. Azken buruan, latinezko **-one* dago forma hauen jatorrian (ik. FHV 147-148).

Sudurkaria **InV** hurrenkeran bustidurarik gabe agertzen dutenen artean badaude euskarazko hitz zaharrak diruditen asko ere. Forma hauetako **i**-ren ondorengo sudurkaria ez da bizkaieraz bakarrik gertatzen. Bestalde, ez dago kanpoko eredurik bustidurarik eza esplikatzeko. Berriz ere gelditzen den irtenbide bakarra neutralizazioarena da (edo idaztean ez dela jaso pentsatzea): **i**-ren ondorengo neutralizazioa bustidurarik ezaren alde gertatu bide da. PA-ko grafiak ebakera jasotzen duen neurrian⁷, asimilazio-arekiko zalantza behintzat agertzen dutenenetakoak genituzke: **aguinic**, **anchina** (eta **anchiñaco**), **binaan**, **eguiña** (baita ere **eguiña**), **esquini** (eta **esquiñi**), **guinaijo** (**guinian**, **cinaiz** aditz

⁵ Ez dago garbi hitz honen jatorria. Moguel-ek *jaramon* ematen du sinonimotzat eta 'caso, aprecio' itzultzen.

⁶ Batzuek ez dute **-e** galtzen (cf. lat. *-tionem*): **confusinoe**, **declarac inolac**, **Informacinoe**. Besteek, bai (adib., **conversacino**).

⁷ Idatzi zuenetik (ca. 1800) inprimatu zen arte larogei urte baino gehiago igaro zirenez, beharrezkotzat jo da eskuizkribua bera aztertzea zalantzak sortzen zirenean. Horretarako EHUko Gasteizko liburutegian dagoen Zarauzko dokumentuaren kopia erabili da. Badira diferentziak palatalizazioari dagokionean (ik., adib., **burdiñatuten** 1.4.1.1.2.). Dena dela, eskuizkribua eta 1881ean argitaratu testuaren arteko bereizkuntzak -besteak beste, palatalizazioari dagozkionak- Michelena-k (1978-79) aztertu ditu.

laguntzaileak), **guinarria**, **imini** (**iminico**, **ipinico**, e.a.), **inausten** ⁸, **inoc** (eta **iñori**), **inos** (eta **iños**), **inun**, **oraindino** (eta **orainguiño**), **orregaitino**, **sinistuco** (**sinisoidia**), **topinac** (baita ere **topiña**), e.a. Azkeneko hitz hau kanpotikakoa da, nahiz eta bustidura euskararen barruan sortua izan (ik. Von Wartburg 1954, 299-300). Hitzunak mailebutzat hartzeko zaharregia delako sartzen da zerrenda honetan.

Gertatzen diren aldaerak (**anchina/anchiña**, **eguína/eguiña**, **esquíni/esquiñi**, **premina/premiña**, e.a.) aintzakotzat hartzen badira, pentsa daiteke bustidura asimilazioa hautazkoa dela. Baldintza morfologikoek izan dezaketen garrantzia neurtzeko ez dago nahikoa adibiderik, baina cf., adib., **miñarinecuac**: bustidura gertatzen da morfema barrenean, baina ez morfema mugan zehar (cf. **jaqineza** forma elkartua ere).

Autoreak ezaugarri fonetikoak oso kontuan baditu ere, izan daiteke batzuetan bustidura ahanzteak. Aipatzekoa da hitzaurrean, euskarazko bereizkuntza fonetikoez ari denean, ez duela bustidura aipatu ere egiten.

1.4.1.1.3. Ez da inon **d**-ren bustidurarik markatzen.

1.4.1.1.4. Ez da inon **t**-ren bustidurarik markatzen.

Hortzetako herskari baten asimilazio bustiduraren ondorio izan litekeen bakarra **ilinchia**-ko **ch** [tʃ] hori da (cf. *ilinti*,

⁸ Azkue-k (s.v. *iñaušten*) PATik adibide hau jasotzean *iñaušten* -bustiduraz- idazten du. 1881.go ediziotik hartu du noski, ematen dituen orrialde eta lerroaren arauera behintzat (128.or., 27. lerroa). Baina ez hor, eta ez eskuizkribuan, ez dago bustidurarik.

itxendi, itxindi, e.a.).

1.4.1.1.5. **š** / **i** ____ V.

Gertatzen da txistukariaren bustidura **i** eta beste bokal baten artean, baina ezin da esan beti gertatzen denik. Hitz bera ere bi erataria idatzia azaltzen da batzuetan: **issillic** (baita ere **isillac** --eskuizkribuan **issillac** agertzen da--); **issilluba**; **issio** (cf. 1.1.1.1.5. **ixotu**); **issurtzen**; **missiricatuba** (= ? **biciricatuba** 'hombre miserable'). **Lisiba**, **lisibatu** (eskuizkribuan ere ez dago bustidura markarik, baina cf. Azkue s. v. *lišiba*: ik. VII.5.312. Dena dela, ezin da hontaz gauza haundirik esan, jakina bait da Moguelengan <is> [j]-ren idazkera ere izan daitekeela ⁹.

1.4.1.1.6. **s** / **i** ____ V.

Bokalaren ondoren, jatorriz txistukari bizkarkaria dena ez da inoiz bustiduraz agertzen (**egulzu**, **guizon**, **elizateric** --cf. 1.4.2.1.5. **Elessiari**--, e.a.).

1.4.1.1.7. **tš** / **i** ____ V.

Jatorriz afrikatu apikaria duten formetan agertzen da bustidura: **ichasocua**; **ichubac**, **ichumendi**; **ichusi**. Jakina da oso hedatua dagoela euskalkietan zehar tankera honetako hitzak

⁹ Txistukari apikaria eta bizkarkaria bereizten dira autorearen berezkuntza ortografikoa errespetatuz, nahiz eta berak nahastu egiten dituela garbi egon batzuetan (**elaisaan** eta **elizateric**, **aisiac**, **atzeguin**). Askotan nahasteak argitaratzailearenak izan dira (cf. M 1978-79, 211). Txistukariaren bustidura **ss** grafiaz adierazten da testuan (baita ere **is** edota **iss**, cf. M 1978-79, 215: **is** [j]zat har daiteke).

afrikatu bustia izatea **i**-ren ondoren, nahiz eta asimilazio erregularrik ez izan (cf. 1.1.1.1.7. edo FHV 192). Aurreko ataletan bezala, **icharan**, **icharazu**, **icharoten** eta **ichico**, **ichiric** VII.eraiko utziko ditugu (ik. VII.6.491. eta 518.).

Emandakoen artean, aipatzekoak dira **ichi**- (cf. *itsi* < *er(t)si*) erroa dutenak. Cf. gorago (1.3.1.1.7.: lehenengo **ichi**) esandakoak.

Ez dago jakiterik **icharan** eta kidekoen afrikatua hortz hobietako (apikari ([tʰ]) edo bizkarkari [ts]) baten bustiduratik datorren.

1.4.1.18. **ts / i** ____ V.

Bustidurarako joera badago, beti gertatzen ez bada ere. Hitz batzuetan ez da inoiz azaltzen bustidurarik: **achurlaritzia**; **anditzarrac**; **ezaugarritzat** (**guzurtitzat**, e.a.); **garbitzalle**; **itzaña**, **itzaina**, **itzaintz**; **itzalak**, **itzaltsu**; **itzinduten**; **miritza**; **servitzari**, e.a. Morfema muga dago **i** eta afrikatu busti-gaiaren artean, **itzal**-, **itzin**- eta **miritza** hitzetan ez beste. Orain baino lehen ikusi dugu morfema muga bustidurarako oztopo izan daitekeela.

Baina bustidura agertzen duten formak ere badira: **aricha** (cf. *G aritza*), **derichazu**, **derichee**, **derichon**, **derichu**, e.a. (cf. **derist**); **irichiz**, **irichico**, **onirichi**; **lichaquezu**, **lichaquegu**. Kontuan izatekoa da hitz hauek ez dutela gehienetan bustidurarik gabeko aldaerarik. Bustidura erraz dezaketeen arrazoiak dira, alde batetik, **i** eta afrikatuaren artean ez egotea morfema mugarik, bestetik, ondoren ia beti (**derist** kenduta) bokala agertzea jokatu

eta deklinatzeko moduarengatik (**derichazu**, **derichat** etc.). Beste ikuspuntu batetik begiratuta, aldaerarik ez izateak bustidurak lexikalizatutzat hartzera bultzatzen gaitu.

Azalean **ichV** segida dutelako hemen sar zitezkeen beste batzuek ere, baina ez dira aztertzen ari garen asimilazioaren ondorio eta hurrengo atalerako utziko ditugu (VII.6.): **bichidun**, **bichitasunac**; **imicha**; **pichar** (cf. 2.3.1.1.5/6/7/8. **pitxar**); **ichi**, **ichita** (cf. 1.3.1.1.7/8.).

1.4.1.2. eta 1.4.1.3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

Esan daiteke ez dagoela bustidurarik kontsonante aurrean edo hitz amaieran. Badira, halaz ere, palatal bezala markatzen direnak. Beraz, dudarik gabe eta beste euskalkietan bezala, ikusten da asimilazioa mugatuagoa dela bokal aurrean ez dagoenean. Esango dugu kontsonante aurrean eta hitz azkenean ere gerta *daitekeela*, baina ez duela gertatu *behar*. Gutxiago direlako, besterik gabe bustidura agertzen duten formen berri emango da ondoren lerroetan.

1.4.1.2/3.1. **l / i** ____ [C, #].

Albokoa bustita agertzen da *//* ('morir') hitzaren paradigmako formetan: **ill**, **illda**, **illgo** (baita ere **ilgo**), **illten** (baita ere **ilten**), e.a. Kontuan hartzekoa **illa** eta beste bokal aurreko aldaerak izan dezaketen eragin analogikoa. Baita ere: **dabill** (eta **badabill**), **darabill**; **issilltzaca** (cf. **issillic**, **issillac**).

1.4.1.2/3.2. **n / i** ____ [C, #].

Bustidura ager daiteke: **biarguiñ** (baina cf. **biarguina**, **biarguinen**), **miñ** (**ta atsacabe**) eta **buruguiñ** (**ta lepozalia**); baita ere: **mingorra**, **sorguin**, **sorguintzat**, **zamargin**, e.a. Azken biak hitz bukaerakotzat edo kontsonante aurrekotzat har daitezke (ebakeraren erritmoaren arauera). Dena dela, esan bezala, ez dago alde haundirik kontsonante aurre eta hitz azkenaren artean bustidura asimilazioari dagokionean. Bustiduraren ordeztu hurrengo kontsonantearekiko asimilazioa ere adierazten dute grafia batzuek (**mimberatuten**).

1.4.1.2/3.3/4., 1.4.1.2/3.5/6., 1.4.1.2/3.7/8. Ingurune honetan ez dago ia bustitako trabarien adibiderik (cf. **adisquidia**, **chipristina**, **chistubaz**; **bizkor**; **bits**; e.a.). Baina, esan bezala (1.1.1.1.5.) <is> [j] izan daiteke. Badirudi ager daitekeela bustidura marka afrikatueta: **arich**, adib. Kontuan izatekoa da bokalaurreko bustidurak (cf. **aricha**) izan dezakeen eragin analogikoa. Izan daiteke palatalizazioa lexikalizatuta egotea ere eta bokalerdi ondorengoaren arrasto izatea (cf. *areitz*, *ereitzi*: 1.1.1.2.5.).

1.4.2. j ____.

1.4.2.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

Bokalerdiaren ondorengo bokalaurrea da, oro har, bustidura asimilaziorako ingurunerik oparoena.

1.4.2.1.1. **i / j** — V.

la salbuespenik (**praile**) gabe bustitzen da albokoa ingurune honetan. Salbuespen itxura duten **oiloa** eta **oilaarra** dira atal honetan alpagarrien, behar bada. Jatorriak (cf. lat. *pullus*, gazt. *pollo*) ez du azaltzen kasu honetan bustidurarik eza. Gauzak jatorriari begira azaltzekotan, hain zuzen ere bustidura da justifikatzen dena (bustiduraren iturburua ikus daiteke latinezko -// - horretan: ik. VII) ¹⁰. Gainera, kontuan izanik testuinguru honetan dela bustidura asimilazioa oparoen eta, despalatalizazioa duten euskalkiak kenduta, ez dela inon [ojlo] (bustidurarik gabe) ahoskatzen, zalantzazkoa da grafia horiek benetazko ebakera jasotzen duten. Pentsatzekoa da ez ote den Moguel-en gogo etimologistagatik idazten **il**, nahiz eta [ɛ] ebaki. Moguel-ek **oiloa** hitz elkartutzat hartzen du (**oi** 'arriba' + **lo** 'dormir'); **oilaarra**, noski, **oilua**-ren "senar" bezala ¹¹. PAn bertan **ollagorrac**, **ollo-motza** eta **motz-oilua** agertzen dira.

1.4.2.1.2. **n / j** — V.

Irristariaren ondoren bokalaurreko sudurkaria bustitzeko joera nabarmena bada ere, badira bustidurarik gabeko kasuak (bokalaren --**i** silabagilearen-- ondorengoak baino gutxiago direla esan

¹⁰ «Se suele admitir (cf. Gavel, Elém. 330) que el vasc. *oillo* (> *oila*) 'gallina' procede del cast. *pollo*. Pero se piensa al parecer que lat. // se había palatalizado ya en romance». (FHV 320, 13. oharra).

¹¹ «AB. ¿Cer da oiloa? / P. Oi edo goijan lô eguin oi dabena; ta oilloac igon darue lotara al dabenian egur gain, edo otaan». (PA 175). Hizlegian (181 or.) **oilua** agertzen da eta hau bide zen bere idazkeran ohizkoena (cf. hontaz Urgell 1985, 69; Moguel beraren aipua). Hizkuntza eta etimologiari buruz dituen iritziez, ik. Villasante 1979 (203-214) ere; 205-206 or.etan jasotzen den erlijio eta eliz hitzekiko jarrerak esplika dezake **praileren** bustidura eza agian.

daiteke). besteak beste: **igüina**, **ipuina**, **ipuinac**; **itzaina** (zerrendan dagoenean, bestela **itzaña**); **oinazpijac**, **oinordeco-
tzat** (baita ere **oiñazpijac**, **oiñetaco**, **oiñoc**); **otseinac** (baita ere **otseiñac**); **usainian** (eta **usaiñac**). Haatik, gehienetan bustidura azaltzen da ingurune honetan.

1.4.2.1.3. Ez da inon **d**-ren bustidurarik markatzen testuan.

1.4.2.1.4. Ez inon **t**-ren bustidurarik markatzen testuan.

1.4.2.1.5. **ś** / **j** ____ V.

Ortografikoki txistukari apikariz azaltzen direnen artean denetarik gertatzen da: **alsiac**, **elelsaan** (baina **elessacua**, **Elessiari**), **gaisuac** (eta **gaissuac**), **goissac** (**goissian**, baina **goiseraco**).

1.4.2.1.6. **s** / **j** ____ V.

Txistukari bizkarkariaren adibide bezala **lessarra** (cf. *leizarra*, ik. FHV, 106). Ez dago bestelako aldaerarik eta, bustiduraren parada morfologikoagatik (morfema barrenean gertatzen da), ezin da alternantziarik aurkitu beste euskalkietan ez bada. Ez dago eragozpenik bustidura lexikalizatuta dagoela esateko.

1.4.2.1.7. Ingurune honetan jatorriz apikaria den afrikatuaren adibiderik ez dago.

1.4.2.1.8. **ts / j** — V.

Agertzen diren bustidurak morfema barranean gertatzen dira eta gehienek ez dute bustidurarik gabeko aldaerarik, beste euskakietan ez bada: **achac** (cf. *(h)aitz-*); **achurra**, **achurren** (cf. *(h)aitzur*); **bacocha**, **bacochari** (cf. *bak(h)oit-*)¹², **bicochac**, **irucochac**; **gachari**, **gachic**, **jangacha** (cf. 'gipuzkoarraren ahoan jartzen duen **gaitza**). Baigorrikoaren eta gipuzkoarraren hizketaldiak kenduta, ez dago **jts(V)** segidarik testuan.

1.4.2.2. eta 1.4.2.3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ — [C, #]).

Zalantzarik gabe, bokalaurrekoa baino askoz gutxiagotan idazten da bustidura asimilazioa inguruneotan. Garbi dago gerta daitekeela bai ozen eta bai trabarrietan (**ezaiñ**, **bacochtasunac**), baina normalena ez markatzea da: **ain**, **gois**, **soil**. Txistukaria (**gois**) bustia bide da, baina <ss> bokalaurrean bakarrik gertatzen da PA-n. Silabagilearen ondoren bezala, hemen ere ikusten da sudurkarietan hurrengo kontsonantearekin asimilatze joera (**aimbeste**) hortzetako eta albeolareak bustitzen dituen erregelatik ihes.

¹² Kontuz ibili behar da jatorria erabat ezagutzen ez denean. Ezin da ahaztu bustidura adierazgarria ere izan daitekeela sabaiko aldaera baten arrazoi. Kasu honetan, badirudi esanahiak ez duela hori pentsatzera bultzatzen (cf. FHV, 184: bertan dago PAko **achaqui ja** asimilatutakoen zerrenda honetan ez sartzeko arrazoi).

LABURPEN/ONDORIOAK:

OZENen bustidura bokal aurrean ia erabatekoa dela esan daiteke. Idazkera dela eta, zaila da batzuetzan salbuespenak (i-ren ondorengo neutralizazioak batipat) markatzen ez diren ebakera automatikoetatik bereiztea.

TRABARI bustiduradunak gutxitan agertzen dira (**d, t** inoiz ez), baina badirudi txistukariak busti daitezkeela behintzat (asko eta asko marka berezirik gabe idatziak bide daude: ik. 1.4.1.1.5.). Morfema muga oztopo izaten da eta bustidurak lexikalizatuaren itxura du.

Kontsonante aurrean eta hitz azkenean, oso mugatua da OZENen bustidura ere. Bokal ondoko TRABARIak ez dira bustitzen kontsonante aurrean eta hitz azkenean. Bokalerdi ondoa oparoagoa da, ~~dena~~ dela, hitz azken eta kontsonante aurrean gehien gehienetan ez dago bustidurarik.

Guztira, badirudi Rollo-k baino gutxiagotan markatzen duela bustidura. Baina hau, gorago esan bezala (1.4.1.1.2.), bustikuntzaren automatikotasun edo erabateko oparotasunaren seinaleztat har daiteke.

2. Gipuzkera

2.0. Bigarren atal honetan gipuzkeraren bustidura asimilazio-ari gagozkio. Horretarako oinarria honako testuak izan dira (ik. erreferentzia osoak bibliografian): J. B. Agirre-ren *Eracusaldia* (Asteasu), J. M. Barandiaran-en *Eusko Folklore* (Ataungo ipuiak) eta M. Soroa-ren *Baratzan* (Donostia).

2.1. J. B. Agirre: *Eracusaldia*

Testu hau da hiruretan zaharrena. 1850.ean argitaratu zen, baina badakigu hitzaurrea behintzat 1808.goa dela. Ortografiaren aldetik ere berau dugu zaharkituena, noski.

2.1.1. i ____ .

2.1.1.1. Bokalaurrea (____ V).

2.1.1.1.1 i / i ____ V.

Gehienetan ingurune honetan agertzen den albokoa bustia izaten da, baina badira bustidurarik agertzen ez duten formak ere. Bustiduradunen artean, besteak beste: **dedilla**, **milla**, **perilla**. Ez dago beti garbi alboko palatal hauen arrazoiak **i**-k eragindako asimilazio aurrekaria den. Ik. **milla** formaz esandakoa (1.1.1.1.1), adib. Era berean, **perilla**-ko bustiduraren arrazoiak ere zalantzarikoa dira. Lat. *peri cū lu* kontuan hartzen bada, jatorrizko **-k'-** taldeak esplikatu dezake euskarazko forman agertzen den [ç] hotsa (ik. VII.1.89.).

Ez dago bustidura markarik zenbait formatan: **amil-erazteco**,

Concilioac, vicilecu. Concilioac erabat irentsi edo asimilatu gabeko mailebu bezala esplikatu daiteke. Izan ere ez dirudi hitza hizkera arruntekoa denik. Besteetan, berriz, bustidura eragotzen duen hitz muga gorde dela ematen du. Lehenengoaren idazkerak horixe adieraz lezake. Nahiz eta posible izan asimilazioa hitz azkenean, ez da bokalaurrekoa bezain sistematikoa (lk. 2.1.1.2/3.1) eta gutxitan gertatzen da *ami/-* erroa bokalaurrean (cf. III.7).

2.1.1.1.2. n / i ____ V.

Sudurkariaren asimilazioaren oparotasunaren seinale dira agertzen zaizkigun mailebu sabaikaldu edo palatalizatuak: **dotriñac, dotriñetatic** (gehien gehienetan, ordea, **dotrinac, dotrinaco, dotrinaren**, e.a.); **maquiña bat** (*asko*), **origiñal** (*originala, originalaren*), **S. Agustiñen, Virjiña**. Hizkuntzaren barruan aldaerak eskaintzen dituztenak ere badira, besteak beste: **aleguiña**, cf. **eguin**; **cliquiña, cliquiñaquin** (*cliquinaquin*); **ipini**, cf. **ipintzea, ipintzeco**; **jaquiñezac** (*jaquinezac*), cf. **jaquinsuen**.

Bustidurarik gabeen artean: **examina, examinaco, examinan; inocenciaco, inocenciacoa**, e.a. (hitz hau kursibaz idatzia agertzen da); **ninicz; norinai; onguinai, onguinayez; Sinaico mendian; siniste, sinisten, sinistu**, e.a. Hauetako batzu erabat asimilatu gabeko mailebutzat har daitezke: pentsatzekoa da **dotrina, examina, inocencia-, Sina-** bezalako hitzak ez direla eguneroko hizkeratik atereak, hitz ikasiak baizik. Beste batzuetan badirudi hitz mugak dirauela bustidura eragotziaz (**onguinai**, e.a.). Azkenik, badira bestelako arrazoiak bide dituztenak: **ninicz**,

siniste, e.a. Esan da lehenago ere hitz berean beste palatalen bat agertzea oztopo izaten dela asimilaziorako. Gainera, **i** bokalaren ondoren gertatu ohi dira maizenik palatal eta ez-palatalaren arteko neutralizazioak (ik. FHV 174, 200 edo II.4.2).

2.1.1.1.3. **d** ez da inoiz **i**-ren eraginaz aldatua agertzen.

2.1.1.1.4. **t** / **i** — V.

Forma bakar batean aurkitzen da asimilazioaren ondorioztat har daitekeen bustidura: **itto**. Baina forma berau ere gehienetan **t** bakarraz idatzia agertzen da (orrialde berean: **ito**, **itotzen**, **itotzeco**). Gainerako guztietan **i**-ren ondorengo **t** ez da aldatzen (**bitartean**, **dituan**, **eguiteco**, **iturri**). Horregatik, **itto**-k agertzen duen bustidura ezin da euskara honek duen asimilazio erregela baten bidez azaldu. Hitz beraren bustidurarik gabeko aldaerak adierazten dute bustidura ez dagoela hitz honetan lexikalizaturik. Izatekotan, hautazkoa izango da asimilazioa eta hizkera maila batzuetan bestetan baino oparoagoa.

2.1.1.1.5/6/7/8. Txistukariak gipuzkeraz ez omen dira **i** baten eraginaz aldatzen bokal aurrean. Azaltzen dira txistukari sabalaurrekoak hobietakoen ordeztu, baina ez dirudi asimilazioa dagoenik kontrako adibideak gehien gehienak bait dira ¹: Elizari,

¹ J. B. Agirrek zenbait kontsonanteren gainean ipini nahi izan zituen bustidura marka diakritikoak hurrengo edo -gutxiagotan- aurreko bokalaren gainean jarri zizkioten inprimatzaileek. Autoreak berak dio liburuaren hitzaurrean (8.or.): «El uso que hago del acento circunflexo, ó capucha, es para indicar la pronunciación particular, que en bascuence tienen en muchos casos la *s*, *z* y *x*: y ojalá, que en las cartillas de niños se pusiesen estas letras con las diferencias correspondientes». Lan honetan adibideak idazterakoan, autoreak egin nahi izan zuena isladatzen saiatu gara, diakritikoa arazo teknikoengatik zertxobait aidatu

guisa, isill, isillmandatu, lizaque (*litzateke*). Horregatik, **iʃuri, iʃurtzeac, iʃurtzen** bezalako adibideak beste nolabait azaldu beharko dira (edo asimilazioa hautazkotzat hartuz: cf. **isurtzea**). Afrikatuen alorrean, **itxeden, itxedon** bezalakoak asimilazioa ez den beste zerbaitek azaldu beharko du. Izan ere, ez dago **i**-ren ondorengo afrikatuak bustitzen dituen erregelarik testuak jasotzen duen euskaran: **iritsi, itsasteco, itsusia, itzeguiteco, litzaque** (ik. VII. 6.491.).

2.1.1.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

Bustidurari dagokionean hotsen jokabidea funtsean berdina delako ematen dira ingurune biak batera. Esan daiteke asimilazio bustidura bokalaurrean dela oparoen.

2.1.1.2/3.1. **i** / **i** ____ [C, #].

Adibideak gutxi badira ere, ikusten da albokoa busti daitekeela asimilazioz ingurune honetan: **badabill, eztabill; ill, illco, illtzeco** (baita ere **iltzen**); **isill, isillmandatu; mutill; perill** (baita ere **peril**), **umill**. Forma bera bi eratara agertzen delako, pentsa daiteke ingurune honetako bustidura hautazkoa dela. Bustidurarik gabekoak dira adibide gehienak: **amilduaz, bildots**.

baditugu ere (hankazgoratu batipat). Diakritikoarekiko izan zituzten eragozpenak direla eta, gerta daitekeena da zenbaitetan bustidura markatu ere ez egitea edo, batzuetan, elkarren ondoan hitz beraren aldaera biak elkarren ondoan azaltzea (adib., 58. or. **isurtzea** /

iʃurtzen). Hau kontuan izanda ere, ez dirudi bokalaurreko txistukarien asimilazioa dagoenik.

Esan behar da **t** bustia adierazteko behin bakarrik aurkitu dela marka diakritikoa (**aiʃu**: 2. aleko 230. or.), gainerakoetan **tt** grafia bikoitza erabiltzen du (guztira bost dira **t** bustiaren agerraldiak).

2.1.1.2/3.2. n / i ____ [C, #].

Sudurkaria ere busti daiteke ingurune honetan. Asimilazioa ez da derrigorrezkoa, batzuetan forma bera bustiduraz eta bustidurarik gabe agertzen zaigu: **baldiñ**, **berdiñ**; **berequiñ** (**arequin**); **eciñ** (**ecin**); **eguiñ**, **deseguiñ** (**deseguingo**, **eguin**, **eguindaco**, **eguin cituan**), **emaguiñ**, **jaquiñ** (**jaquin**, **jaquinsuen**).

Gehienetan, ordea, ez dago bustidurarik ingurune honetan. Ikusten da, gainera, nola zenbait hitzetan bustidurarik ezak bokal aurreko bustidurarekin kontrastatzen duen: **aguinduac**; **cedin**; **esquintzen**; **quinduan**; **ipintzen** (cf. **ipiñi**); **S. Agustin** (cf. **S. Agustiñec**, **S. Agustiñ-ere**).

2.1.1.2/3.3/4/5/6/7/8. Trabarien artean, bokalaurrean bezalaxe, asimilazioa ez da emankorra. Badaude, dena dela, asimilatuak diruditen formak. Adibidez: **bi ʃ carequin** (cf. Azkue *biska*)², **pi ʃ ca**, **pi ʃ cabat** (baita ere **piscabat**); baina testu berekoak dira **andiscoren** (*handikoren*); **dizquitzut**, **iristeco**, **piztien** ere. Ez da zaila **pi ʃ cako** bustidura hitzaren esanahiak azaltzea (cf. behezagoko 2.1.2.1.5. **gai ʃ o-** ere).

² G Errenterian ezinbestekoa omen da ebakera bustiduraduna hitz honetan (Mitzelena irakasleak zuzenean esana).

2.1.2. **j** ____.

2.1.2.1. Bokalaurrea (____ V).

2.1.2.1.1. **l** / **j** ____ V.

Normalean bokalerdiak eragindako asimilazioa oparoagoa izan ohi da bokalak eragindakoa baino. Adibideak gutxi badira ere, esan daiteke bokalerdiaren ondorengoak ez duela salbuespenik **mallari**; **Salbatzallea** (ik. atzizki hontaz 1.1.2.1.1).

2.1.2.1.2. **n** / **j** ____ V.

Jasotako adibideek garbi adierazten dute ingurune honetako sudurkariaren asimilazioa oparoa dela. Bokalerdia ez da beti suntsitzen: **ceña** (cf. **cein**); **beñere** (cf. **beñ**); **demboraraño**; **erreñua** (cf. gazt. *reino*³); **esqueñico** (cf. **esqueintzen**, **esquintzen**); **gañean**. Komentatzekoa da **benicbe(i)ñ** forma: badirudi lehenengo sudurkariak bustidura galdu duela, beharbada bigarrenarekiko disimilazioz (cf. 2.1.2.2/3.2. **oraiñdañoco**).

2.1.2.1.3/4/5/6/7/8. Ez dirudi trabariak asimilazioz bustitzen direnik: **baicic**, **Moyesen**, **Maisu**. Azalean asimilatuaren itxura dutenak bestelako arrazoiengatik esplikatu behar dira. Esate baterako, **gai ʃ oa**, **ga ʃ oa**, **gai ʃ otuco** (baita ere **ga iso**)-ren kasuan bustidura erraz uler daiteke hitzaren edukia kontuan izanik (cf. 2.2.2.1.5. **gaixo-**). Beste batzuetan, esanahiak ez du laguntzen

³ Ingurune honetan asimilazio emakorra duten euskalkietan ere entzun daiteke hitz hau bustidurarik gabe. Esate baterako, donostiarrek *Gure Aita* errezatzerakoan *erreñua* [-ej-] ahoskatzen dute. Honen esplikazioa **Concilioa**, **dotrina** eta antzekoenaren bidetik lihoake. Dena den, ezin da ahaztu hitzaren latinezko jatorriak (*regnu*) ere esplika lezakeela bustidura asimilazio aurrekariaren beharrik gabe (cf. *signu-*, eusk. *zeñu*).

bustiduraren arrazoia bilatzean. **Achurra** bezalakoetan kontsonante bustia ez dago beste batzuetan bezala (cf. **milla**, **ichura**, e.a.) hitzaren jatorrian (cf. *(h)aitzur*), bai ordea bustidura asimilaziorako ingurunea. Horrelakoetan bustidura lexikalizatua dagoela esan beharko da, garbi bait dago euskara honetan ez dagoela afrikatuak asimilatzeko erregelarik. Bestela esanda, hiztunak **j**-ren ondoren ere egin ditzake afrikatu hobietakoak. Cf. era berean **ai̯u** (*ahitu*); **attatu**, **attatuco**, **attatzea** (baina **Aita**, Ik. FHV 258; II.2 eta II.4.3) vs. **Aita**, **aitu** (eta **aditu**), **esle̯tua**, **maitagarria**, e.a.

2.1.2.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

Nahiz eta, berez, irristariaren asimilazioa bokalarena baino indartsuagoa izan, adibideak ez dira gehiegi. Ozenen artean gertatzen da asimilazioa, baina trabarien artean ez.

2.1.2.2/3.1. **l** / **j** ____ [C, #].

Badago albokoaren bustidura ingurune honetan: **sall**, **soilldu**.

2.1.2.2/3.2. **n** / **j** ____ [C, #].

Derrigorrezkoa ez bada ere, badago asimilazioa ingurune honetan: **añ**, **aiñ**; **beñ**, **benicbeñ**, **benicbeñ**, **beñ**; **ceñ**, **ceñ**, **edoceñ**, **edoceñ** (*cein*); **gaiñ**, **gañ**; **oñ**, **oiñ** *pean*; **oraiñ**, **oralñdañoco** (*orain*).

2.1.2.2/3.3/4/5/6/7/8. Kontsonante aurrean edo/eta hitz amaieran agertzen diren trabariak ez dira asimilatzen: **aizcora**; **arreizquero** (*harrez gero*); **gaistoac**, **gaiztoac**, **gaitz**, e.a.

LABURPEN/ONDORIOAK:

Asimilazioz OZENAK bustitzen dira, TRABARIAK ez. Asimilazioa bokalaurrean gertatzen da batipat (bokalaurrean bakarrik da derrigorrezkoa). Bokal eta bokalendiak biak gertaerazten dute.

2.2. J. M. Barandiaran: *Eusko Folklore*2.2.1. **i** ____

2.2.1.1. Bokalaurrea (____ V).

2.2.1.1.1. **i** / **i** ____ V.

Bustidura agertzen duten adibideak asko badira ere, ez dira falta bustidurarik gabeko formak: batzuetan, hitz bera bi eratara idatzirik aurkitzen da (cf. Moutard 1976, 17: *ibili/ibi*̂*i*). Beste askoren artean: **amillerazi**; **billau**, **billatzen** (**bila**, **bilau**); **ibilli** (**ibili**); **illea**; **illunafên**, **illune** (**ilunafên**, **ilune**); **ixxillik**⁴ (**ixilik**); **jentillek** (**jentilêri**); **kurteskillarêri**; **makilla**, **makillatxo** (**makila**); **motillek** (**motilêri**); **pilla**, **na^fupillea**, (**garipilên**, **pilâtuta**). **Eskillarâk** VII. erako uzten da.

Garbi dago beraz asimilazioa gertatu dela. Erdarazko formekin erka daitezkeen maillebuek ez diote zalantzari aukerarik uzten: **jentillek**, cf. gazt. *gentil*; **pilla**, cf. gazt. *pila*, e.a. Morfema mugak ere ez du eragozten asimilazioa (muga ebakin bustigaiaren eskubitara daukaten adibideak bakarrik agertzen dira: **amill+erazi**, **ibill+i** --eta **ibili**, baina cf. **billau/bilau** ere--). Hitz berean palatal gehiago egon arren, oparoa da bustidura (**ixxillik**, **makillatxo**). Halaz ere ezin da esan asimilazioa derrigorrezkoa denik, datu hauen arauera behintzat, ingurune honetan (cf., **i**-ren ondorengo neutralizazioaz, II.4.2).

⁴ J. M. Barandiaran-ek grafia bikoitzak (*-xx-*) erabiltzen ditu kontsonante luzeagoak markatzeko. Bokai luzeagoak, berriz azentu zirkunflexuz adierazten ditu (*-~~x~~-~~x~~-*). Ez dirudi bokalen diakritikoa beti dagokionean agertzen denik (M, zuzenean: **bêlla**-?-).

2.2.1.1.2. **n / i** ____ V.

Sudurkariaren asimilazioa erabat oparoa da ingurune honetan. Salbuespen bakarra **Amaberjinêk** da (baita ere **Amaberjiñea**, **Birjiñea**). Bestela, sudurkaria beti sabaikaltzen da ingurune honetan: **ariñago**; **Artiñeko** (dokumentu zaharretan *Arratinea* omen deritzo baserri honi, Ik. EF, 59, 1.oh.); **aundiña**, **edarkiña**; **botiñek**; **imajiña**; **iñoläre**, **iñor** ; **osiñeko**; **tiñâtên**; **tximiñiti**; **ziñek**, **ziñi** (*zeinek*, *zeini*), e.a. Beraz asimilazioa oparoa da edozein egoera morfologikotan (**aundi+ña**, **i+ñor**) eta forma berean palatal gehiago badaude ere (**tximiñiti**). Mailebuetan ere garbi dago bustiduraren indarra: **imajiña** (cf. lat. *imaginem*), **tiñâtên** (cf. gazt. *tina*, lat. *tīna*).

2.2.1.1.3. **d / i** [l, n] ____ V.

Hitz bakar baten aldaeretan aurkitzen ditugu asimilazioaren (eta **d**-ren suntsitzearen) ondorio izan daitezkeenak: **billuf e**, **billuf ez**, **billuf ik** (baita ere **bildur**, **bildurtu**).

2.2.1.1.4.1. **t / i** ____ V.

Hortzetako herskari ahoskabea, **t**, ia salbuespenik gabe asimilatzen da ingurune honetan. Agertzen da hitz bakarren bat bi eratara idatzirik. Beste askoren artean: **abittu** (*abiatu*), **gaizkittu** (*elbar itûna*, *zatitû*); **begittati**, **er ittâ**, **euzkittan**; **gef itti** (*tximiñiti*); **bittartên**; **dittu**, **ittut**; **ebâlitta**, **jantzitta**; **ekitten**; **litteke** (*baliteken*); **ittai**; **ittota**; **itturrittan**

(**ituñ ia**, **ituñ iotz**, **ituñ itti**).

Morfema mugak ez du eragozten asimilazioa (**abi+ttu**, **begi+ttati**, **eki+tten**, **geñ i+tti**, e.a.; baita ere, "hitz" mugan zehar, **puntati-tta** *puntati(k)-eta*), nahiz eta bi eratara idatzirik agertzen diren gehienak **i+t** segida dutenetakoak izan (h.d. asimilazioa morfema mugan zehar gertatzen da, gertatzekotan): cf. **-ti** / **-tti**, **-tu** / **-ttu**. Are gehiago, **ituñ i+tti** adibidearen arauera, badirudi morfema mugan zehar morfema barrenean baino indartsuagoa izan daitekeela bustidura; dena dela, **tximiñi+ti** ere badago. Pentsa daiteke ozenen bustidura indartsuena izanik, nolabait besteena deuseztatzen duela. Baina cf., adib., **illargittan**. Ia ziurtzat eman daiteke morfema muga guztiek ez dutela berdin jokatzeko asimilazioarekin eta batzuen eragozpena besteena baino gogorragoa izan daitekeela. Kasu honetan **-ti(k)**, **-tu** atzizkiek **-tan** (eta **-te(n)?**) atzizkiek baino muga gogorragoa eskaintzen dutela esan beharko genuke. Badirudi egungo Ataunen asimilazio hau ez dela Barandiaran-ek jaso zuenean bezain emankor (cf. *belaunaldi berrien bitarten*, *josita*, *menditik*).

2.2.1.1.4.2. **t / i** (l, n) ____ V.

Bizkaieraz bezala (cf. 1.1.1.1.4.2., 1.2.1.1.4.2., 1.3.1.1.4.2.), **i+ozen** hurrenkeraren ondoren ere egon daiteke **t**-ren asimilazioa: **ermintta** (**ermitta** ere badago). Adibide bakarra ez da asko, baina kontrako adibiderik ez dagoen bitartean, ezin da esan herskariak ez direla asimilatzen ingurune honetan (cf. 2.2.1.1.3. ere).

2.2.1.1.5. **ś** / i ____ V.

Esan daiteke **i** silabagilearen ondoren eta bokalaurrean, beti txistukari sabaiaurrekoa agertzen zaigula jatorrizkoa apikaria denean, ez ordea bizkarkaria denean (cf. 2.2.1.1.6). Adibidez: **abixau** (cf. gazt. *avisar*); **ixilik**, **ixxilik** (cf. /s/- 1.1.1.1.5., e.a.); **ixuri** (cf. *isuri* ere, RS *esuro*); **txixe** (cf. gazt. *pis* ?). Ez dago garbi bustiduraren jatorria **bixigu** forman (ik. 1.1.1.1.5., cf. B *besegu*, *besigu*).

2.2.1.1.6. **s** / i ____ V.

Ingurune honetan txistukari bizkarkaria bustidura markarik gabe agertzen da: **af izabal**; **bizi**; **elizakôk**; **erdiz-erdi**; **glizâjoa**; **izâzak** 'desmóntala'; **ize** (sic), **izentzala**; **notizik** (errepara gazt. [θ] > eusk. [s]). Bustidura inoiz azaltzen ez delako ez dira azpimar-katu hitz eta morfema mugak.

2.2.1.1.7. **tś** / i ____ V.

Afrikatuekin ere txistukari igurzkariekin ikusitakoa gertatzen da funtsean, hau da, ingurune honetan **tz** hobietako bizkarkaria edo **tx** sabaiaurrekoa bakarrik aurkitzen direla. Esan daiteke, beraz, jatorriz hobietako apikaria den **ts** asimilatu egin dela. Adibideen artean: **itxasôn**; **iltxi**, **iritxi**, **itxi**; **itxututa**. Itxuraz hauetakoak badirudite ere, bustidura adierazgarriaren barruan azaldu behar dira **itxi** 'cerrar' eta **itxura** (ik. VII.6.518. eta 520.). Dena dela, ezin da ahaztu gorago ere afrikatu apikarien bustiduraz esandakoa (ik. 1.1.1.1.7. edo FHV 192).

2.2.1.1.8. **ts / i** ____ V.

Bizkar hobietakoak beti bere hortan agertzen dira: **abitzen**; **ditzenat** (*nik hiri* fem. *haiek*); **itzeti**; **pitza**; **zitzaion**.

2.2.1.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ {C, #}).

Asimilazioari dagokionean kontsonante aurreko eta hitz bukaerako egoera oro har berdinak direlako azaltzen dira batera (ik., halaz ere, 2.2.1.2/3.5/6). Gainera testu idatzietan zaila da batzuetan bata bestetik zalantzarik gabe bereiztea.

2.2.1.2/3 1. **l / i** ____ {C, #}.

Ingurune honetan ere asimilazio bustidura emankorra da, nahiz eta salbuespenak ugari izan. Forma bera bi eratara idatzirik ere aurki daiteke. Badirudi, beraz, ingurune honetan bustidura asimilazioa hautazkoa dela: **amillka**; **jentill batek**, **Jentillbâtzan** (**jentil**, **Jentilbâtzan**, **jentilgazteat**); **makill**, **makillka**; **motill** (**motil**, **motilkoxkof ak**); **opill** (**opil**). Bustidurarik gabe azaltzen dira: **bildu**, **biltze**; **il**, **ilda**, **iltzeko**; **ibiltzen**. Ez da multzo honetan sartzen **billuf** adibidea (2.2.1.1.3), albokoaren bustidura palatalizatu den **d** horren eragin atzekaritzat hartu ohi delako.

2.2.1.2/3.2. **n / i** ____ {C, #}.

Oparoa da sudurkariaren bustidura ingurune honetan, baina

bokalaurrean baino salbuespen gehiago daude. Batzuetan forma bera (errepeta *-(a)n*, *-(are)n* eta *-kin* atzizkien agerraldiak) bi eratara ager daiteke. Badirudi, beraz, lexikalizazioez aparte, asimilazio bustidura hautazkoa dela ingurune honetan: **altzêkiñ** (**jakin**); **azpiñ** *azpian*, **erdiñ** *erdian*, **eunsentiñ** *egunsentian*, **Murumendiñ**, e.a. (**aldin** *aldian*, **gurdin** *gurdian*, **zorin** *zorian*, e.a.); **azariñ** *azariaren*, **guztin** *guztia*ren, e.a.; **diñ** (hitano fem.); **ekiñ**; **eziñ**; **idikiñ**, **muñekiñ**; **Katalin** (Katalin Zubi); **sorgin** (**sorgin-billera**). Bustidurarik gabe: **bezin**; **mingaiñ**; **txingarrak**; **zintzilika**.

2.2.1.2/3.3. Ez dago **d**-rik kontsonante aurrean edo hitz azkenean.

2.2.1.2/3.4. **t** / **i** ____ {C, #}.

Ez da jaso **t** ingurune honetan agertzen duen adibiderik. Bokalerdiaren ondoren gertatzen denari begiratuta (cf. 2.2.2.2/3.4), pentsatzekoa da hemen ere bustidura egon daitekeela. Dena dela bokalerdiaren eragina indartsuagoa izan ohi da bokalarena baino.

2.2.1.2/3.5/6. **ś**, **s** / **i** ____ {C, #}.

Kontsonante aurrean azaltzen dira bustitako txistukariak (bustirik agertzen diren bizkarkariak ez dira asimilazioz busti, beharbada): **abixtu** (*abisatu* ?); **if ixtau**; **ixkimilla**, **ixkimillea** (**iskimilla**); **Kixmie** (jentilek Jesukristori ematen dioten izena omen); **makillakixki** (adierazgarria izan daiteke); **pixkaka** (adierazgarria izan daiteke); **pixtiñ** (cf. *pisti*, *pizti*). Ezin da esan,

ordea, bustidura erabatekoa denik. Bustitzen ez diren adibideen artean txistukari apikaria eta bizkarkaria biak agertzen dira: **arrizko** (morfema mugak eragotzi dezake asimilazioa hemen); **bizkař ên**; **islaraa**; **izketan**; **izkutau**; **sakristau**; **tristêgo**; **txistu**. Egia da apikaria duten salbuespenak mailebuak direlako edo beste palatal bat hitz berean dagoelako (**txistu**, baina Moutard 1976, 16: /tʃiʃtu/ 'salive') azal litezkeela. Baina adibideak gutxi dira ur handiegietan sartzeko. Zalantzarik gabe, dena dela, egoera ez da bokalaurrekoa bezain garbia.

Hitz azkenean ez da bustidurarik agertzen (arraroa litzateke euskaraz): **berriz**, **mendiz-mendi**. Morfema mugaren garrantzia ere kontuan hartu behar da adibide hauetan (cf. **arrizko**), baina ez dugu **iz#** duen beste adibiderik hori neurtzeko. Izan ere, gehienetan, euskaraz **i[txistukari]#** segida, txistukari instrumentalaz osatzen da.

2.2.1.2/3.7/8. **tʃ, ts** / **i** ____ {C, #} .

[Ez da ingurune honetako adibiderik jaso.]

2.2.2. **j** ____ .

2.2.2.1. Bokalaurrea (____ V).

2.2.2.1.1. **i** / **j** ____ V.

Bustidura agertzen duten adibideak gehien gehienak badira ere, ez dira falta bustidurarik gabeko formak: batzuetan, hitz bera bi erataraz idatzirik aurkitzen da. Bustidura gertaerazi duen bokalerdia ez da beti, idazkeratik behintzat, desagertzen: **bazeillela**, **ementzeillen**, **natxeillek** (**ementzeailen**, **ementzeilen**, **zeillela**, cf. **zeiltzela**); **bellâ** (Azk., *beĩŕo* ; baina

ik. 3.1.2.1.1., 3. oh. Azkueren grafiez); **deilla** (*dadila*); **garijasotzallêk**, **laguntzalleik**; **mallôk**; **sailleti** (cf. **sail**).

Zaila da **bellâ** (ik. VII.1.19. ere), **laguntzalleik**, **mallôk** bezalakoak zalantzarik gabe sailkatzea. Izan ere, palatala hitz barrenean gertatzen denean, ez da garbi ikusten asimilazioa gertatzen den, lexikalizatua dagoen ala palatalak beste jatorririk duen. Hitzen historia ezagunagoa denean, **itxura** bestelakoa bada ere, badakigu batzuetan ez dagoela asimilazioaren beharrik palatala esplikatzeko. Adibidez, **maillu**, **malluka**, **mallûkiñ** (**mailûkiñ**) latinezko jatorriak azal dezake (ik. VII.1.72.). Ez da aurkitzen **i**-ren eraginik **ikullua** forman ere (cf. b. e. *okelu*, *okellu*, *okullu*, *ukullu*, e.a. FHV 83: VII.1.44.). Latinezko *locūlus* eta *locellus* formetako -*cʼ*- eta -*ll*- horiek nahiko lirateke alboko palatala justifikatzeko. Hauekin batera sailkatu behar da **zizallu** ere (cf. lat. *subsellium*, FHV 78: VII.1.109.).

2.2.2.1.2. **n / j** — V.

Bustidura salbuespenik gabekoa da. Bokalerdia ez da beti desagertzen, idazkeratik behintzat, baina bai gehienetan: **aĩñe**, **ãñe**; **beĩñê** (cf. **bein**); **eiñe** (*egina*); **etxeaño**, **eundañoko**, **zuloaño**; **ef añe** (<* *-ain*, FHV 507); **gañea**, **gañezka** (cf. b.e. *gain*, ik. FHV 139); **muñek**, **muñekiñ** (ik. FHV 150-1); **soñeko**, **soñên** (cf. b.e. *soin*, ik. FHV 139-40); **oñetan**, **oñutsik** (cf. b.e. *oin*, ik. FHV 139-140).

Historia ezezaguneko formetan eta palatala morfema barrenean dagoenean, zaila da hemen ere bustidura **j** batek

eragindako asimilazioari zor zaion ala ez jakitea. Zalantzazko kasuen artean: **baña, baño**. Asimilazioaz kanpoko arrazoiak dituztenen artean: **mañu** 'baño'. Ik. bustidura adierazgarriaren zatia (VII.2.).

2.2.2.1.3. Ez da jaso bokalerdiaren ondorengo **d**-ren adibiderik (**eiñe** eta kidekoak *eginda*-ren ordain ez badira, behintzat).

2.2.2.1.4. **t / j** — V.

Bustidura agertzen da gehienetan, asimilatu gabeko formak falta ez badira ere. Bokalerdia ia beti idatzi egiten da: **aittu** -- *aditu* eta *aritu* -- (**aitu** -- *aditu* --), **deittu, iruittu, seittu; baitta** (**balta**, ia maiztasun berdinez); **ebaittako; eitte, eitten** (*eite*, cf. *egite, egiten*) **gosaittea; eseitta; gaittezen, gaittuk** (**zaituan**); **noizbaittên ê, nunbaitt ê; oitturea; paitte** (*paite*) 'pared'. Ez dago bustidurarik **goiti** forman, beharbada atzizki honek ezartzen duen morfema muga aurrekoak baino gogorragoa delako (cf. **ai+ttu, bai+tta, ebai+tta**). Dena dela, adibide bakarra gutxiegi da ondorio sendoak ateratzeko; gogora, gainera goragoko **gerritti** (2.2.1.1.4.1).

Bustiduraz baina, joera hedatuenaren kontra, bokalerdirik gabe agertzen da **ikuttu**. Izan ere, ezin da zalantzarik gabe esan forma horren azpian **ikuitu* dagoela (cf. euskalkietan zehar *ikutu, ukitu, ukutu*, e.a. FHV 65 eta 84). Metatesiaren ondorioz **i** bokala **t**-ren aurrean duten formen eragina izan beharko litzateke kontuan, beharbada.

2.2.2.1.5. **ś / j** — V.

Asimilazioa litekeenaren marka hitz (lexema) bakarraren formetan aurkitzen da: **gaixo**, **gaixon**, **gizâixoa**, e.a. Adibidea, bakarra izateaz gain, ez da garbiegia bustiduraren arrazoi dagokienean. Hitzaren esanahia oso da egokia bustidura adierazgarria sortertzeko. Pentsatzekoa da, txistukariaren asimilaziorik ez dagoen euskalkietan ere, hitz hau bustiduraz ahoskatu ahal direnetakoa izatea. Bustidurarik gabeko forma txistukari bizkarkariaz ere agertu ohi da (FHV 349).

Bustiduraren adibideak gutxi badira ere, esan daiteke **jś** segida ez dela gertatzen (cf. 2.2.2.2.5 ere) **js**, berriz, bai.

2.2.2.1.6. **s / j** — V.

Bokalondoan bezala (cf. 2.2.1.1.6), ez dago txistukari bizkarkariaren asimilaziorik: **aize**; **apaizetâko**; **bâizu** (*badizu*); **beizee** (*berriz ere* behar du izan); **gertaizo**; **Leizaiko**; **leize**.

2.2.2.1.7. **tś / j** — V.

Ez dago adibiderik kasu honetan zer gertatzen den jakiteko. Apikari hobietako **tś** -ren ordez sabaiaurreko **tj** azaltzen da **jetxi** hitzean. Baina ez dago bustidura hori asimilazio aurrekari bezala esplika lezakeen **j**-rik. Beste zenbait hitz bezala, arrazoi garbirik gabe batzuetan afrikatu sabaiaurrekoaz eta beste batzuetan afrikatu hobietako apikariaz (cf. ek. *jautsi*, B zah. *jatsi*) agertzen direnetakoa dugu hitz hau (Ik. FHV 192: VII.6.522.).

2.2.2.1.8. **ts / j** — V.

Adibideak gutxi badira ere, esan daiteke afrikatu bizkarkaria ez dela asimilazioz bustitzen (frikaria bezalaxe, cf. 2.2.2.1.6.): **aitze, gaitzik.**

2.2.2.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ — [C, #]).

Asimilazioari dagokionean kontsonante aurreko eta hitz bukaerako egoera oro har berdinak direlako azaltzen dira batera (ik., halaz ere, 2.2.1.2/3.5/6). Gainera testu idatzietan zaila da batzuetan bata bestetik zalantzarik gabe bereiztea.

2.2.2.2/3.1. **l / j** — [C, #].

Agertzen diren adibideak ez dute bustiduraren markarik: **ementzeiltzen, zeiltzela; sail.**

2.2.2.2/3.2. **n / j** — [C, #].

Badago asimilaziorik, baina salbuespenak ere ugari dira. Batzuetan forma bera bi eratara agertzen dela eta, badirudi bustidura hautazkoa dela bokalaurrea ez denean (cf. **i** silabagilearen ondorengoa ere 2.2.1.2/3.2). Bokalerdia beti idazten da: **aldeiñ, eiñ, eiñda** (**aldeinda, ein, einda, eingo**); **beiñ, benepiñ** (**bein'goatên**); **oaintxe** (idazten ez bada ere [ŋ] duena noski, ik. Navarro Tomás 1925, 628), **oaiñ** (**oaindio**); **zeiñ, zeĩntzan.**

Kontsonante aurreko ingurunean kontuan izan behar da sudurkariarengan ondorengo kontsonanteak izan dezakeen eragina. Ik. gorago (II.4.2, III.7.) ahoskune asimilazio atzekari hontaz esana. Hemen hortzetako trabarien aurrean agertzen dira sudurkari bustiak, baina ez beste ahoskunetakoen aurrean: **ainbeste**, **aindu**, **bein'goatên**, **jainkozkoa**. Dena dela, bustirikako eta busti gabeko formen arrazoiak bilatzerakoan hitz bakoitzaren erroak (cf. **eiñ**, **oaiñ**, **zeiñ**) izan dezakeen eragin analogikoaz ere pentsatu behar da.

2.2.2.2/3.3. Ez dago **d**-rik ingurune honetan euskaraz.

2.2.2.2/3.4. **t** / **j** — {C, #}.

Jasotako adibideen arauera, gerta daiteke bustidura asimilazioa ingurune honetan, baina ez da derrigorrezkoa. Bokalerdia beti agertzen da: **gogaittgar in**; **nunbaitt** (**nunbait**); **zerbaitt** (**zerbait**).

2.2.2.2/3.5. **ś** / **j** — {C, #}.

Gorago ere ikusi dena (cf. 2.2.1.1.5) gertatzen da hemen. Txistukari hobietako apikariaren ordeztzatzen da sabaiaurrekoa **j**-ren ondoren, baina ez bizkarkariaren ordeztzatzen (cf. 2.2.2.2/3.6). Bokalerdia ez da beti agertzen: **aixkie** (*adiskide*); **laixter**, **laxter**.

2.2.2.2/3.6. s / j ____ [C, #].

Apikaria ez bezala, bizkar hobietakoa bere hortan gelditzen da ingurune hontan egonda ere: **aizkoratxikie; apaiztzat; eiztari; gaizkittu, gaiztoa; noalz** (*noiz*); **zaiztet, zeizkiela.**

2.2.2.2/3.7/8. tś, ts / j ____ [C, #].

Adibide bakarra jaso da eta bustidurarik gabekoa bera (orain artekoaren arauera, ez da harritzekoa, bizkarkaria bait da): **gaitz.**

LABURPEN/ONDORIOAK.

Badirudi OZENen bustidura ez dela erabatekoa ingurunerik oparoenean ere, bokal aurrean alegia (ik. 2.2.1.1.1.), albokoari dagokionean. Sudurkariaren asimilazioa, berriz, ia salbuespenik gabekoa da (erabat salbuespenik gabekoa bokalendiaren ondoren). Beraz, asimilaziorik emankorrena agertzen dutenen artean, ozenenen artean, sudurkariaren asimilazioa da oparoena. Bokalaurrean ez denean, sudurkariaren asimilazioak baditu salbuespen gehiago. Aipatzekoa da Moutard-ek (1976, 17) ez zuela palatalik aurkitu bere Ataungo datu bilketetan.

TRABARIen arloan, ezin da esan gainerako gipuzkerazko testuetan bezala **d** ez dela asimilazioz bustitzen (ik. 2.2.1.1.3.). Ez dauzkagu hori esateko beharko genituzkeen kontra-adibideak (*counterexamples*). Badirudi **t** ere busti daitekeela **d**-rentzako asimilazio ingurune bakarra denean (**i+azen** segidaren ondoren), ik. 2.2.1.1.4.2. Morfema mugak izan dezake garrantzirik asimilazioaren baldintza bezala, baina ez dira berdinak morfema guztiek ezartzen dituztenak (ik. 2.2.1.1.4.1, 2.2.2.1.4). Adibideak daudenean, ikusten da oparoa dela asimilazioa alor honetan.

TXISTUKARI apikaria bustia agentzen da bokalaurrean, baina ez txistukari bizkarkaria. Bizkaierazko zenbait hizkeretan ezagutzen dena (bokalaurrean txistukari frikarien bustidura oparoa izatea, alegia) txistukari apikarien kasuan betetzen da. Konsonante aurre/hitz azkenean (bizkaieraz ezik, herskari aurrea da txistukarien asimilaziorako ingurunerik oparoena) bi ahoskuntako txistukariak dituzte salbuespenak, baina apikariaren asimilazioa da hor ere oparoagoa (bokalerdiaren ondoren, salbuespenik gabea). Afrikatuen kasuan, esan behar da **i** edo **j**-ren ondoren bizkar hobietakoa (**ts** [ts]) edo sabaiurrekoa (**tx** [tʃ]) bakarrik aurkitzen direla, inoiz ez hobietako apikaria.

2.3. M. Soroa: Baratzan2.3.1. **i** ____.

2.3.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

2.3.1.1.1. **l** / **i** ____ V.

Esan daiteke albokoaren bustidura erabatekoa dela ia ingurune honetan. Testuan agertzen den salbuespen bakarra **pamili, familia** da Orain ere Donostia eta inguruko euskaraz behintzat hitz honetan ez da bustidurarik entzuten ⁵. Gainerako guztietan garbi markatzen du palatalizazioa Soroak: **abillidadeak, ibilli, illabete, illar, ixillik, makilla**.

2.3.1.1.2. **n** / **i** ____ V.

Sudurkariaren egoera ere albokoarena bezain erregular agertzen zaigu. Bustidura markarik gabe azaltzen den **sinistu** kenduta, **ñ** da beti **i**-ren ondorengo sudurkaria bokal aurrean: **astiñ-aldi, berdiñak, diña, gezamiña, lñaxi, iñor, jakiña**.

Goragoko (2.3.1.1.1.) kasuan bezala, hemengo salbuespenean ere bustitzen ez den kontsonantea (eta, nolabait, erregelaren arauera busti behar lukeena) bi **i**-ren artean aurkitzen da. Bizkaieraz ari ginela ere esan da hitz berean beste hots palatal bat egoteak eragotzi egin dezakeela bustidura asimilazioa. Dena dela, bustiduraren salbuespen asko honelakoak badira ere, ezin da esan palatal bat baino gehiagoko hitzetan bustidura gertatzen ez denik (cf.

⁵ Ez eta beste euskalkietan ere. Merezi luke azterketa luzeagoa hitz honen ebakerak.

ibilli, ixillik, e.a.). Joera bezala ulertu behar da, beraz, hemen proposatzen den azalpidea.

2.3.1.1.3. Ez da inoiz **d** bustitzen asimilazioz euskalki honetan.

2.3.1.1.4. **t** ere ez da bustitzen asimilazioz **i** silabagilearen ondoren behintzat (cf. 2.3.2.1.4., bokalerdiaren ondoren ere egoera berdina da oro har). Hain zuzen ere **t** asimilazioz ez bustitzea Donostiako euskara inguruko mintzo batzuetatik bereizten duen ezaugarria da. Adib., Errenteria, Oihartzun eta Astigarragan **t**-ren asimilazio bustidura emankorra da ⁶.

2.3.1.1.5/6/7/8. Txistukariak ez dira bustitzen asimilazioz bokal aurrean. Frikari edo igurzkarien artean bustidura marka duen adibide bakarra **ixillik** da. Cf., ordea: **gisa**, **sisak**; **bizi**, **Elizakuak**, **gizarajua**, e.a. **ixillik**-eko bustidura lexikalizatuta dagoela esan behar da, gainerako guztiak kontuan hartuta ezin bait da esan asimilazioak funtzionatzen duenik.

Afrikatuen artean gehixeago dira ingurune honetan dauden sabaiaurrekoak, baina forma gutxi dira eta lexikalizaturik daudela esan daiteke. Gorago ere aipatu da euskalkietan zehar badirela esplikazio garbirik ez duten **itʃ** V kateak hitz jakin batzuetan (ik. 1.1.1.1.7. edo FHV, 192). Testu honetan agertzen dira: **itxubak** (< *itsu* < **utsu* :: ik. FHV 131), **litxarreriya** (cf. Azkue, s.v. *litš* ar), **pitxar** ⁷. Baina afrikatuen asimilazioa ez da bilakabide eman-

⁶ Ik. Oñederra 1986.

⁷ Gaztelaniazko *pichel* etik badator, bustidura ez du aztertzen ari garen asimilazio aurrekariak azaltzen. Cf. VII.6.590.). Bestalde, gipuzkeraz -Donostian behintzat- badago

korra: **aritz**a, **elitzairake** ('ez litzaidake'), e.a. (ik. diptongo ondorengoak ere 2.3.2.1.7/8.). Egia da afrikatuen artean ez dagoela apikaririk **i** ____ V ingurunean.

2.3.1.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ {C, #}).

Asimilazioari dagokionean kontsonante aurreko eta hitz bukaerako egoera oro har berdinak direlako azaltzen dira batera. Gainera testu idatzietan zaila da batzuetan bata bestetik zalantzarik gabe bereiztea.

2.3.1.2/3.1. **i** / **i** ____ {C, #}.

Albokoa busti daiteke ingurune honetan ere, baina bustidura ez da bokalaurrekoa bezain derrigorrezko edo automatikoa: **banderill** edo **makill**; **billtzen** (**bildu**); **dabill**, **nabill**; **ill betia**; **ill**, **ill ta...**, **illko**, **illtzeko** (**il da**, **il zaigula**, **ilko**, **iltzen**); **mutill** **koxkorri**. Ezin da esan ingurune jakinen batek eragozten duenik asimilazio aurrekaria, edozein ingurunetan ager bait daiteke bustita edo busti gabe.

txarro hitza ere (cf. Azkue, s.v. *txarro*). Zalantzakotzat jo behar da *litxarrerriya* ere (ziurrenik "adierazgarri", cf. VII.6.542.); *itxiltzia* ere VII.era utzi da (VII.6.518).

2.3.1.2/3.2. **n / i** ____ [C, #].

Sudurkariaren bustidura, albokoarena bezala, ez da hemen bokalaurrean bezain automatikoa. Baina, dudarik gabe, jazotzen da bustidura asimilazioa: **allakiñ, batekiñ, kosmodamakiñ, onekiñ** (**batekin, nerekin, orrekin**); **baserriñ, Donostiñ** (**erdiin**); **beñepiñ** (*behinik behin*); **egiñ, egiñtzalleen** (**egin, egingo**); **eragiñ; eziñ** (**ezin**); **jakiñ zubenian** (**jakin ta...**).

2.3.1.2/3.3/4. Ez dago **d**-rik edo **t**-rik ingurune honetan. Bigarrenari dagokionean, bokal aurrean bustitzen ez bada, are gutxiago bustiko da gainerako inguruneetan (cf. Don. *polit, dit*).

2.3.1.2/3.5/6. **š, s / i** ____ [C, #].

Esan daiteke joera behintzat badagoela kontsonante aurreko txistukari frikariak asimilatzeakoa. Hain zuzen ere ingurune honetako palatalizazioan bereizten da gipuzkerazko bustidura asimilazioa bizkaierazkotik: **arrixkatuba, ixkribabakin, ixturiyo** (baita ere **adiskide, Batista**); **garixti, ixkamillan, likixkeri** (?), **pixka bat** (?), **pixti** (eta **pizti**, kasu honetan adierazgarria liteke), **pixtutzen** (baina: **bizkarrera, izketan, paper kizkurrekiñ, pizkor**). Cf. Moutard 1976, 10 [tš i š tuβa] 'la salive' ere.

Pentsa daiteke ingurune honetako bustidura asimilazioa indarra galtzen doala. Testukoak eta oraingoak erkatuz, esate baterako, orain **piztu** bakarrik entzuten dela ikusten da. Hemen, beste edonon bezalaxe, bustidura adierazgarria izan daiteke

hautazkoa bada. Horregatik galda daiteke **pixti**-koa adierazgarria ote den. Beste guztietan ez da parerik aurkitu. Dena dela, orain bertan *pizkor/pixkor* biak entzun daitezke, esanahia bereizten delarik (bigarrena diminutiboa edo litzateke). Gainera, **likixkeri** (ik. VII.5.311) eta **pixka (bat)** (ik. VII.5.336) hitz egokiak dira bustidura adierazgarriaren lexikalizaziorako (cf. III.).

2.3.1.2/3.7/8. Ez dago afrikaturik kontsonante aurrean (daudenean, frikari bihurtzen dira, ik. goragoko **izketan**, adib.).

2.3.2. **j** ____.

2.3.2.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

2.3.2.1.1. **i** / **j** ____ V.

Ingurune honetan albokoa salbuespenik gabe bustitzen da. Bokalerdia ez da idazten: **joxtallubakin**, **zalla**.

2.3.2.1.2. **n** / **j** ____ V.

Sudurkariaz ere albokoaz esana esan daiteke. Behin bakarrik aurkitu da bokalerdia idatzirik (**ereiñak**). Adibideak, gehienetan bezala, gehiago dira: **añako** (cf. **ain**, **ainbeste**), **beñere**, **gañera**, **ordañak**, **zeñek** (cf. **zein**). Zalantzarik gabe, bustidurarik gabeko aldaera dutenek erakusten dute asimilazio erregelak dirauela (ik., gainera, **bañan**, **baño**: VII.2.126., 128.).

2.3.2.1.3. Ez da inoiz bustitzen **d** asimilazioz euskalki honetan.

2.3.2.1.4. **t / j** — V.

Badirudi **t** ez dela bustitzen asimilazioz bokalerdiaren ondoren ere: **aita**, **garaitan**, **lasaitasuna**, **oitubak**, **pasaitarrena**. Badago, ordea asimilatuaren itxura duen hitz bat: **pruitta** 'fruta'. Beharbada, Donostian ere zabalduagoa zegoen asimilazioa garai batean (esan da gorago, ik. 2.3.1.1.4, oso gertuko euskaretan bustitzen dela **t** asimilazioz) eta hitz bakarren bat gelditzen da arrasto bezala. Normala da guztiz bokalerdiaren ondoren gelditzea, bietako batean gelditzekotan, bokalerdi ondoa bokalondoa baino ingurune oparoagoa bait da bustidura asimilazioari dagokionean.

2.3.2.1.5/6/7/8. Adibide gehienen arauera, esan daiteke txistukariak ez direla bustitzen asimilazioz bokalaurrean: **Moisesen**, **aizerik**, **apaizari**, **maizago**, **noizik behin**, **aitzaki**, **aitzen**, **gaitza**. Badira, halaz ere, asimilatuaren itxura duten formak: **aixa** (cf. b. e. *aisa*, *aise*, *aisa*); **atxurrera**, **atxurketan**. Lehengoaren kasuan, bustidurarik gabeko adibideak ez dira nahiko frikari apikaria ez dela bustitzen esateko. Bestalde, **atxurr-** hitzaz bustidura mendebaldeko ereduari jarraiki lexikalizaturik agertzen dela esan behar da. Dena dela, despalatalizazio euskalkietan ere gertatzen da bustiduraz: cf. Alts. (3.1.2.1.7/8) **aitxur**. Honek, noski, lexikalizazioaren hipotesia indartzen du ⁸.

⁸ Cf. ekialdeko (*h*)*aitzur*, FHV 192, 209.

2.3.2.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

2.3.2.2/3.1. **l** / **j** ____ [C, #].

Testuan adibiderik ez badago ere, bokalaren ondoren gertatzen denagatik eta sudurkariaren jokabideagatik (ik. 2.3.2.2/3.2.), pentsa daiteke bokalardiaren ondoren ere ingurune honetan albokoaren bustidura ez dela bokal aurrean bezain derrigorrezkoa. Oraingo Donostian *sa(i)ll bat/sail bat* biak entzun daitezke (baina inoiz ez *saila* bezalakoak).

2.3.2.2/3.2. **n** / **j** ____ [C, #].

Gertatzen da asimilazio bustidura ingurune honetan ere, nahiz eta ez izan bokalaurrekoa bezain erabatekoa: **aiñ gutxi** (**ain erraz**, **ainbeste**), **oraiñ**, **oraiñdaño** (**orain**), **zeiñ** (**zein**).

2.3.2.2/3.3/4. Ez dago **d**-rik edo **t**-rik ingurune honetan.

2.3.2.2/3.5/6. **ś**, **s** / **j** ____ [C, #].

Nahiz eta ingurune honetako adibiderik ez aurkitu testuan, pentsatzekoa da bokalondoan baino oparoagoa izan daitekeela bustidura asimilazioa (ik. III.5.). Dena dela, ingurune honetan gertatzen den bustidura ere adierazgarria gertatzen da egungo Donostian (cf., adib., *gaizto/ga(i)xta*).

2.3.2.2/3.7/8. Ez dago afrikaturik ingurune honetan.

LABURPEN/ONDORIOAK:

M. Soroak jasotzen duen hizkerako bustidura asimilazio erregela nolakoa den adierazten saiatuko gara hemen. Alde batetik, bokalaurrean (ik. 2.3.1.1. eta 2.3.2.1.) bustigai OZENAK (**l, n**) bustitzen dira, bai bokalaren eta bai bokalendiaren eraginez; bokalaren eraginez bustitzen direnean salbuespenen bat egon daiteke (neutralizazioa?: **familiak/pamili, sinistu**). Kontsonante aurrean edo hitz azkenean (ik. 2.3.1.2/3. eta 2.3.2.2/3.) salbuespen gehiago daude eta forma berbera bi eratarik idatzirik aurki daiteke. Badirudi, oraingo Donostiako euskaraz bezala, bustidura hautazkoa zela ingurune honetan.

TRABARIEN bustidura ez da ozenena bezain oparoa ^{eta}/kasu gehienetan garbi dago ez dagoela asimilaziorik. Ez da inoiz agertzen **d** edo **t**-ren bustidura asimilaziorik. TXISTUKARI FRIKARIAK kontsonante aurrean edo hitz azkenean daudenean, berriz, badaude asimilatuaren itxura duten formak (ik. 2.3.1.2/3.5/6,7/8. eta 2.3.2.2/3.5/6,7/8). Noizpait indartsu izan den bustidura asimilazioaren arrastoak gelditzen bide zaizkigu. Forma bera bi eratarik agertzen denean, daitekeena da bustidura adierazgarriaren eremuan egotea (cf. **pixti/pizti**, *ga('i)xta/gaizta*). TXISTUKARI AFRIKATUEN artean, badira beste euskalki askotan bezala, bokalaurrean **i(j)**C'V katea agertzen dutenak. Salbuespenak asko (gehiago) direnez, bustidura lexikalizaturik dagoela esan daiteke.

3. Sakanako gipuzkera

3.1. K. Izagirre: "Altsasuko euskeraren gai batzuk"

Hizkera hau aztertzeko Altsasuko euskara hartu da eta, horretarako, Aita Kandido Izagirre-k jasotako datuak izan dira kontuan¹. Badirudi, beste ezaugarri batzuren arauera behintzat, Nafarroako euskara hau gipuzkerarekin bat datorrela. Ordea, bustidura asimilazioari dagokionean ez da hala. Horregatik, hain zuzen, osatzen du beste atal bat lan honetan. Izan ere euskara honetan Lapurdi eta Behe Nafarroako bereizgarritzat hartu izan den ozenen despalatalizazioa jazotzen da (Izagirre 1967, 45). Ikus despalatalizazioak sortzen duen nahasteaz II.4.1.lean esana.

Batere asimilaziorik ez dagoenez, ez dago ingurune bakoitzaz ezer eztabaidatzerik. Beraz beste hizkerekkin erkatzeko aukera ematen diguten adibide batzu eman besterik ez dugu egingo hemen.

3.1.1. i ____.

3.1.1.1. Bokalaurrea (____ V).

3.1.1.1.1. i / i ____ V

Beste euskalkietan bustiduraz agertzen zaizkigunak testu honetan ez dute palatalizazio markarik. Adib.: **automobilak**; **botilioi** (desp.: cf. gzt. *botella*, BN, L *boteila*, *botoila*, G *botella*, *botilla*, e.a.); **ibili**; **katilu**; **mila**; **pila**.

¹ Autoreak berak (Izagirre 1967, 45) Altsasuko euskaraz dio: « (...) la situación de la lengua entre las gentes de la localidad, no es demasiado próspera, ya que no es conocida y usada más que por personas de más de cuarenta años, más o menos. Esa es una razón más para que esa variedad vasca sea recogida con urgencia».

Badago, dena dela bustidura duen formarik, hala nola **subandilla**: datorrenetik datorrela (cf. L. *suaingila*, < *suge-aingila* ?), benetan harrigarria da despalatalizaziorik ez gertatzea forma honetan. Izan daiteke grafia hutsa ere. Cf. beheragoko **giñanin**, **kantsa-kántsaiñík**. Cf. VII.1.59. **kurrillo** ere.

3.1.1.1.2. **n / i** — V.

Asimilazioa daitekeenaren adibide bakarra agertzen da ingurune honetan: **giñanin**. Harrigarri gertatzen da aldaera hau euskalki honetan, testuan bertan gehien agertzen dena da **gindán**, **gindanién**. Izan daiteke grafia hutsa ere. Askoz ere gehiago dira, ordea, despalatalizazioaren berri ematen dutenak. Bestela esan, asimilazioa duten euskalkietan bustiduraz agertzen zaizkigun formak Altsasun bustidurarik gabe azaltzen dira: **agina** 'el tejo' (cf. G. *agiña*); **aginak** 'las muelas' (cf. G. *agiñak*); **aintzinekuk**; **amin** (sic), **amina** (*amona*); **Berjinian** (cf. Asteasuko **Virjiña** 2.1.1.1.2); **dina** (*adina*: cf. G. *diña*).

3.1.1.1.3. **d / i** {**l, n**} — V.

Hortzetako herskari ahostuna ez da asimilazioz bustitzen: **bildotx**; **gindanin**.

3.1.1.1.4. **t / i** ____ V.

Ez dago **t**-ren asimilaziorik: **asíta** (cf. 2.2.1.1.4. Ataun **jantzitta**, adib.); **bitartín**; **itén** (*egiten*); **gúziti**; **argitu** (cf. 2.2.1.1.4. Ataun **gaizkittu**, adib.).

Baina behin (ik. 3.1.1.1.1. eta 3.1.1.1.2. ere) **zittubein** (**zitunein**, *zituzten*) agertzen da. Forma bakarra denez eta **t**-ren asimilazioaren kontrako adibideak askoz gehiago direnez, pentsatzekoa da forma hau grafia hutsa izatea (aldaera libre ez bada).

3.1.1.1.5/6. **ś, s / i** ____ V.

Adibideak: **biziya**; **burnisarda**; **gizáaajuek** ²; **gizoná**; **isutsi**; **izéna**; **izurratu**; **lepíziko**; **lizerra**, **lizerdi**; **zerrikúskizunak**.

Erkatu, ordea, honako hauekin: **bixi-bixi ein** 'hacer cosquillas'; **ixilik**, **ixiltzeko**, **ixíxil**; **pixu**, **pixuba** 'peso, pesado' (cf. G Astigarraga *pixua*). Lehenengoaren bustidura erraz har daiteke, esanahia dela eta, bustidura adierazgarritzat (cf. goragoko **biziya** 'la vida'). Baina ez da horren alse azaltzen **pixu**-n agertzen den bustidura. Badirudi **e** (cf. *peso*) ixteko ingurunetariko bat dela txistukari aurea, «quizá por mediación de una variante palatalizada» dio Michelena-k (ik. FHV 67-68; baita ere FHV 476). Jakin beharko genukeena da **i** sekundario hori izan den txistukariaren palatalizazioa eragin duena ala ez (cf. VII.5.338).

² Letrak errepikatzen ditu hotsaren luzera handiagoa markatzeko (Izagirre 1967, 47).

Antzekoak esan daitezke **lixiba**-ri buruz ere, fr. /essive/-rekin zerikusirik badu. Cf. Moguel (1.4.1.1.5) **lisiba**, **lisibatu** (Azkue-ren hiztegian bestela jasotzen bada ere: 1.4.1.1.5. 19. oh.); Echebarria (1.1.1.1.5) **lixibera**, **lixibia** (cf. VII.5.312.).

Ixil- adibideko bustiduraren esplikazioa ez da zalantzarik gabekoa. Bustidura asimilazioaren aukera alde batera uzteko erabat, **iś** V segida duten kontra-adibideak beharko lirateke. Ez daudenez, ezin da esan txistukari apikariak asimilatzen ez direnik (cf. Ataungo G ere: 2.2.1.1.5 eta 2.2.1.1.7 puntuetan).

VII.eraiko uzten da **lixiba**.

3.1.1.1.7/8. **tś**, **ts** / **i** ____ V.

Adibideak: **itsesun**; **itsetsi**; **itsubá**; **itzaiya**, **itzei** 'boyero'.

Azalean asimilazio itxura badu ere, ikusi da (1.3.1.1.7/8) nola **itxi** bestelako bustiduraren alorrean sartzen den. Era berean **pitxer**, **pitxera** ere beheragoko atalerako utzi behar da (cf. G **pitxar** 2.3.1.1.5/6/7/8).

3.1.1.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

3.1.1.2/3.1. **l** / **i** ____ [C, #].

Adibideak: **anka-giltzi**; **bildotx**; **biltzen**; **burzil**.

3.1.1.2/3.2. **n / i** ____ [C, #]

Adibideak: **adin** batekuk; **agin** bat; **ankutsín**; **binepín** (*behinik behin*); **gindán**, **gindanién** (*ginenean*); **ín** da; **min**; **nokin** (*norekin*); **zapatakin**.

3.1.1.2/3.5/6. **ś, s / i** ____ [C, #].

Pixkat, pixketxutekin: esanahiagatik erraz har daiteke bustidura adierazgarritzat. Ez, ordea **txintxilixkan** (cf. *txintxilik*). Honako forma honetan, hitzaren gainerako kontsonante bustiek asimilatu ahal izan dute txistukari frikaria. Izan ere, ez dirudi txistukarien asimilazioa bilakabide oparoa denik eta dauden bustidurak lexikalizatutzat hartu behar dira: **berriz**; **biliskorrian** 'en cueros'; **bizkorra**; **briska**; **irristakan**; **izketan**; **izterra**; **tristiá**; **txisteraziaitan**. Cf. bokalerdi ondoa ere (3.1.2.2/3.5/6).

3.1.1.2/3.7/8. **tś, ts / i** ____ [C, #].

Afrikatuak frikari bihurtzen dira kontsonante aurrean: **biliskorria** (cf. *biluts-*). Hitz azkeneko afrikatuak ez dira bustitzen.

3.1.2. **j** ____.

3.1.2.1. Bokalaurrea (____ V).

3.1.2.1.1. **i / j** ____ V.

Adibideak: **ailau**, **ailleu** (desp.: cf. gazt. *(a)llegar*, G *allegatu*; Ik. VII 1.4.); **arralla**, **arrallau** (ziurraski desp.: cf. gazt. *rallar*, G

arrallatu); **frailetako**; **fumazailik**, **serbitzailiai**; **koilera** (desp., cf. B *kollara*, fr. *cuillère*: ik. VII.1.56.); **laino** 'nube', **lainatuta**; **oóilarrá**, **oileskoiken**, **óilu** (desp.: cf. gazt. *pollo*, lat. *pullus*, G *ollo*: ik. VII.1.86.) ³.

3 1 2 1 2 n / j — V.

Adibideak: **aíno** 'tizón'; **arainaun** (aikae: FHV 117-118); **beinekin**; **dainuba** (desp.: cf. gazt. *daño*); **eztainuba** 'el recipiente con asas para beber agua' (ziurraski < gazt. *estaño*, desp.); **gaineako**; **gaztainale**, **gaztainasko** (desp., cf. lat. *castanea*, gazt. *castaña*); **goinata**, **goinatuba** (desp., cf. gazt. *cuñada/-o*); **larrainau** (*larrain hau*); **oinez** (cf. autorearen galderako *oñez?*); **soinúbeik** (ziurraski bustidura adierazgarriaren desp.: cf. lat. *sonus*) ⁴.

Bustidura asimilaziorik ez dagoela garbi egon arren, **kantsa-kántsaiñik** forma bustiduraz transkribatzen da. Hau benetan honela ahoskatzen bada, lexikalizatutako forma dela esan beharko da (cf. gorago **giñanin**, **subandilla** ere). Bustidura duten formaok bertan ez dagoen asimilazioak ezin izan ditu sortu, noski, baina despalata-

³ Hona hitz honen idazkerez FHVn (196, 3. oh.) agertzen diren zenbait datu: «Lizarraga escribe *ollárrac* (act.) y Leiz. (loh. 18, 27) *oillarrac*, es decir *ollarrac*. No se pueden tomar muy en serio las gráficas de Azkue con **i** ante consonante palatal. Aparte de sus teorías sobre el origen de estas consonantes, el gran lexicógrafo no parece haber advertido que en la ortografía francesa *ill* no era más que un medio de escribir **l'**, aunque así lo hicieron constar expresamente Oihenart y P. d'Urte». Bestalde, hitzaren etimologiari begira, badirudi lat. *pullus* zegoeneko erromantzezko bustidura hartuta sartu zela euskaraz, gehienetan lat. *-ll-* > eus. *-l-* izan delako (FHV 320). Baina posible da latinezko formaren bustidura adierazgarritik etortzea ere (M 1974, 198). Honelako zerbait gertatu bide da **arrailau** formaren etorbidean ere.

⁴ Hemen "adierazgarri" zentzurik zabalenean ulertu behar da: mailebatuak alde batera utzita, asimilaziozkoa ez den guztia, alegia.

lizazioak ere ez ditu harrapatu. Honek esan nahi izango luke despalatalizazioa indarra galtzen ari dela eta ez dela erregela fonologiko automatiko edo derrigorrezkoa; bestela, esanda, salbu-espenak dituela.

3.1.2.1.3. **d / j** [l, n] ____ V

Adibideak: **danoindako**; **gaildur**, **gaildurra** (G *gaddur* bezalako zerbaiten despalatalizaziotik? Cf. FHV 357); **zuiraindo** (*zubiraino*).

3.1.2.1.4. **t / j** ____ V.

Adibideak: **aita**, **aitagiarreba**, **aitapuntakú**, e a.; **aitú** (cf. Ataun 2.2.2.1.4. **aittu**); **bazkaitan**; **eiteko** (cf. Ataun 2.2.2.1.4. **eitte**, **eitten**); **óitu** (cf. Ataun 2.2.2.1.4. **oitturea**); **umiengaiti**, **zengaiti**.

3.1.2.1.5/6. **ś, s / j** ____ V.

Gertatzen da igurzkari bustia (sabaiaurreko [j]) i-z amaitutako diptongoaren ondoren eta bokal aurrean: **gaixau**, **gaixo**, **gaixuu**. Aipatu da gorago ere (2.1.2.1.3/4/5/6/7/8 eta 2.2.2.1.5) hitz hau oso egokia dela bustidura adierazgarria izateko duen esanahiagatik. Bustiduraz agertzen den beste forma bat **bereixin** da. Izan ere, jakina da (FHV 83, 22. oh.) jatorrizko forma diptongorik gabea dela (*berezi*). Txistukaria kontsonante aurrean duten aldaera lexikoetan (*bereizten* FHV 159) sortu bide da palatalizazioa eragin dezakeen bokalerdia ⁵. Adibide honek aditzera ematen duenez,

⁵ Ik., hitz honen aldaeren historiaz, Sarasola 1985.

Altsasun gorde egin da bustidura hau lexikalizaturik, garbi bait dago asimilazioa ez dela emankorra, bizkarkariaren kasuan behintzat: **aizea**, **eguaizia**; **apaizetxi**; **eztaizein** (*ez da izanen*); **naizu** (*nahi duzu*).

3.1.2.1.7/8. **tś**, **ts** / **j** ____ V.

Batzuetan gertatzen da afrikatu bustia (sabaiaurreko [tʃ]) **i**-z amaitutako diptongoaren ondoren eta bokal aurrean: **aitxur**, **aitxurrak**; **jaitxi** 'bajar', 'ordeñar'. Hitz egin da **jaitxi**-ko bustiduraz 2.2.2.1.7.ean. Dena dela, aipagarria da Izagirre-ren testuan agertzen den **i** hori. Izan daiteke grafia hutsa izatea edo berez **j** duten formen eragin analogikoa.

Ez da kasu bera **aitxur** adibidekoa. Hitz honetan bustidura eragin dezakeen **j** bokalerdia hitzaren jatorriak berak azaltzen du (cf. *(h)aitz-*, ik. FHV 192, 209). Testu honetan lexikalizatu egin den bustidura baten arrasto dugula esan behar da, garbi bait dago jasotzen den euskaran bustidura asimilazioa ez dela emankor. **andaitza**; **araitza**; **eréitzen** (*iruditzen*); **gaitzetsiya**, **láitzen**, **léitzen** (*letzen*, 'irakurtzen'); **ureitzi**.

3.1.2.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

3.1.2.2/3.1. **i** / **j** ____ [C, #].

Adibideak: **dail**, **dailtza** (*dabil*, *dabiltza*); **gaildur**.

3.1.2.2/3.2. **n / j** ____ [C, #].

Adibideak: **ainnnbeste**; **aintzinekuk**; **zein**; **zitunein**
(*zituzten* - ?-).

3.1.2.2/3.3. Ez dago **d**-rik ingurune honetan.3.1.2.2/3.4. **t / j** ____ [C, #].

Adibideak: **eztait** (*ez dakit*); **nolabait**, **núnbaáit**; **zait**.

3.1.2.2/3.5/6. **ś, s / j** ____ [C, #].

Apikariaren kasuan, **aixkire** (*adiskide*) dugu, azalean behintzat asimilatuaren itxura duena. Adierazgarria ere izan daiteke, noski, hitz hau. Kontrako adibideak, asimilaziorik ez dagoela adierazten dutenak, alegia, bokal ondoan bakarrik agertzen dira (ik 3.1.1.2/3.5/6).

Bizkarkaria ez dela bustitzen garbi agertzen da, bestalde: **aizkan** 'a pedradas'; **aizkenin** (*azkenean*, i sekundarioaz ik FHV 159); **aizkora**; **aiztaiyak** 'los cazadores'; **apaiz**; **araizdiya**; **gaizki**, **gaiztuek**, **goiztarra**.

3.1.2.2/3.7/8. **ts, ts / j** ____ [C, #].

Afrikatuak frikari bihurtzen dira kontsonante aurrean: **aitz/aizkan**, **araitz/araizdiya**. Hitz azkenekoak ez dira bustitzen.

LABURPEN/ONDORIOAK:

OZENAK ez dira bustitzen asimilazioz. Alderantziz, beste euskalkietan bustiak izan daitezkeen ozenak despalatalizatu egiten dira. TRABAKARlen artean ere ez dago asimilazio bustidunaren markarik. Lexikalizaturik daudenak (**aitxurrak**) eta adierazgarriak izan daitezkeenak (**bixi-bixi, pixkat**) kenduta, txistukari apikariak dira, beharbada, asimilazioa gordetzen dutenak bokalerdi ondoan eta kontsonante aurrean (izan ere, bizkaieratik kanpo, txistukarien asimilaziorako ingurunerik oparoena). Baina adibide bakarra izanda, ezin da gauza haundirik esan (berau ere lexikalizatua edo adierazgarria daiteke).

4. Elkanoko goinafarrera

4.1. J. Lizarraga: *Doctrina Christioaren Catechisma*

Nafarrokoako euskalki honen azterketaren oinarri Apecechea-k prestaturiko Lizarraga-ren testua da (ik. bibliografia ¹).

4.1.1. i ____.

4.1.1.1. Bokalaurrea (____ V).

4.1.1.1.1. i / i ____ V.

Ingurune honetan egon arren, albokoak ez du bustidura markarik agertzen gehienetan: **familia** (cf. 2.3.1.1.1); **Gentilac**; **habilágoak**, **habilidade**; **ibili**, **dabila**, **zebilala**; **ilarguia**; **ilasguéros**, **ilen**, **ilic**; **ilúmbean**, **ilundúra**; **milágros**; **mutilac**; **orcíláre**, **urbilen**, e. a. Egia da batzu behintzat bustidurarik gabeko mailebuak direla, baina cf. 1.1.1.1.1. (Eibar) **abilla**, **millagro** eta 2.2.1.1.1. (Ataun) **jentillek**. Bustidura marka agertzen dute honako hauek, besteak beste: **billa**, **billátzera** (baita ere **bila**); **cillárr**, **cillarres**; **elceguillebáten**, **ongui-eguille**; **Garillaren** (baina **ilabéte**, **ilean**); **humillatu** (cf. gazt. *humillar*, lat. *humiliāre*; halaz ere, **humilac**); **naspillarén**.

Kanpotikako esplikazioa izan dezaketen bustidurak (adib., **hispillu** --VII.1.32.--, cf. lat. *spec(u)lu*: VII.1.32.; **milla**, **milla millón** ²) alde batera utzita, zaila da bustidura duten

¹ Bonaparte-ren sailkapenean *Altonavarro Meridional* deritzonari dagokio Elkanoko euskalkia.

formentzako erabateko arrazoiak aurkitzea. Ikus daitekeenez, batzuetan hitz bera bi eratara idatzirik agertzen zaigu. Ortografiak ahoskera isladatzen badu behintzat, ezin da esan, kasu horietan, bustidura lehengo edo beste nonbaiteko asimilazio erregelaren arrasto lexikalizatua denik. Pentsa daiteke, bestela, bokalaurreko albokoaren asimilazioa hitz batzuetan gertatzen dela (hobe: gordetzen dela) bakarrik, askotan behintzat hautazkoa delarik. Ez da, noski, bilakabide emankor eta erregularra

4.1.1.1.2. **n / i** — V.

Sudurkaria ere gehienetan bustidura markarik gabe agertzen da, nahiz eta ingurune honetan egon: **alcína; doctrina; finézac** (cf. **fiñbat**); **imaginabát; latines; originála; sinestátzea, sinestatzendút; Virginagánic**. Egia da emandako adibide gehienak bustidurarik gabeko mailebuak direla eta, beste nonbaiten esan den bezala, eliz bidetik sartuak, baina bustidura asimilazio oparoa duten euskalkietan aurki daitezke palatalizaturik (cf. G *imajiña, latíñez*; 2.1.1.1.2. -Asteasu- **dotriñac, origiñal, Virjiña**). Bustiduraz agertzen dira: **adiña, bearradiña, diña, naiadiña; adiñean** ('a la edad'); **burriña, burriñásco; eguiña, eguiñen, eguiñic** (galdeguinic); **erreguiña** (eta **erreguina**).

Gauzak azaltzeko orduan, albokoaz esandakoak errepika daitezke ³.

² Apecechea-ren ustearen kontra (cf. 27. or.), esan behar da hitz hau mailegua dela eta jatorri ezagunekoa, gainera. Bestalde, **milla** eta **millónen** kasuan latin edo erromantzezko formen bilakabide fonologikoaz aparte (cf. gazt. *millón*, lat. *millium, millia*), kontuan izan behar da grafia etimologikoa izan daitekeela. Ik., adib., 227. orrialdean bertan:

«... *millies* ... **Milla áldis**...». Cf. **attenditu, passio**, e. a. Ik. VII.1.75.

4.1.1.1.3/4/5/6/7/8. Ez da agertzen **i** bokalak eragindako trabarien bustidurarik bokalaurrean.

Hitz batzuetan eta bustidura sistema ezberdinak dituzten hizkeretan bustitzen diren afrikatu apikariak ere (ik. 1.1.1.1.7. edo FHV 192) bustidurarik gabe azaltzen dira: **itsasóncian**, **itsusi**, **itsuturic**⁴.

4.1.1.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

4.1.1.2/3.1. **l** / **i** ____ [C, #].

Ez dirudi bustidura dagoenik. Bustidura markaz agertzen den hitz bakarrarena kanpotikakoa izan daiteke besterik gabe. **humilqui** (cf. **humillatu**), **sencill** (cf. gazt. *sencillo*).

4.1.1.2/3.2. **n** / **i** ____ [C, #].

Sudurkariaren kasuan ere adibide bakarra dugu bustidura marka duena: **eguin**, **ezin**, **fin** 'fin', **fiñbat** 'un ... fino', **Virgin**. Beharbada, irudimena urrutiegi joaten uztea da, baina pentsa daiteke esanahiak (edo bi hitzen aldaerak izateak behintzat) baduela zerikusirik bigarrenaren bustiduran.

³ Moutard-ek (1975b, 170 eta 175) ez du ezer esaten albokoaren asimilazioaz hego-GN aztertzen duenean; /iɛ/ (/ ikurrak bereak dira) adibidea /ɛ abur/ eta /teɛ atue/ren multzoan sartzen du beste esplikaziorik gabe. Sudurkariaz esaten du ez dela inoiz asimilazioz bustitzen; /piñukara/ 'le petit pin' itzultzen du, baina ez du bustidurarik gabeko oinarritzko forma aipatzen.

⁴ Testuan **itsaturic** agertzen da, baina testuinguagatik garbi dago *itsuturik* dela hitza eta inprenta okerrean bat gertatu dela.

4.1.1.2/3.3/4. **d** eta **t** ez dira asimilazioz bustiak agertzen

4.1.1.2/3.5/6. **ś**, **s** / **i** ____ {C, #}.

Jakina da, bizkaiera kenduta, kontsonante aurea dela txistukarien bustidurarako testuingururik aproposena. Testuan agertzen diren adibideen arauera, gehienetan ez dago bustidurarik: **adisquidea**; **alichstatzeco** ⁵ (cf. gazt. *alistarce*); **bizcárrean**; **cistátzen** 'pinchando'; **cristale**, **christaletic**; **fichstubát** 'un silbido', **lischtuac** 'salivazos', **lichstus** (baina **chistus**, beharbada, beste palatalaren eraginez); **ichsquiritubát** (beherago, **isquirituac**); **pichscabát**; **tristurac**; **viztucé**.

Badirudi asimilazio garbiena (**alichstatzeco**) txistukari apikariaren kasuan jazotzen dela, erabat automatikoa (h.d. derri-gorrezkoa) ez bada ere. Bustiduraz azaltzen direnez badago zeresarik. Hasteko, **ichsquiritu-** bustidurarik gabe ere esan daitekeela dirudi: hautazkoa ematen du, beraz, lexikalizatua baino areago. Dena dela, hiztegietara jotzen bada, badirudi lexikalizazioaren bidea dela garbiena. Azkue-k bustidura markaz bakarrik ematen du hitza (*/ṣkiritu* 'grito'); Lhande-k bi sarrera egiten ditu: *ixkiritu* 'cri perçant' eta *izkiritu* 'rire aigu de la femme et de l'enfant'. Bestalde, **pichscabát**-eko bustidura asimilaziorik

⁵ Apecechea-k ortografiaz egiten dituen ohar ilunen artean (25-27 or.) esaten da [ʃ] hotsa («x de la actual normativa académica», noski) *chs*, *sch* eta *x* grafien bidez adierazten dela. Egon omen daitezke hiruron artean bereizkuntza fonetikoak. Berak ez ditu azaltzen eta gure helburuetarako ere ez lirateke ezinbestekoak (bai, ordea, edizio kritiko izan nahi duenaren hitzaurrean). Dena dela, ez legoke oker hemen gogoratzea nola hots bustien idazkera gauza nahasia izan den euskal literaturan eta nola, esate baterako, Larramendi berak ere ez zuen erabaki /s/ ala /ʃ/ erabili [ʃ] adierazteko (ik. Michelena 1978, 394 eta passim).

gabe ere, esanahiagatik uler daiteke.

4.1.1.2/3.7/8. Ez dago afrikaturik ingurune honetan **i** bokalaren ondoren.

4.1.2. **j** ____.

4.1.2.1. Bokalaurrean (____ V).

4.1.2.1.1. **i** / **j** ____ V.

Agertzen diren adibideek bustidura marka dute: **chrisallubatenái**; **solla**, **sollic** (cf. **soilbateán**). Badago, ordea, morfema mugaren garrantzia azpimarratzen duen adibide bat: **nailuquète**. Batera idatzia egon arren eta azentu marka bakarra badu ere (eta pentsatzekoa da esan ere azentu talde bakarra osatuaz esan daitekeela), garbi dago hitz mugak bere debekua ezarri duela.

4.1.2.1.2. **n** / **j** ____ V.

Bustidura marka agertzen da ingurune honetan sudurkaria duten forma gehienetan: **béñere**, **beñic** (**bein**); **ceñen**, **ceñi**, **edoceñi** (cf. **ceín**, **ceintas**); **erráñua**; **eternídaderaño**, **onararáño**, **passioráño**; **ezpáñes** (ik. FHV 103); **gañean**, **gañetic** (cf. **gain**); **oñac**, **oñetáic** (cf. **oín**, **oínperatzecó**); **oñáce**; **oñastúr** (ik. FHV 307); **sóñean** (ik. FHV 139-40).

Bustidurarik gabe: **erreinatzen**, ziurraski mailebu ikasia (*cultismo*) delako ⁶; **ezpainaiz**, garbi dago hemen morfema

⁶ Donostian ere *Aita gurea* (orain *Gure Aita*) errezatzean, «etor bedi zure *erreinua*»

192). Sabaiko afrikatua du **achequiaric** adibideak ere, baina hemen ez dago bustidura asimilazio aurrekaririk (ik. hitz honetaz VII.6.441.lean esaten dena).

4.1.2.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ {C, #}).

4.1.2.2/3.1. **l** / **j** ____ {C, #}.

Ez dago asimilazio markarik: **choil**, **soilbateán** (cf. **solla**, **sollic**)

4.1.2.2/3.2. **n** / **j** ____ {C, #}.

Bokalaureko bustiduraren adibideak ematean, ikusi da ingurune honetan ez dela palatalizazio markarik azaltzen (ik. 4.1.2.1.2).

4.1.2.2/3.3/4. **d** eta **t** ez dira asimilazioz bustiak agertzen.

4.1.2.2/3.5/6. **ś**, **s** / **j** ____ {C, #}.

Bizkaiera kenduta, txistukarien asimilaziorako ingurunerik emankorrena den honetan (bokalerdiaren ondoren batipat), aurkitzen dira bustidura marka duten formak: **berechs**, **beréchstea**n, **berechstentuén** (ik. gorago 4.1.2.1.5/6); **gaichsto**, **gaichstoac**, **gaichstoficátuec**, **módugaichstos**, e.a. (baina baita ere **gaizqui-eguille**, **gaizquitíc**, **gaizturíc**); **gaizque** 'podríamos (intr.)'. Ikus daitekeenez, lehenengo adibidea (**berechs**) beti bustiduraz agertzen da: bustidura lexikalizatua ere egon daiteke. Bigarrena (**gaichs-/gaiz-**) da bi eratara

agertzen den bakarra, asimilazio hautazkoaren ondorio, beharbada. Gerta daiteke hemen ere lexikalizatuz joatea, ez bait da forma berbera agertzen bi eratara.

4.1.2.2/3.7/8. Ez dago afrikaturik ingurune honetan i bokalaren ondoren.

LABURPEN/ONDORIOAK:

Ez da oparoa euskalki honetan asimilazio bustidura. Oro har, esan daiteke txistukariak bakarrik jasaten dutela modu erregularrean. Hauengan ere erregela mugatua da, bokalerdiaren ondoren eta kontsonante aurreko ingurunean gertatzen bait da (beharbada bokalerdiaren ondoren eta bokalaurrean dauden ozenak ere multzo berean sartu beharko genituzke).

5. Baztango hizkera

5.1. Baztango euskararen bustidura bilakabideak nondik nora dabiltzan jaso asmoz Bruno Echenique-k Bonaparte printze-arentzat egindako itzulpenak (P. Salaburu-k argitaraturikako bilduma) erabili dira. Salabururen (1984) datu eta azalpideak ere aintzakotzat hartu dira. Echenique-renak osatu edo kontraesaten duten neurrian jaso eta komentatzen dira.

Echenique-ren itzulpenok Bibliako bost zatirenak dira (*Jonasen Profezia, Mateoren Ebangelioa, Salomonen Kantuen Kantua, Ruthen Liburua, Apokalipsia*). Hemen dagokigunerako bereizkuntzak ez dira beharrezko eta liburu bakar bezala erabili da. Zatiketa bakarra, azterturiko gainerako obretan bezala, hots bustigaiak agertzen diren inguruneetan oinarritua da.

5.1.1.1 ____.

5.1.1.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

5.1.1.1.1.1 / i ____ V.

Esan daiteke ez dagoela albokoaren asimilaziorik ingurune honetan. Itxuraz asimilazio izan zitezkeen adibide biak (**gargantillac, sencillo**) mailebuak dira eta palatala bera ere kanpotikako ahoskera lexikalizatutzat hartu behar da: **bila, ilazteco, ile, mutila, pilatzen**, e.a.

5.1.1.1.2. n / i ____ V.

Sudurkaria ere gehienetan bustidurarik gabe agertzen da:

aitzinean, bacinuquete, esqinetan, osinac, e.a. Palatalizazio marka duten formak lexikalizatutzat hartu behar dira, ingurune honetan asimilazio bustidura emankorrik ez duen euskalki batean gertatzen bait dira (bustidura lexikalizatua legoke hiztunek eta ez idazleak bakarrik erabiltzen duten neurrian, noski). Dena dela, guztiak lexikalizatuak izanagatik, ez dira albokoaren kasuan bezain erraz azaltzen "kontra-adibideok": **iñarros, iñartu, liño, mariñelac**. Azken biak dira mailebu, baina euskaratik kanpo sudurkaria ez da sabaikoa (cf. gazt. *lino, marinero*). Beraz, bustidura euskaraz sortua dugu. Lehenengo burura daitekeen azalpidea da beste euskalkiren batetik bustidura eta guzti mailegaturikako formak direla.

Beste euskalkietako aldaerak kontuan hartzen badira, ordea, ikusten da hitz hauetako batzuen bilakaera zehar zerbaiten esplikazio izan daitekeen ezaugarria. Bustidura Baztango euskalkian ala kanpoan gertatua den argitzen ez badu ere, aipagarria da gehienetan (**mariñel** kanpoan utzi behar da) adibideotan agertzen den sudurkaria sekundarioa dela. Jakina da bokalarteko sudurkari bakuna galdu egin zela euskararen historian. Latinezko jatorri ezaguna dutenetan behintzat ez dago zalantzarik (lat. *linum* > eusk. *liho*, e.a.). Galdutako sudurkariaren lekuan beste zenbait hots agertu dira euskalkiak zehar, askotan **i**-ren ondoren azaltzen dena **ñ** dugu (cf. *i(h)arrosi, inharrosi, irardausi*, e.a. FHV 316-7).

Salaburu-k asimilazio bilakabidearen ondorio liratekeen forma zerrenda bi ematen ditu (1984, 159: C eta D zutabeak, alegia). Oso oker ez bagaude, ematen dituen "kontra-adibide" ia

guztiak mota honetakoak dira. Bestela esan, **iñarros** formaren etorbide bera lukete **iñautiak**, **iñeriketan** (cf. *igeriketan*), **iñerrausi** (Ech. **iñarros**), **iñertu**, **iñoiz** (eta gainerako D zutabekoak: **iñola**, **iñon**, **iñor**), **iñortu**, **iñudia**, eta abarrek. Beharbada bustiduraz lexikalizaturik azaltzen zaizkigun formotako **ñ** hori beste bide batetik sortua izatea, edo asimilazio bustidura oparoa zeneko maila zaharrago bateko arrasto lexikalizatua izatea (cf. FHV 303-4, § 15.4 eta lan honetako 11.4.3) ¹

Hitz hauer dagokien esplikazioak azaltzen ez dituen forma gutxi batzu geratzen dira. Hitzaren historiari begira, ezin dira aipaturikakoekin batera ipini **iñelak** (*egin ahalak*), **iñoxentxi** eta **siñetsi**. Ez dirudi gehiegikeria gehiengoarekiko analogiaz moldatu direla pentsatzeak. Egituraren aldetik (silaba egitura eta zenbakia da hemen garrantzitsu, ik. FHV 546), ez dago arazorik honela azaltzeko. Daitekeena da, noski, beste euskalkiren batetik bustidura eta guzti hartuak izatea (eta ahoskera horretaz lexikalizatuak: cf. goragoko **mariñel**). Bestalde, ezin da ahaztu antroponimoetan (**iñoxentxi** 'Inocencia') bustidura adierazgarria oso emankorra izaten dela ².

5.1.1.1.3 Ez da inon agertzen **d**-ren asimilazio bustidurarik.

5.1.1.1.4 **t** / **i** ____ V.

Ez dirudi **t** ere asimilazioz palatalizatzen denik, baina

¹ Cf. Irigoyen 1962, 164-165: *yñar*, *yñarrosi*, *yñaute*, e.a.

² Eskerrak eman nahi nizkioke P. Salaburu-ri hitzon itzulpen eta nondik norakoak bilatzen lagundu zidalako.

itxuraz asimilatua izan daitekeen forma bat agertzen da: **ttipittoei**. Atzizkiak bustidurarik gabeko aldaerarik eskaintzen badu ere (**nescatoequin**), bustiduraduna erraz uler daiteke esanahia bera kontuan hartuta; hitz hasierako segmentu bustiaren eragina ere izan daiteke, noski.

5.1.1.1.5/6. **ś, s / i** ____ V.

Txistukari apikariaren ordez agertzen da sabaiaurrekoa (**ichilazteco, ichuria, ichurtzeco**), ez, ordea, bizkarkariaren ordez (**bicia, izan**). Apikariaren a ere ez da erabat derrigorrezkoa (**pisucoa**). Honetan gipuzkeraz aurkitutakoarekin bat letorke hizkera hau (cf. 2.2.1.1.5 eta 2.2.1.1.7).

Ez dago garbi **sangrichatarra**-ren jatorria, baina pentsatzekoa da palatala adierazgarria izatea (cf. *zatarra*) eta ez asimilatua. Izan ere, zaila da hitz elkartuetan ere asimilazioa hitz muga zehar gertatzea.

5.1.1.1.7/8. Ez da jaso asimilatutako afrikatuen adibiderik.

5.1.1.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ (C, #)).

Ingurune honetako egoera bokalaurrekoaren oso antzekoa da. Txistukariena da emankortzat har daitekeen bustidura bakarria. Ingurune honetan ez dago horren garbi txistukari apikariei bakarrik ezartzen zaien: **crichqueta, chirichtiloan, ichterrain, mendichcac, pichca**. Azken bien bustidura esanahiak berak ere esplika dezake (ik. VII 5.280, 336.)

5.1.2. j ____.

5.1.2.1. Bokalaurrean (____ V).

5.1.2.1.1. I / j ____ V.

Badaude bustiduraren adibideak ingurune honetan, denak asimilazio ote diren zalantzazkoa bada ere: **cascallu**, **edergalluac**, **erdollac**, **saillac**, e.a. (cf. VII.1.29.). Bustidura markarik gabe: **ereile**, **estaila** (*estalla*, metatesiaz?), beharbada morfema mugaren eraginez (?). *hau b. erabilgarria da*

5.1.2.1.2. n / j ____ V.

Badirudi bokalerdi benetazko edo berezkoaren (*primitiva*) ondoren ia salbuespenik gabe bustitzen dela sudurkaria ingurune honetan: **arimaraño**, **ttipienerañocoan**, **zañetaraño** (behin bakarrik **gañerano**; cf. Eik. 4.1.2.1.2. ere **lembicicoráno**³), **beiñere**; **ceñen**; **erreña**; **esqueñi**; **gañera**; **oiñen**; **zañean**; e.a.⁴.

Bustidurarik gabe azaltzen dira **erreinu**, **erreinuan**, e.a. Hitz hau, hitz ikasia delako nonbait, bustidurarik gabe agertzen da ingurune honetan erregulariki asimilatzen duten zenbait hizkera-

³ Badirudi alomorfoez hitz egin behar dela: euskalkiak zehar morfema beraren aldaera **i-** dun eta gabeak aurkitzen dira. Cf. Ar. (Z) **orano** 'encore', **nizano** 'pendant que je suis', baina **khotsua deraino** 'pendant l'invasion'.

⁴ Salaburu-k (1984, 160) dio Echenique-ren **arrañ** gaur egun **arraín** esaten dela dudarik gabe berak jasotako datuen arauera. Baina, Echenique-ren adibidearen testuingurua aintzakotzat hartzen bada, ikusten da sudurkariaren ingurunea ez dela ziurraski hitz azkena bokalaurrea baizik: «arrañ aundi bat» (J. II, 1). Hurrengoarekin talde foniko bakarra osatuz ahoskatzen bada **arrañ** (eta hori adierazten du, nere ustez, Echenique-ren idazkerak, ez bait du bestela inoiz bustidurarik markatzen hitz azkenean), forma hau ez da ez salbuespen eta ez gaurko ebakerarekiko diferentziaren adibide.

tan (ik. 4.1.2.1.2. eta bertako 7. oh.). Ez dago bustidurarik beste adibide pare batean ere: **S. MateoIn, profetaInaz, tortolaInac**; dieresidun bokalerdiaren ondorengoak, bestela esan, *-a(r)en* atzizkien bilakaerak sortu duen diptongo sekundarioaren ondorengoak dira.

5.1.2.1.3/4/5/6/7/8. Trabariak ez dira bustitzen ingurune honetan.

5.1.2.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ [C, #]).

Sabaikalduak agertzen diren txistukari batzu kenduta, ez dago bustidurarik ingurune honetan. Txistukari sabaiaurrekoak gehienetan apikariaren ordeztu daude, baina ez beti (**berech, gaichtoa**). Egia da hemen ere gipuzkeraz ari ginela esandakoa: ez da inoiz agertzen txistukari apikaririk ingurune honetan, baina bizkarkariak bai (cf. 2.2.1.1.5. eta 2.2.1.1.7.). Adibideak: **aichquidea, laichter, maichtrua**; baina: **zaizquitzue, zaizte**, e.a.

Dena dela, bustidurarik gabeko bizkarkariaren adibideak aditz laguntzailearen aldaerak dira guztiak. Bestalde, bizkarkari bustiduradunen adibideak ere ez dira egokiegia. Jakina da *berex/berez-*ek esanahi diferenteko bi hitz bailira funtziona dezaketela (beraz berlexikalizazio bat genuke eta ez bizirik diarduen asimilazioa); **gaichtoa**-ren oinarria *gaistoa* ere izan daiteke zenbait hizkuntzetan (ik. Azk. s.v. *gaiski*). /a

LABURPEN/ONDORIOAK:

OZENen asimilazioa bokalendiaren ondoren eta bokalaurrean gertatzen da batipat. TXISTUKARlen bustidura mugatua bakarrik dugu bokalaren eraginaren ondorio eta bokalaurrearen osagarri diren inguruetan (____ {C, #}) jazotzen da. Hortzetako **t**-ren bustiduraren oinarria beti adierazgarritasun kontua da.

Baztan-en gertatzen denak (cf. VI.4. ere) --bokalendiaren bustikuntza bakarrik izanik emankor, hitz batzuetan bokalaren ondoren ere bustidura egoteak, alegia-- adieraz lezake garai batean zabalagoa izan dela bustidura erregela (edo bokal ondokoa gertatu zela, behintzat). Zentzu historiko honetan esan daiteke **i** bokalak eragindakoa dela asimilaziorik hedatuena (cf. II.2. palatalizazioaren antzinasunaz).

6. Aezkera, Zaraitzuera, Erronkariera¹

6.0. Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko mintzoaren berri bilatzean Bonaparte-k 1869an argitara zuen dotrinara jo dugu. Michelena-ren "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal" (M 1954) eta Michelena-ren "Notas fonológicas sobre el salacenco" (M 1967) ere erabili dira. Era berean aipatu behar dira datuak osatzeko eta zailantza kasutan begiraturako *Canticum Trium Puerorum* (CTP -erronkarierazkoa-) eta K. Izagirre-ren (1959, 1961) "Erronkariko euskal-ondakin batzuk" (EO). Bibliografian ematen dira lan hauen gainerako zehaztasunak. Azkue-ek (1927, 1931) aezkeraz eta erronkarieraz egindakoak ez dira erabili datu eta adibideak ateratzeko euskalkien ezaguera osatzeko baizik, horregatik orotariko bibliografian zerrendatu dira².

¹ Bonapartek irizpide morfologikoak hartu zituen batipat aintzakotzat euskalkiak sailkatzean (eta Zar., esate baterako, ekialdeko BNrekin batzean). Badituzte, ordea, berezko ezaugarriak (M 1967, 163).

² «(...) su carácter histórico hace que un material abundantísimo recogido o comprobado por el autor mismo aparezca unido, de modo que la separación se hace muchas veces difícil, a otro también muy abundante, procedente de fuentes escrita[s] de fecha diversa, cuyo origen y cuya autenticidad a veces están lejos de estar lejos de toda duda. Sus teorías personales, a algunas de las cuales profesó una tenaz adhesión, no dejaron tampoco de perjudicar algunas de sus exposiciones (...). Azkue con un criterio estético y purista, no aceptaba pura y simplemente los hechos, sino que se creía en el derecho, e incluso en el deber, de someterlos a un cribado previo: así no nos ofrece un vocabulario aezcano o roncalés, sino un florilegio, un ramillete de flores escogidas que creyó dignas de admisión por su aire arcaico, por su pintoresquismo o por su pureza». (M 1964, 27-28).

6.1. Aezkerazko asimilazio bustidura

Esan daiteke aezkeraz ez dagoela asimilazio bustidurarik. Asimilazio itxura betetzen duen adibide bakarra dago: **gaisstoei**, **gaisstoeiteic**, **gaisstotic**. Badaiteke hitz hau kanpotikakoa edo zaharragoa den bustiduraz lexikalizatua egotea. Gainera nahikoa zabaldua dago hitz honen ahoskera hau eta bustikuntza adierazgarri bezala ere uler daiteke (cf. 5.2.2/3.). Kontuan izan behar da, dena dela, txistukariak direla beti egoera irregularrena agertzen dutenak.

Aezkeraz despalatalizazioa aurkitzen da. Hau garbi ikusten da, Michelena-k (1967) egiten duen bezala, bertako aldaerak Erronkari, Zaraitzu eta Zuberokoekin erkatzen badira: **ezteinu** (Err Zar **eztañu**, Z **estáñü**), **lollo** (Err Zar **llollu**), **ollo** (Err Zar **Zollo**), **peina** (Err Zar **peña**). Eta oraindik ere bertako erromantzean bizirik dauden mailebuak aintzakotzat hartuz gero, ez dago zalantzarik despalatalizazioaz: cf. gazt. *estañu*, *peña*.

6.2. Zaraitzuerazko asimilazio bustidura

Esan daiteke zaraitzuerazko ozenak bokalerdiaren ondoren eta bokalaurrean bustitzen direla: M 1967 **otsalla** (Err **otsaila**); **bularretraño** (Err **burarretraino**), **escuyecoalaño** (Err **escoñeuaraino**); **gañetic** (Err **gainetic**); **soñeguitic** (Err **soinetic**). Bustidurarik gabe agertzen dira: **bainiz** (<*bait*-: -*t* horren kenketa eta morfema muga kontuan hartu behar dira), **reina**, **reinoa** (ik. **erreinua** 5.1.2.1.2.) eta **zoinec**, **zoini** (hitz azkeneko **zoin** aldaeraren eragin analogikoagatik?), e.a.

Trabarien artean, berriz, txistukariak beste ingurunean (/___ [C, #]) ager daitezke bustirik: **bacoch** (eta, hortik ziurraski, **bacochac** aldaera), **gasstoetaric**, M 1967 **txaixkur** 'langosta'³.

6.3. Erronkarierazko asimilazio bustidura.

Dirudienez, erronkarieraz txistukarietan aurki daiteke bustiduraren arrastorik, gauzak nahasi xamarak badaude ere. Hizkeraren historia zehar behintzat (zailagoa da alternantziak aurkitzea), bokalerdi ondorengo afrikatuak sabaikari bihurtu dira: **bacoch** (EO **bákutx**); **gach**, **gachetic**; M 1954 **atxur**; EO **atxurrera**. Azken adibide hau oso zabaldua dago ebakera palatalaz. Badaiteke lexikalizatua egotea (cf. EO **gáitzuru** 'cuartal') eta bokalaurreko asimilaziorik ez egotea, hitz azkenekoa baino ahulagoa izatea behintzat (**gachen gach**-etik uler daiteke).

Igurzkariei dagokienean, badaiteke **gassqui**, **gasstotic**, e.a. **gach**-en bustiduraren hedadura izatea. Eta agertzen diren zenbait bustidura bustikuntza adierazgarriaren adibide izan daitezke: esate baterako, **gáxuak**, **gaxo** (M 1954). Baina ezin dira hain erraz baztertu EO **amaxún**, **aitaxún**, **semexún** (cf. Archu **amaizun** 7.2.1.5/6); **áxatu** 'aventar' (cf. *aize*); **eréixi** 'peinado' (eta **erensi**, cf. Azk. *ereinsi*, Azkue 1931 *erenxi*); **goix**, **góxan**,

³ Oso garbi ez badago ere, badirudi ozenak ingurune horretatik kanpo ere busti daitezke-eia: «Las nasales sólo contrastan en la explosión. Con todo, el sal. tiene *n* y *n'* en posición implosiva (final de palabra), aunque *n'* podría también analizarse como *i+n* en estos casos». (M 1967, 166).

goxóro ⁴. Dena dela, asimilazioa ez da erabatekoa: **galza** (<*gauza*). Adibide gehiago beharko genituzke jakiteko asimilazioaren muga zehatzak non dauden, bustiduradunetan lexikalizatua dagoen ala diptongo sekundarioak ez dituen harrapatzen.

Bokalaren eragina ez da bokalerdiaarena bezain garbi ikusten. *CTP* **ichasoak** zabaldua dago bustiduraz ingurune honetan asimilatzen ez duten euskalkietan ere (ik. 1.1.1.1.7. edo FHV 192). Bokalaren ondorengo asimilazioaren itxura du, dena dela, **anich** formak. Hortik zabaldu ahal izan da igurzkaria duen aldaerara bustidura: **anissqui** (cf., bestela, *CTP* **chasmistak**). Zalantzarik gabe, izatekotán, kontsonante aurrean eta hitz azkenean da indartsuen asimilazioa, hala adierazten dute EO **ixkillá** (cf. *ezkila*) eta **pixkólte** 'ombligo' adibideek ere. Gauzak areago iluntzeko, ordea, horiekin batera daude: EO **izpélko** 'brusco (landarea)' eta **txískatu** 'aplastar'. Azalpideak bilatzean, ez da inoiz ahaztu behar adierazgarritasunaren aukera.

LABURPEN/ONDORIOAK:

Hiru hizkeretatik bustidura asimilazio oparoena zaraitzuerari dagokio. Erronkarierarena mugatuagoa da, esan daiteke txistukarietan bakarrik aurki daitezkeela inoiz erregularragoa izandako asimilazioaren arrastoak. Aezkeraz ez dago asimilaziorik, despalatalizazioa baizik.

⁴ Izagirre-ren testuetan ez dirudi gauzak bizkaieratik kanpo espero genezakeen proportzioan gertatzen direnik. Bestela esan, bokalaurrekoa osatzen duten inguruetan (____ {C, #}) asimilazioa murriztagoa eta irregularragoa da.

7. Zuberera

7.1. Zubererazko asimilazio bustidura nondik nora dabilen ikusteko, Archu-ren *Bi Mihiren Gramatika* (Ar.) eta Gèze-ren *Éléments de Grammaire Basque* (Gz.) erabili dira. Kontuan izan da Larrasquet-en *Le Basque de la Basse-Soule Oriental* (Larr.) ere. Datuen aurkezpenerako ardatz Archu-rena da, besteak osagarri bezala dagokienean sartzen direlarik ¹. Zatiketak, beraz, bustidura inguru-neen arauera egiten dira:

7.1.1. **i** ____.

7.1.1.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

7.1.1.1.1. **i** / **i** ____ V.

Gutxitan azaltzen da albokoa bustidura markaz ingurune honetan. Joera indartsuena ezezkoa dela dirudi: **bilha** ²; **biribilak**; **ilhe**; **galtzgile**, **langile**, **ongile**; **ibili**, **dabila**; **hila** 'morte'; **iskila** (Gz. **kiskilli**); **makhila**; **mile**; **zilharrezko**; e.a. Bustidura azaltzen duten formen esplikazio gisa hitz multzo itxia osatzen dutela proposatzeak (cf. 5.1.1.1.2.) ez du balio hemen: **hazilla**, **illorrichuria** 'l'aubépine' (**ilhorria** 'l'épine'), **illuba** (eta **lloba** 'le neveu': ik. III.4), **millika**,

¹ Hiztegian (188. orrialdetik aurrera) bustidura gutxiagotan markatzen du. Askotan despalatalizazio kasuak diruditenak ere agertzen dira (**Espainia**). Sarritan gramatikan zehar aipatutako hitzak bestelako aldaeraz azaltzen dira: adib., **arretchea** (143), baina **aratchea** (191). Hemen dagokigunaz ere badako aldaketarik: **eiherazailak** (119)/**eiherazaina** (192), **eskuñeko** (69)/**eskuina** (193), **zailak** (34)/**zaina** (193). Dena den, ez ditu erabat kentzen asimilazioak: ezin da ondorio sistematikorik atera.

² Hasperena ozen palatalen ondoren ere gerta daiteke: **bilakabide** bien arteko erlazioaz, II.4.3.

ukhubilla/ ukhumullu. Lexikalizazioz, mailegatuz (Gz. **botilla**, **cartilla**, **cochenilla** 'cochenille') edo bestela, zenbait sabaikari, asimilazio erregelarik gabe ere, euskalki honen hots egituran daudela onartu beharrean gaude. Ikusi beharko litzateke morfema mugek alternantziarik eskaintzen duten (cf. adib., **kinkillari**: atzizikia ez da, noski, beti *-//ari/* izango, bustidura asimilazio kontua bada).

7.1.1.1.2. **n / l** — V.

Agertzen da sudurkari sabaikaria ingurune honetan: **burdiña** (Gz. **burduña**), **chardiña**, **erregiña**, **espartiña**, **hariñatsu** 'sabloneux', **iñharbat**, **iñurria** (eta **chinhaurria** bustidurarik gabe, beharbada hitz hasierako kontsonante palatalagatik), **marñela** (Gz. **marinel**), e.a. Ikusten denez, ez dago silaba mugarik bokalartean izkutaturikako sudurkaria **l**-ren ondoren **ñ** bezala agertzeko (cf., berriz, 5.1.1.2.) ere. Batzuetan, halere, sudurkari palatala mallebatua izan daiteke (**biñabesia** 'la vigne'?, Gz. **iñorant** 'ignorant').

Ezin da, ordea, esan bustidura derrigorrezko bilakabide automatiko bezala azaltzen denik, asko bait dira ingurune honetan egonagatik bustidura markarik gabeko sudurkariak: **adina**; **chiminoa**; **ginateke**, **zineztekete** (cf. hitano fem. **diñagu**); **girstino**; **machina**; **magina**; **mina**; e.a. Zaila da guztioz multzo batean batuko dituen arrazoirik aurkitzea. Ez dago bustiduradunen multzotik bereizten duen ezaugarri fonetikorik. Morfologiaren aldetik, ezin da esan morfema muga bakarrik edo morfema muga ezik gertatzen dela asimilazioa, multzo bietan bait daude morfema egiturari dagokionean diferenteak diren adibideak (cf. **espartiñ+a/chardiña+**, **min+a/magina**). Hitzaren bilakabide historikoak ere ez ditu gauza handirik

argitzen (cf. **harriña**–/**chimino**). Egon daitezkeen grafia arazoak alde batera utzita, lexikalizaziora jo behar da bi multzoen arteko ezberdintasuna ulertzeko.

7.1.1.1.3/4. **d** eta **t** ez dira asimilazioz bustitzen.

7.1.1.1.5/6. **ś**, **s** / **l** ____ V.

Txistukari frikariak ez dira asimilazioz bustitzen: **giza**, **gizon**; **izurria**; **gisua**, **gisulabea**; e.a. Palatala hitz batzuetan txistukari apikariaren ordeaz azaltzen da: **ichil**, **ichouri**; **pichastrin** 'la vessie' (< *pis(a)* ?). Egia da azken honen jatorrizko hotsa bizkarkaria ere izan daitekeela. Gainera, goragoko adibideetan ikusi denez, ez dira beti bustitzen apikariak ingurune honetan: ez dago asimilazio bilakabide fonologikorik, zenbaitetan lexikalizatu egin den ahoskera palatala baizik. Izan ere, zabaldua daude oso emandako adibide bustiduradunen aldaera horiek (cf. 5.1.1.1.5/6).

7.1.1.1.7/8. **tś**, **s** / **l** ____ V.

Archu-ren datuen arauera, afrikatuak ez dira bustitzen ingurune honetan eta beste zenbait euskalkitan palatal apikariaren ordeaz sabai-aurrekoa duten hitzak ere bustidura markarik gabe idazten ditu: **itsasua**, **itsousi**, **itsu**. Gèze ez dator bat, ordea: **itchas**–**gaztaña**, **itchaso**; **itches** 'bouleversement'; **itchousi**, **itchouste**; e.a. VII.6.erako uzten dira Ar. **zerbitchatu**/Gz. **cerbutcha**, **cerbutchatze** (VII.6.745.).

7.1.1.2/3. Kontsonante aurea eta hitz azkena (/ ____ (C, #)).

7.1.1.2/3.1. **l** / **i** ____ (C, #).

Ez dirudi ingurune honetan asimilazioa gertatzen denik, nahiz eta hitzen batean bilakabidearen arrastorik aurkitu (**abil**): **chirchilkeriak**, **ildo**, Gz. **ichil**. Bokalaurrean gertatzen dena ikusita, haxe da, noski, ingurune honetarako espero daitekeen egoera.

7.1.1.2/3.2. **n** / **i** ____ (C, #).

Sudurkaria ingurune honetan agertzen duten adibideen arauera ere, ez dago asimilaziorik: **bardin**, **hargin**, **indarra**, **irin**, **ispilinba** (sic) 'l'épingle', **zinkha**, e.a.

7.1.1.2/3.3/4. **d** eta **t** ez dira asimilazioz bustitzen.

7.1.1.2/3.5/6. **ś**, **s** / **i** ____ (C, #).

Txistukariak ere ez dira beti asimilatzen Archu-ren idazkeraren arauera: **adiskidea**, **aldizka**, **begizpala**, **bizkhar**, **iskiribatze**, **ispilinba**, **istoria**, **izkerreko**, **khrisketa** (cf. G *krixketa*), **kristalen**, e.a. Aurkitzen dira bustiduraz idatzirikakoak ere: **adichkidetarzuna**, **hichtua** (eta **chistua**, cf. 7.1.1.1.2. **chinhaurria**), **pichka** (erraz izan daiteke adierazgarri). Are gehiago, besterengan: Larr. **adixkidegúa** (Azkue-ren *adiskidego* zuzenduaz), **arríxk** 'risque'.

7.1.1.2/3.7/8. **tʃ, ts** / **t** ____ [C, #].

Ez da jaso ingurune honetako afrikaturik aztertutako testuetan ³.

7.1.2. **j** / ____.

Bokalerdiaren ondoren askoz oparoagoa da bustidura asimilazioa bokalaren ondoan baino. Hitz askotan, ordea, zaila gertatzen da agertzen dena asimilaziozko ala bestelako bustidura den jakitea. Izan ere, bokalerdia sarritan suntsitu egiten da ondoren palatala duenean, asimilaturikako eta bestelako palatalen azaleko itxura berdinduaz. Bestalde, beharbada berdintze horrexegatik, bustidura adierazteko **t** eranstean zaila kontsonante palatalaren grafiari (cf. **gordalluan/oillo**).

7.1.2.1. Bokalaurrea (/ ____ V).

7.1.2.1.1. **t** / **j** ____ V.

Ziurraski, **oillo** bezalako grafiak ingurune honetako asimilazioaren oparotasunaren ondorioztat hartzea ez legoke desbideratuegia; baina, batez ere, kontuan izan behar dena da ortografia frantsesaren eragina (FHV 196, 30. oh.): **arroilla** (bearn. *arroulhe*; Gz. **arrolla**), **karakoilla** (cf. b.e. *karakola*), **martellu** (lat. *martellus*), **oillo** (lat. *pullus*, gazt. *pollo*; Gz. **ollo**).

Irristari palatalak albokoarengan izan dezakeen eraginaren adibide: **baranthailla** (eta **otsailla**), **uztailla**; **gordalluan** (cf. b.e. *-gailu*); **huillantzea** (= *hurbiltzea*); **mallua** 'le maillet' (baina cf.

³ Egun Atharratze-n entzun daitekeen euskaran (*haztilz* hitzaren azkeneko afrikatuak, erabat bustia ez bada ere, oso sabai aldera jotzen duela esango nuke.

VII.1.72.); **marhaillo** 'sourde' (cf. Lh. *marhafo* 'enroué'). Archu-
 rengan salbuespen itxura duten zenbait adibide bustiduraz azaltzen
 zaizkigu besterengan: **arradalla** 'le regain' (Gz. **arradall**; cf.
 VII.1.24.); **bella** (*botoa*-ren sinonimo); **dallua** 'la faux' (Gz. **dallu**;
 cf. VII.1.24.); **emalle**, **chur zailea** (Gz. **erhalle**; morfema muga?);
kapusella 'le capuchon' (cf. G *kapusaia*; cf. VI.1.29.); **maila**;
mailegua.

7.1.2.1.2. n / j — V.

Sudurkaria busti egiten da ingurune honetan, baina batzuetan,
 bustidura ez da markatzen: **artzañak**, **eiherazañak** (**eiherazaina**);
gañean (**gainen**); **oiñak** (**oinez**); **zaiñak** (**zaina**); **zeiñetan** (cf.
zointan); e.a.

Salbuespenak Gèze eta Larrasquet-engan ere agertzen dira, adib.:
 Gz. **amouina**, Larr. **âmûy'nâ** 'aumône'; Larr. **âmûynê(r)o** 'mendiant',
 e.a.⁴

7.1.2.1.3/4. d eta t ez dira asimilazioz bustitzen.

7.1.2.1.5/6. ś, s / j — V.

Archu-ren datuen arauera, badirudi ez dagoela bustidurarik:
amaizuna (cf. Err. **amaxún**), **leizalea** (*irakurzalea*: kontuan izan
 morfema muga), **leizarra** (baina Gz. **lechar**), **leizorra**.

⁴ Archu-rengan gehiago dira bustidura markarik gabeko jnV hurrenkerak. Batzuetan beste
 batzuetan baino nabariago bada ere, erabat harturik susmagarria da ez ote duen askotan in [ŋ]
 adierazteko erabiltzen (cf. **keinua**, **koinata**, e.a.).

7.1.2.1.7/8. **tś, ts / j** — V.

Bustiduraz oso zabaldua dagoen *bakoitz*- hitzaren aldaeretatik kanpo (**bakoitchaz**, e.a.), ez dago bustidurarik: **aitzinago**, **ebiakoitza**, **gaitza**. Aipagarria da Gèze-rengan -bustidura markatzean fidagarriagoa dela dirudielako, batipat- «*bakhoitz* et *bakotcha*» (267.1. or.): emankorragoa izan al da asimilazio hau bokalaurrean? Cf., dena dela, hitz honen bustiduraz orain arte esandakoak (4.1.2.1.7/8).

7.1.2.2/3. Kontsonante aurrea eta hitz azkena (/ — (C, #)).

7.1.2.2/3.1. **l / j** — (C, #).

Gèze-ren adibideen arauera, ez dirudi ingurune honetan asimilazioak oztopoak dituenik: **escall** 'écaille' (?); **irall**, **irallite** (cf. **iralli**, b.e. *irauli*).

7.1.2.2/3.2. **n / j** — (C, #).

Egon daiteke asimilazioa kasu honetan ere, nahiz eta Archu-ren txandakatze batzuen arauera bokalaurrekoa baino mugatuagoaren itxura izan dezakeen (cf. **escuñeco/escuñ**, baina Gz. **escuñ**; **zeiñetan/zointan**; baina Gz. **zouñ**; **artzañ**; **beza(i)ñ**; Gz. **ouhouñ**, **ouhouñkeria**; Gz. **lukhañka**; **plaiñ**; **zañ**; e.a. Bustidurarik gabe agertzen da **aingura** 'l'ange' (ik. FHV 198, 33. or. ere).

7.1.2.2/3.3/4. **d** eta **t** ez dira asimilazioz bustitzen.

7.1.2.2/3.5/6. **ś**, **s** / **j** — (C, #).

Ez dago asimilaziorik. Nabarmena da beste euskalki askotan bustiduraz (lexikalizaturik?) aurkitzen den *(h)aizkora* bera ere txistukari hortz-hobietakoaz azaltzea hemen: **aizkora**, Gz. **aiscora**. Hori onartuez gero, noski, **gachtoa** bustidura adierazgarritzat hartu beharko da. Cf., dena dela, Larr. (art)**háxtūr**, **axkó(r)a**.

7.1.2.2/3.7/8. **tś**, **ts** / **j** — (C, #).

Adibide bakarra badugu ere, pentsatzekoa da onartzen dela afrikatuen bustidura ingurune honetan ere: **begi-bakoich** -sic- (cf., dena dela Gz. **bakholtz**, 7.1.2.1.7/8).

LABURPEN/ONDORIOAK:

Egoera iluna agertzen digute datuok. Zalantzarik gabe esan behar da zubereraz badagoela bustidura asimilazioa, egon dela behintzat, nahiz eta dagoeneko edozein ingurunetan salbuespen garrantzitsuak aurkitu. Bokalerdiaren ondoren da oparoegoa asimilazioa eta kontsonante aurrean gertatutakoaren arrastorik ere gelditzen da. Oro har, hitzen historiaren arauera lexikalizatu ahal izan direnak dira testuetan bustidura markaz jasotzen direnak.

VII. BUSTIDURA ADIERAZGARRIA

VII.0. *Bustidura adierazgarria* ez da, beharbada, izenik egokiena, hemen jasotzen direnak ez bait dira beti bustidura adierazgarriaren ondorio (cf. IV.3). Hain zuzen ere, lan honen jomuga⁷ da adibideen bidez ikustea nola euskaraz gertatzen diren hots palatalak ez diren denak edo asimilazio aurrekariaren edo bustidura adierazgarriaren fruitu. Alde batetik, *adierazgarri* izena gordetzen da, *adierazgarri* eta antzeko izenak gure artean asimilazio ez diren bustidurez aritzeko ohizkoenak direlako; bestalde, nolabait bustidura adierazgarria mugatu eta finkatu egiten delako adierazgarri ez direnak bereiziaz. Adibideak aurkeztean, ez da iruzkinik idatzi ageriko arrazoirik ez dutenen (edo aurkitu ez zaien) ondoren.

Bustidura adierazgarria ez da asimilazioaren mallako bilakabide fonologikoa (ik. I.3.) eta euskalkiak zehar ez dago diferentziarik aldakuntzaren moldatze edo egituratze fonologikoari dagokionean, esan daiteke *arava* berdina dela euskara guztietan. Hartara, adibideen aurkezpena ez da euskalkiz euskalki antolatu, hitzez hitz balzik, adibideen azterketa eta eztabaldari emanez garrantzia. Euskarazko hizkerak zehar azaltzen diren hots palatalen arrazoiak bilatzen dira eta, arrazoi horien bidez, goraxeago alpatu bezala, bustidura adierazgarriaren ezaguera osoagoa. Idazkeraren aldetik, ahal izan denean testu bakoltzean agertzen dena errespetatu da, ik. hontaz VI. kapituluari emandako esplikazioak. Idazkera ezberdinek lanaren aurkezpena astunagotu edo sailkapena

ilundu zezaketenean, euskara batuaren idazkera erabili da bereizkuntza fonetikoek uzten duten neurrian.

Adibide bakoitzaren ondoan zein testutatik atera den ipini da. Testuan agertzen den aldaera diferentea denean, testuaren erreferentziaren ondoren idatzi da; sarrera ere agertzen bada, gurutze (+) bat jarri da gainerako aldaeren aurrean. Beltxazkaz daudenak testuetatik atereak dira. Itzulpenak ere testuetatik jaso dira; testuan itzulpenik ez denean gaztelerazko esanahi ezagun edo erabilienetako bat aukeratu da orientazio gisa batipat (cf. (19. eta 20.) *bella*, adib.).

VII.1. [ɛ] alboko palatala

1.- **abantalla** 'ventaja'

L (Elk.); Z (Gz.)

Erromantzetik mailebatuaren itxura du (cf. Lh. s.v. *abantaila*). Cf. gazt. *ventaja* (< fr. *avantage*). Cf., eusk. [ɛ] / gazt. [x] korrespondentzia: eusk. *espillu* / gazt. *espejo*, eusk. *tella* / gazt. *teja*, e.a. ere.

2.- **akullu** 'aguijada'MS (Don.) **akulluba**; Err. (M 1954); Z (BS) **akhū'liū**

Bustidura erromantzearen bilakaerari dagokio. Jatorria lat. *aculeus* da azken buruan eta euskaraz aurkitzen dugun palatala erromantzeko *-l/-* > [ɛ] bilakabideak esplikatzen du. Euskarazko bustidurarik gabeko aldaerak despalatalizazioak sortuak dira: TE **akulua**, **akulularixa** 'el boyero' (cf. FHV 196, *akulu*). Albokoaren aurrean *l* ere azaltzen da batzuetan (B *akillo*, L *akilo*), baina belare edo ezpainkarien inguruan ohizkoa da *l/u* elkarren ordeztzea: B *akillo* bezalakoetan ez dago, beraz, asimilaziorik (cf. M 1974, 189 eta FHV loc. cit.).

3.- **Allaman** (etxe -?- baten izen prop.)

Zar. (M 1967)

Mitxelena-k (1967, 167) zaraitzueraz esaten duena -hots bustiak oso maiz gertatzen direla goititzen eta leku izenetan ¹, alegia-

¹ Askotan, noski, etxeen izenak jabearen edo maisterraren izen, ogibide edota goitizenetik datoz (alderantziz ere gertatu ohi da). Azpisail honetakoen azterketa lan honen mugetatik ate gelditzen da. Testuetan agertutakoak zerrendatu eta gainerakoetatik bereizi besterik ez dugu egingo.

gainerako euskalkiez ere esan daiteke. Kasu honetan izen palataldunaren jatorria *aleman* izan daiteke.

4.- *allega* 'ilegar'

AV (Bermeo...) **alléga**; MS (Don.) **alleaitzia**; L (EIk.)

ellegátzea; BE (Baz.); A (Cat.) **ellegatcen**

Mailebatua da palatal hau: cf. gazt. *ilegar* (< lat. *plŭcare*), *allegado*.

Lat. *p/-* > gazt. [ɸ] bilakaeraren ordain zuzena da euskarazko alboko palatala hitz honetan (ik. Menéndez Pidal 1973, 126-127 C[-ahots]⁺ taldeen bilakaeraz: cf. lat. *pluvia* > gazt. *lluvia*, lat. *plenu* > gazt. *lleno*, e.a.).

5.- *alliko* 'ovillo'

Err. (M 1954); Z (Ar.) **haillikoa**, (Gz.) **halliko**

Cf. GN L (h)**arilko**, **harilgo** (M 1954): ɸ ez da albokoaren kide bustia bakarrik, r eta f-rena ere izan daiteke (cf. V) 2. Hitz honetako palatalaren jatorria bustidura adierazgarria izan daiteke (atzizki txikigarri bati laguntzen zion ahoskera txikigarria?); baina, esanahiari begira, ez dirudi erabilkera adierazgarria *sensu stricto* izan dezakeenik.

6.- *allorba* 'especie forrajera'

TE (Eibar)

² Archu-k [ɸ] III idazten du, noski, ez bait dago hemen r-ren bustidura besterik: cf. Gz. **dallu**, Ar. **dallu** ere; Ar. **karakoilla** (*karakola*-ren bustidura). Ez du beti honela idazten, dena dela: cf. **kullera** 'cuiller', **mallua** 'le maillet'.

7.- *allu* 'cunnus'

Zar. (M 1967)

Bustidurarik gabeko aldaera, *alu*, esanahi beraren ordaintzat ematen den arren, hitz honetako bustidura ia zalantzarik gabe adierazgarri direnetarikoa dugu: konnotazio mailan *ollo* edo (5.) *alliko* bezalakoetan baino errazago uler daiteke "adierazgarritasuna" honelako hitz batean (cf. IV. kapitulua hizkuntza bakoitzeko hitz "adierazgarriez", erabilkera metaforikoez, e.a.)³.

8.- *Alluz'ko* 'del Allutz' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

9.- *anillatzen* '?'

MS (Don.)

Ez dago garbi hitz honen esanahia, baina '*añila* ematen' izan daiteke, erropaz (gobaraz) ari bait dira. Gazt. *añil*-en metatesiak esplikatzen ote du alboko palatala?

10.- *anillo, anllu* 'anillo'

AV (Bermeo...)

Nahikoa da itzulpena hitz honetan agertzen den palatala mailebatua dela ikusteko. Azalean *i*-ren ondoren gertatzen bada ere, garbi dago ez dela euskarazko asimilazio bustiduraren ondorio eta ondorengo

³ Mitxelena-k honela azaltzen du zenbait formen bustidura: «Es más difícil de ejemplificar el contraste directo de *l*, *n* con *l'*, *n'* [trabarien kontrasteak baino]. Sin embargo, la palatalización debe ser expresiva, por ejemplo, en *allu*(...), *astaña*(...), *iñurri*(...), *añari*(...), *ap(o)añari*(...), etc.». (M 1967, 167). Zalantzarik gabe, ez dago adibide horietan (*iñurri* salbu) bustidura asimilazio bezala ulertez lezakeen *i*-rik eta gelditzen den bide bakarra da bustidura adierazgarritzat hartzea. Esanahiaren aldetik ere ez dira gauzak gehiegi bortxatu behar konnotazio mailan-edo hitzok aldaera adierazgarriak izan ditzaketela sinisteko (lehenengo adibidea da, beharbada, errazen ikus daitekeena ikuspuntu honetatik).

(11.) *apellidua* edo (13.) *arramilleta*-n aurkitzen diren alboko palatalak bezalaxe azaltzen dela hitz honetakoa ere.

11.- *apellidua* 'apellido'

TE (Eibar)

Mailebatua (cf. 10.).

12.- *arbolia* 'árbol'

TE (Eibar) (piñu-)arbolia

Ez dago garbi palatalaren arrazoiak. Inprenta hutsa izan daiteke.

13.- *arramilletabát* '... ramillete'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

14.- *atropellaturic* 'atropellado'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

15.- *bakallaua* 'bacalao'

TE (Eibar) **bakillaua**; PA (Mark.) **makallao**; MS (Don.)

bakallaba; Z (Ar.) **bakillaua** ⁴

Badirudi hitz hau leku guztietan esaten dela alboko palatalaz, nahiz eta gaztelerazko albokoa ez izan palatala. Badirudi mailebua (ez da err.) gaskoiaren bidez sartua edo izan daitekeela (cf. gask. *cabilhau*; Cor. s.v. *bakalao*). Euskarazko aldaera batzuetan albokoaren aurrean agertzen den *l* inguruneari zor zaien *l* / *u* txandakatzearen ondorio da (ik. gorago (2.) *akullu*). Hitzaren bilakaerari begiratuta, ez da,

⁴ Archu-ren III idazkeraz, cf. **haillikoa** (s.v. *alliko*).

beraz, i bokal palatala, hurrengo kontsonantea busti duena. Alderantziz, kontsonante (ozen) palatalak bultzatu bide du a (cf. gzt. *bacalao* G, L *bakallao*, *bakallau*; BN, GN, B *makallao*, *makallau*; GN, G *makallo*) i bihurtzeraino. Hau, zeharka bada ere, bustidura asimilazioaren indarra isladatzen duen bilakabide edo prozedura izan daiteke. Nolabait, l palatalaren aurreko bokala ixteak [ɛ̃] V katearen erregularitasuna aldarrikatzen duela pentsa liteke. Badu honek zerikusirik Hyman-ek (1970, 40) mailebuen barneratzerako (lexicalization) proposatzen duen arau batekin ⁵:

«When a foreign segment appears in an environment in which the equivalent native derived segment does not appear, then the form of the incoming foreign word is modified so that the structural description of that rule is met and the segment in question is then derived in the appropriate environment».

Hyman-en printzipioa ezin zailo besterik gabe ezarri euskal fonologiari, noski. Honen eztabaida zehatzagoa beste baterako utzita ere, aipatu behintzat egin behar dugu eragozpen bat. Euskaraz, asimilatutako (beraz derived) [ɛ̃] beti da diakronikoki bederen l baten ondorengoa. Baina badago mailebatua ez den beste [ɛ̃] -rik, fonologikoki eratorritzat (derived) hartu izan dena: forma adierazgarrietakoa ⁶.

16.- *balle* 'valle'

A (Cat.) **valle**

⁵ Kontsonante palatalek aurreko bokala ixteko duen indarra zehazki aztertzen du fonetikaren aldetik Pensado-k (1985, 641-642).

⁶ Bustidura adierazgarria eratorria den ala hiztegian agertzen den eztabaidatzea luze joango litzateke eta ez dagokio zuzenean gure lanari. Euskarazko bustidurari buruz hitz egin dutenen artean, Salaburu izan da -inplizitoki bederen- arazo honi erantzun dion bakarra, nahiz eta beste batzuk ere generatibismoan oinarritu beren gramatikak. Salaburu-ren (1984 II, 118 hh.) fonologian, forma palataldun adierazgarriak «hizkera adierazkorren arau»en bidez sortutako katea eratorriak dira.

Mailebatua (cf. 10.).

17.- Ballero (etxe -?- baten izena)

Zar. (M 1967)

Ik. gorago 3. *Allaba*.

18.- batalla 'batalla'

PA (Mark.) **batallatan**; L (Elk.) **batállan**; Z (Gz.)

Mailebatua (cf. 10.).

19.- bella (1) 'vigilia'

EF (Ataun) **bellâ** 'de ronda'; BE (Baz.) **vellan**

Pentsatzekoa da alboko palatala lat. -gʷ/- taldearen bilakaera erromantzearen ordain ote den (cf. gazt. *vela* <lat. *vigilia* ere) ⁷. Zaila da forma honen nondik norakoa jakitea. Euskaraz i despalatalizazioa duten euskalkietan bakarrik agertzen da (Azk. baztangoa ere *beila* idatzia dago, baina cf. Azkue-ren grafiez V.lean esanak).

20.- bella (2) 'blando, puesto a remojo'

Err. **bella(tu)**, Z **bélla**, **bellatū** (M 1954)(Gz.)

Cf. b.e. **bera**, **beratu** (M 1954). Jatorriz behintzat izan daiteke adierazgarria hitz honetako bustidura. Esanahia kontuan izanda, erabilkera adierazgarria izateko egokiak direnen artean sartzen dela esan genezake. Hizkera beraren barnean r-dun eta ʀ-dun aldaerak erabiltzen diren neurrian izango da oraindik adierazgarri (cf. IV).

⁷ Cf. Errioxako erromantzean -gʷ- > bilakaeraz Alvar 1969, 45-46.

21.- *bellarri* 'oreja'

PA (Mark.) **bellarri**jac (eskuizkribuko 137. or.): testu in-primatuan **belarri**jac agertzen da eta ongi zuzendua bide da (ik. M 1978-79, 213; cf., gainera, testu bereko **belarlucia**). Beraz, idazlearen okertzat jo behar da albokoaren grafia bikoitza. Izan ere, zaila litzateke adibide honetan ebakera palatalari arrazoirik bilatzea.

22.- *bello* 'calentito'

Z **bé**llo Err. (M 1954)

Cf. Z **bé**(r)o, Err. **bero** (M 1954). Ematen diren itzulpenak 'calentito' eta 'caliente' dira: lehenengoa bustiduradunari eta bigarrena bustidurarik ez duenari dagozkien neurrian esan daiteke bustidura erabat adierazgarria dela.

23.- *botilla* 'bouteille'

Z (Gz.)

Euskalki honetan ez da albokoa bokalaren ondoren asimilatzen (ik. VI.7). Cf., gainera, G, e.a. *botella* Beharbada, *bakillaua*-z esan bezala (ik. 15.), kontsonante palatalaren eraginez itxi da **e** bokala (cf. *itxura*, e.a.). Hitz honen aldaera despalatalizatuez, ik. Gavel 1920, 484 eta FHV 195.

24.- *dallu* 'faux'

Z (Gz.)

Badirudi jatorria biarn. *dalha* dela. Ez da, beraz, asimilazioa: cf. biarn. *arredalh* > Z (BS) **ardá**ll 'regain' (BS 63); biarn. *arroulhe* > Z **arró**lla (BS 67).

25.- *donzella* 'doncella'

PA (Mark.) **doncellia**; L (Elk.) **doncella**
Mailebatua (cf. 10.).

26.- *ellemúlsuac* 'el reducido ejército' (?)

L (Elk.)

Beharbada txikitasunarekin lotutako bustidura adierazgarria du jatorri hitz honetako bustidurak.

27.- *élo* 'loco'

Err. (M 1954)

Cf. b.e. **er(h)o** (M 1954). Izan daiteke hizkera adierazgarri, bihozkorrean erabilitako bustidura izatea. Biak mintzo berean erabiliko balira (esanahi bereizkuntzaz) litzateke benetazko bustidura adierazgarria. Ik. (7.) **allu** ere.

28.- *éllu* 'mosca'

Zar. **eulli**, Err. ⁸ (M 1954); Z (Gz.) **ullu**, (Ar.) **ulli**-

Cf. b.e. **(e)uli** (eta FHV 90, 98-99): esanahiaren aldetik, ezin da esan adierazgarritasuna nabaritzen denik, are gehiago euskalki bakoitzaren barrenean forma bakarra erabiltzen bada. Beste gauza bat da, ebakera palatalaren sorrera (diakroniaren aldetik) adierazgarria izatea (beharbada txikitasunarekin lotua: cf. **iñurri**, e.a.) ⁹.

29.- *erdolla* 'rouille'

Z (Gz.); BE (Baz.)

⁸ **eu** > **e** bilakabidea ez da erronkarietaz bakarrik gertatzen (ik. M 1954, 135-6).

⁹ Forma diptongodun eta beste en artean **eillu* egon daitekeela proposatzen du Mitxelena-k (loc. cit.), baina berau ere **eullu* batetik letorke eta hemen ez dago bustidura asimilazioz justifikatzerik.

Cf. G *erdoia*: bokalarteko *yod*-en indartzearen ondorio ote da adibide honetako albokoa (cf. *sailatu* e.a.: FHV 176, 16. oh.).

30.- *eskillerartan* 'en aquella escalera'

IZ (Alts.)

Cf. b.e. *eskallera*, Z (Gz.) **eskaler**, (Ar.) **eskalera**. Hemen ere bokalaurrean dagoen alboko palatalak bultzatu bide du bere aurreko a bokala i bihurtzeraino, beharbada bustidurak eraiki duen i ϵ V ereduari jarraiki. Bestalde, (15.) **bakillaua** -rekin gertatzen den bezala, i bokalaren ordeztu besterik ebakitzen den euskaretan ere entzun daiteke alboko palatala (*eskallera* euskaraz oso zabaldua)¹⁰. Bestalde, ez dago dudarik bokalaren nolakotasun edo timbre aldaketaz (cf. gazt. *escalera*, lat. *scalaria*).

31.- *eskolla* 'escuela'

TE (Eibar) +**eskolan**

Cf. b.e. *eskola*: Z (Gz.), e.a. Moldiztegi hutsa bide da.

32.- *espillu* 'espejo'

ROL (Mark.); TE (Eibar) **espillua**; L (Elk.) **hispillu**

Cf. lat. *spēc(ŭ)lum* (-k'/- > - ϵ -). Hitzaren jatorriari begiratzen badiogu (azken buruan, lat. *spēc(ŭ)lum*), e > i gertatu dela ikusten da. Albokoa ez da bustia aurreko bokal palatalaren eraginez¹¹. Bestela esan, ez da gertatu bustidura asimilazio aurrekaria. Latinezko -k'/- taldearen bilakaera gazteleraz eta gainerako

¹⁰ Cf. Errenteriako *eskailburu* 'descansillo' (Mitxelena irakasleak, zuzenean; beretzat *eskailburu* omen da ebakera ohizkoena).

¹¹ Alegia, ez euskarazko hitzean albokoaren aurrean agertzen denaren eraginez, nahiz eta palatalizazioaren historian irristari palatalak eragindako asimilazio aurrekaria gertatu (ik., adib., Menéndez Pidal 1973, 159).

erromantzeetan ere alboko palatala izan zen (cf. Cor. s.v. *espejo*). Alboko palatalaren eraginpean itxi bada bokala, bustidura asimilazoaren **1** V eredura egokituz, bustidura asimilazioak testuinguru honetan l-arentzat duen oparotasuna azpimarratzen dela pentsa liteke (cf. 3. *bakillaua*). Mailebatua dela garbi ez balego ere, zaila litzateke L-ren **hispillu** asimilazio bezala azaltzea, ez bait dirudi ingurune honetan asimilazio bustidura oparoa denik berak idazten duen euskaran (cf. VI.4. **ilun'dúra mutilac**, e.a.).

33.- *Estelláa* 'a Estella' (top.)

IZ (Alts.)

Besterik gabe, gaztelerazko ahoskeraren mailebatzea izan daiteke.

34.- *fardell* 'fardel'

TE (Eibar) + **fardela**

Bustidura bera ere erromantzeren baten bidez mailebatua izan daiteke (cf. Cor. s.v. *fardo*).

35.- *folla* 'bolsa'

Err. (M 1954)

Hau ere mailebatua bide da (cf. M 1954, 148).

36.- *Gallant* (etxe -?- baten izen prop.)

Zar. (M 1967)

Ik. **Allaman**.

37.- *galleta, galletiaz* 'galleta'

PA (Mark.)

Mailebatua (cf. 10.).

38.- *gibellian* 'derrière'

Z (Ar.)

Cf. b.e. *gibel*-.

39.- *Gollibar* 'Bolívar' (top.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

40.- *grillo* 'grillo'

L (Elk.)

Esanahiak erakusten du mailebatua dela. Gainera, euskara honetan asimilazioa ez da oparoa ingurune honetan (cf. VI.4). Cf. 10.

41.- *holli* 'jaune'

Z (Gz.)

Ez da adierazgarria, mintzo honen barruan ez bait da oinarritzkoa litzatekeen *hori* esaten (*hori* 'celui-là' beste hitz bat da, noski). Beste gauza bat da, ikuspuntu diakronikotik bustidura honen sorrera adierazgarria izatea eta inoiz *holli horixka*-ren ordain izatea.

42.- *hullan* 'proche', 'près'

Z (Gz.)

Ikuspuntu diakronikotik, dardarkariaren bustiduratik letorke (gertutasunarekin lotutako adierazgarritasunaz?).

43.- *humillatu* 'humillar(se)'

L (Elk.) **humillatzendeláic**

Hitz hau mailebua dela oso garbi egoteaz gainera, Lizarragarengan ez da asimilaziorik gertatzen ingurune honetan erregulariki (cf. **habillidáde**, adib.). Cf. 10.

44.- **ikullua** 'cuadra'

EF (Ataun)

Cf. *ukullu*, *oke(l)u*, *okullu*, e.a. (FHV 83). Zaila da eman izan diren etimoak onartzea (lat. *locū lum*) eta honetarako arrazoiak formaren aldetik eta esanahiarenetik datoz (cf. FHV loc. cit.)¹². Ezin da, beraz, [ɛ] lat. -k'- taldearen bilakaera erromantzea dela medio esplikatu besterik gabe. Bestalde, hitzaren egitura sintagmatikoari begira, ezin da inola ere asimilazioaz pentsatu; eduki edo esanahiaren aldetik ere ez da errazagoa adierazgarritasunaz baliatzea palatala justifikatzeko.

45.- **ille** ik. **ulle**

46.- **illoba** 'sobrino'

L (Elk.) **ellebabat**; Err. Z **ilóba** (M 1967 =Z Gz.), Z (BS)

arrallóba 'pétit-neveu, pétit-nièce', Z (Ar.) **lloba**, **illuba**

[bigarrena, hiztegian]

Cf. Zar. **lloba**, A **elloba** (M 1967) . Err. **ilóba**-ri dagokionez, badirudi */i/- tik datorrela (M 1954, 148-9). Ik., asimilazio aurrekari eta atzekariaz, III.4.

47.- **kaballero** 'caballero'

¹² Cf. M 1969, 28: hitz honen aldaeren esanahiak nahikoa ezberdinak izan daitezke: 'caballeriza, establo, cuadra' vs. Alts. 'prado junto a la casa'. Azken esanahia BN Z ere bai (FHV loc. cit.).

MS (Don.); L (Elk.) **cavallero**bát****; AV (Bermeo...) **kaballu**

'caballo'

Mailebatua (cf. 10.).

48.- *kanilla* 'canilla'

MS (Don.) **kanillatik**

Nahikoa da itzulpena bustidura mailebatua dela ikusteko. Cf. gazt.

caña, bustidura disimilazioa gazteleraz gertatu bide da (ik. M^a Mol.

s.v. *canilla*). Cf. 10.

49.- *canciller* 'canciller'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

50.- *capúllo* 'capullo'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

51.- *cartilla* 'cartilla'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

52.- *castellurá* 'al castillo'

L (Elk.)

Cf. lat. *castellum*. Latinezko **l** bikoitzaren ordaina [l] izan ohi da euskaraz (cf. *gaztelu*; ik. M 1964, 21), grafia etimologikoa izan daiteke hau.

53.- *casullabát* '... casulla'

L (Elk.)

Nahikoa da itzulpena bustidura mailebatua dela ikusteko.

54.- *Kelle, Kele* 'Clemente' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

55.- *kerella* 'querella'

PA (Mark.) **querellaren, querellia**

Mailebatua (cf. 10.).

56.- *kollara* 'cuchara'

PA (Mark.); TE (Eibar) **kollaria, kollarakadia** 'cucharada'; Z

(Ar.) **kullera**

Cf. IZ (Alts.) **kollera** (despalatalizazioz). Euskal eremuaren ertz bietan, zubereraz eta bizkaieraz, aurkitzen da alboko palatala duen forma eta halakoa bide da Sakanako despalatalizazioak oinarri duen eredua ere. Hitzaren latinezko jatorria aintzakotzat hartuta (*cochleare*), pentsatzekoa da palatalizazioa erromantzezko bilakabideari dagokiola, euskarazko formaren iturburua arag. zah. *cullar* da Menéndez Pidal-en (1962, 28) ustez. Izan ere, gazteleraz (eta ez euskararen inguruko beste zenbait erromantzetan) izan zen [tʃ] **Ij** taldea kontsonante ahoskabearen ondoren egotearen ordaina: cf., bizirik dirautenen artean, fr. *cuillère*.

57.- *konsellu* 'conseille'

Z (Gz.)

Mailebuaren ordaina da, lat. *-l-* taldearen bilakaera erromantzea, alegia: gazt. *consejo* ([x]) belaretu egin den alboko palatal bera (< lat. *conselium*) Cf. 2.

58.- *costillatic* '... costilla'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

59.- *kurriilo* 'grulla'

IZ (Alts.)

Ez dago garbi gaztelerazkoarekin zerikusirik izan dezakeen (gazt. albokoaren jatorria ere ez da ulertzen; palataltasuna *suya*-koa bezala esplikatzen da, cf. Cor. s.v. *grulla*). Dena dela, aipagarria da forma honek ez duela erakusten Altsasuko euskarari dagokion despalatalizazio araua (cf. **ailau**, **kutxilo**, e.a.). Grafia hutsa izan daiteke, baina baliteke despalatalizazioak salbuespenak izatea. Beharbada, despalatalizazio bilakabidea, palatalizazioa bezala, Indarra galduz doanaren seinale da hau. Haatik, horrelako ondorioak ateratzeko, batez ere arrazoiak bilatzeko, beste mota bateko ikerketak egin beharko lirateke: esate baterako, mailebu estratoen azterketak esango liguke mailebu berriagoak diren salbuespen bezala agertzen direnak ala ez ¹³.

60.- *ladrillu* 'ladrillo'Z (Gz.) **adrillo**

Mailebatua (cf. 10.).

61.- *llabur* 'corto, resumido'Z **llábur** (= Ar., Gz.), Err. (Bidangoze) **txabur**, Err. **llaburtu**

'resumen' (M 1954)

¹³ Aita Ondarra-k (1965, 405) Bakaikoako euskarari buruz argi eta garbi azaltzen du ez dagoela despalatalizaziorik, Zubigar-en *murrillu* forma zuzenduz: «Se dice *murrilu*, pues en Bac. no hay // ni ñ (...)».

Zubereraz hitz hasieran maiz aurkitzen da **ll-**: cf. Z (Gz.) **llapi**, **llepei** 'lapin', **llarhote** 'sauterelle', **llaudeta** 'alouette', **lloba** 'neveu, nièce', adib. Erronkarieraz ere beste euskalkietan baino sarriago gertatzen dela esango nuke (eta balio adierazgarri nabarmenik gabe: cf. VIII). Mitxelena-ren hitzetan: «Su empleo en inicial con valor afectivo se da sobre todo en los dialectos orientales (...)» (FHV 195). IV. kapituluan aipatu arrazoiengatik bihozkortasuna palatal hauen jatorrian legoke egungo esanahian baino areago.

Afrikatuz hasten den aldaerak erakusten du Mitxelena-k, B *txabur* dela eta, adierazten duena: «(...) se ve que [č] era, o podía ser, la variante fuerte de [l]'. Cf. cast. *lleno* < lat. *plenu*, pero *ancho* < lat. *amplu*, o *cincho* < lat. *cingulu*, como quiere Corominas, s.u.» (FHV 520).

62.- *llagagóiec*(= *llaga horiek*) 'llaga ...'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

63.- *Llanda* (etxe -?- baten izena)

M (Err)

Ik. 3. Allaman

64.- *llano* 'llano'

L (Elk.) «llano ta claroqui»

Mailebatua (cf. 10.).

65.- *llanóre* '¿'

IZ (Alts.): «Muberra dá menditi ekartzen dan arri fín bét, eta urá kutxilo bezela afílatuik patú ber, ez llanóre éz; ura púntiakín patú ber»

66.- *llarne* 'era'

Err. (M 1954)

Cf. b.e. **larr(a)in** (M 1954); erronkarieraz ere, Uztarrotzen *larren* aurkitzen da bustidurarik gabe. Cf. 61. **llabur** hasierako **ll**-az. Ez dago garbi hitza nondik datorren (ik. FHV 165, 19. oh. zenbaitek proposaturikako iturburuez).

67.- *lleprói* 'liebre'

Err. (M 1954)

Cf. Z (Gz.) **llapi**, **llepei** 'lapin'. Cf. 61. **llabur** hasierako **ll**-az.

68.- *llerko* 'pino pequeño'

Err. (M 1954)

Cf. Err. **ler** 'pino': kontsonante palatalaz gain, atzizkia ere badu: ez da hots sinbolismo soila (cf. Z **txákür/hor** eta 5. **alliko** ere). Cf. 61. **llabur** hasierako **ll**-az.

69.- *llilluratu* 'deslumbrado, fascinado'

Er. (Ast.)

Erabilkera adierazgarriako hitz aproposa (cf. IV., VIII). Segidan dauden bi silaba ozen palatal beraz hasteak ahoskera adierazgarriaren susmoa sendotzen du.

70.- *llollu* 'mala hierba'

Err. (M 1954)

Mailebatua (M-54, 148).

71.- *makallao* (ik. *bakallau*)

72.- *mallu* 'martillo'

EF (Ataun); TE (Eibar); PA (Mark.) **malluca**; Z (Gz.); ROL (Mark.)

mallo, mallotu

Hitzaren historiari begira (cf. lat. *malleu*), pentsa liteke latinezko alboko geminatuaren ondorio (erromantzea) daitekeela alboko palatala: cf. lat. *pullus*, eusk. *olla*. Gainera, Ij (< /e + V) taldea ere izan daiteke alboko palatalaren jatorri inguruko erromantzeetan. Ziurraski, hitz hau Aragoiko erromantzearen bidez sartu da euskaran (Michelena 1964, 110; Menéndez Pidal 1962, 28: < arag. *mallo*).

73.- *mallubi* 'fresa'

TE (Eibar) +**mallabixak, mallubixak** 'fresas'

Ez dago arrazoi garbirik bustidura honentzako ditugun datuen arauera. *Marrubi*-ren bustidura "adlerazgarria" dela bustiduraren iturbide bezala erabil daiteke (cf. M 1960, 241), garbi bait dago ez dela dagokigun asimilazio aurrekaria eta ez bait dugu ezagutzen hots bustia justifikatuko lukeen jatorririk. Fonetikoki ere **ʃ** da dardarkariari dagokion hots bustia, baina esanahiaren aldetik ezin da gauza handirik esan.

74.- *manillakin* '... manilla'

IZ (Alts.)

Mailebatua (cf. 10.). Ez da despalatalizatu Altsasuko euskaran (cf. 59. *kurriilo*).

75.- *milla* 'mil'

Err. (M 1954); L (Elk.)

Asimilazioa izan daiteke hitzaren egitura sintagamatikoagatik, baina ez erronkarieraz, ez bait dago asimilaziorik kasu honetan (cf. Err. **ile**, **ilinti**, **makila**: ik. VI.6. zatian euskalki honetako asimilazio bilakabideei buruz esaten dena). Cf. Z (Gz.) **mila**. Mailebatua izateak esplika dezake asimilazio bustidura ez duten euskalkietan ere alboko palatala aurkitzea hitz honetan (ik. VI.1.1.1.1., cf. M 1954, 148; FHV 200: < lat. *milia*).

76.- *millika* 'lècher'

Z (Gz.)

Ez dira asimilazioz bustitzen ozenak bokalaren ondoren euskalki honetan (cf. VI.7). Hitz hau erraz har daiteke adierazgarritzat. Esanahiaren aldetik bustidura adierazgarria izateko aproposak direnen artean dago, cf. Z (Gz.) **gillikor** 'chatouilleux' ere.

77.- *mirakullu* 'milagro'

Zar. (M 1967); Z (Gz.) (Ar.)

Cf. Z **mi(r)aköllü**, b.e. **mirakulu**, **mirakuru** (M 1967 eta FHV 183). Hitz honen eta beste zenbaiten (cf. *soñu* eta *laño*) analisisia ez da gauza erraza. Batetik, garbi dago palatala ezin dela asimilazioaren bidez azaldu, bestalde, hitzaren etimoak, ezaguna izanik, ez du palatalaren arrazoirik eskaintzen. Esanahiaren aldetik ere ez dirudite hitzok erabilkera adierazgarria izateko aproposenetakoak. Dena dela, Michelena-k (1967, 172-3) dioen bezala:

«La distribución de **l**, **n** y de los fonemas mojados correspondientes **l'** y **n'** plantea difíciles problemas históricos. La palatalización expresiva, como la despalatalización, es espontánea y por tanto imprevisible: no tenemos aquí otro guía que una idea vaga y subjetiva, de su plausibilidad semántica (...). De aquí que en préstamos como en palabras

antiguas, se encuentren variantes con **l**, **n** y otras con **l**, **n** (...)»¹⁴.

78.- *mollegia* 'molleja'

PA (Mark.)

Mailebatua (cf. 10.).

79.- *mordollua* 'espeso'

TE (Eibar)

Zentzu txarreko adierazgarritasuna ote da palatalren jatorria?

80.- *mostillue* 'mostillo'

IZ (Alts.)

Cf. gzt. *mostillo*; ezin da asimilazioa izan euskalki honetan (despalatalizazioa gertatzen da, hain zuzen ere). Cf. 59. *kurrilla*, despalatalizaziorik ezaz.

81.- *imotell* 'ichicol'

EF (Ataun)

Erabilkera adierazgarria (bokatiboa) izan daiteke bustiduraren arrazoi. Agian, gainera, *mutilla*-n asimilazioz sortutako palatalaren eragin analogikoaz ere pentsatu behar litzateke.

82.- *motrollua* 'mortero'

TE (Eibar)

83.- *muéllia* 'el muelle'

¹⁴ Hau hizkuntza adierazgarriaren ezaugarria da: «(...) many etyma which escape the rules of phonetic correspondence can be explained as "spontaneous" deviations from the sound-laws, i.e. as originally expressive variants of emotionally neutral terms» (Stankiewicz 1972, 252).

IZ (Alts.)

Mailebatua (cf. 10.).

84.- *mullituric* 'masticado'

L (Elk.)

Cf. gazt. *mullido*?

85.- *obillua* '?' («gauza koskor beltz bat» MS 100)

MS (Don.)

Cf. gazt. *ovillo*?

86.- *ollo* 'gallina'

TE (Elbar) **olla lokiarri, ollasko, ollueri**; ROL (Mark.) **ollotu**;

AV (Bermeo...) **olluék** ¹⁵; PA (Mark.) **ollagorrac, ollandac,**

ollarraren ¹⁶; MS (Don.) **ollaskua**; EF (Ataun) **ollaarrak**; BE

(Baz.) **olloac, ollarrac**; Zar. (M 1967) **ollarko, ollasko**; Err.

(M 1954) **óllo, ollár**; Z (Gz.)

Cf. IZ (Alts.) **oillanda, oillarra**, e.a. (despalatalizazioz). Ziurrenik, mailebatua da albokoaren palataltasuna (cf. gazt. *pollo*; Gavel 1920, 330; M 1954, 148). Baina izan daiteke lat. *pullus*-en ondorio palatalizatu "adierazgarria" (M 1974, 198), egungo datuekin adierazgarritasun hori zertan zetzan jakitea zaila bada ere (cf. 60.

¹⁵ Ik. Holmer eta Abrahamson (1969, 179): S 21.17-ren lehenengo oharrean diotenez, hiztunak bere burua zuzentzean **óluéi** esan zuen eta, parentsesi artean, «probablemente **ólluéi**» eranstean dute (?).

¹⁶ Hitz hauek ez dira berdín idazten elkarriketa arruntean eta hitz zerrendetan. Adib., 175. or. an **oilloa** agertzen da, hitza (**goi**)+**lotik** datorrela adierazteko. 181. or. ko hiztegi zerrendan ere **oillua** eta **oilaarra** azaltzen dira, nahiz eta beheraxeago **ollagorra** azaldu. Cf., era berean, elkarriketako **gabillala** (180) eta hiztegiko **gabillala** (182).

mirakullu) Garbi dagoena da ez dela asimilazioa, i despalatalizazioa duten euskalkietan bakarrik bait dago ¹⁷.

87.- *ornillo* 'hornillo'

IZ (Alts.)

Mailebatua (ik. 10.). Ik. 59. *kurrillo* despalatalizatzen ez diren ozen hauei buruz.

88.- *pellak* 'tostadas' 'harina amasada y frita con huevo'

TE (Eibar)

89.- *pellíc* 'peligro' (part.)

L (Elk.)

Lat. *-k'í-* (*peric(u)lum*) > **ɕ** erromantzezko bilakaeraren ordaina izan daiteke bustidura, bigarren silabaren sinkopa onar baliteke: cf. gazt. zah. *periglum*, e.a. Badaude euskaraz hiru silabak gordetzen dituzten hitz honen ordainak ere: cf. *pellegru*, *pelleburu* ¹⁸. Azken buruan, (77) *mirakullu*-z esan bezala, ez dago garbi albokoen bustiduraren zergatia (FHV 183, 259). Cf. frantsesetik bide datorren **G** *perilla* ere (2.1.1.1.1.).

90.- *Pello* 'Pedro' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

91.- *pollit* 'bonito'

¹⁷ Espektrogrametan formakinek **i**-ren egitura agertzen dute **o** eta kontsonante palatalaren arteko transizioan, baina horixe da, hain zuzen ere, batetik besteratzeari: ez du segmentu edo ebakin baten nortasuna.

¹⁸ Hitzotako laugarren silaba anaptixis gehitzen da (ik. M 1974, 192).

EF (Ataun); Err. (M 1954); Z (Ar.)

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau. Bustidura adierazgarri bezala oparoa da egungo euskaran hitz honetako albokoaren palatalizazioa.

92.- *Pollit* (etxe -?- baten izen prop.)

M (Err)

Cf. 3. *Allaman*.

93.- *poltzilluban* '... bolsillo'

MS (Don.); EF (Ataun) **polsillon**

Mailebatua (cf. 10.).

94.- *sendagálla* 'orgullo, altanería'

L (Elk.)

Ik. 29. *erdolla* Meyer Lübke-ren (1923, 151) ustez, *-galla* latinetikako atzizkia da eta bilakaera erromantzeak azaltzen du albokoaren bustidura.

95.- *serbilleta* 'serbilleta'

PA (Mark.)

Mailebatua (cf. 10.).

96.- *silla* 'silla'

ROL (Mark.); AV (Bermeo...) **sillen**; L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

97.- *Sollubetik* (top.)

AV (Bermeo...)

Ik. 3. *Allaman*

98.- *sombrelluba* 'sombbrero'

PA (Mark.); EF (Ataun) **somprallu**

Fonetikoki euskarazko bustidurari dagokion aldaketa gertatu da (-r- > -**ɸ**-). Batzuetan pentsa daiteke bustidura hitza euskaratzeko modua dela, beharbada, azken buruko jatorria beste nolabaiteko adierazgarritasuna duelarik (cf. VII.4. *martta*)

99.- *subandilla* 'lagartija'

IZ (Alts.)

Ez da Altsasuko testuan despalatalizaziorik isladatzen (cf. 59. *kurriilo*)

100.- *tella* 'teja'

TE (Eibar) + **tellatuetan**, **tellatuetatik**, **tellerixia**; PA

(Mark.) (**buru-**) **tellatuba**; Er. (Ast.) **tellatuac**; BE (Baz.)

tellatuen; Z (Gz.)

Cf. IZ (Alts.) **tella** (despalatalizazioz). Alboko palatala lat. -g'/- (*teg(u)lla*) > err. **ɸ** bilakaeraren ordaina bide da (ahostundu ondoren -k'/- taldeak jasan zuen bilakaera bera funtsean, cf. gorago 32.). Gaztelaniaz [x]-ra iritsi da bilakaera horren ondorioa, baina euskarazkoa aragoiko erromantzeari mailegaturikako forma bide da. Corominas-ek hitz honen bilakaera gazt. *reja*-renarekin (< lat. *reg(u)lla*) parekatzen du eta alboko palatala duten forma erromantzeak zerrendatzen: *relha*, *rella*, *reille* ¹⁹. Dagokigun adibidearen kasuan ere, gaztelera zaharrean aragoiko erromantzeak gorde duen alboko palatala aurkitzen da, baita ere Nafarroako erromantzean (Menéndez Pidal 1962, 28).

¹⁹ J. Corominas, *Diccionario Crítico Etimológico*, s.v. *teja*.

101.- **tortilla** 'tortilla'

MS (Don.)

Mailebatua (cf. 10.).

102.- **trillabátean** '...parrilla'

L (Elk.)

Mailegua izan daiteke (cf. gazt. *trilla*).

103.- **trilladoraik** 'trilladora' (part.)

IZ (Alts.)

Ez da despalatalizaziorik gertatu: cf. adib., **kutxilo** (gazt. *cuchillo*), beharbada mailebu zaharragoa delako despalatalizatua (ik. 59. *kurriilo*).

104.- **txisillu** lk. *zizallu*

105.- **ullan** 'casi'

Z **hüllan** 'près, proche', Err. (M 1954)

Cf. L Zar. (h)urran (M 1954). Beharbada gertutasunarekin lotutako bustidura adierazgarria du jatorri.

106.- **ulle** 'cabello'

AV (Getxo), AV (Bermeo...) **ulíe** ²⁰

Cf. GN *elle*, Aezk. *eile* -desp.-, e.a. (FHV 70). Hitz honen b.e. *(h)ille* aldaerak asimilazioaz pentsaeraz dezake, baina ez u-dunak. Gavel-en (1920, 485) ustez hitz hau esanahiagatik erabilkera adieraz-

²⁰ « (...) la palatalización de la -/’-medial parece comprobar la existencia anterior de una / ante la / (...); se oye sin embargo también la pronunciación *ulíe* (esto es *ulea*) 'el cabello' (B[ermeo])». (Holmer eta Abrahamson 1968, 103).

garrirako aproposa denetakoa da (hilea mehea delako oso). Jatorrizkoa i-duna bada, asimilazioa izan daiteke bustiduraren jatorria (i / u elkarren ordeztu agertzea normala da eusk. zenbait testuingurutan), baina bestela ez.

107.- centella 'centella'

L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

108.- zerrallia 'cerraia'

TE (Eibar)

Cf. lat. *serratula*, gazt. zah. *cerraia* (Cor., s.v. *cerraia*): lat. -tʰ- > err. **ç** bilakaeraren ordaina, beraz (32.ko bilakaera bera, funtsean).

109.- zizallu 'escaño'

EF (Ataun); PA (Mark.) **txisilluba**

Cf. lat. *subsellium* (FHV 78): lat. -lʰ- > err. **ç** bilakaeraren ordaina izan daiteke, beraz (cf. 2.).

ZERRENDAN JARRI EZ DIREN BESTE ZENBAIT MAILEBU GARDEN.- Lizarraga Elkanokoarenak: **mellaric**, **muralla**, **sencill** (ez dago asimilaziorik i-ren ondoren, ez eta hitz azkenean), S. **Villibrordo**, **vallea**//Echenique-renak(Baz.): **Alleluya** (besterik gabe idazkera etimologikoa izan daiteke), **batallaraco**, **camello**, **doncellec**, **gargantillac**, **llaga**, **muralletaco**, **selloa**, **sencillo**, **sillac**, **talla**, **valletaco**.

VII.2. [ŋ] sabaiko sudurkaria

110.- *a(g)uña* 'cabrito»

Zar. *a(g)uña*, Err. *añe*, Z *ahũñe* (M 1967), Err. (M 1954) *aña*,
añe, *añu*

Beharbada, *-ña* txikitasunarekin lotutako atzizkia da ¹(cf. *a(h)untz* 'cabra', Larr. (BS) < *ahũ'ntz* 'chèvre').

Izen propio bezala, *Anne*-ren bustidura da *Aña*, *Añeta* formetan (Larr. BS): cf. 3. *Allaman*

111.- *alabaña* 'empero'

A (Ast.); L (Elk.) *alabañaré*; Z (Gz.) *alabena*

Cf. *baña*?

112.- *!Alajaña!*

MS (Don.)

Garbizu-k Lezo-ko *alajaña*, *alajañana*, *alajañetan* azaltzeko erabiltzen dituen hitzak honera aldatuz: «Atenuación del juramento "Ala Jainkoa"» (Berriochoa 1962, 51). Beraz, adierazgarrien sailekoa genuke sudurkari palatala, bai jatorriz eta bai erabilkeraz.

113.- *albañilak* 'albañil-'

AV (Bermeo...)

Mailebatua (cf. 10.).

¹ Cowan-ek azaltzen du nola Lhande-ren iritziz eta Uhlenbeck-en adibideetan atzizki hau femeninoaren adierazle den; funtzio hau ere, noski, adierazgarrien artean sar daiteke (cf. Cowan 1959, 16). Egokiagoa da honetarako beharagoko 125.

114.- **Amaña** (desagertutako baserri baten izena)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

115.- **amañi** 'grand'mère'

Z (Gz.) + **aita**ñi 'grand père'

Atzizki txikigarri edo diminutiboa, cf.: Z (BS) **aizēñi** 'sale petit vent', **aita**ñi, **āmāñi**, **aphalñi** 'bien bas', **aphaltxeñi** 'un petit peu trop bas' (cf. **aphaltxe** 'un peu trop bas'), **aphürñi** 'très peu' (≈**aphürño**). Garbi dago atzizikiaren zentzua berez diminuziozkoa dela eta eratorriak osatzean Zar. (M 1967) **aitatto** 'abuelo', **amatto** 'abuela' hitzetako **-tto**-rekin bat datorrela. Diminutiboen gainerako konnotazioen artean, cf., esate baterako, Z (BS) **ahoñi** 'mauvaise langue' **aho**-ren gaínean osatutako ironiazkoa.

116.- **amiñibat** 'peu, un peu'

Z (Gz.)

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau (cf. *pixkat*, *ttipi*, e.a.).

117.- **aña** Ik. 110. **a(g)uña** edo 121. **aña**.

118.- **añagu** 'centeno'

Zar. **añagu**, A **añegu**, Err. **añai** (M 1967)([aw]>[aj])

XVIII. mendeko hitz zerrenda batean ² **hanaia** agertzen omen da (M 1954, 127).

² 1746: "Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi"(...), ik. M 1954, 127.

119.- **añari** 'vencejo'Zar. (M 1967) + **ap(o)añari** 'murciélago'120.- **añaye** 'hermano'EF (Ataun); BE (Baz.) **añayac**Cf. EF **anaie**, BE **anaya**121.- **añia** 'aña'

TE (Eibar)

122.- **arañegun** 'anteayer'

TE (Eibar)

Hitz honen formarik zabalduena *herenegun* (eta dagozkion aldaerak) da. Landuchio-rengan (*arain egun*: FHV 118) agertzen den diptongo-ari zor ote zaio sudurkariaren bustidura? Cf. G *erañe(g)un* ere.

123.- **arraño** 'eagle'

ROL (Mark.)

Cf. *arrano*: ez dago garbi bustiduraren arrazoia (cf. 77. *mirakullu*)³. Ez ote da *arain*-en diminutiboa (h.d. *-ño* atzizkiduna) eta ez 'eagle', 'little fish, pececito' baino? Bestalde **arraixo** sinonimotzat ematen du.

124.- **arrdatsañokuek** 'distaff', 'palo, eje para hilar...'

ROL (Mark.)

Cf. *ardatz* 'eje': *ardatzeraínokoak*?125.- **astaña** 'burra'

³ Hitz honen jatorria -sudurkaria barne- latin aurrekoa da (FHV 220, 305).

TE (Eibar); Zar. (M 1967); Z (BS) 'sotte' (cf. **urdaña** 'femme de mauvaise vie' [FEM.]

Ik. 110. *-ña* atzizkiaz.

126.- *baña* 'pero'

Er. (Ast.); EF (Ataun); IZ (Alts.) **baya**, **baiya**; L (Elk.); Zar.

baya, Z **béna** (=Gz.), GN (M 1967); MS (Don.) **bañan**

Ik. **baya** (VII.4) frikaria duten formez. Ez da erraza forma honen azterketa ez dago zenbaitek uste bezain garbi asimilazioz sortu denentz bustidura (ik. FHV 200 eta bertako 37. oh.). Bakaikoako *baindo* (cf. *zuiraindo* ere: Ondarra 1965, 410) formak izan daitezke aurkezpen zaharrena: ik. FHV 356-357 ozen+herskarí kontsonante taldearen murrizteaz.

127.- *bañintz-* 'si (yo) fuera'

PA (Mark.) **bañinchatzu**

Editorearen hutsa izan daiteke, eskuizkribuan (35. or.) sudurkari biak bustidura markarik gabe azaltzen dira.

128.- *baño* 'quam'

EF (Ataun); L (Elk.); BE (Baz.); Zar. **beño**, A Err. **beino**, Z **béno**, GN **baño** (M 1967) [Archu-k **beno** erabiltzen du, baina zerrendan **baino** idazten]; MS (Don.)

Cf. IZ (Alts.) **baindo** (cf. IZ **gaildur**, **gínan/gindan** ⁴): gorago 126.ean esana errepika daiteke hemen ere.

129.- *bañu* 'baño'

⁴ Behin bakarrik eta «sic» duela agertzen da **giñanin** (IZ 70).

TE (Eibar) **bañua**; MS (Don.) + **bañubekiñ**; EF (Ataun) **mañu**;

Z (Gz.) **mañū**

Mailebatua (cf. 10.).

130.- *burdiña* 'hierro'

Zar. **burña**, Err. **bur(ru)ña**, GN **burriña**, Z **bürd'ü'ña** (M 1967=

Z, Gz.); Err. (M 1954) **bur(ru)ña**

Cf. A **burdin**; < **burdina*. Hitz hau Baztango *iñarraust*-ren familia-koekin aztertu behar da: «Cuando después de la caída de **n** intervocálica se restableció la oclusión tras vocal cerrada, el resultado fue siempre **n'** (...)». (M 1967, 174, cf. M 1954, 146 ere). Alde diakronikotik, asimilazioak sortu bide du palatala, baina ezin da esan asimilazioa dagoenik **burña** edo **bur(ru)ña** bezalakoetan, noski.

131.- *demoñinuari* '... al demonio'

AV (Bermeo...); MS (Don.) **demoñu** (MS 57: «demoñu txoroa», emakume bati)

Cf. B *demoniñua*, G *demoniua*, *demoniyua*: hiatoa hausten duen epentesi edo eransketak sortutako bustiduraren metatesia izan daiteke hemen gertatu dena ⁵.

132.- *desdiñatzen* 'desdeñar'

L (Elk.)

Cf. gazt. *desdeñar*. Lizarragarengan **diña** da ingurune honetan bustidura duen hitz bakarra. Palatalak bokala itxi duen horietakoa izan

⁵ Badu bustidura asimilazioarekin zerikusirik **i**-ren ondorengo elementu ez-silabagilea palatala izateak (**u**-ren ondorengo epentesiaren fruitua belare/ezpainkari izaten den bezalaxe). Adibide honetako palatala sudurkaria izatea hitz barreneko beste sudurkariaren eragina izan daiteke, Mitxelena-ren hitzetan «asimilación de nasalidad» esango geniokeena, alegia (cf. FHV 268).

daiteke, ez alderantziz, bokalak kontsonantea busti duenetakoa, alegia (cf. 15. *bakallaua*).

133.- *dirañac* = *direnak* 'los que son'

Er. (Ast.)

Moldiztegi hutsa bide da (cf., oster, emakumezko hitanoaren zenbait forma: Z (BS) *nundúña* 'j'allais', Z (Ar.) *dukeñanian* 'quand tu auras', e.a.) ⁶. Gauza bera esan daiteke testu bereko *dituañ* = *dituen* 'que (los) tiene' formaz.

134.- *doña* 'doña'

AV (Bermeo...)

Mailebatua (cf. 10.).

135.- *empreñu* 'hell'

ROL (Mark.)

Cf. *inpernu*?

136.- *engañu* 'engaño'

«Goiztar-Mitxeleta» (Eibar); PA (Mark.) *engañauco*

Cf. Z (Ar.) *enganari* 'trompeur', (Gz.) *ingana* 'tromper'. Mailebatua (cf. 10.). Despalatalizatua gertatzen denean ez da *i*-rik sortzen (cf. IV.2).

137.- *enpeñua* 'bola de pólvora humedecida para que ardiera poco a poco'

TE (Eibar); PA (Mark.) *empeñu* 'empeño'

⁶ Ik. Ros (1986) hitanoa eta palatalizazioaz: badirudi bustidura adierazgarritzat hartu behar dugula hikako zenbait bustidura, baina jatorriz asimilazio direnak ere. Ros-ek ez du femeninoa bereiziki aipatzen.

Mailebatu izan daiteke, PA-koa batez ere.

138.- *entañederak* 'tornillo de mano'

TE (Eibar)

139.- *entraña* 'entraña'

A (Cat.) **entrañetaco**

Mailebatua (cf. 10.).

140.- *errebañu* 'rebaño'

PA (Mark.)

Mailebatua (cf. 10.).

141.- *erreñu* 'reino'

Er. (Ast.)

Lat. *regnu* -ren erromantzezko bilakaeraren ordaina izan daiteke edo bilakaeraren *-jn-* mailatik eslika daitekeen asimilazio aurrekaria (cf. G *(er)reinu*, ziurrenik kultismoz, [jn] bustidurarik gabe gordetzen duena).

142.- *eskupañua* 'toalla'

TE (Eibar)

Garbi dago bigarren zatia nondik datorren (cf. gazt. *pañu*); bustidura mailebatutzat har daiteke (cf. 10.).

143.- *España* 'España'

«Anai ondatua» (Eibar) **españatarrak**; PA (Mark.), Er. (Ast.)

Españaco; IZ (Alts.) **espáñolá**; L (Elk.) **Españaren**.

Nahikoa da itzulpena mailebatua dela ikusteko. Altsasun ez da despalatalizaziorik gertatu (cf. 59. *kurriilo*). Z (Ar.) *Espainia* agertzen da, baina *in* autore honengan [ŋ]-ren idazkera da askotan.

144.- *gañibet* 'cuchillo'

PA (Mark.) **+gañibetac**

Cf. Z (Gz.) **ganibet** 'couteau'.

145.- *gaztaña* 'castaña'

TE (Eibar), PA (Mark.) **gaztaña, kastaña**; MS (Don.)

gaztañak, gaztaiñ; Z (Gz.)

Erromantzezko bilakaeraren ondorio izan daiteke (cf. gazt. *castaña* bera ere): lat. *castanea* (-/j-> **ġ**; ik. 2. *akullu*). MS **gaztaiñ**: Soroak asimilaziotzat hartzen duenaren seinale izan daiteke. Cf. IZ (Alts.) **gaztainak** (despalatalizazioz).

146.- *Goñiko* (izen prop.)

EF (Ataun)

Ik. 3. *Allaman*.

147.- *Iñaxi* (izen prop.)

MS (Don.)

Ik. 3. *Allaman*. Asimilazioa ere izan daiteke (zalantzarik gabe adierazgarria litzateke, ingurune honetan asimilatzen ez duen hizkera batean).

148.- *iñurri* 'hormiga'

Zar. (M 1967); Err. (M 1954) **iñurri, úñurri**; Z (Gz.) **iñhürri**

Txikitasunarekin lotutako adierazgarritasuna izan daiteke busti-duraren iturburu (cf. Gavel 1920, 415). Esate baterako, zaraitzu-

eraz ez dago ingurune honetan asimilaziorik. Hemen agertzen den kontsonante taldearen (cf. G B *txindurri*, *txingurri*) bustidura bera da *anddereder* 'comadreja' (< *andere eder*) hitzean aurkitzen dena eta kasu horretan ezin daiteke inola ere bustidura asemikoa izan palatalaren arrazoi⁷.

149.- *Iruñeco* (top.)

Er. (Ast.); IZ (Alts.) **Iruñet**; Err. (M 1954) **Uruña** (Isaba, Uríña)

Ik. 3. *Allaman*.

150.- *kaña* 'caña'

TE (Eibar) **kañabería**

Mailebatua (cf. 10.). Cf. gazt. *cañavera* ere (Ar. de Hita *cannavera*: TE, 386). L (Elk.) **canarequi** inprenta hutstzat hartu behar dela dirudi gainerako mailegu palataldunekin egiten duenaren arauera (ala lat. *canna* izan behar al da kontuan?); dena dela, cf. BE (Baz.) **cana**, **canaĩquin**, Z (Gz.) **khana**, **kanabera** ere.

151.- *kañadia* 'tibia'

TE (Eibar)

152.- *kañoia* 'cañón'

TE (Eibar)

Mailebatua (cf. 10.).

153.- *kañuba* (ikatz-olako tresna)

PA (Mark.)

⁷ Erdialdeko euskalkietako **tx**- afrikatuaz, Ik. M 1960, 241.

Cf. gazt. *caño*?

154.- *kastaña* lk. *gaztaña*

155.- *kiñu* 'guiño'

TE (Eibar); ROL (Mark.) + **kiñatu**; Er. (Ast.) **queñada**⁸; Z (Gz.)

kheñü

Mailebatua (cf. 10.). Emandako itzulpenaz gainera, gazt. *ceño* ere aintzakotzat hartu behar da, hori bait daiteke euskarazko zenbait aldaeren jatorria.

156.- *kodoña* 'guadaña'

ROL (Mark.); PA (Mark.) **podaña**

Mailebatuaren itxura du: ik. 1.3.2.1.2. (VI.).

157.- *konpañia* 'compañía'

TE (Eibar) **Konpañia**; MS (Don.) **kompañiyan**

Nahikoa da itzulpena mailebatua dela ikusteko.

158.- *koñata* 'cuñada'

AV (Bermeo...) **koñátien**; MS (Don.) **koñataren**; BE (Baz.); Z

(Gz.) **kuñata**

Mailebatua (cf. 10.).

159.- *koñe* (interj.)

ROL (Mark.)

⁸ Cf. Azkue *k(h)eiñada*, baina ik. gorago palatalel dagokienean Azkue-ren grafiaz esandakoa. Gavel-ek ere (1920, 525) adierazten du nola Azkue-k *kheiñü* idatzi arren berak i-rik gabekoak bakarrik entzun dituen Zuberoan.

Cf. lat. *cunnus*: sudurkari bikoitzak gazteleraz izan duen bilakaeraren ordaina, mailebatua, izan daiteke. Testuan **Kone**-ren azalpen bezala agertzen da, antroponimoa eta etxe baten izena ere ba omen da (?).

160.- *labaña* 'navaja'

TE (Eibar); AV (Bermeo...) **labáñle**; PA (Mark.) **labaña(ren)**

Cf. **laban** 'adulador ?' (PA 52: «barriqueta ta berba laban baga») ⁹, Ik. 171. **ñabla**

161.- *laño*(1) 'cloud'

ROL (Mark.) **+lañotu**; L (Elk.) **lañu**; Zar. A **laño**, A **llano** (M 1967)

FHV 307: ez dago garbi bustiduraren arrazoa. (ik. *soñu*, *mirakullu*, e.a. ere). Cf. Z (M 1967) **lanh~u** (Ar.) **lanho**

162.- *laño*(2) 'simple'

Z (Ar.) **+lañoki** 'froidement'

Cf. gazt. *llano* (lat. *planu*): mailebatutako bustiduraren metatesia gertatu da.

163.- *letaña* 'letanía, procesión'

TE (Eibar)

Cf. Z (Gz.) **letaniak**. Normalean palatalizazioa markatzen ez duen Añibarro-rengan ere hitz hau bustidura markaz agertzen da. Dena

⁹ Peruri arrotz egiten zala **labafia** deltura, berak *garbitzalle*edo *apainquiña* esango omen luke (PA 47). Hitz hau *laban* 'resbaladizo' rekin egon daiteke erlazionatua (alegia b.e. *labain*-ekin: ik. FHV 139, bizkaieraren bukaeraotaz).

dela, badaude **in** segida dutenak ere: cf., esate baterako, Orixe-ren *letariña* ¹⁰.

164.- *liño* 'lino'

BE (Baz.)

Ikuspuntu sinkronikotik, hemen sartu behar da hitz hau eta ez asimilazio bustiduradunen artean, ingurune honetan ez bait dago asimilaziorik Baztango euskalkian (cf. 130.). Cf. Z (Gz.) **li** 'lin', **lihazi** 'grain de lin' (ik. VI. 5.1.1.1.2.).

165.- *loña* 'pez de nuestros ríos'

TE (Eibar) **+loñatan eiñ**

Cf. gazt. *loina* «pez pequeño de río -'Alava, Navarra-» (M^a Moliner).
Gazt.kotik badator, asimilazioa izan daiteke.

166.- *maña* 'maña' -?-

TE (Eibar)(**jakin-**)**maña** 'técnica'; L (Elk.) 'artimaña'

Mailebatua izan daiteke (cf. 10.): ik. 1.1.2.1.2. (VI.).

167.- *Mañarixa* 'Mañaria'

TE (Eibar); AV (Bermeo...) **Mañarire**

Ik. 3. **Allaman**.

168.- *Mañubeltxo* (izen prop., cf. gazt. Manuel)

MS (Don.)

Ik. 3. **Allaman** Atzizki diminutiboak hitzaren adierazgarritasuna azpimarkatzen du kasu honetan.

¹⁰ Añibarro-ri buruzko oharra Blanca Urgell-i zor diot, Orixe-ri buruzkoa, Mítxelena irakasleari. Eskerrik asko biei.

169.- *Mariamañuela* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

170.- *ñabar* 'gris', 'de couleurs variées'

Z (Gz.)

Zubereraz oso maiz dago *ñ*- hitz hasieran, beste euskalkietan baino maizago, esango nuke. Gauza bera esan dugu alboko bustiaz ere (ik. 61.). Cf. ondorengo adibideak. Ez du, gehienetan behintzat, zentzu adierazgarri nabarmenik.

171.- *ñabla* 'navaja'

Err. (M 1954)

Cf. Z *nabéla* (M 1954= Ar.) G *labana*; cf. *nabaxa* ere. Cf. gazt. *navaja* (< err. *navalla*): erregularra da, ikusi bezala (32., adib.), eusk. [ɲ] /gazt. [x] korrespondentzia albokoaren bustidura erroman-tzezko bilakaerek esplikatzen dutenean. Hemen albokoaren bustidura lekualdatu bide da metatesiaz (M 1954, 148). Ik. 160. *labaña* ere (segmentu metatesia, bustiduraren leku aldatzerik gabe, cf. Oñatiko 188. *sellania*).

172.- *ñabo* 'navet'

Z (Gz.)

Cf. gazt. *nabo*. Ik. 170. *ñabar* hasierako *ñ*-az.

173.- *ñaño* 'nain'

Z (Gz.)

Esanahiagatik bustidura adierazgarria izateko hitz aproposa (cf. 7. *allu*).

174.- *ñaphūr* 'attiré par la friandise'

Z (Gz.)

Cf. b.e. *lapur*: cf. Ar. 'homme qui recherche la femme de son prochain', 'bétail qui envahit le terrain d'autrui'. G zah. ere *napur* (FHV 324), orain *lapur* bada ere; err. *lefr-/lafr-* 'goloso' erroak izan dezake zerikusirik euskarazko aldaera batzuetako albokoarekin (FHV 551 eta 553).

175.- *ñaur* 'yo mismo'

Err. (M 1954)

Hitzaren jatorria ezaguna izanik (<*ni(h)aur.*> esan daiteke asimilazioa atzekaria dela kasu honetan. Cf. III.4, asimilazioaren norabideaz.

176.- *ñika* 'signe d'intelligence'

Z (Gz.)

Onomatopeia moduko zerbait?

177.- *ñior* 'alguien'BE (Baz.) *ñiorc*

Cf. BE *ñiorc*: asimilazio atzekaria izan daiteke (cf. 175. *ñaur*), *inV* katea zaharraren bide bikoitza kontuan hartzen bada (*inor* > *r or* > *iñor* / *ni(h)or*, alegia).

178.- *ño* (1) 'pequeño'

Err. (M 1954)

Cf. *ñotto* 'pequeñito' (cf. *aitatto* 'abuelo'). Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau.

179.- *-ño* (2) atzizkia

ROL (Mark.)

Atzizki diminutiboa, ik. 115. *amañi*

180.- *ñore* 'de mí mismo'

Err. (M 1967)

Cf. Zar, Z zah. **nore** (M 1967). Cf. *yago* (*gehiago*), *lioba*, *ziek*. Hau ere (< **ni*/-) asimilazio atzekaria dugu (M 1954, 149). Cf. 175.

181.- *Oñatiá* 'a Oñate' (top.)

IZ (Alts.)

Ik. 3. *Allaman*.

182.- *orañela* 'orinal' -?-

TE (Eibar)

Cf. G *oriñala*

183.- *pañeluakín* '... pañuelo'

IZ (Alts.); L (Elk.) **pañolo**

Mailebatua (cf. 10.).

184.- *podaña* Ik. 156. *kodoña*.

185.- *puñal* 'puñal'

EF (Ataun)

Mailebatua (cf. 10.).

186.- *sartañian* '... sartén'

TE (Eibar); Z (Gz.) **zarthagiña**, (Ar.) **zarta(gi)ña**

Azken buruan (diakr.) asimilazioa: cf. lat. *sartagine*.

187.- *seña* 'saigner'

Z (Gz.)

Mailebatuaren itxura du, itzulpena aintzakotzat hartuta.

188.- *señale* 'señal'PA (Mark.) **señalia**; MS (Don.) **siñalian**; Er. (Ast.) **siñale**; IZ(Alts.) **señaletakó**; L (Elk.) **señále**, **ceñatzen** 'santiguarse'¹¹; BE (Baz.) **señalea**; A (Cat.) **señalein**; Z (Gz.) **señale**,**ceñhare** 'signe'; TE (Eibar) **siñaletzat**, **siñalia**

Mailebatua (cf. 10.). Kontsonante palatalak aurreko bokala itxi dezake (ik. 15. *bakallaua* > *bakillaua*). Asimilaziorik ez duen euskalkietan ere palatalez gertatzen da (A). Hitz honetan ez da despalatalizaziorik gertatu Altsasuko euskaran (cf. 59. *kurriilo*). Bustidurak hotsen ezaugarri bezala duen beregaintasuna azpimarkatzen duten metatesi ugariak gertatzen dira bizkaieraz (FHV 200-201): Oñati *sellania* (bustidura ez da lekualdatzen, segmentuen metatesia dugu = 160. *labaña*), *selaña* (metatesia ez dagokio bustidurari bakarrik, unitate osoari baizik), Eibar *senallia* (hemen bustidura bakarrik lekualdatu da: = 171. *ñabla*, 162. *laño*).

189.- *señide* 'relation'

ROL (Mark.); Er. (Ast.)

Cf. A **senide**, **senideac**.190.- *señora* 'señora'AV (Bermeo...) **señóra**; TE (Eibar) **señoria**; ROL (Mark.)**señorie**; L (Elk.)

Mailebatua (cf. 10.).

¹¹ Zuzenagoa izan daiteke forma hau *signar* ikasiagoarekin lotzea (baina cf. bokalismoa).

191.- *soñu* 'sonido, música'

TE (Eibar) + **soñularixen**; PA (Mark.) **soñuban**; MS (Don.)

soñurik; L (Elk.) **soñatu** 'sonado'; Z (Ar.) **soñudun** (?; cf. Gz.)

Cf. IZ (Alts.) **soinúbeik**; Zar. **sonu**, Z **sónü** (M 1967), Z (Gz.) **sona** 'sonner', **sonu**, GN (Baztan) *soindu* (FHV 200). Ez dago arrazoi ezagunik bustidura azaltzeko (cf. lat. *sōnu*-). Cf. 77. **mirakullu**

192.- *tamañan* 'neurrian, moduan' (cf. gazt. *tamaño*)

MS (Don.)

Mailebatua (cf. 10.).

193.- *terreña* 'palangana'

TE (Eibar)

ZERRENDAN JARRI EZ DIREN BESTE ZENBAIT MAILEBU GARDEN.- Lizarraga Elkanokoarenak: **acompañatzen**, **añaditzen**-, **carlño**, **compañian**, **dañua**, **desengáñu**, **empeñu**, **engaños**, **entráña**, **hazáña**, **montáñac**, **peñá**-//Echenique-renak(Baz.): **compañian**, **engañoa** (behin **enganatzale** agertzen da), **peña**// Err. (M 1954) **erroña** 'roña'.

VII.3. [ɟ]/[y] sabaiko herskari-frikari ahostuna

VII.3.0. Erronkarieraz, **y** > [j] gertatu da, horregatik **y** ([ɟ] herskaria/ [y] igurzkaria) duten adibideak multzo mugatuak osatzen dituzte: forma adierazgarriak (*ayar*) eta berriki sortuak (*eyo*). Hauetaz gainera, bokalez hasitako morfema aurreko **i** sekundario edo berezko batetik datorrenean, **y** ez da aldatzen: *ayezka*, *deyez*, *gaya*, *oyan* (=ohean), *mayan*, *goyenian*. Salbuespena *bexalde* dugu ¹. Azkenik, 2. pertsonako aditz formen hasieran ere aurki daiteke **y**- (*yaz*, *yintzen*, *yabila*, *yago*, e.a.), Oihartzungo GNz bezala (ik. 2.12. *yayo* ere). Ikus V.2.5. atala.

194.- *anaye* 'hermano'

Zar. (M 1967); Z (Gz.)

Cf. Zar. *anae* (gutxiagotan); dena den, *anaye* litzateke salbuespena (Zar. *j > Ø / V ____ V: cf. M 1967, 172). Kontsonante hau **i**-k bokalar-tean silabatasuna galdu duelako sortu da (cf. *anai*-)

195.- *ayar* 'diablo'

Err. (M 1954)

Oinarrizko *adar* 'cuerno' ren bustidura adierazgarria, noski. Beste zerbaiten "aldaeratzat" edo hartzen direlako gertatu bide da honako **-y**- hauek **-j**- ez bihurtzea erronkarieraz (cf. *anaxe*, *nexar*, e.a.): *oyolko* 'morcilla' (cf. *odol* 'sangre'), *Peyo* 'Perico'. Hemen, nolabait, garbi dago hots sinbolismo delakoaren zeregina eta

¹ Hitz hau konposatua da: hitz muga eta morfema mugaren arteko diferentzia ote **y**-ren tratamendu ezberdinaren arrazoia? Izan ere, badirudi alderantziz izan behar lukeela. **y** > j aldaketa morfema barrenean gertatzen da, baina ez morfema muga dagoenean eta, morfema eta hitz mugen artean bereizkuntzarik egotekotan, hitz muga da bortitzagoa "mugagoa". Izan daiteke, ordea, *bexalde* hitzaren morfema egituraketa hitzunik ez aintzakotzat hartzea edo *bei*+*alde* hartu beharrean oinarritzat, *be*+*alde* hartzea (eta **y**, epentesitza =*anaxe*).

eragina euskalki honen egituraketa fonologikoan (h.d. bi **-y-** mota bereizten dira eta bereizkuntza **y** hori **d** baten bustidura adierazgarria izatean datza. Zubereraz ere beste honenbeste gertatzen omen da (M 1954, 147).

196.- *baya* (1) 'pero'.

Zar., e.a. formak aztertzean bi bide proposatzen ditu Mitxelena-k:

(a) *j > Ø / V ____ V erregelaren salbuespentzat hartzea (cf. **anaye**, **mayatza**, **oyan**), edo (b) beste euskalkitako aldaerak aintzakotzat hartuta (ik. 126. **baña**), bokalarteko **y** berrikuntzat hartzea, baina honek ez du **oyan** bezalakoentzat balio (M 1967, 172): Cf. IZ **iyora** (= *iñora*), **iyó** (= *igo*)².

197.- *baya* (2) 'défaut'

Z (Ar.)

198.- *Boronddo* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. ***Allaman***.

199.- *edder* 'hermoso'

EF (Ataun) (ez da nabaritzen esanahi aldaketarik); Z (Gz.)

eijer 'joli', (BS) **andé-ejer** 'belette'

Cf. EF **eder**, **eder a**, e.a. Z (Gz.) **eder** 'beau'. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau (cf. 91. ***pollit*** ere)³.

² Beharbada, **iyó** forma sortu duen bilakabidea ez da erabat besteak bezalakoa. Kontsonante belarearen bustiduraz hitz egin ohi da hau eta antzekoak direla eta, baina pentsatzekoa da aldakuntzaren bide fonetiko ez dela erabat hori izan: hemen ahoskune aldaketaz gainera artikulazioaren ahultzea gertatu dela esan daiteke (ez dago kenketa eta epentesi edo eransketa suposatzeraino inisteko beharrik).

³ Gavel-ek (1920, 448-449) **eder** 'beau' eta **edder** 'joli' bereizten ditu.

200.- **eskualdatu** 'changed hands'

ROL (Mark.)

Moldiztegi hutsa dirudi; adibideetan **eskualdatzen** agertzen da.

201.- **eyo** 'moler'

Err. (M 1954); Z (Gz.) **eho**

Epentesi "berria" behar du izan (-y- > -j- bilakabidea amaitu ondorengo, behintzat).

202.- **gorrindo** 'coloradito'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar., e.a. **gorringo** 'yema': adierazgarria (maila anitzetan: bihozkorra, diminutiboa eta metaforikoa. Hemen ikusten da [ɟ] ez dela /d/-ren bustiduraren ondorio bakarrik.

203.- **iyo** 'subir'. Ik. 196. **baya**.

204.- **mandika** 'panza'

Zar. (M 1967)

Mitxelena-k adierazgarritzat hartzen ditu hots hauek ingurune honetan, kontsonante ondoren, alegia (garbi dago hemen **d**-ren aldakuntza dela: *mandika* 'estómago' ⁴).

205.- **mayatza** 'mayo'

TE (Eibar) **mayetza**; Zar. (M 1967); Err. (M 1954);

Maileabatua (cf. 10.). Gutxiagotan gertatzen dena izan arren, badago Zar. **maetza** ere (cf. 194. **anaye**, 196. **baya**). Erronkarieraz, hitz

⁴ Azk., s.v. *mandika*. «Su diminutivo *mandikase* usa para significar las tripas de la oveja».

hau **-y-** > **-j-** bilakabidearen salbuespena da (cf. halaber RS *mayaz*, baina *ceja, ojan*; M 1954, 142) Cf. Z (Gz.) **maiatz**.

206.- *mayorazgua* 'mayorazgo'

TE (Eibar)

Nahikoa da itzulpena mailebatua dela ikusteko.

207.- *Menddi* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. ***Allaman***.

208.- *onyuak* 'hongos'

TE (Eibar); Z (Gz.) **onyo** 'champignon'

TE 507: «Variante de **ondjuak**»: bigarren idazkeraz herskaria adierazten bide zuen. Hemen ere [ɟ] **g**-ren aldaera bezala agertzen zaigu (cf. 202. ***gorrinddo***).

209.- *oyan* 'monte, bosque'

Zar. (M 1967)

Zaraitzueraren barruan salbuespena (cf. 196. ***baya***). Cf. Z (Gz.) **oihan**

210.- *y-*

Ik. Z (Gz.): **jabe** (Ar.: **yabe**), **jadanik**, **jaiki**, **jakin**, e.a. Hasierako *yod*-en bilakaeraren ondorio da kasuotan [ɟ].

211.- *yago* (= *gehiago*) 'más'

Zar. (M 1967)

Mitxelena-ren (1967, 174) hitzetan: «acaso [palatalización] pues en textos del siglo pasado se lee *geago, deago* (A *geyo*). Ez ote

daiteke izan *ge(h)/iago* [geya^go]-ren hiatoaren bilakaeraren ondorio (nolabait hasierako belarea irentsi duena)?

212.- *yayo* 'agraciado, habilidoso'

G (M 1954)

Donostian ere gauza bera gertatzen dela esango nuke: hitz honetan bakarrik du hitz hasierako kontsonanteak ebakera palatala (izen propioaren bat -*Jon(e)*- alde batera utzita). Bestela *j- > [x-] bait da beti euskalki honetan. Oihartzunen, gainera, 2. pertsonako aditz formetan aurki diateke (= Err.: M 1954, 141).

213.- *yóon* (=egon), ***yonaiz*** (=egon naiz), ***yondako*** (=egondako)

IZ (Alts.) **geldi *yóon***

Ik. 196. *baña*

VII.4. [t̥] sabaiko herskari ahoskabea

214.- *aitatto* 'abuelo'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. -to (*neskato*, adib.): adierazgarria: [t̥] beti da adierazgarria zaraitzueraz (hau eliminazioz esan daiteke: asimilatua ez dela, alegia). Cf. 115. *amañi*.

215.- *amatto* 'abuela'

Zar. (M 1967)

Ik. 214. *aitatto*.216.- *Anttonio* etxe -?- izenaZar. (M 1967); MS (Don.) *Anttonio* (antrop.)Ik. 3. *Allaman*.217.- *attuna* 'abuelo'

IZ (Alts.)

Cf. IZ *aita*, *aitu*: ez da asimilazioa nahiz eta beste mintzo batzuetan hala izan (adib., Errent. *attatu*: FHV 103). Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau. Badirudi *it* segida duten hitz honen aldaerak bustidura adierazgarri (bihozkor?) baten despalatalizaziotik jaioak direla. Erdi Aroko dokumentuetako grafia aldakorrek ¹ gero gazteleraz [t̥] bezala finkatuko zen hots palatala adierazten zutela ez da gehiegikeria, hots hura ez bide zebilen

¹ Cf. *Acha*, *Egga*, *Eila*, *Eigiga* eta hotsaren nolakotasun fonetikoaz argigarri izan daitekeen *Acta*, *Ecta*, h.d. lat. -*kt*-ren ondorioekiko nahasketa salatzen duena (cf. Alvar 1969, 20-21). Ik. gorago II.2.

euskaraz ezagutzen dugun [t̺]-tik ². Era berean uler genezake *maite* hitzaren *it*, [t̺] bihozkorrenaren despalatalizazio bezala, alegia (ik. M 1964, 145).

218.- Benttura etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

219.- beretter 'sacristán, monaguillo'

Err. (M 1954); Z (Ar.)

Cf. Err. (M 1954) **bereter** 'sacerdote': adierazgarritzat har daiteke bustidura hau (txikigarritzat, alegia).

220.- Bittor 'V́ctor'

TE (Elbar)

Ik. **Bitxor**.

221.- Bittorio etxe -?-izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

222.- gutti 'poco': Ik. *gutxi*

Cf. BE (Baz.) **guti**; L (Elk.) **gutlago**. Esanahiagatik --kopuru txikia adierazten duelako-- erabilkera adierazgarritako aproposa da hitz hau (cf., adierazgarritasuna berbera ez bada ere, 91. *pollit*)

223.- harikotta 'callous'

Z (Ar.)

² Mitxelena irakasleak zuzenean egindako iruzkina da azkena.

224.- *Kattalin* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

225.- *kotta* 'falda'

Zar. (M 1967); Err. (M 1954) 'pequeña saya interior'

Adierazgarrien artean sailkatzen da, baina "eliminazioz" izan behar du (asimilazioa ez delako, alegia (cf. IV.3). Erronkarieraz dago garbiago hitza, ikuspuntu diakronikotik behintzat, adierazgarria dela.

226.- *larraputtac* '?' *larrepettia*

BE (Baz.); Z (Ar.) **larrepettia, ottia** 'la cigale, la sauterelle'

227.- *martta* 'marta'

Zar. (M 1967)

Cf. gazt. *marta*: "eliminazioz" adierazgarri (cf. 225. *kotta*), edo palatalizazioa hitza euskaratzeko bidetzat hartu behar al da (cf. 98. *sombrelluba*)?.

228.- *Montero* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

229.- *muttiku* 'chico'

IZ (Alts.)

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriarako proposa da hitz hau (cf. 91. *pollit*) Atzizki diminutiboak sendotu egiten du adierazgarri itxura.

230.- *muttu* 'mudo'

BE (Baz.)

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau, konnotazio bihozkorra izan dezakeen neurrian (cf. 91. *pollit*).

231.- *pittar* 'cidre'

Z (Gz.)

Asimilazioa? Ez dirudi euskalki honetako trabarien asimilazioa oparoa denik (ik. VI.7.).

232.- *pittika* 'le chevreau'

Z (Ar.)

Esanahiagatik ('cabrito') oso da aproposa bustidura adierazgarria izateko (cf. 91. *pollit* eta 110. *a(g)uña*).

233.- *puntta* 'punta, extremo'

MS (Don.) **punttaren punttan**

Cf. gazt. *punta*: garbi dago honelakoetan bustidura euskaraz sortua dela. Erraz har daiteke adierazgarritzat (cf. **axal**, e.a.: nolabait mailakatu egin daitezkeen edukiak adierazten dituzte).

234.- *puntu* 'punto'

BE (Baz.) **punttuan**

Gutxi gora behera 233. *puntta*-z esana errepika daiteke.

235.- *repattan* 'zagal'

Err. (M 1954)

Ikuspuntu diakronikotik, behintzat, adierazgarri: esanahiagatik (mutil gazteak izan ohi dira) erabilkera adierazgarriko aproposa

da hitz hau. Isaban, erderaz ari direlarik, *repatán* esaten omen dute (M 1954, 145): dirudienez, bustidura hizkuntza bien arteko bereizkuntza bihur daiteke zenbaitetan (cf. 98. *sombrelluba*).

236.- *ttar* 'pequeño'

BE (Baz.) **ttarra**

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau (cf. 7. *allu*, 222. *gutti*, 173. *ñaño*, e.a.). BE **tcharra** 'malo' aintzakotzat hartuz gero, ikusten da hemen ezin direla [t̪] eta [tʃ] aldaera edo alofonoak izan: Ik. IV.2).

237.- *ttipi* 'pequeño'

BE (Baz.); Z (Ar.) **ttipiak**, e.a.

Ik. *txiki*: esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa (cf. 236.).

238.- *ĩ ipit* 'leather strap doubled and used as a whip'

ROL (Mark.) +**ĩ ipiĩ u**

239.- *-tto* atzizki txikigarria

L (Elk.) **arrttoac**, **bolatto**; Err. (M 1954) **gramatto**

'despensa', **ñotto** 'pequeñito' (**ño** 'pequeño'); Z (BS) **alhórtto**, **astóttto**

Ik. 115. *amañi*, 214. *aitatto*, e.a. Cf. *-txo* ere.

240.- *Txilibitton*

TE (Eibar)

Cf. 670. **Txilibitxon**.

VII.5. [f] frikari sabalaurrekoa

241.- *aldaxkak* '?’BE (Baz.) *aldachcac*Dirudienez, *-xka* atzizki txikigarria du (cf. 280. *gorrixta*).242.- *anaxe* 'hermano'

Err. (M 1954)

Cf. 194. *anaye*, e.a.: ik. VII.3.0. erronkarierazko *y* > *j* aldaketaz.243.- *antux* (-a?) 'estornudo'IZ (Alts.) *antux(a)*¹Onomatopeia modukoa jatorriz? Bestela ere, egokia da hitz hau erabilkera adierazgarria izateko (cf. 7. *allu*).244.- *Anxelma* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.245.- *arxaldu* 'rebaño'IZ (Alts.) *arxálduakin*Cf. b.e. *artalde*. Ik. *talde* / *saldo*, e.a. (IV.2): formaok elkarrekin lotzen dituztenek palatalizazioaren bidez lotzen dituzte. Dena dela, zaila da hemen agertzen zaigun bustidurari arrazoi argia aurkitzea.

¹ Izagirre-k hitz azkeneko *-a* guztiak mugatzailatzat hartzen ditu (cf. *allun(a)* e.a.).

246.- **auxten** 'rompiendo'

L (Elk.) **auchstencire**, **auchsquigun** 'rompamos'

Cf. L **auchi**? Esanahiaren aldetik diferenteak dirudite (ik. VII.6).

247.- **axa** (lanabesa) ²

PA (Mark.) **aassia**

248.- **axaixa emon** 'azuzar, excitar'

TE (Eibar)

Onomatopeia izan daiteke.

249.- **axal** 'superficie', 'piel'

MS (Don.) **axaletik** («ondo axaletik ari zara», 42. or.); Err. (M

1954) **kaxal** 'corteza de árbol'; Z (Gz.) 'écorce', (BS) **áxal**

'écorce, croûte'

Adierazgarria izan daiteke, esango nuke hala dela oraingo euskaran eta *aza/* hitzaren esanahia areagotu egiten duela edo (cf. 233. *puntta*). Zubereraz bustiduraduna oinarritzko forma bihurtu da: cf. Z (BS, 71. or.) «**azal** (...) 'écorce' (augmentatif de *axa/*) On l'emploie lorsque la croûte inspire le dégoût».

250.- **axātu** 'azuzar'

EF (Ataun)

Onomatopeia izan daiteke honen jatorria (cf. gorago 248. **axaixa emon**).

251.- **axen** 'pámpano'

Err. (M 1954)

² Azkue-k s.v. *asa*: «cuchilla de dos asa que utilizan los barrileros». Ik. M (1978-79, 213-214) hitz honen esanahiaz.

ʃ < y ? (cf. VII.3.0. Err. bilakabide horretaz).

252.- *axeri* 'zorro'

IZ (Alts.) **axaiya, axei**; BE (Baz.) **acherlec**; Zar. (M 1967)

axari; Z (Gz.)

Cf. b.e. *azeari, azeri*: jatorria ezaguna izanik (< *Aceari, Aceariz* patron. hain zuzen, ik. M 1959, 121) ez dago zalantzarik hitz honen oinarri bustidurarik gabeaz. Haatik, ez da bustidurarik gabeko formarik azaltzen Altsasuko eta gainerako testuetan ³. Zaraitzueraz ere bustiduraduna bakarrik jaso omen da, nahiz eta ʃ-ren balio adierazgarria ez egon galdua euskalki horretan. Gehiagotan gertatzen dira bustiak txistukariak gainerako trabariak baino (M 1967): hauxe izan daiteke batzuetan txistukarien bustidurarik gabeko aldaera ez aurkitzearen arrazoa, alegia, gero eta maizago gertatu hotsa ahulduagoa izango du bere balio adierazgarria (cf. IV).

253.- *axkolakin* '... arveja'

IZ (Alts.)

254.- *axkon* 'tejón'

Zar. (M 1967)

255.- *axol* 'souci'

Z (Gz.)

Cf. GN G *ajol(a)*[axol(a)]. Lat. *anxia* kontuan hartuta azal daiteke bustidura honen jatorria, baina zaila da jakitea euskarara zein erromantzeren bidez iritsi den: gaskoieraren eskutik?, okzitanoz

³ Cf. Ondarra (1965, 390) *Axerko*.

aissa 'souci' aurkitzen da (ik. M 1974, 200-201). Dena dela, esan daiteke, azken buruan, kanpotikakoa dugula hitz honen bustidura.

256.- *axuri* 'cordero'

IZ (Alts.) **axui**, **axuiya**; L (Elk.) **achsúriac**; Zar. (M 1967); Z (Gz.)

Ez da bustidurarik gabeko formarik azaltzen (cf. IZ, L, Zar. **axari**).

257.- *batixa(tu)* 'bautizar'

Err. (M 1954)

Cf. **anaye**, e.a.: ik. VII.3.0.ean erronkarierazko **y > j** aldaketaz. Cf. Z (Gz.) **batheya**

258.- Baxajaunek

EF (Ataun)

Besterik gabe, espero izango ez genukeen hitz batean bustidura gertatzea bilakabide adierazgarriaren emankortasunaren seinaleztat har daiteke: alegia, ez dela beharrezko aldakuntza semantiko edo lexiko haundi bat bustidura jazotzeko.

259.- Baxtan etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. **Allaman**.

260.- *beraxtu* 'remblandecido, conmovido'

L (Elk.) **berachstu(ric)**

Cf. L **beraztu** 'ablandado, remblandecido'. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau (cf. 20. **bella**).

261.- *berex* 'aparte, por separado'

L (Elk.) **berechs**; BE (Baz.) **berechi**

Badirudi txistukari eta kontsonantez osaturiko taldearen aurreko i eransketa gertatu dela hitz honetan (eta paradigmako forma gehienei hedatu: FHV 159). Beraz, bustiduraren jatorria asimilazioa izan daiteke. Cf. Z (Gz.) **berhez** 'séparé(ment)'

262.- *billoxik* 'desnudo'

AV (Bermeo...); L (Elk.) **biluchsiric**; BE (Baz.) **biluchi**; A (Cat.) **bilussien**

Cf. Zar. **bulucien**, Err. **belainciuen** (Cat.) eta A **biluzi** (M 1967). Erabilkera adierazgarria izan daiteke hitz honen bustiduraren arazola (ik. 7. *allu*).

263.- *Bixente* etxe -?- izena .

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

264.- *bixi-bixi* 'cosquillas'

IZ (Alts.)

Cf. IZ **biziya** 'la vida'. Onomatopeia modukoa izan daiteke bustiduraren jatorria, garbi dago behintzat hitza alor semantiko "adierazgarri" bati dagokiola, nolabait esan (cf. 7. *allu*)

265.- *bixkar* 'altico'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **bizkar** 'espalda, loma': adierazgarria. Cf. antzeko esanahia duen G *kaxko*.

266.- *buexak* 'tijeras'

IZ (Alts.)

Cf. IZ **buezak**: erabat sinonimo bezala ematen ditu, adibide bezala, ordea: «bueza txikiak». Hori bada bustiduradunaren esanahia, palatalizazioa adierazgarria (txikigarria) da.

267.- *burúxolén* 'de (sus) cabecitas'

L (Elk.) **burúchsolén**

Esanahiak adierazten duenez, hitza txikigarria eta honekin bide dago lotua txistukariaren bustidura (cf., adib., 222. *gutti*).

268.- *Elixape* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

269.- *emaxurxa* '?'

BE (Baz.) **emachurcha**

Zentzu txarreko adierazgarritasuna? Behar ez bezalako emakumeen deiturak bustidura oparoa ohi den alorretako bat osatzen dutela esango nuke.

270.- *errex* 'fácil'

BE (Baz.) **errechago**

Cf. *errez* / *errex* (< gazt. zah.: FHV 117): jatorriz behintzat adierazgarri izan daiteke bustidura hau. Edukia mailakatu egin dezaketen hitzetakoa da (cf. 233. *puntta*).

271.- *erxe* 'intestino, tripa'

Err. Z GN (Baztan) BN L Zar. (M 1954)

Cf. GN G B **este**, GN (Baztan) BN L Zar. (h)**erze** ⁴: agian, gorputz atalena ere alor "adierazgarrien" artean sailkatu behar litzateke (cf. 269. *emachurcha*)

272.- **examina** 'exámen'

L (Elk.) **examinatuzué**

Cf. lat. *examinem*. Lizarraga-*rengan* [j], gehienetan behintzat, <chs> izaten da (dena dela, cf. *merexi*). Beraz, hau [ks] izan daiteke, hitz ikasitzat hartuta, edo idazkera bera izan daiteke etimologikoa (eta ebakera [s]-edo izan). Cf. **auxilio**, **exéplutaco**, **explica-** (zenbait palatal bere hartan hartzen ditu gazteleratik Lizarraga-k: [ks] hotsez ere beste horrenbeste egiten duela dirudi). Beste <x>hun hitz multzo bat: **floxera**, **proximo**, e.a. (gaztelerazko maileguak idazkera zaharkituz). Lizarraga-ren idazkera etimologikoa beste zenbait kasutan ere ikusten da, cf. *attenditus*, *passio*, e.a.

273.- **exartu** 'seco, yerto'

Err. (M 1954)

Cf. 194. *anaye*, e.a.: Ik. VII.3.0. erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz.

274.- **exur** 'hueso de la fruta'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **ezur** 'hueso': adierazgarria (txikitasunarekin zerikusirik duen adierazgarritasuna).

275.- **faxa** 'faja'

BE (Baz.) **facha**

⁴ -rz- / -st- kontsonante taldeen arteko harremanaz, ik. M 1954, 151-152.

Cf. lat. *fascia*. Gazteleraz jazotako txitxikarien belaretzea ez zen inguruko beste zenbait erromantzetan gertatu (ik. Alarcos Llorach 1974, 271-272). Kanpotikakoa dirudi, beraz palatalak (cf. Aragoiko *fa[ʃ]a*: Menéndez Pidal 1973, 150).

276.- *fixtu* 'silbido'

L (Elk.)

Cf. L **lichstu**, **chistu** (hasierako **f**- onomatopeikoa izan daiteke).
Ik. 314. **lixtu** txistukariaren bustiduraz.

277.- *garixti* 'caro'

MS (Don.)

Hau asimilazioa izan daiteke (cf. *garesti*, ik. II.4.2. **e** /**i**-ren txandakatzeaz: bustidura asimilazio izan liteke hemen).

278.- *garráaxíz* '... grito'

IZ (Alts.)

279.- *gaxo* 'pobre, que inspira lástima' (= *behartsu*)

MS (Don.) **gaxua**; Er. (Ast.) **ga[~]š oai**; IZ (Alts.) **gaixuoiyek**

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau ⁵.

280.- *gorrixta* 'rojizo'

MS (Don.)

Asimilazio testuingurua da, baina cf. MS **erdizka**, e.a. Cf. esanahi hau duten (Ar.) **xurixka**, MS **orixkak**, e.a; Z (BS) **alage(r)áxka** 'un peu gai' (= **alageátto**, **alageáxe**), **alhorxkót** 'misérable petit

⁵ Gipuzkeraz honelako hitzetan gordetzen da [ʃ] hotsa, bestela **ʃ** --> **x** gertatu bada ere erregularri. Garbi dago beraz arrazoi semantikoen garrantzia.

champ' (= **alhortto**); BE (Baz.) **mendichcac**. Zentzuzkoagoa dirudi hizki txikigarri edo diminutiboaz hitz egiteak honelakoetan.

281.- *goxari* 'desayuno'

PA (Mark.) **gossarija**

Cf. PA **gosaritu**. Eskuizkribuan ere **ss** agertzen da (cf. M 1978-79, 210): adierazgarria ote? Apaltasunez ari al da bere etxeko gosari-az?

282.- *goxie* 'hambre'

AV (Bermeo...)

Ohizkoa da ebakera hau haurrekiko hizkeran.

283.- *goxo* 'rico, agradable'

MS (Don.) (**mokadu**) **goxuak**; Er. (Ast.) **goisoetan**; EF (Ataun)

goxoa; BE (Baz.) **gochotsuac**

Cf. MS (Don.) (**sagardo**) **gozua**; A **gozoa**: <is> palatalaren grafiatzat hartu da. Larrasquet-ek (1932, 186) ematen du hitz honen bustiduraren adierazgarritasunaren adibide garbia: cf. **gozúk** 'le goût'(erg.), **goxúk** 'l'agréable'(erg.).

284.- *ikuxi* 'ver'

AV (Bermeo...) **dikúxiko** (*eta ikusiko*)-senarra emazteari ari zaiola, cf. **ikusi** ixtorio berean. Adierazgarria (bihozkorra) ematen du, cf. **b(u)ruxurijegas** (s.v. *xuri*).

285.- *lñaxi* (izen prop.)

MS (Don.); Zar. (M 1967) **lnaxio** etxe(?) izena

Ik. 3. **Allaman**.

286.- *ixiki* 'encendido'

Err. (M 1954)

Cf. VI.1.1.1.1.5. *ixotu*.

287.- *ixilik* 'en silencio'

EF (Ataun) *ixxillik*; L (Elk.) *ichsil ichsila*; BE (Baz.)

ichilazteco

Jatorria asimilazioa izan daiteke, baina lexikalizatutzat jo behar da aintzakotzat hartzen bada euskalki hauetan asimilazioaren arrastoak bakarrik daudela ingurune honetan; cf. BE **ichuria** ere. Badirudi honelakoak asimilazioaren arrasto izan daitezkeela (cf. VI.2, VI.5 --eta III.6. apikariaren bustikuntzaz--)..

288.- *ixo*

MS (Don.) *ixo, ixo*

Testuinguruagatik asimilazioa izan liteke (ez gipuzkeraz, noskil), baina hitz honen hizkera maila oso da aproposa bustidura adierazgarriko. Gainera, *xxxx*/[j:] bezalako zerbait litzateke ixilerazteko erabiltzen den "hotsaren" onomatopeia.

289.- *ixuri* 'fluir'

BE (Baz.) *ichuria, ichurico*

Ik. 288. *ixilik*

290.- *jayotcen* 'naciendo'

A (Cat.)

Hemen ez da gertatu j- > j̃- (cf., ordea, **ssabe**, **ssaquin**, **ssarri**, **ssan**, **ssei**qui, e.a.). Cf. **sautsi** 'bajar' ere.

291.- *jatxi, jetxi* 'bajar'. Ik. *xatx*.

292.- *Jaungoiko* Ik. 378. *xaun*.

293.- *Joxe* (izen prop.)

MS (Don.); TE (Eibar) **Joxe kastia** 'gitano' (sic); IZ (Alts.)

Joxépa

Ik. 3. *Allaman*.

294.- *Joxio* (baserri baten izena)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

295.- *Joxpiñaxi* (izen prop.: *Joxepa Iñaxi*)

MS (Don.)

Cf. **Joxe** eta **Iñaxi**. Ik. 3. *Allaman*.

296.- *joxtallu* 'juguete'

MS (Don.) **joxtallubakiñ**

Adierazgarria izan daiteke. Hurrekiko hizkeraz gertakortasun handiko hitza da.

297.- *karkaraxa* 'cacareo'

PA (Mark.) **carcarassaz**

Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau (cf. 248.).

298.- *kaxia* 'culata de las escopetas'

TE (Eibar) **+kaxagiña**

Cf. gazt. *caja* [> x aldaketa ez da oraindik Espaiña aldeko euskalki guztietan zabaldu: ik. 275. *facha*

299.- *kaxkar* 'lo que es deficiente'

MS (Don.) «zortzi zentimo baso kaxkar bat (...)!» (94. or.); IZ (Alts.)

Cf. IZ **kaskarra**: bustiduradunaren sinonimotzat ematen du. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau.

300.- *kax-kax-kax*

EF (Ataun)

Onomatopeia.

301.- *kexa* 'queja'

BE (Baz.) **quechatzen**

Ik. 275. *facha*, 299. *kaxia*: bustidura hau ere erromantzezko bilkaeraren ordaina da (cf. Gavel 1920, 175).

302.- *Kixmie* (jentilen artean, Jesukristoren izena)

EF (Ataun)

Asimilazioa ere izan daiteke. Kontuan izan behar da **Kismie** agertzen dela beheraxeago testu berean (EF, 30), baina itzulpenean kasu bietan <x> idazten da.

303.- *koxkor* 'no (muy) pequeño'

MS (Don.); EF (Ataun) **motilkoxkof ak**; IZ (Alts.) **zapatain**

koxkorrak 'los zapateros de agua' (?)

Cf. MS (arri,mutil) **koxkor** (16, 31, 58. or.)/**koskor**: «gauza koskor beltz bat» (100 or.). Badirudi bustidurarik gabea erabiltzen

dela gauza txikia "txikiegia" ez denean. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau.

304.- *koxu* 'atrapa'

AV (Bermeo...)

Cf. **koju** (Fruiz). Cf. gazt. *coger*? Ik. 275. *facha*, 299. *kaxia*

305.- *krixketa* 'cerrojo (?)'

BE (Baz.) **crichqueta**; Z (Ar.)

306.- *laxa* 'soltar, aflojar'

BE (Baz.) **lachatuac**; Zar. **laxa**, **laxo**, Z **laxü** 'peu serré' (M 1967)

Hitz honetan oinarrizkoa bustiduraduna da eta adierazgarria bustidurarik gabea: Zar. **lazo** 'flojo (sentido moral)', Z **lázü** 'négligent'⁶ (cf., dena dela Z (Gz.) **laxükeria**, **lazükeria** 'négligence' -atzizkia ere kontuan hartzekoa da-).

307.- *lenbixiko* 'primero'

A **lemexiko**, **lemixiko** (Cat.), (M 1967)⁷

308.- *lexar*

PA (Mark.) **lessarra** [*Abeizena*]

⁶ Oinarrizko forman palatala dagoenean, palatalik gabeko formari *augmentatibo* deitzen zaio (adib., kasu honetan, cf. M 1967, 167. or., 4. oh.). Hau simetriagatik egin bide da, baina ezin da esan beti egokia denik analisi semantikoaren aldetik: zerk egiten du zentzu moral duena bestearen *augmentatiboa*? Bustidura ere izan daiteke zentzu txarrekoa.

⁷ Aezkeraz **-mb-** > **-m-** bilakabidea betetzen da.

Asimilazio itxura osoa du (cf. *leizar*), baina lexikalizatua bide dago (ik. VI.1.4.).

309.- *lexkotxe, lextxe*

TE (Eibar)

lgurzkariaren bustidura ondorengo afrikatuak eragina izan daiteke;

lezkotxe ere agertzen da.

310.- *lexo* 'ventana'

Err. (M 1954)

Cf. 194. *anaye*, e.a.: ik. VII.3.0. erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz.

311.- *likixkeri* (bareei buruz: «likixkeri oyek»)

MS (Don.)

Adierazgarria izan daiteke, baina asimilazioa ere bai. Esanahia-gatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau.

312.- *lixiba* 'colada'

IZ (Alts.) TE (Eibar) **lixibera**, **lixibia**

Cf. *lejía* < lat. *lixiva*. Ik. gorago (275., 299) gazt. [x]/ eusk. [j] korrespondentziaz esana. Adibide honek garbi erakusten du nola Moguel-engan is [j]-ren grafia izan daitekeen (cf. PA **lisiba**, **lisibatu**).

313.- *lixtu* 'salivazo'

L (Elk.) **lichstuac**

Asimilazioa izan liteke, baina cf. L **chistus** (bestalde, hau hasierako afrikatu palatalak eragindako disimilazioa izan daiteke).

Cf. VI.4. **alichstatzeco** 'que se empadronase', **fichstubát**, **ichsquiritubát** vs. **adisquide-**, **cristale**, **istantean**,

cistatzen, adib.: h.d. garbi dago asimilazioak azaltzen baditu bus-tiduradun batzuk, sinkronikoki ez dela gehiago bilakabide emankorra.

314.- *Maluxak* (izen prop.: *Maria Luisak*)

IZ (Alts.)

Ik. 3. *Allaman* (VII.1.). Egia esan asimilazioa izan zitekeen, baina ez da oparoa txistukarien asmilazioa euskalki honetan (cf. VI.3).

315.- *Martinexker* etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*.

316.- *maxa* 'planta vivaz silvestre'

TE (Eibar) **+Maxamendi** (= *Kalamua*)

317.- *Maxen* 'on Mount Max' (sic)

ROL (Mark.)

318.- *maxoka* 'haz (?)'

BE (Baz.) **machoca**

319.- *merexi* 'merecer'

L (Elk.) **merexidú, mereximentus**; BE (Baz.); A (Cat.)

Badirudi hitz honetan L <x> [j] dela (cf., ordea L **examina-**, e.a.). Txistukari bustia maileguaren ordaina da (cf. ahozko lat. **merescere*:cf. 275.).

320.- *mexedez* 'por favor'

TE (Eibar)

Cf. *mertxede*.

321.- *mixkau* 'licked'

ROL (Mark.)

Edukiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau.

322.- *molxo* 'petit groupe'

Z (Gz.)

Cf. Z (Gz.) **molzo** 'groupe nombreux': Gèze-ek ematen dituen itzulpenek ez dute asko laguntzen bietatik adierazgarria zein den erabakitzeko orduan, biek bait dute esanahi markatua. B.e. *multzo* 'grupo, conjunto'-ren arauera, badirudi bustidura dela adierazgarria (txikigarria).

323.- *mosua* 'cara, hocico'

TE (Eibar)

Cf. honen kide bustia *muxua*, *moxua* 'beso' (jatorri adierazgarriko forma berlexikalizatua: cf. *(t)lori*, IV.3). *Mosua* baino ohizkoagoa *lastana*(sic) omen da Eibar-en 'beso' adierazteko.

324.- *nabaxa* 'navaja'

Zar. (M 1967) ⁸

[x] hotsa mailegu "berrietan" (berriagoetan, behintzat) gertatzen da zaraitzueraz. Ik. mailegu honetaz, 171.

325.- *nexar* 'llanto'

Err. (M 1954), (Cat.)

⁸ Azkue-k **nabla** jaso omen zuen (M 1967, 170).

Cf. Zar. **near** / < **neyar*, «acaso forma palatalizada de *negar*» (M 1954, 142); «R*nexar* 'llanto' puede ser una antigua forma expresiva de *negar*, fijada después como normal y que por esta razón sufrió el tratamiento general de -y-. Cf. S *éjer*, dim. de *éder*» (M 1954, 147). Bigarren esplikazioaren arauera, cf. 194. **anaye**, e.a.: ik. VII.3.0.ean erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz. Cf. *iyo* < *igoere*.

326.- nexkato 'muchacha'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **neskato** 'moza': adierazgarritzat jo daiteke G *neska* 'muchacha' / *nexka* 'niña' ren modura, hiztunek berariaz esanahia bereiziz erabiltzen badute.

327.- Nikolax (izen prop.)

MS (Don.) + **Mikolax**

Ik. 3. **Allaman**.

328.- oilexko 'pollo'

IZ (Alts.)

Hizki diminutiboaz, ik. 280. **gorrixta**.

329.- orixkak

MS (Don.)

Hizki diminutiboaz, ik. 280. **gorrixta**.

330.- oxal 'pañó, tela'

Err. (M 1954)

Cf. 194. **anaye**, e.a.: ik. VII.3.0. erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz. Cf. *oial*, *oyal* (*Oyal* Donostiako oiha! denda baten izena zen).

331.- **oxan** 'bosque'

Err. (M 1954)

Cf. 194. **anaye**, e.a.: Ik. VII.3.0. erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz.

332.- **oxeski, oxezki** 'lugar sombrío'

Err. (M 1954)

Cf. 194.- **anaye**, e.a.: Ik. VII.3.0. erronkarierazko **y** > **j** aldaketaz.

333.- **Oxillaiñaldeko** (top.)

ROL (Mark.)

Ik. 3. **Allaman**.

334.- **oxiña** 'agua profunda'

PA (Mark.) **ossiña**

335.- **págaxiyá** («ezkurra ta págaxiyá»: *pago hazia?*)

IZ (Alts.) + **pagaxibikorrak** 'los hayucos'

336.- **pixka** 'poco'

A (Ast.); EF (Ataun) **pixkaka pixkaka**; IZ (Alts.) **pixkat**; L

(Elk.); MS (Don.); BE (Baz.)

Esanahiagatik adierazgarritzat hartzeko oso hitz aproposa (cf. 222.

gutti). Cf. IZ **pizkorra**: ez dago asimilaziorik

337.- **pixti** 'alimaña'

MS (Don.)

Cf. MS **piztl**.

338.- **pixu** 'peso'

IZ (Alts.)

Asimilazioa izan daiteke: cf. 288. *ixilik* Cf. *pisu* ere: bokala ez du ondorengo palatalak itxi beste batzuetan bezala, baina ez dirudi hitzaren latinezko jatorriari dagokionik ere (FHV 476). Ik. bokalen ixteaz II.4.2.

339.- *plaxaga* 'corneja'

Err. *ilaxaga*, Zar. (M 1967)

Cf. A *belatxaga*. Zenbait animaliaaren izenak ere bustidura oparoko hitz alor "adierazgarria" osatzen dute agian (Ik. 148. *iñurri*: animalia txikiak? Cf. *anddereder*, *xatandre* 'comadreja', *ugaraxiua*, *ugaratxua* 'rana').

340.- *puxka* 'trozo, pedazo'

MS (Don.); IZ (Alts.) *púxkaát*

Cf. IZ *puskat* 'un poco'. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriko aproposa da hitz hau (cf. 222. *gutti*, 233. *puntta*, e.a.).

341.- *-px, x-px* (onom.: katua uxatzeko)

ROL (Mark.)

Onomatopeia.

342.- *texu* 'obsceno'

Z *théiü*, Err. (M 1954)

Cf. *anaye*, e.a.: ik. VII.3.0. erronkarierazko *y* > *j* aldaketaz. Berez, erromantzezko bilakaeratik datorkio euskarari palatala (< lat. *taediu* (M 1954, 142).

343.- *truxalak eiñ* 'llover a cántaros'

TE (Eibar)

Adierazgarria bada, kopuru haundiekin erlazionatua behar du.

Asimilazioa izan daiteke: cf. 288. *ixilik* Cf. *pisu* ere: bokala ez du ondorengo palatalak itxi beste batzuetan bezala, baina ez dirudi hitzaren latinezko jatorriari dagokionik ere (FHV 476). Ik. bokalen ixteaz II.4.2.

339.- *plaxaga* 'corneja'

Err. *ilaxaga*, Zar. (M 1967)

Cf. A *belatxaga*. Zenbait animaliaren izenak ere bustidura oparoko hitz alor "adierazgarria" osatzen dute agian (Ik. 148. *iñurri*: animalia txikiak? Cf. *anddereder*, *xatandre* 'comadreja', *ugaraxiua*, *ugaratxua* 'rana').

340.- *puxka* 'trozo, pedazo'

MS (Don.); IZ (Alts.) *púxkaát*

Cf. IZ *puskat* 'un poco'. Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau (cf. 222. *gutti*, 233. *puntta*, e.a.).

341.- *-px, x-px* (onom.: katua uxatzeko)

ROL (Mark.)

Onomatopeia.

342.- *texu* 'obsceno'

Z *théiü*, Err. (M 1954)

Cf. *anaye*, e.a.: ik. VII.3.0. erronkarierazko *y* > *j* aldaketaz. Berez, erromantzezko bilakaeratik datorkio euskarari palatala (< lat. *taediu* (M 1954, 142).

343.- *truxalak eiñ* 'llover a cántaros'

TE (Eibar)

Adierazgarria bada, kopuru haundiekin erlazionatua behar du.

344.- *ugaraxiua* 'rana'

PA (Mark.) *ugarassijuac*; IZ (Alts.) *uberaxa*

Cf. TE (Eibar) *ugaratxua* (ik. 339.).

345.- *ũrxo* 'paloma'

Err. (M 1954)

Ik. 271. *erxe*.

346.- *ux* (onom.: animaliak uxatzeko)

ROL (Mark.)

Onomatopeia modukoa: cf. 248. *axaixa emon*, 250. *axātu*.

347.- *uxerratzen* 'hozando'

IZ (Alts.)

348.- *uxetu* 'ahuyentar'

ROL (Mark.)

Cf. 346. *ux*?

349.- *uxo* 'paloma'

MS (Don.) *uxuak*

Cf. 345. *ũrxo*.

350.- *xa* 'ya'

Zar. (M 1967); Err. (M 1954)

Bustidura mailegatua da eta euskalki hauetan *j- > j-.

351.- *xabal* 'plat'

Z (Gz.)

Cf. Z (Gz.) **zabal** 'ouvert, étendue' (ik. 249. **axal**-ez esana).

352.- xabe 'dueño'

Zar. (M 1967); A (Cat.)

Cf. Z (M 1967) **jabe** ([**ʒ** -], G [x-], B [**ɟ** -]; Err. eta Zar. hitz hasierako *j --> **ʃ** erregularitasun osoz jazo da, Aezkeraz ez da biotan bezain erregularra aldakuntza (M 1954, 148 eta M 1967, 171-172).

353.- Xavier (izen prop.)

L (Elk.)

Ik. 3. **Allaman**. Dena dela, kasu honetan palatalduna da forma zaharra (oinarrizkoa).

354.- xabon 'jabón'

Zar. **xabon**, Err. **xaboĩ**, Z **xabũ** (M 1967)

Erromantzeko bustidura da (cf. gazt. zah. *xabon*).

355.- xai 'fiesta'

A (Cat.) **sseyen**; Err. (M 1954) **xei**

Ik. 352. **xabe**.

356.- xai ki 'levantarse'

L (Elk.) **chsaiquitzean**; A (Cat.) **ssei quitcean**; Err. (M 1954)

xagi

Cf. G *jeiki* [x-], B **jagi** (M 1954, 141). Ik. 352. **xabe**.

357.- xaka 'chaqueta'

L (Elk.) **chsaca**

Ik. 352. **xabe**.

358.- *xakarra* 'lo feito'

IZ (Alts.)

Cf. *zakarra* 'lo feo?': hala bada, adierazgarria (txikigarria).359.- *xakin* 'saber'L (Elk.) *chsaquín*; Zar. (M 1967); A (Cat.) *ssaquitea*Ik. 352. *xabe*.360.- *xako* 'bota'

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. *zagi* 'odre': adierazgarria (M 1967, 167), baina ez da bustidura bakarrik hitz hau txikigarri bihurtzen duena. Ez dago garbi oinarritzko forma zein den, cf. G *zato*⁹.361.- *Xakobe* etxe -?-izen prop.

Zar. (M 1967)

Ik. 3. *Allaman*. Kasu honetan txistukari bustia mailebatua daiteke.362.- *xakur* 'perro'BE (Baz.) *chacurrei*

Berez, *zakur* oinarritzkoaren txikigarri edo diminutiboa osatzen duen bustidura. Askotan, ordea, palatalduna bihurtu da oinarritzko eta bustidurarik gabea aumentatibo (ik. IV.3. eta beherago 618.). Ik. FHV § 10.8. hitz hasierako **j** eta **tj**-ren banaketa euskalkiak zehar. Dirudienez, hemen aztertutako euskalki nafarrak BN eta L-rekin lihoazke.

363.- *xal* 'ternero'

⁹ Ik. Gavel 1920, 101 eta 474: < gazt. *saco*.

Err. **xāi**, Z **xāhal**, Zar. (M 1967); Z (Gz.) **xahal**
 Dudarik gabe **ʃ** zaharra da bustidura hitz honetan (M 1967, 171).

364.- *xalma* 'enjalma'

Zar. Err. (M 1967)

Mailegua. Ik. 299. **kaxia**.

365.- *xamar* (1)

MS (Don.) (**otz**) **xamarrak**; ; TE (Eibar) **txamar**

Cf. ROL (Mark.) **samarrak**, TE (Eibar) **samar**. Ez dirudi testuinguru-
 ak TE-n agertzen den afrikazioarekin zerikusirik duenik: cf., adib.,
 «laster samar» (553) eta «belu txamar» (593). Ik. FHV § 10.8.: Don.
ʃ hitz hasieran adierazgarri bezala bakarrik gertatzen da.

366.- *xamar* (2) 'blouse'

Z (Gz.)

Cf. *txamar* (ik. FHV §10.8, euskalkietako frikari eta afrikatuaren
 banaketaz).

367.- *xan* 'comer'

Zar. (M 1967); A (Cat.) **ssatean**

Ik. 352. **xabe**.

368.- *xapel* 'chapeau'

Z (Gz.)

Cf. *txapel* (ik. 366.).

369.- *xar* (1) 'viejo, anciano'

MS (Don.) **xarra**; EF (Ataun) **xâr**; Zar. (M 1967) **xar** 'pequeño, de mala calidad', **xarkume** 'último hijo'; Z (Gz.) 'chétif', **xahar** 'vieux'

Oinarritzko forma *zahar* da (M 1964, 132). Esanahiaren aldetik ez dago aldaketa nabaririk bustia eta oinarritzkoaren artean: cf., adib., «urre xarra» (MS 60) eta «trapupuxka zar» (MS 62: errepara lehenengo hitzaren [j] adierazgarria). Z (Gz.) **zahar** eta **xahar** ere sinonimo bezala ematen dira. Egia da oso zaila dela askotan "esanahi aldaketa" kokatzea, nahikoa bait da egoera /testuinguru /doinu aldaketarik nimiñoena bustidura adierazgarria bezalakoak gertaerazteko.

Adierazgarritzat har daiteke *zar* bezalakorik jasotzen ez bada ere hitz egokia bait da maitasunez ebakitzeko (cf. 222. *gutti* e.a.). Cf., gainera, 649. **txar**- 'malo': hitz honek hitz hasierako frikari eta afrikatuen euskalkien arteko banaketa hausten du (ik. FHV §10.8., banaketaz eta goragoko IV.2. hitzaren aldaerez).

370.- xar (2) 'sentar(se)'

A **ssarric**, Err. **ssaseriric** (Cat.)

Ik. 352. **xabe**.

371.- xardoki 'hablar, conversar'

Err. (M 1954)

Euskalki honetan «El reflejo normal de *j- es x- (...). Incluso en casos en que originariamente debía haber una consonante entre i y la vocal siguiente (...)» Cf. BN L **iharduki**, B **iñardu(n)** (M 1954, 141). Salbuespen bakarra **iansoa** 'tocino' omen da.

372.- xaseri 'sentarse'

Err. (M 1954)

«(...) probablemente un cruce del tipo Sal. *eseri* con A *xarri*» (M 1954, 141). Ik. 352. *xabe*.

373.- *xastre*

L (Elk.) **chsástre**

Bustiduraren bidez "euskaratua"? Ik. 98. *sombrelluba*.

374.- *xastarra* Ik. *txastarra*.

375.- *xatandre* 'comadreja'

Zar. (M 1967)

Adierazgarria Michelena-ren (1967, 167) arauera. *Satandre* ere badago beste euskalkietan; **sagu** ez balego, **xatandre** «forma única» litzateke euskalki honen barruan (**xuri** bezalaxe). Eta, egia esan, sentitzen ote du hiztunak **sagu** eta **xatandre**-ren ateko lotura? Ik. 339. *plaxaga*¹⁰.

376.- *xatx* 'bajar'

MS (Don.) **jeixten**; Zar. **xaitz** 'ordeñar', Err. **xatx** (M 1967)(Cat.); Err. (M 1954) **xátxi**

Cf. Zar. **salts**, **saltz**, **saintz** 'ordeñar', Zar. **saunts**, A **sauts** (M 1967), A (Cat.) **sautsi**: «Algunos casos de despalatalización de la inicial son debidos a dilación, a causa de la presencia de otra consonante no mojada (...)» (M 1967, 171). Testu honetan Err. (Bidangoze) **zauzi** 'salto' eta **xauxtikalari** 'langosta' erkatzen ditu. Erronkarieraz ari dela (M 1954, 141), bustidurarik gabeko txistukaria aziltzen du esanez: «(...) se habrá "restituido" z- partiendo de x- sentido como diminutibo». Nolabait *y*- oinarri

¹⁰ Aipagarria da, adierazgarritasuna dela eta, fr. *belette* 'comadreja'.

hartuta *d-* sortu den bezala (cf. *dosta*, *tosta*, e.a.) mailegu zaharragoetan (h.d. despalatalizazioa *j- > ʃ- gertatu aurretik izan zutenetan).

377.- *xau* 'limpio'

Zar. **xa(g)u**, Err. **xaĩ**, Z **xā'ü**, A GN (M 1967); Zar. **ssau**, A (Cat.); Err. (M 1954) **xaĩ**; Z (Gz.) **xahu**

Ik. 352. **xabe**. Hitz hau ez da erabiltzen Gipuzkoa aldean, horregatik ez dugu [ʃ]/[x] bereizkuntza.

378.- *xaun* 'señor'

Zar. (M 1967)

Ik. 352. **xabe**. Azkue eta Bonaparte-k txistukariz jasotzen duten hitza, Mitxelena-k [x-] hots belareaz ebakia entzuten du, nahiz eta oraindik ere **baxona** 'sí señor' eta **etxauna** 'no señor' esan; cf. Err. (M 1954) **Jangeikua**, **jein**, **jin**, **justo** [x-] ere. Gipuzkeratik gainerako Espainiako euskalkietara hedatuz doan [ʃ] > [x] bilakabidea gazteleraren eta -zenbait hitzetan behintzat- katekesiaren eraginaren ondorioa izan daiteke ¹¹. Cf. Err. (M 1954) **apetxona** 'señor cura' (= *apaiz jauna*).

379.- *xaundu* 'marchito'

BE (Baz.) **chauntzen**

380.- *-xe* atzizkia

¹¹ Ik. hontaz M 1954, 141 eta M 1967, 171.

TE (Elbar): **axe**; ROL (Mark.) **oixe**; PA (Mark.) **assé** ¹²; MS (Don.)
bez laxen, geixi ago, lentxi ago, orixen; Er. (Ast.)
aurrera[~]se ago, guero[~]se ago EF (Ataun) **andixe**; IZ (Alts.)
ólaxe, lenxoo; L (Elk.) **apalchságo, beltichságo**; BE (Baz.)
gueroche ago; Z (BS) **argitü'xe, astóxe** (-xe 'un peu')

Bokalaren ondoren ere gerta daiteke afrikatua: TE **lezkotxe** (**leztxe** bezalakoen analogiaz?), eta kontsonantearen ondoren igurzkaria: IZ **lenxoo**. Batzuetan, ordea afrikatu-frikari banaketa garbiago azaltzen da: ROL **goi[~]ixe, oixe** vs. **alantxe, ontxe**; EF **andixe, oolaxe** vs. **oaintxe, urdúntxe**; BE **gueroche ago** vs. **aitzintche ago**. Donostiako testuan ikusten da atzizki azkenean herskari sudurkaria gerta daitekeela (eta hala entzuten da Donostian). Badu txikitasunarekin, zehaztasunarekin zerikusirik esanahiaren aldetik.

381.- **xẽ** 'menudo'

Err. (M 1954); L (Elk.) **chseatzecó**; BE (Baz.) **cheatua**; Z (Gz.)
xehe

Cf. L **chseágo** (Apecechearen hitzaurreko 23. or.) 'más detalladamente'. Cf. G *txetu* (lk. 362). Esanahiaren aldetik, hemen ere 380.ean esana errepika daiteke.

382.- **xegun** 'palmo'

Zar. (M 1967)

Dudarik gabe **j**- zaharra da hitz honetan (M 1967, 171).

383.- **xek** 'vosotros'

Err. (M1967)

¹² Eskulizkribuko **asé** (150. or.) oker dago (lk. M 1978-79, 213). Eskulizkribuan bertan, beharaxe ago (151. or.) **asse** azaltzen da.

Cf. Z **ziek**, Zar. **ziek** (M 1967). Asimilazio atzekariaren ondorioa da hemen bustidura.

384.- *xelbia* 'insidioso'

TE (Eibar)

385.- *xemaikua* 'moneda de cinco céntimos', **xemai zor** 'deber cinco céntimos'

TE (Eibar)

Cf. TE *lemaikua* 'moneda de cobre' (moldiztegi hutsa?).

386.- *Xemein* (top.)

ROL (Mark.) **+Xemeingo**

Ik. 3. ***Allaman***.

387.- **xende* 'gente'

Zar. (M 1967)

Honek behar du izan orain, gazteleraren eraginaz *jende*([x-]) esaten denaren lehenagoko forma "erregularra" (ik. M1967, 171). Cf. 378. ***xaun***, nahiz eta arrazoiak berberak ez izan.

388.- *xentimo* '≈céntimo'

MS (Don.)

Txanpon txikia da berez, cf. 222. ***gutti***.

389.- *xerri*

BE (Baz.) **cherrien**; Z (Gz.)

Ik. 362. ***xakur***.

390.- *Xigant* etxe izena

Zar. (M 1967)

Cf. gazt. *gigante*? (itxura osoa du). Ik. 3. *Allaman*.

391.- *xiketute* 'secado'

AV (Bermeo...)

Cf. AV **sikatu** ez dirudi esanahi diferentziarik dagoenik, ez bada lehena **erdi(-xiketute)** izatea.

392.- *xikira*

BE (Baz.) **chiquiratuac**

393.- *xilko* 'ombligo'

BE (Baz.) **chilcoa**

Ik. 271. **erxe**, gorputz atalez ¹³.

394.- *xilo* 'trou'

Z (Gz.)

Cf. Z (Gz.) **silo** (ez dirudi esanahia aldatzen denik), b.e. *zul(h)o* /*xul(h)o*. Ik. FHV 77: bokal aldaketa kontsonante aldaketaren ondorio izan daiteke. Bustidura hau jatorriz adierazgarria izan daiteke eta oraindik ere hala dela askotan esango nuke (cf. 233. **puntta**, 249. **axal**).

395.- *ximel* 'marchito'

EF (Ataun) **ximelduta**

Cf. EF **tximelduta**, ik. 362.

¹³ Gorputzaren zati hau adierazteko ohizkoak dira deitura "adierazgarriak" beste hizkuntzetan ere, cf. gazt. *botón Felipe*, e.a. Haurrekiko hizkeran gertakortasun haundiko hitza da eta horrek izan dezake zerikusirik guzti honekin. Cf. G *zilbor*/*txilbor* ere.

396.- **xin** 'venir'

Zar. (M 1967)

Ik. **xabe**.

397.- **xipoĩ** 'justillo, corpiño'

Err. (M 1954)

Cf. G **jipoi**, **jipoe** [x-]. Ik. **xabe**.

398.- **xirixtilo**

BE (Baz.) **chirichtiloan** (hitz berean bi palatalen kontrako debekua ez da erabatekoa -ez bi aspirazioen kontrakoa bezainbat, behintzat).

399.- **xito** (1) 'pollito'

BE (Baz.)

Ik. 362. Esanahiaren aldetik bustidura txikigarria izateko hitz aproposa da.

400.- **xito** (2) 'gitano'

Zar. (M 1967) **xitokume** 'de casta de gitanos'

Cf. Zar. **zito** 'gitano'. Cf. G **ijitu** [-x-].

401.- **xo** 'pegar'

Zar. (M 1967); Err. (M 1954)

Ik. 352. **xabe**.

402.- **xo/**, **xo/** interj.

IZ (Alts.)

403.- **xoka** 'jugar'

Zar. **xoka** 'jugar (a las cartas, a la pelota, etc.)', **xoku** 'juego' (M 1967); Err. -Uztarroze- (M 1954) **xoka(tu)** 'unirse carnalmente'

Cf. Zar. **dosta**, E **tosta** 'jugar (los niños)', Z (Gz.) **txosta**: oinarritzko forma bustiduraduna (mailebatua) izanik sortu da palatalik gabea. Kontsonante bustia oraindik **j**- zenean sortu bide zen "aumentatiboa": **j**- > **ʃ**- bihurtu ondoren sortu balitz, **zosta* bezalako zerbait genuke (cf. **zauzi** 'bajar').

404.- **xokor**

BE (Baz.) **chocorrac**

405.- **Xoliman** etxe izena

Zar. (M 1967)

Ik. 3. **Allaman**.

406.- **xoralte** 'traba que se pone al ganado en el cuello'

Err. (M 1954)

Cf. Z [ʒ-]. Ik. 352. **xabe**.

407.- **xori**

BE (Baz.); Z (Gz.)

Ik. 399. **xito**(1).

408.- **xoro**

L (Elk.) **chsoraturic**; Z (Gz.)

Ik. 362.

409.- **xorra(tu)** 'escardar'

Err. (M 1954)

Ik. 352. **xabe**.

410.- xorte

BE (Baz.) **chortean** 'a suertes'

Cf. lat. *sārtē*; G *txort egin*, Lh. *zorte*. Jatorriak ez du kasu honetan bustidura azaltzen.

411.- xosi 'coser'

Err. (M 1954)

Ik. 352. **xabe**.

412.- xoten 'hoquet'

Z (Gz.)

Cf. b.e. *zotin(a)* Esanahiagatik erabilkera adierazgarriako aproposa da hitz hau (ik. 7. *allu*, 243. *antux*)

413.- xoxo 'tordo'

Zar. (M 1967)

Cf. b.e. *zozua*.

414.- xuán 'ir'

Err. (M 1954)

Ik. 352. **xabe**.

415.- Xubri etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Cf. *Zubiri* deitura (goitizena ere izan daiteke). Ik. 3. **Allaman**.

416.- xuen (aditz lg.)

AV (Bermeo...) **guxen** (*gura zeuen*), **xeuen**

Ez dirudi esanahiaren aldetik bereziki adierazgarri direnik. Ohizkoa da ebakera hau hurrekiko hizkeran. Euskalkiotan ez dago xukako aditz jokorik (cf. IV.3.).

417.- *xunta* 'juntar(se)'

Zar. + **zangoxunta** 'tobillo' (M 1967); Err. (M 1954)

Ik. 352. ***xabe*** eta 354. ***xaboi***.

418.- *xuri* 'blanco'

AV (Bermeo...) **b(u)ruxurijegas** -senarrak emazteari-, cf.

b(u)ru surijekas -kontalariak- ¹⁴; BE (Baz.); Zar. (M 1967)

Ik. FHV § 10.8., frikari eta afrikatuaren banaketaz. Forma bakarra den neurrian, ez da adierazgarria.

419.- *xut* = *dut*(xuka)

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **zut** (zuka, ziurrenik): adierazgarria (ik. IV.3.).

420.- *xutik* 'de pie'

BE (Baz.) **chutic**

Jatorriz adierazgarria izan daiteke. Ebakera normala hurrekiko hizkeran.

421.- *zurkaxtu* 'atemorizar'

TE (Eibar)

Cf. ***zurkatxa*** 'miedo'

¹⁴ Autoreek parentesi artean ipintzen duten **u** hori ez dagokio hitz honi, idazkera ortografikoa (**brux zuriagaz, brus zuriakaz**) eta esanahia ('con *blusa* blanca') kontuan hartzen badina. Zalantza bakarra da bustidura elkarketaren lehenengo zatia dena ala bigarrenarena den, baina honek ez ditu gure ondorioak funtsean aldatzen.

VII.6. [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa**422.- *akabantxa*** 'fin'

Err. (M 1954)

Cf. lat. *-antia*: erromantzezko bilakaeraren fruitu (mailebatua) bide da hemen palatala. Gainerako euskalkiek [ts] dutenetan ere oso maiz agertzen da [tʃ] zubereraz eta erronkarieraz (M 1954, 148; cf. M 1974, 200).

423.- *alkatxofak* 'alcachofas'

MS (Don.)

Mailebatua, cf. 10.

424.- *altxa* 'levantar'Er. (Ast.) **alcha**, **alchatzen**; EF (Ataun) **altxau**; L (Elk.)**alchatu**– '≈refugiarse'; BE (Baz.) **altchatu**; Err. **altxatu**'guardado', Z **altxatū'ra** (= Larr., cf. Gz. **alchaturazi**)

'levadura' (M 1954); Z (Gz.)

Cf. gazt. *alzar* < ahozko lat. **altiare*. Ik. 422. ***akabantxa***.**425.- *altxímiskan*** '?'

IZ (Alts.)

426.- *antxiña* 'antiguamente, antigüedad'TE (Eibar) + **antxiñako**; ROL (Mark.) **antxiñe**; PA (Mark.)**anchina****427.- *antxitxika*** 'corriendo'

TE (Eibar) + **antxitxikalarixa**, **antxitxiketa** jokua,
(**arañegun**) **antxitxik** 'ante (anteayer)'

Cf. *antxintxika* eta Azk. *antšiti* 'principal', 'adelante'; *antšitu* 'coger, alcanzar'.

428.- antxobia 'anchoa'

TE (Eibar); IZ (Alts.) **antxó**, **antxúk**

Mailebatua, ik. 10.

429.- Antxuelon (izen prop. gen.)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

430.- antxume 'cabrito'

TE (Eibar) **antxumia**; PA (Mark.) **anchumeetara**; L (Elk.); BE
(Baz.) **antchumetaic**

Cf. IZ (Alts.) *auntzak*: txikitasunarekin lotutako adierazgarritasuna bide da bustidura honen arrazoa (cf. 110. *a(g)uña*).

431.- apatx 'sentarse' (haur hizkera)

TE (Eibar)

Bustidurarik gabeko oinarritzko kiderik ez badu ere, adierazgarritzat har daitezke berez adierazgarri diren zenbait maila edo erregistro berezitako hitzak, hala nola haur eta animaliekiko hizkera, maitaleen arteko mintzoa, erabat harturik lagunartekoa (ik. Ros 1986 hitanoaren bustiduraren balio adierazgarriaz), e.a. Halaber, hizkuntzaren eremu adierazgarrien artean sailkatu behar dira alor semantiko batzuk ere: nazka, poza, maitasuna eta gainerako sensazio eta hunkipenen adierazpenak; izen propioak (ik. 3.) eta bihozkor (edo mespretxuzko) egin

daitezkeen beste deiturak (*atta, kaxkar, matte, **pollit***); mailaka daitekeen edukia dutenak (***axal**, puntta*); gorputzaren atal batzuen izenak (***xilko***), e.a. Erregistro eta hiztegi multzoak, noski, batera ibiltzen dira askotan, alor "adierazgarrietako" hitzak erregistro "adierazgarrietan" bait dute gertakortasun haundiena (ik. IV.).

432.- *apetxona* 'señor cura'

Err. (M 1954)

Ik. 378. *xaun*: [s] + [j] --> [tj] bilakabidea gertatu da (M 1954, 153);

cf. **etxakin** < *ez xakin*, **etxauna** < *ez xauna* (378.).

433.- *aratxi* 'abatin'

TE (Eibar) + **eratxi**, **eratxitta**

Cf. TE **eratsi** 'ordeñar' (G *jetxi* 'bajar, ordeñar'). Azk. L, Bc *eratsi*,

G *eratš* / (...) 'bajar, derribar'. Ik. beherago *jatxi*.

434.- *Arbotxoota'n* (top. ines.)

EF (Ataun)

Ik. 3. *Allaman*.

435.- *aretxe* 'veau'

Z (Gz.)

436.- *arkakotxua* 'pulga'

TE (Eibar)

Cf. TE **arkakotzua**, G *arkakusua* / *arkakuxua*. Gehiago erabiltzen omen da *ardixa*. Hitzaren esanahiagatik erraz ulertzekoa da hemen bustidura adierazgarria (txikitasunarekin lotua).

437.- *Arkatxa* (top.)

TE (Eibar) + **Arkatxpia**

Cf. **arkatza** 'acantilado' (baita ere *(h)arkaitz* 'peña': asimilazioa ote da jatorri?).

438.- Armaitxa (goitizena)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

439.- Arotx etxe -?- izena

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **arotz** 'herrero', ik. 3. **Allaman**.

440.- Arretxiña (top.)

ROL (Mark.)

441.- atxakia

PA (Mark.) **achaqui**ja; L (Elk.) **achequiaric**; **atxekixadunak** 'enfermos'

Cf. gazt. *achaque*: bustidura kanpotikakoa da eta *aitzakia* bezalako despalatalizazioak *bakoitz*--> *bakotx* ereduaren eraginpean sortu dira (FHV 184).

442.- atxeiru 'acero'

Err. (M 1954); Z (Gz.) **atxeiru**, (Larr.) **atxéidū**

Bustidura erromantzezko *-kj-* taldearen bilakabideari zor zaio (cf. lat *aciarium*), kanpotikakoa da, beraz. Cf. 422. **akabantxa**.

443.- atxeter 'médecin'

Z (Gz.)

Bustidura hau ere (cf. 442.) latinetikako *-kj-* taldearen fruitua da, cf. lat. *archiater*: lehenengo dardarkaria disimilazioz galdua bide da (ik. FHV 339 eta M 1974, 200, 202-203).

444.- *atxezatu* 'comulgado'

Err. (M 1954) **atxezatu** (Uztatarroze), **atxizatu** (Isaba)

Cf. Err. **atizatu** (Bidangoze). Formagatik mailebua dela pentsa daiteke, baina ez du iturburu ezagunik (M 1964, 99). Michelena-ren (1954, 148), bustidura berez adierazgarria da.

445.- *atxiki* 'agarrar'

L (Elk.) **achiqui**, **dachicóla**; BE (Baz.) '**tchiqui**'; Z (Ar.)

etxekei 'tenir sa parole', Z (Gz.) **etxek** 'tenir, retenir'

Beharbada */seki/* 'colgar'-ekin zerikusirik duena (FHV 350).

446.- *atxikueza* 'el palo con que se lanza la tala'

IZ (Alts.)

447.- *atxiya* 'la tala'

IZ (Alts.)

448.- *atxitu* 'coger, alcanzar'

Er. (Ast.) **achitzeco**

Cf. 445.

449.- *atxolbe* 'abri'

Z (Gz.)

Cf. Lh. *aitzolbe* 'abri contre le vent': honen arauera, jatorria asimilazioa litzateke. Baina bustiduraduna despalatalizazioaren ondorio izan daitekeela ere ezin da ahaztu.

450.- **atxon** 'perfume'

L (Elk.) **achonbát**

451.- **atxua** «suavización de *atsua* para aplicarlo a las niñas pequeñas» (TE, 97).

TE (Eibar)

Adibide honetako bustiduraren funtzio adierazgarria atzizki batek ere bete dezake: cf. TE **atsotxua** (ik. IV.3.).

452.- **atxukaldikatu** 'apedreado'

Err. (M 1954)

453.- **atxumurka eiñ** 'arañar'

TE (Eibar) + **atxumurkadia**

Baita ere *atzaparka, atzaparkadia*. Cf. 243. **antux**.

454.- **autx** 'gabacho, francés'

Err. (M 1954)

Cf. **auts* < lat. *Ausci* (?) 'Auch-tarrak'¹. Onerako edo txarrerako bihozkortasunaren eremuan koka daitekeen hitza dugu (ik. 431. **apatx**).

455.- **auchi** (= *eutsi*?)

L (Elk.) + **euchi**

Cf. 433. **aratxi**?

456.- **Auntxaya** etxe(?) izena

¹ «Auch, ciudad de Armañac» (Raimundo de Miguel. *Dicc. Lat.-Esp. Etim.*⁸. Madrid: 1926).

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **auntzai** 'cabrero', ik. 3. *Allaman*.

457.- azuntxu 'ajenjo'

Err. (M 1954)

Ik. 422. **akabantxa**, hemen *-tj*-en ondorio dugu.

458.- bakotx 'cada uno'

BE (Baz.) **bacotchac**

Hau, jatorriz, asimilazioa da, baina lexikalizatua dagoela esan daiteke (cf. 441. *atxakia*).

459.- baltxa 'negro'

TE (Eibar)

TE, 122: **baltzaren** aldaera omen da. Ez du esaten esanahi diferentziarik dagoen. Cf. G *beltza* /*beltxa* eta Don. *Beltxa* goitizena: garbi dago bustidura honen balio adierazgarria.

460.- (iEne) baratatxoa! 'interj. de angustia, de desesperación'

TE (Eibar)

Ziurrenik *-txo* atzizkiak osatua.

461.- baratxuri 'ail'

Z (Gz.) **ba(r)atchouri**

Cf. *barazuria*: lexikalizatua bide dago (ik. *txuri*).

462.- bartx 'liendre'

Err. (M 1954)

Ik. 339. *plaxaga*.

463.- **basatxa** -?- 'lodo'

AV (Bermeo...) **basatzatik**, informatzaileak **basachatic**
idazten du ²

Cf. G *lokatza*.

464.- **belarri-motxa** «los que se sienten xenófobos, lo dicen de
los castellanos» (TE, 145) TE (Eibar)

Cf. 454. *autx*.

465.- **belatxaga** 'corneja'

A (M 1967)

Cf. 339. *plaxaga*.

466.- **belatxingia** 'variedad de cuervo'

TE (Eibar)

467.- **bethatxa** 'rapiécer'

Z (Gz.) + **bethatchu** 'pièce'

Cf. b.e. *petatxu* eta gazt. *petacho*. Bustidura kanpotikakoa bide da
(ik. 422.).

468.- **bildotx** 'cordero que no ha cumplido el año'

IZ (Alts.)

Cf. 430. *antxume*.

469.- **bitxi** 'joya'

PA (Mark.) **bichidun**, **bichitasunac**; TE (Eibar) **pitxia** 'cosa
bonita' (haur hizkera)

² Informatzailaren idazkeran <ch> busti ez den afrikatua ere adierazteko erabiltzen denaren
susmoa beste batzuetan hartzen da: *pencheu*, *kencheco*, *esanchien*(?: cf. **txon**), e.a.

Asimilaziorako testuingurua da, baina ez dago aldaerarik, ez beste euskalkietan eta ez historian zehar ere.

470.- *Bitxor* (izen prop.)

TE (Eibar)

Bitor-en bustidura adierazgarria bide da. Dena dela, forma biak **Bittor** sarrerapean azaltzen dira: «*Bitor* aundixa eta *Bitxor* txikixa, bixak montadoriak, eta Elgeta kalia». Pentsatzekoa da **Bitxor Bittor**-en aldaera dela (ik. V. kapitulua). Orain ez da [t̺] esaten Eibarren ([t̺] baizik). Cf. 3. *Allaman*.

471.- *bolíntxe* 'red'

AV (Bermeo...)

Cf. gazt. *bolichq* kat. *bolitx*- ?

472.- *bortxa* 'fuerza, violencia'

Er. (Ast.) **borchaz**; L (Elk.); BE (Baz.) **bortchatu**; Err. (M 1954); Z (Gz.)

Ik. 422. ***akabantxa***, latinetikako *-tj-* taldearen ondorio mailebatua.

473.- *botxū* 'rocher'

Z (Gz.) (**har**)**botxū**

474.- *derecha* 'derecho'

Er. (Ast.); L (Elk.) **drécho**; BE (Baz.) **deretchoz**

Ik. 422. ***akabantxa***.

475.- *despachu* 'despacho'

PA (Mark.)

Mailebatua, ik. 10.

476.- *detxima* 'dime, rente'

Z (Gz.)

Cf. *dekuma*, mailebu zaharragoa (M 1972, 7-8, Echenique 1984, 55).

Cf. lat. *decima*, *decuma*.

477.- *dichia* 'dicha'

PA (Mark.) + **dichosua**

Mailebatua, ik. 10.

478.- *domentxa* (sagar mota)

PA (Mark.)

479.- *eakutxi* 'enseñar'

EF (Ataun) + **eakutxiz**

Cf. *erakutsi*, ik. 433. **aratxi**.

480.- *egotx* 'lanzar'

Z **égotx** 'renverser, faire tomber', Err. (M 1954)

Cf. Zar. **egotz(i)**, ik. 433. **aratxi**.

481.- *Elantxoben* (top.)

AV (Bermeo...)

482.- *eltxo* 'pulga', 'mosquito'

TE (Eibar) **eltxo** 'pulga', **eltxuak**; ROL (Mark.) **eltxu**

'mosquito'; MS (Don.) **eltxua**; IZ (Alts.) 'mosquito'; BE (Baz.)

eltchoa; Err. (M 1954) **eltxu**, **eltxe**; Z (Gz.)

< *eulitxo*? Baina cf. BN L *eltzo*, e.a. (ik. FHV 99).

483.- **enatxôk** 'ez nago' (hitano mask.)

EF (Ataun)

Cf. *e(z)natxiok*: ik. 431. **apatx**.

484.- **enpatxa** 'empêcher'

Z (Gz.)

Mailebatua, ik. 10.

485.- **eratxi** Ik. 433. **aratxi**

486.- **erdéchi** 'alcanzar'

L (EIk.)

Cf. 433. **aratxi**.

487.- **eretxi** 'judged'

ROL (Mark.) + **eitxi**

Cf. *eritzi, iritzi*: ik. 433. **aratxi**.

488.- **erretxiña** 'resina'

TE (Eibar); PA (Mark.) (**arpegui**) **errechinauba**

Cf. G Astigarraga *erretxiña* 'persona de mal carácter', B (Arratzu)

Erretxin 'goitizena' ³. Hauek esanahiaren aldetik Eibarkoa baino gertuago daude Moguel-en testuan agertzen denetik.

489.- **(h)ertxi** Ik. *itxi*.

³ Ez omen da, bestela (h.d. izen arrunt bezala), hitz hau ezagutzen. *Erre* 'quemado' izan ote dute hiztunek gogoan eta etimologia asmatu?

490.- **eskutxiya** 'el puño'

IZ (Alts.)

Ik. 518. **itxi** (1).

491.- **etxagon** 'esperar'

AV (Bermeo...) + **etxagoten**; ROL (Mark.) **itxain**, **itxaiñe**,
itxaropen; PA (Mark.) **icharan**, **icharoten**; Er. (Ast.)
icheden, **ichedon**; EF (Ataun) **itxoiñ**; L (Elk.) **echidéten**; TE
(Eibar) **itxain**, **itxaropenia**

Ez da ezagutzen bustidurarik gabeko aldaerarik paradigma honetan.
Asimilazioz azaldu nahi izanez gero, ez dago esaterik oinarritzko
forma bustidurarik gabea **tz** [ts] txistukari bizkarkaria ala **ts** [tʃ]
apikaria den, bion palatalizazioa izan bait daiteke **tx** [tʃ].

492.- **etxáfuaketa** 'cohete'

IZ (Alts.)

Cf. gazt. *echar*.

493.- **etxakin** 'no saber, ignorante'

L (Elk.) **echaquines**; Err. (M 1954)

Ik. 432. **apetxona**.

494.- **Etxarriko** (top.)

IZ (Alts.)

495.- **etxauna** 'no señor'

Zar. (M 1954)

Cf. A *ezkauna*, Err. *ezjina* (M 1954). Ik. 432. **apetxona**.

496.- **etxe** 'casa'

PA (Mark.); TE (Eibar) + **etxian, itxian**; ROL (Mark.) + **etxiek**;
 AV (Bermeo...) + **ètixerà**; MS (Don.) **etxekoandriak, etxera**;
 Er. (Ast.) + **echecoac**; EF (Ataun) **etxea**; IZ (Alts.) **etxien**; L
 (EIk.); BE (Baz.); A (Cat.) **echetic**; Err. (M 1954)

etxekuándria; Z (Gz.)

Cf. AV **etzerà, etzíjen**, Zar. Err. **etse** (M 1967) -cf. A **etxe**: ez dirudi esanahiaren aldetik ezer aldatzen denik. Badirudi bustidurarik gabeko aldaerak direla zaharrenak, euskal eremuaren ertz bietan aurkitzen bait dira (M 1967, 172). Hitzaren jatorria ezaguna delako gertatzen da harrigarri Zar. **mertsede** eta **martso** bezalakoetan txistukari apikaria, baina **etse**-rena ez da ezaguna.

497.- etxi 'desistir'

TE (Eibar) **itxi, etxi etxixan, etxipena**

Ik. 433. **aratxi**.

498.- etxi 'pasado mañana'

TE (Eibar)

Cf. **etzi**.

499.- etxiden Ik. 491. **etxagon**.

500.- etxukán 'no tenía' (hika)

IZ (Alts.) + **etxakinet** (*ez zekinat*)

Ik. 431. **apatx**.

501.- etxut 'no tengo' (xuka)

Zar. (M 1967)

Cf. Zar. **xut/zut**, ik. IV.3. xukakoaren adierazgarritasunaz. Ik. 432.

apetxona frikari bien batzeaz.

502.- **frantxuleta** 'especie de pito o flauta'

TE (Eibar)

Autoreak berak ematen du frantsesezko izena: *flageolet*. [tʃ] afrikatua frantsesezko [ʒ] euskaratutzat har daiteke (gainerako bilakabideak direla eta, suertatu zaion testuinguruan).

503.- **futotx** 'turón'

A (M 1967); Zar. (M 1967) **pitotx**

504.- **Galburutxinpartategiko** (izen prop.)

MS (Don.)

Ik. 3. **Allaman**.

505.- **gantxilla** 'botijo'

TE (Eibar)

506.- **garatxuba** 'leño para arrastrar'

PA (Mark.)

507.- **garitxo** 'verruqa'

IZ (Alts.)

-*txo* atzizkiaz osatuaren itxura du.

508.- **gutxi** 'poco'

ROL (Mark.) **gitxi** ; TE (Eibar) + **gitxiago**; AV (Bermeo...)

gitxi(j)au; MS (Don.) **gutxi**; Er. (Ast.) **guchi**, **guchicoac**,

guichienez; IZ (Alts.) **gutxi**

Ik. 222. **gutti**.

509.- **ilinchia** 'carbón mal cocido'

PA (Mark.)

Beste euskalkietan *i(l)lindi*, *i(l)linti*, e.a.

510.- **imitxa** 'chinche'

TE (Eibar) **imutxak**; PA (Mark.) **imich(i)a**

Baita ere TE **imutzia**, PA **chimicha**, **imicha** (cf. beherago). Ik.

339. **plaxaga**.

511.- **imurtxi** 'pellizco', 'picar, arañar'

PA (Mark.)

Cf. *ximiko*, *zimiko* (**zimir* + *ko*) eta *atximur* (*atz* + *zimir*)-ren bustidura adierazgarria. Baita ere **chimurchi** (cf. beherago) ⁴. Hitz aproposa da erabilkera adierazgarriko, ik. 431. **apatx**. Dena dela, cf. 433.

512.- **intxaur** 'nuez'

TE (Eibar); AV (Bermeo...) **intxaúr**; PA (Mark.) **inchaurre**;

EF (Ataun) **intxaurre**; IZ (Alts.) **intxor**; A (M 1954)

etxabur

Cf. Err. **etzagur**, **itzagur**, (Uztarroze) **intzagur**, Zar. **giltzagur**, Z **intzágor**, **intzáur** (M 1954); baita ere *unsaur*, *untxaur*. Dirudienez forma palataldunak berriagoak dira besteak baino, baina ez dago garbi formaren bilakaera (FHV 285 h.).

513.- **irutxur** 'engañar'

TE (Eibar) + **irutxurlarixendako**

⁴ Kasu honetan haslerako afrikatua bestearekiko disimilazioz galdu bide da (FHV 291).

514.- *itxain* Ik. 491. *etxagon*.

515.- *itxaso* 'mar'

Err. (M 1954); Z (Gz.)

Asimilaziotzat har daiteke (eta hala da sortzez behintzat: zentzu diakronikoan) beste euskalki batzutan *itsaso* agertzen den neurrian. Hitzaren ebakera hau oso hedatua dago euskararen eremu osoan, leku bakoitzeko asimilazio arauetaz erabat ate. Zubereraz (Gz.) ez da agertzen **its**-rik (**itx**- eta **itz**- bakarrik): **itxaso**, **itxes** 'bouleversement', **itxura** 'appearance' (cf. beherago), **itxusi** 'laid', **itze** 'clou', e.a. (ik. III.6.).

516.- *itxeki* 'encender'

L (Elk.) **ichequiric**

Cf. 286. *ixiki*.

517.- *itxes* 'bouleversement'

Z (Gz.)

Ik. 515. *itxaso*.

518.- *itxi* (1) 'cerrar'

ROL (Mark.); PA (Mark.) **ichico**, **ichiric**; TE (Eibar) **itxitta**; EF (Ataun); MS (Don.) **itxitxia**; IZ (Alts.); L (Elk.) **erchi**; A (M 1967) **ertxi**

Cf. Err. **ersi**, Z **hérsi**, Zar. **ertsí** (M 1967). Ik 1.3.1.1.7/8.

519.- *itxi* (2) 'dejar'

TE (Eibar) + **utxi**; ROL (Mark.) **itxisiñ uela**; PA (Mark.)

Cf. TE **utzi** eta **etxi**, **itxi** 'desistir'. Ik 1.3.1.1.7/8.

520.- *itxura* 'apariencia'

TE (Eibar); PA (Mark.) + **ichuratu**; ROL (Mark.); AV (Bermeo...) **etxúre**; EF (Ataun); MS (Don.); Er. (Ast.); IZ (Alts.) **itxúrabée**; L (Elk.); BE (Baz.) **itchuraī**; Z (Gz.) **itxura, üt_xūra** (i-u > u-u).

Cf. ROL **iŕura**: egia bada, [t̪] ebakera [t̪] --> [tʃ] (cf. **iŕo, itxo**) bilakabidearen emankortasun eta oparotasunaren aldeko adibidea litzateke ⁵. Cf. autore beraren **itxu, iŕu** 'blind'. Cf. gazt. *hechura* (AV-ekoa da jatorritik grtuen dagoena eta bustidura asimilaziotzat hartzea ezinezko egiten duena).

521.- *itxuzki* (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

522.- *jatxi* 'bajar'

Er. (Ast.) **jachi(tzen)**; EF (Ataun) **jetxi**; IZ (Alts.) **jaitxi** ⁶ 'ordeñar, bajar', **jatxi, jetxiezkéó**; Zar. **xaitz** 'ordeñar', Err. **xatx** (M 1967); Err. (M 1954) **xátxi**

Cf. Zar. **saits, saitz, saintz** 'ordeñar' eta Zar. **saunts, A sauts** (M 1967), A (Cat.) **sautsi. aw > aj**, zubereraz ez bezala, erronkari-eraz */j/-ren ondoren ere gertatu da (M 1954, 134). Ez dago garbi bustiduraren arrazoia (FHV 192).

⁵ Rollo-ren informatzaileak Sabino Arana-ren irakaskizunaren eraginpean zeuden.

⁶ Despalatalizaziorik gabe ere bokalerdiaren epentesia gertatu delako ala Izagirre berak sartu duelako? Cf. **aitxurrak/aitz arriya, aitz?**/Cf. Zar. **saits, saitz, saintz** 'ordeñar' (M 1967)/Cf. Zar. **saunts, A sauts** (M 1967), A (Cat.) **sautsi**.

523.- **kantxoĩ** 'canción'

Err. (M 1954)

Ik. 422. **akabantxa**.

524.- **kaputxino** 'capuchino'

PA (Mark.); L (Elk.)

Mailebatua, ik. 10.

525.- **karatxo** (interj.)

TE (Eibar)

Cf. 460.

526.- **kardantxilluak** 'el jilguero' (erg.)

TE (Eibar)

Ik. 339. **plaxaga**.

527.- **katetxima** 'catecismo'

L (Elk.) **catechima**

Ik. 422. **akabantxa**.

528.- **katxarro** 'cacharro'

TE (Eibar)

Mailebatua, ik. 10.

529.- **katxeterua** 'cachetero' -?-

MS (Don.)

530.- **khotxeia** 'devidoir'

Z (Gz.)

531.- **k(h)otxi** 'coussin'

Z (Gz.)

532.- **khotxo** 'mâle (cheval ou âne)'

Z (Gz.)

533.- **khotxü** 'vase en bois'

Z (Gz.)

534.- **koltxo** 'mattress'

ROL (Mark.)

Mailebatua (cf. gazt. *colchón*), ik. 10.

535.- **Kontxo** (izen prop.)

AV (Bermeo...)

Ik. 3. **Allaman**.

536.- **ikontxo!** «interjección con que se suplen palabras torpes,
por quien trata de evitarlas»

(TE, 407) TE (Eibar)

Cf. 525. **karatxo**.

537.- **kotxe** 'coche, automóvil'

MS (Don.) **kotxia**; IZ (Alts.) + **kotxeruk**

Mailebatua, ik. 10.

538.- **krutxe** 'cruz'

Err. (M 1954); Z (Gz.) **khürütxe**

Ik. 422. **akabantxa**.

539.- **kutxa** 'cofre, arca'

ROL (Mark.); PA (Mark.); TE (Eibar) **kutxia**, **kutxan** 'en la panera'; IZ (Alts.); Z (Gz.) **hutxa**

540.- **kutxillo** 'cuchillo'

AV (Bermeo...)

Mailebatua, ik. 10.

541.- **lantxurda** 'llovizna'

IZ (Alts.) **lantxurdiakin**; Z (Gz.)

Cf. IZ **lantzurdia**: sinonimo bezala ematen ditu. Esanahiaren aldetik nahiko aproposa bustidura adierazgarria izateko (cf. Don. *xirimiri*)

542.- **letxarrerria** 'golosina'

TE (Eibar) **letxarrerixia** , **letxarrerua**; MS (Don.)
litxarrerriya

543.- **letxubak** 'lechuga(s)'

MS (Don.) + **letxu-landare**

Mailebatua, ik. 10.

544.- **losetxa** 'halago'

Er. (Ast.) **losenchetatic**

545.- **lotxa** 'vergüenza'

TE (Eibar) **lotxia**, **lotxarik**

TE, 443: «(...) por *lotsia* Alteración fonética para imitar a los de Soraluze».

546.- **Lutxi** 'Lucía' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. **Allaman**. Ebakera hau ez da euskaraz bakarrik gertatzen.

547.- **mantxa** 'mancha (zentzu moralean?)', 'rastrot'

AV (Bermeo...) **mantxakas** ; PA (Mark.) **manchau**; Er. (Ast.) +
mancharicgabe, mancharequin; L (Elk.) **manchatugábe**; A
(Cat.)

Mailebatua, ik. 10.

548.- **mantxoa** 'manso' -?-(= *ostikalari*)

MS (Don.)

Euskaratzeko modua ala edukiarekin (emetasuna/txikitasuna)
lotutako bustidura.

549.- **mantxua** 'manco'

TE (Eibar)

Cf. lat. *mancus* (FHV 160) ⁷. Bihozkor izan daitekeen esanahia du, ik.
431. **apatx**.

550.- **maritxogorritxo** 'coccinella'

IZ (Alts.)

Ik. **-txo** atzizkia.

551.- **martxo** 'marzo'

MS (Don.) **martxuaren**; L (Elk.) **marchoarén**; A Err. **martxo**
(M 1967), Err. (M 1954) **martxua**; Z (Gz.)

⁷ Cf. G Astigarraga *mantxua* 'manco', baina *Besomotza (Besomotzanekuak)* goitizena.

Zar. (M 1967) **martso**: despalatalizazioz behar du, bestela ezin bait da ulertu txistukari apikaria agertzea eta ez bizkarkaria (M 1967, 172). Ik. 422. **akabantxa**.

552.- **Matxadi** (top.)

TE (Eibar)

TE, 457: «Seguramente *Matzadi*»(?).

553.- **matxarda** 'appui fourchu'

Z (Gz.)

Cf. Bakaikoa **matxarda** 'tronco con muescas para subir a los árboles' (Ondarra 1965, 398). Deban gaztainak bildu eta ireiki-takoan okotzetik ateratzeko erabiltzen zen tresnari (xexteruak egiten omen zuen) esaten zitaion *matxarda*. Baita ere neskakoskor bihurri zalaparta zaleei (cf. Azk. s.v. *matxarda* ere). Bigarren esanahiaz (lehenengoaren erabilkera metaforikoa? ik. IV.1.), ik. 431. **apatx**.

554.- **Matxari** (erreka izena)

TE (Eibar)

555.- **matxarra** 'ruin'

PA (Mark.) **macharra**

Iraina, ik. 431. **apatx**.

556.- **Matxelo** 'Marcelo' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

557.- **Matxin** (goitizena)

TE (Eibar) + **Matxin-saltokarixa**, **Matxin-gona-gorrixa**,
matxin-garratza; PA (Mark.) **machin aquerra**; MS (Don.)

Cf. *Martin*. Ik. 3. **Allaman**.

558.- **matxinatubai** '... amotinados'

PA (Mark.) **machinatubai**

559.- **matxiñua** arm. 'martillo pilón para estampar'

TE (Eibar)

560.- **meatxu** 'amenaza'

L (Elk.) **meáchu**; BE (Baz.) **meatchua**; Z (Gz.) **mehatxü**

Kanpotikako bustidura, ik. 422. **akabantxa** (cf. FHV 287).

561.- **mertxede** 'merced, favor'

L (Elk.); A Err. (M 1967), A (Cat.), Err. (M 1954) Oih. **merchede**
(M 1954)

Cf. Zar. (M 1967) **mertsede**, G B **mesede** (M 1954). Bustidura
kanpoko bilakaerari zor zaio, ik. 422. **akabantxa**.

562.- **mesperetxü** 'reproche'

Z (Gz.)

Ik. 422. **akabantxa**.

563.- **metxik ere**= *tutik ere*

MS (Don.)

Gazt. *mecha*?

564.- **mingatxa** 'ácido, amargo'

TE (Eibar) + **mingotxa**; PA (Mark.) **mincoch** (?), **mingocha**,
mingochtasuna

Mingatzaren aldaera bezala ematen ditu (TE, 463).

565.- **mitxa** 'mecha' (?)

BE (Baz.) **mitcha**

Mailegua izan daiteke, ik. 10. (kontsonante palatalaren eraginez itxi bide da bokala).

566.- **Mitxel** (izen prop.)

ROL (Mark.)

Ik. 3. **Allaman**.

567.- **mitxeleta** 'mariposa'

TE (Eibar)

Ik. 339. **plaxaga**. Azken buruan, hitz honen jatorria izen propioaren bustidura adierazgarria da (FHV 520).

568.- **motxa** 'corto'

TE (Eibar); MS (Don.) **motxa** (= *luziak*, 88 or.); IZ (Alts.)
(**azkazal**) **motxak**

TE, 469: «Como sust. Manco; como adj. corto, de baja estatura». Cf. G *besamotza*? TE-n **motxa motzaren** sinonimotzat ematen da. Soroaren testuan ere ez dirudi esanahi berezia duenik (egungo Don. bustiduraduna bakarrik entzuten da). Nolabait esan, hitz honen edukia txikitasunarekin dago erlazionatua eta, berez, bustidura adierazgarria bide da.

569.- **motxalle** 'gitano'

TE (Eibar) + **motxallak**

Cf. TE **motzalliak**, esanahi beraz.

570.- **murtxa** 'sucer'

Z (Gz.)

571.- **mutxurdin** 'vieille fille'

Z (Gz.)

Cf. *motz* 'cunnus' (FHV 65), ik. 431. **apatx**.

572.- **neskatxa** 'muchacha'

TE (Eibar); Er. (Ast.); BE (Baz.) **nescatchai**

Ik. -**txa** < lat. *ipsa* okzitanoaren bidez? Ik. Echenique 1984, 69.

573.- **ontsukuaue** (sic) 'recent'

ROL (Mark.)

Ez al zuen izan behar sabaiaurrekoa afrikatu horrek? Cf. *oraintxe*.

Ik. Rollo-z, VI.1.3., 1. oharra.

574.- **orhimentxa** 'souvenir'

Z (Gz.)

Cf. 422. **akabantxa**.

575.- **orrachiquinbátes** 'con un alfiler'

L (Elk.)

Beharbada, <orratz + txikin (L-gan, **chipi** agertzen da bestela).

576.- **otxabagiña** 'el que sacaba las ochavas a los cañones'

TE (Eibar) + **otxabiña**

Mailebatua, ik. 10.

577.- **otxiña** 'moneda de otros tiempos'

TE (Eibar)

578.- **pagatxa** 'trebol'

TE (Eibar)

579.- **Pantxike** (izen prop.)

ROL (Mark.)

Ik. 3. **Allaman.**

580.- **patxadan** 'cómodamente'

TE (Eibar); MS (Don.) **patxara** (guztian)

581.- **patxar** (sic) 'aguardiente'

TE (Eibar) + **patxarrakin-**

582.- **Patxi** 'Francisco' (izen prop.)

TE (Eibar) + **Patxiko, Patxo** (eta *Fraisco*)

Ik. 3. **Allaman.**

583.- **pentxamentu** 'pensamiento' (lorea) (?)

MS (Don.)

584.- **perkatxa** 'precoz, avisado, pues se dice generalmente de las hembras'

TE (Eibar)

Ik. 572. **neskatxa.**

585.- **perretxiko** 'seta'

TE (Eibar)

586.- *petxu* 'pecho'

PA (Mark.) **pechuba**

Mailebatua, ik. 10.

587.- *pikatxoie* 'picachón'

AV (Bermeo...); TE (Eibar) **pikatxola** 'pico, piqueta de los zapadores'

Mailebatua, ik. 10.

588.- *pintxana* (egaztia)

MS (Don.)

Asimilazioa ere izan daiteke, baina **int** katean ez da bustidura asimilaziorik gertatzen euskalki honetan (cf., ordea, VI.1.).

589.- *pitotx* Ik. 503. ***futotx***.

590.- *pitxar* 'jarra de barro'

TE (Eibar) **pitxarra**; PA (Mark.) + **pícharrondoco**; IZ (Alts.) + **pitxer**; MS (Don.)

Cf. gazt. *pichel* (ik. FHV 62): kanpotikako bustidura.

591.- *pitxia* Ik. 469. ***bitxi***.

592.- *pitxirrixa* 'tacaño'

TE (Eibar)

Ik. 431. ***apatx***: cf. G *xurra*.

593.- *pitxitxi* 'perro' (haur hizkera)

TE (Eibar)

Ik. 431. **apatx**.

594.- **pitxoikua** 'escopeta de pistón'

TE (Eibar)

595.- **plántaxak** "plancha(s)'

IZ (Alts.) + **plantxatzeko**

Mailebatua, ik. 10.

596.- **Poltxok** (izen prop. erg.)

TE (Eibar)

Cf. *Alfonso?* Ik. 3. **Allaman**.

597.- **potxolua** 'hoya que servía para varios juegos infantiles'

TE (Eibar)

Cf. **potolua** 'gordo'. Ik. 431.

598.- **probetxu** 'provecho'

AV (Bermeo...) **probétxurik**; MS (Don.) **protxu(a)**; IZ (Alts.)

aprotxatu; L (Elk.) **provecha-**, **pro(vé)chu**; BE (Baz.)

provetchutan

Mailebatua, ik. 10.

599.- **sakatx** 'feo'

EF (Ataun)

Ik. 431.

600.- **segurotxôn**

EF (Ataun)

Cf. *txon*, *-txo*?

601.- *segürtantxa* 'certitude'⁸

Z (Gz.)

Ik. 422. *akabantxa*.

602.- *thatxa* 'être attaqué de la pourriture (maladie des moutons)'

Z (Gz.); L (Elk.) *tatxa* 'delito'

Cf. gazt. *tacha*?

603.- *tortxa* 'antorcha'

BE (Baz.); Z (Gz.)

Hitz honen jatorriak badu zerikusirik gaztelerazkoarekin (lat. *torques*, ahozko lat. **tǫrca*, cf. fr. *torche* --Cor. s.v. *antorcha*--). Agertzen den bustidura mailebatutzat har daiteke.

604.- *totxuba* (ikatz-olako tresna)

PA (Mark.) *tochuba*

605.- *trepetxu(a)* 'herramienta, trebejo'

TE (Eibar) + *trepetxuak* 'cosas'

Gazt. *trebejo*-ren jatorria ez da gauza segurua (Cor. s.v.).

606.- *tripotxa* 'ombligo'

TE (Eibar) + *tripotxak* 'menudos de las aves o el cordero'

Ik. 393. *xilko* (eta 431.).

⁸ Nahiz eta *-rT-* taldearen aurrean egon *u* [ü] eta ez *ou* [u] agertzen da, beharbada *segur*-en eragin analogikoagatik da.

607.- *Trokotxa* (goitizena)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.**608.- *trontxoi*** 'tronchón' (?)

AV (Bermeo...)

Cf. gazt. *tronchar*: kanpotikakoa.**609.- *Trotxa*** (goitizena)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.**610.- *tx-***

Ondorengo adibideetan ongi ikusten da Mitxelena-k dioena: «El ronc., como el sul. (y el guip. y vizc.) es de los dialectos vascos donde *tx-* es frecuente sin valor afectivo tanto en palabras antiguas como en préstamos (...)» (M 1954, 147).

Batzuetan hitz hasierako *tx-* ren adierazgarritasunik eza txit garbi azaltzen da: cf. *tximurtxi* / *imurtxi* (disimilazioz?), *txatal* / *atal*, *txepel* / *epel* (azalpide fonetiko ilunagoa luketenak). Izan dezake zerikusirik honekin elementu adierazgarri bezala izaniko hautazkotasunak (ik. IV.2.).

Ik. FHV § 10.8.: hitz hasierako frikari eta afrikatua nola dauden banaturik euskalkietan. Askotan zerrenda honetan agertzen direnak VII.5.eko adibideen aldaera afrikatudunak baino ez dira.

611.- *Txabiñen* (izen prop. gen.)

ROL (Mark.)

Ik. 3. *Allaman*.

612.- *txabola* 'chabola'TE (Eibar); EF (Ataun); IZ (Alts.) **txabola**Cf. *etxe*?613.- *txaga* 'palo'

EF (Ataun)

614.- *txaixkur* 'langosta'

Zar. (M 1967)

Ik. 339. *plaxaga*⁹.615.- *Txakarra* (goitizena)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.616.- *txaketa* 'chaqueta'

MS (Don.)

Mailebatua, ik. 10.

617.- *txakoliña* 'chacolí'TE (Eibar); PA (Mark.) **chacolin(a)**618.- *txakur* 'perr(it)o'TE (Eibar); AV (Bermeo...) **txakurre**; PA (Mark.) **chacurzulua**;EF (Ataun) **txakur**; Zar. A Err. **txakur** 'perro', Z **txákür**'perrito' (M 1967), Err. (M 1954), Z (Gz.) **txakhür** 'chien'

⁹ «En muchas palabras [ɧ] se ha consolidado en posición inicial y apenas se puede dudar de que en algunas proceda ʃ - . (...) A veces, naturalmente, la inicial se explica por el origen del préstamo». (M 1967, 171-172).

Cf. EF **zakur** (e). Batzuetan garbi dirudi bustidurak txikitasuna adierazteko balio duela: cf., adib., «txakur txiki» (EF 271) vs. «zakur aundik» (EF 279), edo «txakur txiki ue ala eiztárin zákurek (sic)» (EF 282). Beste batzuetan, berriz bereizkuntza ez dago horren argi (cf. EF 294 **txakur** eta **zakur** animalia beraz ari dela), nahiz eta, berriz esan, bustidura neurria ez direnak adierazteko ere erabiltzen den (cf. L (Elk.) **tzacúrr** (**rabiosoéna**)).

Zubererazkoak ere ez du bustidura bakarrik erabiltzen diminutiboa osatzeko, Mitxelena-k Larrasquet-engandik ¹⁰ jasotzen duenaren arauera, *ho(r)* 'perro' bait da oinarritzko forma. Gèze-en arauera, berriz, oinarritzkoa **txakūr** litzateke eta **zakhūr** 'gros chien' aumentatiboa (baita ere **hor** 'chien', fr.-eusk. hiztegian sinonimotzat ematen ditu). Cf. 362. **xakur**.

619.- txal 'ternero'

TE (Eibar); AV (Bermeo...) **txálak**; IZ (Alts.)

Cf. 369. **xal** (ik. 362).

620.- txalaka (sagar mota «gaziya»)

MS (Don.)

621.- txalbearra 'clase de yerba que se arrastra por el suelo'

IZ (Alts.)

Cf. 619. **txal**?

622.- txaldana 'simple, fatuo'

PA (Mark.) + **chaldanquerijac**

Ik. 431. **apatx**.

¹⁰ Larr. (BS) **txákūr** 'petit chien jeune ou non'

623.- **txalo** 'aplausu'

TE (Eibar); ROL (Mark.) + **txalotu**

624.- **Txaltxakua** (baserri baten izena)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

625.- **txalupa** 'la barca'

ROL (Mark.); TE (Eibar) **txalupia**; AV (Bermeo...) + **txalupek**,
txulúpieri

626.- **txamar** 'bastante'

Ik. 366. **xamar**.

627.- **txamarria** 'la chaqueta' (erg.)

TE (Eibar)

Cf. *zamarra* 'vellón ganado lanar'.

628.- **txanboliñ** 'tamborilero' (?; ala 'tambor')

TE (Eibar); IZ (Alts.) **txanbolin**

Bustidura euskaratzeko baliabide? Cf. 98. **sombrelluba**.

629.- **txanda** 'turno'

MS (Don.); TE (Eibar) **txandaka** 'por turno', **txandia**

Cf. gazt. *tanda*, ik. 628.

630.- **txanga** 'quicio'

L (Eik.) **changaetáic**

631.- **txano** 'gorro cónico'

PA (Mark.); TE (Eibar)

632.- **txanpha** 'aboiment'

Z (Gz.)

633.- **txanpona** 'moneda de cobre del tiempo de Isabel II'

TE (Eibar); MS. (Don.) **txanponian** («Legatza Mayatzian txanponian» 66. or.)

634.- **Txantoya** (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman.**

635.- **Txantxa** (top.)

TE (Eibar)

636.- **txantxáan-txantxáan-txantxáan** (kanpai hotsa)

IZ (Alts.)

Onomatopeia.

637.- **txantxadura** 'levadura' (?)

PA (Mark.) **chanchaduria**

638.- **txantxangorri** 'petirrojo'

TE (Eibar) **txantxangorrixa**, **Txantxangorrik** (goitizena -?-
erg.); MS (Don.) **txantxangorriyak**

Ik. 339. **plaxaga.**

639.- **txantxetan** 'en broma'

TE (Eibar) + **txantxetako**; MS (Don.) **txantxetako**; EF (Ataun)

txantxatan, txantxetakoarê

Cf. gazt. *chanza* ik. 422. **akabantxa**.

640.- txantxiku 'rana' (oñatiarrei ematen zaien deitura)

TE (Eibar) + **Txantxiku** (goitizena -?-)

Ik. 431. **apatx**. Jatorria izen propio hipokoristikoa bide da (FHV 520).

641.- txantxilloia arm. 'cilindro para determinar calibres'

TE (Eibar)

642.- txapel 'boina'

TE (Eibar); AV (Bermeo...) **txapelagaz**; Er. (Ast.) **chapelan**; IZ (Alts.); Z (Gz.) 'chapeau'

Cf. TE *kapela* 'sombrero'. PA-n esanahi bera dutela esan daiteke: «Gure euscaldunen buru estalquiya zan, da, ta izango da *chapela*edo *capelia*» (PA 201 -nik azpimarratua-). Ik. 98.

643.- txapetan 'a las chapas'

TE (Eibar) + **txapiari**

Mailebatua, ik. 10.

644.- txapiskol 'renacuajo'

IZ (Alts.)

Ik. 339. **plaxaga**.

645.- txaplata (I)

TE (Eibar) + **txaplatia** 'sosa, tonta, sin gracia', 'indiscreta';

ROL (Mark.) 'chatterbox, gossip'

«(...) adj. calif. que se aplica a hembras» (TE 595). Esango nuke hemen hitzaren zentzu txarreko konnotazioagatik uler daitekeela bustidura, ik. 431.

646.- txaplata (II) 'compresa'

PA (Mark.) **chaplataac**, **chaplatachubac**

Cf. 553. **matxarda**?

647.- txaplio 'petardo del cohete'

TE (Eibar)

648.- txaputsera 'gossip'

ROL (Mark.)

Cf. gazt. *chapucera* (gainera, 631)?

649.- txar 'malo'

PA (Mark.); TE (Eibar) + **ameseta-txar** 'pesadilla', **itxaso-**

txarrak 'tormenta' (erg.); ROL (Mark.), AV (Bermeo...) +

txarto; MS (Don.) **txarraguak**, (**gogo**) **txarretik**; Er. (Ast.)

charrac, **charren**; EF (Ataun); IZ (Alts.); L (Elk.) **chárrttoac**

'mezquinos', **charrerica-** 'maldad'; BE (Baz.) **tcharra**; Err. (M

1954); Z (Gz.) 'pauvre, triste, misérable'

Cf. EF **tzar** (= *haundi*) eta **xâr** (= *zahar*) -kasu honetan, ez da gertatzen **txuri/xuri** edo **tximel/ximel** pareetan bezala. Cf. BE **ttarra** 'pequeño' ere. Mitxelena-ren arauera (M 1954, 147) Z **txár** 'mauvais'-ren ondoan **tzár** 'vilain, pervers, immoral' dago: cf. *laxa* (hemen bustidurarik gabeak du zentzu morala). Ik. 369. **xar** (cf. 362.).

650.- txardina 'sardina'

Zar. (M 1967)

651.- *txaria* 'jaro'

TE (Eibar)

Cf. 674.?

652.- *txarpa* 'chiffon'

Z (Gz.)

653.- *txarrantxa* 'carda para limpiar lino'

PA (Mark.) **charranchetara, charranchia**

654.- *txarre* 'pitcher, water-jug'

ROL (Mark.)

Ik. 590.

655.- *txartela* 'cédula'

TE (Eibar); PA (Mark.) **chartelchuba**

656.- *txaski* 'canasta'

Zar. Err. **txaski**, (M 1967)

Leiz. **saski**, GN **saski**, Gipuzkoako GN **jaski** (M 1967). Garbi dago frikaria afrikatua baino lehenago dela. G *saski* /*xaski*, *xaxki* pare adierazgarria izan daiteke (bigarrenak gauza txikiagoa adierazten duelarik).

657.- *txastarra* 'lo pequeño y despreciable'

IZ (Alts.)

Baita ere IZ **xastarra** (ik. 362.). Irain bezala erabil daiteke, ik. 431.

658.- **txasta** 'probar'

L (EIk.) **chastátu**; Z (Gz.) **txesta**

Badirudi adierazgarri (eredua behintzat: M 1951, 581) izan zen J-ren afrikatzea gertatu dela (FHV 193).

659.- **txatala** 'parcela, trozo pequeño'

TE (Eibar)

Cf. *atala* (ik. 610.).

660.- **txatarra** 'hierro viejo'

TE (Eibar); PA (Mark.): «chatarrac, esan gura dot icen arrotzac, erderiari-ostubac» (PA 196); Zar. (M 1967) **txatarrak** 'pañales'

Cf. *zatarra* 'andrajó' (< *zati*: Cor. s.v. *chatarra*), 'feo'.

661.- **txatxa** 'niños balbucientes cuando echan a andar'

TE (Eibar)

Ik. 431. **apatx**.

662.- **txatxakatu** 'aplastado'

L (EIk.) **chachacatucodíc**

Erraz izan liteke jatorri adierazgarrikoa.

663.- **txatxala**

ROL (Mark.) 'chattering woman, gossip' TE (Eibar) **txatxalia** 'simple', **txatxalakerixiak**

«Se dice de las hembras, y parece ser la forma femenina de **txotxolua**, que se aplica a varones» (TE 70). Cf. 645. **txaplata**.

664.- **txatxana** «¿'pequeño'?»

TE (Eibar)

Ik. 222. **gutti**.

665.- **txatxar** 'insignificante'

PA (Mark.); TE (Eibar) **txatxarra** 'miserable', 'diminuto, pequeño', **txatxarti**, **txatxartu**

Ik. 222. **gutti**.

666.- **txatxaria** 'despreocupación, descuido'

TE (Eibar)

Ik. 222. **gutti**.

667.- **Txatxingua** (baserri baten izena)

TE (Eibar)

Ik. 3. **Allaman**.

668.- **-txe** (atzizkia)

TE (Eibar): **lezkotxe**, **leztxe**; «Berbía»: **letxe**; L (Elk.)

arachágo; BE (Baz.) **aitzintcheago**

Ik. 380. **-xe**.

669.- **txedera** 'lacet pour prendre les oiseaux'

Z (Gz.)

670.- **txekorren** '...ternero(s)'

MS (Don.)

671.- **txerka** 'buscar'

Err. (M 1954); Z (Gz.)

Mailebatua (cf. fr. *chercher*, adib.).

672.- txerri 'cerdo'

AV (Bermeo...) **txarri**; TE (Eibar) **txarri(ki)**; PA (Mark.)

cha(a)rri, **charrijen**; Er. (Ast.) **cherrien**, **cherrizai**; IZ

(Alts.) **txerri**; Zar. (M 1967); Err. (M 1954)

Cf. A **cerriac** (ez da nabarmentzen esanahia aldatzen denik). Ik., dena dela, IV.3. Cf. 389. **xerri**.

673.- txibita 'lazada'

IZ (Alts.)

674.- txibixia 'jibia', 'calamar'

TE (Eibar)

Cf. gazt. *jibia* (< mozar. *xibia*) Kanpotikako bustidura.

675.- (bide) txigorra 'atajo'

TE (Eibar) + **txingorra**, **bide-txingor**

Cf. *bidetxiorra*. Bide nagusia ez izatearekin egon daiteke lotua bustidura.

676.- txiki 'pequeño, poco'

TE (Eibar); ROL (Mark.) + **txiki** **tu**; AV (Bermeo...) **txikitxuek**,

txikérre (Getxo), **txiki(j)a** (Dima); MS (Don.) **txikiya**; Er.

(Ast.) **chiquiachiquiena**, **chiquiren**; EF (Ataun) **txikitu**,

txikitxiki, **beatxikafân** 'del meñique' cf. *txikar*; IZ (Alts.)

txikiya, **(bietz) txingerra** 'el dedo meñique'; Err. **txiki**

'poco', Zar. **txikin**, Z **txípi** (M 1967); A **chiquiac**, Err.

chiquerrac (Cat.), Err. (M 1954) **txiker** Bidangozen, **txiki**,

bestela (Cat.ren itzulpena Bidangozekoa da); Z (Gz.)

erhitxinker 'petit doigt', Z **txípi** (M 1954 = Gz.)

Cf. Z **ttípi** (M 1954, 1967). Mitxelena-k (M 1954, 147) **tsíqui** aurkitu du Hualde Mayo jaunak Bonaparte-rentzako egindako itzulpenean (Mat. 7, 14) ¹¹, baina inprenta hutsa izan daitekeela uste du. Ik. 222. *gutti*.

677.- Txikillana 'Chiclana' (izen prop.)

TE (Eibar)

Ik. 3. *Allaman*.

668.- txikorr 'twisted, curled'

ROL (Mark.) + **txikorrtu**

669.- txikua 'potro'

TE (Eibar)

670.- Txilibitxon (goitizena)

TE (Eibar) + **Txilibitxonesia**

Cf. 240. *Txilibitton*: ik. V. [t̺] / [tʃ] ebakerez.

671.- txilibitxua 'flauta, silbo', 'pene'

TE (Eibar)

Edukiaren aldetik aproposa da bustidura adierazgarria izateko (ik. 431.). Kontsonante sabaiko biak izan daitezke bustidura adierazgarriaren ondorio, nahiz eta bigarrena asimilaziotzat hartzea ere posible izan (cf. **txilibitua**).

¹¹ *RIEW* XXV, 527-548 eta XXVI 185-195-n argitaratua.

672.- **txilibrizkau** 'embriagarse el no habituado'

TE (Eibar)

Ik. 431., humorez esan daiteke edo maitasunez, baita ere txikigarri bezala.

673.- **txiliña** 'campanilla'

TE (Eibar)

Onomatopeiazko iturburua izan dezake.

674.- **txilio** 'grito, chillido'

PA (Mark.) **chilijoca**; TE (Eibar) **txilixua**

Cf. gazt. *chillido*?

675.- **txilipurdika** (trikuak sagar piletan nola ibilitzen diren)

MS (Don.)

Cf. *zilipurdika*, ik. 431.

676.- **txillarra** «¿'brezo'?»

TE (Eibar)

TE 599: **kiñarra**-ren aldaera izan omen daiteke. Cf. IZ (Alts.) **ilarre** (ik. 610.).

677.- **tximak** 'greñas'

TE (Eibar); ROL (Mark.) **txima**

Cf. TE **kimak** (Eibar-en ohizkoa dena **tximak** omen da): cf. FHV 296: ez dago garbi adierazgarria den bustidura(cf. 431) ala erromantzezko aldaketa sintagmatikoari dagokion.

678.- **tximal** 'ridé'

Z (Gz.)

Cf. *tximur* / *zimur* ?

679.- *tximel* (1) 'marchito'

EF (Ataun) **tximeltximel**, **tximelduta**

Cf. EF **ximelduta** (ik. 362.).

680.- *tximel* (2) (ikatz-olako tresna)

PA (Mark.) **chimela**

681.- *tximini* 'chimenea'

TE (Eibar) **tximinixia**; IZ (Alts.); Zar. (M 1967) **txaminara**

Mailegatua, ik. 10.

682.- *tximika* 'pincer'

Z (Gz.)

Cf. *atximurka* (511).

683.- *tximino* 'mono, simio'

PA (Mark.); TE (Eibar) **tximiñua**, **tximiñokerixia**; Z (Gz.)

Cf., afrikatuaz, Gavel 1920, 272.

684.- *tximista* 'relámpago'

ROL (Mark.); TE (Eibar) **tximistia**; Zar. (M 1967) **txarmista**,
txasmista, **txilimista**

TE 600: **txinbistlaren** sinkopa omen.

685.- *tximitx* 'chinche'

PA (Mark.) **chimicha**; Zar. A Err. (M 1967)

PA 179: « *Chimichaedo imichia* »: ik. 610. Cf. 339. **plaxaga**.

689.- **tximur** 'arruga'

ROL (Mark.) **tximurr**, **tximurrtu**; PA (Mark.) **chimur-chimur**,
chimurtubac; Err. (M 1954) **txumur** (i-u > u-u)

Cf. *zimur*, ik. 233. *puntta*, 249. *axal*, e.a.

690.- **tximurtxi** 'picar' (?), 'arañar'

PA (Mark.)

Baita ere 511. *imurchi*.

691.- **txinbo** (I) 'pistón'

PA (Mark.) **chimbua** ¹²

692.- **txinbo** (II) 'variedad ornitológica del país'

TE (Eibar) **txinbua**

693.- **txindi** 'chispa'

L (Elk.) **chindibát**

Txikitasuna eta laburtasunarekin lotutako bustidura ote jatorri?

Cf. 704.

694.- **txindurrixak** 'hormigas'

TE (Eibar); EF (Ataun) **txingur i**; IZ (Alts.) **txindurriya**; L

(Elk.) **chinurribatén**

Ik. 339. *plaxaga* Cf. 148. *iñurri*.

695.- **txingar** 'brasa'

TE (Eibar); ROL (Mark.) **txingerr**, **txingerrtu**

¹² Endaraz ere *chinbo* esaten du (PA 239, s.v. *ugabia*).

696.- **txingeta** 'picaporte, pestillo'

TE (Eibar)

697.- **txingia** 'arte de pesca que se usa en los ríos'

TE (Eibar)

698.- **txingla** 'lenteja'

Zar. **txingla**, Err. **txintxila**, Pouvreau **chinguillac** (M 1967)

Cf. *tilista*, *dilista* (Ik. 610.).

699.- **txingor** 'granizo'

TE (Eibar) + **txingorrada**; PA (Mark.) **chingorra**; IZ (Alts.)

txingortu 'requemarse una vianda'

Cf. 695. **txingar** 'brasa'.

700.- **txingura** 'yunque'

IZ (Alts.)

701.- **txinizta** 'hiniesta' (landarea)

Err. (M 1954)

tx- gehitu al zaio maileguari? Ik. 610.

702.- **txinka** 'étincelle'

Z (Gz.)

Cf. 704. **txinparta** e.a.

703.- **txinkhor** 'tranche de lard'

Z (Gz.)

704.- **txinparta** 'chispas'

TE (Eibar) **txinpartak**; Zar. **txintar**, A **txinar** (M 1967)

705.- **txintx eĩñ** 'sonarse' (haur hizkera)

TE (Eibar)

Cf. *zintz egin*. Ik. 243. **antux**.

706.- **txintxa** 'campanilla'

L (Elk.) **chinchábat**

Cf. 672. **txiliña**.

707.- **txintxer** 'grésil'

Z (Gz.)

Esanahiaren aldetik oso da aproposa bustidura adierazgarria izateko (cf. *lantxurda* ere), ik. 222.

708.- **txintxilik** 'colgando'

TE (Eibar) **txingilizka**; IZ (Alts.) **txintxilixkan**

Cf. *zintzilik*.

709.- **txintxo** 'formal, bueno, fiel'

MS (Don.) **txintxuegi**; EF (Ataun) **txintxo-txintxo**; IZ (Alts.)

txintxuba

Cf. *zintza* Nahiz eta testu gehienetan bustiduraduna markagabea izan, oraindik bikoteak badirauela esan daiteke zenbait mintzotan behintzat, bustia bestearen txikigarri delarik.

710.- **txintxurri** 'garganta'

Zar. (M 1967); Err. **txuntxur**, Z **züntzür** (M 1954) (i-u > u-u:

Z asimilazio hau bigarren bokala Bü denean bakarrik gertatzen da)

Cf. Zar. **tzintzurri**; Err. **tzuntzur** (ez da esanahai aldaerarik aipatzen) ere. Hitz hasierako afrikatua hitz barreneko afrikatuaren eragina izan daitekeela dio Mitxelena-k eta *tzorrotz* 'afilado' rekin erkatzen (M 1967, 166). Cf. G (e.a.?) *zorrotz*, *zintzur*, *txorrotx* (adierazgarria). Ik. 431.

712.- txio-txio 'pájaro' (haur hizkera)

TE (Eibar)

Ik. 431.

713.- txipi 'pequeño'

L (Elk.) **chipi**

Ik. 222. *gutti*.

714.- txipriztiña 'diminuto, insignificante', 'salpicadura'

TE (Eibar); PA (Mark.) **chipristin**; IZ (Alts.) **urtxistinak**

Ik. 222. *gutti*.

715.- txipuba 'el chopo'

IZ (Alts.)

Mailebatua dirudi.

716.- txiribixak, txirilorak 'virutas'

TE (Eibar); PA (Mark.) **chiribiri**

Edukiaren aldetik diminutibotzat har daiteke, ik. 222.

717.- txirrist

TE (Eibar) **txirrist eiñ** 'sorber delicadamente'; Er. (Ast.)

chirrist («... edo tanta bat» Er. I, 58)

Cf. *irrist*, *zirrist*. Ik. 222. eta 431.

718.- *txirula* 'falutin'

Z (Gz.) *txürüla* (i-ü > ü-ü)

719.- *txisilluba* 'escaño de cocina, banco con respaldo'

PA (Mark.)

Cf. EF (Ataun) *zizallu*. Azken buruan, lat. *subsellium*: palatala txistukarien arteko disimilazioari zor zaio (FHV 291).

720.- *txistu* 'saliva', 'silbido'

TE (Eibar) *txístua* ¹³ 'silbo, silbido', *txistúa* 'saliva'; AV (Bermeo...) *txistulari*; PA (Mark.) *chistubaz*; EF (Ataun) ¹⁴; L (Elk.) *chistus*
Cf. 313. *lixtu*.

721.- *txit* 'muy'

TE (Eibar); MS (Don.); Er. (Ast.)

Ziurraski autoreak ikasia zuen hitz hau eta ez Eibar-ko hiztunei entzuna.

722.- *txita* 'pollito'

TE (Eibar) *txitxak*; PA (Mark.) *chitachubac*; Z (Gz.) *txitxa*

Cf. *txitak*, *txitoak* Bigarren afrikatu palatala aurreko *ik* edo hitz hasierako kontsonanteak asimilatua izan daiteke. Ik. 399. *xito*(1).

¹³ Bi adibideotan, azentu markak autoreak emandako azalpideen arauera ipini dira.

¹⁴ Moutard-ek (1976, 17) /tʃiʃtu/ eta /ʃiʃtu/ biak jasotzen ditu euskalki honetan, nahaiago omen da, dena dela, afrikatua hitz hasieran. Cf., halaber, /tʃoka/ = /ʃoka/ eta /tʃakur/ = /sakur/; azkenekoaren ahoskune aldaketaz ez du ezer esaten. Hitz hasierako afrikazioaren oparotasunaren adibide bezala ematen dituen gaztelaniatikako maileguen artean (*txillea*, *txalupak*), bigarrenak ez dirudi egokiegia.

723.- ***txitian potian*** 'a cada paso'

PA (Mark.)

Humorezko esaera, ik. 431.

724.- ***txitxaria*** 'lombriz'

TE (Eibar)

Cf. *zizarea*, ik. 339. ***plaxaga***.

725.- ***txitxi*** 'perro' (haur hizkera)

TE (Eibar)

Ik. 431. ***apatx***.

726.- ***txitxia*** 'carne' (haur hizkera)

TE (Eibar); IZ (Alts.) ***txitxiya***

Ik. 431. ***apatx***.

727.- ***txitxi-potxuak, txut(x)uputxuak*** 'cuchicheos'

TE (Eibar)

Esanahia kontuan hartuta, ulertzen da bustidura adierazgarria izan daitekeela, cf. gaztelerazko forma bera ere (onomatopeya modukoa bide da azpian datzana).

728.- ***txiztada baten*** 'en un segundo'

TE (Eibar)

Esanahiak badu zerikusirik diminuzioarekin, ik. 222. eta 431.

729.- ***txo/*** (interj.)

TE (Eibar)

Ondarruarrena omen. Erregistroaren aldetik, noski, hizkera adierazgarriari dagokio (431.).

730.- **-txo** atzizkia txikigarriaTE (Eibar) **-txo**: **amaikatxo**, **askotxo**; ROL (Mark.) **-txu**:**apurtxu**, **malkotxu**; AV (Bermeo...) **-txu**: **berotxue**,**urde(i)zatitxu**; PA (Mark.) **abechubac** ¹⁵, **zaraguichu**; MS(Don.) **alabatxuen**, **aparejutxo**; A(Ast.) **berachoa**; EF(Ataun) **ezertxôrê**, **gaztetxoa**; IZ (Alts.)**nastutxu**, **anaitxo**; L (Elk.) **obrachoaren**Cf. TE **neskako**; EF **neskato**; L **-tto**; BE (Baz.) **nescatoequin**; Zar.(M 1967) **neskato**; Err. (M 1954) **-tto**. Z **-ño**, **-ñi**. Ik. M 1969, 6-9,euskarazko atzizki txikigarriez. Posible da, baina ez segurua **-(t)to**eta **-txo** atzizki beraren aldaerak izatea (FHV 186-187).Bizkaiko hizkeretan (ROL, AV) **-txu** da atzizkiaren forma,

gipuzkeraz boka ez-goiko baten aurreko disimilazioaren ondorioz

azal daiteke **-txu** aldaera (MS **denboratxua**, adib.).731.- **txoil** 'muy'L (Elk.) **choil** (**valiósoac**)Cf. 721. **txit**.732.- **txoko** 'rincón'EF (Ataun); TE (Eibar) **txokua**, **txoko-zulo**; MS (Don.)**txokora**; IZ (Alts.) **buruko txoku** 'el occipucio'Cf. **zoko**, ik. 233. **puntta**.733.- **txoliña** 'habladora'

TE (Eibar)

Cf. 663. **txatxala**.

¹⁵ Hitz hau eskuizkribuko **arbustas**-en ordeaz azaltzen da. Argitaratzaileak **abe** 'árbol' --> 'arbusto' **abechuba** eginez, atzizkiaren oparotasunaren adibidea eskaintzen digu.

734.- txoro 'locuelo'

PA (Mark.) **txorua**; MS (Don.) **txoroa** ¹⁶

Cf. PA **zorabijua(-burucua)** 'atolondramiento'. Badirau oraindik egungo euskaran *zoro*-ren txikigarri bezala, ik. 431.

735.- txorta 'haz'

TE (Eibar) + **kipula-txortia, mats-txortia**; L (Elk.) **chórta**

'lágrima'; Zar. A Err. Z 'gota' (M 1967), Z (Gz.), Err. (M 1954)

txorta 'trago', **txortel** 'gota'

Cf. *sorta*. Badirau oraindik egungo euskaran *zoro*-ren txikigarri bezala (cf. Lezo *xorta* 'pudendo femenino' Berriochoa 1962, 51), ik. 431.

736.- txotx 'palito, palillo'

EF (Ataun) **txotxala-motx** 'a suertes, a los palillos'; Zar. Z

txotx, Zar. **txostada** (M 1967)

Cf. *zotz*, esanahiaren aldetik garbi dago bustiduraren jatorri adierazgarria (431.). Zaharra da hitz honen lekukotasuna (Urquijo, 722).

737.- /txotxo/ imuchacho!

TE (Eibar)

Cf. 729. *txo*.

738.- txukun 'elegante, compuesto'

ROL (Mark.); TE (Eibar) **txukuna** '+ sabroso'

Ik. 431 *apatx*.

¹⁶ Zegamako kontua kontatzen ari dela, ez da bestetako disimilazioa agertzen: cf. *andreak*, *astea*, *ardoari* (56. or.) / *aldian*, *bestietan*, *banua* (20. or.).

739.- txuri 'blanco'

PA (Mark.); Er. (Ast.); EF (Ataun); L (Elk.)

PA 122: «Churi biren eznea perza bete». Cf. A **zuri-**, ez dirudi aldaera bien artean esanahi bereizkuntzarik dagoenik ¹⁷. Cf. 418. **xuri**.

740.- txuringia 'hemorroide', 'recto', 'esfinter'

TE (Eibar); PA (Mark.)

Cf. 271. **erxe**.

741.- txurruta 'trago'

TE (Eibar) **txurrutadia** 'sorbito'; MS (Don.) **txurruta**, **txurruptat** (= *tragotxo bat*)

Autoreak esanahi berberaz ematen du **zurrutadia** ere, baina pentsatzekoa da bustiduraduna bestearen aldaera adierazgarri txikigarria dela (cf. *zurrutian/txurrutian ibili* esaeren arteko aldea).

742.- ugaratxua 'rana'

TE (Eibar)

Cf. IZ (Alts.) **uberaxa**, e.a. Ik. 344. **ugarassi juac**, e.a.

743.- untxi 'yedra', 'conejo'

Err. (M 1954)

Forma honetan ez da gertatu bokalen arteko asimilaziorik. Jatorria lat. *cunicū* lu bada, ik. 422. **akabantxa**. Oso zalantzakoa da, ordea,

¹⁷ Cf., adib.: «Adituco dezue, len ardo adifa edo gueyago saltzen dala edari zuritic. Ez omen dira contentatzen gizonac ardo utsarequin, baicic bear due churitic» (*Eracusaldiac* I, 137. or.).

proposatu etimologia, batez ere Araquistáin-engan *enchea* azaltzen dela kontuan hartuta (M 1964, 88).

744.- *zapaburutxa* 'renacuajo'

TE (Eibar)

Ik. 344. ***ugarassijuac***, e.a.

745.- *zerbutxari* 'servidor'

Err. (M 1954); Z (Gz.) ***cerbutcha***, ***cerbutchatze***; Z (Ar.)

zerbitchatu

Ik. 422. ***akabantxa***.

746.- *zurkatx(a)* 'miedo, espanto', 'escarmiento'

TE (Eibar)

LIZARRAGA ELKANOKOAREN (GAINERAKO) MAILEGU GARDENAK(3): ***antórcha***, ***capuchino***, ***concha-***, ***desdichatu-***, ***desechatu***, ***despáchuac***, ***dicha***, ***dichósoac***, ***pécho***//BE (Baz.): ***ditchosoa***, ***hetchiceroei***, ***petatchoa***, ***tatchaïc***, (***tortcha***)//A (Cat.) ***echiceria***, (***mancha***).

VIII. ONDORIOAK

Aztertutako datuetan ez da ustegabekorik aurkitu. Izatekotan, aldaketa fonologiko bizen baldintzak finkatuta, ikusten da uste baino gutxiago direla euskaraz azterketa gai hartu diren bi palatalizazioen fruitu diren hots palatalak.

Asimilazio bustiduraren egoera, oro har, ez da erregela fonologiko bizi eta erabat oparoarena. Salbuespen eta mugak euskalkitik euskalkira eta hizkeratik hizkerara aldatu egiten dira, baina inon ez da erabat automatikoa. Bestela esanda, ezin da esan erregela bat denik asimilazio bustidura. Baldintza diferenteak betetzen dituzten azpi-erregelak daude. Badirudi iguzki aldeko hizkeretan egoera areago korapilotu eta iluntzen dela. Dena dela, baldintza morfologikoak eta are lexikoak ere kontuan hartu behar dira leku guztietan. Ikuspuntu honetatik jasotako daturik aski ez badago ere, ematen du hitz batzuek erregela fonologikoari ihes egiten diotela ingurune oparoenetan ere. Adibidez, *familia*, *ibili*, *sinistu* palatalizaziorik gabe agertzeko joera dute eta *biñagre* bezalakoak, berriz, bustiduraz agertzekoa (cf. Z hilen izenak ere) ¹.

Baina zalantzarik gabe lexikalizazioaren bidea hartua dutenak erregelatik kanpoko ingurunetan ahoskera palatala dagerkligutenak dira. Batzuetan aztertzen den hizkeran garbi agertzen da asimilazio bilakabidea ez dela emankor. Horrelakoetan bustidura duten formak agertzen direnean, izan daiteke lehengo edo kanpotikako erregelak utzitako arrasto lexikalizatuak izatea. Honela azal daitezke, beharbada, Elkanoko euskaran agertzen diren *billa*, *garilla* (baina

¹ «All P[honological] rules are variable to some extent. (...) Variation should be thought of as the extent to which a feature is altered and not as a matter of whether a rule applies or not » (Hooper 1979, 107).

ilean, ilabéte, mutilac, e.a.). Hontaz aritu direnen artean, lexikalizazioaz ari da noski Salaburu (1984, 163) esaten duenean:

«(...) hitz hauetako asko buruz ikasi beharrak dira eta ezin ditugu erregelen bidez aldeztu aurretik asmatu: "espillu" esaten badugu ere, horren parean dago eguneroko "katilu" hitza».

Garbi izan behar bait da: erregela edo bilakabide fonologiko batek funtzionatzen du edo ez du funtzionatzen, h.d. dagozkion hizkuntzaren kateak aldatzen ditu edo ez ditu aldatzen. Benetan bilakabide bizia baldin bada, aldatu egin behar ditu kateak eta aldatzen ez dituenak hiztunarentzat garbi dagoen markaren bat behar dute izan (erregelaren muga bezala adieraz daitezkeenak): ingurunea (___ V/C/), hitz elkarketa, morfema muga (morfema mugak garbi egongo dira, gardenak izango dira morfemak bestelako aldaeretan eta hitzak berex edo beste elkarketetan erabiltzen dituen neurrian), e.a. Baina hiztunak ez daki zein hitz datorren latinetik eta zein ez: *katilu* edo *aitzine* esaten badu, asimilazio bustidurak funtzionatzen ez duelako da; *espillu* edo *iñertu* alboko bustiaz lexikalizatu ditu, G *jan* igurzkari belarek lexikalizatu den bezalaxe ². Azken adibideotan sudurkaria dutenak lexikalizaturik agertzen zaizkigun sail nabarienetako bat dakarkigu gogora.

Zalantzarik gabe gertatzen dena da asimilazioa desagertuta ere (eta Baztan-en i silabagileak sortua desagertutzat eman daiteke), gelditzen direla inoiz oparoagoa izandako bilakabidearen ondorioak, arrastoak. Funtsean, hiztegiaren maila "zaharragoetako" hitzak izaten dira. Horien artean, bustidura tinkoen gordetzen dutenetakoak dira desagertu eta berriz erantsitako sudurkaria dutenak, batez ere ebakin sudurkari berreskuratua lehengo eta

² *Espillu*-n ez dago lexikalizaturikako asimilazioa -ʎ- > -ɣ- baizik. Dena dela, hiztegian dagoen palatala da.

bigarren silabaren artean dagoenean (cf. II.4.3). Horrelakoetan, i-
ren ondorengo asimilaziorik ez duten hizkeretan ere ager daiteke
(ik. VI.5).

Oro har, *n* da asimilazio bustiduraz gehien bustitzen den
fonema (eta zaharrena, cf. II.2.), ozenak direlako hots bustigaien
artean asimilazio emankorrena agertzen dutenak eta *n* gehiagotan
gertatzen delako *l* baino palatalizazio ingurunetan. Anekdotak
moduko honen beste aldeak interes handiagoa izan dezake: sudurkari
palatala gehiagotan izaten da asimilazioaren ondorio gainerako
hots palatalak baino. Esate baterako, Mitxelena-k errepara erazten
digun bezala, oso *ñ* gutxi dago hitz hasieran (asimilazioa aurrekaria
den neurrian, hitz hasiera ezin da izan palatalizazio ingurune)³.

Asimilaziozkoa ez den bustiduraren barruan, VII.ean
aztertutako adibideen ondoren, honako partiketa gutxienez proposa
daiteke:

a) Bustidura adierazgarria.- Hizkera berean oinarritzko kide
bustidurarik gabearen aldaketa semantikoaren ondorio bezala
erabiltzen direnak, pareka erabiltzen direnak, alegia: cf. *bello* /
bero, *pollit* / *polit*, e.a.

b) Jatorri adierazgarriko bustidura.- Hemen sartzen dira
nolabaiteko txikitasuna adierazten dutelako jatorriz adierazgarri
izan daitezkeen bustidura lexikalizatuak eta atzizki txikigarriak
(*gutxi*, *pittin*; *-ñi*, *-tto*, *-txa*, e.a.). Hauen ondoan, erabilkera
adierazgarriko proposak diren hitzak, hizkera egoera berezitzan

³ Donostian, 1985.eko irailean Udako Ikastaroetan emandako hitzaldi batean. Hemen asimilazio
sinkronikoaz ari gara, noski, eta ez Err., aib. aurkitzen diren * /n- > ñ- horiez (cf. FHV 197).

erabil daitezkeenak (*allu, ello*). Sail honetakoak izan daitezke onomatopeiak eta ingurukoak. Txikitasuna zentzu zabalean hartuta, biguntasunarekin, gertutasunarekin, eta abarrekin lotuta, *bellatu* 'remblandecer', *(h)ullan* 'cerca', e.a. ere hemen sartuko dira⁴. Balio hauen kontrakoa agertzen dute jatorri adierazgarria duten zentzu txarreko hitzek. Guzti hauek parean erabiltzen badira, noski, (a) sailekoak dira. Bakarka, hau da, kide oinarritzko neutrorik gabe erabiltzen diren hitzen "adierazgarritasuna" oso subjetiboa izan daiteke. Irtenbide bakarra litzateke euskarazko hiztegia ikuspuntu honetatik aztertzea.

c) Goitizenak, leku izenak eta gainerako izen propioak.- Goitizenak batez ere goikoekin egoten dira maiz lotuak, humorez, haserrez edo maitasunez egindako ahoskera aldaketak izaten bait dira. Atal berezia osatzen dute, dena dela, toponimo eta antroponimoen azterketarako irizpide eta bereziak behar bait dira. Izan ere, izenok sail berezia osatzen dute hizkuntzaren hiztegian.

d) Haur hizkuntza.- Sail hau ere alpatu bustiduraren balio txikigarriarekin estu lotua dago, baina haur eta haurrekiko hizkuntzak baditu hizkuntzaren gainerako ataletatik bereizten duten eta aintzakotzat hartu behar diren lege eta ezaugarriak. Testuinguru horretan aztertu behar da, bada, haur hizkuntzaren bustidura. Garbi agertzen da, esate baterako, aldaketa erregelen eremua hedatu egiten dela helduen bustidurarekin erkatzen bada (oinarritzko edo *input* formak berak ere diferenteak direlarik askotan).

⁴ Nolabait mailaka daitezkeen edukiak adierazten dituzten hitzak dira: cf., bustidura adierazgarria bizien dutenen artean VII. *azal/axal, punta/puntta*, e.a. lk. VII.6.431. *apatx*, erregistro "addierazgarriez".

e) Beste bilakabide fonologikoen ondorioak.- Hemen sartzen dira bustidura atzekariaren arrastoak (Zar. *txauri* < zj-, Zar. *xek* < ziek edo, agian, *lloba*), zenbait afrikatze (B *etxat* -ez zait-, Err. *etxona* -ez jauna-), G *mendiya*, *diyola*, B *diñola* edo *ogixe* bezalako epentesiak eta gainerako *yod*-en ondorio historikoak (GN *yaio*, *yágo* 'más', Err. *xatxi*, *joan*, *xotu*) e.a. Halaber, asimilazio bustidura aurrekariaren ondorio aldatuak: *demonñinua* ⁵. Bestalde, distribuzio ezaugarriak nolabaiteko bilakabide edota bilakaera fonologikoen zantzutzat hartzen badira, hemen dagokie sartzea distribuzio berezia duten zenbait palatalei ere: cf. adib., hitz hasierako II- (ik. VII.1.), ñ- (VII.2.), tx- Err. Z G eta B (M 1954, 147).

f) Mailebatuak.- Batzuetan, besterik gabe, itzulpenean ikusten da hiztunak erderazko hitza bere hortan erabiltzen duela (*atropellu*, *silla*, e.a.). Beste batzuetan, hizkuntza mailebatzaileen historiari dagozkio hots palatalak sortu dituzten bilakaerak (*espillu*, *tella*). Tartekoak ere badaude, alegia, erdaraz agertzen zaigu hots palatal bera, baina hitz bien arteko erlazioa edukian edota forman zertxobait aldatu da (cf. eusk. *itxura*/gazt. *hechura*, e.a.).

g) Ageriko arrazoirik gabeak.- Azkenik, honelako tarte bat egin behar da egungo datuen arauera dagoeneko edo oraindik esplikaziorik ez dutenentzat. Batzuetan, garbi dago etimologiaren arau eta ezaugarrien ezagutza haunditzeak esplikazioa ekar dezakeela --euskara eta inguruan izan dituen hizkuntzen historiaren ikerketak, alegia--. Dena dela, esanahi aldaketaz ari garen neurrian eta esanahi aldaketa mota iheskorrenaz (cf. IV.1),

⁵ Esan beharra dago historikoki euskalkien arteko bereizkuntzak osatzen dituzten zenbait bilakabidek *bleeding* delako eragina duten asimilazio bustiduran: cf. B *ganean*, *ezpana*, eta abarreko bokalerdi galzea, adib.

beharbada ez dugu inoiz jakingo *arraño*, *letaña*, *mirakullu* edo *soñu* zergatik palatalizatu ziren (cf. FHV 183) ⁶.

Ez dago esan beharrik, noski, gerorako lan ugari gelditzen dela. Izan ere, hemen egin dena batez ere lanerako bide eta baldintzak irelkitzea izan dela esan daiteke. Aztertzeke daude hemen dagozkigun bustidura bien zenbait atal: erabilkera fonoestilistikoa, prentsa ereduen eragina, egungo erregelen oparotasuna, erregela fonologiko eta zenbait baliabide morfologikoen erlazioa (cf. Dressler 1985a, 255), e.a., gutxi batzu alpatzearren. Horietaz gainera, badago zer ikertu eta zer esanik euskaraz agertzen diren beste hots palatalei buruz ere. Leku bakoitzeko egoera aztertuko duten monografikoak behar dira, noski.

Lanaren helburua bustidura berez eta ahalik eta datu mota gehien aintzakotzat hartuta ulertzea izan da. Horregatik, bidenabar bakarrik hitz egin da gramatikaren arazo tekniko eta formalez, h.d. gramatikaren eraketaz (cf., II.4.1., adib.). Ixilpean edo, onartu da bi arau, bi printzipio edo bi aldaketaz ari garela eta hots bustiak hizkuntzaren fonologian ez direla benetazko, sekundario edo eratorriak baizik (cf. FHV 180, 373). Badirudi antzeko zerbait esan daitekeela «tinbre korrelazio» hau duten gainerako hizkuntzez ere (ik. Trubetzkoy 1970, § 4.A).

⁶ Asimilazio bustiduraren esplikazioan *free-ride* delako fonologi printzipioa onartuko bagenu, hemen benetazko bustidura adierazgarriaz gainekoak ere i abstraktu baten eraginaz azaltzera behartuak egongo ginateke (cf. Dressler 1985a, 191). Hau da Salaburu-rengan aurkitzen dena (Salaburu 1983, 302).

Ez da erabaki bustidura adierazgarria erregela fonologiko hutsa den ala forma adierazgarriak ere hiztegian dauden nolabait (nahiz eta bigarren hau izan ahopeka ontzat eman dena). Izan ere, hemen dagokigunerako, berdín da. Garrantzitsuena da aldaketa sintagmatiko, mekaniko, asimilaziozkoa eta adierazgarria bereiztea eta bataren zein bestearen mugak hizkuntzaren fonologiaren barruan ezartzea, behar bada datu historikoak ere erabiliaz. Gero dator muga horien formalizazioa eta fonologi sinkronikoaren eraketa⁷.

⁷ Honek ez du esan nahi arazo horiek zenbait erabaki praktikotan eraginik ez dutenik. Cf. egungo palatalen ahoskera eta grafiez: Euskaltzaindia 1979, 91-92; Salaburu / Kintana 1984, 24-25; Zalbide et al. 1982, 138.

BIBLIOGRAFIA •

*_____. *Le petit Catéchisme espagnol du P. Astete traduit en trois dialectes basques (...)*. L.L. Bonaparte, ed. Londres, 1869.

*_____. *Canticum Trium Puerorum (...)*. L. L. Bonaparte. Londini, 1858.

*Aguire, Juan Bautista. 1850. *Eracusaldia*. Tolosa; facs. San Sebastián: Hordago (Lur).

Alarcos Llorach, Emilio. 1974. *Fonología Española* ⁴. Madrid: Gredos.

Alberdi Larizgoitia, Javier. 1986. "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II Markinaldeko kasua". *ASJU* XX-2 (419-486).

Allen, W. S. 1957. "Some problems of palatalization in Greek". *Lingua* 7, 2 (113-133).

Alonso, Amado. 1923. "Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés". *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián (57-64).

Alvar, Manuel. 1969. *El Dialecto Riojano*. México: Universidad Nacional Autónoma de México.

Aoki, Haruo. 1962. "Nez Perce and Northern Sahaptin: a binary comparison". *International Journal of American Linguistics* 28 (172-182).

Arbelaiz, J. J. 1978. *Las Etimologías Vascas en la Obra de Luis Michelena*. Tolosa: Librería Técnicas de Difusión.

• Izartxoia duten lanak iturri bezala (ere) erabili dira. Obra baten bertsio bat kortxete artean agertzen denean, ez da bertsio hori erabili dena. Bestela, kortxeterik ez dagoenak, berriena da erabili dena.

- *Archu, J. B. 1868. *Bi Mihiren Gramatika. Uskara eta Franzesa*. Baiona: Impr. Lasserre; facs. San Sebastián: Hordago (Lur).
- Ariste, Paul. 1982. "Emotsionaalne palatalisatsioon eesti keeles". *Voces Amicorum Sovijärrvi in honorem Antti Sovijärvi. Mémoires de la Société Finno-Ougrien* 181 (57-62) ••.
- Armond, R. C. de. 1966. "'Palatal' and 'palatalized' redefined". *Canadian Journal of Linguistics* 11, 2 (109-113).
- Astarloa, Pedro Pablo. 1883. *Discursos Filosóficos sobre la Lengua Primitiva*. Bilbao.
- Axular, P. de. 1643. *Guero-ren «Iracurtçailleari»*. Burdeos; facs. *R/EV* IV, 1910 (433-438).
- Azkue, Resurrección M^a de. 1891. *Euskal Izkindea*. Bilbao: Tipografía José de Astuy.
- _____. 1919. "Fonética vasca". *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao (456-480).
- _____. 1925. "The Basque dialect of Marquina, por el escocés Dr. William Rollo, graduado en la universidad de Leiden". *R/EV* XVI (563-569).
- *_____. 1927. "Aezkera edo Petiriberf o-inguruetako mintzaera". *Euskera* VIII-3,4 (179-300).
- *_____. 1931. "Particularidades del dialecto roncalés". *Euskera* XI-1 (207-406).
- *Barandiaran, José Miguel. 1973. *Obras Completas. Eusko Folklore*. II. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

- *Berriochoa, V. 1962. "El vocabulario inédito de «Zubigar». *Euskera* VII (43-58).
- Bhat, D. N. S. 1978. "A general study of palatalization". *Universals of Human Language*. II. Joseph H. Greenberg, ed. Stanford: University Press (48-92).
- Boas, Franz. 1911. "Diminutive and augmentative consonantism in Chinook and Kathlamet". *Handbook of American Indian Languages* (Bureau of American Ethnology-Bulletin 40:1). Washington: Smithsonian Institution (645-646).
- Campbell, Lyle. 1974. "Quichean palatalized velars". *International Journal of American Linguistics* 40, 2 (132-134).
- Campión, Arturo. 1883. *Ensayo acerca de las Leyes Fonéticas de la Lengua Euskara*. San Sebastián: Hijos de I. R. Baroja.
- Chomsky, Noam / Morris Halle. 1968. *The Sound Pattern of English*. New York: Harper and Row.
- Cohen, David. 1969. "Why the Slavic 'Second Palatalization' comes first". *Papers from the Fifth Regional Meeting. Chicago Linguistic Society*. 5 (306-313).
- Contreras, Heles / Conxita Lleó. 1982. *Aproximación a la fonología generativa*. Barcelona: Anagrama.
- Corum, Claudia. 1972. "Palatalization phenomena in Basque". *ASJU* VI (29-34).
- Cowan, H. K. J. 1959. "Phonostatistical diagnosis of loanwords". *Studia Linguistica* 13 (1-28).
- Crawford, James M. 1970. "Cocopa baby talk". *International Journal of American Linguistics* 36 (9-13).
- Darden, Bill J. 1970. "The fronting of vowels after palatals in Slavic". *Papers from the Sixth Regional Meeting. Chicago Linguistic Society*. 6 (459-470).

- De Rijk, Rudolf P. G. 1981. "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera". *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (83-101).
- Drage, C. L. 1967 a. "Factors in the regressive palatalization of consonants in Russian". *Zeitschrift für Phonetik, Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 20-1,2 (119-142).
- Drage, C. L. 1967 b. "Changes in the regressive palatalization of consonants in Russian since 1870". *Zeitschrift für Phonetik, Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 20-3 (181-206).
- Dressler, Wolfgang U. 1985a. *Morphonology: the Dynamics of Derivation*. Ann Arbor: Karoma Press.
- _____. 1985b. "Explaining Natural Phonology". *Phonology Yearbook* 1 (29-50).
- _____. / Ruth Wodak. 1982. "Sociophonological methods in the study of sociolinguistic variation in Viennese German". *Language in Society* 11 (339-370).
- Dunatov, Rasio. 1963. "Palatalized and palatal--A definition". *Slavic and East European Journal* 7, 4 (401-404).
- Echaide, Ana M^a. 1966. "Castellano y vasco en contacto. Tendencias fonéticas vascas en el castellano de los vascoshablantes bilingües". *BRAE* LXVI (513-523).
- _____. 1974. "Ordenación cartográfica de algunos datos del "Erizkizundi Irukoitza (Triple Cuestionario)". *ASJU* VIII (113-173).
- _____. 1976. "Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de «l» y de «n» debidas al contexto fónico en los dialectos vascos (...)". *FLV* XXIII (163-169).
- *Echebarria, Toribio. 1956. "Otsua t'arkumia", "Goiztar-Mitxeleta". *Euzko Gogoia* VII (10, 14).

- *_____ 1957. "Anai ondatua", "Gizatua amoretsuan",
"Neskatxa maitetsu". *Euzko Gogoia* VIII (9-11).
- *_____ 1959. "Giz-izakera biak", "Jerusalem argitsua"
Olerki II (106-111), IV (228-229).
- *_____ 1960. "Berbia". *Olerki* II (88).
- *_____ 1965-1966. "Léxicón del euskera dialectal de Eibar".
Euskera X-XI [ale osoa].

Echenique Elizondo, M^a Teresa. 1980. "Los vascos en el proceso de nivelación lingüística del español americano". *Revista Española de Lingüística* 10-1 (177-188).

_____. 1984. *Historia Lingüística Vasco-Románica. Intento de Aproximación*. San Sebastián: C.A.P. [= Madrid: Paraninfo, 1987].

*Echenique, Bruno. 1980. *Baztango Euskalkiaz (I): Bruno Echenike-k Egindako Itzulpenak Bonaparteren Eskakizunez*. Pello Salaburu Etxeberria, ed. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.

Etxegarai, Karmelo. 1926. "Karmelo Etxegarai jaunak, Euskaltzaindian sartu zan egunean irakur itako lana (...)". *Euskera* VII (8-25).

Euskaltzaindia. 1979a. "Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia". *Euskera* Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak. Bilbao: Euskaltzaindia (21-22). [= *Euskera* XXIV (91-92)].

_____. 1979b. Bergarako Biltzarreko "Elkarrizketa". *Euskera* XXIV (639-641).

Foster, Mary L. / George M. Foster. 1948. *Sierra Popoluca Speech*. Washington: Smithsonian Institution.

Fry, D. B. 1982. *The Physics of Speech*³. Cambridge: Cambridge University Press.

Gavel, Henri. 1920. "Éléments de phonétique basque". *RIEV* XII [ale osoa].

_____. 1923. "De fonética gramatical". *Terceiro Congresso de Estudos Vascos*. San Sebastián (65-70).

*Gèze, Louis. 1873. *Éléments de Grammaire Basque. Dialecte Souletin (souivis d'un vocabulaire basque-français et français-basque)*. Bayonne: Impr. de Veuve Lamoignon; facs. San Sebastián: Hordago (Lur).

Gorrochategui, Joaquín. 1976. "El latín en el marco del consonantismo itálico". Memoria de Licenciatura. Universidad de Salamanca.

Grammont, Maurice. 1971. "Les consonnes mouillées". *Traité de Phonétique* 9. Paris: Librairie Delagrave. [1933 inguruan idatzia].

Greenberg, Joseph H. 1941. "Some problems in Hausa phonology". *Language* 17 (316-323).

Grimes, James L. 1969. "The palatalized velar stop in Proto-Quichean". *International Journal of American Linguistics* 35, 1 (20-24).

Haas, Mary R. 1970. "Consonant Symbolism in Northwestern California: a problem in diffusion". *Languages and Cultures of Western North America: Essays in Honor of Svends S. Liljeblad*. Earl H. Swanson, Jr., ed. Pocatello: Idaho State Univ. Press (86-90).

Hashimoto, Mantaro J. 1970. "Internal evidence for ancient Chinese palatal endings". *Language* 46, 2 (336-365).

Hockett, Charles F. 1956. "Central Algonquian /t/ and /c/". *International Journal of American Linguistics* 22 (202-207).

Holmer, Nils. 1950. "Las relaciones vasco-celtas desde el punto de vista lingüístico". *BAP* VI (399-415).

- * _____ / Vania Abrahamson de Holmer. 1968, 1969.
"Apuntes vizcaínos" I-II. *ASU* II (87-141) eta III
(171-228).
- Hooper, Joan B. 1979. "Substantive principles in natural generative phonology". *Current Approaches to Phonological Theory*. Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: Indiana University Press (106-125).
- Houlihan, Kathleen / Gregory K. Iverson. 1979. "Functionally constrained phonology". *Current Approaches to Phonological Theory*. Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: Indiana University Press (50-73).
- Hurch, Bernhard. 1985. "Über Aspiration", Dokt. Tesia Univ. Wien.
[= Iaster, Tübingen: Narr].
- _____. 1986. "Some considerations on the phonological nature of Rafforzamento Sintattico". *Quaderni dell'Istituto di Linguistica dell'Università di Urbino* 4 (93-114).
- Hyman, Larry. 1970. "The role of borrowing in the justification of phonological grammars". *Studies in African Linguistics* 1 (1-48).
- Irigoyen, Alfontso. 1962. "Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923). *Euskera* VII (135-193).
- _____. 1979. "Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz; Txillardegi-k Bergarako Biltzarretarako bidali duen lanari oharrak". *Euskara* XXIV (631-638).
- Iverson, Gregory K. 1983. "Korean s". *Journal of Phonetics* 11 (191-200).
- _____. / Miren L. Oñederra. 1985. "On Basque palatalization". *Folia Linguistica* XIX-1, 2 (51-61).
- _____. / Gerald A. Sanders. 1982. "On the government of phonological rules by laws". *Studies in Language* 6.1 (51-74).

- *Izagirre, Kandido. 1959, 1961. "Erronkariko euskal-ondakin batzuk". *BAP* XV, 3 (279-314), XVII, 4 (391-407).
- *Izaguirre, Cándido. 1971. *El Vocabulario Vasco de Aránzazu-Oñate y Zonas Colindantes*. Luis Villasante, ed. San Sebastián: A.S.J.U.
- Jeffers, R. J. / I. Lehiste. 1980. *Principles and Methods for Historical Linguistics*². M.I.T.
- Kawasaki, Haruko / Ohala, John J. 1984. "Prosodic phonology and phonetics". *Phonology Yearbook* 1 (113-127).
- Kiparsky, Paul. 1968. *How abstract is phonology*. Bloomington: Indiana University Linguistics Club. [= O. Fujimura, ed. *Three Dimensions of Linguistic Theory*. Tokyo, 1973: TEC Corporation (5-56)].
- . 1973. "Case studies". *Three Dimensions of Linguistic Theory*. O. Fujimura, ed. Tokyo: TEC Corporation (87-129).
- . 1976. "Abstractness, opacity and global rules". *The Application and Ordering of Grammatical Rules*. Andreas Koutsoudas, ed. The Hague: Mouton (160-186).
- Kirton, Jean F. / Bella Charlie. 1978. "Seven articulatory positions in Yanyuwa consonants". *Pacific Linguistics* A-51 (179-197).
- Ladefoged, Peter. 1971. *Preliminaries to Linguistic Phonetics*. Chicago: University Press; rpt. Midway 1981.
- . 1975. *A Course in Phonetics*. New York: Harcourt, Brace and Jovanovich.
- . 1979. "The value of phonetic statements". *Phonetics in Linguistics. A Book of Readings*. W.E. Jones & J. Laver, eds. London & New York: Longman (218-228).

- Lafon, René. 1933. "Sur le traitement de ü devant le groupe «r plus consonne» en souletin". *RIEV* XXIV (173-175).
- _____. 1934. "Sur quelques cas de dilation vocalique régressive". *RIEV* XXV (666-671).
- _____. 1952. "Études Basques". *Études Basques et Caucasiques*. Salamanca: Acta Salmantica. Universidad de Salamanca (11-21).
- _____. 1955. "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques". *Pirineos* XI, 35-38 (109-130).
- _____. 1958. "Contribution à l'étude phonologique du parler de Larrau (Haute Soule)". *Miscelánea Homenaje a André Martinet*. Diego Catalán, ed. II. Universidad de La Laguna (77-106).
- Laka, Itziar. 1985. "Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz". *ASJU* XIX-1 (219-234).
- Langdon, Margaret. 1971. "Sound symbolism in Yuman Languages". *Studies in American Indian Languages*. J. Sawyer, ed. Berkeley-Los Angeles: Univ. of California Press (149-174).
- Larramendi, Manuel de. 1729. *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada*; facs. San Sebastián, 1984: Hordago (Lur).
- *Larrasquet, Jean. 1931, 1934. "Beñat, Larrajáko belhagilii". *RIEV* XXII (229-240), XXVI (137-145).
- *_____. 1932. "Phonétique du Basque de Larrajá (quartier de Barcus)". *RIEV* XXIII (153-191).
- *_____. 1934. *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris: 1934.

- *Lizarraga, Joakin. 1979 [1803]. *Dotrina Christioaren Catechima. I, Fede Christioaren gain*. Juan Apecechea, ed. Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana y Euskaltzaindia.
- Llorente Maldonado de Guevara, A. 1965. "Algunas características lingüísticas de La Rioja en el marco de las hablas del Valle del Ebro y de las comarcas vecinas de Castilla y Vasconia". *RFE* 48, III-IV (321-350).
- Lochac, Dorita. 1960. "Basque phonemics". *Anthropological Linguistics* 2, 3 (12-31).
- Martin, Samuel E. 1962. "Phonetic symbolism in Korean". *American Studies in Altaic Linguistics* Nicholas Poppe. Bloomington: Indiana University (177-189).
- Martinet, André. 1949. "Occlusives and affricates with reference to some problems of Romance phonology". *Word* 5, 2 (116-122).
- _____. 1951. "Concerning some Slavic and Aryan reflexes of IE s". *Word* 7, 2 (91-95).
- _____. 1970. *Économie des Changements Phonétiques (Traité de Phonologie Diachronique)*³. Berne: A. Francke. Bibliotheca Romanica.
- Menéndez Pidal, Ramón. 1962. *En torno a la Lengua Vasca*. Buenos Aires: Espasa Calpe.
- _____. 1973. *Manual de Gramática Histórica Española*¹⁴. Madrid: Espasa Calpe.
- Meyer-Lübke, W. 1923. "La organización de los estudios lingüísticos en la Universidad Vasca". *Actas del Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián (149-154).
- _____. 1924. "La desaparición de la n en vascuence". *RIEV* 15 (224-238).

- Michelena, Luis. 1951a. "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas". *BAP* VII (539-549).
- _____. 1951b. "La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet". *BAP* VII (571-582).
- * _____. 1954. "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal". *Via Domitia* I (124-157).
- _____. 1956a. Juan Antonio Moguel-en *El doctor Peru Abarca*-en erres. *BAP* XII-2 (236).
- _____. 1956b. Fredrick Jungemann-en *La teoría del Sustrato y los Dialectos Hispano-Romances y Gascones*-en erres. *BAP* XII-1 (117-129); rpt. *Lengua e Historia*. Madrid: Paraninfo, 1985 (310-320).
- _____. 1958. "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado pos el príncipe Bonaparte". *BAP* XIV-3 (1-32).
- _____. 1960. "Johannes Hubschmid, Mediterrane Substrate mit besonderer Berücksichtigung des Baskischen und der west-östlichen Sprachbeziehungen" [erres.]. *BAP* XVI (239-242).
- _____. 1964. *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*. San Sebastián: Auñamendi.
- * _____. 1967. "Notas fonológicas sobre el salacenco". *ASJU* I (163-177).
- _____. 1969. "Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache»". *FL* VI (1-59).
- _____. 1972a. "Distribución defectiva y evolución fonológica". *Revista de Lingüística Española II. Studia Hispanica in Honorem R. Lapesa* (337-349); rpt. *Lengua e Historia*. Madrid: Paraninfo, 1985 (240-252).

- _____. 1972b. "Etimología y transformación". *Homenaje a Antonio Tovar*. Madrid: Gredos, (305-317); rpt. *Lengua e Historia*. Madrid: Paraninfo, 1985 (296-308).
- _____. 1972c. "Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca". *FLV* IV, 10 (5-25).
- _____. 1974. "El elemento latino-románico en la lengua vasca". *FLV* VI, 17 (183-209).
- _____. 1977a. *Fonética Histórica Vasca*². San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.
- _____. 1977b. "Notas sobre compuestos verbales vascos". *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*. XXXII I, 1-4 (243-271).
- _____. 1978-79. "El texto de Peru Abarca". *ASJU* XII-XIII (201-224).
- _____. 1978. "Miscelánea filológica vasca". II. *FLV* X, 30 (389-413).
- _____. / Angel Irigaray. 1955. "Nombres vascos de persona". *BAP* XI (404-425).
- *Moguel, Juan Antonio de. 1881. *El Doctor Peru Abarca, Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte ó Diálogos entre un Rústico Solitario Bascongado y un Barbero Callejero LLamado Maisu Juan*. Durango; facs. Durango: Gerediaga 1981.
- Moutard, Nicole. 1975-1976. "Étude phonologique sur les dialectes basques". I-III. *FLV* VII, 19 (5-42), 20 (141-189); VIII, 22 (9-54).
- Nadeau, O. 1979. "Za, sa, cha, ca, articles occitans et le latin IPSA(M). Un cas de dépendence de la morphosyntaxe par rapport à la phonétique". *Romance Philology*. XXXII, 4 (397-410).

- Naro, Anthony J. 1971. "Directionality and assimilation". *Linguistic Inquiry* 2, 1 (57-67).
- Navarro Tomás, Tomás. 1921. "Metodología de la fonética". *Curso de Lingüística. Introducción al Estudio de la Lingüística Vasca (...)* de R. Menéndez Pidal. Sociedad de Estudios Vascos, ed. Barcelona: Tipografía "La Académica" de Serra y Rusell.
- *_____. 1923. "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica". *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián (49-56).
- *_____. 1925. "Pronunciación guipuzcoana". *Homenaje a Menéndez Pidal*. III. Madrid (593-653).
- _____. 1972. *Manual de Pronunciación Española 17*. Madrid: Revista de Filología Española.
- N'Diaye, Geneviève. 1970. *Structure du Dialecte Basque de Maya*. The Hague-Paris: Mouton.
- Nichols, Johanna. 1971. "Diminutive consonant symbolism in Western North America". *Language* 47, 4 (826-848).
- Nolan, Francis. 1983. *The Phonetic Bases of Speaker Recognition*. Cambridge: University Press.
- Núñez Astrain, Luis C. 1976. "Fonología consonántica de un idiolecto del euskera de Zuberoa". *ASU X* (153-173).
- Oihenart, A. d'. 1657. *Les Proverbes Basques recueillis par le Sr. d'Oihenart plus les Poésies Basques du Meme Auteur* ("Préface"). Paris; facs. *RIEV* XXVI, 1935 (201-212).
- *Ondarra, Francisco. 1965. "Voces vascas de Bacáicoa". *BAP* XXI-3, 4 (387-412).
- Oñederra, Miren Lourdes. 1986. "From automatic assimilation to sound symbolism". *ASU XX-1* (67-74).

- Palmer, Leonard. 1975. *Introducción Crítica a la Lingüística Descriptiva y Comparada*. Madrid: Gredos.
- Pensado, Carmen. 1985. "El cierre de las vocales romances ante una palatal y su motivación articulatoria". *Symbolae Ludovico Mitxelena*. J.L. Melena, ed. Vitoria: U.P.V./E.H.U. (639-645).
- _____. 1985b. "On the interpretation of the non-existent: non-occurring syllable types in Spanish phonology". *Folia Linguistica*. XIX, 3-4 (313-320).
- Phillips, Betty S. 1984. "Word frequency and the actuation of sound change". *Language* 60, 2 (320-342).
- Powllison, Paul S. 1962. "Palatalization portmanteaus in Yagua". *Word* 18, 2 (280-299).
- *Rollo, William. 1925. *The Basque Dialect of Marquina*. Amsterdam: H. J. Paris.
- _____. 1926. "Contestación al juicio crítico del Señor Resurrección M^a de Azkue respecto de «The Basque Dialect of Marquina»". *RIEV* XVII (620-623).
- Ros, Ander. 1986. "Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: alokuzioa". *Enseiucarrean* 2 (5-54).
- Rousselot, Pierre Jean. 1897-1908. *Principes de Phonétique Expérimentale*. Paris: H. Welter; rpt. Paris: Didiet 1924-1925.
- *Salaburu Etxeberria, Pello. 1984. *Hizkuntz Teoria eta Baztango Euskalkia. Fonetika eta Fonologia*. I, II. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea ***.
- _____. / Xabier Kintana. 1984. *Euskara Hobe*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

*** Lana zehar agertzen den Salaburu 1983 honen bertsio argitaragbea da (1983.ean Gasteizko Filologia eta Geografia/H^a Fakultatean aurkeztu doktorego tesia).

- Sapir, Edward. 1911. "Diminutive and augmentative consonantism in Wishram" *Handbook of American Indian Languages*. (Bulletin 40: 1-Bureau of American Ethnology). Franz Boas, ed. Washington, D.C.: Smithsonian Institution (638-645).
- _____. 1915 "Abnormal types of Speech in Nootka". *Canada Geological survey*. 62, 5. Ottawa; rpt. *Selected Writings*, D.G. Mandelbaum, ed. Berkeley-Los Angeles: Univ. of California Press 1949 (179-196).
- _____. 1929. "A study in phonetic symbolism". *Journal of Experimental Psychology*. 12 (225-239); rpt. *Selected Writings*, D.G. Mandelbaum, ed. Berkeley-Los Angeles: University of California Press 1949 (61-72).
- Sarasola, Ibon. 1985. "Berezi/berexi/bereizi literatur tradizioan". *Symbolae Ludovico Mitxelena*. J. L. Melena, ed. Vitoria: U.P.V./E.H.U. (937-941).
- Saroĩhandy. 1923. "Doctrina gramatical de Oihenart". *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián (41-46).
- Schane, Sanford A. 1971. "The phoneme revisited". *Language* 47-3 (503-521).
- Schmalstieg, William R. 1964. "Palatalized and palatal--A sharp compact acute definition". *Slavic and East European Journal* 8-2 (182-183).
- Schuchardt, H. 1913. "Baskisch-hamitische Wortvergleichen". *RIEV* VII (289-340).
- Sinor, Denis. 1952. "Toungouze: étude interne". *Les Langues du Monde*. A. Meillet, M. Cohen et al., ed. Paris (392-401).
- Solé Sabater, M. José. 1984. "La experimentación en fonética y fonología". *Estudios de Fonética Experimental*. I. Barcelona: Laboratorio de Fonética, Facultad de Filología, Universidad de Barcelona.(1-70).

- *Soroa, Marcelino. 1963. *Baratzan*. A. Zavala, ed. San Sebastián: Auspoa. [= *Euskal-Erria*, 1886].
- Spitzer, Leo. 1934. "Les diminutives basques avec -ch-". *RIEV* XXV (353-359).
- Stankiewicz, Edward. 1972. "Problems of Emotive Language". *Approaches to Semiotics* 2. Thomas A. Sebeok, ed. The Hague-Paris: Mouton (239-264)..
- Straka, Georges. 1965. "Naissance et disparition des consonnes palatales dans l'évolution du latin au français". *Travaux de Linguistique et de Littérature*. III, 1 (117-167).
- Trask, R. L. "On the reconstruction of Pre-Basque phonology". *Symbolae Ludovico Mitxelena*. J. L. Melena, ed. Vitoria: U.P.V./E.H.U. (885-891).
- Troubetzkoy, N. S. 1970. *Principes de Phonologie*. Paris: Klincksieck.
- Txillardegi [J. L. Alvarez Enparantza]. 1980. *Euskal Fonologia*. San Sebastián: Ediciones Vascas.
- Uhlenbeck, C. C. 1909a, 1910. "Contribution à une phonétique comparative des dialectes basques". I-II. *RIEV* IV (465-503), V (65-119).
- _____. 1909b. "Suffixes du Basque servant à la dérivation des mots". *RIEV* IV (1-16).
- Ullan, Russell. 1970. "Size-sound symbolism". *Universals of Human Language*. II. Joseph H. Greenberg, ed. Stanford: University Press (525-568) [= *Working Papers on Language Universals*. 3, 1970 (1-31)].
- Urgell, Blanca. 1985. "Literatur bizkaieraz: Añibarroren esku-liburua". *ASJU* XIX-1 (67-117).

Urquijo, Julio de. 1908a, 1910. "Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores". *RIEV* II (215-221, 655-659), IV (233-297).

_____. 1908b. "Los refranes Vascos de Sauguis traducidos y anotados". *RIEV* II (677-724).

Urte, Pierre d'. 1900. *Grammaire Cantabrique Basque*. Bagnères de Bigorre: Société Ramond. [1712 inguruan idatzia].

Valle Lersundi, F. del. 1933, 1934. "Una forma del femenino y el valor de la letra <ch> como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI". *RIEV* XXIV (176-181), XXV (192-194).

Vennemann, Theo. 1972. "Rule Inversion". *Lingua* 29 (209-242).

Villasante, Fr. Luis. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*². Edit. Aránzazu.

Vogt, H. 1954. "Phoneme classes and phonemic classification". *Word* 10 (28-34).

Wang, William S.-Y. 1969. "Competing changes as a cause of residue". *Language* 45, 1 (9-25).

Wartburg, Walther von. 1954. "Le Französisches Etymologisches Wörterbuch: évolution et problèmes actuels". *Word* 10 (288-305).

Yrizar, Pedro de. 1981. *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*. San Sebastián: C.A.P.

Zachariassen, U. 1970. "Domaine germanique. The palatalizing of g and k in Faroese. Reply to Mr. Sigurd Amundsen". *Orbis* 19, 1 (89-93).

Zalbide, M. et al. 1982. *Maileguzko Hitzak: Ebakera eta Idazkera*. Donostia: U.Z.E.I.

Zamarripa, P. de. 1914. "De fonética vasca". *Manual del Vascófilo*. Bilbao.

_____. 1915. *Gramática Vascongada*. Bilbao: Imprenta de José A. de Lerchundi.

_____. 1935. *Firi-firi (Ipuin ta naste) (...)* Bermeo: Imprenta Gaubeka.

Zarate, Mikel. 1976. *Influencias del vascuence en la lengua castellana (...)*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.